# Getaria

## 1936-1945

Giza Eskubideen zapalketa eta errepresioa
Gerra Zibilean eta Lehen Frankismoan



II. Liburukia
Volumen II



**Ione Zuloaga Muxika**
(Azkoitia, 1995)

Euskal Herriko Unibertsitatean Historian Graduatua eta Aranzadi Zientzia Elkarteko ikerlaria. Horrez gainera, Historia Garaikidean espezializatua da, Euskal Herriko Unibertsitatean burututako masterra izaki.

Sustatzailea
Promotor

Getariako Udala

Laguntzaileak
Colaboradores

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputatu Nagusia
Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritza Nagusia
Dirección General de Convivencia y Derechos Humanos

Memoriaren,
Bizikidetzaren eta
Giza Eskubideen
Institutua
gogora
Instituto de la Memoria,
la Convivencia
y los Derechos Humanos

# Getaria

## 1936-1945

### Giza eskubideen zapalketa eta errepresioa
### Gerra Zibilean eta Lehen Frankismoan

Ione Zuloaga Muxika

Getaria 2020

aranzadi
zientzia elkartea

**PROIEKTUAREN ERAGILEA**
Getariako Udala

**PROIEKTUAREN KOORDINAZIOA**
Juantxo Agirre-Mauleon, Javier Buces Cabello.

**IKERLARI KOLABORATZAILEAK**
Karlos Almorza, Iraitz Arizabaleta, Javier Buces, Iñaki Egaña, Francisco Etxeberria, Miren Garcia, Lourdes Herrasti, Marijose Hernández, Rebeca Martínez, Leire Padilla, Olatz Retegi, Eneko Sanz, Maider Urretabizkaia.

**ESKERRAK**
Idoia Arrieta Elizalde, Durango 1936 Kultur Elkartea, Itziar Erentxun, Mikel Errazkin Agirrezabala, Victoria Fernández Díaz, Amagoia Gurrutxaga Uranga, Floren Iribar, Oihane Mendizabal Sandonís, Juan Luis Urresti, ahotsak.eus, Euskal Memoria Fundazioa, Getariako udal-langileak eta herritarrak. Ikerketa honetan zehar, testigantza eman, dokumentazioa biltzen lagundu eta beti laguntzeko prest egon diren guztiei.

**DIGITALIZAZIOA**
Anais Rodriguez, Aranzadiko Artxibo Orokorra.

**EDUKIAREN ZUZENTZAILEA**
Karlos Almorza.

**AZALEKO ARGAZKIAK**
Getariako ikuspegi orokorra. (Pascual Marin Funtsa). Hipolita Urresti, Bautista eta Jose Angel Kerejeta Urresti semeekin. (Senideek emandako argazkia). Getariar gudariak Bou Gipuzkoan goardia egiten. (Peru Ajuria Artxibategia). Bou Nabarrako tripulazioa (Untzi Museoko Agiritegia).

**ARANZADI ZIENTZIA ELKARTEA**. Zorroagagaina 11. Donostia-San Sebastián 20014. Tfnoa.: 943466142. www.aranzadi.eus

Egilea/Autora
Ione Zuloaga Muxika

Maketazioa/Maquetación
TamTam S.L.

Imprimatzen du/Imprime
Gráficas Iratxe S.A.

ISBN 978-84-17713-32-4 (O.C.)
ISBN 978-84-17713-33-1 (1. libk.)
ISBN 978-84-17713-34-8 (2. libk.)

L.G. D 01284-2020

# Aurkibide orokorra

4. ERREPRESIOA GETARIAN: GETARIARREN AURKA LEHEN FRANKISMOAN ........ 07
- 4.1. UDAL FRANKISTAREN OSATZEA ........ 08
- 4.2. ORDENA BERRIA EZARTZEKO TRIKIMAILUAK ........ 13
- 4.3. EMAKUME GETARIARRA, ASKATASUN MUGATUAK LORTZETIK, MENPEKOTASUNERA ........ 40
- 4.4. ERBESTEKO KONTZENTRAZIO-ESPARRUAK ........ 75
- 4.5. ENPLEGATU PUBLIKOAK BOTATZEA ........ 84
- 4.6. ERREPRESIO EKONOMIKOA ........ 98
- 4.7. KARTZELA ETA KONTZENTRAZIO-EREMUETAN PRESO EGONDAKO GETARIARRAK ........ 103
- 4.8. ATZERAGUARDIAKO ERREKETE GETARIARRAK ........ 131
- 4.9. GETARIAN FUSILATUAK ETA GETARIAR FUSILATUAK ........ 133
- 4.10. GETARIA ETA ALEMANIAR NAZIAK ........ 137

5. LEKUKOTZAK ........ 143
6. MEMORIAREN AURPEGIAK ........ 159
7. ERANSKINAK ........ 251
8. INDIZE ONOMASTIKOA ........ 265
ITURRIAK ETA BIBLIOGRAFIA ........ 275

Elkanoren lehorreratzean, 1937an, Eugenio Egurbide alkatea
eta Jose Maria Huarte Jauregi Zarauzko Komandantzia Militarreko
komandantea, garaiko zenbait militarrekin batera. (Pascual Marin Funtsa).

# 4.

# ERREPRESIOA GETARIAN: GETARIARREN AURKA LEHEN FRANKISMOAN



1936ko irailaren 20a, egun iskanbilatsua izan zen Getarian. Herriko Defentsa Batzordeak, Getariako biztanleria ebakuatzeko agindua eman zuen. Logikoa denez, ekintza politikoagatik edo beste arrazoiren batengatik frankisten errepresioa jasan zezaketen getariarrak baino ez ziren ebakuatu. Beste batzuk, beren familia kideak euskal nazionalistak zein errepublikazaleak izan arren, Getarian bertan geratzeko erabakia hartu zuten, errepresiorik jasan beharrik ez zutelakoan. Azkenik, haien errepresiorik jasan ez zezaketen eta handik aurrera errepresio frankistaren aparailuaren parte izango ziren getariarrak ere kostaldeko herri arrantzalean geratu ziren:

“**M:** Ta orduan banekan, hemengua nuan nobixua eta hain xuxen, estadun gelditu nintzen gerra denboran. Ta zer da ta, gerra jun tzian, hemen ibili zian da geo (…) setienbrian, 20yan, seitun etorriko ziala ta, barkuan jun tzian gerrara. Ta hura esan seitun etorriko ziala ta geyo etorri ez! Geo han nunbait zeakin iten zuan, lana ite zuan minakin eo, itsasuan jartzen eo, eta eun batean mina eo lehertu zitzakon ta han gelditu! 24 urtekin…”[527].

Frankistak, naziek emandako mina ezberdinak, aurreko kapituluan azaldu gisan, kostaldean ezarri zituzten eta Euskadiko Gudontzidia hauek desaktibatzeaz arduratu zen. Euskal gudari zein milizianoek ordea, ezin izan zituzten mina haiek guztiak desaktibatu eta gerraoste betean eta gaur egundaino, zenbait mina agertzen ziren eta dira gure kostaldean zein Mediterraneoko kostaldean.


BUQUES MERCANTES LLEGADOS. — A primera hora de ayer llegó, procedente de Palma de Mallorca, la motonave «Ciudad de Palma», conduciendo pasajeros, la valija y carga general. De la misma procedencia recaló el pailebote «Cala Pi», con efectos diversos, y de San Feliu de Guixols, el vapor «María R.», con carga general.

BUQUES SALIDOS. — Para los puertos que se indican salieron los buques siguientes: Vapores «José Illueca», en lastre, para Valencia; «Saturno», en lastre, para la mar; «Bachi», en lastre, para Sagunto, y «Villarreal de Alava», en lastre para la mar; los pailebotes «Manuel», con cemento, para Cartagena; «José Alberto», en lastre, para Valencia; «Engenio» y «Buen Amigo», en lastre, para Vallcarca, y la motonave «Ciudad de Palma», para Palma de Mallorca, llevando-

MINAS A LA DERIVA EN LA COSTA VASCONGADA. — La Ayudantía de Marina de Lequeitio comunica que la tripulación del vapor de cabotaje «Chacartegui, núm. 1», han visto tres minas que marchaban a la deriva en la costa vascongada, exactamente en la ruta de Pasajes a Guetaria, lo que se advierte a los navegantes en general, con el objeto de evitar posibles accidentes.

**Mina frankistak gerraostean euskal kostaldean, 1942/12/30.**
(La vanguardia Española).

## Getariako bigarren errepublikako azken udalbatza[528]

**ALKATEA**
Antonio Alegria Lasa

**Zinegotziak:**
-Fructuoso Arregi Leizaola
-Cecilio Idiakez Indo
-Sebastian Iribar Ulazia
-Genaro Basterretxea Santamaria
-Jose Isasti Azpeitia
-Julian Ulazia Unanue
-Primitivo Urbieta Embil

“**E: baina gero egongo da garai bat oso markatuta utziko dizuena ez? J:** Getaira etorri zin, len e esan nun nik hamen, jai arratsalde bat zan, eta aurrena gorrixek sartu zian. Ta guk hor Errieta kalian bizi giñen, oaiñ hortxe bizi giñan tokiyan da karabineroan kuartela zan aldamenian da geo aurren plazoleta bat zan eta gorrixak etorri zinin, nik gorrixak zila aitu e gurasuai, da haiek han zaela, orduan han haiek zaudela orduan herriko aguazila zeona Manuel Gorostiaga jun zitzaioela ta bestik gaiñian dia e. Ta orduan, martxa bestiak”[529].

## 4.1. UDAL FRANKISTAREN OSATZEA

1936ko irailaren 21ean, tropa frankistak Getarian sartu ziren. Euskal Herriko gainontzeko herrietan egin bezalaxe, herriko udaletxea hartu eta handik aurrera, beraiek aginduko zutela argi adierazi zuten. Handik aurrera, urtero-urtero, tropa frankistek Getaria menpean hartutako eguna ospakizunekin gogoraraziko zen:

“Por último el Sr. Alcalde hace recordar al Ayuntamiento que próximo día 21 del corriente es sexto aniversario de la liberación de este pueblo por las Gloriosas Tropas del Ejército nacional y acordó que con tal motivo se organicen algunos actos y festejos y se dispuso asistir al Ayuntamiento a misa en corporación y por la tarde tocar la gramola”[530].

---

[527] Testigantza: ahotsak.eus. Martina Olaizola Balerdi. GET-015/005. Isidro Berasaluze Egaña zuen bere orduko mutil-laguna. Gerra ostean, bere anaia Gregorio Berasaluze Egañarekin ezkondu zen.
Testigantzetarako argibideak:
- -(…) adierazpenak, elkarrizketa liburuan ezartzeko egokitua izan dela esan nahi du.
- -… adierazpenak, elkarrizketatuarengan isilunea izan dela adierazten du.
- -Elkarrizketatzailea, “E” adieraz adieraziko da.
- -Elkarrizketatua, bere izenaren lehenengo letraz adieraziko da.
- -Elkarrizketa jaso gisan transkribatu da. Liburua euskara batuan idatzi denez, bertako euskalkiaren nolakotasunak mantentzeko egin da honako aukera.

[528] Testigantza: Juan Eizagirre Ulazia.

[529] ARANZADI ZIENTZIA ELKARTEA. 2010. *Gipuzkoa: udal errepublikanoetatik frankistetara 1936-1937*. Aranzadi Zientzia Elkartea: Donostia, 89.or.

[530] Getariako Udal-Agiritegia (GUA), 1942-09-19.




**Getariako San Salvador elizako kanpandorrean erreketeek ezarritako bandera frankista, 1936/09/23.** (La Voz de España).

"En la villa de Guetaria a veintidós de Septiembre de mil novecientos treinta y seis.

Se constituye en la sala Consistorial el miembro de la Junta de Guerra D. Marcelino Manterola, con asistencia del Secretario que suscribe.

A requerimiento del Sr. Manterola se congregan también los señores D. Ramon Manterola, D. Eugenio Egurbide, D. Domingo Echaniz, D. Luis Aramburu, D. Juan Jose Azpeitia y D. Francisco Azpeitia. A los cuales el referido Sr. Don Manuel (sic[531]) Manterola, les advierte que tiene la misión de constituir el Ayuntamiento ya que este pueblo ha sido ocupado por las fuerzas nacionales salvadoras de España, y es preciso constituir los organismos con personas afectas al movimiento, y que para ello han sido llamados los concurrentes. Estos aceptan la designación y se ofrecen a colaborar y queda el Ayuntamiento constituido provisionalmente en la siguiente forma:

**Alcalde:** D. Ramon Manterola Egurbide

**Teniente alcalde:** D. Eugenio Egurbide Azpeitia

**Concejales:** D. Luis Aramburu, D. Domingo Echaniz, D. Ignacio Ucin, D. Juan Jose Azpeitia, y D. Francisco Azpeitia.

De todo ello se levanta la presente acta que firman los concurrentes de que certifico.

**Firman:** Ramon Manterola, Eugenio Egurbide, Domingo Echaniz, Ignacio Ucin, Juan Jose Azpeitia, Luis Aramburu y Francisco Azpeitia"[532].



**Udaletxe frankistaren izendapena, 1936/09/22.** (GUA).



ACTA DE CONSTITUCIÓN DEL NUEVO AYUNTAMIENTO

En la Villa de Guetaria á veintidos de Septiembre de mil novecientos treinta y seis.

Constituido en la casa Consistorial el Miembro de la Junta de Guerra de San Sebastian D. Marcelino Manterola, asistido del Secretario que suscribe los Sres. que abajo se relacionan se procede á la constitución del nuevo Ayuntamiento, y despues de previo infome y cambio de impresiones, queda constituido de la siguiente forma.

Alcalde/ D. Ramón Manterola Egurbide

1º Tentente D. Eugenio Egurbide Azpeitia

2º Domingo Echaniz
Concejales
3º Ignacio Ucin

" Francisco Azpeitia

" Juan José Azpeitia.

" Luis Aramburu .

De esta constitución se levanta la presente acta que firman todos los congregados de que el Secretario certifico .

**Udaletxe frankistaren izendapena, 1936/09/22.** (GUA).

---

[531] Garaiko dokumentua, ez zaio aldaketarik egin. Liburuan zehar, aztertutako dokumentu guztiak, dauden gisan ezarri dira. "Sic" errepikakorra ez izatearren, ortografia zein gramatika akatsetan hau ez ezarri eta testua garaian bezala kopiatzea erabaki da. Hau da, ikusgarri duzuen testuan, nabarmentzekoa da, garai hartan, azentuen ezarpena ez zela beharrezko arauak jarraituz egiten (hitz askotan azentuak falta baitira) eta zenbait hitz ere, behar bezala ez zirela idazten. Beraz, horrek, garaian oraindik ere, instituzioetako kide izanagatik ere, batzuek, idazmena ez zutela behar bezala menperatzen adierazten digu.

[532] GUA, 1936-09-22.


SECRETARIA

Se hallan pendientes hoy día de la fecha los asuntos siguientes:
Carta del subdito italiano D. Salvador Orlando (de Guetaria) pidiendo la liquidación de una cuenta de material para el puente del ferrocarril de Orio. Creo procedería que informase sobre esta petición el Ingeniero de Caminos asimilado a Teniente D. Manuel Lamana, quien dirigió las obras.-
Oficio del Excmo. Sr. General de las Columnas en el que contestando a propuesta del Sr. Comandante Militar de Zarauz fecha 24 pasado pidiendo la destitución del Alcalde de Guetaria por poca actividad y entusiasmo, dice puede dirigirse al Excmo. Sr. Gobernador Civil.- Sobre este particular el Sr. Comandante Militar puede resolver lo procedente.-
Denuncia del Jefe del Cuartel de Requetés de Zumaya (de esta demarcación) a cuatro individuos por alarmar al vecindario con un petardo.- Sobre este asunto el anterior Comandante Militar tenía el criterio de imponer multa de 100 pts. a los dos mas culpables y 25 pts. a los que me-

**Zarauzko Komandante Militarrak, Manterola Getariako alkatearen kargugabetze eskaera.** (Renoko Unibertsitatea, Idoia Arrieta).

Handik aurrera, Getariako udal-agintarien egitekoa, frankisten ideologia inposatzea izan zen. Donostiako Gerrako Batzordeko Marcelino Manterolak adierazi gisan, helburu nagusia bete ahal izateko "es preciso constituir los organismos con personas afectas al movimiento, y que para ello han sido llamados los concurrentes"[533]. Beraz, udal-agintari frankista izendatu berriak, herriak bozka bidez aukeratutako Bigarren Errepublikako gobernuaren aurkako kolpisten alde egin zuten getariarrak ziren. Beste hitz batzuetan esanda, ideologia frankista zuten udal-agintariak ziren, ezinbestekoak diktadurak inposatutako oinarriak bermatzeko.

Ideologia frankistaren homogeneizazioa burutu asmoz, Getariako udal-agintari izendatu berriek, hurrengo kapituluan landuko dugun emakume getariarren espultsioa gauzatu zuten. 1937ko otsailaren 13an, beren zein beren senarren filiazio politikoagatik, 17 emakume eta ia 30 ume inguru kanporatu zituzten. Hori gutxi ez balitz, hilabete horien buruan, zenbait emakumeren gorputza berebat diziplinatu egin zuten, frankisten emakume tradizionala onartu behar zutelarik.

Gertaera haren ostean, 1937ko apirilaren 6an, udalbatza frankista berregituratze lanetan hasi ziren. Renoko Unibertsitateko agiritegiko dokumentuetan aztertu ahal izan dugunez, 1937ko otsailaren 24an, Zarauzko Komandantziako Militarreko Komandanteak, Ramon Manterolaren aldaketa eskatu zuen "por poca actividad y entusiasmo". Lortu ere egin zuen halakorik:

"En la Villa de Guetaria a seis de abril de mil novecientos treinta y siete. Reunido el Ayuntamiento en sesión ordinaria bajo la presidencia del Sr. Alcalde D. Antonio digo Eugenio Egurbide y con asistencia de los señores concejales anotados al margen y abierta la sesión por el Sr. Presidente se dio lectura al acta de la sesión anterior siendo aprobada. (…)

Respecto de los expedientes de funcionarios y empleados municipales que se hallan pendientes y paralizados como consecuencia de la reorganización del Ayuntamiento o gestora municipal, por cesar en su cargo el concejal instructivo, se trata de designar otro concejal para la tramitación e instrucción de estos expedientes, pero al no querer aceptar el cargo ningún gestor se dispuso se recopilen los informes de todas las autoridades y entidades locales y dar audiencia a los interesados y escuchar por la gestora en pleno antes de adaptar la resolución definitiva"[534].

1937ko urtarrilaren 23tik, Domingo Etxaniz udaletxe frankistako agintariak izan zuen euskal nazionalista zein errepublikazale langile publikoen espedienteak egiteko ardura. Hala, geroago aurkeztuko dugun dokumentuak argiago adieraziko badigu ere, errepara genezakeenez, 1937ko apirilaren 6rako, Domingo Etxaniz bere kargutik besterendutako zinegotzi frankistetako bat izan zen. Ramon Manterola Egurbide bera ere, jadanik ez zegoen alkate postuan eta haren ordez, Antonio delako bat ageri zaigu. Arestian azaldu dugunez, neurri horiek guztiak, Zarauzko Komandante Militarrak agindu zituen.

Getariako udaletxe frankistaren behin-betiko aldaketa, 1937ko apirilaren 11n gauzatu zen:

"En la Villa de Guetaria a once de abril de mil novecientos treinta y siete, siendo las once horas de la mañana se reúnen en la sala consistorial, previa convocatoria del Secretario los señores D Eugenio Egurbide, D. Luis Aramburu, D. Alejo Jimeno, D. Ignacio Ucin, D. Juan José Azpeitia, D. Francisco Azpeitia y D. José Agustín Goicoechea, y seguidamente el sr. Secretario dio lectura a una comunicación del Gobierno Civil de la provincia de fecha de ayer y entregado en persona por el Sr. Delegado que literalmente copiado dice así:

'En uso de las atribuciones que me han sido conferidas por el Excm. Sr. Gobernador Civil General de Guipúzcoa y Vizcaya, vengo en reorganizar la Gestora municipal de esta Villa de Guetaria, que en lo sucesivo quedará integrada por los señores siguientes: alcalde presidente D. Eugenio Egurbide; Primer Teniente Alcalde Luis Aramburu, sindico D. Alejo Jimeno; Regidores D. Ignacio Ucin, D. Juan Jose Azpeitia, D. Francisco Azpeitia y D. José Agustín Goicoechea = Dios proteja a España y guarde a V. muchos

[533] GUA.

[534] GUA, 1937-04-06.

años= Getaria, 10 de abril de 1937= El Delegado Gubernativo= Ignacio de Urquijo= Sr. Secretario del Ayuntamiento de Guetaria'.

Los concurrentes aceptaron los cargos para los que han sido designados, ofreciéndose a la autoridad que en ellos ha confiado el cargo para colaborar, en la medida de sus fuerzas, a la defensa y prosperidad del pueblo y con ello a nuestra querida patria España, con lo que quedan posicionados en sus respectivos cargos y constituido el Ayuntamiento o sea Gestora municipal, en la misma por una (…). Por el Sr. Delegado"[535].

Ramon Manterola Egurbide tropa frankistak sartu osteko lehen alkate frankista eta Domingo Etxaniz zinegotzia izan ziren udalbatza berrirako beren karguetatik kendutako ordezkari bakarrak. Haien ordez, Alejo Jimeno Oses eta Jose Agustin Goicoechea izendatu zituzten 1937ko apirilaren 11tik aurrerako udalbatza frankista osatzeko:

Agindua, beste behin, Gipuzkoako eta Bizkaiako Gobernadore Zibilarengandik zetorren; 1937ko apirilaren 10ean.

## 1937ko apirilaren 11tik aurrerako Getariako udalbatza frankista

**ALKATEA**
Eugenio Egurbide Azpeitia

**Lehen alkateordea:**
Luis Aramburu Gallo

**Sindikoa:**
Alejo Jimeno Oses

**Errejidoreak:**
-Ignacio Ucin
-Juan Jose Azpeitia Olascoaga
-Francisco Azpeitia
-Jose Agustin Goicoechea Idiaquez



1937ko apirilaren 11a, Getariako udaletxe frankistan agintari berriak. (GUA).



Udalbatza frankista aldatu gabe, 1939-08-02. (GUA).

Alejo Jimeno Oses-ek, 1940ko urriaren 27an, bere zinegotzi postua utzi egin zuen, Bilar-era (Arabar Errioxa) lekualdatu baitzen:

"Se dio cuenta igualmente de vacante y renuncia de cargo de concejal que hace D. Alejo Jimeno por trasladar su residencia con toda la familia al pueblo de El Villar de Alava, el Ayuntamiento accede por su parte por ser el motivo justificado y acordó comunicar al Sr. Gobernador Civil la Vacante"[536].



1937ko apirilaren 11a, Getariako udaletxe frankistan agintari berriak. (GUA).

[535] GUA, 1937-04-11.

[536] GUA, 1940-10-27.

Handik eta lau urte ingurura, 1941eko irailaren 5ean, udalbatza frankista berriro ere aldatu egin zen:

"(...) Seguidamente el Secretario les hizo saber a los concurrentes que el objeto de la reunión era constituir nueva gestora municipal en virtud de los nombramientos antes referidos, dándose lectura así mismo de una comunicación del Sr Gobernador por la que dispone el cese en su totalidad de la que venía rigiendo, y hace entrega de las insignias de mando al nuevo alcalde designado D. Luis Aramburu Gallo y habiendo aceptado todos sus respetivos cargos quede constituido el nuevo Ayuntamiento o gestora municipal en la siguiente forma:

**Alcalde:** D. Luis Aramburu Gallo

**Teniente Alcalde:** D. Isidro Chueca Aramberri

**Concejales gestores:** D. José Agustín Goicoechea Idiaquez, D. Antonio Aranguren Manterola, D. Pedro Querejeta Querejeta, D. José María Ostolaza Olaizola y D. José Domingo Zubimendi Ecenarro, en este orden.

Bajo la presidencia ya del Sr. Alcalde se procedió al nombramiento de los siguientes comisiones.

**Comisión de Hacienda:** los Srs. Chueca, Goicoechea y Aranguren.

**Comisión de fomento:** los señores Zubimendi, Ostolaza, Chueca y Querejeta.

**Comisión de Gobernación:** Sr. Chueca y Goicoechea y de Abastos los Sr. Querejeta y Aranguren.(…)"[537].

## 1941eko irailaren 9tik aurrerako Getariako udalbatza frankista

**ALKATEA**
Luis Aramburu Gallo

**Lehen alkateordea:**
Isidro Chueca Aramberri

**Zinegotzi kudeatzaileak:**
-Jose Agustin Goicoechea Idiaquez
-Antonio Aranguren Manterola
-Pedro Querejeta Querejeta
-Jose Maria Ostolaza Olaizola
-Jose Domingo Zubimendi Ecenarro

**KOMISIOAK**
**-Ogasun Batzordea:** Chueca, Goicoechea eta Aranguren.
**-Sustapen-Batzordea:** Zubimendi, Ostolaza, Chueca eta Querejeta.
**-Gobernu Batzordea:** Chueca eta Goicoechea.
**-Hornidura-Batzordea:** Querejeta eta Aranguren.

1942ko abuztuaren 22an, Antonio Aranguren Manterolak bere zinegotzi postua utzi egin zuen, Saturrarango portuan, Gipuzkoako arbitrioen kobratzean lan egiteko aukera atera baitzitzaion:

"A continuación se dio lectura de un escrito firmado por D. Antonio Aranguren gestor de esta Comisión Gestora municipal y Jefe Local de la F.E.T. de las J.O.N.S. que presenta la dimisión de ambos cargos por haber sido destinado como empleado administrador de arbitrios provinciales que es, al puesto de Saturraran, y agradece a los compañeros de la Corporación la Cooperación prestada. El Ayuntamiento reconociendo el motivo que le obliga a renunciar el cargo del gestor acuerda aceptarle y comunicar seguidamente el ejercicio del cargo de gestor"[538].

1942ko abenduaren 12an, Gipuzkoako Gobernadore Zibilak Joakin Larrañaga Aranberri ezarri zuen zinegotzi gisan.

[537] GUA, 1941-09-09.
[538] GUA, 1942-08-22.

## 4.2. ORDENA BERRIA EZARTZEKO TRIKIMAILUAK

Udal-agintari getariarrek osatutako udalbatza hauek guztiak, ordena berria eta beraz, ideologia frankista inposatzeko indarkeriazko teknika ezberdinak erabiltzeaz arduratu ziren. Haien helburu nagusia, ideologia frankista getariar biztanleengan inposatzea izan zen eta hartarako, indarkeria fisiko zein psikologikoa erabili zuten.

Agintari berriek, Bigarren Errepublikarekin zerikusia zuen erreforma iraultzaile zein sinbologia oro deuseztatu eta haien oinarria tradizioan zuten balioak, legeak eta sinbologia inposatzeaz arduratu ziren. Esaterako, hasieran Radio Requeté eta geroago Radio España deituko zenari, Getariako udalbatza frankistak, zenbait diru-laguntza eman zizkion. Irratia, garai hartan, entzule gehienengana heltzen zen komunikabidea zen eta gobernu-diktatorial frankistaren menpe egonik, haren aparailuak eman nahi zuten informazioa erraz transmititzeko mekanismo erabilgarrienetarikoa zen:

"Conforme interesado en un circular por Radio Requeté de San Sebastián y B.L.M. Delegado provincial de F.E.T. y de las J.O.N.S. acuerda contribuir para sostenimiento de dicho Radio Requeté hoy Radio España de San Sebastián con una cuota mensual de veinte pesetas"[539].

Getariako udaletxe frankistan bertan, estatu frankistaren bandera ofiziala ezarrita zegoen:

"Otra factura de Eustaquio Iraola de San Sebastián por una bandera nacional, (…) de colgaduras de colores nacionales y cohetes para las fiestas de San Martin, de 266, 40 pts."[540].

"Estando muy deteriorada la bandera del Ayuntamiento y para poder engalonar los balcones acordó pedir tela de Banderas Nacionales a la Intendencia Militar de Burgos"[541].

Ideologia frankistaren homogeneizazioa irrati eta banderetatik haratago joan zen. Estatu frankistak bere ideologia inposatzeko, estatu-aparailu egituratu eta erabat sistematikoa zuen. Hura martxan ezarri ahal izateko, orduko sozietateak betidanik ezagututako zenbait mekanismo erabili zituen: polizia, hezkuntza, erlijioa, historiaren erabilpen politikoa… Guztia indarrez hartutako boterea justifikatzeko tekniken aplikazioa zen.

### 4.2.1. Estatu poliziala eta indarkeriaren erabilpen irmoa

Tropa frankistak Getariara sartu bezain laster, beren ideologia frankista inposatzeko indarkeriaren erabilpena egin zuten. Udalbatza errepublikazalea deuseztatu eta indarrez, udalbatza frankista egituratu zuten. Horrez gainera, ondorengo kapituluetan azalduko dugun, Getariako Emakume Abertzale Batzako emakumeei tropa frankistek ile-soiltzeak… burutu zizkieten; hau da, indarkeria bortitzaren bidezko gorputzen diziplinamendua gauzatu zuten. Hori gutxi ez balitz, handik aurrera, errepublikazale zein euskal nazionalista oro, udal-agintari frankista zein herritar frankistek bigilatuta geratuko ziren. Kontrol zuzen eta irmoko garaiak zetozen.

Tropa frankistak armak zituzten bitartean, errepublikazale zein euskal nazionalistak armagabetu eta hala, haien gaineko boterearen erabilpen bortitza eta gupidagabea burutu ahal izan zuten. Armarik gabeko populazioa mehatxatzeko, armak erabili zituzten. Atal zabal honetan mintzagai izango ditugun atzeraguardiako erreketeak, Getariako herritarrengan indarkeria bortitza eragin zutenak izan ziren. Haien zeregin nagusia, Getariako herritarrak kontrolatuta edukitzea izan zen eta kontrolatuta esatean, ideologia frankistaren aurkako aldarririk gauzatzen ez zutela berrestean zetzan. Hala, errepublikazale zein euskal nazionalistek, beren bizitzaren babeserako, haien aldarriak isildu eta indarkeriaren beldur, garai gatratz haietan guztietan isiltasun irmoa mantendu behar izan zuten. Isiltasuna eta beldurra, ideologia frankista inposatzeko erabilitako teknika ezin hobeak izan ziren.

Herriko kontrol nagusia, alkateak, F.E.T. eta J.O.N.S.-eko herriko buruzagiak eta herriko parrokoak zuten. Guardia Zibilak, aguazilak eta Zarauzko Komandantzia Militarrak Getarian zuen delegaritzak ere (karabineroekin antolatuta), esku-hartze nabarmena zuten:

"Asimismo tomará nota diaria de todos los niños hasta los 14 años con nombres y apellidos de sus padres que juegan en la vía pública o puerto en las horas de asistencia escolar"[542].



Ayuntamiento de la Noble, Leal e Invicta Villa de
Guetaria-Guipuzcoa-

Reglamento del empleado municipal subalterno-"Celador y Agente Municipal-" de la villa de Guetaria.

-Disposiciones generales-

1ª Las condiciones generales del empleado municipal subalterno-Celador y Agente Municipal- en lo que hace referencia al ingreso, provision de la vacante y aptitud para el cargo estarán subordinadas a las disposiciones vigentes, ó sea a las del Reglamento de Empleados Municipales de fecha 14 de Mayo de 1928-(Gaceta del 16 id.id.)

2ª Igualmente las condiciones determinativas de sanciones, suspensiones de empleo y sueldo, destituciones, licencias, derechos pasivos y jubilaciones, se consideraran adaptadas a las normas que señalan las disposiciones vigentes de dicho Reglamento.

-Condiciones para el ingreso-

3ª La designacion o nombramiento del empleado municipal subalterno " Celador y Agente Municipal" se ajustará en un todo a cuanto preceptuan las disposiciones vigentes del mismo Reglamento

-O B L I G A C I O N E S-

1ª El empleado municipal subalterno designado con el nombre de" Celador y Agente Municipal" se sujetará en el ejercicio de su cargo a las obligaciones siguientes:

a.) Cuidará y velará por el exacto cumplimiento de las Ordenanzas Municipales y de cuantas disposiciones y bandos de policia o de buen gobierno sean dictadas por el Ilustre Ayuntamiento o por el Sr.Alcalde, referente a Abastos, alimentos, higiene y salubridad, comodidad, ornato, órden público, policia de espectaculos y de establecimientos, de circulacion, seguridad de las personas y de la propiedad, asistencia escolar, moralidad pública, etc, vigilando, revisando y persiguiendo de manera celosa y especial, el contrabando y oculta introducción de generos y articulos gravados con derechos municipales, que puede hacerse esto bien viable por los caseros de los Barrios de Meagas y Asquizu en los dias de feria y [illegible], por personas, carros, coches, camiones y autobuses que entran y salen de esta villa de Guetaria y puerto y que se precisa controlar, al burlar la debida vigilancia en el cobro de las patentes derechos y tasas establecidos. Para el mejor cumplimiento de su cometido llevará siempre consigo un ejemplar de las Ordenanzas Municipales y demas órdenes recordatorias escritas.

b.) Estará a las ordenes del Sr Alcalde, o en su defecto del primer Teniente de Alcalde en funciones del primero, ó Concejal comisionado del servicio que afectare, a quien denunciara diariamente en forma verbal ó escrita las transgresiones que en el cumplimiento de las obligaciones contenidas en el punto anterior haya podido sorprender ó trasladara las denuncias que le hicieren algun vecino ó empleado municipal por conducto de su inmediato superior en el cargo.

c.) Dos veces al dia, una por la mañana a las nueve y otra a las tres de la tarde se presentara al Sr.Alcalde, o al que haga sus ve-

**Aguazilaren egitekoak.** (GUA).

[539] GUA, 1937-08-14.
[540] GUA, 1936-12-19.
[541] GUA, 1942-01-24.
[542] GUA, 1936-11-14.



Informe emitido por la Junta Local de Falange Española Tradicionalista y de las J.O.N.S. de G U E T A R I A

ALEJANDRO ARANBURU ALBERDI, Persona seria y formal, no tomando parte en ninguna actividad política y calificado siempre de derechas; así como toda su familia, la cual durante el dominio rojo-separatista ha sido perseguida y amenazada, por ser de destacada derecha y contribuyendo con creces en favor del Movimiento Salvador de España

Guetaria 4 de Octubre de 1937 (II año triunfal)

El Jefe Local — El administrador — El Secretario

**Alejandro Aranburu Alberdiren inguruko informea.** (Ipar-Mendebaldeko Eskualde Militarreko Tarteko Artxiboa, Ferrol 1662/37).



Guetaria 8 Agosto de 1937

Señor Don José María de Huarte
Zarauz

Muy Señor mío: En este momento acaba de venir de [illegible] y se me presenta esta pobre mujer de un marinero que [illegible] aquí [illegible] [illegible] todo [illegible] si puede hacer algo [illegible]

Sin mas queda [illegible]

Petra Gorria
Vda de Guruceaga

[illegible]
Santiago Martín Vicsoda
preso en Ondarreta

**Petra Gorriak Zarauzko komandanteari.** (Renoko Unibertsitatea, Idoia Arrieta).



Guetaria 30-3-37

Sr Comandante
Zarauz

Siento muchísimo no poder ir ayer a felicitarle, y aunque un poco tarde, le deseo en nombre de todas las falangistas, y mío, muchas felicidades y buena suerte.

Agradecí muchísimo el obsequio que hizo a Cuartel de Guetaria. [illegible] que alegria se dió a los niños [illegible] las gracias en nombre de Jesús.

Se despide con un ¡Arriba España!

Carmen Ugarte

**Carmen Ugartek Zarauzko komandanteari.** (Renoko Unibertsitatea, Idoia Arrieta).

Kontrola berehalakoa izateko, tropa frankistekin Getariara etorritako zenbait falangistek, arrantzaleen herrian ostatu hartu zuten. Gisa horretara, herritarrak kontrolatzeko baliabide punta-puntakoez baliatu ahal izan zuen Getariako udalbatza frankistak:

Igualmente dio cuenta el Sr. Alcalde de que por indicación del Sr. Comandante Militar de Zarauz la sección de Falange de esta Villa, queda desde el día 1º del corriente a cargo del Ayuntamiento para su manutención y alojamiento y que provisionalmente quedaron alojados en la misma Casa Rosa donde venían alojando con pensión de 5 pesetas por persona (…)”[543].

Halaber, ezinbestekoak gertatu ziren, Alejo Jimeno Oses buru zuen F.E.T. eta J.O.N.S. eta, Leonor Molet Garate buru zuen Sección Femenina, ordena, jazarpenaren bidez mantentzeko. Ez da harritzekoa beraz, Getariako urte anker hauetako historia ikertzean, Euzkadi egunkariak 1937ko otsailaren 20ko jarraian irakur dezakezuen berriarekin aurkitzea. Bertan, frankistek egindako ankerkeriez dihardu.



Gipuzkoa, bajo el terror fascista

# El martirio de Getaria

NO SE TRABAJA, PERO SE IMPONEN MULTAS

Seguimos la narración de hechos ocurridos en Gipuzkoa, desde que esta hermosa parte de la patria vasca fué hollada por la planta de los fascistas españoles.

Hoy hablaremos de Getaria, en donde los hermanos Chueca, jefe de Falange Española y comisario de Guerra, respectivamente, junto con otros individuos, están [illegible] el pueblo.

[illegible]

PARA MAÑANA, TANTOS HOYOS

[illegible]

OTRAS VARIANTES DE LA PERSECUCION

[illegible]

Ha sido detenida una mujer llamada Constantina porque su hijo se negaba a colocarse sobre el pecho la bandera monárquica, y al ser obligado a ponérsela contestó: "Sobre el pecho llevaré la bandera monárquica; pero en el corazón llevo otra".

[illegible]

MAS DETALLES SOBRE LA SITUACION EN GETARIA

[illegible]

Pero, en cambio, los requetés y falangistas andan locos buscando a un individuo conocido por el sobrenombre de "El Brujo", que ha pronosticado que dentro del primer cuatrimestre del año en curso terminará la guerra con la victoria de los leales.

Cuando pronunció su discurso el presidente del Gobierno de Euzkadi, los facciosos trataban de hacer burla y decían a las personas designadas para la expulsión: "Vosotros estáis mejor que Agirre en Bilbao. No quisiera yo estar en su pellejo."

Finalmente, por lo que se refiere a las subsistencias, no hay carbón; falta café y aceite y el arroz es malo y caro. Se ha establecido el plato único.

Han sido desvalijadas ocho o diez casas, y todo cuanto contenían lo han llevado a unas bodegas; a las ropas les han dado otro destino.

Se ha obligado al vecindario a llevar el dinero al Banco para estampillarlo.

A raíz de la entrada en Málaga se organizó una gran manifestación, en el transcurso de la cual se dieron mueras a Euzkadi, a Irujo y a los separatistas.

UNOS NOMBRES A RECORDAR

Hermanos Chueca, jefe de Falange Española y comisario de Guerra.

Ramón de Manterola, a quien llaman Alcalde.

Y, sobre todo, un sujeto apellidado Gorria, afiliado a Falange Española, jefe de la banda de asesinos que opera en la que fué pacífica villa costeña.

**El martirio de Getaria”, 1937ko otsailaren 20an argitaratua.** (Euzkadi).

543 GUA, 1936-11-14.

Falangistez gain, Guardia Zibilak ere, Getariako udalari kuartela eraikitzeko eskaera egin zion. Udal-agintari frankistek, tokirik aproposena, karabineroen kuartel ohia izango zela determinatu zuten:

"El alcalde da cuenta al Ayuntamiento de la visita girada por el Sr. Jefe de la Guardia Civil Teniente Coronel para interesar local para cuartel y alojamiento para establecer en este un puesto de la Guardia Civil, y que se convinieron a reserva de tratar en el Ayuntamiento, habilitar para ello el actual cuartel de carabineros que se encuentra desocupado desde que se marchó dicha fuerza al cuartel de Zumaya, cuyo edificio necesita algunas obras de reforma.

El Ayuntamiento trata del asunto ampliamente viendo en general la conveniencia de crear el puesto de la Guardia Civil en esta para la mayor garantía del orden en el pueblo y respecto de las obras y reformas a realizar acordó se estudie sobre el edificio (…) y se nombre para que den su informe una comisión compuesta del Sr. Alcalde y concejales Sr. Querejeta y Aranguren"[544].

1944ko ekainean oraindik ere eraikuntza lanetan aurkitzen zen, eta udalak ez zuen hari dirurik eskaintzerik, uren horniketaren proiektua ere esku artean baitzuen.

Bigarren Mundu Gerraren testuinguruan, Francok, Getariako inguruak ere militarrez josi zituen. Diktadore zitala beldur zen, aliatuek bera eraso eta boteretik kenduko ote zuten:

"**A:** (…) gero berriz, kanpai gaineko base hartan eta Askizuko kuarteletan etab. zaldi gainetan eta hona etorri eta… baten gertatu huan, udaberriyan, barkuak eta hemen eta gabez antxoatan ibiltze hituan eta argi pila eta eta iruitze zitzaion que era la invasión eta kosta guztiya hartuta eta danak metrailetakin eta arrantzaliak zien"[545].

Errepresioaren aurrean, zenbait getariarrek, haien hautu politiko zapaldu eta isildua defendatzeko hautua egin zuten, 1940 inguruko Getariako elizako pintaketa honetan ikus genezakenez.



**Getariako elizan, JEL pintaketa.** (Pascual Marin Funtsa).

## Gizartearen militarizazioa:

Armak frankisten menpe zeuden eta errepublikazale zein euskal nazionalista kontzienteek haiek erabili ezin bazituzten ere, haien semeei zein gainontzeko herritarrei armen erabilpena luzatu zitzaien. Getariar txikienak guztiz militarizatutako sozietate baten irakaspena jaso zuten. Populazio gazteena ideologia frankista inposatzeko iturri bikaina izan zitekeen. Haur haiek guztiek gerra pasatu bazuten ere, eta tropa frankisten izugarrizko basakeriak ikusi, oraindik ere ez zuten kontzientzia politiko garaturik (ezin dugu uka gehienak kontziente zirela frankistek egindako krudelkeriaz, haien biktima izan baitziren). Hartaz, frankistei, askoz errazagoa zitzaien haur haiek guztiak beraien balioen arabera heztea. Armak beti ere, kontzientzia politiko garaturik ez zuen eta errepublikazale zein euskal nazionalista ez zen getariarrei luzatu zitzaizkion. Indar betean saiatu ziren, batik bat, errepublikazale zein euskal nazionalistak zirenen seme-alabak oinarri frankistetan hezten. Hein handi batean, galtzaileen seme-alabek ongi zekiten beren historia eta horregatik, frankistek, herritar gehienengan ez zuten lortu oinarri frankistak inposatzea.

Era berean, armen erakusketak, gerra nork irabazi zuen eta beraz, garaiko botere erreala nork zuen erakusten zuen. Armak edukitzeak, frankisten aldekoa izatea eta gainontzeko getariarren gainean indarra izatea suposatzen zuen. Hori aurpegiratu ahal izateko, getariar guztiek ikusiko zituzten desfileak ere, erabat militarizatuta egiten ziren, Euskal Herriko gainontzeko herrietan gertatzen zen gisan.



Alcaldía
de la
N. L. e Invicta Villa
de Guetaria

B. L. M.

al Sr. Comandante Militar del Sector D. José María Huarte y tiene el honor de invitar al almuerzo que se servirá al Ayuntamiento y Clero en el caserío San Prudencio, después de la misa mayor de las diez, á la que siguiendo tradicional costumbre acudirá el Ayuntamiento.

Eugenio Egurbide aprovecha gustoso esta ocasión para reiterar el testimonio de su más distinguida consideración.

Guetaria 26 de Abril de 193 9
Año de la Victoria

**Eugenio Egurbide alkate frankistak Zarauzko Komandante militarraren ospakizun eskakizunari baiezkoa.** (Renoko Unibertsitatea, Idoia Arrieta).

[544] GUA, 1942-07-11.

[545] Testigantza: Andoni Arregi Oiarzabal.



**Zarautzeko Pelayo-ak desfilatzen.** (Renoko Unibertsitatea, Idoia Arrieta).

Sozietate militarizatu hartan, etxeko txikienei, armen erabilpena ideologia frankistaren barnean egiten erakutsi zitzaien. Armen erabilpena, beti ere, gizonezkoen gogortasun eta kemen rolei lotuta egon zen. Hala, etxeko mutikoak Pelayo izendatzen zituzten:

“ **Del carácter y fin de los ‘Pelayos’**

1. Con el nombre de PELAYOS, en memoria del Santo Niño, mártir de la castidad, se conoce la asociación de los niños Tradicionalistas, destinada a instruírlos en los principios políticos-morales que defiende la Comunión Tradicionalista y a formarlos en las virtudes cívicas de un buen católico español.
2. El fundamento de toda la labor formativa de los PELAYOS ha de ser la vida sobrenatural, mediante la práctica de los Sacramentos y los hábitos de vida sólidamente cristiana.
3. El medio propio de la obra será el espíritu militar, cuya disciplina tanto contribuye a la formación del carácter en el cumplimiento del deber, a la exaltación de los ideales, al fomento del valor individual y a la intrepidez de la voluntad dentro de la constancia y de la abnegación de esa misma voluntad.
4. Igualmente contribuirán al fin propuesto: la admiración de nuestra Historia, la emulación del Ejército y en especial de los Requetés, el estudio de las Guerras Carlistas, el conocimiento de nuestro programa y de modo muy particular el de la Guerra actual.
5. Por último, en la formación del carácter del PELAYO ha de tomar mucha parte el convencimiento de que el Requeté es el prototipo del caballero católico español, intrépido defensor de los derechos de Jesucristo y soldado de la Patria más gloriosa del mundo.
6. Mucho se cuidará de no confundir la Organización de los Pelayos con aquellas otras organizaciones, destinadas a la formación del niño, ya sea moral, ya intelectual, ya de ‘cultura física’, y cuyos fines son respectivamente la piedad, la educación, y el desarrollo físico. Los Pelayos tienen como fin propio la formación espiritual es decir, la de la inteligencia y de la voluntad, y además la corporal; pero todo ello en orden a los deberes cívicos y a la prioridad que entre las diversas obras de formación corresponde a esos deberes cívicos por dictados de la Ley natural, la cual, si bien los subordina al fin último del hombre, los coloca por encima de toda otra atención humana.
7. No obstante lo anterior, ha de reclamarse para la obra la prudente preferencia que en los presentes momentos merece, porque durante las actuales circunstancias los sentimientos de Patria ocupan el primer lugar en la intención del niño y conducen con la mayor eficacia a su formación, incluso religiosa.

**Personal dirigente de los 'Pelayos'**

8. El personal dirigente estará constituido por un Oficial del Requeté, Jefe-Director de los Pelayos de cada Provincia, designado por el Comisario de Guerra respectivo; otro Oficial de Requetés, Jefe instructor de Pelayos en cada localidad y el número de Requetés-Instructores en cada localidad, designados por los anteriores, que haga falta para las necesidades del servicio.
9. Todos estos cargos serán dados a Requetés su piedad, celo, competencia y buenas costumbres.
10. Cada Asociación de PELAYOS tendrá un Capellán Director espiritual, cuya misión será el culto de los PELAYOS, la formación espiritual de los mismos, la vigilancia sobre su vida, y todas aquellas obras de piedad y celo que sean compatibles con el fin de la organización.
11. Se constituirá en la capital de la provincia una Oficina central, cuya alta dirección corresponde al Capitán Director, y al frente de la cual estarán dos de los cuatro Requetés. A esta oficina corresponde: llevar toda la documentación referente a la adminisión de los Pelayos, hacer el fichero completo de todos los Pelayos, con su filiación íntegra, redactar las órdenes del Capitán Director, organizar y llevar al detalle toda la parte económica, llevar toda la correspondencia, organizar el reparto de la prensa tradicionalista, y organizar también la propaganda de la obra de los Pelayos en la capital y en la provincia. Esta oficina Central será el lazo de unión de las organizaciones de Pelayos en toda la provincia, y circulará a las mismas órdenes y sugerencias de la Superioridad"[546].


Del carácter y fin de los «Pelayos»

1. Con el nombre de PELAYOS, en memoria del Santo Niño, mártir de la castidad, se conoce la asociación de los niños Tradicionalistas, destinada a instruirlos en los principios político-morales que defiende la Comunión Tradicionalista y a formarlos en las virtudes cívicas de un buen católico español.

2. El fundamento de toda la labor formativa de los PELAYOS ha de ser la vida sobrenatural, mediante la práctica de los Sacramentos y los hábitos de vida sólidamente cristianos.

3. El medio propio de la obra será el espíritu militar, cuya disciplina tanto contribuye a la formación del carácter en el cumplimiento del deber, a la exaltación de los ideales, al fomento del valor individual y a la intrepidez de la voluntad dentro de la constancia y de la abnegación de esa misma voluntad.

4. Igualmente contribuirán al fin propuesto: la admiración de nuestra Historia, la emulación del Ejército y en especial de los Requetés, el estudio de las Guerras Carlistas, el conocimiento de nuestro programa y de modo muy particular el de la Guerra actual.

5. Por último, en la formación del carácter del PELAYO ha de tomar mucha parte el convencimiento de que el Requeté es el prototipo del caballero católico español, intrépido defensor de los derechos de Jesucristo y soldado de la Patria más gloriosa del mundo.

6. Mucho se cuidará de no confundir la Organización de los Pelayos con aquellas otras organizaciones, destinadas a la formación del niño, ya moral, ya intelectual, ya de «cultura física», y cuyos fines son respectivamente la piedad, la educación, y el desarrollo físico. Los Pelayos tienen como fin propio la formación espiritual es decir, la de la inteligencia y de la voluntad, y además la corporal; pero todo ello en orden a los deberes cívicos y a la prioridad que entre las diversas obras de formación corresponde a esos deberes cívicos por dictados de la Ley natural, la cual, si bien los subordina al fin último del hombre, los coloca por encima de toda otra atención humana.

7. No obstante lo anterior, ha de reclamarse para la obra la prudente preferencia que en los presentes momentos merece, porque durante las actuales circunstancias los sentimientos de Patria ocupan el primer lugar en la atención del niño y conducen con la mayor eficacia a su formación, incluso religiosa.

Personal dirigente de los «Pelayos»

8. El personal dirigente estará constituido por un Oficial del Requeté, Jefe-Director de los Pelayos de cada Provincia, designado por el Comisario de Guerra respectivo; otro Oficial de Requetés, Jefe instructor de Pelayos en cada localidad y el número de Requetés-Instructores en cada localidad, designados por los anteriores, que haga falta para las necesidades del servicio.

9. Todos estos cargos serán dados a Requetés su piedad, celo, competencia y buenas costumbres.

10. Cada Asociación de PELAYOS tendrá un Capellán Director espiritual, cuya misión será el culto de los PELAYOS, la formación espiritual de los mismos, la vigilancia sobre su vida, y todas aquellas obras de piedad y celo que sean compatibles con el fin de la organización.

11. Se constituirá en la capital de la provincia una Oficina Central, cuya alta dirección corresponde al Capitán Director, y al frente de la cual estarán dos de los cuatro Requetés. A esta oficina corresponde: llevar toda la documentación referente a la admisión de los Pelayos, hacer el fichero completo de todos los Pelayos, con su filiación íntegra, redactar las órdenes del Capitán Director, organizar y llevar al detalle toda la parte económica, llevar toda la correspondencia, organizar el reparto de la prensa tradicionalista, y organizar también la propaganda de la obra de los Pelayos en la capital y en la provincia. Esta oficina Central será el lazo de unión de las organizaciones de Pelayos en toda la provincia, y circulará a las mismas órdenes y sugerencias de la Superioridad.

(Continuará.)

**Pelayo-en arautegia.** **(Flechas y Pelayos aldizkaritik).**

"La guarnición de Guetaria está compuesta por tres Requetés y tres o cuatro falangistas. A los niños de doce años les enseñan la instrucción militar un cabo de falange y otro de Requetés, no está al tanto de las relaciones que existe entre ellos aunque cree hay bastantes discrepancias, las cuales resolvieron últimamente a tiros en Donostia, resultando 10 muertos; la misa mayor van con sus banderas roja y amarilla y roja y negra la de falange"[547].

"**J:** Plaza jun ta instrukziyuak iten e mutikoxkorrak… gu fusillik gabe, pixkat altuxegok zienak egurrezko fusillakin. Hor instrusiyuak maixuakin… frontoian, orduan gu umiak e bai ta (...) descanso, un paso adelante, derecha, adelante… ikusi ta bakarrik ez, jardunde gaiña… **E: ta hori urte askotan jarraitu zan egiten? J:** Ez, ez… gaiña nik eneuken urte asko ta ibili ber izin bazan e eskola gutxi jun nitzan da"[548].

"**B:** Gerraostian, guk falangista emate genitun kaki ta galtzerdixak ta txapela gorrixa ta ju ginun anaia ta biyok, bestia Andoni re bai, kaiakue hura re bai, hura re bai ta bestia Joxe Luis Ituarte (…) hura re bai, ta gu jun giñun más contento que dios. Eliza jun giñun ta rara jun giñun, gaztiak eta geo gure aita horrek fuera etxetik e! Etxetik bialdu giñun gure aitak. **E: falangisten arropa non eman zizueten? B:** han beheian kofradixan ta eskola hua, ta erropak eta han jun giñun. Maixua huan don Roque ta gaiztuo huan…"[549].

"**E: eta gerra nola bizi izan tzenuten? S:** nik ez naiz zea asko iten, baiño oso presionatuta beti gu. Beti hemen jaiero etortze zan zea, zein tzan maixua eo zein tzan? Komandantia eo zer tzan etortze zana? Ayuntamentoa… Fusilla egurrezkoakin, 'un, dos, un, dos…' eiñez, meza nausira. Ni enitzan behiñ e jun e… baiño Margarita ta zea, ni ez naiz behiñ e jantzi. Ez margarita, ez falangista! Baiño Getarin asko jantzi zien. Obliatuta e… asko! Batek eamate zun bandera falangistena ta bestek española. Bixek han jute zien, herriko emakume 'altenak'. Ta atzetik mutil koskorrak, fusille egurrezkuakin 'Cara al sol' kantari. (…) Margaritak, reketiak. Madre mía!"[550].

[546] "Flechas y Pelayos" aldizkaria, 1937/01/10. Tere Inzak utzitako aldizkaritik.

[547] Euskadiko Gudontzidiaren Buruzagitzaren Agiritegia. "Nuestra Señora del Rosario" arrantza-ontziko tripulazioaren deklarazioa. http://www.marinavasca.eu/eu/archivo-documental-detalle.php?o=10&a=1&id=1.

[548] Testigantza: Juan Eizagirre Ulazia.

[549] Testigantza: Bautista Kerejeta Urresti.

[550] Testigantza: *ahotsak.eus*. Sabina Azkue Fernandez. GET-010/029.

"**M:** Plazatik hola bistan-bistan dakazu, frontoi atzian itxe handi bat, ezta zabala ta zea baiña istua ta altua da. Ta hori izan behar tzuan granerua leno, Fabiolen amena eo… ta geo Fabiolak eta hor palaziyua zekaen, ta hor beheian, itxe asko zan, jardinerua, iturrixa, behi aska, ta geo beste itxe handi bat, Kale Nagusira irtetze zuena. Ta hor, gerra denboran, hogeita hamaseixan, falangista jantzita hamengo neska danak, ta rekete jantzita. Ta meza nausira, Kale Nagusi frentian tzan etxe hori ta handik ertetze zuen jantzita, o-o-o-o! eiñez. (…) hoixe danak ikusita gae"[551].



Getariako Pelayo-en zerrenda. (GUA).

GETARIAKO PELAYO-EN ZERRENDA

| | |
|---|---|
| SATURNINO MANTEROLA | MIGUEL AIZPURUA |
| ECEQUIEL LARRAÑAGA | IGNACIO ALCORTA |
| GABRIEL IRIBAR | AGUSTIN ITURRINO |
| LUIS ARAQUISTAIN | QUIRINO AZPEITIA |
| MATEO AZPEITIA | ANGEL LAZCANO |
| JUANITO IRURETAGOYENA | RAMON ARANGUREN |
| CECILIO OLLOQUIEGUI | IGNACIO ULACIA |
| MARCELINO JIMENO | FACUNDO JIMENO |
| ANGEL MARÍA EMBIL | JOSE MARIA AZPEITIA |
| EPIFANIO MANTEROLA | AGUSTIN MANTEROLA |
| JOSE MARIA JIMENO | |

Pelayo-en araudiak agindu gisan, udaletxe frankistak, getariar Pelayo zein herritarrei, aldian-aldian erreketeen aldeko diru-laguntzak emateko eskaera egin zien:

"Seguidamente se dio cuenta de la recaudación del aguinaldo del soldado para las próximas Navidades, cuya recaudación interesa se active el Sr. Gobernador Civil en su telefonema al que se da lectura así como a otro circular de la Diputación, y el Ayuntamiento acuerda encabezar dicha suscripción con 100 pesetas y dar mayor publicidad a esta suscripción para que alcance la importancia que merece dado el heroísmo con que vienen luchando los soldados por España y disponer que los donativos se reciban en la Secretaria del Ayuntamiento"[552].

Beste zenbaitetan, gerrako fronteko eskasia nabarmena zenez, zenbait erreketek beren udaletara diru-eskaerak ere egiten zituzten:

"Seguidamente se trató del escrito pendiente de los combatientes voluntarios de la localidad. D. Candido Iriondo y Garrastazu y el Ayuntamiento después de alguna deliberación acordó abrir una subscripción en el pueblo, y hacer una cuestación pública el domingo próximo después de la misa mayor, y el producto que se recaude en misión de la aportación del Ayuntamiento y de los familiares de los interesados, enviarlo directamente al frente donde se encuentren"[553].




Erreketeei emandako diru-laguntzak. (GUA).

[551] Testigantza: *ahotsak.eus*. Maritxu Ezenarro Idiakez. GET-017/002.
[552] GUA, 1938-11-27.
[553] GUA, 1937-04-12.

"(…) que por acuerdo del Sr. Comandante Militar de Zarauz ha sido organizado un partido de pelota en Zarauz con el fin de recaudar fondos para crucero acorazado "España" y que ha sido invitado el Ayuntamiento para contribuir a esta obra nacional patriótica y el Ayuntamiento acuerda contribuir con cincuenta pesetas"[554].

Tropa frankisten aldeko getariarrek, beti ere, frontean zeuden erreketeei beren esker ona adierazteko, zenbait opari ere bidaltzen zizkieten:

"Otra de Hijos de Echaniz, por dos cajas de botellas de chacolí suministradas para remitir a los frentes de combate como aguinaldo de Navidad de 90 pesetas"[555].

Erreketeak, gerrako gizon indartsu eta adoretsuen irudia hartu zuten eta beraz, han-hemenka omenaldi anitz egin zizkieten:

"Seguidamente el Sr. Alcalde da cuenta del encargo recibido del Sr. Cortazar de la Diputación como organizador de la manifestación homenaje a los heroicas Brigadas de Navarra de que acuda el Ayuntamiento en corporación a S. Sebastián el próximo día 10, llevando también una representación típica de pescadores. Igual invitación se ha recibido también de la Delegación provincial de F.E.T. y de las J.O.N.S. El Ayuntamiento deseoso también de sumarse a este homenaje acuerda acudir en Corporación con banderas y maceros y encargarse a la Cofradia para que prepare el cuadro artístico o típico de un grupo de pescadores y pescadoras con su vestimenta y artes propios"[556].

"El Sr. Alcalde dio cuenta a los reunidos de un cuadro hermoso representativo de la última cena de Jesús regalado al ayuntamiento por los trece marineros voluntarios que sirven en el cañonero Calvo Sotelo, hijos del pueblo con la indicación de que fuese bendecido y colocado en la sala de sesiones del Ayuntamiento, como así se hizo aprovechando para solemnizar el acto la venida del Sr. Comandante Militar del Sector Sr. Huarte con motivo de sus conferencias patrióticas domingueras que viene dando con verdadero acierto en la referida sala del Ayuntamiento"[557].

Teresa Roteta, Olaskoagaren alargunak, Calvo Sotelo itsasontzian borrokatzen ari ziren getariar erreketeentzako 90,45 pezetako dohaintza egin zuen.

Ideologia frankista, beraiek estatu-kolpea eman eta gerra hasi bazuten ere, bakezale gisan irudikatu ziren. Estrategikoki hartutako neurria izan zen, internazionalki beren burua bakezaletzat irudikatzen saiatu ziren, nahiz eta errealitatean izugarrizko triskantzak egin zituzten. Beraien aurkari marxista, beti munstro bat bailitzan irudikatzen saiatu ziren. Marxistak, euskal nazionalistak eta errepublikazaleak, balio finkorik gabeko pertsonatzat eta indarkeria nahi erara erabiltzen zuten pertsonatzat determinatu zituzten. Funtsean, kriminalak bailiran identifikatu eta gerrak eztanda egitearen arrazoi nagusitzat, haiek Bigarren Errepublikan zehar ezarritako desordena ordenatzeko egin zutela justifikatzen saiatu ziren:

"Seguidamente el Sr. Alcalde expuso lo siguiente: que como no ignoran los reunidos, a la sangrienta lucha que ha mantenido España contra el comunismo internacional que con la ayuda de Marxo-separatistas se ha prolongado tanto le toca ya su fin con la brillante Victoria de las armas Nacionales y del invicto Caudillo Generalísimo Franco ante cuyo empuje ha tenido que deponer las armas la capital Madrileña y vence haciendo lo propio el resto de la zona que faltaba por conquistar que se entrega sin condiciones y que con tal motivo propone se le envía un telefonema de Felicitación al Caudillo Victorioso.

El Ayuntamiento hace suyos estas manifestaciones de la presidencia, acordando así mismo organizar una magna manifestación, y desfile, y haciendo votos por la paz y prosperidad de España, se levanta la sesión de que certifico"[558].

Tropa frankisten garaipenetik aurrera, gauza esanguratsuak ospatu ahal izateko desfile militarrak ugaritu egin ziren:

"Se aprueba igualmente una nota de gastos de viaje y estancia en San Sebastián, de la comisión y personal del Ayuntamiento que se trasladó el día 10 de abril (día) de Resurrección por invitación de la Diputación y del SR. Gobernador Civil para asistir a los actos organizados con motivo de la terminación de la guerra y Victoria de las armas Nacionales"[559].

### 4.2.2. Herriko seme kuttunen irudiaren erabilera

Tropa frankistek, Getaria ere, Euskal Herriko gainontzeko herrien gisan armez hartu zuten. Bozken bidez hautatutako Bigarren Errepublikako azken udalbatza legitimoa, indarrez kendu zuten. Garaiko getariarrek, historiako une garratz hura bizi izan zutenek, ongi ikusi zuten gertatutakoa. Gertatutakoa bat baino gehiagori ez zitzaien ahaztuko eta sorturiko beldurra ere, urte luzeetan zehar sentitzen jarraitu dute, gaur egunera arte, eta ez da harritzekoa.

Agintari frankistek, ongi zekiten zer-nolako sarraskia egin zuten. Baina aurreko lerroetan ere azaldu dugunez, hura era batera edo bestera estali beharra zegoen, frankisten balioetan heziko zen sozietate berri bat osatu ahal izateko. Gerrako irabazle zein galtzaileek, handik aurrera, posizio oso ezberdinetan, egunerokotasunari aurre egin behar izan zioten. Egunero, erosketak egite-

[554] GUA, 1937-05-16.
[555] GUA, 1937-01-02.
[556] GUA, 1937-11-07.
[557] GUA, 1938-06-12.
[558] GUA, 1939-03-28.
[559] GUA, 1939-04-18.

ko azokan elkartzen zirenek, irabazle zein galtzaileek, ongi zekiten, gerra galdu ala irabazi egin zuten, haren ondorioak egunero pairatzen baitzituzten.

Hala, beraz, Getariako agintari frankistek, Euskal Herriko gainontzeko herrietan egin gisan, batasun prozesu bera gauzatu zuten. Irabazle zein galtzaileen arteko batasuna lortzeko, ordura arte Getarian bertan zeresana izan zuten pertsonaiez eta beraz, getariar guztiak batzen zituenaz baliatu ziren, hein handi batean behintzat, Juan Sebastian Elkanoren irudiaz dihardugu.

EL DIARIO VASCO

EN GUETARIA

## Aniversario del desembarco del glorioso navegante guetariano Elcano

**La cabalgata histórica.-La coronación del insigne nauta.-Bendición de la bellísima estatua y desfile de Milicias entre aclamaciones de patriotismo delirante**



La estatua de Elcano, obra en mármol del ilustre escultor Bellver que el domingo fué bendecida e inaugurada en Guetaria

(Foto MARIN).




El glorioso navegante guetariano Juan Sebastián Elcano y los diez y ocho tripulantes, desembarcan de la "Nao Victoria" y se encaminan a la Iglesia a dar gracias a Dios al rendir la primera circunnavegación.

(Foto MARIN).

1937ko irailaren 5eko Elkanoren desfilearen berria Diario Vasco egunkarian. (1937/09/07an argitaratua).

unidad

EN GUETARIA

## La conmemoración del desembarco de Juan Sebastián Elcano



El domingo se celebraron en Guetaria los actos organizados para conmemorar el retorno de Juan Sebastián Elcano, después de haber realizado en la nao "Victoria" la primera circunnavegación.

La Diputación había patrocinado estas fiestas a las que se asoció la provincia entera.

Después de la Misa Mayor, a la cual asistieron las autoridades y Milicias, tuvo lugar un bonito partido de pelota.

Por la tarde se celebró la cabalgata histórica con que se reproduce plásticamente el regreso del gran navegante guetariano.

A presenciarla acudieron millares de personas en coches y trenes especiales.

Las autoridades y personalidades esperaron en el Albergue de Pescadores la llegada de la nao "Victoria", que llegó al puerto escoltada por multitud de vaporcitos.

Inmediatamente se efectuó el desembarco de los 18 tripulantes, perfectamente caracterizados, quienes, acompañando a la figura representativa de Elcano, se dirigieron a la Iglesia de San Salvador, para cumplir el voto que habían formulado ante la imagen de la Antigua de Sevilla.

En el templo que estaba adornado y resplandeciente de luces, se cantó un solemnísimo Te Deum.

Inmediatamente se organizó la cabalgata histórica, en la cual aparecía primero una carroza en la cual iba Sebastián Elcano y cinco bellas muchachas, representando a las cinco partes del Mundo.

La carroza era arrastrada por los indios, vestidos con la típica demostrada indumentaria, llegando así hasta el Ayuntamiento donde se entonó el himno al famoso nauta, que era coronado por las cinco reinas.

Las autoridades y personalidades entre las que se hallaban la viuda del general Mola y la señora de García Escamez presenciaron desde la Casa Consistorial el magnífico cuadro.

A continuación tuvo lugar la bendición e inauguración de la estatua de Elcano, obra en mármol del famoso escultor Belver, dándose a la plaza donde se sitúa, el nombre de Plaza de España.

El señor Huarte, comandante militar del sector pronunció un patriótico discurso, elocuente, erudito y lleno de emoción.

Tuvo una feliz alusión para la memoria imperecedera del general Mola y para la actuación magnífica de García Escamez, a cuyas señoras fué tributada una espontánea y calurosa manifestación de simpatía.

Finalizaron los actos de un gran esplendor, con un brillantísimo desfile del Ejército y Milicias, para quienes hubo aplausos y ovaciones vibrantes.

1937ko irailaren 5eko Elkanoren desfilearen berria Unidad egunkarian. (1937/09/06an argitaratua).



**Elkanoren desfilea 1932an.** **(Pascual Marín funtsa, Kutxateka Fototeka).**

Elkano seme kuttuna zen Getarian. Agintari frankistak ere horren jakitun izanik, 1937ko uztailaren 25eko udalbatzan ondorengoa erabaki zuten:

"Encontrándose la Estatua de Marmol de Juan Sebastián Elcano cedida por el Gobierno por mediación del arquitecto Sr. Muguruza, sin destino y en lugar que corre peligro de estropearse, una obra de arte de tanto valor, después de oída la opinión del técnico Sr. Guibert acuerda sea colocado en la mitad de la Plaza del Ayuntamiento, procediendo sea colocado para el día San Salvador"[560].



Estatua de Elcano acuerdo colocar en la plaza

En la Villa de Guetaria a [illegible] de Julio de mil novecientos treinta y siete. Reunido el Ayuntamiento bajo la Presidencia del Sr. Alcalde [illegible] y con asistencia de los señores gestores anotados al margen y abierta la sesión por el Sr. Presidente se dio lectura del acta de la sesión anterior siendo aprobada.
[illegible] se acordó [illegible] para [illegible] la obra que proyecta en el patio de la casa de la calle de Elcano.
Encontrándose la Estatua de Marmol de Juan Sebastián Elcano cedida por el Gobierno por mediación del arquitecto Sr. Muguruza sin destino y en lugar que corre peligro de estropearse una obra de arte de tanto valor después de oída la opinión del técnico Sr. Guibert acuerda sea colocado en la mitad de la Plaza del Ayuntamiento, procurando sea colocado para el día San Salvador.
Con motivo del aniversario del glorioso alzamiento nacional el Sr. Alcalde dio cuenta de haber enviado un telegrama de adhesión al Generalísimo Franco que hace suyo el Ayuntamiento.
[illegible] la factura de [illegible] por la leche suministrada a la farmacia de Hipólito [illegible] que se [illegible] de 50,80 [illegible] resulta que la misma factura [illegible] 75,10 pts y acuerda abonar esta diferencia.
Se aprueba también una factura del farmacéutico Sr. Olano de 50,75 por medicamentos suministrados

**Elkanoren estatua Getariako udaletxeko plazan ezartzeko erabakia.** **(GUA).**

[560] GUA, 1937-07-21.

Ordura arte, Salbatore jaietan ospatzen zen "Elkanoren lehorreratzea" eta udal-agintari frankistek ere, hasiera batean hala proposatu zuten. Beti ere, gerra testuingurua kontutan hartuta, ez zela ospakizun garaia eta, 1937ko uztailaren 30ean, jaiak, guztiz erlijiotasunean ospatzeko erabakia hartu zuten:

"Acto seguido, próximo ya las fiestas patronales del pueblo se trata del programa de festejos actos a celebrar con tal motivo. Dadas las circunstancias especiales de guerra, el Ayuntamiento entiende deben celebrarse este año solamente actos religiosos tradicionales y patrióticos y siendo la fiesta conmemorativa de la primera vuelta al mundo por Juan Sebastián Elcano que se viene celebrando con motivo de las fiestas patronales, eminentemente patriótico a la vez que religioso, se acuerda se celebre este festejo con toda solemnidad el domingo siguiente día ocho de agosto, de acuerdo con las autoridades Militares, y el día San Salvador acuerda el Ayuntamiento en corporación a la misa mayor e invitar a continuación al tradicional lunch que se servirá en el Ayuntamiento a la Junta de la Cofradía de mercantes y demás autoridades militares, eclesiásticas y civiles de costumbre.

Estando ya colocando en la plaza la Estatua de mármol de Juan Sebastián Elcano, estima el Ayuntamiento sería momento adecuado para la inauguración de la misma el domingo día ocho después de la cabalgata de Elcano y así se acuerda"[561].

Elkano, handik aurrera, espainiar nazionaltasunaren irudi berria izango zen. Batik bat, espainiar armadaren ikurra izaten jarraitu zuen. Horrez gainera, haren estatua ezarriko zen plazari, "Plaza España" izena ezartzea akordatu zuten:

"A propuesta del Sr. Aramburu acuerda se le de el nombre de Plaza España a la mayor en que se coloca la referida Estatua haciendo el descubrimiento de la placa o lápida que da este nombre a la plaza en el mismo acto de la inauguración de la Estatua"[562].

1937ko abuztuaren 2an, Gipuzkoako Gobernadore Zibilaren aginduz, "Elkanoren lehorreratzea" egunez aldatzea erabaki zen:

"Seguidamente el Secretario da cuenta de que el arquitecto provincial Sr. Cortazar se había interesado por la fiesta de Elcano organizada para el domingo próximo, diciendo que esa fiesta se debe celebrar en su aniversario que es en 1ª decena de septiembre y que si el Ayuntamiento aplaza para esa fecha la Diputación tomaría parte y ayudaría para su mayor brillantez, consultado esta indicación con el Comandante militar no encuentra inconveniente para ello y el Ayuntamiento acuerda aplazarlo así como los actos anejos que se proyectaban"[563].

Ramon Cortazar Urruzola, Gipuzkoako Foru Aldundiko arkitektoa izan zen eta Getariako seme-kuttun ere izendatu zuten. Elkanoren estatuaren inguruan lan egin zuten arkitektu guztiek Getariako udal frankistarentzat izugarrizko garrantzia izan zuten eta Ramon Cortazar gisan, Marcelo Guibert Eceiza arkitektoa ere, Getariako seme-kuttun izendatu zuten.



Ramon Cortazar. (GUA).



EL ILUSTRISIMO SEÑOR

✝ D. Ramón Cortázar Urruzola

HIJO ADOPTIVO DE GUETARIA

Falleció en la mañana del día 12 de marzo de 1945, a los 77 años de edad

DESPUES DE RECIBIR LOS SANTOS SACRAMENTOS Y LA BENDICION APOSTOLICA DE SU SANTIDAD

R. I. P.

El Ayuntamiento y pueblo de Guetaria,

RUEGAN a sus amistades encomienden a Dios el alma del finado y asistan a la misa de Réquiem que por su eterno descanso se celebrará MAÑANA, SABADO, día 24 del corriente, a las DIEZ Y MEDIA de la mañana, en la iglesia parroquial de San Salvador de esta villa.

GUETARIA, 23 de marzo de 1945.

Ramon Cortazar-en eskela. (GUA).



EL SEÑOR

D. Marcelo Guibert Eceiza

FALLECIO, EN GUETARIA, EL DIA 11 DE AGOSTO DE 1964

DESPUES DE RECIBIR LOS SANTOS SACRAMENTOS Y LA BENDICION APOSTOLICA DE SU SANTIDAD

R. I. P.

El Excelentísimo Ayuntamiento de la villa de Guetaria,

INVITA al vecindario y a sus amistades a los funerales que por su eterno descanso se celebrarán MAÑANA, DOMINGO, a las DIEZ de la mañana, en la iglesia parroquial de SAN SALVADOR, de esta villa, por cuya asistencia quedará agradecido.

GUETARIA, 31 de octubre de 1964.

Marcelo Guibert Eceiza-ren eskela. (GUA).

561 GUA.

562 GUA.

563 GUA.

Hala, abuztuaren 28an, “Elkanoren lehorreratzea” irailaren 5ean ospatzea erabaki zuten. Egun hartan ospatutako “Elkanoren lehorreratzea” ez zen nolanahikoa izan. Desfile guztiz militarra izan zen, udal-agintari, gobernadore zibil eta zenbait militarrek parte hartutakoa. Erlijioaz gain, frankistek, une hura, beren botere militarra erakusteko probestu zuten. Getarian, gerra nor irabazten ari zen adierazi nahi izan zuten ospatutako desfile haren bidez:



**Eugenio Egurbide alkatea eta gainontzeko udalbatza frankista militarrekin, 1937ko irailaren 5eko Elkanoren lehorreratzean.** (Kutxateka Fototeka).




**1937ko irailaren 5eko Elkanoren lehorreratzea.** (Kutxateka Fototeka).



**Udalbatza frankista militarrekin, 1937ko irailaren 5eko Elkanoren lehorreratzea.** (Kutxateka Fototeka).



**Zenbait getariar, garaiko betebeharra burutzen, agintari frankisten indar erakustaldian agur faxista egiten, 1937/09/05.** (Kutxateka Fototeka).



**Getariarrak, Elkanoren estatuaren inaugurazioan agur faxista egiteko derrigortuta.** (Kutxateka Fototeka).



**Elkanoren lehorreratzea, 1937/09/05.** (Kutxateka Fototeka).


Vuelven las tradiciones

GUETARIA CONMEMORA EL RETORNO DE SEBASTIAN ELCANO

**Elkanoren lehorreratzea, 1943-09-12.** (ABC).

Militarren artean, Franco diktadoreak ere Getaria zenbait aldiz bisitatu zuen:

**"A, M eta J:** (…) hona etortze huan enbarkatzea eta desenbarkatzea. Ta bea nola juten tzan atuna eta geo bueltan ba ta Getariako guardia zibilen komandanteak baino etzian iten "viva franco!" eta ridikulua izate huan. Eta bea hona etortze huan gustura, donostiko portura jun beharrian nahiago izate zian hona etorri"[564].



**Francisco Franco eta Carmen Polo Getarian.**



EL CAUDILLO EN SANTANDER

LA CAPITAL MONTAÑESA LE TRIBUTA UN GRAN RECIBIMIENTO

DISCURSO DE SU EXCELENCIA

**Franco Getarian, 1941-09-11.** (La Vanguardia Española).



ABC

**Franco Getarian, 1957-08-08.** (ABC).

[564] Testigantza: Andoni Arregi Oiarzabal, Maria Antonia Burgaña Martija eta Jose Angel Kerejeta Urresti.

Elkanoren irudia espainiar estatu frankista osoan zehar zabaldu zen. Hori, 1944ko apirilaren 15eko udal-akta honen idatziak adierazten digu:

"Dada cuenta de un telefonema dirigido al Señor Alcalde por el Capitán de Navio Señor Don Julio Guillén y que dice así 'Próximo jueves día 20 abril a las 8 de la mañana los Marinos Alicantinos saldremos procesionalmente para cumplir en la Santa Verónica de Alicante el voto incumplido que Juan Sebastián Elcano añade en su testamento. Mucho agradeceríamos la asistencia de ese Ayuntamiento al acto', y después de amplia deliberación se acuerda por unanimidad asista a dicho acto del cumplimiento del voto de Elcano ante la Santa Verónica de Alicante, una Comisión de este Ayuntamiento, presidida por el Señor Alcalde y formada además por los concejales señores Don Isidoro Chueca, Don José María Ostolaza, el infrascrito Secretario acompañado por el alguacil Don Manuel Gorostiaga quien portará el (…) de la Villa. También se acuerda por unanimidad participar esta asistencia al Pósito de Pescadores por si estiman del caso nombrar otra representación del seno de su entidad"[565].



MADRID DÍA 21 DE ABRIL DE 1944 NÚMERO SUELTO 25 CENTS.

ABC

DIARIO ILUSTRADO. AÑO TRIGESIMOSEPTIMO N.º 11.902

AYER EN ALICANTE

CON GRAN SOLEMNIDAD SE CUMPLE, EN EL REAL MONASTERIO DE LA SANTA VERONICA, EL LEGADO DE JUAN SEBASTIAN ELCANO

El Sr. García Sanchiz, en una brillante oración, hace la ofrenda. Romería y procesión religiosa. Entrega de las quince mil pesetas que constituían el legado del glorioso navegante

**Santa Veronica-ko (Alacant) monasterioa, 1944ko apirilaren 21a.** (ABC).

Elkanoren garrantzia handia izan zen eta frankismoak hari emandako erabilpena ere handia. Hala, Ignacio Zuloaga[566] pintore eibartarrak, 1922an, Gipuzkoako Foru Aldundiaren aginduz, Elkano bera irudikatu zuen, nahiz eta behin ere ez den jakin nolakoa izan ote zen, halaxe esan zuen Zuloagak "Honelakoa iruditzen zait izan beharko zukeela gure Sebastian Elkano handiak". Itxura denez, Zuloagak Zumaiako Pio Gogorza albaitariaren aurpegia erabili zuen hura margotzeko[567]. Koadro hark ere zenbait buruko min eman zizkien euskal nazionalista zein errepublikazaleei; izan ere, Eugenio Egurbidek egindako txostenaren bitartez, Eusebio Basurto Altuna, Vicente Iraundegi Ibarra eta Juan Setien Calvo, koadro hura udaletxeko hormetatik kendu eta lapurtzeaz akusatu zituen. Dena den, koadroa 1946ko urtarrilean, udal-aktek hala azaltzen dutenez, Getariako udaletxean ezarrita zegoen.



**Ignacio Zuloaga.**



**Juan Sebastian Elkano, Ignacio Zuloagaren margolana, 1922. Zenbait getariar errepublikazale honako koadroa lapurtzeaz salatu zituzten. Horregatik koadroa ezartzearen arrazoia.**
(Untzi Museoa, Gipuzkoako Foru Aldundia).



**Pio Gogorza Zumaiako albaitaria.**
(Makazaga Etxanizen artikulutik).

565 GUA.

566 Gerran zehar eta haren ostean, Zuloagak frankistentzako zenbait lan burutu zituen. Juan Sebastian Elkano ez ezik, Francisco Franco diktadorea eta Millan Astray militar frankistak, eta Jose Maria Huarte Jauregi Zarauzko Komandante militarra margotu zituen.

567 ETXANIZ MAKAZAGA, J.M., op.cit., 417-418.orr.

Hala, Getariako seme kuttuna izendatu zuten Ignacio Zuloaga eta oso maitea izan zen zenbaiten artean. Horrez gainera, 1948an Espainiako Moneta eta Tinbre Fabrika Nazionalak, Zuloagaren koadroan oinarrituta, Elkanoren aurpegiarekin, bost pezetako billeteak jaulki zituen[568]:







**Elkano 5 pezetako billetean.**



REVISTA DE INDIAS
INSTITUTO «GONZALO FERNÁNDEZ DE OVIEDO»
Consejo Superior de Investigaciones Científicas

Madrid [illegible] de Enero de 1946.

Sr. Alcalde de la M.L. e Invicta
VILLA DE GUETARIA.

Muy Sr. mío:
En contestación a su carta de 12 de los corrientes, me complazco en expresarle mi agradecimiento por el envío de las fotografías del dibujo de Juan Sebastián Elcano, que figura en el salón de actos de ese Ayuntamiento.

En el momento oportuno, tendré sumo gusto en enviarle algunos ejemplares del número de nuestra revista en que ha de ser reproducido, como ilustración a la nota necrológica sobre el genial pintor guipuzcoano, D. Ignacio Zuloaga, hijo adoptivo de la villa de Guetaria.

Le saluda afectuosamente s. s. y s.

Firmado: Ciriaco Pérez Bustamante

**Juan Sebastian Elkanoren margolana, Getariako udaletxean.** (GUA).



EL SEÑOR
D. IGNACIO ZULOAGA ZABALETA
(PINTOR)
HIJO ADOPTIVO DE GUETARIA
Falleció el día 31 de octubre de 1945
DESPUÉS DE RECIBIR LOS SANTOS SACRAMENTOS Y LA BENDICIÓN APOSTÓLICA DE SU SANTIDAD
R. I. P.
EL AYUNTAMIENTO Y PUEBLO DE GUETARIA,
[illegible]

**Ignacio Zuloagaren eskela.** (GUA).

Koadroa eta estatua ez ezik, Elkanok, bere izenez izendatutako kalea du Getarian. Haren antzera Getarian jaio eta Afrikako gerran zein karlistadetan militar gisan parte hartu zuen "General Arnao" delakoak ere Getarian bere izeneko kale bat gorde zuen. Horrez gainera, bere familiak, Getariako udalbatza frankistari haren koadro bat ere oparitu zion.



**Arnao Jeneralaren irudia.** (GUA).



El que suscribe, Felicitas Samaniego, vecina de esta villa, al Ilustre Ayuntamiento de la misma acude y con el mayor respeto y consideración expone—:

Que hace unos días falleció en San Sebastian, Dña Cristina Arnao Alcorta, hija del laureado General Arnao, ilustre y valeroso militar, hijo nativo de esta villa de Guetaria. La finada Dña Cristina, tiene tres sobrinos que se hallan desde hace muchos años ausentes en Sud America. Como allegada por parte de la esposa del aludido laureado General Arnao, con todo interes recabé de la heredera de los muebles de Dña Cristina, para que el hermoso cuadro al óleo del mencionado General, fuera donado al Ilustre Ayuntamiento de Guetaria, a lo que accedió gustosamente, es por lo que,

S U P L I C A respetuosamente al Ilustre Ayuntamiento de Guetaria, para que en virtud de cuánto se deja hecho mérito, y al hacer entrega de dicho cuadro, tenga a bien acordar en su primera reunión sea colocado en un sitio destacado de la Sala de Sesiones del Ayuntamiento, en atencion a que existe una calle del General Arnao en Guetaria, dedicado al mismo y ser a la vez originario de este pueblo de referencia.

Es gracia que no duda obtener de la reconocida bondad del Ilustre Ayuntamiento, cuya vida guarde Dios muchos años.

Guetaria a 27 de Mayo de 1947.

Felicitas Samaniego

Al Ilustre Ayuntamiento de la Noble, Leal é Invicta Villa de GUETARIA.

**Arnao Jeneralaren.** (GUA).

[568] Elkanoren aurpegia zer-nolakoa izan zen gaur egun ez da ezagutzen, ez dago dokumentatuta. Beraz, irakurle, jabetu batzuetan nola egiten diren mitoak….

Pertsonaia hauek guztiek, Espainia frankistaren batasuna berresteko ezinbesteko tresnak izan ziren Getarian, tropa frankistek haien menpean hartutako gainontzeko Euskal Herriko herri ezberdinetan burutu zuten gisan.

Alfontso XIII.a errege espainiarrak ere zeresana zuen, eta Francok diktadore jarraitu eta bere erregealdia hartu gabe hil zen 1941eko martxoaren 2an, erbestean:

"Que según noticias, ha fallecido en Roma el que durante tantos años fue Rey de España augusto D. Alfonso de Borbón, quien durante un largo periodo rigió los destinos de España, y sin que el exponente tenga capacidad para enjuiciar su conducta, lo cual dirá la Historia en su tiempo, propone al Ayuntamiento se haya constar en acta su sentimiento. El Ayuntamiento acuerda por aclamación y facultad al Sr. Alcalde para organizar un funeral o acto que sea en homenaje (…), al que concurrirá el Ayuntamiento en pleno"[569].

## 4.2.3. Estatu laikotik, nazional katolizismora

1936ko uztailaren 17 eta 18 bitartean militarrek emandako estatu kolpea, espainiar kleroaren zati handi batek babestutakoa izan zen. Klero euskal nazionalista, Bigarren Errepublikako gobernu legitimoaren baitan posizionatutako klero gutxienetarikoa izan zen.

Eliza nazional katolikoak, garaiko Aita Santuaren babesarekin, Bigarren Errepublikako gobernu legitimoaren eta hura babesten zuten herritarren aurkako borroka "Santa Cruzada" gisan aldarrikatu zuen. Hala, errepublikazaleak, Erdi Aroan eta historian zehar musulmanei, arabiarrei eta juduei emandako ezaugarri umilgarriekin hornitu zituzten. Garai hartan egin bezala, beren erlijioa praktikatzen ez zuten pertsonen aurkako erailketa, bortxaketak… ongiaren bidearen adierazle gisan justifikatu zituzten.

Bigarren Errepublika aldarrikatzean, gobernuak, estatuaren laikotasuna, hau da, handik aurrera elizari ez ziola laguntza ekonomikorik emango eta bertako kideek ez zutela gobernu hartan inongo parte hartzerik izango adierazi zuen. Urte luzeetan zehar, espainiar kleroak izugarrizko abantaila eta irabaziak lortu zituen Espainiar Monarkia eta estatuari bat eginik. Bigarren Errepublikako gobernuak hura kendu ez ezik, hezkuntzan parte hartzeko aukera ere kendu zion, lehenengo kapituluan argitu dugunez.

Frankistek berriz, bestelako apustua egin zuten. Erlijioa haien oinarri garrantzitsuenetariko baten gisan azaldu zuten eta estatuaren erabaki gehienetan izugarrizko garrantzia izan zuen. Getarian ere halako indarrik izan zuen. Hala, 1936ko urriaren 21ean Getariako udalbatza frankistak honakoa aldarrikatu zuen:

"El sr. Alcalde manifiesta que ha tratado el cabildo sobre la reintegración al salón de sesiones del sagrado corazón que fue retirado por orden del Gobierno de la República y que para ello sería día adecuado el domingo próximo día de Cristo Rey, y es aceptado la propuesta por unanimidad"[570].

Erabaki haren bitartez, 1936ko urriaren 25ean, igandean, izugarrizko ospakizuna gauzatu zen Getarian:

"A continuación tuvo lugar la entronización del Sagrado Corazón de Jesús en el Ayuntamiento, celebrándose una procesión desde la parroquia con toda majestuosidad, que a este acto prestaban los requetés y falangistas. Debidamente instalada la venerada imagen en el Ayuntamiento, y hechos los oportunos honores militares de ordenanza, salieron al balcón las autoridades y a instancias del Comandante Militar de esta plaza, señor Manso de Zúñiga, el culto capellán Aristimuño, pronunció un vibrante discurso alusivo al acto, en vasco y en castellano, explicando la significación del reinado de Cristo, ensalzando el acto que se realizaba y la importancia que para un pueblo católico representaba. Finalizó la ceremonia con unos vivas del joven alcalde don Ramón Manterola, que fueron contestados con el mayor entusiasmo. ¡Viva la España Católica! ¡ Viva el Ejército Español!"[571].



Página 14 — La Voz de España — 28 de Octubre 1936

**Desde Guetaria**

POR CRISTO REY

Los actos celebrados el domingo pasado son dignos de hacerlos públicos por la grandiosidad y brillantez que revistieron. Todos contribuyeron a dar la nota cumbre en día tan señalado: autoridades militares, civiles, eclesiásticas, falangistas y requetés aquí destacados, y el pueblo salió en masa. La brillante Banda de música de la vecina villa de Zarauz, traída expresamente, hizo que la fiesta de Cristo Rey tuviera el esplendor y la solemnidad debida en esta localidad.

A las nueve de la mañana los bizarros requetés y falangistas, en número aproximado de setenta, desfilaron con toda marcialidad y en perfecta formación por todas las calles de la villa, con la gloriosa bandera española y de la Falange, a los aires del popular Himno de Oriamendi y el de las Flechas; a las diez, el Ayuntamiento en pleno con todas las autoridades y precedidos por la citada Banda de música se trasladó al histórico y artístico templo de San Salvador, (monumento nacional) donde tuvo lugar la solemne misa mayor que fué oficiada por el virtuoso y veterano sacerdote don Ignacio Urdampilleta, y ayudado por el presbítero don Ignacio Larrañaga, y el capellán de las Ursulinas de Lasarte señor Aristimuño, cantándose la gran misa pontifical de Perosi por la capilla parroquial con la seguridad y afinación propia de los grandes cantores.

El momento de alzar fué de una emoción grandísima. Unidas las dos banderas, la Española y de Falange, la Banda de Zarauz entonó el Himno de Cristo Rey, causando tal impresión que todos los corazones se alzaban para implorar del Altísimo el triunfo de las armas nacionales. Terminó la misa con la marcha de San Ignacio.

A continuación tuvo lugar la entronización del Sagrado Corazón de Jesús en el Ayuntamiento, celebrándose una procesión desde la parroquia con toda majestuosidad, que a este acto prestaban los requetés y falangistas. Debidamente instalada la venerada imagen en el Ayuntamiento, y hechos los oportunos honores militares de ordenanza, salieron al balcón las autoridades y a instancias del Comandante Militar de esta plaza, señor Manso de Zúñiga, el culto capellán señor Aristimuño, pronunció un vibrante discurso alusivo al acto, en vasco y en castellano, explicando la significación del reinado de Cristo, ensalzando el acto que se realizaba y la importancia que para un pueblo católico representaba. Finalizó la ceremonia con unos vivas del joven alcalde don Ramón Manterola, que fueron contestados con el mayor entusiasmo. ¡Viva la España Católica! ¡Viva el Ejército Español!

CIRCULO TRADICIONALISTA

Los directivos del nuevo Círculo Tradicionalista de Guetaria, están desplegando actualmente una actividad grandísima, atrayendo a sus filas numeroso elemento joven y sano. Asimismo, los componentes de la Junta de Guerra Carlista, con la organización del requeté auxiliar y voluntario, requetés de marinos activos y secretariado social con su Bolsín de trabajo.

EL CORRESPONSAL

**"Cristo Rey"-ren entronizazioa.**
(La Voz de España).

569 GUA.

570 GUA.

571 La Voz de España, 1936-10-28.

Getariako udalbatza frankista, tropa frankistak herrira sartuz geroztik, meza nagusira joatera derrigortuta zegoen eta herrira etorritako edozein klerori, errespetua erakutsi behar zieten:

"Próximo el día San Prudencio festividad de la Ermita o Barrio de este nombre, acuerda que el Ayuntamiento asista a la misa mayor, e invitar al clero, predicador y cantores a la comida que se ha de encargar en dicho caserio, siguiendo la tradicional costumbre de este día"[572]

"Seguidamente se dio cuenta de la Circular de la Jefatura Provincial de F.E.T. dando instrucciones para la celebración y conmemoración de los caídos durante la pasada Cruzada y se acordó organizar una misa solemne de Régimen y acudir el Ayuntamiento e corporación y publicar un bando invitando al vecindario y oficiados"[573]

"Luego se dio cuenta del escrito presentado por el Sr. Párroco y por la que invita al ayuntamiento a la asistencia en corporación a los actos religiosos los días que señala, así como al igual que se venía haciendo anteriormente, costee los sermones de los días de costumbre y por último, ruega que en vista de que los bancos destinados a las autoridades se encuentran en malas condiciones y a fin de que tengan su debida decorosidad lo costee el ayuntamiento 2 nuevos bancos que desea instalar con destino a las autoridades. El ayuntamiento después de alguna discusión acordó abonar los sermones de los días jueves y viernes Santo, San Salvador, San Prudencio y San Martin, al igual que antes a 20 pesetas. Asistir a las funciones religiosas de los días que señala, excepto los días de San Antón, San José, (…) de pentecostés, Asunción de Nuestra señora y todos los Santos así como los terceros domingos del mes. Y sobre los bancos acuerda en principio contribuir uno y se dispone pedir presupuesto"[574].

Erlijio katolikoak "Santa Cruzada" deiturikoaren izenean, zenbait apaizi armak erabiltzen erakutsi eta erreketeekin batera gerrara bidali zituzten. Haietako bat, aurreko kapituluan aipatutako Luis Inchaurrandieta Arreche lezoar apaiz erreketea izan zen. Gerra garaian, Oriamendi Tertzio erreketeko alferez gisan borrokatu zuen Bigarren Errepublikako gobernu legitimoa defendatzen zuten errepublikazaleen aurka. Behin Getariako parroko izendatuta, errepresio bortitza egin zien zenbait getariarrei:



**Arturo Reque Meruvia 'Kemer' boliviarraren, Alegoría de Franco y la Cruzada.** (Archivo Militar General de Ávila).

"**K:** Hamen gendun urte askuan, frentian eondako apaiz militar bat, iual aituko zenuan. Apaiz militar txar bat… gogorra… gogorra… insoportablia! Daneako e (…) **E: eta zer tzaukan herria kontrolatuta? Bai, ea zein juten zan ea zein etzan juten… K:** bai, bai. Nei Kontxita deitzen tzian baiño nere ahizpai Agurnei adibidez, Maria del Rosario ta… ta gure amak "yo no me llamo Maria del Rosario soy Agurne" ta segi horretan. Beittu zemateaiño nijuan, nik hamar urte nitunian, ni ta getiyar bat, nexka…, ai gea baatzian ta etorri xaixkiu bi mutil, getaiyarrak e… bat Olarrekua ta Tomas, baltzian eingo? Eta ze emango? guk orduan da, tiubibuan buelta

572 GUA.

573 GUA, 1940-10-27.

574 GUA, 1941-04-11.

bat. Bale. Tiubibua jun, buelta bat in norian ta atzea baatzea. Eta biarrenguan esan tziun, berriz ingo? Ze emango? Eztakau gehixo dirua. Batez. Hurrengo egunian herriko festetan, hurrengo eunian, ni aiton-amonakin afaitan ta Don Luis hua etorri zan gue etxea eta esan tzioben gue aiton-amonari zuen billoba hau excomulgatuta dao. Da haixek etzekixeben zer tzan excomulgatzia, disparate bat… ta Kontxi ze izen esan du? Ezer ez aitona, ni gaixtua naizela ta ez gehiyo eleiza juteko, ez deila eleizan harrapatu. Ze ein den ba?! Pako Barrekuakin baltzian[575]. Ta hori ein diñelako eztakan gehixo eleiza juteik? Ba ez, enua! Jun giñen baiña… baiña horrelakotxia. Excomulgatuta! Orduan hamalau urtekin nei excomulgatuta nola esatia? Dan, dan, dana hola… jartzen tzun jaleua herrixan. Bestela ez dakat nik apaizegatik eta, (…)"[576].

Garai hartan, emakumearen eta gizonezkoaren arteko harremanak guztiz sakratuak ziren. Beste hitz batzuetan esanda, emakumezko eta gizonezkoen arteko harreman sentimentalak garaiko sozietate frankistan ez ziren existitzen, gai tabua ziren, ezkutukoak. Zer esanik ez, emakumezko zein gizonezko homosexualen eta transen bizitzak, ez ziren existitzen, ezkutuan bizitako bizitzak ziren. Ezkutuan, hain zuzen, gogor zigortuak izaten baitziren, esaterako, Fuerteventura-ko irlan homosexualentzako prestatutako kontzentrazio-eremuan zeina 1966ra arte funtzionamenduan egon zen[577]. Haren helburu nagusia, estatu frankistak hobesten zituen balio tradizionalak emakumezko zein gizonezko haiei guztiei errotzean zetzan, indarkeria fisiko zein psikikoaren bidez.



**Dantzaldi mistoa.**




**Emakumeak rol tradizionaletan hezteko.**
**(Sección Femenina-ren aldizkaria).**

Isiltasunean mantendutako krudelkeria horiez gain, egunerokotasunean emakumezko zein gizonezko getariarrek, sistema tradizional muturreko hark inposatutako zenbait neurri pairatu behar izan zituzten. Arau haiek guztiak ezartzen, berebiziko garrantzia izan zuen eliza katolikoak berak. Garaiko eliza katoliko espainiarrak ez zuen onartzen emakume eta gizonezkoen arteko azal kontakturik behin ezkondu arte. Emakumezkoak, ezkondu bitartean, ezin zuen azal kontakturik izan gizonezkoarekin, hura erlijioaren izenean sakralizatzean, hau da, ezkontzean baino ez zuen lortzen. Emakumezko eta gizonezkoaren gorputzen arteko kontaktua, familia sakratua osatzeko mekanismo gisan baino ezin zen erabili. Hura erregulatzeaz, estatu mailan Sección Femenina eta Acción Católica-ko emakumeak aritu ziren.

Getariako kasuan, Sección Femenina-ko zuzendaria Leonor Molet Garate izan zen eta Petra Gorria zein Carmen Ugarte ere, bertako afiliatuak izan ziren. Hauek emakume getariarrek moral garbia zuten ala ez zehazten zuten. Horrez gainera, Getariatik kanpora lanera zein ikastera joan behar zuten emakumeek zuzendariaren sinadura behar izaten zuten. Hala, Moletek, "moral zikina" zuten getariar emakumezkoei ez zien baimenik ematen halakorik bete zezaten. "Moral zikina"-ren barnean, zenbait egoera sartzen ziren: harreman sexualak ezkondu baino lehen izatea eta haurdun geratzea, emakumezko eta gizonezkoek ezkondu baino lehen elkarren artean dantza egitea… Esan beharrik ez dugu, gerra galdutakoen alabek, beti ere, baimena lortzea zailagoa izan zutela gerra irabazi zutenek baino.

575 Dantzan.

576 Testigantza: Kontxita Oiarzabal Idiakez.

577 Ikus atal honetako "Eraso homofoboak" azpiatala.

Halako kasurik badugu Getaria aldean. Zehazki, Meagako auzoan. Udaletxeko dokumentuak ikertuta, 1941ean, Gipuzkoako Gobernadore Zibilak, Meagako auzoko jaieroko dantzaldia debekatu egin zuen, itxura denez, egiten zuten tokia egokia ez izateagatik. Hala, orduko Getariako alkate Eugenio Egurbide Azpeitiak, Gobernadore Zibilari dantzaldia baimentzeko erregutu zion, hartarako toki berri bat proposatuz. Handik hiru egunera, Gipuzkoako Gobernadore Zibilak berriro dantzaldia martxan jartzeko baimena eman zion, beti ere, moral katolikoa errespetatuko zela bermatu behar zuelarik. Hala ez eginez gero, dantzaldiko baimena berriro ere kendu egingo zitzaien.



COPIAS DE LAS COMUNICACIONES SOBRE BAILE
DE MEAGAS

Del escrito remitido al Gobierno Civil:
=Nº 155 = El vecindario del barrio de Meagas de este término municipal y distante 4 kilometros del pueblo, ha interesado de esta Alcaldía la autorización necesaria para reanudar el baile ó romería dominguera a partir del próximo día de pascua, cuyo baile o romería, a base de un acordeon, se viene celebrando desde hace muchos años en el citado punto y fue prohibido por XXXX V.E. por comunicado de fecha 10 de Diciembre último, en virtud de una denuncia, por tener lugar dicho baile en el cruce de la carretera, lo que en efecto infringía las ordenes dadas por V.E. a este respecto.
En la petición de la autorización se indica como lugar de baile, la pradera contigua a la casa venta de dicho barrio y separado de la carretera, por lo que esta Alcaldía, teniendo en cuenta que es costumbre tradicional y que se considera el mas sano esparcimiento de la juventud, no encuentra inconveniente para autorizar dicho baile y transmite á V.E. por la presente, rogandole se digne resolver lo que estime más procedente.=
Dios guarde á V. E. ms. añs.
Guetaria 1 de Abril de 1941
El Alcalde (Eugenio Egurbide) Rubricado.=
Excmos Sr. Gobernador Civil de la provincia. SAN SEBASTIAN

Copia de la contestación

GOBIERNO CIVIL DE GUIPUZCOA= Secretaría general.= Negociado 2º. = Nº 552.=
=Visto su escrito de fecha 1º del actual, Nº 155, en el que solicita de este gobierno la correspondiente autorización para reanudar a partir del próximo día de pascua el baile ó rimería dominguera, en el nombre del vecindario del barrio de Meagas, la cual tendrá lugar en una pradera contigua a la casa venta de dico barrio:
He acordado en uso de las atribuciones que me están conferidas, acceder a lo solicitado, siempre que por esa Alcaldía sea establecida la debida vigilancia para el mantenimiento del orden, así como para la más exacta observancia de las normas de moral y buenas costumbres; significandole que en caso de incumplimiento de lo ordenado, será retirada inmediatamente la autorización que por el presente oficio se concede.=
Lo que comunico á Vd. para su conocimiento, como contestación al escrito de referencia y demás efectos. =
Dios guarde á V. ms. añs..
San Sebastian, 4 de Abril de 1941.
El Gobernador Civil (firmado ilegible)
Sr. Alcalde de Guetaria».

Lo anteriormente transcripto es copia fiel de los originales obrantes en la Secretaría de este Ayuntamiento.
Guetaria 5 de Abril de 1941
El Secretario

Meaga auzoko dantzaldiaren debekua. (GUA).



AYUNTAMIENTO
DE
GUETARIA

Nº

En uso de las atribuciones que me confiere, el Art 84 de la vigente Ley Municipal, he dispuesto en evitación de ofensas a la moral, a los imperativos católicos y el decoro público, denegar para lo sucesivo mi autorización a cualquier clase de baile, comprendido entre los denominados con la acepción genérica de "agarrado" que pueden o intenten celebrarse en ese barrio de su demarcación, por lo que exhorto a Vd. a que tome cuantas medidas sean necesarias, requiriendo incluso a mi autoridad si preciso fuere, a fin de impedir la celebración de todo baile incluso el que ahí se celebra los domingos, si es de la arriba referida clase.

En cualquier caso en que burlando sus celo y vigilancia tenga Vd. noticia de haberse incumplido esta mi orden, debera Vd. darme cuenta inmediata del hecho con los nombres de los infractores a fin de imponer a estos la correspondiente sanción.
Dios guarde á Vd. muchos años.
Guetaria, 10 de Abril de 1.945
El Alcalde

**Dantzaldien debekua.** (GUA).

Debekuek jarraitu egin zuten. Luis Inchaurrandieta Getariako parrokoak 1945eko martxoaren 31n, moral katolikoa babestu ahal izateko, Meagako, Askizuko eta San Prudentzio auzoetako dantzaldiak debekatu zituen.

1945eko apirilean, Getariako alkateak, “denegar para lo sucesivo mi autorización a cualquier clase de baile, comprendido entre los denominados con la acepción genérica de ‘agarrado’” adieraziz, Meaga auzoko dantzaldi “lotuak” debekatu egin zituen.

**“E: Leno libre al tzan dantza lotua itia? M:** ez… hijas de María giñan! Eta eun batian, hamen hola… (…) San Antonak izango zien, eta han genbiltzan baatzian bi neska eta jun dia argiyak eta etorri zaixkiu mutillak. Ta ein deu mutillekin, ta tak! Argiyek etorri ta ia, deskubritu giñun mutillekin baatzen ai giñela. Hurrengo eunian fuera hijas de María! Ia medalla kendu. (…) Baatzien mutillekin da, orduen, deshonra! (…) Zaautzen bota zuen pelikula bat, ‘La mujer de dos caras’, zea zan pikardi xamarrekua, eta hala hurrengo egunian, ‘jun, jun, ‘La mujer de dos caras’ ikustea, infernu biziyan zaudete! Ta marruaka pulpitutik”[578].

[578] Testigantza: *ahotsak.eus*. Maria (Miren) Iruretagoiena Olano: GET-025/034.

### 4.2.4. Hezkuntza frankista

“Se dio cuenta de una circular del Gobierno Civil ordenando que en el término de 10 días se recojan de la sección de enseñanza los treinta carteles patrióticos para los 6 locales escuelas de la localidad (...)”[579].

**“A, M eta J:** (…) ta, eskolan e, falangista jantzi behar eta bandera nazionalarekin desfilatu behar”[580].

Handik aurrera euskara hezkuntzan, gainontzeko eremuetan gisan, debekatu egin zen. Hezkuntza, frankistei, tresna oso baliotsua bihurtu zitzaien. Haren bitartez, oraindik ere kontzientzia garaturik ez zuten haurrak beren balio tradizionaletan hezi ahal izan zituzten. Balio haien artean, espainiartasuna zegoen, Getariako udaleko aktetako aurreko aipuak adierazten digunez. Frankismoak, “España, una, grande y libre” baten aldeko apustua egin zuen. Baina askatasunetik gutxi zuen, hizkuntza gutxituak debekatu eta haiek erabili zein defendatzen zituztenak errepresio fisiko zein psikologikora kondenatzen baitzituzten:

**“M:** euskeraz, ni Miren izena, ta (…) Bartzelona jun giñanian amak nei Miren eta Miren deitu zialako, kartzelan eon tzan hiru eunian ama. Euskalduna ta euskaldunan kontrakuak haiek. (…) Eta euskeraz da ez, erderaz, erderaz asko ez geñikiun, da ahal genun bezela ixil-ixilik batzutan da bestetan… da holaxen! (…) gu hirurok hantxe komentuan!”[581].

Adierak berak zioen bezala, Espainiar Estatu batu baten aldeko apustua egin zuten frankistek. Hura lortu ahal izateko, indarkeria erabili behar izanez gero, arazorik gabe egiten zuten. Espainiar nazionalismo tradizionala gogorki inposatu zuten, baita Getarian bertan ere. Herrian bertan euskaraz hitz egiteko aukera bazen ere, eskolako haur eta ez hain haurrek, gaztelania hitz egiteko betebeharra zuten. Hala ez eginez gero, zigor gogorrak jasotakoak ere bazarete zenbait Getarian:

**“E: (…) han ze ite zenuten erderaz? M:** bai, erderaz eite genun. Maistra beare erdalduna zan, ta erderaz eite genun hor. Bea erdalduna zan da erderaz… **E: eta zuen artian nola eite zenuten? M:** guk, euskeraz! **E: eta zigorrikan eukitze zenuten euskeraz iteatik o? M:** bai… biatzak hola jarri ta emate ziun, euskeragatik ta beste… baibe, baibe etzuen ulertzen beak maistrak ta uste zula gaixkiesaka… oindik goguan dakat eskuk hola jarri ta (zeinua egiten du) eta zartatekuak nola emate zixkiun! Hori ta… gero bere onduan jarri ta belauniko re bai ta… bost-hamar bat minutu edo hola…”[582].

“ **A:** (…) guk danon arten euskeraz, guk gaizkixena emate giñun eskolan ba iual letzeko gauzek eta denak, liburu danak erderaz, entenditzen zaila. Zuentzako oso zaila izan behar zuen ez? **A:** guretzako zaila zan, euskeraz idaztia ta letzia, eta oaindik nei asko kostatzen zait euskeraz leitzia. Kalean eta euskeraz hitz egiten zenuten? Bai, dana beti. Doktrina eta gaztelaniaz? Ez, doktrina euskeraz. Dotrina ezteu, eztakit liburuak eongo zian; entziklopedia batzuk zian erderaz (…)”[583].

**“E: eskola euskeraz izaten zan? S:** A bai… buenos días y buenas tardes! (algaraka). Euskeraz?! Habla en cristiano! **E: eta euskeraz eiñ ezkeo, egurre? S:** Hombre… hombre… **EU:** erdalduna zan gurie… **S:** baiña zuena xuabia zan e… **EU:** bai gurie Maxima… (…) guk doña Maxima genduan denbora guztixan. **E: hamen hainbeste denboa inda, euskeraz ikasiko zun ez? EU:** ite zitun, entenditze zun, entenditu bai. Hitz ein gutxi e…”[584].

**“E: ta ezta beldurrik izan euskeraz eitteko? J:** Hemen ez, hemen ez, horrenbeste… eskolan pixkat bai, kastigua ematen ziun. Geo Naparroa jun giñen kolegixoa ta han gehio. Oriotarrak eta ni euskeraz hitz eiten ta… kastigue jartze giñutzen, baiño ze eingoxou ba! **E: ze kastigo mota? J:** “no hablaré en vasco más” repite trescientos veces, holako gauzak. Jun hara, al lado de la pared! Holako gauzak. Eta hemengo eskolan bai bai, kantatu ein bihar “cara al sol” da… viva españa ta… baiño geo maixuak bakarrik zakin da. Han beatzi urte ta hamar urte ta…”[585].

Euskera debekatuta, hezkuntza frankista nazionalismo espainiarrean oinarritutako balioak inposatzen saiatu zen. Hartarako zenbait lege atera zituen, hurrengo lerroetan Gipuzkoako Junta Carlistak herri guztietan aplikatu beharreko hezkuntzako legeak ageri zaizkigu:

“Junta Carlista de Guerra de Guipúzcoa, 31 de agosto de 1936:

Las autoridades representativas de este movimiento dedicarán especialísima atención a la Enseñanza, conscientes de la decisiva importancia que ella iene para la formación del espíritu de la nueva España. Cuantos obstáculos dificulten este sentido, claro y rotundo, que se quiere dar a la formación de las nuevas generaciones serán apartados inexorablemente. Nadie piense en claudicaciones ni en desidia sobre esta cuestión. Los maestros instructores han de incorporarse resultamente a esta obra o serán apartados de sus cargos inmediatamente. Una persistente y rigurosa inspección se establece sobre los centros de enseñanza y ella aquilatará hasta que punto se cumplen estas instrucciones y el grado de ocio y de buena voluntad que cada maestro pone en esta labor nacional.

Espero que V.E. sabrá darse cuenta de toda la importancia que esta Junta atribuye a la presente circular y que pondrá especialísimo empeño en que su contenido tenga puntual cumplimiento en ese pueblo.

---

579 GUA, 1937-04-21.

580 Testigantza: Andoni Arregi Oiarzbal, Maria Antonia Burgaña Martija eta Jose Angel Kerejeta Urresti.

581 Testigantza: *ahotsak.eus*. Maria (Miren) Iruretagoiena Olano: GET-024/010.

582 Testigantza: *ahotsak.eus*. Maria (Miren) Iruretagoiena Olano: GET-024/026.

583 Testigantza: Anuntxi Aranguren Burgaña.

584 Testigantza: *ahotsak.eus*. Sabina Azkue Fernandez eta Eugeni Lazkano Ulazia. GET-010/005. Kasu honetan Eugenio, EU-rekin adierazi da, eta E, elkarrizketatzaileari dagokio.

585 Testigantza: Joxe Arregi Aranguren.

1ª.Se constituirá en cada pueblo Consejo local de 1ª Enseñanza, sustituyendo las personas de significación política afecta al Frente Popular por otras adheridas al movimiento salvador de España y se dará entrada en la misma obligatoriamente al Sr. Cura Párroco de la localidad.

2ª.El día 15 de Septiembre se celebrará con la mayor solemnidad en las escuelas públicas la inauguración del curso escolar con asistencia de la Junta Local de Instrucción procurando con la ceremonia hacer ver a los alumnos que una nueva era empieza en España inspirada en los principios de la Religión Católica y en los de un nacionalismo españolista fervoroso.

3ª.La bandera española ondeará obligatoriamente en la fachada principal de todas las escuelas y centros de enseñanza, tanto públicos como privados. El Crucifijo presidirá todos los locales destinados a las clases y habrá grandes mapas murales de España. Se procurará también que en dichos locales se prodiguen cuadros, estampas, etc. con motivos religiosos y de episodios de la Historia de España.

4ª.La enseñanza, tanto en las escuelas públicas como en las privadas, ha de ser eminentemente católica y españolista. Será obligatoria la instrucción del Catolicismo, de la Historia Sagrada y de la Historia de España.

Los trabajos escolares empezarán y terminarán rezando colectivamente un Padrenuestro bajo la dirección del Maestro. Éste instruirá a los niños de la doctrina católica con especial empeño. Los instruirá también de la Historia Sagrada y de la Historia de España, explicando a los niños con predilección las aportaciones de los vascos –y en especial de los guipuzcoanos y, más concretamente, de los hijos ilustres de cada pueblo- a la formación y a las gloriosas gestas de la nación española, así como los beneficios que las Provincias vascongadas y especialmente Guipúzcoa han recibido de la unidad de España.

5ª.Será obligatoria la asistencia colectiva de los niños de las escuelas con sus maestros a la Misa mayor de los domingos en la Parroquia de cada pueblo.

6ª.A los niños que sólo sepan el vascuence, se les dará la enseñanza en vascuence, pero se les enseñará además con especial empeño el castellano. A los niños que pueden entender la enseñanza en castellano se les dará aquella en esta lengua.

7ª.Se designa a don Manuel Jimenez Cachón, Inspector de Enseñanza de la zona ocupada con carácter provisional, y con la misión de velar por que se cumplan puntualmente estas instrucciones tanto en los centros escolares públicos como en los de iniciativa privada"[586].


La finalidad principal del movimiento iniciado por el Ejército y las fuerzas más sanas de la nación consiste en sustituir totalmente el espíritu que inspira el organismo del Estado. Este va a ser modificado fundamentalmente, de la raíz a la cúspide, animándolo con los principios que constituyen el genio de España.

Palanca esencial para esta obra de transformación del espíritu español es la Enseñanza que, por consiguiente, ha de ser en lo sucesivo fundamentalmente católica y netamente españolista sin paliativos, sin remilgos de ninguna clase.

Las autoridades representativas de este movimiento dedicarán especialísima atención a la Enseñanza, conscientes de la decisiva importancia que ella tiene para la formación del espíritu de la nueva España. Cuantos obstáculos dificulten este sentido, claro y rotundo, que se quiere dar a la formación de las nuevas generaciones serán apartados inexorablemente. Nadie piense en claudicaciones ni en desidia sobre esta cuestión. Los maestros instructores han de incorporarse resueltamente a esta obra o serán apartados de sus cargos inmediatamente. Una persistente y rigurosa inspección se establece sobre los centros de enseñanza y ella aquilatará hasta qué punto se cumplen estas instrucciones y el grado de celo y de buena voluntad que cada maestro pone en esta labor nacional.

Espero que V.S. sabrá darse cuenta de toda la importancia que esta Junta atribuye a la presente circular y que pondrá especialísimo empeño en que su contenido tenga puntual cumplimiento en ese pueblo.

1ª.- Se constituirá en cada pueblo Consejo local de 1ª Enseñanza, sustituyendo las personas de significación política afecta al Frente Popular por otras adheridas al movimiento salvador de España y se dará entrada en la misma obligatoriamente al Sr. Cura Párroco de la localidad.

2ª.- El día 15 de Septiembre se celebrará con la mayor solemnidad posible en las escuelas públicas la inauguración del curso escolar con asistencia de la Junta local de Instrucción procurando con la ceremonia hacer ver a los alumnos que una nueva era empieza en España inspirada en los principios de la Religión Católica y en los de un nacionalismo españolista fervoroso.

3ª.- La bandera española ondeará obligatoriamente en la fachada principal de todas las escuelas y centros de enseñanza, tanto públicos como privados. El Crucifijo presidirá todos los locales destinados a las clases y habrá grandes mapas murales de España. Se procurará también que en dichos locales se prodiguen cuadros, estampas, etc. con motivos religiosos y de episodios de la Historia de España.

4ª.- La enseñanza, tanto en las escuelas públicas como en las privadas, ha de ser eminentemente católica y españolista. Será obligatoria la instrucción del Catecismo, de la Historia Sagrada y de la Historia de España.

Los trabajos escolares empezarán y terminarán rezando colectivamente un Padrenuestro bajo la dirección del Maestro. Este instruirá a los niños de la doctrina católica con especial empeño. Los instruirá también de la Historia Sagrada y de la Historia de España, explicando a los niños con predilección las aportaciones de los vascos - y en especial de los guipuzcoanos y, más concretamente, de los hijos ilustres de cada pueblo - a la formación y a las gloriosas gestas de la nación española, así como los beneficios que las Provincias vascongadas y especialmente Guipúzcoa han recibido de la unidad de España.

5ª.- Será obligatoria la asistencia colectiva de los niños de las escuelas con sus maestros a la Misa mayor de los domingos en la Parroquia de cada pueblo.

6ª.- A los niños que sólo sepan el vascuence, se les dará la enseñanza en vascuence, pero se les enseñará además con especial empeño el castellano. A los niños que puedan entender la enseñanza en castellano se les dará aquella en esta lengua.

7ª.- Se designa a don Manuel Jimenez Cachón, Inspector de Enseñanza de la zona ocupada con carácter provisional, y con la misión de velar por que se cumplan puntualmente estas instrucciones tanto en los centros escolares públicos como en los de iniciativa privada.

Al comunicarle estas instrucciones me permito manifestarle que don Manuel Jimenez Cachon, visitará a Vd. para poner en ejecución de mutuo acuerdo estas decisiones.

Dios guarde a Vd. muchos años.
Tolosa, 31 de agosto de 1936.

P. LA JUNTA CARLISTA DE GUERRA DE GUIPUZCOA,
EL PRESIDENTE,

JUNTA CARLISTA DE GUERRA DE GUIPÚZCOA
TOLOSA

**Estatu-aparailu frankista, hezkuntza arautzen, 1936ko abuztuaren 31n.** (AUA).

Euskararen debekua erabatekoa izan zen. Haren zantzurik ere aurkitu dugu Getariako Erregistro Zibilean. Bigarren Errepublika garaian haien izenak euskaraz ezarritako haurrei, haien izenak gaztelaniara bihurtu zizkieten, derrigorrean.

[586] Alegiako Udal Agiritegia: 510. Kaxa. 1936-1939 Gerra Zibileko Dokumentuak.




**Izenak gaztelaniaz.** (Getariako Erregistro Zibila).

Hori gutxi ez balitz, berriro ere, erlijioa ikasgeletara sartu zen eta, errezuak gizakiaren gorputzen ezagutzari tokia hartu zion. Handik aurrera, ikasgelako biluztasun bakarra Jesusen irudi sakratua izan zen. Erlijioak izugarrizko indarra hartu zuen berriro ere liburuetan. Apaiz eta mojek ere, beren ohiko jantziekin eskolak emateari ekin zioten. Bigarren Errepublikan zehar gauzatutako sekularizazioa bertan behera geratu zen. Handik aurrera, Bigarren Errepublikako Misio Pedagokiko, Unibertsitate Popular, Proletalgoaren Teatroak zein teatro ibiltariak ez zuten berriro ere eszenatokirik izanen. Isiltasuna eta beldurra nagusitu ziren diktadura frankistako lehen urteetan.

**"E: eskolan ze ikaste zan? S:** Sumar ta restar da… ta defenditu ein gea e! Meritua guk dakau! (…) juxtukua, gutxi jute giñan eta, eziñ! E: eskolan liburuak eta izate zien? S: Bai… emate zizkiuben bai… geuk emate gendun dirua gendun lapitza eo zeoze, nono fundamentuik ez! Ezta pentsatu re! Etortze zien maixuak herrira danak entxufistak zin. Eon tzan bat kofradixen mutillentzako, hark etzekien ez, justu-justu jakingo zun sumar da restar da hala re multiplicar… hua ekarri zuen… zea legionaixua eo ze esate zakoe?"[587].




**Diktadura frankistako eskola-liburuak.** (El Florido Pencil).

[587] Testigantza: *ahotsak.eus*. Sabina Azkue Fernandez. GET-010/004.


**Diktadura frankistako eskola nazional bat.**

Bigarren Errepublikan zehar emakumezko zein gizonezkoen hezkuntza berdintasunean oinarritzen saiatu baziren, hezkuntza frankista ezinbestekoa izan zen hurrengo kapituluetan mintzoko garen emakumezko zein gizonezko berria sortu ahal izateko. Haurra, beti ere, esaten digutenez, esponjaren gisakoa da, hau da, inguruan duen oro xurgatu eta ekiditen saiatuta ere, asko ingurutik jasotakoa lortzen du. Horren eraginez, frankismoarentzat, hezkuntza, zinez garrantzitsua izan zen, oraindik ere, kontzientzia garatzen ari ziren haur haiek guztiek emakume zein gizonezkoaren eredu berriak jaso eta haiek hurrengo belaunaldietan errotu ahal izateko ezinbestekoak izateko.

Gerra eta gerraosteko egoera zinez tamalgarria izan zen Getarian, Euskal Herriko gainontzeko herrietan gertatu gisara. Gosea nagusi egin zen eta horren eraginez, aita zein anaiak kartzelan zituzten zenbait haurrek ere lanari ekin behar izan zioten, jada ekinda ez bazeuden. Garaian, ohikoa zen, baita Bigarren Errepublika garaian ere, familia gehienetako haurrek oso gazte, eskola utzi eta lanari ekin beharra, sabela asetzeko zerbait eduki nahi bazuten. Beti ere, Bigarren Errepublikako gobernua, egoeraren jakitun, hezkuntza ahalik eta haur gehienena iristen saiatu zen. Neskato zein mutikoei ikasgela berberean ikasteko aukera emateaz gain, erlijioa ikasgeletatik urrundu eta beti ere gosea nagusi zen sozietatearen aldakuntza bideratu nahi zuen hezkuntza baten aldeko apustua egin zuten. Diktadura frankistan zehar, berriro ere, balio tradizionaletan oinarrituz, neskato zein mutikoak ikasgela ezberdinetan ezartzeko agindua eman zen:

“**E: eskola haretxe zan eo besteik bazan? R,J:** beste bat e bazan. Mutillena re aparte zan eta bestia re Kofraiko zea hoietan tzan eskola bestia. **E: zuen eskola zer tzan neskentzako bakarrik? R,J:** gu neskak bakarrikan. Danak, mutillak aparte eta neskak aparte. Neskak goixan eta mutillak beheian, gu ibili giñan tokixan. Baina bestia esan deuna, beste eskola, han mutillak bakarrikan ibiltze zian, hura moillan. Hura re maixua re castellanua giñun. **E: zenbat ziñaten klasian? R,J:** basarritikan e asko etortzen zian da… eskola bakarra hamen emakumiena. **E: mutillentzako bi… zeba mutil asko zeudelako o? R,J:** bai… gaiña ematen tzuen arratsian e mutillak moilla ematen tzuen. E: eta danok berdiña ikasi zenuten o kofradikuak iual zeoze…? R,J: eztakit ze… danak igualak. Geo handikan itsasoa, hamaika urtekin! Hamen etzan orduan ofiziyoik ta eze! Danak itsasoa! **E: ze ikasten ziñuten? R,J:** ze ikasi giñun? Lau regla ikasi giñutzen behintzat gaixki o ondo ta… **E: eta zeozer gehio? Ikasi zenuten Historia Sagrada edo? R,J:** Historia Sagrada ta Dictadok eta… orduan bagiñuzen (…) **E: maixuak esatezue castellanuak ziala, nunguak zian? R,J:** Burgoskuak, don Fernando eta maistrak doña Paz. Senar-emaztiak zian. Andriak goixan eta gizonak beheixan. Alaba bakarra zuen!”[588].

Bigarren Errepublikan langile zein haien seme-alabek klase kontzientzia izateko zenbait politika bideratu baziren ere, langileen egoera bortitza mugaraino eraman zuen diktadura frankistak hori eten besterik ez zuen egin. Getariar haur zein gazte gehienek ere, familia gosete garai bortitz hartan mantendu ahal izateko, lanera jo behar izan zuten. Horren eraginez, hezkuntza frankista eskasa izanagatik ere, ezin izan zuten denbora askoz hartaz probestu:

“**E: eta geo hamen etorri zinatenean eskolan hasi zinan eo lanian? A:** eskolan hasi ginan baina geo ein bihar tzana ta lanian hasi ginan ta txikixak ginan. Oain bezela ez… irabazi ein bihar tzan. Ta fabrikan aileatu ezin da “telero?” bat zatorrenian ihesi ezkutatuta, ta hua jun arte berriz…dena…”[589].

“**J:** (…) nik eneuken urte asko ta ibili ber izin bazan e eskola gutxi jun nitzan da. Oso gutxI jundakua naiz eskola ni. Lanea. **E: Zertan ein tzenun lana? J:** aurrena ibili nitzan ni, etxin launtzen, al tzan bezela ta aita herrerua zan. Sutaixen herrerixan e bai launtzen. Hauspo handi batekin suak indarra hartzeko… haizie ematen suekin indarra emateko. Ta geo pasatze zitun tresnak berriz e pasatu ta itxura hobetu ta… arreba ta bixok jardute giñun. Baiñe pobrie zan geo basarrixen e bai, etzan diruik e ta… (…) ta aitonare berdin herrerue zan ta handik eze gutxi zeon. Bai herreritzatik eta baita bi idiekin etzeon ezer. Ta ama kontraixua zan da nahiko zuan ganauek kentzia ta aitak ez ta…”[590].

“**J:** Atxurrian, goldian, ittulan… ganaua zaituz, egualdi txarra zanian ganau danak atea ta mendira. Haie danak zaitu, eskola ez! Eskola ikuste gendun kanpotik. Eskolik ez gendun, jute giñen noizik eta behiñ, Askizura. Askizun zeon eskola baiño noizik eta behiñ jute giñan. (…) Ittula, ganaua zaitu, geo basarriko zea… beti lana bazeon basarriyan. **E: eta gooik ez eskolara joateko? J:** goua? (…) ez giñan juten da ez gendun eukitzen. (…) **E: zein andereño izan zenuten? J:** han Zabalako neska zahar bat kanpotik etorrita zeon. Hura zeon Askizun eskola ematen, Zabala erretiratze zan hura. **E: ta zer moduzkoa zan o? J:** Ona esate zuen. Guk ikusi ette gendun kanpotik da, baiño ez genekigun. Eztakit, ona esate zuen. **E: zemat jute zien? J:** Ba Askizuko danak jute zian da, hogei bat igual eongo zian, edade danak berdintsukoak”[591].

---

588 Testigantza: *ahotsak.eus.* Raimunda Basurto Lazkano eta Jesusita Manterola Larrañaga. GET-028/009.

589 Testigantza: Anita Uzin Albizu.

590 Testigantza: Juan Eizagirre Ulazia.

591 Testigantza: *ahotsak.eus.* Juliana Eizagirre Osa. GET-026/014.

**"J:** gitxi, ni honei kontu iten ni baiño zazpi urte gitxixo, ta ama lanea juten tzan ta ni honei kontu iten esaizuten itxe txiki hartan! Ta hamen eleizako librua buruz ikasi nuan, euskeraz. Kalbaixuak eta hoxe danak. (…) ba… jute nitxunan eskola! Ta eskolatik irtenda Petrita zai eote hunan 'Juanita!' ta harixe kentzea gilbanai. Ilbanak eta harixek pasatzea. Hoixek gure amak esango zitxonan. Ez kalian ibiltzeatik eta deituiozu zeai, nik hori sinistu itet! Ta nei nola etzien inportik, ba… eskolako aurrian lehengusu bat giñun josten eoten tzana ta, nik erteteako 'Juanita etorri!' ta harixak eta gilbanak kendu ta harixak pasa ta (…)"[592].

Gosea Getariaz ere jabetu zen eta ez zen nolanahiko gosea, zaharren ahotan oso ohikoa da gerran eta batez ere, gerraostean pasa zuten goseaz mintzatzen entzutea. Batik bat, gazteenek platerean daukatena jaten ez dutenean egindako aipua "zuek ez duzue goserik pasa, ez!" izaten da eta arrazoi galanta dute.

## 4.2.5. Autarkia: gosea errepresioa gauzatzeko tresna ezin hobea

Gosetearen arrazoi nagusienetako bat, gerrak berak, nekazal-eremua hartzea izan zen eta horren eraginez, lurrak ezin landu ahal izatea. Horrek uztaren galera handia ekarri zuen. Gerra amaitu ostean, faxismoaren aurkako iritzi landua zuten zenbait herrialdek, Espainia frankistari merkataritza-blokeoa ezarri zioten; handik aurrera, ezin izango zuten inportazio zein esportaziorik egin herrialde horietatik.

Bestalde, gerraosteko gosearen perspektiba ulertu ahal izateko urte batzuk atzera egin behar dugu, Primo de Riveraren diktadura garaira arte, hain zuzen. Gosea ulertzeko, ezin dugu Estatu Espainiarrak menpean zituen lurraldeetan bakarrik zentratu, gosetea bere osotasunean, mundu mailako erlazio ekonomikoen frakasoaren emaitza izan zen[593]. Beste hitz batzuetan esanda, XX. mendeko hogeiko hamarkadaren amaieran, sistema kapitalistak, aldiro-aldiro ohikoa den gisan krisia garatu zuen. Horrek, sistema horretan parte hartzaileak ziren klase sozial ezberdinek, krisia pairatzea ekarri zuen. Batzuek, hau da, aberatsenek, zerbait galdu zuten bitartean, haien menpeko ziren langileek, getariarren kasuan haien gehiengoak (arrantzale, nekazari… herritar xumeak) haien gehiengo irabazi xumea, guztiz galdu egin zuten. Klase borrokaren erakustaldi gordinena izan zen, liburuaren lehenengo kapituluan ere ikusi dugunez.

Egoera hari buelta eman ahal izateko, langileriak, sistema hura aldatzeko formulatzen zetorren tesi ezberdinak gogor defendatzen jarraitu zuen, komunismoa zein anarkismoa, garaiko entzutetsuenak. Burgesiak berriz, bere benefizioak mantentzen jarraitzeko ahalak eta bi egin zituen eta oro har, nazismoa zein faxismoaren aldeko apostua egin zuen, haien bidez, balio tradizionalen menpean, geroago ikusiko dugun gisan, diktadura frankistan ere langileen aurkako izugarrizko esplotazioa burutu baitzuten. Beraz, estatu-kolpeak eta diktadura frankistaren ezarpenak, hasieran hitzen artean izan dugun gosetea sakondu besterik ez zuen egin, hartarako legeak ezinbestekoak bilakatu zirelarik. Gosea orokorra izan bazen ere, getariarren artean, errepresio frankista beren azalean jasan behar izan zutenak pasa zuten handiena. Hain zuzen, galtzaile izendatzearekin bat, asko eta asko kontzentrazio-esparruetan sartu eta herrira itzultzean lanik ez zieten eman haien ideologia politikoa medio. Horrek, bere senideei ere eragin zien. Halakorik gertatu zitzaion esaterako, Juan Oiarzabal Agirre Getarian bizi zen mikelete azkoitiarrari. Gerratik itzultzean, frankistek miketele postuak desegin zituztenez, beti ere lan xumeetan jardun behar izan zuen. Oso gazte hil eta haren emazteak, "Remi" Idiakez Indok, haren familia osoa gau eta egun gogor lan eginez atera behar izan zuen, beti ere, bere seme-alaben laguntzaz baliatuz.

Pobrezia hori amaitzea aitzakiatzat hartuta eta mundu mailako estatuek ezarritako merkataritza boikota oinarri, agintari frankistek, sistema autarkikoa martxan ezarri zuten. Autarkiaren bidez, agintari frankistek, Espainiar Estatuko ekonomia ahalik eta independentzia handiena lortu nahi izan zuten. Helburua bere horretan lortzeko, produktu nazionalen babesa eta inportazioen kontrola bultzatu zituzten.

Hala, industria eta merkataritza erregulatzeko, "Junta de Abastos" delakoa sortu zen Getarian, gainontzeko Euskal Herriko herrietan egin gisan. Ikerketaren bidez lortutako daturik gertukoenak 1941eko irailaren 9an berregituratutako udalbatzaren ingurukoak ditugu. Egun horretako aktaren arabera, handik aurrera, "Junta de Abastos" delako komisioa Pedro Querejeta Querejeta eta Antonio Aranguren Manterolak osatu zuten. Haiek, Getariara zein produktu sartzen eta irteten ziren kontrolatzen zuten. Getariako portua itxita ere egon zen hilabete batez:

"(…) los pescadores están pasando estrechez ya que han tenido cerrado un mes entero el puerto sin poder hacerse a la mar, llevan trabajando cinco días, habiendo vendido el besugo a 22 pesetas la arroba, dedicándose a sus faenas profesionales sin que les defiendan los bous que desde Pasajes salen hasta zumya y regreso. (…)

Manifiesta su desesperación por la escasez de víveres a que están sometidos como consecuencia de la forzosa inactividad de la flotilla pesquera, ya que por tener que satisfacer los comercianteslos géneros al contado, no fian a los pescadores. El día de Navidad se han encontrado éstos sin pan, ya que no tenían modo de adquirirlo. El Ayuntamiento hizo un reparto a las familias necesitadas de 1 litro de aceite, 8 panes, 5 kilos de patatas"[594]. (informazio gehiagorako, ikus 3. Eranskina).

Ogi beltzaren garaia ate joka ari zen, zenbait herritarren memorian oraindik present dagoen hura. Elikagaien eskasia erabatekoa zen eta horri aurre egiteko formula gisan, estatu frankistak, gerra garaitik praktikan zegoen janariaren errazionamendua era

[592] Testigantza: *ahotsak.eus*. Juanita Isasti Otamendi. GET-016/011.

[593] Gerrak eta haren osteko diktadurak, gosetea areagotu egin zuen.

[594] Euskadiko Gudontzidiaren Buruzagitzaren Agiritegia. "Nuestra Señora del Rosario" arrantza-ontziko tripulazioaren deklarazioa. http://www.marinavasca.eu/eu/archivo-documental-detalle.php?o=10&a=1&id=1

sakonagoan aplikatzen jarraitu zuen. Handik aurrera, garia zein artoa xeheetzeko zenbait errota itxi eta getariar familia bakoitzak, haren errazioamendu boletoarekin tokatzen zitzaion elikagaien kopurua ezarritako dendan jaso behar izaten zuen:

**"E: zuek gosetea ta guzti ezagutu zenuten? Gerraren ondorioz errazionamendua… J:** bai, bai… ezautu, ogiya ze ogi izate huan, oaiñ integrala geiho paaute jaten deula ta Francok integrala eman tziula ogi integrala zala haure. Ta hure integrala, arratoiekin nahastekua huan hura arratoiekin nahastekua… ta lenteja re berdin… gerran sobrautekuak eo anpliatu zun, jarri razionamentue han da. Ta geo etxien e ezautu nun nik, guk oilluak genduzen, oillo mordoxka amak eukitze zun, ta artua itte giñun da garixa re bai ta errotak itxi, ta etzeon errota emateik oilluentzat ondo animalixentzat ondo etorri huan hura (…) geu ogi razionamentokua jaten ibili giñan da errotak eta denak itxi, gauza hura zan generue euki itxian eta errotik ez! ta hori ze xistema? Hori re (…) beria saltzeatik. Habek hobio zekeabe ta saltzebabe neria gelditu eingoek eta itxi"[595].

Eta nola ez… begibistako kontrolaren babesean, merkatu beltza gisan ezagutzen dena sortu zen. Bertan, merkataritza erregulatuan lortzea ezinezkoa zen zenbait produktu lortu ahal izan ziren. Baina horrek ere bazuen tranpa bat, izugarrizko prezioak zituzten produktu gehienek. Eta beraz, produktu haien jabe, haien gehiengoan gerra irabazi zutenak egin ziren, bai eta haien saltzaile behinenak ere. Beraz, dirurik ez zuenak ezin zituen produktu haiek erosi. Haien artean, xaboia, olio preziatua, txokolatea, azukrea… zeuden. Eguneroko bizitzarako beharrezkoak baina guztien eskura ez zeudenak. Honakoa ere, klase borrokaren erakustaldi ezin hobea izan zen. Agintari frankista boteredunek geroz eta lurren, ondasunen… metaketa handiagoa egin, langile klaseak, herritar xumeenek, gosea pairatu zuten. Haien sabela asetzeko, gehientsuenak, Getarian, arrainaren zein baserriko animalien kontrabandoan egin behar izan zuten. Batzuek geroz eta irabazi gehiago lortu bitartean, besteek sabela asetzearen truke egiten zuten. Hauxe da behin baino gehiagotan entzun den eta oraintxe arte aipatu ez den estraperloa. Hartaz, geroz eta aberastasun gehiago lortzea bide izan zuen estraperlo handia, eta sabela asetzea helburu zuen estraperlo txikia ezberdindu ditu Miguel Angel del Arco[596] ikertzaileak.

Estatu frankistaren begietara legala ez zen merkatuari mugak ezartzeko, gobernu frankistak zenbait elementu erabili zituen. Horietako nabarmenena, inspektoreak izan ziren. Inspektore hauek, dendetan, fabriketan…inspekzioak egiteaz eta espazio haietan produktu legalak baino ez zeudela frogatzen zuten. Zerbait estraperlokoa izanez gero, isuna ezartzen zieten. Askotan, inspektoreak errepublikazale eta euskal nazionalisten gaineko errepresioa egiten jarraitzeko erabili zituzten.

Getarian ere, errepublikazaleen dendetan, estraperloko produkturik ez izanagatik ere, inspektore frankistek isun-ekonomikoak errepresioa gauzatzeko erreminta gisan erabili zituztela jaso dugu.

Goseari aurre egiteko Getarian ere, "Plato Único"-aren legea martxan jarri zen. Ondokoa, 1936ko urriaren 30ean, Fermoso Gobernadore Generalak idatzitako legea izan zen. Horren arabera, hilabete bakoitzeko 1 eta 15 egunetan, jatetxeetan, menu erdia aterako zen arren, oso bat kobratu beharra zegoela adierazi zen. Handik sortutako soberakinak, benefizentziara bideratuak izanen ziren. Hori betetzen ez zuten getariarrak, zerrenda beltzetan sartuak izanen ziren, "Mugimendu Nazionalaren" kontra zeudela argudiatuz.

1936ko azaroaren 28an, udalbatza frankistak, falangistei getariar behartsuenentzat jantokiak sortzeko agindua plazaratu zuen. Jantoki hauek, ideologia falangistan oinarritutakoak izan ziren eta horrenbestez, bertaratutako guztiak balio haiei erantzun beharra zien jan nahi bazuten. Horien artean sartzen ziren, esaterako, agur faxista egitea, haientzat guztientzat umilagarria zena. Jantoki hauek guztiek ere, janaria emateaz gain, errepublikazale zein nazionalista haiek guztiak psikologikoki umilatzeko ezinbesteko tresnak bihurtu ziren, bere ideologiaren aurkako espazioak baitziren. Herri gehienetan, jantoki hauek Auxilio Social gisan ezagutu ziren eta estatu frankistak falangearen bitartez martxan jarri zituen:

"Por último, el Sr. Alcalde manifiesta que los falangistas de esta habrán de establecer un comedor económico para dar de comer a los niños, comedor que habría de ser costeada por aportaciones, y estimando el Ayuntamiento que esta labor social de beneficiencia podría organizarse, con misas a que algunos gastos de


INSTRUCCIONES PARA LA IMPLANTACION EN ESPAÑA DEL

"DIA DEL PLATO UNICO"

**Plato Unico-aren instrukzioak.** (Alegiako Udal Agiritegitik).

[595] Testigantza: Juan Eizagirre Ulazia.

[596] DEL ARCO Y BLANCO, M.A.; GÓMEZ OLIVER, M.A. 2005. "El estraperlo: forma de resistencia y arma de represión en el Primer Franquismo" *Studia historica. Historia contemporánea,* 23. Zbk.: 179-199. DEL ARCO Y BLANCO, M.A. 2010. "El estraperlo: pieza clave en la estabilización del régimen franquista", Historia del Presente, 15. Zbk.: 65-78.

fuerza mayor como alojamiento de falangistas, comida de los refugiados huídos de Laredo[597] que se encuentran en ésta, curas recogidos al vecindario, fuesen también sufragados con esta clase de aportaciones, y asimismo socorrer a las familias que se encuentran en la indigencia que son varias.

Acuerda que a tal fin se establezca más cuotas de aportación vecinal, para los fines indicados con el control del Ayuntamiento"[598].



Jantoki falangista ezezagun bat.



Falangisten jantokiak. (GUA).

Gosete handi hark gaixotasunak ekarri eta beste batzuetan gerraren osteko gaixotasunak areagotzea ere ekarri zuen. Getarian, esaterako, tuberkulosi kasu dexente izan ziren eta horietako bat kuriosoa dugu. Izan ere, Getarian bizi eta tuberkulosia izan zuten herritar gehienak Andazarrateko erietxera eramaten zituzten: Pelegrin Kerejeta Agote, Maria Iturrino Aranguren, Conrado Basurto Itxaso eta Domingo Manterola Agote kasu. Andazarrateko erietxeak historia kuriosoa du. Gerra garaian bertan getariarrik ez bazen ere kontatzea merezi du. Gudariek, erietxeko espazioetako bat hartu zuten bertatik frankisten aurkako indarrak batzeko. Abuztua hasieran iritsi berri "Gora Euzkadi!, ¡Viva la República!, ¡Viva Rusia!" oihuekin eman zieten ongi etorria. Antza denez, norbait oihu haien guztien lekuko izan zen eta gaixo haiek guztiak eta frankistak ez ziren erietxeko langileak salatu egin zituen. Horren eraginez, 1936ko abenduaren 28an, Inuzente Egunean epaitu eta haietako zenbait kartzelaratu egin zituzten[599]:







**Andazarrateko erietxean atxilotutakoak.** (Saseta defentsa-sistema liburutik)

[597] "En Guetaria hay dos barcos de Laredo que pasaron voluntariamente con sus tripulaciones. Existe también otra embarcación de Santoña muy bien atendida por la falange que les proporciona alimentos y dinero. Estas tripulaciones hacen guardia de día en puerto y de noche los falangistas y requetés" (informazio gehiago izateko, ikus 3. Eranskina).

[598] GUA.

[599] Euskal Memoria Fundazioa.

Hasierako ildoari jarrai diezaiogun, harian galdu barik. Agintari frankistek, Pedro Morrero-ren seme tuberkulosoa eta harekin bere senideak Kanariar irletako La Laguna herriko erietxera eramateko diru-bilketa eskatu zuen.



Auxilio económico viaje familia pobre de Pedro Morrero

Da cuenta el Secretario que indicó al padre y enfermo Pedro Morrero Rivero, con de obtener, ayudado a la caridad del vecindario, alguna cantidad para auxilio de su viaje a La Laguna (Canarias) y que el aludido le comunica haber recaudado 340 pesetas. Previo un breve cambio de impresiones se acuerda a continuación por unanimidad socorrer al matrimonio Pedro Morrero Rivero y Germina Echegoyen Olazaraga con la cantidad de 450 Ptas para su viaje con un hijo de ambos de corta edad a La Laguna (Canarias).
Sin más asuntos que tratar el Señor Presidente dió por terminada la sesión levantándose esta seguidamente a las [illegible] horas y [illegible] minutos. Firman conmigo el Señor Alcalde en funciones y concejales asistentes de lo que certifico.

El Alcalde en funciones

Pedro Querejeta

Jose A. Goicoechea

Jose Mª Ostolaza

El Secretario

**Pedro Morrero-ren semeari laguntzeko diru-eskaera.** (GUA).

## 4.2.6. Soldaduak Getarian

"Francok uste zuen inbaditu ein ber tzizkiala eta ejertzitoan zati handia ekarri zizkiyen hona eta jarri zizkiyen Ondarrun e bai ta hemen gainen eta… eta gero berriz, kanpai gaineko base hartan eta Askizuko kuarteletan etab. zaldi gainetan eta hona etorri eta… baten gertatu huan, udaberriyan, barkuak eta hemen eta gabez antxoatan ibiltze hituan eta argi pila eta eta iruitze zitzaion que era la invasión eta kosta guztiya hartuta eta danak metrailetakin eta arrantzaliak zien"[600].

Getaria, urte luzeetan zehar portu oso garrantzitsua izan da, bere kokapen estrategikoagatik. Bigarren Errepublikan zehar izan zen gisara, gerran eta diktadura frankistan zehar ere ez zuen bere garrantzia galdu. Francok ere, bertako itsaslabarrak zeharkatuz, arrantzan jardutea gustoko zuen eta getariar askok diktadore ankerra gertutik ezagutzeko aukera izan zuten. Diktadore beldurgarria izanagatik ere, hark ere bazuen beldurrik, beti ere, bere boterea galduko zuelako beldurra. Bigarren Mundu Gerra hasi eta gutxira, beldurra obsesio bihurtu eta muga osoa bunkerrekin babesteko agindua eman zuen. Hartaz, gaur egun Linea P gisan ezaguna dugun Pirinioetako bunkerren eraikuntza burutu zuen, Frantzia aliatuak iparraldetik burutu zezakeen estatu espainiar frankista diktatorialeko inbasioaren beldur.

Testuinguru hartan, hain zuzen, Francok badaezpada ere, Getariako portua militarrez babesteko agindua eman zuen eta getariarren artean oraindik ere bada haren oroitzapenik. Dakigunez, Bigarren Mundu Gerra amaitu ostean, nazismoaren eta faxismoaren aurka borrokan jardun zuten aliatuek, estatu frankista diktatoriala onartu egin zuten. Handik aurrera, Francok, politika internazionala burutzeko batere arazorik ez zuen izan. Estatu frankistaren mendeko lurraldeetan, oraindik ere errepresioa gauzatzen jarraitzeko ez zuen inolako arazorik izan.

[600] Testigantza: Andoni Arregi Oiarzabal.

## 4.3. EMAKUME GETARIARRA, ASKATASUN MUGATUAK LORTZETIK, MENPEKOTASUNERA

Gerra hasi bitartean, ikusi dugunez, getariar emakumeak, Euskal Herriko gainontzeko herrietan gisan, Bigarren Errepublikako gobernuak egindako erreformei esker, zenbait eskubide lortu ahal izan zituen: dibortzio eskubidea, boto eskubidea, abortatzeko eskubidea (1937)… kasu. Horrez gainera, Euskal Herriko gainontzeko herrietan gisan, Getarian ere, Emakume Abertzale Batzako zenbait emakume militantek, herriko plaza hartu eta mitinak emateko, propaganda egiteko… aukera izan zuten, beti ere, lan banaketa sexual[601] tradizionala defendatuz. Getarian, aurretiaz aipatu gisan, Karmen Alkorta Alkorta, Maria Francisca Errazkin Aizpurua, Maria Luisa Errazkin Aizpurua, Maria Idiakez Indo, eta Rosario Uranga Olaskoaga Emakume Abertzale Batzan militatu zuten emakumeak izan ziren.

Emakume Abertzale Batzako euskal emakume militanteek, Bigarren Errepublikako gobernuak egindako erreformei esker, ordura arte EAJ/PNV alderdian zein egunerokotasunean, bertan izan gabeko protagonismoaz eta askatasun eskubideez probestu ahal izan zuten. Aurrerapen esanguratsuak izan baziren ere, garaiko zenbait emakume langilek, beren eguneroko bizi-kalitateak hobera egin zezan, ezinbestekotzat ikusi zuten lan baldintzak hobetuko zituen erreformen zein hautu iraultzaileen alde egitea. Horretan gehienbat, emakume komunistak eta anarkistak nabarmendu ziren, garaiko ordena osoki irauli beharra aldarrikatzen zuten, Bigarren Errepublikako gobernuari erreforma sakonagoak eskatuz. Hau da, boto eskubidea izanik ere, emakume langilearen sektore handienaren lan-baldintzek ez zuten hobera egin:

"El establecimiento de la jornada laboral de 8 horas y la ley de Jurados Mixtos, así como la ampliación de seguros sociales resultó beneficiosa para las mujeres, pero no se podían acoger a estas mejoras las trabajadoras del servicio doméstico, y a duras penas conseguían algunas mejoras las demás, a tenor de las resistencias patronales"[602].

Oraindik ere, Bigarren Errepublikako gobernuaren legeei esker, emakume langileak gizonezko langilearen menpe jarraitzen zuen. Hau da, emakumeak lan eginik ere, gizonezkoak eman behar zion hartan jarduteko baimena eta hori gutxi ez balitz, oraindik ere, gizonezkoak kobratzen jarrai zezakeen bere emaztearen soldata[603]. Emakumea ezkongabe egonez gero, bere bizitza administratzeko gaitasuna ematen zitzaion, aitak haren gaineko ardurarik izango ez zuelarik. Horrez gainera, instituzio publikoetako goi karguetako postuak gizonezkoek betetzen jarraitu zuten:

"Con frecuencia se ha asegurado que las condiciones laborales durante la República mejoraron notablemente para el conjunto de la clase trabajadora. De las medidas apuntadas desde el gobierno se beneficiaron las obreras, si bien el cumplimiento de la legislación fue lento y trabajoso por la resistencia de la patronal y las circunstancias políticas y sociales"[604].

Bigarren Errepublikako gobernuak zenbait erreforma gauzatu bazituen ere, oraindik, lan banaketa sexualarekin amaitzeko eta horrenbestez, emakume zein gizonezkoen berdintasuna lortzeko pauso handiak geratzen zitzaizkion. 1936ko otsailean hauteskundeak irabazitako Fronte Popularraren gobernua, zenbaitek, ekonomikoki hierarkizatutako sozietatearekin amaitu eta guztientzat justuagoa izanen zen sozietatea eratzeko tresna baliagarritzat erreparatu zuen.

Oligarkia eta militar frankistek 1936ko uztailaren 17 eta 18 bitartean emandako estatu-kolpeak eta haren porrotaren ostean hasitako gerrak, beste behin, baldintza haren gauzatzea eten egin zuen. Kolpisten helburu nagusia, ordura arte, gobernu errepublikarrak zein zenbait militantek kalean bertan burututako aldaketa askatzaileak geratu eta suntsitzea izan zen, sozietateak ordura arte lortutako askapenak erabat murriztuz.

Gerran zehar eta gerraostean galtzailerik izan bazen, hura emakume getariarra izan zen, bi aldiz galtzaile izan baitzen. Gizonezko getariarrek, hein handi batean, kartzelan zein kontzentrazio-eremuetan jasotako tortura fisiko eta ideologia frankistaren inposaketaren bidez haien gorputzen diziplinamendua jaso zuten. Emakume getariarrek, berriz, gerran zein gerraostean, beren gorputzetan oinarritutako diziplinamendu bortitza jasan behar izan zuten, horretarako, frankistak, errepresio sexuatuaz[605] baliatu zirelarik. Hori gutxi ez balitz, kartzeletako tortura fisikoak eta kartzelan bertan zein kanpoan jasotako adoktrinamendu frankistaren menpe bizi behar izan zuten.

Emakume getariarrak, askatasun murritzak lortzetik, estatu frankistak agindu eta legeztatutako beren senarren erabateko menpekotasunera pasa ziren. Ordura arte, batik bat, komunismoaren eta anarkismoaren inguruan murgildu ziren emakume zein gizonezkoek lan banaketa sexualarekin amaitzeko zenbait neurri hartuta zituzten eta frankistek, haiek ezerezean uzten zituzten legeak inposatu zizkieten. Emakume Abertzale Batzako euskal emakume militante getariarrei dagokionez, lan banaketa sexualaren mantentzea haien helburu nagusia izanik ere, frankisten errepresio bortitza jasan behar izan zuten, gerran zehar, haien alderdia EAJ/PNV Bigarren Errepublikako gobernuaren alde ezarri baitzen. Bai eta emakume haiek guztiek frankistek emakume frankistaren ezaugarrietan onartzen ez zuten espazio publikoa hartu baitzuten.

---

601 Sexu biologikoak determinatuta, emakume edo gizonezkoari ardura edo ekoizpen betekizun ezberdinak egokitzen zaizkionean. Prozesu historikoan zehar, lan banaketa sexuala ez da lineala izan eta aldaketak jasan izan ditu. Datu zientifikoen arabera, bi sexuen arteko arrakalarik handiena, sistema kapitalistan jasandakoari deritzo.

602 BARRANQUERO TEXEIRA, ENCARNACIÓN; PRIETO BORREGO, LUCIA. 2004. "Las mujeres durante la Segunda República: trabajo y vida cotidiana", in *La Segunda República. Historia y memoria de una experiencia democrática*: 129. or.

603 1931ko azaroko Lan Kontratuen Lege berriaren arabera.

604 BARRANQUERO TEXEIRA (…), op.cit., 130.or.

605 Errepresio sexuatua, emakume errepublikazaleen gorputzean biolentzia bidez eta bere gorputzeko atal sexuatuenetan biolentzia eraginez haien identitatea birrintzean zetzan. Biolentzia edo errepresio mota horien guztien artean: ile soiltzeak, isun ekonomikoak… bereizten ziren. Azken finean, errepresio mota horiek guztiek emakumeen gorputza diziplinatu eta ahultzeko metodo gisan balio izan zuten.

Errepresio jasangaitz hura, gerran zehar zein gerraostean ere, beren gorputzetan jasaten jarraitu behar izan zuten. Hurrengo atalean aztertuko ditugun, errepresio metodoak aplikatzeko eratutako psikiatra zein mediku frankisten teoria ezberdinek, errepresioa aurrez antolatu eta sistematikoki aplikatutakoa izan zela adierazten digute.

### 4.3.1. "Emakume berria" eratzeko erabilitako errepesio metodoak

Gerran Zibilean zehar, oro har, bi emakume eredu nagusi bereizi ziren: alde batetik, emakume errepublikarra[606] eta bestetik, emakume tradizionala[607]. Hala, gerran parte hartu zuten alde errepublikazaleak zein frankistak emakume eredu jakin bat babestu zuen. Alde errepublikazaleak, ordura arte emakumeen askatasunaren aldeko neurriak defendatuta, emakume errepublikarraren irudia babestu zuen bitartean, alde frankistak, emakume tradizionalaren irudia babestu zuen, eta aurreko lerroetan adierazi gisan, emakume errepublikarraren irudia behin-betiko desagerrarazten saiatu zen.

Emakumearen eredu frankistak ez zuen bat egiten ordura arte Bigarren Errepublikako gobernuak egin zuen emakume askearen irudiarekin. Espazio publikoa hartzen hasi ziren emakume askeak, ez zetozen bat espazio pribatuan eta erreprodukziora bideratuta zeuden gizonen menpeko emakumeekin.

Alde frankistaren erabakia argia zen, rol tradizionalak jarraitzen zituzten emakumeak babesten zituen eta horrenbestez, ordura arte emakumeek beren askatasunaren bidean lortutako eskubideak kaltekotzat ikusiz, haiek deuseztatzeari ekin zieten. Getarian prozesua aurrera eraman ahal izateko ezinbestekoa gertatu zen Ramon Manterola Getariako lehen alkate frankistaren eta haren ondorengo Eugenio Egurbide Azpeitia alkate frankistaren eta haren ordezkarien konplizitatea.

Azken hauek, bereziki, Francok 1938ko udaran "Gabinete de Investigaciones Psicológicas" delakoko zuzendari izendatu zuen Antonio Vallejo-Nájera Ejertzitoko Zerbitzu Psikiatrikoetako komandante eta zuzendariaren teorietan oinarritu ziren. Vallejo-Nájera psikiatrak, teoria horiek, Francok Malagako kartzela batean eginarazi zizkion emakumezko eta gizonezko errepublikazaleen analisietatik atera zituen. Haren helburu nagusia, ideologia marxista zuten pertsonek, gainontzekoek baino burmuin ezgaituagoa zutela frogatzea zen.

Emakumeen ikerketa burutu ostean, haien burmuinak, animalia eta umeetara asko gerturatzen zirela adierazi zuen eta egunerokotasunean egoera hauek kontrolatzeko zenbait pauta erabiltzen zituztela. Emakume errepublikazaleek ordea, pauta hauek galdu egin zituztela determinatu zuen eta horren eraginez, gaizkiletzat izendatu zituen, emakume tradizionalak ez bezala. Psikiatra frankistak, dohain gaizkileak izatearen errudun nagusitzat, iraultza marxista zuen. Emakumeak, bere sentimenduengatik egiten zuen aurrera ideia marxistekin, ez haien ideologia determinatzeko gaitasuna zutelako. Inguruaren eraginez bihurtu zen emakumea halakoa, ez bere ideia propioengatik.

Modu horretan, emakumea, bere kabuz erabakitzeko gai ez zela eta zaindari baten beharra zuela determinatu zuen. Emakumearen zaindaria, ohi bezala, gizonezkoa izango zen, baina balio tradizional eta frankistetan hezitako gizonezkoa, eta ez, balio errepublikazaleetan hezitakoa. Gainera, Vallejo-Najerak eginiko astakeria oro, justifikatuta izatea lortu zuen, psikiatren lana guztiz zientifiko eta objektibotzat hartzen baitzen. Francok, hiltzaile papera, "ikerketa zientifiko" baten bidez, estali ahal izan zuen; bitartean, jendartean ongile papera eman ziotelarik, guztien onerako baitzen gaixoak (emakume errepublikazaleak) sendatzearen eta salbatzearen lana. Beste zenbait gauzen gisara, txosten zientifiko hori ere, propaganda propiorako erabili zuen.

Oinarri horiei men eginez, balio tradizionaletan oinarritzen zen emakume berriaren eraikitzeari ekin zion frankismoak. Hori lortzeko, ezinbestekoa zen Bigarren Errepublikan zehar askatasunak menperatu zituen emakumea deuseztatzea. Horregatik, emakumeek, bi errepresio modu jasan behar izan zituzten. Alde batetik, zuzeneko errepresioa jasango zuten, hau da, beraiek espazio publikoko akzio politikoetan parte hartzeagatik jasango zuten errepresioa. Bestetik, zeharkakoa, zeina senideren bat errepublikazalea izanagatik jasango zuten. Aldi berean, bi errepresio mota ere jasan zituzten: bata, akzio politikoei lotutako aipatu errepresioa litzatekeena eta bestea, aldiz, emakume subjektu gisan eginiko errepresioa (bortxaketak, ile soiltzeak, errizino olioa, irainak, ume-kentzeak… ).

Queipo de Llano militar frankistak 1936an, Sevillako irratian esandako esaldi honek ongi baino hobeto adierazten du, gerran eta diktadurako urteetan zehar, emakumeek zer-nolako errepresioa jasan behar izan zuten:

"Nuestros valientes legionarios y regulares, han demostrado de rojos cobardes, lo que significa ser hombres de verdad. Y de paso también a sus mujeres. Esto está totalmente justificado, porque estas comunistas y anarquistas, predican el amor libre. Ahora por lo menos sabrán lo que son hombres y no milicianos maricones. No se van a librar por mucho que berreen y pataleen"[608].

Emakumeak Bigarren Errepublikan zehar lortutako eskubideak galtzeaz gain, gizonezkoen geroz eta jabetza handiagoa bihurtu ziren. Emakumeak, ama eta emazte ona izateaz gain, rol tradizional femeninoak bete beharra zituen: portaera onak, adimen-gutxiagotasuna, sentiberatasuna, hauskortasuna, otzantasuna, hunkiberatasuna, mendetasuna, gizonarekiko menpekotasuna eta sumisioa, sakrifizio espiritua, umiltasuna, erlijiotasuna… Emakumea, frankisten arabera, ez zen gai bere kabuz aurrera egin

[606] *Emakume errepublikarra* izenpea, gobernu errepublikarrak egindako erreformak begi onez ikusi eta beretzat hartu zituzten emakumeei deritzegu. Emakume Abertzale Batzako emakumeak ere bertan sartuko ditugu.

[607] *Emakume tradizionala* izenpea, gobernu errepublikarraren erreformen aurka ageri eta ordura arte Espainiar Estatuan mantendu zen genero ordenaren alde agertu ziren emakumeei deritzegu.

[608] Queipo de Llano general kolpistaren irrati-diskurtsoa, 1936an.

ahal izateko eta horrenbestez, gizonarekiko sumisioa izan beharra zuen. Horrez gainera, Bigarren Errepublikan bultzatu zen ama ezkongabearen irudia onartezina zen frankismoarentzat. Umeak eduki ahal izateko, ezinbestekoa zen ezkonduta egotea, bestelaz bekatu kontsideratzen zen.

1938ko Lanaren Foroak, emakumea espazio pribatura mugatzea ekarri zuen eta batez ere, ezkondu ondoren ez zitzaion utzi espazio publikoan lan egiten. Espazio publikoan lan eginez gero, beti ere, gizonezkoak baino gutxiago kobratzen zuen. Gizonezkoak, emakumearen soldata kobratzea eskatzeko aukera ere bazeukan. Emakumea, 1944ko Kodigo Penalaren bidez, harik eta menpekoagoa bihurtu zen. Horren arabera, emakumearen senarrak edo 23 urte azpiko emakumearen aitak, berau adulterioa edo egoera analogoetan topatzen bazuen, hura zauritu edo hiltzeko baimena ematen zion. Ezin zen antikontzeptiborik erabili ez eta abortua praktikan jarri ere.

Emakumeak, bitartean, etxean zain eta ongi dotore egon behar zuen bere gizona lanetik etortzean zaintzeko. Dotore egoteak, senarra sexu-harremanak izatera bultzatzen zuen eta horrela, umeak izatea errazten zuen. Horrek guztiak funtzionatu ahal izateko, gizonezkoak ere bere rol tradizionalak bete behar izan zituen: gogortasuna, autoritatea, sendotasuna, diziplina, egoismoa, inteligentzia, ardura, aldentze erlijiosoa …

Frankismoak haren botere nazionala handitu nahi izan zuen eta horrenbestez, emakumeak ugalketan izugarrizko garrantzia zuen. Diktadura frankistan zehar, emakumeak, estatu diktatoriala defendatu eta eraikitzeko gai izango ziren seme-alabak eman behar zituen. Demografia hazteko asmoz, instituzio frankistek, antikontzeptiboen salmenta debekatu eta ugalketa kontrolatuko zuten zenbait neurri martxan ezarri zituzten.

Eliza eta Sección Femenina[609] izan ziren, estatu frankistari emakumearen irudi berria ezartzen lagundu zioten instituzio indartsuenak. Getariako kasuan, haren arduraduna, Leonor Molet Garate izan zen:

**"M, J, A:** Horrek nire garaian Sección Femenina zekan. Eta Sección Femenina, jute baldin bazan bere erakua edo bere begitakua edo, horrek laundu eitten tzion eta ematen tzion kanestilla. Kanestilla zan umia jaiotzen tzanian, eta garai hartan Frantziara jun nahi zunak estudiatzea eo ematen tzion pasia baina bere gustukoa etzanai etzion ematen"[610].

Hezkuntzaren bidez, emakumeak, amatasunerako prestatzea bilatzen zen, hau da, hezkuntza emakumearen gai domestikora bideratuta zegoen. Emakumeen liburuetan, berau, josten … hau da, etxeko eginbeharrak eginez ageri zen. Irakasle, mekanografa edo enfermera lanetan ere ageri zen, hauek ere rol tradizionalak betetzen zituztelako. Gizonezkoak berriz, haien liburuetan, espazio publikoan lanean irudikatzen ziren.

Emakumeak, 17 urte betetzean Sección Femeninara sartzen ziren, 7-17 urte bitartean Regiduría Femenina de las Organizaciones Juveniles (1937ko abuztua-1940ko abendua), geroago Frente de Juventudes (1940ko abendua-1944ko apirila) delakora sartzen zirelarik. Emakumea rol tradizionalistara bueltatzea, falangistek, errekonkista gisan hartu zuten.

Gazteen falangean afiliatutako 11-14 bitarteko emakumeek, arratsaldean irakaspenak jasotzen zituzten. 15-17 bitartekoek, hizkuntzak, mekanografia, kontabilitatea… ikasten zituzten. Horrez gainera, "Ikastunen Tailerra" delakoa ere izaten zuten "Fletxen Etxeko" emakume afiliatu haiek. Ibilaldiak ere, emakumeak, kolektiboan bizi eta bizitza tradizionala menperatzeko egiten zituzten.

1941eko urrian, unibertsitatera joan ahal izateko, emakumeek, etxekoandre azterketa bat egin beharra izaten zuten.

Ez dago esan beharrik, indarkeria sexistako kasuak, guztiz estaliak izan zirela eta ideologia frankistak, emakumea indarkeria sexistaren errudun nagusi egin zuela. Horrezaz gainera, emakume hauei guztiei, luto eskubidea kendu, festa nazionaletan dantzatzera behartu zein beren seme-alaben izenak doktrina katolikoaren oinarriak jarraituz aldatzera behartu zituzten.

Instituzio frankisten aparailu eta ideologia hau guztia kontutan hartuta, ez da harritzekoa, Getarian ere, emakumeen aurkako errepresioaren lekukotza izatea. Getariako emakumeek, errepresio aparailuaren ondorioak jasan behar izan zituzten tropa frankistak herrira sartu eta diktadurak iraun zuen bitartean. Arestian aipatu gisan, mota askotariko errepresioak pairatu zituzten: ile soiltzeak, guraso errepublikazaleak zituzten umeen bahitzea, irainak, isun-ekonomikoak, depurazioak… Segidan, puntuz puntu, errepresio mota hauek guztiak jasan zituzten emakumeen berri ematen saiatuko gara. Aldez aurretik, esan, emakumeen ikerketaren arloan, dokumentuen eskasia aurkitu dugula[611] eta ezinbestekoa izan zaigula getariarren testigantza zein informazio transmisioa. Azken hauei, eskerrak eman.

### 4.3.2. Getariar emakumeek jasandako errepresio mota anitzak

Euskal Herrian eta Estatu Espainiar osoan gisan, tropa frankistak, 1936ko irailaren 21ean Getariara sartzean, emakume errepublikazalearen gorputza diziplinatzeko zenbait errepresio gauzatu zituzten, horien artean: ile-soiltzeak eta paseoak, sexu erasoak,

[609] 1934an, falangistek, Pilar Primo de Riveraren eskutik, Sección Femenina delakoa sortu zuten. Haren helburua, geroago diktadura frankistan zehar islatuko zen gisan, emakumeak bere rol tradizionala betetzea izan zen.

[610] Testigantza: Maria Antonia Burgaña Martija, Jose Angel Kerejeta Urresti eta Andoni Arregi Oiarzabal.

[611] Ile soiltzeak, esaterako, ez ziren dokumentatzen. Emakume haien ohorearen galtzea suposatzen zuen bai eta haien familiarena ere. Bigarren Errepublikan gertatu gisan, indarkeria sexista mota hau, ezkutatu egiten zen. Horrez gainera, dokumentuak, oro har, gizonezkoek ekoiztuak izaten ziren eta beraz, ez da harritzekoa, garaiko ideologiagatik emakumea bigarren mailakotzat hartu eta gizonezkoen datuak baino ez agertzea dokumentuetan, haren gehiengoan. Hala eta guztiz ere, kapituluan zehar Getarian tropa frankistek burututako ile-soiltzeen testigantza-dokumentuaren ikerketa erreparatu ahal izango da.

irainak, isun-ekonomikoak, herritik kanporatzeak… gauzatu zituzten. Aipatu guztiak, batik bat, emakumearen gorputzaren gain aplikatutako errepresioak izan ziren, zeintzuek frankistak sortutako “emakume berria” onartzeko metodologia gisa erabili zituzten.

Getarian, errepresio jakin honen kaltetuenak, Emakume Abertzale Batzako militanteak eta tropa frankisten aurka borrokatzera joandako gizonezko gudarien emazteak izan ziren. Getarian, agintari frankistek erabilitako errepresio anitzenak, getariar emakumeen espultsioak eta horren ondoriozko erbestea izan ziren. Hala eta guztiz ere, hurrengo lerroetan, tropa frankistek emakume getariarrei aurreko lerroetan deskribatutako teoriak sistematikoki aplikatuz gauzatutako gorputzen diziplinamendu bortitzaz jardungo dugu.

- **Ile soiltzeak, olio errizinoa eta biluzik kaleetatik:**

Ilea, emakume izanaren iruditerian sartzen zen egituretako bat zen; hau da, jendarteak, emakumeak irudikatzean, ile luzedun subjektutzat zituen. Ilea emakumeen identitate eredutzat hartzen zen eta hori kentzeak, emakumeei haien identitatearen zati bat birrintzea zekarren:

“(…) dicha mutilación de un atributo físico enormemente sexuado (a veces aplicado simultáneamente con el rapado de las cejas) afectó exclusivamente a las mujeres, aunque es preciso mencionar la existencia de algunos casos marginales de rapado de hombres”[612].

Errepresio mota hau jasan zuten emakumeen artean, rol tradizionalekin hautsi zutenak zeuden: irakasle errepublikarrak, langile mugimenduan parte hartutako emakumeak, gudariekin zerikusia izandako emakumeak, ospitale errepublikarretan lanean jardundako erizainak, intelektualak, preso zeuden gizonezkoen emazteak, politikoki eragina izan zuten gizonezkoen senideak…

Getariako kasuan, Bigarren Errepublikan zehar ekintza politikoetan parte hartu zuten Emakume Abertzale Batzako militante izandako Digna Azkue Uzin[613], Karmen Alkorta Alkorta, Eulali Tolosa eta Rosario Uranga Olaskoaga ditugu:

“ Ilea moztu jendiai ta… I: bai, bai emakumiak… Rosario Txikixa ta… motz-motz einda han jun tzan hura… burue jaitsi gabe e, etxea moztu zienian. E: kaletik gaiñea eon behar zuten pasioan, ezta? Ilea moztuta eta pasioan izaten zituzten, plazatik… I: hura pasioan eztakit ibili zan baiña bere illia moztu ta zea, tente-tente jun tzan. Ondo ein tzun. E: ta berak bezela jende gehiago egon zen berdiña egin ziotena? I: Bueno… izango zan jende gehixo. E: izenik etzea gogoratzen? I: izenik ez… Roxario Uranga, bai ama amonan laun haundixa zan Rosario. I: A bai, hura bai”[614].

1937ko urtarrilaren 7an, Euskadiko Gudontzidiko *Euzkadi* ontziak Getariako arrantzaleen *Nuestra Señora del Rosario* ontzia atzeman zuen. Ontzi horretako Fermin Uzin Berasaluze eta Jose Zenakorta Urrestiri hartutako deklarazioaren arabera “2º Afirman que en Guetaria se ha cortado el pelo a dos Emakumes, una de ellas hija de Esteban de Uranga, llamada Rosario, Presidenta de E.A.B.”[615].




**Emakume euskaldunen ile-soiltzea.** **(Ahora, Madrid).**

Pelegrin Agote Kamiok ere, egindako deklarazioan, Uzinek aipatutako ile soilketez gain, bi emakumeak beren etxean bi hilabete irten gabe pasa zituztela adierazi zuen “Confirma el corte de pelo de que ha hablado Ucín, manifestando que han sido dos las mujeres castigadas, una casada y otra soltera, ésta la que fué Presidenta de Emakumes, hija de Uranga, les cortaron el pelo en el Ayuntamiento por elementos de falange, mandándolas seguidamente a casa donde han estado dos meses sin salir, el motivo de tal castigo ha sido el que eran nacionalistas”[616]. (Deklarazioa bere osotasunean irakurtzeko, ikus 3. Eranskina)

Emakumeei ilea soildu ostean, ez zioten uzten buruan zapirik ezartzen. Hala, frankistek, umilazioa handiagoa izatea bilatzen zuten. Deklarazioa amaitu ostean, tripulazioko kide guztiak aske utzi zituzten.

---

[612] JOLY, MAUD. 2008. “Las violencias sexuadas de la Guerra Civil española: paradigma para una lectura cultural del conflicto.”, Historia Social, 61. Zbk.: 95-96.orr.

[613] Azkueri krisi epileptiko bat eman zion eta ez zioten azkenean ilea moztu. Ezin izan dugu zehaztu Digna Azkue Emakume Abertzale Batzako militantea izan zen ala ez.

[614] Testigantza: Isabel Egurbide Oiarzabal.

[615] Euskadiko Gudontzidiaren Buruzagitzaren Agiritegia. “Nuestra Señora del Rosario” arrantza-ontziko tripulazioaren deklarazioa. http://www.marinavasca.eu/eu/archivo-documental-detalle.php?o=10&a=1&id=1

[616] Euskadiko Gudontzidiaren Buruzagitzaren Agiritegia. “Nuestra Señora del Rosario” arrantza-ontziko tripulazioaren deklarazioa. http://www.marinavasca.eu/eu/archivo-documental-detalle.php?o=10&a=1&id=1



Hoja nº 3.

Hace presente su extrañeza por la actual situación de Bilbao, ya que según sus noticias se encontraba destruída toda la población por el bombardeo sufrido el pasado día y cuyos detalles daba a conocer la voz de España; asimismo se ha dado a conocer la destrucción de la ciudad de Santander.

Manifiesta su desesperación por la escasez de víveres a que están sometidos como consecuencia de la forzosa inactividad de la flotilla pesquera, ya que por tener que satisfacer los comerciantes los géneros al contado, no fían a los pescadores. El día de Navidad se han encontrado éstos sin pan, ya que no tenían modo de adquirirlo. El Ayuntamiento hizo un reparto a las familias necesitadas de

1 litro de aceite, 6 panes, 5 kilos de patatas.

En tierra es obligatorio llevar la insignia monárquica, siendo multado con un duro la primera falta y con veinte la segunda.

Confirma el corte de pelo de que ha hablado Ucín, manifestando que han sido dos las mujeres castigadas, una casada y otra soltera, ésta la que fué Presidenta de Emakumes, hija de Uranga, les cortaron el pelo en el Ayuntamiento por elementos de falange, mandándoles seguidamente a casa donde han estado dos meses sin salir, el motivo de tal castigo ha sido el que eran nacionalistas.

Allí les dicen que en Bilbao se vive muy mal y ellos manifiestan que aunque allí hay pan si no hay dinero no se come. El besugo ha bajado a 18 pesetas la arroba y lo llevan a Donostia a vender.

En Guetaria de 11 vapores quedan unicamente tres y otras tantas motoras, no viéndose bous.

Por las autoridades facciosas se ha lanzado un bando creando un Voluntariado de Mar de 22 a 38 años, ofreciéndoles plazas de fogoneros en los bous con 50 duros de sueldo, comida y ropa.

El precio del pan en Guetaria es de 0,60 el kilo, hay vino navarro a 0,90 litro y carne de tercera a una peseta libra.

Antonio Alegría le han multado con 36.000 pesetas por haber sido Alcalde su hijo, ignorando si las ha satisfecho.

A los pescadores les han impuesto multas de 30 y 40 duros por haber escapado sus hijos a Francia, de donde han vuelto muy pocos.

Los falangistas destacados en Guetaria son todos ellos navarros.

Confirma el llamamiento de quintos a partir del reemplazo del 31.

El actual Alcalde es Ramón de Manterola.

En cuanto a noticias de la guerra no saben nada, ya que en sus conversaciones en las tabernas deben de callar para evitar la vigilancia de requetés y falangistas.

Bilbao, 7 Enero 1.937.

Getariako emakumeei ile-soilketak. (Euskadiko Gudontzidiaren Buruzagitzaren Agiritegia).



ANTE DON JOAQUIN DE EGUIA Y UNZUETA, Jefe de Marina de Guerra del Gobierno de Euzkadi, comparece la tripulación del vapor "NUESTRA SEÑORA DEL ROSARIO" apresado frente a la costa de Lequeitio en el día de la fecha por la motora armada "EUZKADI", estando compuesta esta tripulación por los siguientes individuos:

Patrón: Pelegrín Agote Camio, de 43 años de edad, natural de Guetaria.
Marinero: Mariano Iribar Bordagaray, de 43 años de edad, natural de Guetaria.
" José Larrañaga Arregui, de 37 años de edad, " "
" José de Zanekorta y Urresti, de 40 años, natural de Motrico.
" Alejo Bordagaray Olave, de 20 años, " Guetaria.
" Juan Aranguren Ondarroa, de 45 años, " Guetaria.
Maquinista: Eduardo Darpón Ochotorena, de 46 años, " Guetaria.
Marinero: Julián Berasaluce Camio, de 42 años, " Guetaria.
" Emeterio Isasti Uranga, de 45 años, " Guetaria.
" Fermín Lucín Berasaluce, de 16 años, " Guetaria.

De orden del Sr. Eguia comparece unicamente los llamados Fermín Lucín Berasaluce y José de Zenakorta y Urresti, quienes a las preguntas efectuadas por el Sr. Eguia, responden:

1º Que en Guetaria no han fusilado a nadie, si bien tienen noticias de que se han efectuado algunos fusilamientos en Tolosa, Lasarte, etc.

2º Afirman que en Guetaria se ha cortado el pelo a dos Emakumes, una de ellas hija de Esteban de Uranga, llamada Rosario, Presidenta de E.A.B.

3º Los castigos impuestos en Guetaria han sido multas.

En este momento del interrogatorio uno de los miñones que ha procedido a efectuar el cacheo de los prisioneros, coloca sobre la mesa despacho del Sr. Eguia varias navajas de las usadas por los pescadores en sus faenas profesionales de pesca, dos monederos y una pequeña cantidad de metálico, habiendo observado en uno de los monederos la existencia de una pequeña insignia con los colores de la bandera monárquica, responde el llamado Lucín, que obligan a llevar tales insignias en las solapas castigando con multas alguien así no lo efectua, motivo por el cual ha estado él detenido cuatro días.

Pelegrin Agote Kamioren deklarazioa eta Getariako ile soilketak.
(Euskadiko Gudontzidiaren Buruzagitzaren Agiritegia).

GETARIAKO NUESTRA SEÑORA DEL ROSARIO ONTZIKO ARRANTZALEAK

| IZEN-ABIZENAK | URTEAK | JAIOTERRIA | POSTUA |
|---|---|---|---|
| **PELEGRIN AGOTE KAMIO** | 43 | GETARIA | PATROIA |
| **EDUARDO DARPON OTXOTORENA** | 46 | GETARIA | MAKINISTA |
| **MARIANO IRIBAR BORDAGARAI** | 43 | GETARIA | ARRANTZALEA |
| **JOSE LARRAÑAGA ARREGI** | 37 | GETARIA | ARRANTZALEA |
| **JOSE ZANEKORTA URRESTI** | 40 | MUTRIKU | ARRANTZALEA |
| **ALEJO BORDAGARAI OLABE** | 20 | GETARIA | ARRANTZALEA |
| **JUAN ARANGUREN ONDARROA** | 45 | GETARIA | ARRANTZALEA |
| **JULIAN BERASALUZE KAMIO** | 42 | GETARIA | ARRANTZALEA |
| **EMETERIO ISASTI URANGA** | 45 | GETARIA | ARRANTZALEA ETA GETARIAKO BANDAKO ZUZENDARIA |
| **FERMIN UZIN BERASALUZE** | 16 | GETARIA | ARRANTZALEA |

Emakume Abertzale Batzako militanteek, espazio pribatura bideratutako emakume berriaren irudia guztiz zalantzan jartzen zuten. Karmen Alkorta Alkorta eta Rosario Uranga Olaskoaga militanteak, Bigarren Errepublikan zehar, propaganda eta mitinak espazio publikoan emandakoak ziren. Beti ere, lan banaketa sexual tradizionalaren alde egin bazuten ere, kaleak hartu zituzten eta hori ez zetorren bat gizonezkoaren menpeko izan behar zuen frankisten emakume objektuarekin. Horrez gainera, euskal nazionalistak ziren eta beraz, frankistek defendatzen zuten “España, una, grande y libre” ereduaren aurkakotzat klasifikatu zituzten, alegia, garaian zioten gisan “rojo-separatista”-tzat. Azkenik aipatzeko esan, langile klaseko emakumeak zirela eta beraien militantziak nolabaiteko kontraesana suposatzen bazuen ere[617], tropa frankistak Getariara iritsi eta ilea soiltzea ekiditeko ezer egin izan ez zutenean eta gerraostean bizitako eskasia ekonomikoarekin argi eta garbi geratu zen haien klasea zein zen.

617 Beraien klaseaz ez ziren kontziente eta oraindik ere lan banaketa sexuala babesten zuten, nahiz eta horrek beren klaseko gizonezkoekin arrakala eta menpekotasun ekonomiko handiagoa izatea suposatzen zien.

### • Amatasun-etxeak eta Villa San-Jose umezurztegia:

Gaur egun telebistan noiznahi ikusten ditugu, Ekialde Hurbileko haurrak besorik, hankarik gabe… larriki zaurituta, beraiek hasi gabeko gerraren ordaintza beren gorputzetan jasaten. Gerra Zibilean ere, getariar ume haietako askok, izugarrizko peripeziak bizi izan zenituzten. Gupidagabeko gerra hark, guztira, Ramon Salas Larrazabalen arabera, 1936-1939 artean, 138.000 inguru hildako ume utzi zituen. Armarik gabeko ume indefentsoak ziren, indarkeriazko erasoari erantzunik eman ezin zioten umeak.

Bizirik geratu ziren umeen etorkizuna ere ez zen askoz hobea izan. Familia frankistetako umeek, arlo ekonomiko oparoa izan zuten eta alderdi soziala gurasoen araberakoa izango zen. Guraso errepublikazale zein euskal nazionalisten umeak berriz, diktadura frankistan zehar gehien sufritu zutenen artean kokatu behar ditugu. Erregimen frankistak, lehen ere aipatu dugunez, beraien ideologiaren erabateko homogeneizazioa gauzatu nahi izan zuen. Horretarako, ezinbestekoa zuen, errepublikazale zein euskal nazionalisten haurrek ordura arte garatutako ideologia kontziente apurra guztiz aldatzea. Zenbaitetan, ume haiek, eskuindarrei saldu ere egin zizkieten.

Bide horri jarraiki, hauetako asko, umezurztegietan sartzeko erabakia hartu zuten. Batzuek gurasoak gerran galdu bazituzten ere, beste batzuen kasuan, kartzeletan zeuzkaten eta beti ere, haiek zaintzeko nahia erakutsi zuten. Erabaki horri, erregimen frankistak, kasurik gehienetan muzin egin zion eta hala, errazagoa egin zitzaion ume haiei guztiei erregimen frankistak instituzionalizatutako ideologia faxista inposatzea. Hala, zenbait gurasok kartzelatik irten ostean, beren haurrek ez zituzten ezagutu ere egin eta zenbait kasutan, frankistak inposatutako ideologiaren menpean zeudenez, beren gurasoak gogaitzera ere heldu ziren. Zenbait familiatan, gaur egun, oraindik ere, orban ilun horren arrastoak nabari genitzake.

Hura izan zen, esaterako, Fernando Sanchez Garcia eta Maria Paz Carazo San Miguel Getariako eskola nazionaletako maisu-maistren kasua. Fernando Sánchez García Izquierda Republicana-ko[618] militantea zelako akusatu zuten[619] eta bere deklarazioan, gerrako neskato bat bere familian hartu zuela ziurtatu zuen.







**Fernando Sanchez García-ren deklarazioa.** (GUA).

Beste kasu batzuetan berriz, umezurtzak konbentu ezberdinetan sartu zituzten eta industria ezberdinentzako manufakturak, askotan ordainetan ezer eman eta beraz, esplotatuz egin behar izan zituzten. Getarian, Villa San Jose deiturikoa, 1937tik aurrera, gerrako umezurtzak hartu zituen tokia bilakatu zen. Honakoa suediarren eskuetan geratu zen:

"La actividad humanitaria sueca se extendió también a la zona franquista, tanto en forma de apoyo material – sobre todo medicinas, y un hogar de acogida a niños en Guetaria – como, especialmente, en relación con el ejercicio del derecho de asilo y la labor de mediación en el intercambio de presos, como el canje del hijo del general Goded y su familia"[620].

Seguruenik, Fernando Sánchez García eta Maria Paz Carazo San Miguel-ek beren etxean hartutako gerrako umea ere, bertakoa izango zen. Villa San Jose-ko zenbait langile, herriko falangistek egindako bidegabekerien lekuko izan ziren eta horren eraginez, zenbait haserre egon ziren haien artean:

---

[618] Liburuan zehar Izquierda Republicana alderdi politikoa "IR" laburduraz adieraziko da.

[619] Egiazki ideologia eskuindarrekoa zen.

[620] PEIX GELDART, B. 2013. *Relaciones políticas y diplomáticas entre España y Suecia de 1931 a 1939*. Universidad de Valladolid, Valladolid, 440.or.

"Por lo que respecta a las autoridades franquistas, la empleada sueca al cargo del hogar infantil sueco 'Villa San José' de Guetaria, Srta. Fredriksson, tuvo fuertes enfrentamientos verbales con una de las dirigentes locales de Falange española, lo que llevó a la expulsión de aquella de la España franquista"[621].

Itxura denez, suediarrek, ume haiek ideologia frankistatik at hezteko aukera hartu zuten eta ondorioz, herriko falangistekin liskarrak izan zituzten, horren eraginez, Fredriksson irakaslea Espainiar Estatu frankistatik espultsatzeko neurria hartu zuten. Getariako Villa San Jose-ren kasua, ustez, salbuespena izan zen.



**Víveres para Madrid**

Burgos, 22. — Han llegado a Pasajes, con destino a Madrid, cinco mil kilos de víveres, consistentes en chocolate, leche condensada, queso, pescado y carne en conserva, que son enviados por la colonia española de Suecia, Organizaciones de Falange y la Sociedad de Amigos de la España Nacional, que durante los años de guerra han defendido ardientemente nuestra Causa. Una pequeña parte será enviada a la guardería de niños, representada por damas suecas, establecida en el pueblo de Guetaria. —Faro.

**Getariako umezurtegirako hornigaiak.**
(La Vanguardia Española).

Umezurtzak ez ziren erregimen frankistaren kalbarioa bizi izan zuten ume bakarrak izan. Azken urteetan batik bat argitara eraman den ume lapurtuen kasuez dihardugu. Ume hauek, gehienetan, erregimen frankistako mojen, apaizen zein medikuen eskuetan zeuden komentuetan jaiotakoak ziren. Komentu hauetan, beren familietan emakume frankistaren irudia betetzen ez zuten emakumeak sartzen zituzten. Emakume haiek modu ezberdinean haurdun geratutakoak izan zitezkeen: bortxaketa, ezkongabea… guztiek betetzen zituzten bi baldintza nagusiak, gehienetan, adingabekoak eta ezkongabeak izatea zen. Ezkongabeak ziren eta horrek, gizonezko subjektu politikoaren menpe ez zeudela esan nahi zuen. Beraz, ez zetozen bat erregimen frankistako emakume berri sumisoaren irudiarekin. Hala, bestelako emakume haien pertsonifikazioa ezkutatu beharra zegoen eta amatasun-etxeak, horretarako ezinbesteko tresna bilakatu ziren.

Beren egoera zer-nolakoa izan zen jakin ezin izan badugu ere, Getarian, amatasun-etxean egon ziren zenbait emakumeren lekukotza aurkitu ahal izan dugu:

AMATASUN-ETXEAN EGONDAKO EMAKUME GETARIARRAK

| IZEN-ABIZENAK | IRAUPENA |
|---|---|
| MANUELA ARREGI | 24 egun |
| DOLORES AZKUE | - |
| ALBERTA EZENARRO | 15 egun |
| JULIANA OSA | - |
| MARIA URBIETA AIZPURU | - |



**Manuela Arregi eta Dolores Azkue amatasun etxera.** (GUA).

• **Ekintza politikoetan parte hartzeagatik isun-ekonomikoak ezarritako zein kartzelara joandako emakume getariarrak:**

Getarian, tropa frankistak sartzen joan ahala Euskal Herriko gainerako herrietan gertatu gisan, Bigarren Errepublikan zehar ekintza politikoetan parte hartutako emakumeak gogor zigortu zituzten. Zenbakiz, beti ere, Euskal Herri mailan, gizonezkoak baina kantitate txikiagoan sartu zituzten emakumeak kartzelara. Baina aurreko lerroetan nabarmendu dugun gisan, haiek jasandako errepresioa, kualitatiboki, bortitza eta diziplinamendu handikoa izan zela determinatu genezake. Getarian, haien ekintza politikoengatik, emakumeek, kartzela zein isun-ekonomikoki zigorrak jasan zituzten.

[621] *Ibidem*, 390.or.

### KARMEN ALKORTA ALKORTA

Bigarren Errepublikan zehar, Emakume Abertzale Batzako militantea izaki, espazio publikoan nabarmendu egin zen. Hala, frankisten artean, euskal nazionalista izateagatik eta espazio publikoa hartu zuen eta beraz, frankistek sortutako emakume berri eta beraz, espazio pribatura mugatutakoan lekurik ez izateagatik gogor zigortu zuten. Getarian bertan ilea-soildu ostean, Ondarretako kartzelara eraman zuten eta bertan hilabete inguru pasa behar izan zuen.

### JOSEFA OLANO

Ermuatik ihes egin behar izan zuen bere familiarekin. Egindako bide luzearen ostean, Bartzelonara iritsi zen. Han bere haur Maria Angeles, Miren eta Jose Mariarekin bertan errefuxiatu zen. Egoera hartan, jada frankistak Bartzelonan zeudelarik, bere alaba Mireni bere izena euskaraz adierazteagatik, hiru eguneko kartzela-zigorrera kondenatu zuten. Kasu honetan beraz, euskararen aurka hartutako neurriagatik kartzelaratu zuten.

LANPOSTU PUBLIKOTIK KARGUGABETUTAKO EMAKUMEAK

| IZEN-ABIZENAK | POSTUA |
|---|---|
| **CHARRO MARTINEZ, DOLORES** | Erregimen frankistaren aurkakoa izateagatik, bere irakasle postutik kargugabetua |
| **ETXEBERRIA GORRITI, ISABEL** | Quintanilla de la Riberan tropa frankistak sartzean depuratua.<br>1937ko irailaren 11-1939ko irailaren 15era arte Getarian irakasle, depuratua. Handik, Gabiriara.<br>Bere ordez, Getariako kofradiako eskolan, gerran borrokatutako soldadu frankista ezarri: Roque Alonso Moro. |
| **SASIAIN GARMENDIA, KARMEN** | Erregimen frankistaren aurkakoa izateagatik, bere irakasle postutik kargugabetua |
| **VILLAVERDE PURAS, ANA** | Bigarren Errepublikan zehar irakasle nazionala izan zen |

### ERASO HOMOFOBOAK

Bigarren Errepublikako gobernuaren aurkako estatu-kolpea eman zuten oligarkia eta militar frankistek, hasieratik, ordena tradizionala ezartzea nahi izan zuten. Horren baitan, arestian aipatu gisan, gizonezkoa subjektu politiko gisan berretsi bitartean, emakumezkoa haren objektu berretsi zuten. Handik aurrera, emakumea gizonezkoaren menpeko objektu bihurtu zuten. Hartarako, tropa frankistak, aurreko lerroetan azaldu gisan, Bigarren Errepublikan zehar zenbait oinarrizko eskubide lortutako emakumeen gorputzen diziplinamendua egiteaz arduratu ziren: ile-soiltzeak, bortxaketak… oro har, garaiko emakumea identifikatzen ziren ezaugarriak birrintzeaz arduratu ziren. Gisa horretara, emakumea subjektu politiko gisan berresteko emandako pausoak eten egin ziren eta esan bezala, gizonezkoaren menpeko objektu bihurtu zen. Handik aurrera, onartutako harreman sentimentalak, emakumezko eta gizonezkoen artekoak izango ziren. Sexu berekoen arteko harreman sentimentalak gogor zigortu ziren.

Horren orbanik Bigarren Errepublikaren aldarrikapena baino lehen Espainiar Estatuan zegoen, Alfontso XIII.a erregeak hobetsitako Miguel Primo de Riveraren diktaduran aurki dezakegu. 1928ko irailaren 13an Madrileko Gazetan argitaratutako Zigor Kodean, homosexualitatea zigortu zuten:

"TITULO X. Delitos contra la honestidad. CAPITULO VI. Delitos de escándalo público.

Artículo 616. El que, habitualmente o con escándalo, cometiera actos contrarios al pudor con personas del mismo sexo, será castigado con multa de 1.000 a 10.000 pesetas e inhabilitación especial para cargos públicos de seis a doce años.

Artículo 617. Incurrirán en la pena de multa de 1.000 a 10.000 pesetas e inhabilitación especial para cargos públicos, de cuatro a ocho años, los que por cualquier modo ofendan al pudor o las buenas costumbres con hechos de grave escándalo o transcendencia, no comprendidos expresamente en otros artículos de este Código.

En la misma pena incurrirán las que, fuera de publicaciones meramente científicas o (…) de Corporaciones técnicas, propaguen teorías o prácticas anticoncepcionales"[622].


CAPITULO VI

*Delitos de escándalo público.*

Artículo 616. El que, habitualmente o con escándalo, cometiera actos contrarios al pudor con personas del mismo sexo, será castigado con multa de 1.000 a 10.000 pesetas e inhabilitación especial para cargos públicos de seis a doce años.

Artículo 617. Incurrirán en la pena de multa de 1.000 a 10.000 pesetas e inhabilitación especial para cargos públicos, de cuatro a ocho años, los que por cualquier modo ofendan al pudor o las buenas costumbres con hechos de grave escándalo o transcendencia, no comprendidos expresamente en otros artículos de este Código.

En la misma pena incurrirán las que, fuera de publicaciones meramente [illegible] de Corporaciones técnicas, propaguen teorías o prácticas anticoncepcionales.

**1928ko Zigor Kodeak, homosexualitatea zigortu.**(Madrileko Gazeta).

[622] Madrileko Gazeta, 1928ko irailaren 13a, 257 zbk., 1505-1506.or.

Bigarren Errepublikan 1932ko Zigor Kodean, homosexualitatea ez zen aipatu eta beraz, delitu izateari utzi zion. Hala eta guztiz ere, ejertzitoko militarren artean "jokabide arriskutsu" gisan determinatu zuten. Homosexualitatea estatalki jazarria izan ez bazen ere, haren aldeko lege zein elkarte estatalik ez zen sortu. Beraz, jazarpen estatalik, oro har, jaso ez bazuten ere, erasoen aurrean, homosexualek, babesgabe jarraitu zuten. Sozietatearen ikuspuntu aldaketa beharrezkoa zen homosexualak haien askatasuna bizitzeko aukera izan zezaten.

Baina 1936ko uztailaren 17 eta 18an oligarkia eta militar frankistek emandako estatu-kolpeak, arestian aipatu gisan, askatasunaren bidean emandako pauso txiki hauek etenda utzi zituen. Hala, gizonezko eta emakumezkoen arteko harreman sentimentalak baino ez ziren onartzen, moral kontserbadore eta katolikoaren araberakoak. Horren eraginez, homosexualak jazartuak izan ziren. Getarian ere badugu antzeko kasurik, zehazki gizonezko homosexual baten ingurukoa. Jose Maria Garrastazu Arruti zen. Monarkikoa eta 1936ko otsaileko hauteskundeetan, Getariako F.E.T. eta J.O.N.S.-eko ordezkaritzaren arabera, eskuindarren aldeko bozka eskatu zuena. Tropa frankistak Getariara sartu berritan, errekete aurkeztu zen eta indar-errepublikazaleen aurka borrokatzera joan zen. Getariako falangearen ordezkaritzak azken ukitu bat egiten dio informeari "(…) aunque sí se rumoreaba por el pueblo que padecia del vicio propio de los afeminados". Homosexuala zela. Esaldi konkretu horrek berak, homosexualitatea gaizki ikusia zegoela adierazten digu. Goazen "afeminados" hitza bera aztertzera. Emakumezkoen rolak betetzen zituen gizonezkotzat hartzen dute. Gizonezko subjektu politikoari uko egin eta haren objektu zen emakumearen ezaugarriak bere egiten zituena. Gizonezkoaren rol tradizionalak ez betetzeagatik, garaiko emakumeak zuen sumisio rola ezarri zioten. Haren hitza, handik aurrera, moral tradizionalaren baitan zeuden ezaugarriei men egiten ez zielako, besterendua izango zen. Garaiko sozietatearentzat, estatu diktatorialak ordenatu gisara, marjinatua eta jazarria izango zen.

Horregatik, Zarauzko Komandantzia Militarrean dilijentziak ireki eta Getariako F.E.T. eta J.O.N.S.-eko ordezkaritzak informeak egiteaz gain, zenbait herritarrek ere, bere "delitua" berresteko haien deklarazioak egin zituzten. Bere familiaren inguruko informea ere egin zuten, familia hartan hezi baitzen eta beraz, frankisten arabera, haren moralaren egoeraren erantzukizuna bere familiak zuen. Lau anai-arreba zituen: Jose Ignacio (erreketeekin gerran), Antonio (errepublikazaleekin gerran), Ambrosio (eskuindarra) eta



INFORME EMITIDO por la Junta Local de F.E.T de las J O N S. - GUETARIA.

JOSE MARIA GARRASTAZU ARRUTI.- Su idea política anterior al Movimiento Salvador de España, era Monárquica, tomando parte en la propaganda electoral en favor de las derechas. A la liberación de esta Villa se presentó como Requeté.- En cuanto a su conducta moral, esta Junta no ha observado ninguna cosa anormal en él, aunque sí se rumoreaba por el pueblo que padecia del vicio propio de los afeminados.

Sobre su situación económica se desconoce si posee bienes.- Guetaria 23 de Noviembre de 1937.- II Año T.

**Getariako F.E.T. eta J.O.N.S.-eko ordezkaritzaren informea Jose Maria Garrastazu Arrutiren inguruan.** (Renoko Unibertsitatea, Idoia Arrieta).



I N F O R M E.-

JOSEFA IGNACIA ARRUTI, Madre de José Mª Garrastazu.- No se le ha notado nada en su aspecto político, antes ni despues del Movimiento. En cuanto a su conducta particular es buena, aunque se sabe que en vida de su difunto marido estuvo separada un cierto tiempo.- Esta Junta ignora si posee bienes.-

JOSE IGNACIO GARRASTAZU ARRUTI.- Hijo de Josefa Ignacia Arruti, de profesión cocinero, es actualmente Requeté.- Antes y despues del Movimiento,ha sido de derechas. En cuanto a su conducta moral ha sido siempre intachable.

ANTONIO GARRASTAZU ARRUTI, hijo de Josefa Ignacia Arruti, fué miliciano de los Rojos, habiendo tomado armas a raiz del Movimiento.; En la actualidad se encuentra en Francia, vivia en compañia de su madre y hermano en esta Villa.; Ignora si posee bienes.

AMBROSIO GARRASTAZU ARRUTI. hijo de Josefa Ignacia Arruti, Vive en compañia de su madre.- En cuanto a su significación política, es de derechas, votando en las últimas elecciones en pro de las mismas. Su conducta es intachable.

IGNACIA GARRASTAZU ARRUTI, hija de Josefa Ignacia Arruti. De joven estuvo de criada en San Sebastian en donde está casada actualmente con un miliciano Rojo que estuvo de punto en el Muelle de esta Villa, durante varios dias cuando la dominación ROJO-SEPARATISTA. El marido vivia en San Sebastian y trabajaba últimamente en la pescaderia.- Sobre su conducta moral ignora esta Junta por residir muchos años fuera de ésta.-

Guetaria 23 de Noviembre de 1937.-2º .A.T.

**Garrastazuren familiaren inguruko Getariako falangeko informea.** (Renoko Unibertsitatea, Idoia Arrieta).



- En cuanto haya noticia que ha llegado José Mari Garrastazu a casa del Grandegui, que se persone allí la G.C. y proceda:

1º A la detención del mismo Garrastazu trayendolo custodiado a Zarauz

2º A un minucioso registro de la casa, comprobando si en ella existen:

a) papeles en relación con el arresto de ambos individuos, cartas gestionando su libertad, armas o efectos delictivos, incautandose con todas las de la ley de todo ello

b) observar si hay depositos ocultos de efectos del Hotel que hicieron fueron arrebatados

**Garrastazuren atxiloketa.** (Renoko Unibertsitatea, Idoia Arrieta).



- Si se detiene al Garrastazu formarle un atestado en el que además de las generales de la ley, confiese:

- Si es cierto que el Domingo día 7 de los corrientes tomó el tren de las 2'20 de la tarde en dirección a Alsasua

- Si manifestó que iba a Burgos a trabajar contra la Autoridad del Sr. Comandante de Zarauz

- Si dijo que el Comandante o le robaban en dicho sector

- Si dijo que el Comandante protegía a los rojos

- Si dijo que en sus discursos nunca hablaba de España

**Garrastazuren atxiloketaren inguruko Zarauzko Komandantearen arrazoiak.** (Renoko Unibertsitatea, Idoia Arrieta).

Ignacia (senar errepublikazalea zuen eta Donostian bizi zen). Haien ama, Josefa Ignacia, alargunduta zegoen eta Getariako falangeko informearen arabera “En cuanto a su conducta particular es buena, aunque se sabe que en vida de su difunto marido estuvo separada en cierto tiempo”. Ez zen harritzekoa izango informean ezarritako datu horrengatik, inolaz ere delitu izan beharko ez zuen homosexualitatearen “errua” Jose Mariaren amari berari botatzea, moralari zegokionez frankistentzat gaizki ikusita zegoen emakumearen sumisioarekiko aldentzea praktikatu baitzuen.

Bazen beste arrazoirik Garrastazu atxilotzerako orduan. Zarauzko komandante beraren aurkako zenbait aldarri egin zituen eta baita, Cosme Iraundegi Zumaiako alkatea zergatik atxilotuta zegoen jakiteko zenbait elkarrizketa azken horrekin ere. Zarauzko Komandantea ezkertiarren alde lerratzeagatik akusatu omen zuen.

Deklarazioetan bortitzenetakoak, zenbait getariarrek egindakoak dira. Guztiak, Garrastazuk hasiera batean Bar Zabalagara gonbidatu eta haren ostean, berarekin harreman sexualak izatera gonbidatzen zituela adierazten dute. Aipamenik ankerrenak deklarazioen azkeneko lerroetan datorzkigu, zeinetan suposa genezakeen, Garrastazuri zenbait eraso gauzatu zizkiotela homosexuala izatearren:

*Tomas Rodriguez Alkorta 18 urteko getariarraren deklarazioaren zatitxoa “(…) Que hace unos años este individuo invitó en cierta ocasión a tomar cafe y cervezas en el Bar de Zabalaga a Saturnino Larrañaga y Felicisimo Larrañaga y depues a dar un paseo hasta el paseo denominado Itorri Chiqui con el fin de que le dieran por el culo. Los invitados estaban de acuerdo de antemano porque anteriormente les habia hecho las mismas proposiciones y esta vez aceptaron con el proposito de jugarle una trastada (…)”.

Hori ez zen Garrastazuk bizi izan zuen eraso homofobo bakarra izan. Arropa gabe utzi eta lapurretak ere egin zizkioten behin edo behin, esaterako Tomas Zubizarreta zein Bartolome Alkorta getariarrek.

*Luis Egibar Arreisego, 24 urteko gazte getariar ezkongabearen deklarazioa: “(…) Que a él le invito varias veces a tomar vermout en el Bar de Zabalaga y despues de dar un paseo por la carretera. Pero como sabia que la invitacion que le hacia era para que le diera por el culo, nunca aceptó sus invitaciones”. Aniceto Subimendi eta Nemesio Egibarri ere proposamen berdina egin omen zien. Deklarazio honetan eskolako umeen zain erlazio homosexualak izateko egoten zela ere akusatu zuen. Harreman homosexualak “vicio” gisan kalifikatu zituzten. Gaur egun, oraindik ere, Real Academia de la Lengua Españolak, horrela definitzen du ondoko hitza:

1. Hábito de hacer mal algo o de hacer una cosa perjudicial o que se considera reprobable desde el punto de vista moral.
2. Situación de libertinaje o entrega desenfrenada a los placeres sexuales.



TOMAS RODRIGUEZ ALCORTA de 18 años de edad, natural y vecino de esta villa; hace la siguiente declaración de lo que sabe respecto a la conducta moral observada por Jose Maria Garrastazu Arruti vecino de esta localidad.

Dice que se rumoreaba con insistencia por el pueblo que el Jose Maria Garrastazu, padecia del vicio propio de los afeminados. Que hace unos años este individuo invitó en cierta ocasión a tomar cafe y cervezas en el Bar de Zabalaga a Saturnino Larrañaga y Felicisimo Larrañaga y despues a dar un paseo hasta el paseo denominado Itorri Chiqui con el fin de que le dieran por el culo. Los invitados estaban de acuerdo de antemano porque anteriormente les habia hecho las mismas proposiciones y esta vez aceptaron con el proposito de jugarle una trastada. y así una vez que el Jose Mari se hubo preparado Saturnino le introdució una guindilla por el ano, y se marcharon viendo como se levantaba del suelo y fué a una fuente cercana a refrescarse. Todo esto dice el declarante se lo contó a él el mismo Saturnino Larrañaga.

En otra ocasión dice que segun le contó Tomas Zubizarreta el José Mari invitó a este y a otros individuos a tomar café y cervezas en el Bar de Zabalaga, con el fin de que después le dieran por el culo. Aceptaron y despues de llegar hasta las inmediaciones del molino y una vez que José Mari se tendió en el suelo con el culo al aire, los invitados se vinieron corriendo al pueblo dejandolo en tal posición.

Tambien dice saber que en algunas ocasiones, que el José Mari invitó a otros individuos con el mismo propósito, estos aceptaron y al despojarse de la ropa para poner el culo a la intemperie, mientras alguno lo entretenia los otros le robaban el reloj, trincheras dinero y otras cosas. Esto sabe se lo hicieron varias veces por así haberselo dicho el declarante Bartolomé Alcorta y otros.

**Tomas Rodriguez Alkortaren deklarazioa, Garrastazuren aurka.**
**(Renoko Unibertsitatea, Idoia Arrieta).**



LUIS EGUIBAR ARREISEGO de veintitres años de edad, estado soltero natural y vecino de Guetaria, hace la siguiente declaracion referente a la conducta moral observada por JOSE MARIA GARRASTAZU, vecino de esta localidad.

Dice que conoce a JOSE MARIA GARRASTAZU ARRUTI y que sabe que este individuo padece el vicio propio de los afeminados. Que a él le invito varias veces a tomar vermout en el Bar de Zabalaga y despues de dar un paseo por la carretera, pero como sabia que la invitacion que le hacia era para que le diera por el culo, nunca aceptó sus invitaciones.

Dice que hace un año aproximadamente, hizo la misma proposicion a Aniceto Subimendi y Nemesio Eguibar, y que estos tomaron vermout y despues no quisieron ir con él donde les decia (Nemesio Eguibar se encuentra prestando el servicio Militar en Leon en el Regimiento de Bailen).

Manifiesta tambien que el Jose Mari, aprovechando la salida de los niños de la escuela por la tarde, les ofrecia perras para que le acompañasen al camino de Iturrichiqui; y dice el declarante que vio algunas veces a los chicos que regresaban de estos paseos muy encarnados y algo avergonzados, y que a pesar de preguntarles a los niños de donde venian, no querian decirlo, se comprende que por que les daba verguenza.

Dice que viniendo de Zumaya al anochecer de trabajar, al llegar a la plaza del mercado de esta, les decian otros del pueblo que un tal Casimiro se habia marchado por la carretera de Zumaya con el Jose Mari Garrastazu; y otras veces iba el hermano de Casimiro o un tal Andres. Que en una de las ocasiones que Casimiro fue con el Jose Mari, un hombre que venia de Zumaya vio a este abrazado a Casimiro; y que dicho hombre al llegar a esta dijo que habia visto dos hombres abrazados, figurandose que estarian dandose por el culo. Por que sabia el vicio que ya tenia el Jose Mari Garrastazu, cuya fama de maricon, estaba muy propagada por estos pueblos.

Leido que le fue esta su declaracion la encuentra conforme y la firma en

**Luis Egibar Arreiseigoren deklarazioa, Garrastazuren aurka.**
**(Renoko Unibertsitatea, Idoia Arrieta).**

Batik bat, lehenengoa definizioa hartu behar dugu kontutan. Bizioa, zerbait txarra bezala ikusita baitago eta homosexualitatea ere, garai hartan, ikus genezakenez, bortizki zapaldua izan zen. Onartutako harreman sentimental bakarra, eliza katolikoak estatu frankistaren onespenarekin derrigortzen zuen emakumezko eta gizonezkoen artekoak ziren. Behin ere ez, sexu berekoen arteko harreman sentimentalak, ez eta emakumezkoen kasuan ere. Ezin aipatu gabe utzi, Francisco Franco diktadore ankerrak itxitako azken kontzentrazio esparrua, Tefian (Fuerteventura) ezarritako homosexualen aurkakoa izan zela. 1954an erreformatutako 1933ko "Ley de Vagos y Maleantes" oinarri hartuta ireki zuten. Lege errepublikarrari, frankistek "homosexualitatea" ere kondena zezakeen artikulua erreformatu zioten. Ezin uka beraz, frankismoak gogor egin zuela homosexualitatearen aurka, ordena tradizionala eta bere benefizioak mantentzearren.

**LEY DE 15 DE JULIO DE 1954 por la que se modifican los artículos 2.º y 6.º de la Ley de Vagos y Maleantes, de 4 de agosto de 1933.**

La producción de hechos que ofenden la sana moral de nuestro país por el agravio que causan al tradicional acervo de buenas costumbres, fielmente mantenido en la sociedad española, justifican la adopción de medidas para evitar su difusión.

Las establecidas por la presente Ley, mediante la que se modifican los artículos segundo y sexto de la de Vagos y Maleantes, de cuatro de agosto de mil novecientos treinta y tres, no son propiamente penas, sino medidas de seguridad, impuestas con finalidad doblemente preventiva, con propósito de garantía colectiva y con la aspiración de corregir a sujetos caídos al más bajo nivel moral. No trata esta Ley de castigar, sino de proteger y reformar.

También aspira la misma Ley a proteger la paz social y la tranquilidad pública contra las actividades, no constitutivas de delito o cuya delincuencia consta, pero no puede ser inmediatamente probada, de sujetos que, por su habilidad, escapan a través de las mallas de la Ley o eluden su aplicación, por cuya causa constituyen un serio peligro para una ordenada vida de la colectividad.

En su virtud, y de conformidad con la propuesta elaborada por las Cortes españolas,

DISPONGO:

Artículo primero.—Los números segundo y undécimo del artículo segundo y el número segundo del artículo sexto de la Ley de Vagos y Maleantes, de cuatro de agosto de mil novecientos treinta y tres, quedan redactados en la siguiente forma:

«*Artículo segundo.*—Número segundo.—Los homosexuales, rufianes y proxenetas.»

«*Artículo segundo.*—Número undécimo.—Podrán asimismo ser declarados peligrosos como antisociales los que, en sus actividades y propagandas, reiteradamente inciten a la ejecución de delitos de terrorismo o de atraco y los que públicamente hagan la apología de dichos delitos.

También podrán ser objeto de igual declaración los que, de cualquier manera, perturben con su conducta o pusieren en peligro la paz social o la tranquilidad pública.»

«*Artículo sexto.*—Número segundo.—A los homosexuales, rufianes y proxenetas, a los mendigos profesionales y a los que vivan de la mendicidad ajena, exploten menores de edad, enfermos mentales o lisiados, se les aplicarán, para que las cumplan todas sucesivamente, las medidas siguientes:

a) Internado en un establecimiento de trabajo o Colonia Agrícola. Los homosexuales sometidos a esta medida de seguridad deberán ser internados en Instituciones especiales y, en todo caso, con absoluta separación de los demás.

b) Prohibición de residir en determinado lugar o territorio y obligación de declarar su domicilio.

c) Sumisión a la vigilancia de los Delegados.»

Artículo segundo.—Quedan derogadas cuantas disposiciones se opongan a las establecidas en la presente Ley y autorizado el Ministro de Justicia para dictar las medidas necesarias para su ejecución y cumplimiento, dejando subsistentes las facultades gubernativas que en materia de orden público, moralidad y disciplina social tiene actualmente atribuidas el Ministerio de la Gobernación.

Dada en el Palacio de El Pardo a quince de julio de mil novecientos cincuenta y cuatro.

FRANCISCO FRANCO

**Ley de vagos y maleantes, erreforma frankista 1954ko uztailaren 17an.** (BOE).

## ESPULTSATU ETA ERBESTERA JOATERA DERRIGORTUTAKO EMAKUME GETARIARRAK

Euria eta zeru ertza ilun, halaxe esnatu ziren getariarrak 1937ko otsailaren 13ko egunez. Itsasoak ere zeresana bazuen, kostaldean olatuek arrokak kolpatzean eragindako soinuak, moilaraino iristen ziren. Gerrara joan gabe geratutako arrantzale gutxien barkuak, moilan lotuta zeuden, ez geldirik ordea, beti ere, bilintzi-balantza. Moilan ez zegoen inor, arrantzarako saretzen zeuden emakumerik ere ez zen ageri. Burrunba itsasoarena zen, eta ez, arrain saltzaile edo itsasontzietan arrain freskoa ekarri berri zuten arrantzaleen ohiko oihuena. Itsasoa haserre zegoen, agian, egun hartan Getariako agintari frankistek hartutako erabakiarekin zerikusirik izango zuen.

Egun ilun hartan, Getariako udaletxeko alkate Ramon Manterola Egurbide eta haren zinegotziek, Bigarren Errepublikan zehar filiazio politiko euskal nazionalista zein errepublikazalea izan zuten zein beren senarrak errepublikazaleekin borrokatzera joanak ziren emakumeak beren etxeetatik kanporatu zituzten. Hori gutxi ez eta, herria uztera derrigortu zituzten.


EL TIEMPO

(Datos facilitados por el Observatorio de Igueldo en la tarde de ayer)

Temperaturas máxima y mínima

Observación a 7 horas: Presión a 0º y 238,4 ms. 761,9 mms. Temperatura del aire, 9,6º C. Viento, N. E. Velocidad, 8,5 m/s. Mar, cubierto por niebla.

En 24 horas: Temperaturas. Máxima, 10,5º C; mínima, 8,9º C y media, 9,7º C. Recorrido del viento, 326 kms.

Temperaturas del día: máxima, 10,4º C; mínima, 8,9º C y media, 9,6º C.

Situación atmosférica: Se ha formado una profunda depresión al W. de Islandia que se desplaza hacia el E. o S. E. La depresión del Golfo de Génova llega a través de la Europa Central hasta Dinamarca y norte de Alemania donde se une con las bajas del Atlántico. En el mar del Norte e Islas Británicas el gradiente de la presión es muy pequeño. Ambas depresiones se hallan contrarrestadas por el anticiclón de la península Ibérica que llega hasta las Azores y por el que se avecina por Escandinavia.

Tiempo probable, durante la tarde de hoy y la mañana del 13, en Guipúzcoa: Vientos del sector Norte, brumas y nieblas con lloviznas.

**Eguraldiaren iragarpena Diario Vascon, 1937ko otsailaren 13a.** (El Diario Vasco).

## Getariako udal-gobernu frankista 1937ko otsailaren 13an

**ALKATEA**
Ramon Manterola Egurbide

**Lehen alkateordea:**
Eugenio Egurbide Azpeitia

**Bigarren alkateordea:**
Domingo Etxaniz Itxaso

**Zinegotziak:**
-Ignacio Ucin
-Francisco Azpeitia
-Juan Jose Azpeitia
-Luis Aramburu

Frankistek ez zieten inongo aukerarik eman emakume haiei guztiei etxean geratu nahi zuten ala ez erabakitzeko. Getariatik irteteko erabakia ez zen emakumeena izan, agintari frankistek, emakumeen hitza kontutan hartu gabe, herritik bidaltzeko erabakia hartu zuten. Mendekuz egindako ekintza izan zen, izan ere, 1936ko urte bukaeratik, gerran zehar sarraskitze handiagoa ekidin nahian, Eusko Jaurlaritza kolpistekin presoen trukea egiteko negoziatzen ari zen, Nazioarteko Gurutze Gorriaren bitartekaritzarekin. Negoziazioak ordea, 1937ko urtarrilean guztiz eten egin ziren, ez zuten inolako akordiorik lortu. Hala, kolpistek, 1937ko urtarrilaren amaieran, Gipuzkoako Komandantzia Militarrari lurraldeko herrietan aplikatzeko neurri zorrotza agindu zuen:

“Comandancia Militar

Del

Distrito de ………………..

Residencia del Comandante Militar:

Con el fin de cumplimentar las órdenes recibidas de la Comandancia Superior, tenga la bondad de presentar a la mayor brevedad posible, una relación detallada de todas las familias que tengan algún miembro de su familia en el campo enemigo y que residan en esa localidad, clasificándolos de la manera siguiente:

a) Las que tengan al jefe de familia;

b) Las que tengan hermanos;

c) Las que tengan algún otro pariente.

Dentro de esta clasificación, se indicará:

1) Los que se marcharon voluntariamente;

2) Los que se sabe que están en el frente de combate;

3) Los que se marcharon contra su voluntad.

A todas las familias que se encuentran comprendidas en esta clasificación, se les pedirá que se pongan en contacto con los que huyeron para que éstos vuelvan a sus casas, haciéndoles saber que serán absueltos, si se presentan con las armas.

Se concede un plazo de ocho días para este aviso; y se les advertirá que pasado este plazo, sin respuesta satisfactoria, se procederá a la expulsión de sus familias, fuera de nuestra zona.

Se informará a la Comandancia, sin demora, de todo lo que se haga en este sentido”[623].

**ZERRENDA HONETAN AIPATUTAKO EZAUGARRIAK BETETAKO ORO,**
**GETARIATIK ESPULTSATUKO ZUTEN 1937KO OTSAILAREN 13AN**

- Frankisten aurkako kidetasun ideologikoa publikoki agertutakoak
- Errepublikazaleen lurraldean senide gudari edo errefuxiaturik zutenak
- Ideologia abertzalea[624] zutenak
- Bigarren Errepublikaren gobernuan babesten zutenak

Getariara, Zarauzko Komandantzia Militarrarengandik, iritsi zen agindua. Aginduari men eginez, garaiko udal-agintari frankistek, komandantzia militarrak kanporatzeko autorizatutako emakumeen zerrendak egin zituzten, beste zenbait herrietan gisan[625]:

“Comandancia Militar de Azpeitia y Azcoitia

Sírvase Usted remitir a esta Comandancia Militar y en un plazo de 48 horas, una relación detallada de cuantas familias residan en la localidad de su jurisdicción, tienen familiares en el campo enemigo, clasificándoilos en las categorías siguientes:

…………………………………………………………………………………………………………………………………………
……………………………………………………………………………………………………………………………………...

Azpeitia, 8 de Enero de 1937.

El Comandante Militar

Emilio Gómez del Villar

Señor Alcalde de la Villa de Azcoitia”[626].

**“A:** aguazila etorri zan bere txapel gorrixakin. Aitak ihes ein tzulako baita gu re, bialdu! A la calle!(…) Ama nua ta, guk amai segi bihar. Ama bihar genun da!”[627].

---

623 ARANBARRI ETXANIZ, S. 1989. *Anai arteko borroka Azkoitian, 1936-1939*. S. Aranbarri: Donostia. 193-194.orr.

624 Liburuan zehar “abertzale” hitza agertzen den aldiro, euskal nazionalistei buruz ari gara.

625 Azkoitiako kasuan ere halaxe gertatu zen “Gure errian, agindu zorrotz orren egille edo betetzaille, Azpeitia-ko eta Azkoitia-ko ‘komandante militar’ zan Soltxagatar Santiago kapitaina izan zan. Eta, erriko emakume zigorkatuen zerrenda egin eta aurkeztu ziotena… erriko agintariek”(Aranbarri, op.cit., 209).

626 ARANBARRI ETXANIZ, S., op.cit, 309.or.

627 Testigantza: Anita Uzin Albizu “Ama, nora goaz?” dokumentaletik.



CONSEJERIA DE ASISTENCIA SOCIAL

CONTROL DE REFUGIADOS EN LA PROVINCIA

Refugio de

Apellidos Nombre

Edad Padres

Punto de residencia Procedencia

de 1937.

OTRAS INDICACIONES

**Jose Angel Kerejeta Urrestiren errefuxiatu txartela.** (CDMH).

Taulan errepara genezakeenez, garaiko agintari-frankistek, Getariatik, 17 emakume getariar eta ia 30 ume inguru bota zituzten. Negu beteko euritea eta hotza jasateko babesgunea izatetik, getariar emakume zein haurrek, kale gorriko hotza eta ezinegona jasatera pasa behar izan zuten. Emakumeengan atsekabea zen nagusi eta haien haurrek ere, halakorik antzeman zuten. Txikiak izanik ere, amaren atsekabe aurpegia ikusi eta zenbait negar zotinka ere hasi zen. Haien amentzat ulergaitza zena, oraindik eta ulergaitzagoa bihurtu zen testuinguruaz guztiz ohartzen ez ziren haur haientzat guztientzat:

**“A, J eta A:** (…) ta amona Hipolitaire aitu izandu nion, hemendikan, zortzi emakume bialdu zitun ditxosozko alkate on horrek oiñez Zumaira, noa zijuazten… da amona Hipolitak esaten zuan, noa zijuazten etzekiala”[628].

Bidea oinez ekin ostean, lehen geldialdia Zumaian egin zuten; batzuek, beren haurrik txiki edo ahulenak Getarian geratutako familiarrekin uzteko erabakia hartu zuten. Bazen beren haurrak besoetan eraman behar izan zituenik ere, Hipolita Urresti Andonegi kasu:

**“A, J eta A:** entre los niños, los más pequeños eran Batista y Jose Angel. Los hijos de Hipolita eran gemelos y no sabían ni andar. A Batista le llevó Severi (Anitan ama) y a Jose Angel su madre, con las cuatro ropas que tenían envueltas en una sábana”[629].

Zumaian ere, agintari frankistek beste horrenbeste emakume kanporatu zituztela ohartu ziren. Gipuzkoako Komandantzia Militarrarengatik zetorren agindua, lurralde osotik, 1000 emakume eta haur inguru kanporatu zituzten:



LA BARBARIE DE LOS FASCISTAS

iguen arrojando de sus hogares a centenares de guipuzcoanos que, atravesando as líneas de fuego, llegan a Bilbao

Una nota de la Presidencia del Gobierno vasco

Ante la inhumana conducta de los elementos facciosos, expulsando día tras día familias vascas de las casas y tierras de mayores de Guipúzcoa, obligándoles a cruzar la línea de fuego en medio de ...dentes peligros para llegar a nuestro te...rio, el Gobierno Vasco, que los acoge ...rnalmente, no permanece ni permane...á ocioso.

Han sido obligadas estas familias a de... por la fuerza sus casas y sus instru...ntos de trabajo, marchando por la ca...era hacia nuestras líneas sin otro pa...monio que su honrado proceder y un ...queño hato de ropas. El Gobierno ha de ...ptar medidas enérgicas y ejemplares, ...al expresar su complacencia por la fra...rnal acogida que nuestro pueblo ha dis...sado a los expulsados, le exhorta a que ...tinúe extremando sus atenciones y cui...dos con estas víctimas de la barbarie ...sista, principalmente con las personas ...anas y los niños.

La humanidad ha de ver nuestro espí...u generoso y nuestro pueblo ha de con... en que se hará plena y rápidamente ...cia. Nadie más que el Gobierno pue... y debe hacerlo.

Relación de personas expulsadas del ...mo faccioso en el día de ayer:

GUETARIA

Maximina Azpeitia, de 30 años, con una hija; María Azcue, 28, con una hija; Severiana Albizu, 38; Josefa Oyarzábal, 30; Remigia Idiáquez, 32; Ignacia Zubimendi, 35, con una hija; Nieves Elizaguirre, 27, con una hija; Mercedes Idiáquez, 31, con una hija; Justina Sustaeta, 30, con una hija; María Aranguren, 23; Angela Iribas, 31, con un hijo; Feliciana Basurto Oñaederra, 30, con una hija; Hipólita Urresti, 31, con dos hijos; Ana Mendizábal Galdós, 29 años.

**Euzkadi Roja, Getaria eta beste zenbait herrietako emakumeen kanporaketa.** (Euzkadi Roja, 1937ko otsailaren 14a).

628 Testigantza: Antonia Burgaña Martija, Jose Angel Kerejeta Urresti eta Andoni Arregi Oiarzabal.

629 Testigantza: Antonia Burgaña Martija, Jose Angel Kerejeta Urresti eta Andoni Arregi Oiarzabal.

"Ante la inhumana conducta de los elementos facciosos, expulsando día tras día a familias vascas de las casas y tierras de sus mayores de Guipúzcoa, obligándoles a atravesar la línea de fuego en medio de evidentes peligros para llegar a nuestro territorio, el Gobierno Vasco, que los acoge fraternalmente, no permanece ni permanecerá ocioso.

Han sido obligadas estas familias a dejar por la fuerza sus casas y sus instrumentos de trabajo, marchando por la carretera hacia nuestras líneas sin otro patrimonio que su honrado proceder y un pequeño hato de ropas (…)"[630].

Ikusi dugunez, Getaria ez zen emakume eta haur abertzale zein errepublikazaleen kanporatzea jasan zuen herri bakarra izan. Beste behin ere, ongi egituratutako estatu aparailu frankistaren mekanismo sistematizatuek beren egitekoa bete zuten. Tropa frankistek Getaria hartu ostean, Euskal Herriko gainontzeko herrietan gisan, helburu zehatz bat izan zuten: beren ideologiaren inposizioa.

Hori lortzeko, pausorik errazena, haien aurkako ideologiako inor ez edukitzea izan zen. Hartaz, haien aurkako ideologiakoak zirenak urrun mantentzeko hautua egin zuten. Horren ondorioak izan ziren, erailketak, emakume zein gizonezkoen gorputzen diziplinamendua (bortxa, ile-soiltze, tortura, kartzela…) eta kasu honetan dagokigun, espultsio eta derrigortutako erbestea ere. Hala eta guztiz ere, tropa frankistak, beraiek ezaugarritutako biolentzia estaltzen saiatu ziren, esanez, agindu hura, gerrara joandako senide abertzale zein errepublikazaleekin batzeko baimena ematean zetzala.

Egiak bestelako aurpegia zuen. Mendeku gosez hartutako erabakia izan zen. Frankistek, beren emakume eta haurrak beti ere atzeraguardian kokatu zituzten. Hauek, geroago, frankismoan zehar emakume berria osatuko zuten emakumeen multzoa osatu zuten.

Aurreko lerroetan azaldu dugunez ordea, tropa frankistek, emakume abertzale zein errepublikazaleen multzoa oso bestelakotzat zuten. Emakume hauek guztiak ez zituzten emakume frankista berriaren inongo ezaugarriak betetzen. Getariatik bota zituzten emakumeen gehiengoa, haien senar abertzale zein errepublikazaleak kolpisten aurka herriak demokratikoki aukeratutako Bigarren Errepublikako gobernua defendatzen ari zirenak ziren. Frankistek, kanporatze hauetan, emakume berri frankistaren ezaugarrietako bat argiki definituta utzi zuten: emakumearen subjektu politikotasun eza eta gizonezkoaren menpeko objektu gisan definitzea. Emakume Abertzale Batzako Getariako militanteek beren ekintza politikoengatik[631], ile-soiltzeak eta kartzela jasan bazituzten ere, Getarian errepresioa jasan zuten emakumeen gehiengoa, gizonezko euskal nazionalista zein errepublikazaleen emazteak izateagatik jasan zuten.

Esan dugunez, emakume haien hitza kontutan hartu gabe betetako agindu zorrotza izan zen. Egun batetik bestera, etxeko goxotasunetik kale gorriko gordintasunera pasatu ziren, beren seme-alabekin. Bidea ez zen nolanahikoa izan, bakerik gabeko garaia zen, gerra garaia.

Mendi inguru eta errepideen ertzetatik tiroak jasotzeko aukera zenbakaitza zen. Getariatik kanporatutako emakume haiek guztiek, elkarren arteko laguntza eta indarrez tinko eutsi zioten bide zalapartatsuari. Mendi inguruak eta kaleak inoiz baino arriskutsuagoak ziren. Alde batetik, inongo gupidarik erakusten ez zuten kolpisten tirokatzeak eta errepresaliak; bestetik, haiei kontra egiten ahalegintzen ziren gudari zein miliziano euskal nazionalista eta errepublikazaleen erantzunak. Emakume haiek guztiek, Bizkaia alderako bidean hainbat peripezia eta arrisku bizi behar izan zituzten, Leikeitiora iritsi bitartean, Gipuzkoako herriak jada tropa frankisten eskuetan baitzeuden.

*GERRA ZIBILEAN ZEHAR ETA DIKTADURA FRANKISTAN ZEHAR ERREPRESIOA JASAN ZUTEN GETARIAR EMAKUMEAK

| IZEN-ABIZENAK | OHARRAK |
|---|---|
| **AGOTE KAMIO, DONATA** | Bere alaba Guadalupe Manterola Agote, Getariako udaletxe-frankistak espultsatua. Indar-errepublikarren aldeko familiako kide izateagatik frankistek bigilatua |
| **ALBERDI ARANBURU, ANTONIA** | Errefuxiatua |
| **ALBERDI ARANBURU, MANUELA** | Errefuxiatua |
| **ALBERDI LAZKANO, BEATRIZ** | Indar-errepublikarren aldeko familiako kide izateagatik frankistek bigilatua |
| **ALBIZU AGINAGALDE, SEVERIANA** | Udaletxe-frankistak bere senarraren ideologia politikoagatik Getariatik espultsatutako emakumea |
| **ALKORTA ALKORTA, KARMEN** | Emakume Abertzale Batzako militantea izateagatik, tropa frankistek errepresio sexuatua gauzatutakoa: ile-soiltzea. Preso politikoa, hilabete Ondarretako kartzelan |
| **ALKORTA ALKORTA, KLAUDIA** | Tropa frankistak Getarian sartutako unean bere ahizparen Zumaiako etxean ezkutatuta. Getariara itzultzean, errepresioa jasan |
| **ALZAGA BASARTE, MARTA** | Udaletxe-frankistak bere senarraren ideologia politikoagatik Getariatik espultsatutako emakumea |

[630] Euzkadi Roja, 1937ko otsailaren 14ko argitalpena.

[631] Gehiengoaren kasuan, espazio publikoaren hartzea, nahiz eta lan banaketa sexual tradizionala babestu zuten.

| IZEN-ABIZENAK | OHARRAK |
|---|---|
| **ARBILLAGA LETURIONDO, JOSEFA** | Gipuzkoako Ondasunak Konfiskatzeko Batzordeak Getariako Galindoko lursaila konfiskatu, erregimenaren aurkako ideologiakotzat kalifikatzeagatik |
| **AZKUE LARRAÑAGA, ENCARNACIÓN** | Euskal Nazionalisten bozkatzaile izateagatik udaletxe frankistak bigilatua |
| **AZKUE UZIN, DIGNA** | Testiguen arabera, ilea soiltzera zihoazela, krisi epilektikoa eman zion eta ez zioten ilea soildu |
| **AZKUE UZIN, MARIA** | Bere anaiak erregimen frankistaren aurkakoak izateagatik, Getariatik espultsatu zuten |
| **AZPEITIA IBARBIA, MAXIMINA** | Bere anaia eta senarra erregimen frankistaren aurkakoak izateagatik, Getariatik espultsatu zuten |
| **BASURTO OÑEDERRA, FELICIANA** | Udaletxe-frankistak bere senarraren ideologia politikoagatik Getariatik espultsatutako emakumea |
| **BERASALUZE EGAÑA, PILAR** | Errefuxiatua |
| **BURGAÑA ETXEBARRIA, MARIA** | Errepublikazalea. Ipar Euskal Herrian errefuxiatuta egon ostean, Getariara itzultzeko kondizioa, beraien etxeko balkoian bandera frankista ezartzea. Itzuli zirenean, beren etxea hutsik zegoen; frankistek beren ondasunak errekisatu zizkien |
| **BURGAÑA ETXEBARRIA, SALVADORA** | Bere anaia eta senarra erregimen frankistaren aurkakoak izateagatik, Getariatik espultsatu zuten |
| **CHARRO MARTINEZ, DOLORES** | Erregimen frankistaren aurkakoa izateagatik, bere irakasle postutik kargugabetua |
| **CORREA BEITIA, JOAQUINA** | Bere semea erregimen frankistaren aurkakoa izateagatik frankistek bigilatua |
| **EGAÑA ARRIZABALAGA (edo AGIRREZABAL), BERNARDA** | Espetxealdi arindua |
| **EIZAGIRRE, NIEVES** | Bere alaba Miren Edurne Zenosiain Eizagirrerekin Getariatik espultsatutako emakumea |
| **ERRAZKIN AIZPURUA, MARIA FRANCISCA** | Emakume Abertzale Batzako militante Bigarren Errepublikan |
| **ERRAZKIN AIZPURUA, MARIA LUISA** | Emakume Abertzale Batzako militante Bigarren Errepublikan |
| **GARMENDIA LAZKANO, AGUSTINA** | Indar-errepublikarren aldeko familiako kide izateagatik frankistek bigilatua |
| **IDIAKEZ INDO, MARIA** | Errefuxiatua |
| **IDIAKEZ INDO, MERCEDES** | Bere anaiak eta senarra erregimen frankistaren aurkakoak izateagatik, Getariatik espultsatu zuten |
| **IDIAKEZ INDO, "REMI"** | Bere anaiak eta senarra erregimen frankistaren aurkakoak izateagatik, Getariatik espultsatu zuten |
| **IRIBAR AREIZAGA, ANGELA** | Udaletxe-frankistak bere senarraren ideologia politikoagatik Getariatik espultsatutako emakumea |
| **KONSTANTINA** | Bere semeari bandera frankista jertsean ez ezartzeagatik atxilotu egin zuten |
| **MANTEROLA AGOTE, GUADALUPE** | Udaletxe-frankistak bere senarraren ideologia politikoagatik Getariatik espultsatutako emakumea |
| **MENDIZABAL GALDOS, ANA** | Udaletxe-frankistak bere senarraren ideologia politikoagatik Getariatik espultsatutako emakumea |
| **OIARZABAL AGIRRE, JOSEFA** | Udaletxe-frankistak bere senarraren ideologia politikoagatik Getariatik espultsatutako emakumea |
| **SASIAIN GARMENDIA, KARMEN** | Erregimen frankistaren aurkakoa izateagatik, bere irakasle postutik kargugabetua |
| **SUSTAETA AZKARRAGA, JUSTINA** | Udaletxe-frankistak bere senarraren ideologia politikoagatik Getariatik espultsatutako emakumea |
| **URANGA OLASKOAGA, FAUSTINA** | - |
| **URANGA OLASKOAGA, KARMEN** | - |
| **URANGA OLASKOAGA, ROSARIO** | Getariako Emakume Abertzale Batzako presidentea izateagatik, tropa frankistek errepresio sexuatua gauzatutakoa: ile-soiltzea |
| **URRESTI ANDONEGI, HIPOLITA** | Bere anaiak eta senarra erregimen frankistaren aurkakoak izateagatik, Getariatik espultsatu zuten |
| **VILLAVERDE PURAS, ANA** | Bigarren Errepublikan zehar irakasle nazionala izan zen |
| **ZELAIA AZPILLAGA, TERESA** | Gerran zehar, Ordiziatik Getariara bere amaren babes bila joandakoa |
| **ZUBIMENDI EIZAGIRRE, IGNACIA** | Errefuxiatua |
| **ZUBIMENDI LARRAÑAGA, IGNACIA** | Udaletxe-frankistak Getariatik espultsatutako emakumea |


Severiana Albizu Aginagalde


Klaudia Alkorta Alkorta


Marta Alzaga Basarte


Feliciana Basurto Oñederra


Maria Burgaña Etxebarria


Salvadora Burgaña Etxebarria


Mercedes Idiakez Indo


Remi Idiakez Indo


Angela Iribar Areizaga


Rufina Lazkano Basurto


Ana Mendizabal Galdos


Josefa Oiarzabal Agirre


Justina Sustaeta Azkarraga


Hipolita Urresti Andonegi


Karmen Uranga Olaskoaga

## ERBESTERA BIDEAN: "AMA NUA TA, GUK AMAI SEGI BIHAR. AMA BIHAR GENUN DA!"[632]

Behin Bizkaiara iritsita, harrera ezin hobea izan zuten getariar emakume eta haurrek. Gehientsuenak, hasiera batean behintzat, Lekeitio aldera egin zuten. Bide mardula egin zuten. Beste zenbait zumaiarrek egin gisan, bide hau hartutako getariarrek ere, autobus eta kamioiez, Debara lehenik eta handik mendiz Ondarrura egin zutela pentsatzen dugu. Ondarrutik Lekeitiorako bidea, fronteko gunea zen. Gerraren eraginez, guztiz txikituta zegoen, izugarrizko zuloak zeuden eta oinez egin behar izan zuten. Arriskuaren jabe izanik, gudari eta milizianoek frankistekin "alto al fuego" akordatu eta Getariatik eta beste zenbait herrietatik zetozen emakume eta haur kanporatuei lagundu egin zieten. Gudari haietako batzuk, irailaren 20ko Getariako ebakuazioan irtendakoak ziren, Trintxerpe ontzian Lekeitiora egin zutenak.



**Gudariak emakume eta haur kanporatuei laguntzen. Lekeitioko frontea.**.



**Gudariak emakume eta haur kanporatuei bide hautsietatik pasatzen laguntzen.**.

Lekeition, zumaiarrekin batera, harrera ederra egin zieten getariar haur eta emakumeei ere. Bideko gosea eta urduritasuna, kamamila infusio eta atuna ozpin-oliotan edanez eta janez asebete zuten. Gerrak komunikazioak eten zituen eta hornidura handirik ez bazen ere, leikeitiarrak, errefuxiatuen egoeraz jabetuta, beraiek zuten janari apurra elkarbanatu zieten.

Tropa frankistak, egunez egun, alemaniar zein italiarren laguntzarekin, geroz eta herri gehiago menpean hartzen joan ziren. Emakume, haur, gudari zein zaharrek, izu izugarria zien tropa frankistei, aldian-aldian menpean hartutako herri ezberdinetan egindako ankerkerien berri izaten baitzuten: bortxaketak, ile-soiltzeak, fusilamenduak… lehen aipatu gisan, sistematikoki burutzen zituzten.

Lekeitiotik ere, geroz eta gertuago zeuden, eta errefuxiatutako emakume, zahar eta haur gehienek ez zuten beren burua nola defendatu, ez zuten armarik. Hala, Eusko Jaurlaritzaren aginduz, ordura arte Euskal Herriko gainontzeko herrietan egin gisan, tropa frankistak errefuxiatuen babes-herrietara gerturatzen zihoazen heinean, ebakuatzeko agindua eman zuen. Laster, kanporatu osteko hasierako egunetan Lekeition babestu ostean, Gernika eta Foruarako bidea hartu zuten:

**"E: zer ziñeten denak getariarrak edo? I:** ez, gehixo, gehixo, getariarrak baiño gehixo. **E: Gipuzkoatik denak? I:** bai, nik hala usten det. **E: zuk zenbat urte zenitun? I:** ai… hamar. **E: orduan ume bat… I:** bai. Ta tristura asko pasa nuan"[633].

Ez zen bidaia erraza izan Isabel Egurbide Oiarzabalentzat. Elkarrizketatu genuen unean bertan ere, atsekabez gogoratzen zituen une anker haiek. Gerra garaian eta kanporatuak izandakoan izan zirenean, 11 urte inguru zituen eta sufrikario zein ankerkeria haien guztien lekuko izan zen. Gerran zehar pasa zutena ez errekonozitu izanak, hau da, herritik arrazoirik gabe bota zituztela eta beraz, errudunak ez zirela inork errekonozitu ez ziotenez, beldurra eta sufrikarioa oraindik barnean gordetzen zuen. Isabel Egurbideren gisan, Getariako eta Euskal Herriko herri ezberdinetako errepublikazale zein euskal nazionalistek gaur egun oraindik bizi duten egoera da honakoa. Familian, belaunal-




**Italiar faxistak, espainiar frankistak eta alemaniar naziak bat eginik.**

632 Testigantza: Anita Uzin Albizu.

633 Testigantza: Isabel Egurbide Oiarzabal.

diz belaunaldi orban hauek oinordetzen joan baitira. Horien artean daude, esaterako, zenbaitetan familia askotan adierazitako politikan ez sartzeko nahiak, egunerokotasunean ahalik eta pertsona neutralena izateko eskakizunak, kameren aurrean eduki politikoak azaltzeko ezintasuna… Gerra eta diktadura frankista bera oso gogorrak izan ziren, kontrol aparatu sistematikoa gauzatu zuten eta errepublikazale zein euskal nazionalistek beti kontrolatuta izan zituzten:

“**K:** hemen eote zian Guardia Zibill berrixak danai lehendabiziko gue etxia erakusten ziobel. Hor tzeon kuartela beti, beti gu umiak giñanian, karabineruak zian orduan, karabinerua gero gue ama oso ondo konpontzen tzan, arraixa erosten tzien ta ematen tzion ta oso ondo karabiñeruakin. Goardia Zibillakin ez. Eta Goardia Zibillak eo berriyak etortzen zienak, geuk ikusten nola lehendabiziko gue etxia fitxatzen tzuen”[634].

Hark, Giza Eskubideen oinarrizko askatasun politikoen adierazpena guztiz mugatzera eraman zituen. Politika herriko plazan lau haizetara egitetik, etxeko sukaldean eta leihoak ongi itxita eta badaezpada tonu baxuan egitera pasa ziren. Zenbait etxetan, politikaz hitz egitea ere debekatu egin zen. Beldurra gorputzen jabe egin zen. Horrek errepresaliatutako zenbait familien memoria eten eta memoria kolektiboaren zati osaezina eragin digu. Diktadura frankista amaitu eta errekonozimendu publiko estatal ezak, pertsona horiek guztiak erreparaziorik gabe geratzea eta beraz, bigarren aldiz isiltzea eragin zuen.

Gerra eta gerraosteko kalteak azaltzeko egindako paradatxoaren ostean, hel diezaiogun berriz, Getariatik kanporatutako emakume eta haur haien guztien bidaia amaigabea azaltzeari. Azaldu dugunez, Isabel Egurbide Oiarzabal, haren familiarekin Foruan aurkitzen zen. Bertan, Eusko Jaurlaritzak esleitutako frantziskotarren komentuan zenbait getariarrekin batera egon zen: bere ama Josefa Oiarzabal Agirre eta bere anaia Andoni Arregi Oiarzabalekin; “Remi” Idiakez Indo izeba: bere Arantza eta Kontxita Oiarzabal Idiakez alabekin. Senide guztiek batera egotea lortu zuten[635].

“**E: eta gizonak? I:** gizonak eztakit nun ibiliko zian. **E: gerran ez? edo gartzelan… I:** gerran bai, gerran. Zergatikan han Gernikan tzeden planta batzuek beheian eta han zeak eon tzian, gudariak. **E: bertan Eusko Gudarostea zeon, ezta? I:** bai. **E: ikusi zenitun? Gudariak ikusi zenitun? I:** bai **E: eta zer ziren? Gazte asko zegon hor? I:** bai, bazeon gaztia. Eta nik orduan enion halako inportantzik ematen, ta geu ai giñan pasatzen gaixki ta (…)”[636].

Isabel Egurbidek argitu zigunez, beraiek errefuxiatutako Foruako komentuaren azpian bertan, gudariek beren kuartela zuten. Frontetik oso gertu zeuden eta noiznahi etortzen ziren gudariak komentura. Halako une batean, Isabel Egurbideren aitaordea eta Andoni Arregiren aita Jose Leandro Arregi Leizaola haren iloba Albertorekin batera frantziskotarren komentura hurbildu ziren:

“**A:** Kuestiyoa zan ba eun hartan, aitak bazekiyen gu Gernikan geundela eta guri bixitatzea, Foruatikan. Haixek zauden Foruan frentian ta gu Gernikan ta ordun ba zetozela… aiba, abiazixuak eta Gernikan txikiketak eta (….) ta berriz e frentea, familia han lagata, aita eta iloba”[637].

Andoni Arregi Oiarzabalek azaldu gisan, getariar emakume eta haur kanporatuetako batzuk, gizakiaren historian egin den basakeria eta sarraskitze ezagunenetarikoaren lekuko izan ziren. “Zerutik sua dator!” oihukatu zuen zenbaitek, ezinegonaren ezinegonez. Abiazio alemaniarrak, frankisten onespen eta aginduz buruturiko Gernikako bonbardaketaz dihardugu. Kondor Legio alemaniarrak hiru aldiz bonbardatu zuen Gernika, euskaldunon tokirik sakratuenetakoa eta garai hartan ere, euskal jendartearen artean izugarrizko balio sentimentala zuena. Frankistek, beraiek burututako sarraskitzearen ostean, Gernika errepublikazaleek bonbardatu zutela berretsi zuten:

“Guernica está destruida por el incendio y la gasolina. La han incendiado y la han convertido en ruinas las hordas rojas al servicio criminal de Aguirre, presidente de la República de Euzkadi. El incendio se produjo ayer y Aguirre ha lanzado la mentira infame-porque es un delincuente común- de atribuir a la heroica y noble aviación de nuestro Ejército Nacional ese crimen.

Puede probarse en todo momento que la Aviación Nacional no voló ayer a causa de la niebla ni sobre Guernica ni sobre ningún otro punto del frente de Vizcaya. Hoy sí ha volado la Aviación Nacional sobre Guernica. Ha volado y ha tomado fotografías del incendio de Guernica que parece casi totalmente destruída. Aguirre se ha sentido diabólico y ha preparado, en un alarde de histrionismo repugnante la destrucción de Guernica, para endosársela al adversario y buscar un movimiento de indignación en los vascos que, vencidos y desmoralizados, no pueden reaccionar en el caso de que puedan reaccionar todavía, sino merced a una gran convulsión de este género. (…)

Los vascos y el mundo entero deben saber que Aguirre ha quemado Guernica.

No hay más verdad que ésta, que es la única verdad”[638].

Hori gutxi ez balitz, Estanislao Herran eta Vicente Machimbarrena ejertzito frankistako militarren eta Luftwaffe naziaren bidez, balio zientifiko bat eman nahian, Gernika bonbardatu zutenak errepublikazaleak izan zirela frogatzen saiatu zen. Hala eta guztiz ere, Pablo Picassok 1937an egindako *Guernica* koadroak, internazionalki, Franco, Mussolini eta Hitler, haien laguntzaile ekonomikoekin eta militarrekin Estatu Espainiar osoan eta kasu honetan, Euskal Herrian egiten ari ziren sarraskitze masiboa lau haizeetara zabaltzeko balio izan zuen.

---

[634] Testigantza: Kontxita Oiarzabal Idiakez.

[635] Anita Uzin Albizuk argitu zigunez, bere ama Severiana Albizu Aginagalde Gernikako bonbardaketaren lekuko zen bitartean, beraiek komentu batean babestu ziren. Litekeena da, hauek ere, Oiarzabal senideak zeuden Foruako komentuan egon izana.

[636] Testigantza: Isabel Egurbide Oiarzabal.

[637] Testigantza: Andoni Arregi Oiarzabal.

[638] Diario de Burgos, 1937ko apirilaren 27an.


GUERNICA

THE OFFICIAL REPORT

of the Commission appointed by the Spanish National Government to investigate the causes of the Destruction of Guernica on April 26-28, 1937

With an introduction by

SIR ARNOLD WILSON

K.C.I.E., C.M.G., M.P.

28 Illustrations

Price 1s. 6d. net.

**Herran-en txostenaren azala.**




**Guernica Gernikara murala, Madrilgo Reina Sofian dagoen Guernica originala bere lurraldera (Euskal Herrira) itzultzeko eskaera.**

Gernikaren bonbardaketa frankistek aurretiaz planteatutakoa izan zen, egindako gainontzeko bonbardaketak bezalaxe. Aurreko lerroetan aipatu dugun gisan, ordea, Gernikak, euskaldunen zerizanean izugarrizko garrantzia zuen, sinbologia handia[639] eta frankistak horren jakitun ziren. Frankistek Gernikaren bonbardaketa, Bilbo hartzeko teknika beharrezkotzat irudikatu bazuten ere, bere oinarrian, euskaldunen morala gerran zehar gehiago zapuztea izan zen.


Diario de Burgos

EL INCENDIO DE GUERNICA

SALAMANCA.— Queremos decirle al mundo muy alto y muy claro unas palabras sobre el incendio de Guernica.

Guernica está destruida por el incendio y la gasolina. La han incendiado y la han convertido en ruinas las hordas rojas al servicio criminal de Aguirre, presidente de la república de Euzkadi. El incendio se produjo ayer y Aguirre ha lanzado la mentira infame—porque es un delincuente común—de atribuir a la heróica y noble aviación de nuestro Ejército Nacional ese crimen.

Puedo probarse en todo momento que la Aviación Nacional no voló ayer a causa de la niebla ni sobre Guernica ni sobre ningún otro punto del frente de Vizcaya. Hoy sí ha volado la Aviación Nacional sobre Guernica. Ha volado y ha tomado fotografías del incendio de Guernica que aparece casi totalmente destruida. Aguirre se ha sentido diabólico y ha preparado, en un alarde de histrionismo repugnante la destrucción de Guernica, para endosárselo al adversario y buscar un movimiento de indignación en los vascos que, vencidos y desmoralizados, no pueden ya reaccionar en el caso de que puedan reaccionar todavía, sino merced a una gran convulsión de este género.

Si el Arbol Santo de Guernica ha perecido en la hecatombe, es Aguirre y los suyos quienes lo han hecho perecer. Ya hemos dicho que nuestra aviación no pudo producir ese incendio, porque no voló ayer. Además hay testigos del incendio de Guernica por los rojos, testigos de su labor con la tea incendiaria y con el petróleo. Muy pronto quedará en nuestro poder esta villa. Invitamos al mundo a que vaya con nosotros a contemplar sus ruinas. Allí se probará de una manera indudable, ante los periodistas extranjeros, que la destrucción de Guernica no pudo ser provocada con bombas incendiarias, que su destrucción es la obra de los que quemaron Irún y Eibar, de los que dejan siempre una España espectral a sus espaldas.

Aguirre acaba de intentar la más trágica y despreciable de las farsas. Ha quemado, ha destruido Guernica, la ciudad Santa de los Vascos. Dentro de poco no le quedará al mundo duda alguna; pero, además de las pruebas que se han aportado ya sobre la infamia de Aguirre y las que se aportarán todavía aquí está a la vista del mundo, la España reconquistada por Franco, serena, tranquila, libre, feliz junto al Ejército Nacional, que vence al enemigo y reconstruye su patria, mientras las hordas rojas, asesinan, martirizan, incendian, destruyen y llevan el caos por todas partes.

Los vascos y el mundo entero deben saber que Aguirre ha quemado Guernica.

No hay más verdad que ésta, que es la única verdad.

**Gernikako bonbardaketa, frankistak gezurretan.** (Diario de Burgos).




**Franco eta Hitlerren arteko aliantza.**

Frankistek, alemaniarren laguntzarekin burututako Gernikan zeuden biztanleen aurkako sarraskia izugarria izan zen. Xabier Irujo historialariak argiki aipatzen digu gertatutakoa:

[639] Bertan errege-erregina espainiarrek foruak onartu behar izaten zituzten; horrek, euskal legeen onarpena suposatzen zuen, era batean behintzat, nahiz eta euskal lurraldeek monarkia espainiarraren menpe egoten jarraitzen zuten.

“El 26 de abril de 1937, día de mercado semanal, un mínimo de 27 bombarderos y 32 cazas, partiendo de los aeródromos de Burgos, Soria, Gasteiz y posiblemente también Lasarte, atacaron Gernika desde las 4:20 a las 7:40 de la tarde. Lanzaron sobre el casco urbano entre 31 y 46 toneladas de bombas explosivas e incendiarias. La desolación fue absoluta: el 85,22% de los edificios de la villa fueron totalmente destruidos y el 99% afectado. Murieron más de 2.000 de los aproximádamente 10.000 a 12.000 civiles que se encontraban concentrados en el casco urbano, un área de menos de un kilómetro cuadrado”[640].

1937ko apirilaren 26a, astelehena zen, ganaduaren azoka eguna Gernikan. Beste zenbaitetan bezalaxe, Josefa Agirre Oiarzabal eta Severiana Albizu Aginagalde getariarrak bertara joanak ziren.

“**A:** Astelehenin iten zan Gernikan perixa ta ama ta jun tzin perira. Ta gu beste ze komento batian. Komento batin eote ginan”[641].

1937ko apirilaren 26ko egun ilun hura, euskaldunon memorian gogor islatuta geratu zen. Memoriatik ezabaezina gertatu zen eta gezurrak hanka motza izaten duenez, egiak herritarren artean aurre hartu zion, nahiz eta ofizialki diktadura frankista amaitu eta urte batzuetara lortu zen egia jakitea, beti ere herri ekimenez. Garai hartan Foruan zeuden getariarrek gogoan zuten Gernikan gertatutakoa, beraien begiz ikusi zuten eta baita sentitu ere:

“**A:** komentu handi batian… <u>bonbak eta bota zittuenian?</u> **A:** bonbak eta ikuste ginutzen nola etortze zian aeroplanuak. <u>Ta kia ta sua ta?</u> A: dana. Ta gu hantxe zea batian sartuta. Nola esplikatukoizut… Zelaixetan eote die errekak, halako zulo batian. Komentutikan ihes einda. **E: eta komentokok denak erreka ondoa? A:** komentotikan eskailerak zeuden eta gero tunel bat zeon. Ta ahal deuna, danok hara sartze ginan. Danak ihesi hara… ibili, bueno… (eskua altxatzen du). Esplikaziyoik eztakat…”[642].

Ez zen bonbardaketa sufritzen zuten lehenengo aldia. Durango, esaterako, 14 aldiz bonbardatua izan zen 1936ko irailaren 25etik 1937ko apirilaren 29ra bitartean. 1937ko apirilaren 18an ere, frankisten menpeko hegazkinek, euskal hiria bonbardatu zuten. Kasu horretan, Josefa Alkorta Zumeta getariarra erail egin zuten. Haren ostean, emakume getariarra Derioko hilerrian hilobiratu zuten.



POR ENCIMA DEL DOLOR

ANTE EL ATENTADO DEL DOMINGO

En cada nuevo y doloroso episodio de la guerra, Euzkadi fortifica su espíritu de sacrificio para este trance en que la han colocado sus enemigos. A los cálculos menguados del fascismo español, que cuenta con que sus cobardes e inhumanas agresiones han de imponer a nuestro pueblo una situación de medrosidad en la que él pueda asentar su dominio en tierra vasca, nuestro pueblo responde con un nuevo gesto de augusta serenidad. En cada nuevo atentado del fascismo, como el del domingo pasado, fuera incluso de las más monstruosas [illegible] de la guerra, la población leal vasca afirma su propósito de [illegible] digna y limpia de la brutal e incivil acometida. A fuerza de más acerbos dolores, el espíritu vasco, que por democráticamente [illegible] es antifascista y es, sobre todo, la antítesis natural del fascismo español, va vigorizando su viejo e inextinguible afán de liberación. Su amor a la libertad y a su democracia tradicional y personalista, que tiene raíces clavadas en lo más hondo de su historia, [illegible] con el dolor de estos momentos. En esta situación [illegible] las bestialidades cometidas por el fascismo hispano en el [illegible] y en la carne de nuestro pueblo no harán sino encender su deseo legítimo y ardiente de sacudir la opresión de una vez y para siempre. Contra lo que creen los fascistas españolistas, que naturalmente juzgan al pueblo vasco a través de sus mezquinos sentimientos, [illegible] el mejor camino para dominarlo el de bombardear sus poblaciones de retaguardia y asesinar a sus mujeres y a sus niños, a sus [illegible] no combatientes, desde la que estiman impunidad de los [illegible] alemanes. No lo ha sido nunca y lo es menos ahora, más despierta que en ningún momento en Euzkadi la conciencia de sus derechos y de sus destinos.

Así se explica que al bombardeo cobarde y sádico de la población [illegible] de Bilbao efectuado el domingo por los aviones alemanes al servicio del cerril españolismo y del fascismo internacional, Bilbao haya respondido inmediatamente, automáticamente, mejor dicho, con uno de sus gestos insuperables de su civil entereza.

Bilbao se tragó el domingo sus lágrimas y recató su dolor ante el criminal bombardeo que destruyó riqueza y segó vidas. Transcurrido el criminal atentado, la villa reanudó su ritmo normal, el ritmo [illegible] momentos de guerra, y prosiguió su desenvolvimiento cara al [illegible] brutal de esta guerra de invasión. Las calles se llenaron de público. Los servicios montados para hacer frente a las vicisitudes de la guerra funcionaron con presteza. Con sobria entereza, con espíritu ejemplar de sacrificio, Bilbao ha aceptado, una vez más, uno de los [illegible] crímenes de la acción fascista.

Se ha dado cuenta de que es así como hay que dar frente al [illegible] brutal de esta guerra de dominación y ha incorporado a su conducta este duro convencimiento.

Repetidamente se ha dicho a lo largo de estos nueve meses de drama que la retaguardia tiene que contribuir también a la victoria sobre el fascismo desatado en sus odios. Esto ni es ni debe ser una [illegible] frase de guerra, sino una realidad tajante. Y una de las formas de contribución de la retaguardia a la victoria es esta serenidad, esta [illegible] en el dolor de que dió muestras el domingo la población de Bilbao y que le permitió sobreponerse a su dolor inmediatamente.

Otra conducta sería inadecuada al heroísmo y a la abnegación de la juventud que lucha en los frentes.

Se ha comprobado que cuando el fascismo se estrella en nuestras [illegible] de combate acude a atacar a la retaguardia, esperando abrir [illegible] procedimientos cobardes un flanco que se le cierra en donde [illegible] exige alguna gallardía. Esto lo sabe ya sobradamente nuestra retaguardia y ha comprendido la obligación de darle frente.

El fascismo no viene a nuestra retaguardia a combatir en los términos que la guerra permite a la nobleza. Esto se probó anteayer, cuando los aviones alemanes huyeron cobardemente al presentarles batalla [illegible] aparatos leales, y se ha probado en otras muchas ocasiones. [illegible] el paso en la posibilidad de la cobardía de nuestro pueblo. A [illegible] de su ruindad han acabado por comprender que en esta guerra [illegible] un papel importante el espíritu civil del pueblo, y quieren quebrarlo, aun a costa de todas las ilicitudes. El pueblo no debe desconocer estos factores morales de la lucha y sabe ya que tiene que [illegible] por encima de estos dolores y traducirlos en un nuevo [illegible] para la pelea. Porque pelear contra el fascismo es alzar el ánimo por encima de vicisitudes como la del domingo pasado.

Nadie olvide que la vanguardia y la retaguardia deben constituir [illegible] en lo moral. Demos siempre, como el domingo, a nuestros [illegible] la sensación de que detrás de ellos un pueblo entero [illegible] su sacrificio soportando todas las vicisitudes y laborando sin [illegible] decididamente, a través de ellas. Aquí también ha de estrellarse la ofensiva enemiga.

**1937ko apirilaren 18ko bonbardaketaren azalpena.**
**(Euzkadi, 1937ko apirilaren 20a).**



Vista parcial del estado en que quedó una casa de las muchas que el domingo sufrieron desperfectos.

**1937ko apirilaren 18ko bonbardaketa frankistaren ostean eraitsitako eraikinetako bat.** **(Euzkadi egunkaria).**

[640] IRUJO, X. 2017. *La verdad alternativa: 30 mentiras sobre el bombardeo de Gernika*. Txertoa: Donostia, 7.or.

[641] Testigantza: Anita Uzin Albizu.

[642] Testigantza: Anita Uzin Albizu.

Gerra hasi zenetik, sirena edo kanpai hotsak entzun bezain laister, frontean borrokatzen ez zeuden guztiak errefugioetara babes bila joaten ohituak zeuden:

**"A:** astelehenetan eiten tzan perixa ta ama jun tzan perira. Ta ama perira jun tzanian jo zun sirena. Ikusten tzian nola etortze tzian. Nola botatze zitun e bai. Erreka bat urakin nola juten da zubixa? Han azpixan sartu giñen. Ez genekin ama nun tzan. Han tzaola bai baiña nun tzaonikan ez, ez giñekiun (…)"[643].

**"J:** bonbardeua etortze zanian, tunelea jute ginan danok eta amakin galdu ni eta geo komerixak bilatzen alkar e… danak brrrr… (danak batera joaten zirela refugiora adierazten du). Ta galduta ta, alkarri bilatu… **A:** orduan aitzen nuen, eskutik emanda amakin da, libratu eskua da danak ihesika da umia ta bixak apartatu. J: bost urtekin zea jakingo nun… **E: gogoratzen al zea bonbardaketan soinuaz? J:** askotan, askotan tunelea jute ginan danok sirena jotze zunian tsuu… ta danok tunelea jute ginan"[644].

Angela Iribar Areizaga eta haren seme Joxe Azkue Iribar, Salvadora Burgaña Etxebarria eta haren alaba Benite Aranguren Burgaña eta, "Remi" Idiakez Indo eta haren Arantza eta Kontxita Oiarzabal Idiakez alaba getariarrak ere Gernikako bonbardaketaren lekuko izan ziren. Garai hartan Ermuan bizi ziren eta handik alde egin zuten Jose Maria, Maria Angeles eta Maria (Miren) Iruretagoiena Olano ere, beren gurasoekin batera, sarraski odoltsu haren lekuko izan ziren. Haien ama Josefa Olanok, bere familiarekin, haren senarra Joakin Iruretagoiena Olaskoaga atxilotu ostean, Bilbo aldera egin zuen. Frankistek, azken hau, fusilatu egin zuten.



**Durangoko bonbardaketaren biktima.**

Ohikoa zen gisan, txikienen artean, izua nagusi izan zen une hartan. Zerutik sua erortzen besterik ez zuten ikusten eta haien amak asteleheneroko azokan egotea pentsatzeak, barnea nahigabetzen zien. Negarra eta izua, nahigabea… oso presente izan zituzten une haietan guztietan:

**"I:** eta haiek zian, Gernikako zea zan orduan, azoka, eta… gaixki pasa giñun. Ta geo ama ta re falta ni, ta… oso gaixki ordia e! oso gaixki! Bonbardeuak eta zea ta amona falta ta amona nola agertu zan? Amona beste batzukin nola agertu zan Foruan… **I:** bai, baietz, baietz. Ta nik orduan, bestik ezerre etzitaiten inportik (…) Mari, amona han agertu zanian, nik beste izer enun bihar. Neska koskor bat, klaro! Neska koskor bat nintzan da! Bueno… gaixki pasa nuan e…"[645].

[643] Testigantza: Anita Uzin Albizu.

[644] Testigantza: Anuntxi Aranguren Burgaña eta Joxe Azkue.

[645] Testigantza: Isabel Egurbide Oiarzabal.

Severiana Albizu Aginagalde eta Josefa Oiarzabal Agirre Gernikako azokan zeuden beste zenbait herritarren gisara, ahal zuten gisan babestu ziren horrenbeste hegazkin suzko bonbak jaurtitzen hasi zirenean. Gernikako komentu batean babesteko aukera izan zuten. Bertan zeudela, zenbait bonba komentura bota eta komentuaren zatirik handiena guztiz txikituta geratu zen. Gutxigatik, ezkutatuta zeuden komentuaren izkinako zatira ez zuten suzko bonbarik jaurti. Instante gogor eta hunkigarriak izan ziren bi emakume getariarrentzat, bizirik geratu eta Foruara beren haurrengana itzultzean beste ezertan ez zuten pentsatzen. Frankistek, erlijio katolikoa babesten zuten komentuak izan arren, haiek bonbardatzea ez zitzaien inporta:

**"A:** Gernikan e eon ginan. (…) Gernika jo zuenin ama han zan. Ama han nuan. Gu ez, ni beste senidikin aparte ginen, ama zan han. Ta ama geatu zan, zea geatu zan osoikan dana puskatuta. Hori badakit, hortikan aurrea… ni beste bostekin, bost senidikin beti gu hantxe, nere anparuan hantxe. Ahal nuan mouan bizi. Nahi kenun bezela ez, ahal genun mouan bizi. Altzan mouan"[646].

"Konbento bat zan (…) konbento hortan jende asko zeon. Refugixo bezela dana (…) Zaldixak jaten etzuena jate gendun, zeoze jan bihar biziko bagiñan; nahi ta eziña! Ba al dakizu zer dan? Nahi ta eziña! Hoixe… hortikan aurrea no hay más explicaciones…"[647].

Izugarrizko txikizioa izan zen, Gernika ezerezean geratu zen eta tropa frankistek, beraiek Gernika menpean hartzean erabiliko zituzten fabrikak baino ez zituzten zutik utzi. Gainontzeko eraikinak guztiz txikituta geratu ziren. Eraikinen %85a inguru txikitu zutela kalkulatzen dute Gernikako bonbardaketaren adituek.



**Joseba Elosegi Saseta Batailoiko kapitaina Gernikako bonbardaketaren ostean.** (Gernikako Bakearen Museoa Fundazioa).



**Gernikako eraikin birrinduetatik animaliak ateratzen.** (Gernikako Bakearen Museoa Fundazioa).



**Gernikako eraikinen %85a birrindu zuten.** (Gernikako Bakearen Museoa Fundazioa).

Hipolita Urresti Andonegi, emakume getariar kanporatuak Gernikako bonbardaketaren berri jakin zuenean, hunkiturik geratu zen. Bazekien zenbait getariar inguru haietan zebiltzala eta bera, Jose Angel eta Batista Kerejeta Urresti haurrekin batera, Karrantzan errefuxiatu gisan zegoen. Hura zen nahigabea emakume getariarrarena, begiak malkoz betetzen zitzaizkion jende haren guztiaren sufrikarioarekin. Hipolita Urresti Andonegik, behin Zumaiara heldu eta trenean Gernikara egin zuen:

**"M, J eta A:** nik amonai aitzen nion beti, hamendikan Zumaian trena hartu, etzekiela noa zijuazten, ta Zumaxan trena hartu eta lehendabiziko Gernika joan tziala"[648].

Handik, segituan, Karrantzara lekualdatu zuten. Gainontzeko getariarrek Gernikatik egin gisan, hark Karrantzatik Bilbora egin zuen. Han batu ziren getariar guztiak. Tropa frankistetatik ihesi, Bizkaiara 100.000 gipuzkoar inguruk ihes egin zuten. Errefuxiatu hauek guztiek etxebizitzak eta elikagaiak behar zituztenez, Eusko Jaurlaritza hori guztia ongi kudeatzeaz arduratu zen. Hasiera batean, Bizkaiko Defentsa Batzordearen Gizarte Laguntza arduratu zen kudeatzeaz, laster, Eusko Jaurlaritzako Gizarte Laguntzako Departamendua arduratu zelarik. Horretaz guztiaz, Juan Gracia Colas sailburu sozialista arduratu zen. Errefuxiatu haiek guztiek behar bezalako baldintzak izan zitzaten, Eusko Jaurlaritzak etxebitza ezberdinak konfiskatu eta errefuxiatu haiei guztiei beren babesa eman zien:

**"K:** ta gu Bilbaora jun giñenian suerte haundixa izan genun, eman tziuben Idiakeztarrai avenida Mazarredo eztakit non, zea bat etxe eleante bat banko batena, ordun ospa ein tzuen eztakit zeba izango zan, zea ta guztia, atian zea eukitze gendun, giza-semia eukitze gendun. Ta gure ama ta nola lau ahizpa jun tzian, lau ahizpa jun tzian been ume txikixakin, bata Eibarren bizi zan, bestia Hernanin, hamen Getaixan bi, eta eon tzian, eon giñan avenida Mazarredon. Oso etxe apaiña bai eztakit zergatik eman tziun, Idiakeztarragatik (…) nik eztiot zeaik billatzen"[649].

Etxebizitzaz gain, medikua, jantokiak eta nola ez, ume haiek guztiek hezkuntzaren jarraipena eduki ahal izateko eskolak ere ezarri zituzten. Umezurtz geratu ziren gudari zein milizianoen haurrentzat ere, zenbait bizileku ireki zituzten. Hori guztia, hiru hilabeteren buruan lortu zuten:

646 Testigantza: Anita Uzin Albizu.

647 Testigantza: Anita Uzin Albizu.

648 Testigantza: Maria Antonia Burgaña Martija, Jose Angel Kerejeta Urresti eta Andoni Arregi Oiarzabal.

649 Testigantza: Kontxita Oiarzabal Idiakez.

**"E: eskola juten ziñeten bertan? K:** ez… hasitzekuak giñan. Esan tziuen eaman eingo ziuela hasitzekuak giñan, ustet Bilbaon zeozer bai. Nik Bilbaotikan letzen ikasita erten nuan, (…) Bilbaon jute giñan"[650].

Haien egunerokotasuna egokitzen saiatu baziren ere, frankistek kontrolatutako hegazkinen bonbardaketei aurre egin behar izan zieten. Bilbon, hainbat eta hainbat "refugio" sortu ziren gerra garaian bertan. Kontxita Oiarzabal Idiakez getariarrak kontatzen zigunez, bere aita Juan Bautista Oiarzabal Agirre mikeleletearengana joaten zen sirena hotsa entzuten zuen bakoitzean:

**"K:** ni jute nitzan kolegixo bat bezela zan, ta mikelete guztiak eta han tzauden. Ta ni egunero juten nitzan, bonbak eta hasitzen tzienian, saltaka aitena"[651].

## INGALATERRARA BABES BILA:

Egunez eguneko bonbardaketa haiek geroz eta jasanezigo bihurtzen joan ziren. Tropa frankistak ere, Bilbotik geroz eta gertuago zeuden eta orduan, umeen erbesteratzea, martxotik jada martxan zegoena, gogorrago ezarri zuten.

Horrek suposatzen zuen arriskuaren aurrean, elikagaiak lortzeko arazoen aurrean eta Gernikan frankista eta alemanek eginiko sarraskiaren ostean, Eusko Jaurlaritzako Laguntza Sailak urtarriletik martxan zuen 5 eta 14 urte bitarteko umeen ebakuatzeko planak azkartu egin zituen.

Guraso askok eta askok, egoera arriskutsutzat joz, beren seme-alabak ebakuatzeko erabakia hartu zuten. Gurasoek, haien seme-alabak, atzerrian, denbora laburrez egongo zirela uste zuten. Ume haiek guztiek, Frantzia, Ingalaterra, Belgika eta SESB-era (Sobietar Errepublika Sozialisten Batasuna) erbesteratu zituzten. Ziurtasun osoz Jon eta Iñaki Zubizarreta Larrañaga haur errefuxiatuak getariarrak ziren ala ez zehaztu ezin dugun arren, garrantzitsua iruditu zaigu hurrengo kapitulua aurkeztea.

1937ko maiatzaren 23an, Bilboko portutik, Iñaki eta Jon Zubizarreta Larrañagak tropa frankisten atzaparretatik ihesi Ingalaterrara bidean irten zuten. Haien ama Amelia Larrañagak eta aita Jose Zubizarretak hartutako erabakia izan zen. Egoera hura jasangaitza zen Bilboko biztanleentzat eta gurasoak hiltzen baziren ere, haien seme-alabentzat etorkizun hobeago bat edo gutxienez, gerrako gertaera garratzek horrenbeste eragin gabeko orainaldi hobeago bat eskaini nahi izan zieten.



**Ume errefuxiatuak Ingalaterran.** (Diario Montañes).

[650] Testigantza: Kontxita Oiarzabal Idiakez.

[651] Testigantza: Kontxita Oiarzabal Idiakez.


**Euskal ume errefuxiatuak North Stoneham-eko.** (Southampton iparraldea) eremuan).


**Mediku-azterketa.**

Hala, Ingalaterrako ipar-ekialdeko kostaldeko Scarborough herrira heldu ziren bi anaiak, beste zenbait haur eta irakasle euskaldunekin batera. Itsasontzitik jaitsi bezain laster, proba medikoak egin zizkieten, hori zen Ingalaterran eta errefuxiatuak hartu zituzten gainontzeko herrialdeetan sartu ahal izateko lehen egitekoa. Zenbait herrialdeetan, gaixotasun infekziosoak zekartzaten pertsonatzat hartu zituzten, beti ere kanpotarrekiko mespretxua adieraziz. Hura, hein handi batean, gerratik zetozen eta langile klaseko eta beraz, diru apurreko pertsonak zirelako zen. Aberatsen kasuan, ez zen halakorik gertatzen, beti ere, dotorezia hura mantentzeko gai baitziren beren dirua soinean izanda.

Halako egoerak bizi izan bazituzten ere, Jon eta Iñaki Zubizarreta Larrañagak sozietate ingelesak sortutako zenbait laguntza elkarte zein ezkerreko sindikatuen babesa jaso ahal izan zuten. Izan ere, Britainia Handiko gobernuak, Eusko Jaurlaritzarekin izandako eztabaida luzeen ostean erbesteratuak irlan lehorreratzea ahalbidetu bazuen ere, ez zuen haiek mantentzeko beharrezko egitura zein hornidurentzako beharrezkoa zen dirurik proportzionatu. Sozietate ingelesak ahalbidetu zuen Jon eta Iñaki Zubizarreta Larrañaga zein gainontzeko euskal haurren mantentzea.


MEDICAL RECORD

BILBAO NO. 922
ENGLISH NO.

1. HEIGHT
2. WEIGHT
3. GENERAL NUTRITION Fair
4. CLEANLINESS Fair
5. SKIN CONDITIONS:—
(a) INFECTIOUS None
(b) NON-INFECTIOUS None
6. EYES ✓
7. TEETH 8 Caries
8. THROAT ✓
NOSE ✓
EARS ✓
9. HEART ✓
10. LUNGS ✓
11. DEFECTS OR DEFORMITIES None
12. GENERAL REMARKS
13. ACTION TAKEN

**Iñaki Zubizarreta Larrañagaren mediku-agiria.** (Basque Children Association of 37 UK).

Erbestean beraien egunerokotasuna hilgarriak ziren suzko bonbetatik urrun egonik ere, gurasoen gabezia nabarmenak, ume haiek zenbait momentutan herrimina sentitzea ekarri zien. Momento paregabeak ere izan zituen zenbaitek, haien egunerokotasuna alarma egoeran egotetik haur batek batzuetan behar izaten duen jolas giro lasaiago eta bihurriagora batera pasa baitzen.

1938ko apirilaren 1ean, ezbeharra nagusitu zen Scarborough-en. Beste zenbait egunetan egiten zuten gisan, haurrek, beren irakaslearen zaintzapean hondartza inguruan jolastera irten zuten. Une hartan, Iñaki eta Jon Zubizarreta Larrañagaren poza izugarria izaten zen. Alaitasunak gorputza zirrarazten zien. Egun hartan ere antzekorik gertatu zen. Iñaki Zubizarreta Larrañagak malekoitik hondartzara jauzi egin eta korrika hasi zen, itsasertzeraino hurbilduz. Halako batean, bera baino dezentez handiagoa zen olatu batek, erraldoi baten hozkada bailitzan, irentsi egin zuen. Itsasoak, bere egin zuen gaztea. Beraren zaintzaz arduratzen zen irakasleak ahalak eta bi egin zituen haur euskalduna itsasoaren hondotik atera eta erreskatatu ahal izateko. Baina itsasoak bere boterea erakutsi zuen eta 11 urteko mutikoaren gorpua irentsi egin zuen. Handik pixka batera, bere gorputza itsasotik ateratzea lortu zuten. Gertaerak, haur eta Ingalaterrako komunitate euskaldun zein ingeles osoa hunkitu zuen. Bere anaia eta gainontzeko zaindari eta lagunek, haren aldeko hileta elizkizuna egin zioten.

Gertaera gogor horren ostean, Amelia Larrañaga eta Jose Zubizarretak beren seme Jon Zubizarreta Larrañaga 8 urteko Iñakiren anaia Euskal Herrira aberriratzeko eskaera egin zioten Euskal Ume Errefuxiatuen Ingalaterrako Komiteari.

Jarraian eskuragarri dagoen dokumentuak, Jose Zubizarreta Amelia Larrañagaren senarra, garai hartan, kartzelan zegoela adierazten digu. Amelia Larrañagak bere semearen heriotza bakarrik pasatu behar izan zuen…

## FRANTZIARA BIDEAN:

Bilbon geratutako gainontzeko emakume eta haurrek ordea, bestelako norantza hartu zuten. 1937ko martxoaren 31n Bizkaiaren aurkako ofentsiba hasi zen eta Bizkaian zeuden errefuxiatu gipuzkoarrak gerraren ankerkeriak sufritu behar izan zituzten, aurreko lerroetan ere azaldu dugunez. Hala, Eusko Jaurlaritzak, Bilbo eta Bizkaiko herriek frankisten menpeko hegazkinekin jasan zituzten eraso anitzak ikusita, Bizkaia ebakuatzeko planteamenduari ekin zion. 1937ko apirilaren 26an frankisten menpeko hegazkinek Gernikan egindako sarraskitzearen ostean, Bizkaiko errefuxiatuen ebakuazioa momentu hartan gerrari aurre egiteko modu bakarra zela ikusi zuen.

Bonbak ez ziren populazioa errefuxiatzeko arrazoi bakarra, Bilbon hornidura handiaren falta zegoen eta gosea nagusitu egin zen. Horren baitan, guztiak berriro ere Euskal Herrira laster itzuliko zirela uste zuten. Gernika erretzean frankistek euskaldunon morala jaistea nahi bazuten ere, garai hartako euskaldunek tinko eutsi zioten euskal askatasunaren alde borrokatzeari.

Hala eta guztiz ere, tropa frankistak Bilbo hartzear zeudela, Eusko Jaurlaritzak, gerraren bortizkeriak jasaten ari zen euskal biztanleriari babesa emateko, euskal hiriburua ebakuatu egin zuen. Getariako agintari frankistek, elizako kanpaiekin sutsuki ospatu zuten Bilbo beren tropek menpean hartu izana:

**"J:** ta bestia daukat goguan, geure aitona amen aita Inaxio Ulacia treinta sieten hil tzan da gu txikixak, zazpi urte. Hura panteoian sartzea, eta baten, elizan kanpai haundixak hasi zian jotzen. Ta batek esate zun bestei, zerrena otek kanpai handi hoxek eta? Bilbao hartu die. Aitona orduantxe panteoian sartzea xizten. Ta nik zazpi urte orduan. Hori juniyuan hemezortiyan, hemezortzi-hemeretzi o Bilbao hartu zuena?"[652].

"Asimismo se acordó felicitar al Sr. Gobernador Civil y por su conducta al Generalisimo Franco por la brillante Victoria alcanzada con la toma de Bilbao"[653].


55

Asimismo, se acordó felicitar al Sr. Gobernador civil, y por su conducta al Generalísimo Franco por la brillante Victoria alcanzada con la toma de Bilbao.

**1937ko ekainaren 20an, Getariako udaletxe frankistak tropa frankistak zoriondu Bilbo menpean hartzeagatik.** (GUA).

Hala Bilbon geratutako zenbait getariarrek norabide ezberdinak hartu zituzten. Haietako batzuk, Bilbo bertatik, Frantziako estatuak emandako behin-behineko errefuxiatuen hartzeari jarraiki, lurralde galora erbesteratu ziren. Getariar gehienek ordea, Kantabriarako bidea hartu zuten:

**"M, J eta A:** en Karranza estuvieron unos días, siempre en convento-colegios y de alli a Santander. Estando en la estación de Santander, vino el hermano de Hipolita, zea osaba Jose, (…) pena de muertekin eon tzan; que no sabia donde estaba su hermano, que no sabia como se había enterado. Por un señor que se apellidaba Darpon de Getaria, le dijo que Hipolita estaba en la estación de Santander sin saber donde ir con sus dos gemelos. Este le ayudó, de allí salieron para Francia en el barco. En Francia estuvieron en Privas cerca de Mont de Marsan"[654].

**"G eta B:** ta geo handik Santanderrea. Santanderretik erten da geo handik barkuan zeara, La Rochelle-a. Ta gure aita difuntuan barkua, ta gure ama difuntak esate zian, "baino zu goorra zea e, zergatik eztezu barkua saltzen –gosiak jota gure aita- ta ez ementzian barkua saltzen, nahio gosiak hilda"[655].

Bideak amaigabea zirudien, baina azkenean, Hipolita Urresti Andonegi, haren semeekin batera, bere senar Nikasio Kerejeta Agote Bou Donostiako gudariarekin elkartzea lortu zuen. Nikasio Kerejetak jada Arroxelan zenbait hilabete zeramatzan.



**Hipolita Urresti Andonegi, erbestean, Bautista eta Jose Angel Kerejeta Urresti semeekin.** (Kerejeta Urresti familiak emandako argazkia).

[652] Testigantza: Juan Eizagirre Ulazia.

[653] GUA.

[654] Testigantza: Maria Antonia Burgaña Martija, Jose Angel Kerejeta Urresti eta Andoni Arregi Oiarzabal.

[655] Testigantza: Guadalupe Arregi Berasaluze eta Bautista Kerejeta Urresti.

Santanderrera bidean ordea, izan zen desgraziarik ere; Salvadora Burgaña Etxebarria Getariatik kanporatutako emakumeetako baten eta Manuel Aranguren Iñarraren (EAJ/PNV) haurra, Benita Aranguren Burgaña, Gernika aldean gaixotu eta handik gutxira hil egin zen. Laredon hilobiratu zuten.

**"A:** bueno bialdu ein tzituela etxetikan. Gerra pasatu behar tzuela ta Gernikan ta ibili ziela, bonbardeuan da. Gernika aldea, horrea jun tzian. Bonbardeuan da ibili zian. Kanoiak o zer tzian, bonbak bota ber tzituela ta danak refugiyo batea sartzen da ibiltzen ziala ta horrela dabilela, umia zekan urte ta erdiko neska txiki bat. Hartu zuan berekin, zakaen. Da esan tzuen gurasuk hamen lagatzeko beakin, gerra bukatu arte eo bea bueltan etorri arte. Ta ezetz! Ume ta guzti nahi zuela jun. Ordun umia gaixotu zitzakoen Gernika alde horretan zean dabiltzala, ta hil umia. Ta in tzuen Laredon enterratuta laga. Jun tzan orduan, bea Frantzira pasatu zan umeik gabe"[656].

Ez zen Salvadora Burgaña Etxebarria eta Manuel Aranguren Burgañari hil zitzaien ume bakarra izan. Salvadora Burgaña, Frantzian erbesteratuta zeudelarik, haurdun geratu eta Ignacio Maria semea izan zuten. Hilabete gutxira hil eta Frantzian bertan hilobiratu behar izan zuten. Etxetik kanporatuta irteteak gehienei izugarrizko kalte emozionala eragin zien eta haren ondorio ere izan zitekeen Salvadora Burgañari bi seme-alabak hil izana. Emakume haietako zenbaitek bularreko esnea ere galdu zuten eta gainontzeko emakumeen artean eman zieten haurrei titiko esnea:

**"K:** gu jun giñan, ta gure amak bularra ematen tzion ta Getaiko beste emakume bat jun tzan Ibon izena zuen semiakin, ta hare bularra disgustuakin da lehortu in tzitzakon, ordun gure amak ematen tzion bular bat Arantxari ta bestie Iboneri. **E: Ibonen gurasoak nola deitzen zien? K:** Justina Sustaeta, Ibon tzan Aizpurua Sustaeta (…)"[657].

Justina Sustaeta Azkarraga, Ibonen amari, etxetik kanporatuak izatearen disgustoarekin, titiko esnea moztu egin zitzaion. Emakume haiek soinean zeramaten karga emozionala izugarrizkoa zen, beren etxeetatik arrazoi sendorik gabe kanporatu egin baitzituzten eta kale gorrian utzi, gerrako baldintzak tirokatzeen inguruetan ibiltzeko derrigortasuna eragin zielarik.

Eusko Jaurlaritzak 1937ko otsaila eta martxoa bitartean, Santanderreko autoritate errepublikazaleekin eztabaida izan zuten, Gipuzkoako errefuxiatu bakoitzeko 1,66 pezeta eskatzen baitzizkieten[658]. Garai hartan, Eusko Jaurlaritzak errefuxiatuen hornigai eta erosketa ezberdinetarako 50 milioi inguru kalkulatzen zituen[659]. Getariar gehienek Santanderren itsasontzia hartu eta Frantziarako bidea hartu zuten. Bidea ere ez zen batere atsegina, izan ere, itsasontzian gosea pasatzeaz gain, errefuxiatuen artean beldurra nagusi zen. Santanderretik irteterako, bazekiten frankisten ontziteriak, Almirante Cervera kasu, kanoikadak botatakoa zela zenbait errefuxiatuen ontziei. Hala eta guztiz ere, getariarren kasuan, Euskadiko Gudontzidiko gudariek egindako babes-lan bikainari esker, Frantziara osorik iristea lortu zuten. Frantziara heldu bezain laster, Ingalaterran bezalaxe, mediku azterketa egiten zieten. Andoni Arregi Oiarzabal getariarrak oraindik ere iritsi bezain laster emandako txertoa ondo gogoan du:

**"A:** (…) oaindikan han eman tziuten txertua hamen tzaukeat (Erakutsi egiten du txertoak eragindako zuloa). Txertoa Frantziyan"[660].



**Errefuxiatuak Santanderretik irtendako itsasontzi batean, 1937..**



**Errefuxiatuak Pirinio elurtuak pasatzen Frantziara heltzeko.**

[656] Testigantza: Anuntxi Aranguren Burgaña.

[657] Testigantza: Kontxita Oiarzabal Idiakez.

[658] *Archivo Nacional de Euskadi,* Fondo Gobierno Vasco, Presidencia, GE-0571-05. Refugiados de Guipúzcoa en Santander, Oficio de la Secretaría General de Hacienda, Bilbao, 1-III-1937.

[659] *Archivo Nacional de Euskadi,* Fondo Gobierno Vasco, Presidencia, GE-0571-05. Refugiados de Guipúzcoa en Santander, Informe sobre el convenio con Santander y Asturias en su aspecto económico, Bilbao, 7-IV-1937.

[660] Testigantza: Andoni Arregi Oiarzabal.



**Gerra Zibileko errefuxiatuak Argelès-Sur-Mer-eko kontzentrazio-eremuan.**



**Argelès-sur-Mer-eko kontzentrazio-eremua.** (EFE).



**Errefuxiatuak Frantziara iristen.**

Batzuek etxebizitzetan eta komentuetan ostatu hartzeko aukera izan zuten arren, beste batzuek, hurrengo kapituluetan azalduko dugun gisan, gehienbat hondartzetan eraikitako txarrantxen artean bizi behar izan zuten.

Gainontzeko euskaldunen gisan, getariarrak ere, Eusko Jaurlaritzaren aginduz, Frantziako lurralde ezberdinetan kokatu zituzten: Montpellier (Okzitania), Capbreton (Akitania Berria, Landak), La Ferte Mace (Normandia), Paris, Renazé (Mayenne), Cambrai (Nord), Privas (Ardeche); Euskadiko Gudontzidiko zein lurreko gudariak Bordele, Landak, Arroxela eta beraientzat egokitutako kontzentrazio-eremuetan eduki zituzten, batik bat.

Kontxita eta Arantza Oiarzabal Idiakez, haien ama "Remi" Idiakez Indorekin, Normandiako komentu batean ezarri zituzten. Etxebizitza hura beren senideekin elkarbanatu zuten, hantxe egon ziren Idiakeztar ahizpa guztiak Maria Idiakez Indo bere seme eta senarrarekin Hendaian geratu zena kenduta. Horrez gainera, "Remi" Idiakezen koinata Josefa Oiarzabal Agirre, Isabel Egurbide Oiarzabal eta Andoni Arregi Oiarzabal Agirrerekin batera babestu ziren. Kontxita Oiarzabal Idiakezek, oraindik ere ondo gogoan ditu bere lehengusu Isabel eta bien artean Normandian izandako gertaerak:

"**K:** ta geo Ixabel hori Foruan eon tzan lehengusu hori eta ni juten giñan lecheri batea, han ezautu gendun aurrena yogurra **E: a ordura arte ez… ez… K:** hamen yogurra noiz etorri da! Oin dela zemat urte! E yogurra noiz etorri da? Yogurra, gazta pilla bat, esnia… ta etzigun kobratzen ez… eztakit bazakilako gu biyok jute giñan, ikusten tzun aspektua… zean da etziun kobratzen. Frantsesez hasi giñen hitz eiten baiño!"[661].

Ingalaterrako herritarrak bezalaxe, Frantzian ere zenbait herritarren ongi etorria izan zuten erbesteratu euskaldunek. Ezin dugu ahaztu ordea, frantziar agintari eta haien jarraitzaile izandako populazioaren sektore batek, ez zituela behar bezala ere tratatu. Garai hartako frantziar estatuak, Francok errepublikazaleen inguruan zuen irudi ezkorra zabaldu zuen. Hau da, gaizkile hutsak zirela eta beti ere, kontuz ibili beharreko pertsonak. Populazioaren zati batek esandakoa irentsi eta errepublikazale errefuxiatuak mespretxuz hartu zituen. Oraindik ere, Frantzia errepublikazale eta antiklerikalaren populazioaren artean, erlijio katolikoa praktikatzen zuten pertsonak hobeto ikusiak izaten jarraitzen zuten, ez zutenak praktikatzen baino. Hori suertekoa kausitu zitzaien guztiz katolikoak ziren euskal nazionalistei, ez horrenbeste errepublikazale laikoei:

"**K:** Normandian esan dizut, etxe batian eon giñan baiña gurekin beti han tzian, egixa zeoze diferentiak zian, kastellanuak zian baiña gorritakuak, beak esaten zuen o… gure ama ta mezeta, hamengo jendia, da atzo esan tzuen ba batek "dicen que es gente mala; a pues van a misa no serán tan malas". Ta hori esaten ba gugatik eta frantsesak esate emen tzuen, guri ikusten tzuen amai ta goizeko seitan danak mezeta ixil-ixillik ez bestik esnatzeagatik eta… esate emen tzuen, eztie ba oso gaiztuak izango ba mezeta juten ba jende hau… **E: orduan segituan harrera ona izan tzenuten? K:** bai, bai… geo beste jaleuak eta liuak eta izan tzituen baiña…"[662].

Hala eta guztiz ere, euskal nazionalistak ez zituen guztiz erlijioak salbatu eta Kontxita Oiarzabalek azaltzen digun gisan bertan ere, izan zuten zenbait iskanbila.

Egunerokoan sabela asetu ahal izateko, erbestean zeuden getariarrek lanean hasi beste irtenbiderik ez zuten izan. Hala, haien haurrak, zenbaitetan errefuxiatuentzako sortutako eskoletara joateko aukera izan zuten eta beste zenbaitetan Frantzian bertan eginiko lagunen zaintzapean ere utzi izan zituzten:

"**A:** nik honi aituta, bai nire jun nitxan Frantzira, han bizi nitzan ni. Eta esaten zuan eta ni bost urtekin jun da taberna batian lagatzen zian nei gurasuak. J: ni eskola jute nitxoan momentu hartan, akordatu eskola nola jute nitxoan da. (…) geo mendixan e nola ibiltze ginan da, txakur txiki batekin da jolasian da nola ibiltze ginan. Aita lanian ta ama ta…"[663].

Erbestean egon bitartean, emakumeak, lan banaketa sexual tradizionalari jarraiki, gizonezkoak basoetan lan egin bitartean, Salvadora Burgaña Etxebarriak haien arropak garbitzen eta etxeko espazioan lan egiten jarraitzen zuen:

---

661 Testigantza: Kontxita Oiarzabal Idiakez.

662 Testigantza: Kontxita Oiarzabal Idiakez.

663 Testigantza: Anuntxi Aranguren Burgaña eta Joxe Azkue Iribar.




**Euskal umeak Frantzian errefuxiatuta.**

**“A:** gure amak esaten tzon, getariar askoi askoi, osaba Silvestrei ta horrenbestei beak arropak garbitu eta jan e ein eiten zuela. Osaba Silvestre ta, nik hoinbeste getariarrei zeatu zonat, esaten tzuan”[664].

**FRANTZIATIK KATALUNIARA:**

Errefuxiatutako getariar batzuk, ez ziren Frantzian geratu. Frantziatik, Katalunia aldera egin zuten, zenbait gudarik egin gisan. Haietako batzuk, Severiana Albizu Aginagalde eta haren, Salvador, Anita, Simon, Maria Cruz eta Florencio (Prudencio) Uzin Albizu seme-alabak izan ziren[665]; bai eta Josefa Olano eta haren Jose Maria, Maria Angeles eta Maria (Miren) Iruretagoiena Olano seme-alabak ere. Senide errefuxiatu hauek guztiak Gernikako bonbardaketaren lekuko izan ziren. Iruretagoiena-Olano familiaren kasuan, haien aita, Joakin Iruretagoiena Olaskoaga, frankistek, bertara sartzean atxilotu eta fusilatu egin zuten.

Familia hauentzat guztientzat erbesterako bidea ez zen batere erraza izan, gogorra izan zen. Behin Kataluniara iritsi ostean ere, egoera ez zitzaien asko hobetu. Gerra amaitzear zen eta Bartzelonan gosetea zen nagusi. Uzin Albizu senideak, komentu batean bizitzen egon ziren:

**“A:** ama zea ibiltze zan, basarriko lanak iten. Ta ni beste senidikin zaukena jan ta zauken mouan bizi”[666].

Iruretagoiena-Olano senideen nahikoa antzekoa izan zen. Sei hilabete Bordelen pasatu ostean, Kataluniara lekualdatu zituzten. Miren, anai-arrebetan txikiena, amak, familia aberats baten karguan utzi zuen, hartaz, sabela asetzeko haina izango baitzuen. Maria Angeles eta Jose Maria, amarekin batera bizi izan ziren komentu batean:

**“M:** geo Barcelonan zea eon giñen, Arenys de Mar. Han beste hamahiru hillabete ein giñuzen, gerra bukatu arte. Eta geo, han jakin gendun, nola aita hil tzuen, afusilatu ein tzuen gure aita, gure aita bezela asko! Geo Bartzelonan e pasa gendun denbora, han e konbento zea batian, eta han e jaten emate ziuben umiai txikiyai. Eta geo ite zituen jaso etxeta, hola txikiyenak eta ni eon nitzan, matrimoniyo baten etxian, gurasuik etzuen batian. Eta han eon nitzan, oso ederki eon nitzan. Hamahiru hillabete oitan haekin eon nitzan. Ama ta haiek ba zea konbentu horretan. Haiek han konbentuan eta ni bakarrik. Ta haiek kalian harrapatze zituen kato danak harrapatu, jan…jana gutxi zeuken da…katuk eta harrapatu ta lapurretan jute zian baatzeta ta frutak eta, ama ta anaixek eta…gutxi emate ziyoen jaten (komentuan). Eta ni ba etxe horretan nola neon ba, ni ondo eta geo (…) Bordeauxen ni ahaztuta nao, baiño han e dana latako gauza, enbutido gauza…hola plato beroik eta ezerrez. Barcelonan gehio, han asko zea emate ziuben artairiñakin eindako sopa bezela, kazuelian, hua bai. Ogiya… jesus… espartzuzkoa! Itxureik gabeko ogiya!”[667].

Oro har, getariar errefuxiatuen egoera ez zen oso ona izan. Gerraren ondorioak beren herritik urrun pairatu behar izan zituzten. Egon zen herrira itzultzerik gabe, Hego Abya Yalara[668] errefuxiatu zenik ere, Antonio Alegria Lasa (EAJ/PNV) Getariako Bigarren Errepublikako alkatea kasu.

[664] Testigantza: Anuntxi Aranguren Burgaña.

[665] Anita Uzin Albizuk argitu digunez, Mundakatik egin zuten Frantzia aldera.

[666] Testigantza: Anita Uzin Albizu.

[667] Testigantza: *ahotsak.eus*. Maria (Miren) Iruretagoiena Olano: GET-024/012.

[668] Liburuan zehar, Hego Amerika izenpetzea erabili beharrean, gaur egun Hego Abya Yalako herritar autoktonoek aldarrikatzen duten Hego Abya Yala izenpetzea erabiltzeko hautua egin dugu. Honako izenpetzea, Panama eta Kolonbiako kuna herriak geroago Amerika deituko zenari deitzen zioten. Maiek ere adiera hori erabili zuten. Kontzeptuak, zehazki, “lur heldua”, “lur bizia” edo “loratzen ari den lurra” esan nahi du.


0175
DUPLICADO
SERVICIO DE MIGRACION
NUM. 156981
ANTONIO ALEGRIA LASA
MEDIA FILIACION DEL INTERESADO
DATOS COMPLEMENTARIOS
Soltero
EL JEFE DEL DEPTO DE MIGRACION
ENRIQUE ORTIZ


0179
SERVICIO DE MIGRACION
REGISTRO DE EXTRANJEROS
101387
141997
Diciembre 41.
ALEGRIA LASA, ANTONIO
Guetaria Guipuzcoa
ASILADO POLITICO. INMIGRANTE
CARLOS A. GOMEZ

**Antonio Alegria Lasa Getariako azken alkate errepublikazalea, Mexikon asilo politikoarekin.**
(PARES, Movimientos Migratorios Iberoamericanos).

## ETXERAKO ITZULERA:

Erbestetik itzultzeko garaia ere itzuli zen ordea. Frantziako eta Ingalaterrako gobernuek, errefuxiatuek beren lurraldera itzultzeko deia egin zuten eta askori, handik, Hego Abya Yalara edo SESB-era joateko aukera besterik ez zitzaien geratu. Gehiengoen aukera ordea, berriro ere, Getariara itzultzea izan zen, horrek zekartzan ondorioak askotan, gerora ohartu zirelarik.

Gisa horretara, Francok aukera bikaina izan zuen propaganda bakezalea egiteko. Hau da, errefuxiatu haien guztien aberriratzea, bere bakezaletasuna eta barkamen ematea erakusteko erabili zituen. Horregatik, Getariako udaletxeko agintari frankistek ere, posizio berbera hartu zuten. Emakume, haur eta gudari haiek guztiek, beraiek hasitako gerra galtzearen eraginez joan behar izan zuten erbestera, inongo errurik gabe. Beste hitz batzuetan esanda, frankistek derrigortuta joan ziren erbestera, haien errepresalietatik ihesi.

Francok, bere burua, bakezale gisan aurkeztu zuen. Bera, “horda marxista y separatista”-k guztiz hondatu zuten espainiar estatuko gaixotasunaren sendagilea zen eta beraz, haren egitekoa, gerran bere aurka jardundako gudari guztiak sendatzea eta hartatik barkatzea izango zen. Hortik abiatuta, erbesteko errefuxiatuak aberriratzearekin internazionalki ere, diktadore ankerraren papera zuritu egin zion, zenbait kasutan.

Getariako udaletxean, lehen aberriratzeak hastean, Eugenio Egurbide Azpeitia zegoen alkate gisan. Euskal Herriko eta Espainiar Estatuko gainontzeko herrietan errepikatu gisan, alkateak sinadurak baldintzatzen zuen errefuxiatuak Getariara itzultzea ala ez itzultzea. Prozesua honakoa izaten zen: lehenik eta behin, Getarian geratutako errefuxiatutakoen senideek edo errefuxiatuak berak Getariara itzultzeko eskaera egiten zuen; haren ostean, herriko Falangeko kide zein frankistekin lerrokatutako testiguek haien aldeko zein kontrako deklarazioak egiten zituzten. Azkenik, Eugenio Egurbide Azpeitiak testiguen deklarazioak ontzat emanez gero, sinatu eta errefuxiatuak aberriratzeko prozesua hasten zen. Getariako alkate frankistak ez sinatuz gero, errefuxiatuek ezin izaten zuten Getariara itzuli.

Hala, esaterako, Josefa Oiarzabal Agirre eta “Remi” Idiakez Indok, Hondarribiako Komandantzia Militarrean, beren Isabel Egurbide Oiarzabal, Andoni Arregi Oiarzabal, Kontxita Oiarzabal Idiakez eta Arantza Oiarzabal Idiakezekin Eugenio Egurbide Azpeitiak Getariara zirkulatzeko emateko baimenaren zain egon behar izan zuten. Hala, alkatearen eta Falangeko buruzagiaren sinadurarekin, Getariara itzultzea lortu zuten.

Kataluniatik Getariarako itzulera ere ez zen askoz hobea izan. Uzin Albizu senideek, Zaragozan aurkitutako soldadu getariar baten laguntzaz, Getariarako trena hartzea lortu eta etxera itzultzea lortu zuten. Hurrengo kapituluetan aurkeztuko dugunez, guztiek ez zuten zorte bera izan. Batik bat, Frantziako kontzentrazio-eremuetatik zetozen gudari zein miliziano gehienak, mugan atxilotu, kontzentrazio-eremu zein kartzela frankistetara eraman zein fusilatu egin zituzten.

Getariara iristean, gauzak dexente aldatu ziren. Agintari frankistek beren ideologiaren aurkakoen ondasunak konfiskatu egin zizkieten zenbait kasutan eta beren jabetzako bihurtu. Horregatik, errefuxiatuen itzuleran, zenbait getariar etxerik gabe zein kasurik onenean etxearekin baina guztiz etxe hutsarekin aurkitu ziren:

**"E: itzuli zinetenean nola aurkitu zenuten etxea? M, J eta A:** pues nada. Hustuta. **E: gero zuen familia markatuta? M, J eta A:** bai, nazionalisten gauza horrekin eta guztiarekin bai. Len hamen eon tzian falangistak eta falangista (…)"[669].

Handik aurrera, zenbait udaletxera deklarazioak egitera zein Komandantzia Militarrera ere, kasu gehienetan ekintza politikoetan eta guduan zehar parte hartu zuten gudariak, sinatzera joan behar izaten zuten. Uneoro, haien gaineko kontrola absolutua zuten. Guztiak kontrolatuta izatea komeni zitzaien, modu horretan, beren ideologia frankista gainontzeko biztanleegan inposatzea askozaz ere errazagoa egin zitzaien. Kontrol hura, errepresio fisiko zein psikologikoaren bidez gauzatu zuten, aurreko kapituluan ikusi ahal izan dugunez.


Remito a V. tres ejemplares impresos sobre anuncio interesante a los padres, tutores o parientes de menores de edad, en paradero desconocido, que se presuma hayan sido expatriados por los rojos, dando instrucciones facilitadoras para el rescate de dichos niños, por lo que a sus expresados encargados se refiere, a fin de que se sirva fijar uno de los ejemplares en la tablilla de anuncios del Juzgado de su digno cargo; otro de los ejemplares lo remitirá al Sr. Cura Párroco del pueblo donde tiene su residencia ese Juzgado para que lo fije en la puerta de la Iglesia, y, a ser posible, si lo tiene a bien, exprese a los feligreses de esa Parroquia la importancia del contenido del expresado anuncio, en relación con el rescate de los niños españoles expatriados; el tercer ejemplar del anuncio se servirá remitirlo al Alcalde para que lo fije en la tablilla del Ayuntamiento, con el ruego además de que ordene la publicación de este anuncio mediante pregón, para conocimiento de todos los vecinos de ese término municipal.

Todo lo verificará V. con la posible urgencia, siempre dentro del término de tercero día, sirviéndose comunicar al Excmo. Sr. Presidente de esta Territorial haberlo verificado puntualmente sin dilación.

Lo que de orden del Excmo. Sr. Presidente comunico a V.

Dios guarde a V. muchos años.

Pamplona 21 de Marzo de 1939.– III Año Triunfal.

Sr. Juez Municipal de Alzo

**Iruñeko Lurralde Auzitegiaren eskaera, ume errefuxiatuak aberriratzeko.** (Altzoko Udal Agiritegia).


Los que suscriben, Alcalde y Jfe local de la Falange Española Tradicionalista y de las JONS. de Guetaria, autorizan, á petición de sus familiares á Dña. Josefa Oyarzabal Aguirre, para que con sus dos criaturas y la cuñada Remigia Idiaquez con sus niños que procedentes de Francia se encuentran en la Comandancia Militar de Fuenterrabia para que prosigan su viaje á esta, para reintegrar á sus hogares.

Guetaria, 9 de Septiembre de 1937

El Alcalde

El Jefe local

**Josefa Oiarzabal Agirre eta "Remi" Idiakez Indoren Getariara sartzeko baimena.** (GUA).

GETARIAKO ERREFUXIATUEN ZERRENDA

| IZEN-ABIZENAK | HELMUGA | DATU-GEHIGARRIAK |
|---|---|---|
| **AIZPURU SUSTAETA, BENITE** | Bilbo | Justina Sustaeta Azkarraga eta Agustin Aizpuru Lazkanoren alaba / Haur kanporatua eta errefuxiatua |
| **ALBERDI ARANBURU, ANTONIA** | Montpellier (Frantzia) | - |
| **ALBERDI ARANBURU, MANUELA** | Montpellier (Frantzia) | - |
| **ALBIZU AGINAGALDE, SEVERIANA** | Katalunia | Emakume kanporatua / Lekeitio, Gernika, Bilbo, Frantzia eta handik Kataluniarako bidea egin zuen bere seme-alabekin |
| **ALEGRIA LASA, ANTONIO** | Venezuela | Bigarren Errepublikako Getariako alkatea (EAJ/PNV) / Getaria, Capbreton (Frantzia), Veracruz (Mexiko), Venezuela |
| **ALKORTA ALDAIZ, ANTONIO** | Ezezaguna | Getariatik Bilbora eta Bilbotik Santanderrera egin zuen, bere pista bertan galtzen zaigularik |
| **ALKORTA ALDAIZ, KARMEN** | Bartzelona (Katalunia) | 1938an Bartzelonan aurkitzen zen eta 8 urte zituen / Haur errefuxiatua |
| **ALKORTA ALDAIZ, MERCEDES** | Bartzelona (Katalunia) | 1938an Bartzelonan aurkitzen zen eta 14 urte zituen / Haur errefuxiatua |
| **ALKORTA ZUMETA, JOSEFA** | Bilbo | 1937ko apirilaren 18ko hegazkin frankisten bonbardaketek hil zuten. Derioko hilerrian hilobiratu |
| **ARANGUREN BURGAÑA, BENITA** | Laredo (Kantabria) | Salvadora Burgaña Etxebarria eta Manuel Aranguren Iñarraren alaba. / Salvadora Burgaña Etxebarria Getariatik espultsatzean, berekin egin zuen Bilbo eta handik Laredorako bidea. / 14 hilabeterekin, gaixotuta hil eta Laredon hilobiratu zuten. / Haur kanporatua eta errefuxiatua |
| **ARANGUREN BURGAÑA, IGNACIO MARIA** | Landak (Frantzia) | Salvadora Burgaña Etxebarria eta Manuel Aranguren Iñarraren semea. / Erbestean izandako haurra, gaixotasunez hil eta bertan ehortzi zuten. / Haur errefuxiatua |

[669] Testigantza: Maria Antonia Burgaña Martija, Jose Angel Kerejeta Urresti eta Andoni Arregi Oiarzabal.

| IZEN-ABIZENAK | HELMUGA | DATU-GEHIGARRIAK |
|---|---|---|
| **ARGIBE URAOLA, PAULO** | Frantzia | - |
| **ARREGI OIARZABAL, ANDONI** | Normandia (Frantzia) | Josefa Oiarzabal Agirre eta Jose Leandro Arregi Leizaolaren semea. / Getariatik, Lekeitiora eta handik Foruara. Gernikako bonbardaketan beren ama Josefa Oiarzabal Agirre azokara joana zen. / Handik Bilbora eta haren ostean, Bordeaux-era (Frantzia) egin zuten. / Haur kanporatua eta errefuxiatua |
| **AZKUE IBARBIA, JUAN** | Landak (Frantzia) | Euskadiko Gudontzidiko gudari ohia. / 11 hilabete Frantzian |
| **AZKUE IDIAKEZ, MIKEL** | Frantzia | Mercedes Idiakez Indo eta Jose Domingo Azkue Uzinen semea. / 2 urte zituen. Getariatik Bilbora eta handik Frantziara. / Haur kanporatua eta errefuxiatua |
| **AZKUE IRIBAR, JOXE** | Landak (Frantzia) | Angela Iribar Areizagaren eta Juan Azkue Ibarbiaren semea. / Getariatik, Lekeitiora eta handik Bilbora. Azkenik, Frantziara. / 11 hilabete Frantzian / Haur kanporatua eta errefuxiatua |
| **AZPEITIA IBARBIA, MAXIMINA** | Santander (Kantabria) | Getariatik Bilbora eta handik Santanderrera |
| **BASURTO OÑEDERRA, FELICIANA** | Bilbo | Emakume kanporatua. / Getariatik Bilbora |
| **BERASALUZE EGAÑA, PILAR** | Renedo de Pielagos (Kantabria) | Renedo de Pielagos (1937/06/21) |
| **BURGAÑA ETXEBARRIA, JUAN** | Landak (Frantzia) | Euskadiko Gudontzidiko gudari ohia. / Cipriano, Nikasio eta Gerardo Kerejeta Agoterekin batera basoetan lanean jardun zuen |
| **BURGAÑA ETXEBARRIA, MARIA** | Ipar Euskal Herria | Errepublikazalea. / Laredotik Ipar Euskal Herrira |
| **BURGAÑA ETXEBARRIA, SALVADORA** | Landak (Frantzia) | Emakume kanporatua. / Getariatik, Bilbora, Laredora eta Landetara |
| **DARKISTADE GARAI, ALBERTO** | Saint Cyprien eta Gurs-eko kontzentrazio-eremuak (Frantzia) | - |
| **EGAÑA ARRIZABALAGA (edo AGIRREZABAL), BERNARDA** | Bilbo | - |
| **EGAÑA MANTEROLA, MIREN** | Bilbo | - |
| **EGURBIDE BASURTO, CIRILO** | Bilbo | Feliciana Basurto Oñederra eta Jose Egurbide Azpeitiaren semea./ Haur kanporatua eta errefuxiatua |
| **EGURBIDE BASURTO, EUGENIO** | Bilbo | Feliciana Basurto Oñederra eta Jose Egurbide Azpeitiaren semea. / Haur kanporatua eta errefuxiatua |
| **EGURBIDE BASURTO, MARI KARMEN** | Bilbo | Feliciana Basurto Oñederra eta Jose Egurbide Azpeitiaren alaba. / Haur kanporatua eta errefuxiatua |
| **EGURBIDE OIARZABAL, ISABEL** | Normandia (Frantzia) | Josefa Oiarzabal Agirre eta (*****) Egurbideren alaba. / Getariatik, Lekeitiora eta handik Foruara. Gernikako bonbardaketan beren ama Josefa Oiarzabal Agirre azokara joana zen. / Handik Bilbora eta haren ostean, Bordeaux-era (Frantzia) egin zuten. / Haur kanporatua eta errefuxiatua |
| **EIZAGIRRE, NIEVES** | Bidart (Ipar Euskal Herria) | Emakume kanporatua. / Getariatik, Bilbora, Santanderrera eta azkenik Bidart-era bere alabarekin |
| **EIZAGIRRE ZUBIMENDI, KARMEN** | La Ferte Mace (Orne, Frantzia) | Getariatik, Bilbora eta handik La Ferte Mace (Orne, Frantzia). / Haur kanporatua eta errefuxiatua. / Zumaiara itzuli |
| **EIZAGIRRE ZUBIMENDI, MIREN EDURNE** | La Ferte Mace (Orne, Frantzia) | Getariatik, Bilbora eta handik La Ferte Mace (Orne, Frantzia). / Haur kanporatua eta errefuxiatua. / Zumaiara itzuli |
| **ETXEBARRIA BERRIO, CONCEPCIÓN** | Santander | 1937an Santanderren aurkitzen zen |
| **ETXEBARRIA BERRIO, FRANCISCA** | Bartzelona (Katalunia) | 1938an Bartzelonan (Katalunia) aurkitzen zen |
| **ETXEBARRIA BERRIO, JUAN** | Bartzelona (Katalunia) | - |
| **ETXEBARRIA BERRIO, MARIA TERESA** | - | Bilbotik itsasontzi ingeles batean ebakuatua |
| **GESALAGA ARRIOLA, JOSE** | Frantzia | EAJ/PNV. / Gudari ohia |
| **IDIAKEZ INDO, MARIA** | Hendaia (Ipar Euskal Herria) | Bere seme eta senarrarekin erbesteratua |
| **IDIAKEZ INDO, MERCEDES** | Frantzia | Emakume kanporatua. / Getariatik Bilbora eta handik Frantziara bere semearekin |
| **IDIAKEZ INDO, "REMI"** | Normandia (Frantzia) | Emakume kanporatua. / Bere bi alaba hartu eta bat familiarekin Getarian utzi: Getariatik, Lekeitiora eta handik Foruara; Gernikara, Bilbora eta handik Normandiara (Frantzia) |
| **ILLARRAMENDI GALDOS, PAULINA** | Frantzia | Bere alabari, haren alaba eramatera joan zen eta 1937ko azaroaren 30ean Frantzian aurkitzen zen |
| **IÑARRA ETXABE, JOSE** | Landak (Frantzia) | EAJ/PNV-ELA/STV. |
| **IÑARRA ETXABE, MAURICIO** | Hasparren (Ipar Euskal Herria) | EAJ/PNV-ELA/STV |
| **IÑARRA ETXABE, MIGUEL** | Argelès-sur-Mer kontzentrazio-eremua (Ekialdeko Pirinioak) "Gernika-Berri"-n (1939/02/19). / Gurs kontzentrazio-eremua. / Borly Grares Sales (Haute Savoie). / (1939/06/04) | EAE/ANV-ko gudari ohia. / 142 zenbakiko Brigada Mixta Vasco-Pirineica-ko sarjentua |

| IZEN-ABIZENAK | HELMUGA | DATU-GEHIGARRIAK |
|---|---|---|
| **IRIBAR AREIZAGA, ANGELA** | Landak (Frantzia) | Emakume kanporatua. / Getariatik, Lekeitiora eta handik Bilbora. Azkenik, Frantziara. / 11 hilabete Frantzian |
| **IRIGOIEN EGAÑA, JUAN MANUEL** | Santander (Kantabria) | Zumaia, Lekeitio, Colindres eta azkenik, Santander. / Zumaia-Getaria |
| **IRIGOIEN LAZKANO, BENJAMIN (7 urte)** | Santander (Kantabria) | Zumaia, Lekeitio, Colindres eta azkenik, Santander. / Zumaia-Getaria. / Haur errefuxiatua |
| **IRIGOIEN LAZKANO, EMILIO (8 urte)** | Santander (Kantabria) | Zumaia, Lekeitio, Colindres eta azkenik, Santander. / Zumaia-Getaria. / Haur errefuxiatua |
| **IRIGOIEN LAZKANO, EUSEBIO (14 urte)** | Santander (Kantabria) | Zumaia, Lekeitio, Colindres eta azkenik, Santander. / Zumaia-Getaria. / Haur errefuxiatua |
| **IRIGOIEN LAZKANO, MARCIELA (17 urte)** | Santander (Kantabria) | Zumaia, Lekeitio, Colindres eta azkenik, Santander. / Zumaia-Getaria. / Haur errefuxiatua |
| **IRIGOIEN LAZKANO, MARIA TERESA (10 urte)** | Santander (Kantabria) | Zumaia, Lekeitio, Colindres eta azkenik, Santander. / Zumaia-Getaria. / Haur errefuxiatua |
| **IRIGOIEN LAZKANO, MARIANO** | Santander (Kantabria) | Zumaia, Lekeitio, Colindres eta azkenik, Santander. / Zumaia-Getaria. / Haur errefuxiatua |
| **IRIGOIEN LAZKANO, SANTOS (10 urte)** | Santander (Kantabria) | Zumaia, Lekeitio, Colindres eta azkenik, Santander. / Zumaia-Getaria. / Haur errefuxiatua |
| **IRURETAGOIENA OLANO, JOSE MARIA** | Katalunia | Ermua, Gernika, Bilbo, Bordele (Frantzia), Katalunia. / Haur errefuxiatua |
| **IRURETAGOIENA OLANO, MARIA ANGELES** | Katalunia | Ermua, Gernika, Bilbo, Bordele (Frantzia), Katalunia. / Haur errefuxiatua |
| **IRURETAGOIENA OLANO, MARIA (MIREN)** | Katalunia | Ermua, Gernika, Bilbo, Bordele (Frantzia), Katalunia / Haur errefuxiatua |
| **ISASTI AIZPURU, EMETERIO** | Paris (Frantzia) | EAJ/PNV |
| **ISASTI AIZPURU, IGNACIO** | - | - |
| **ITUARTE ESNAL, ITZIAR** | Renazé (Frantzia) | Haur errefuxiatua |
| **ITUARTE ESNAL, LORE** | Renazé (Frantzia) | Haur errefuxiatua |
| **ITUARTE ETXEBARRIA, JOSE LUIS** | Argentina | Getaria, Dakar (Senegal), Sidi-el-Ayashy eta Kasha Tadla kontzentrazio-eremuak, Argentina |
| **ITUARTE URBIETA, ANTONIO** | Donibane Lohizune (Ipar Euskal Herria) | EAJ/PNV |
| **KEREJETA AGOTE, CIPRIANO** | Landak (Frantzia) | Getariatik ihes egin behar izan zuen. / Gerardo eta Nikasio Kerejeta Agote anaiekin eta Juan Burgaña Etxebarriarekin batera basoetan lanean jardun zuen |
| **KEREJETA AGOTE, GERARDO** | Landak (Frantzia) | Euskadiko Gudontzidiko gudari ohia. / Cipriano eta Nikasio Kerejeta Agote anaiekin eta Juan Burgaña Etxebarriarekin batera basoetan lanean jardun zuen |
| **KEREJETA AGOTE, NIKASIO** | Arroxela (Frantzia) | Euskadiko Gudontzidiko gudari ohia. / Cipriano eta Gerardo Kerejeta Agote anaiekin eta Juan Burgaña Etxebarriarekin batera basoetan lanean jardun zuen |
| **KEREJETA URRESTI, BAUTISTA** | Privas (Frantzia) | Hipolita Urresti Andonegi eta Nikasio Kerejeta Agoteren semea. / Getaria, Zumaia, Gernika, Karrantza, Bilbo, Santoña eta azkenik, Privas (Frantzia). / Haur kanporatua eta errefuxiatua |
| **KEREJETA URRESTI, JOSE ANGEL** | Privas (Frantzia) | Hipolita Urresti Andonegi eta Nikasio Kerejeta Agoteren semea. / Getaria, Zumaia, Gernika, Karrantza, Bilbo, Santoña eta azkenik, Privas (Frantzia). / Haur kanporatua eta errefuxiatua |
| **LARRAÑAGA, NAZARIA** | Donibane Lohizune (Ipar Euskal Herria) | - |
| **LARREA EPELA, NIKASIO** | La Habana (Cuba) | Apaiz euskal nazionalista. / Errefuxiatua. / Capbreton (Frantzia) 1938/12/18. / La Habana 1940 (Cuba) |
| **LASA MURUA, MARTIN** | Capbreton (Frantzia) | Zarautzeko Defentsa Komiteko Gerra Komisariako kide |
| **LAZKANO BASURTO, RUFINA** | Santander (Kantabria) | Emakume errepublikazalea / Zumaia, Lekeitio, Colindres eta azkenik, Santander. / Zumaia-Getaria |
| **LOPEZ AZPEITIA, ANTONIO** | Santander (Kantabria) | Maximina Azpeitia Ibarbia eta Alfonso Lopez-en semea. / Getaria, Bilbo, Santander (Kantabria). / Haur kanporatua eta errefuxiatua |
| **LOPEZ HERNANDEZ, JUSTO** | Bilbo | - |
| **OIARZABAL AGIRRE, JOSEFA** | Normandia (Frantzia) | Emakume kanporatua. / Bere seme-alabekin, Getaria, Lekeitio, Forua, Gernika, Bilbo, Santander, Normandia (Frantzia) |
| **OIARZABAL IDIAKEZ, ARANTZA** | Normandia (Frantzia) | “Remi” Idiakez Indo eta Juan Bautista Oiarzabal Agirreren alaba. / Getaria, Lekeitio, Forua, Gernika, Bilbo, Santander, Normandia (Frantzia). / Haur kanporatua eta errefuxiatua |
| **OIARZABAL IDIAKEZ, KONTXITA** | Normandia (Frantzia) | “Remi” Idiakez Indo eta Juan Bautista Oiarzabal Agirreren alaba. / Getaria, Lekeitio, Forua, Gernika, Bilbo, Santander, Normandia (Frantzia). / Haur kanporatua eta errefuxiatua |
| **OLANO, JOSEFA** | Katalunia | Emakume errefuxiatua. / Bere seme-alabekin Ermua, Gernika, Bilbo, Bordele (Frantzia), Kataluniara erbestera |
| **RICA URBIETA, JUANA** | Frantzia | 1937ko azaroaren 10ean Getariara itzuli |
| **SANTAMARIA IDIAKEZ, VICENTE** | Frantzia | EAJ/PNV |
| **SUSTAETA AZKARRAGA, JUSTINA** | Bilbo | - |

| IZEN-ABIZENAK | HELMUGA | DATU-GEHIGARRIAK |
|---|---|---|
| **ULAZIA OSTOLAZA, DIONISIO** | Kanbo (Ipar Euskal Herria) | EAJ/PNV |
| **URBIETA BURGAÑA, ANTONIA** | Ipar Euskal Herria | Maria Burgaña eta Primitivo Urbietaren alaba |
| **URBIETA BURGAÑA, GREGORIO** | Ipar Euskal Herria | Maria Burgaña eta Primitivo Urbietaren semea |
| **URBIETA BURGAÑA, JUAN MARI** | Ipar Euskal Herria | Maria Burgaña eta Primitivo Urbietaren semea |
| **URBIETA BURGAÑA, MARITXU** | Ipar Euskal Herria | Maria Burgaña eta Primitivo Urbietaren alaba |
| **URBIETA BURGAÑA, TOMAS** | Ipar Euskal Herria | Maria Burgaña eta Primitivo Urbietaren semea |
| **URANGA SILBETI, ESTEBAN** | Frantzia | - |
| **URBIETA EMBIL, PRIMITIVO** | Ipar Euskal Herria | Getariako udalbatza errepublikazaleko kide izandakoa |
| **URBIETA ESNAL, FERMINA** | Frantzia | 1937ko azaroaren 10ean Getariara itzuli |
| **URRESTI ANDONEGI, HIPOLITA** | Privas (Frantzia) | Emakume kanporatua. / Bere semeekin Getaria, Zumaia, Gernika, Karrantza, Bilbo, Santoña eta azkenik, Privas (Frantzia) |
| **UZIN ALBIZU, ANA** | Bartzelona (Katalunia) | Severiana Albizu Aginagalde eta Jose Domingo Uzin Alkortaren alaba. / Lekeitio, Gernika, Bilbo, Frantzia eta handik Katalunia. / Haur kanporatua eta errefuxiatua |
| **UZIN ALBIZU, FLORENCIO (PRUDENCIO)** | Bartzelona (Katalunia) | Severiana Albizu Aginagalde eta Jose Domingo Uzin Alkortaren semea. / Lekeitio, Gernika, Bilbo, Frantzia eta handik Katalunia. / Haur kanporatua eta errefuxiatua |
| **UZIN ALBIZU, MARIA CRUZ** | Bartzelona (Katalunia) | Severiana Albizu Aginagalde eta Jose Domingo Uzin Alkortaren alaba. / Lekeitio, Gernika, Bilbo, Frantzia eta handik Katalunia. / Haur kanporatua eta errefuxiatua |
| **UZIN ALBIZU, SALVADOR** | Bartzelona (Katalunia) | Severiana Albizu Aginagalde eta Jose Domingo Uzin Alkortaren semea. / Lekeitio, Gernika, Bilbo, Frantzia eta handik Katalunia. / Haur kanporatua eta errefuxiatua |
| **UZIN ALBIZU, SIMON** | Bartzelona (Katalunia) | Severiana Albizu Aginagalde eta Jose Domingo Uzin Alkortaren semea. / Lekeitio, Gernika, Bilbo, Frantzia eta handik Katalunia. / Haur kanporatua eta errefuxiatua |
| **VILLAVERDE PURAS, ANA** | Cambrai (Frantzia) | Bigarren Errepublikan zehar eskola nazionaletako irakasle izana. / Julian Martinez Gil maisuarekin ezkondutakoa. / Beraien bi haurrekin erbesteratutakoa |
| **ZENOSIAIN EIZAGIRRE, MIREN EDURNE** | Bidart (Ipar Euskal Herria) | Nieves Eizagirreren alaba. / Getariatik, Bilbora, Santanderrera eta azkenik Bidart-era. / Haur kanporatua eta errefuxiatua |
| **ZUBIMENDI EIZAGIRRE, IGNACIA** | La Ferte de Mace (Orne, Frantzia) | - |
| **ZUBIMENDI LARRAÑAGA, IGNACIA** | La Ferte de Mace (Orne, Frantzia) | Emakume kanporatua. / Getariatik, Bilbora eta handik La Ferte Mace (Orne, Frantzia). / Zumaiara itzuli |
| **ZUBIZARRETA LARRAÑAGA, JON** | Scarborough (Ingalaterrako ipar-ekialdeko kostaldea) | Amelia Larrañaga eta Jose Zubizarretaren semea. / Bilbotik Scarborough-era (Ingalaterrako ipar-ekialdeko kostaldea). / Haur errefuxiatua |
| **ZUBIZARRETA LARRAÑAGA, IÑAKI** | Scarborough (Ingalaterrako ipar-ekialdeko kostaldea) | Amelia Larrañaga eta Jose Zubizarretaren semea. / Bilbotik Scarborough-era (Ingalaterrako ipar-ekialdeko kostaldea). / Haur errefuxiatua eta hildakoa |

## 4.4. ERBESTEKO KONTZENTRAZIO-ESPARRUAK

Gerra amaitzekotan eta amaitu berritan, zibilek ez ezik, zenbait gudari zein milizianok ere alde egin beharra izan zuten. 1939ko urtarrilaren 27an, Bartzelonaren aurkako ofentsiba amaitu ostean, zenbait zibilekin batera, gerran jardun zuten zenbait errepublikazalek, Frantziarako muga zeharkatzeari ekin zioten. Gerrak iraun zuen azken hilabeteetan, 500.000 pertsona inguruk zeharkatu zuten Frantziako muga. Behin hara iritsita, estatuaren hego-ekialdeko kontzentrazio-eremuetan ezarri zituzten gehienak: Argelès-sur-Mer, Saint Cyprien, Le Vernet d'Ariège, Barcarès eta Septfonds-en.



**Errefuxiatuak Irunetik Hendaiara alde egiten.** (Euskal Memoria Fundazioa).

Frantzia ez zen getariar erbesteratuek hartutako helmuga bakarra izan. Flota Errepublikarreko Euskadiko Gudontzidiko gudari getariar haietako batzuk, gerra amaitzear zela, Afrika iparraldeko kontzentrazio-eremuetan amaitu zuten.

Ordurako, Euskadiko Gudontzidiko zenbait gudari jada Ipar Euskal Herrian aurkitzen ziren. 1937ko urrian, tropa frankistek Asturias menpean hartzean euskal bou eta txalupa motordunekin ihesi joanak ziren. Aurreko kapituluan esan dugunez, haietako batzuek, Frantziatik Mediterraneora egin zuten eta han, Flota Errepublikarrean zerrendatu.

Haien zortea zorigaitzekoa bihurtu zen, gerra amaitu bezain laster, Afrika iparraldeko kontzentrazio-eremuetan kontzentratu baitzituzten. Hura izan zen, esaterako, Modesto Aranburu Arrieta, Luciano Azkue Uzin, Andres Bordagarai Eizagirre, Eusebio Garmendia Lazkano, Jose Iñarra Mayor, Pedro Lete Correa, Jose Maria Olaskoaga Zubimendi, Victoriano Sustaeta Azkarraga eta Jose Maria Zaya Sancho-ren kasua.

1939ko martxoaren 7an, 4.903 marinel, zibil, Eraso Guardia eta karabinero batzuekin, goizeko 08:00ak inguruan, Bizerta-ko (Tunisia) portura iritsi ziren; Frantziako gobernuak Oran eta Argelen atrakatzea debekatu zien. Martxoaren 12ra bitartean, guztiek itsasontzietan egon beharra izan zuten eta behin baimena emandakoan, txanda ezberdinetan jaitsi zituzten. Handik, gaizkileak bailiran gisan, soldadu senegaldar, gendarme eta *Garde Républicaine Mobile*-n pelotoien zaintzapean, Meknassy herrira eramango zituen trenera lekualdatu zituzten. Autoritate frantsesek gaizkileak bailiran tratatu bazituzten ere, herritarren artean zenbait laguntzarako talde sortu zituzten *Comité de Tunisie du Rassemblement Populaire* kasu. Ferryville-ko tren estazioan izugarrizko ongietorria egin zieten gudari, zibil zein miliziano errepublikazaleei.

Ongi etorri horrek, gutxienez, txakurrak baino okerrago tratatu zituzten errepublikazaleei, izugarrizko indarra eman zien. Gerra galtzetik zetozen, atsekabetuta zeuden, asko ia-ia hondoak jota eta herrialde berrira heltzean, hango autoritateek, galtzaile izaera oraindik eta sakonago adierazi besterik ez zieten egin. Gerraren krudelkerietatik, atzerriko kontzentrazio-eremuetako gose eta miseriara pasa ziren. Frankisten umilazioetatik, frantsesen umilazioetara. Preso politikoen izaera galdu eta gaizkile hutsalak bailiran tratatu zituzten.




**Flota Errepublikarra Bizerta-ra iristen, 1939ko martxoaren 7a.** (https://ignaciotrillo.wordpress.com/2017/08/23/32607/)).

**Getariar gudariek egindako ibilbidea.** (Oihane Mendizabal Sandonís).



**"Laukilaria" tortura lekua.** (Victoria Fernández Díaz).

Horren adierazle, Meknassy herrira lekualdatzeko, Ferryville-ko tren estazioan, animaliak lekualdatzen zituzten bagoietan sartu izana. Geldialdirik gabeko bidai amaigabe hartan, beren beharrak bagoian bertan egin behar izan zituzten, urik eta janaririk gabe. Behin, Meknassyra iritsita, handik Meheri-Zebbeus-eko kontzentrazio-esparrurako 8 kilometroko bidea oinez egin behar izan zuten. Gosez eta egarriz, kasik hil zorian haietako asko, basamortuaren erdian kokatutako kontzentrazio-eremura iritsi ziren.

Basamortuan kokatutako kontzentrazio-eremu hura, garai bateko kare-fosfatozko meategiaren inguruan sortutako herrixka baten arrastoen inguruan eraikitakoa zen. Alanbrez inguratutako harlangaitzezko eraikin multzo bat zen, Tunisiako landa-poliziak eta 120 guardia mugikor inguruk zaindua. Herrixkaren erdian zegoen elizan, Flota Errepublikarreko botikinetatik hartutako medikamentuak probestuz erizaintzarako gunea ezarri zuten:



**Meheri-Zebbeus-eko (Tunisia) kontzentrazio-eremua.** (Victoria Fernández Díaz).

"Una vaguada cruzaba el campamento y, al otro lado, sobre un repecho, hileras de casitas, más modestas, que habían sido el alojamiento de los mineros. Las salidas y entradas por la única puerta abierta en la alambrada estaban muy controladas, aunque en realidad no había a dónde ir en medio de un erial. Fuera del campo montaban guardia armada los spahis y los guardias móviles día y noche"[670].

670 Victoria Fernández Díaz. "El exilio de los marinos republicanos" liburuaren idazlea eta gaian aditua. http://exiliomarinosrepublicanos.blogspot.com/2017/02/

Autoritate frantsesek beren propagandan ura eta elektrizitatea zeukatela esan arren, han ez zen halakorik. Hori gutxi ez balitz, ez zegoen 4.000 pertsona inguru haientzako guztientzako komunik ere, eta beraz, ahal bezala moldatzen ziren beren beharrak egin ahal izateko. Errepublikazale haiek guztiek urte luzez isilpean gorde duten egoera deitoragarria bizi izan zuten. Etxetxo bakoitzean, 12-20 gizonezko inguruk hilabetean behin aldatzen zituzten lastozko fardoen gainean lo egiten zuten:

“Los propios marinos tuvieron que arreglar la instalación eléctrica, cavar zanjas para las letrinas, reparar los motores y bombas de un pozo que había a unos cuantos kilómetros del campo para obtener un poco de agua para beber. Para lavarse, de momento, nada”[671].

Autoritate frantsesek, errefuxiatu bakoitzari, soldadu frantses baten janari errazioa eskainiko zietela aitortu zieten. Hori ez zen bete eta eguneko 4 franko ematen zizkieten bakoitzari. Konponketa lanak egiten ari ziren errepublikazale haientzat guztientzat egunerokoan bizi ahal izateko zinez diru gutxi zen:

“En julio de 1939 fue mandado con otros 280 marinos a la 7ª Compañía de Trabajadores Extranjeros, anexionada al 1er Batallón de Infantería Ligera, conocido más comúnmente como el batallón disciplinario. Los mandaron al desierto de Gabès, cerca de la frontera con Libia, ocupada por los italianos de Mussolini a construir en condiciones infrahumanas una vía estrecha de ferrocarril a pico y pala”[672].

Janariari dagokionez, eskasa zen, normalean ura eta potaje motaren bat ematen zieten, ur gehiago potajea baino. Harik eta larriagoa dena, ogiari, beruna eta igeltsua ezartzen zieten gehiago pisatzeko eta beraz, ezin izaten zuten behar bezala jan, haien osasuna lehen ere ez baitzen ona eta halako materialak irentsiz gero, pertsona osasuntsu batek baino kalte handiagoak izaten zituzten. Muturreko egoera horri ehiza bidez egin zieten aurre zenbaitetan:

“Con el tiempo, los marinos aprendieron a cazar camaleones y a tenerlos de animales de compañía y cazamoscas. Además, el campo estaba infestado de tarántulas, escorpiones y culebras. Más de uno fue llevado a la enfermería para inyectarle un antídoto contra el veneno. También tuvieron que convivir *«con una compañía de ratas»* que, al parecer, alguno consiguió amaestrar”[673].

Ez zuten ez mantarik, ez koilararik eta platerrik ere jan ahal izateko. Horrenbestez, askotan, beren adiskideek amaitu zain egon behar izaten zuten sabela ase ahal izateko. Arestian aipatutako Modesto Aranburu Arrieta, Luciano Azkue Uzin, Andres Bordagarai Eizagirre, Eusebio Garmendia Lazkano, Jose Iñarra Mayor, Pedro Lete Correa, Jose Maria Olaskoaga Zubimendi, Victoriano Sustaeta Azkarraga eta Jose Maria Zaya Sancho-k egoera latz hura bizi behar izan zuten.

Egoera lazgarri hartan, preso bat baino gehiago handik alde egiten ere ahalegindu zen, baina kasurik gehienetan berriro ere atxilotu eta egoera latzagoetara kondenatu zituzten. Kontzentrazio-eremuaren inguruko biztanleei sariak eskaintzen zizkieten presoak harrapatu eta berriro ere kontzentrazio-eremura itzuliz gero:

“Al ser devueltos al campo, eran encerrados en los calabozos –una casa habilitada al efecto– atados con cadenas, condenados a pan y agua, sin paja ni manta durante 30 días o más”[674].

1939ko martxoaren amaieran, Salvador Moreno almirante frankista Bizerta-ko portura iritsi zen, Pétain mariskalarekin eztabaidatu eta akordio batera iritsita, Flota Errepublikarraren itsasontziak Espainia frankistara aberriratu asmoz. Horrekin batera, frankistek, Meheri-Zebbeus-eko kontzentrazio-eremuan zeuden errepublikazaleei, telegrama baten bidez, aberriratzea eskainiz gero, amnistia izango zutela aitortu zieten. Tratu hori ordea, frankistek errepublikazaleei aitortutako beste zenbaiten gisan, ez zuten bete eta aberriratutako 2.000 marinel inguru kondenatu egin zituzten “odol delituak” ez bazituzten ere. Haien artean zenbait getariar aurkitu ahal izan ditugu:

| IZEN-ABIZENAK | URTEAK | ONTZI-POSTUA EDO LANBIDEA | ONTZIAK EDO EGONDAKO TOKIAK | FILIAZIOA |
|---|---|---|---|---|
| **ARANBURU ARRIETA, MODESTO** | - | Marinela | Meknassy/Meheri-Zebbeus kontzentrazio-esparrua (Tunisia) / (1939/03/23-Flota errepublikarrarekin penintsulara) | - |
| **AZKUE UZIN, LUCIANO** | 20 | Marinela | Libertad itsasontzian, 2. Marinel gisan. / Meknassy/Meheri-Zebbeus kontzentrazio-esparrua (Tunisia). / (1939/03/23-Flota errepublikarrarekin penintsulara). / Rotako Kontzentrazio-Eremua | EAJ/PNV |
| **BORDAGARAI EIZAGIRRE, ANDRES** | 20 | Marinela | Meknassy/Meheri-Zebbeus kontzentrazio-esparrua (Tunisia). / (1939/03/23-Flota errepublikarrarekin penintsulara) | EAJ/PNV |
| **IÑARRA MAYOR, JOSE** | - | Marinela | Meknassy/Meheri-Zebbeus kontzentrazio-esparrua (Tunisia). / (1939/03/23-Flota errepublikarrarekin penintsulara) | - |
| **LETE CORREA, PEDRO** | 30 | Marinela | Meknassy/Meheri-Zebbeus kontzentrazio-esparrua (Tunisia). / (1939/03/23-Flota errepublikarrarekin penintsulara). / 1940ko ekainean, Cadizeko San Fernandoko kontzentrazio-eremuan aurkitu | EAJ/PNV |

671 *Ibidem.*
672 *Ibidem.*
673 *Ibidem.*
674 *Ibidem.*

| IZEN-ABIZENAK | URTEAK | ONTZI-POSTUA EDO LANBIDEA | ONTZIAK EDO EGONDAKO TOKIAK | FILIAZIOA |
|---|---|---|---|---|
| **OLASKOAGA ZUBIMENDI, JOSE MARIA** | 26 | Marinela | Ulloa itsasontzia. / Meknassy/Meheri-Zebbeus kontzentrazio-esparrua (Tunisia). / (1939/03/23-Flota errepublikarrarekin penintsulara 1939/04/03) | IR/UGT |
| **SUSTAETA AZKARRAGA, VICTORIANO** | 28 | Marinela | Meknassy/Meheri-Zebbeus kontzentrazio-esparrua (Tunisia). / (1939/03/23-Flota errepublikarrarekin penintsulara 1939/04/03) | EAJ/PNV |
| **ZAYA SANCHO, JOSE MARIA** | - | - | Meknassy/Meheri-Zebbeus kontzentrazio-esparrua (Tunisia). / (1939/03/23-Flota errepublikarrarekin penintsulara) | - |


**Kenadsa-ko (Tunisia) ikatz-minak.**
(M. Llobet, El pasajero del Stanbrook: tragedia y memorias de un exiliado español).


**Kenadsa-ko (Tunisia) minetan gatibu-lanetan.**
(Benito Ruiz (hijo). Recuerdos, vida y muerte de un libertario desterrado).

Aberriratzeen ostean, 1850 errepublikazale geratu ziren kontzentrazio-esparruan preso, nahiago baitzuten Espainia frankistako bortizkeriak jasatea baino han geratzea; bi aukeren artean, erremedio handirik ez zuten, egiazki.

Frantziako Estatuaren ohiko lurraldean ezarritako kontzentrazio-eremuetan kokatutako errepublikazaleen egoera ez zen askoz hobea izan. Agintari frantsesek emandako tratua, zinez krudela izan zen. Tunisiako basamortuan egon beharrean, Frantziako hego-mendebaldeko hondartzetan, alanbrez inguraturik ezarri zituzten. Egoerarik onenean egurrezko barrakoi estalkiak zituzten eta hala ez zen kasuetan, hondarretan zulo bat egin eta kasurik onenean ere, manta izanez gero, bertan bilduta lo egiten zuten. Galtzaileen patua zinez zorigaitzekoa izan zen, eta aurreko lerroetan aipatu gisan, gaizkile misero gisan tratatu zituzten, gose, hotz eta egarri handia pasa behar izan zituztelarik.


**Errefuxiatu errepublikazaleak Frantziako kontzentrazio-eremu batean.**

Behin muga pasatzean Frantziara iritsita, gobernu frantsesak errefuxiatuen klasifikazioari ekin zion. Bram-era (Aude) adineko jendea bidali zuten, Agde (Hérault) eta Riversaltes (Ekialdeko Pirinioak) katalanei atxiki zitzaizkien; Sepfonds (Tarn-et-Garonne) eta Le Vernet (Ariège) langileentzat. Geroago, Argelès-sur-Mer, Saint-Cyprien (bien artean, 180.000 errefuxiatu izan zituzten), Prat-de-Molló, Gurs (23.000 errepublikazale eta 7.000 brigadista), Noé eta Barcarès (150.000 errefuxiaturekin) batu zitzaizkien. Gurs eta Le Vernet-eko kontzentrazio-eremuak, Frantziako garrantzitsuenak izan ziren, zeintzuk 1944ra arte funtzionatu zuten. Bertan, Bigarren Mundu Gerran zehar, zenbait errepublikazale, judu, errumaniar, ijito zein naziek gorrotatzen zituzten beste zenbait pertsona errepresaliatu ziren.

Euskaldunetako asko, Argelès-sur-Mer kontzentrazio-eremuan egon ziren, zeintzuk “Gernika-Berri” eremuan bildu ziren. Bertan, bi getariar egon ziren, Victor Estebez Ondategi (UGT) eta Miguel Iñarra Etxabe (ANV).

Lehenengoari dagokionez, UGT-koa izanik, ardura politikoz, Gerra Zibilean zehar, Gipuzkoan indar-errepublikarren armen kontrolean mobilizatu zen. Gerraren ostean, Kataluniatik Le Boulou-era egin zuen. 1939ko otsailaren 17an, Argelès-eko kontzentrazio-eremuan zegoen eta haren ostean, Gurs-eko kontzentrazio-eremuko Islote A. B$^{a}$ 19.-G$^{a}$-4$^{o}$-an egon zen. Gerraren eraginez, soldadu mutilatua zen.

Bigarrenari dagokionez, gerra hastean, 22 urte zituen eta, EAE/ANV-ko afiliatua izanik, ardura politikoz, indar-errepublikarrekin 142 zenbakiko Brigada Mixta Vasco-Pirineica-ko sarjentua izan zen. 1939ko otsailaren 12an Argelès-sur-Mer (Ekialdeko Pirinioak) “Gernika-Berri”-n aurkitzen zen. Gero, Gurs-eko kontzentrazio-eremuko Islote A., 24 barrakan eduki zuten. 1939ko ekainaren 4an, Borly Grares Sales-era (Haute Savoie) behizain irten zuen. Espainia frankistara aberriratu ostean, errepresioa jasan behar izan zuen.




**Frantziako kontzentrazio eremuen mapa.**
(Euskal Memoria Fundazioa).

Saint-Cyprien-eko kontzentrazio-eremuan egon zen getariarrik ere badugu. Pedro Setien Calvo, UGT-ko afiliatua izaki, Getariako Defentsa Batzordeko Komunikazioen Komisarioa izan zen, 1936ko irailaren 20an Getaria ebakuatu bitartean. Haren ostean, gerrara egin zuen Bizkaiko miliziekin. Behin gerra amaituta, muga zeharkatu eta gobernu frantsesak errefuxiatuak klasifikatzean, Saint Cyprien (Pyrénées-Orientales) kontzentrazio-eremuko 16. Zenbakiko esparruan sartu zuten. Handik, Gurseko kontzentrazio-eremuko, Islote C. 15 barrakoiko G° 5°-era lekualdatu zuten.

Alberto Darkistade Garai (ELA/STV), Enrike Darkistade Garai jaiotzez getariarraren anaia ere, Saint-Cyprien-eko kontzentrazio-eremuko 16. Zenbakiko eremuan sartu zuten. Haren ostean, Gurseko kontzentrazio-eremuko Islote A.- Bª 11.-G°1° egon zen.



**Errefuxiatuak Argelès-sur-Mer-en.**



ESTEVEZ ONDATEGUI, Victor - 32 años - San Sebastián - U.G.T. Nº 5077
Profesión: Pintor

Le Boulou.-
ARGELES.- 17/2/39.- Reclamado 3ª lista Sete nº 176
(Como MUTILADO).

**Victor Estebez Ondategi Argèles-sur-Mer-en.** (Euskadiko Artxibo Historikoa).



IÑARRA ETXABE Miguel.- 24 años.- Guetaria.- A.N.V. Nº 1201
Profesión: Labrador.
En Cataluña: SARGENTO del Bón. Alpino.

Argeles.-"Gernika-Berri"
12/2/39.

CAMPO DE GURS.- Islote A.24.- Sale a trabajar como VAQUERO el 4/6/39 a Borly Oraces Salea (Hta. Savoie).

**Miguel Iñarra Etxabe Frantziako kontzentrazio-eremuetan.** (Euskadiko Artxibo Historikoa).



SETIEN SAUD, Pedro - 26 años - Donostia - U.G.T. - P.C. - Nº 2738
Residencia Getaria - Conductor

Saint Cyprien

**Pedro Setien Calvo Saint-Cyprien-en.** (Euskadiko Artxibo Historikoa).



DARQUISTADE GARAI, Alberto - Santurce - Soldado - S.T.V. Nº 2864

Saint Cyprien

**Alberto Darkistade Garai Saint-Cyprien-en.** (Euskadiko Artxibo Historikoa).

Getariar gudari erbesteratu gehienek beraz, Gurs-eko kontzentrazio-eremuan preso amaitu zuten. Euskaldun gehienak hartu zituen kontzentrazio-eremua izan zen. Gerra Zibila amaitzear zela, 1939ko martxoaren 15ean berau eraikitzeko agindua eman zuten. 42 egunetan eraiki zuten eta, barrakoiak, kontzentrazio-eremuko tokirik esanguratsuenak bihurtu ziren. Azken hauek, egurrez eginak, 24 metroko luzera, 6 metroko zabalera eta 2,5 metroko altuera zuten. Agintari frantsesek beraz, hasieratik planteatuta zuten errefuxiatu ziren galtzaileak tratatuko zituzten modu miserablea.

Apirileko lehen egunetan, 4.178 preso euskaldun, Gurs-etik gertuen zegoen Olorón-Saint Marie deituriko tren estaziora lekualdatu zituzten. Bertan, Argelès-sur-Mer, Barcarès eta Saint-Cyprien-etik zetozen errefuxiatu euskaldunak zeuden. Behin herriko agintariek harrera eginda, ejertzito errepublikarraren 15 kamioietan Gurs-eko kontzentrazio-eremura eraman zituzten.

Gurs-en, “Gernika Berri”, Argelès-sur-Mer, Saint-Cyprien eta Barcarès-etik zetozen 15.000 errefuxiatu inguru sartu zituzten. Ikerlari batzuek bertan 18.500 errefuxiatu egon zirela berretsi dute.



Gerra Zibileko errefuxiatuak bizi behar zuten barrakoien eraikitzea, Frantzian.



Gurs-eko kontzentrazio -eremua (Frantzia).




Gurs-eko barrakoien planoak. (Euskal Memoria Fundazioa).




**Gurs-eko barrakoien planoak.** (Euskal Memoria Fundazioa).

## GURS-EN EGONDAKO ERREFUXIATU GETARIARRAK

| IZEN-ABIZENAK | FILIAZIOA |
|---|---|
| DARKISTADE GARAI, ALBERTO | ELA/STV |
| EIZAGIRRE FERNANDEZ, JOAKIN | - |
| ESTEBEZ ONDATEGI, VICTOR | UGT |
| IÑARRA ETXABE, MIGUEL | EAE/ANV |
| ISASTI URANGA, NAZARIO | - |
| SETIEN CALVO, PEDRO | UGT |

13 errepublikazale hil ziren kontzentrazio-eremuaren lehen etapan zehar.


DARQUISTADE GARAI Alberto.- 33 años.- Santurce.- S.T.V. Nº 2864
En Euzkadi:
En Cataluña: Soldado.
Profesión: Marinero.
S. Cyprien.- Campo nº 16.
CAMPO DE GURS.-Islote A.-Bª 11.-Cª 1ª.

**Alberto Darkistade Garai Gurs-eko kontzentrazio-eremuan.** (Euskadiko Artxibo Historikoa).


EIZAGUIRRE FERNANDEZ Joaquin.- 23 años.- Guetaria.- P.N.V.-UGT. Nº 8037
En Euzkadi: Marino.
En Cataluña: Carabinero
Profesión: Marino.
Hospital de Beziers.
AGDE.- 17/4/39.
CAMPO DE GURS.- Salió para España.

**Joakin Eizagirre Fernandez Gurs-eko kontzentrazio-eremuan.** (Euskadiko Artxibo Historikoa).


ESTEVEZ ONDATEGUI Victor.- 32 años.- Donostia.- U.G.T. Nº 5077
En Euzkadi:
En Cataluña:
Profesión: Pintor.
Le Boulou.-
ARGELES.- 17/2/39.- Reclamado 3ª lista Sete nº 176
(Como MUTILADO).
CAMPO DE GURS.-Islote A.-Bª 12.-Cª 4ª.

**Victor Estebez Ondategi Gurs-eko kontzentrazio-eremuan.** (Euskadiko Artxibo Historikoa).


ISASTI URANGA Nazario.- Nº 8669
CAMPO DE GURS.- Salió para España.

**Nazario Isasti Uranga Gurs-eko kontzentrazio-eremuan.** (Euskadiko Artxibo Historikoa).


SETIEN CALVO Pedro.- 26 años.- Donostia. - P.C.-U.G.T. Nº 2738
Residia en GETARIA.
En Euzkadi:
En Cataluña:
Profesión: Conductor Mecánico.
S. Cyprien.- Campo nº 16.
CAMPO DE GURS.-Islote C.-Bª 16.-Cª 5ª.

**Pedro Setien Calvo Gurs-eko kontzentrazio-eremuan.** (Euskadiko Artxibo Historikoa).




**"Gran-Hotel Euzkeldun", Le Barcàres-eko (Frantzia) kontzentrazio-eremua, 1939.** (Robert Capa eta Cornell Capa-ren artxibategia. @basquesoldiers-ek koloreztatua).



PRISIÓN PROVINCIAL
DE
SAN SEBASTIAN
DIRECCIÓN

Núm.

N/r 4450

S/R. 366

1.- MANUEL AZCUE AZCUE
2.- ISAIAS GONZALEZ RUBIO
3.- TEODORO MATARRAS CARREÑO

Tengo el honor de acusar recibo a V.Sa. de su atento escrito de fecha 6 de los corrientes, referencias al margen, en virtud del cual ha sido puesto en libertad el detenido en este Establecimiento a disposición de V. S. los tres anotados al margen

Dios guarde a V. S. muchos años
San Sebastián, a 10 de de 1947

ES COPIA

Sr. Coronel Jefe de la Frontera Norte de España
IRUN.-

Manuel Azkue Azkue aske. (AHPG-GPAH GEZ).

Etorkizun hobe baterako aukerarik ez zutela ikusita, zenbait erbesteratuek, Estatu Espainiar frankistara itzultzeko erabakia hartu zuten. Laster damutuko ziren hartutako erabakiaz, asko eta asko, epaiketa azkarra egin ostean, fusilatu egin baitzituzten. Beste batzuk, berriz, atxilotu eta Gerra-Kontseilua egin ostean, kontzentrazio-eremuetan gatibu-lanak egitera kondenatu zituzten. Esaterako, Jose Joakin Azkue Larrañaga getariarra, Irungo mugan frankistek atxilotu egin zuten. Ikerketan zehar ezin izan dugu zehaztu Frantziako kontzentrazio-eremuetan egonaldirik egin ote zuen. Behin Irungo mugan atxilotu ostean, beste zenbait presoren gisara, egun batzuetan inkomunikatuta izan zuten eta haren ostean, 1940ko azaroaren 16an Miranda de Ebroko (Burgos) kontzentrazio-eremura lekualdatu zuten, gatibu-lanetan jardun zezan. Handik, 1941eko martxoaren 27an Donostiako Ondarretako kartzelara lekualdatu zuten eta hurrengo egunean bertan askatasuna lortu zuen.

Jose Joakin Azkue Larrañagaren kasua ez zen bakarra izan. Manuel Azkue Azkue getariarrak 1947ko ekaina amaieran muga zeharkatzea lortu bazuen ere, Irunen bertan atxilotu egin zuten. Hala eta guztiz ere haren zortea bestelakoa izan zen. Uztailaren 10era bitartean inkomunikatuta egon ostean, aske utzi zuten. Horrez gainera, testigantza bidez jakin ahal izan dugunez, Jose Domingo Uzin Berasaluze getariarra ere, muga pasatu ostean, atxilotu eta kartzelaratua izan zen.

Beraz, "irabazleen bakeaz" hitz egin genezake; hau da, gerra ostean, galtzaileak galtzaile moduan tratatu zituzten eta ez zuten inolako barkamen edo erredentziorik jaso.



JUZGADO MILITAR DE MARINA
NÚM. 1
SAN SEBASTIÁN

28-3-41
ENTERADO,

Tengo el gusto de dirigir a Vd. el presente oficio comunicandole que habiendome sido notificado que el trabajador JOAQUIN AZCUE LARRAÑAGA ha sido puesto a mi disposicion en esa Prision de su digna direccion, procedente del Deposito de Miranda de Ebro, ruego a Vd. dé las ordenes oportunas para que sea puesto en libertad comunicandosele al propio tiempo que habra de hacer su presentacion en este Juzgado de Marina, sito en la calle Mayor nº 3-2º para diligencias que han de efectuarse.-

Dios guarde a Vd. muchos años.-
San Sebastian a 28 de Marzo1941

EL TENIENTE JUEZ INSTRUCTOR.

Adolfo Gomez

Sr. Director de la Prision Provincial de esta Capital.-PLAZA

Jose Joakin Azkue Larrañagaren Itsas Epaitegi Militarreko oharra.
(AHPG-GPAH GEZ).



2

Depósito de Concentración
MIRANDA DE EBRO

Sección 1ª M.H
Nº 3019

En esta fecha se pasaporta do para esa prision el trabajador JOAQUIN AZCUE LARRAÑAGA el cual quedará a disposicion del Juzgado Militar de Marina nº 1 de esa plaza.

Dios guarde a V. muchos años
Miranda Ebro 26 marzo de 1941
El Jefe del Deposito

Sr Director de la Prision prov. de San Sebastian

Jose Joakin Azkue Larrañaga preso politikoaren, Miranda de Ebrotik Ondarretarako lekualdatzea. (AHPG-GPAH GEZ).

## 4.5. ENPLEGATU PUBLIKOAK BOTATZEA

Aurreko orrietan azaldu bezala, Getariako udal-gobernua osatu eta kontsolidatzeko, agintari ezarri berriek, zenbait trikimailu erabili zituzten. Haien helburu nagusia, Urola-Kostako herri arrantzalean ere, hurrengo urteetan nagusi izango zen ideologia frankista ahalik eta irmoen inposatzea izan zen. Horrenbestez, ez da harritzekoa, ideologia frankista kontsolidatzeko nahiaz, beren aurkakoak ziren ideologiako udal-langileak beren kargutik botatzea. Handik aurrera, ideologia frankista baino ez zen nagusituko eta hala, udal-gobernuak hartutako erabakiak eztabaidatzeko aukerarik ere ez zen izango.

Gisa horretara, kaleratutako funtzionario publikoak, gosete garairik krudelenean beren sabelera eraman zezaketen murritza erosteko dirurik gabe utzi zituzten. Gehienetan, kartzelaratu edo fusilatu ez bazituzten ere, etorkizun guztiz miserablera kondenatu zituzten. Beraien “delitu” edo “krimen” bakarra, frankisten ezberdin pentsatzea izan zen.

Nolanahi ere, langile haien guztien kaleratzea, ez zen ausaz burututako prozesua izan. Garaiko enplegatu publikoen garbiketen inguruko lege zein dekretu ezberdinek adierazten digutenez, frankistek aurrez formulatutako prozesu sistematiko baten emaitza izan zen.

Euskal Herriko herri guztietan, tropa frankistak sartu ahala, antzeko prozesua gauzatu zen. Normalean, tropa frankistak sartu bezain laster, haien aldeko ideologiakoak ez ziren enplegatu publiko guztiak beren postuetatik kanporatzen zituzten, zenbaitetan “beren postuan aurkitzen ez zirela” aitzakiatzat hartuta. Gehienetan, hala izaten zen, baina Getariatik kanpo aurkitzearen arrazoi nagusia, tropa frankistak sartzean beraiengan jaso zezaketen errepresioa izan zen. Beraz, Getariatik alde egindako enplegatu publikoek frankisten errepresioaren atzaparretatik ihes egin zuten eta ez beste arrazoi batengatik.


BOLETIN OFICIAL
DE LA JUNTA DE DEFENSA NACIONAL DE ESPAÑA

Año 1936 — Burgos 16 de septiembre — Número 22

PRESIDENCIA DE LA JUNTA DE DEFENSA NACIONAL

Decreto núm. 108

Durante largo tiempo ha sido España víctima de actuaciones políticas desarrolladas por algunos partidos que, lejos de cooperar a la prosperidad de la Patria, satisfacían ambiciones personales con detrimento del bien común, pero nunca, como en los momentos anteriores al presente, ha culminado el antipatriotismo en la formación de entidades que, bajo apariencia política, envenenaron al pueblo con el ofrecimiento de supuestas reivindicaciones sociales, espejuelo para que las masas obreras siguieran a sus dirigentes, quienes las aprovecharon para medrar a su costa, lanzarlas a la perpetración de toda clase de desmanes y cristalizar al fin, en la formación del funesto llamado Frente Popular, de cuyos males, si responsables son las agrupaciones dichas, no lo son menos aquellas personas físicas que, con su actuación anterior o coetánea, directa o indirecta, han sido autores materiales o por inducción de los daños y perjuicios sufridos por el Estado y por los particulares, con motivo de la absurda resistencia sostenida contra el movimiento nacional, por lo que procede adoptar, contra unos y otros, medidas encaminadas a garantizar la responsabilidad que en su día pueda alcanzarles para la indemnización procedente, en la inteligencia de que medida elemental y básica de saneamiento es declarar fuera de la Ley a las agrupaciones de actividades ilícitas que siempre estuvieron al margen de ella; en vista de lo cual, como Presidente de la Junta de Defensa Nacional y de acuerdo con la misma, vengo en decretar:

Artículo primero. Se declaran fuera de la Ley todos los partidos y agrupaciones políticas o sociales que, desde la convocatoria de las elecciones celebradas en fecha 16 de febrero del corriente año han integrado el llamado Frente Popular, así como cuantas organizaciones han tomado parte en la oposición hecha a las fuerzas que cooperan al movimiento nacional.

Artículo segundo. Se decreta la incautación de cuantos bienes muebles, inmuebles, efectos y documentos pertenecieren a los referidos partidos o agrupaciones, pasando todos ellos a la propiedad del Estado.

Artículo tercero. Los funcionarios públicos y los de empresas subvencionadas por el Estado, la provincia o el municipio o concesionarias de servicios públicos, podrán ser corregidos, suspendidos y destituidos de los cargos que desempeñen cuando aconsejen tales medidas sus actuaciones antipatrióticas o contrarias al movimiento nacional.

**Indar-errepublikarren aldeko enplegatu publikoen kaleratzea, 108/36 dekretua.** (BOE).

Getarian tropa frankistak sartu baino zazpi egun lehenago, 1936ko irailaren 13a, hain zuzen, Junta de Defensa Nacional deiturikoak, 108/36 dekretuaren bidez, enplegatu publikoen garbiketarako lehen dekretua atera zuen. Horren arabera, Fronte Popularrari lagundu edo haren kide izan ziren alderdi eta talde politiko guztiak, bai eta kolpista frankistei aurre egin zieten erakunde guztiak ere, legez kanpo geratu ziren. Zehazki, dekretuaren hirugarren artikuluan, “mugimenduaren” aurka egin zuen edozein funtzionario karguetatik ken zezaketela adierazten zen.


AYUNTAMIENTO DE GUETARIA    PROVINCIA DE GUIPUZCOA

Relación de las escuelas de 1ª. enseñanza existentes en este término municipal
---- En el casco de población -----

| Nº de orden | Clase de escuela | Nombres de los maestros | Matrícula | Asistencia media | Observaciones |
|---|---|---|---|---|---|
| 1 | Nacional de niños, unitaria | D. Fernando Sánchez | 53.. | .42.... | ......... |
| 2 | Id. de niñas, unitaria | " Paz Carazo | .91.. | .56... | ......... |
| 3 | Id. de niños de Orientación Marítima, (Pósito de Pescadores) | " Julián Martínez | 46.. | .38... | ............ |
| 4 | Privada de Párvulos | " Abelina Andremo | 75.... | .50..... | Subvenciona el Ayuntamiento. |
| | ------ En la zona rural ------ | | | | |
| 5 | Mixta privada del Barrio de Azquizu | Dña. Máxima Ortega | ..40.. | ..29.. | Subvenciona el Ayuntamiento |
| 6 | Id. id. del Barrio de Meaga | " Agustina Zárate | ..23.. | ..17... | Id. id. |

El Censo escolar general de la Villa .573......
Desde 6 a 14 años
Guetaria á 30 de Mayo de 1933
El Alcalde — El Secretario

**1933ko maiatzaren 30ean Getariako irakasleak.** (GUA).

Hala beraz, tropa frankistak sartu bezain laster, indar-errepublikarren aldeko ideologia zuten langile publikoak beren lanetatik kanporatu zituzten. Getarian kanporatutako langile publikoen gehiengoa, irakasleak izan ziren eta haien artean: Dolores Charro Martinez, Julian Martinez Gil eta Karmen Sasian Garmendia zeuden. Udal-langileei dagokionez, hasiera batean, indar-errepublikarren aldeko bi udal-langile kaleratu zituzten: Juan Iriondo Mugerza eta Emeterio Isasti Uranga, hain zuzen.

Beren enplegutik kanporatutako gainontzeko getariarrak, Gipuzkoako Foru Aldundiko zein Estatu Espainiarreko funtzionario publikoak izan ziren, mikelete eta karabineroak, hain zuzen. Mikeleteei dagokionez, ikerketaren prozesuan bi getariar mikelete aurkitu ditugu, Pedro Agiriano Aranzabal eta Juan Bautista Oiarzabal Agirre. Karabineroen kasuan, getariar bakarra eta Getariakoak ez ziren baina Getariako karabineroen postua bete zuten bost langile aurkitu ditugu. Aipatu, Joakin Eizagirre Fernandez getariarrak, gerra testuinguruan baino ez zuela karabinero gisan jardun, haren aurretik Getariako postuan ez zen egon. Identifikatutako gainontzeko karabineroak, Getariako postuan egon zirenak dira: Toribio Casalan Raya, Santiago Martin Virseda, Francisco Nieto Ruiz eta Tomas Salvador Manso.

Iraileko dekretuaz geroztik, frankistek geroz eta modu mekanikoagoan langile publikoak kanporatzeko legeak sortzen jarraitu zuten. Haien sufrikarioa modu zuzenean jasan zuten lehendabizikoak, getariar irakasleak izan ziren.

## 4.5.1. Getariako irakasle nazionalen kanporatzea

Getariako udal-gobernua indarrez hartutako agintarien lehen helburua, ideologia frankista zuen sozietatea eratzea izan zen. Hartarako, aurreko lerroetan aipatu gisan, ezinbestekoa izan zen hezkuntzaren lana. Haren bitartez, neskatila eta mutiko getariarrei ideologia frankista irakasgaien bidez errotuko zieten eta hala, frankismoa, era batean edo bestean babestuko zuen sozietatea eratu nahi izan zuten. Indar-errepublikarren alde jardundako militanteen oihua guztiz ez bazuten isildu ere egin, gogor saiatu ziren haren egitekoan, hezkuntza, hartarako erreminta ezin baliagarriagoa suertatu zitzaielarik. Ideologia frankistako hezkuntza inposatzeko lehen pausua beraz, indar-errepublikarren aldeko ideologia zuten irakasle guztiak kaleratzea izan zen[675]:

"La atención que merecen los problemas de enseñanza, tan vitales para el progreso de los pueblos, quedaría esterilizada si previamente no se efectuase una labor depuradora en el personal que tiene a su cargo una misión tan importante como la pedagógica. El hecho de que durante varias décadas el Magisterio en todos sus grados y cada vez con más raras excepciones haya estado influido y casi monopolizado por ideologías e instituciones disolventes, en abierta oposición con el genio y tradición nacional, hace preciso que en los solemnes momentos porque atravesamos se lleve a cabo una revisión total y profunda en el personal de Instrucción Pública, trámite previo a una reorganización radical y definitiva de la enseñanza, extirpando así de raíz esas falsas doctrinas que con sus apóstoles han sido los principales factores de la trágica situación a que fue llevada nuestra Patria".

Horretarako, ezinbestekoa izan zen Junta de Defensa Nacional delakoak 1936ko azaroaren 8an argitaratutako 66. Dekretua, zeinak Gipuzkoako Gobernadore Zibilari, lehen hezkuntzako irakasle errepublikazaleak kanporatzeko baimena eman zion.

Hori bide hartuta, jarraian azaldutako irakasle nazional getariarrak beren lanpostutik kaleratu zituzten:

---

**IGNACIA BARRENETXEA ASTRAIN**

Tropa frankistak Getariara sartu bitartean irakaslea izan zen. Tropa frankistek, beraien aurkako ideologia medio, kargutik kendu zuten, ogibiderik gabe utziz[676].

---

**DOLORES CHARRO MARTINEZ**

Gerra hastean, Getariako irakaslea zen eta tropa frankistak herrira sartzean, ideologia frankistaren aurkako izateagatik, agintari frankistek bere lanetik kanporatu egin zuten[677].

---

**JULIAN MARTINEZ GIL**

1929. urtetik, Arrantzaleen Eskolako maisu nazionala izan zen. Izquierda Republicana-koa izaki eta Ejertzitoan alferez osagarri postua zuenez, Getariako Defentsa Komitean aurkeztu zen, betebeharren bat egin behar bazuen ere (ez zuen inolako partaidetzarik izan). 1936ko Getariako ebakuazioan, Bilbo aldera bere emaztea Ana Villaverde Puras eta beren bi haurrekin alde egin zuten. Tropa frankistek atxilotu eta 1937ko azaroan, Muros-eko (A Coruña) Vieta kontzentrazio-eremuan aurkitzen zen. 1938ko uztailaren 1ean, tropa frankistek bere egin baino lehenago euskal milizien kuartela izan zen, Bilboko Eskolapioen Presondegian zegoen. Beraz, bere irakasle postutik kanporatu zutela determinatu dezakegu.

[675] BOE: Burgos 1936ko azaroaren 11-27. Zenbakia.

[676] GUA.

[677] AZEDB.

### KARMEN SASIAIN GARMENDIA

Getariako irakasle nazionala. Tropa frankistak Getariara sartzean, espedientea ireki, Karmen Sasianen jarreraren inguruko txostenak bildu eta 1939ko otsailaren 10eko Langile Publikoen Garbiketarako Legearekin bere lanetik bota egin zuten[678].

Getarian, irakasleak izan ziren funtzionarioen artean kanporatze bortitzena jasan zutenak. Frankistek, beren aurkako ideologiaren mezulari gisan ikusten zituen eta beren agintea baldintzan jarriko zuen ideologia zabaltzeaz arduratuko zirela ohartuta, beren lanpostuetatik bota zituzten, gupidagabe.

### ANA VILLAVERDE PURAS

Bigarren Errepublikan zehar irakasle nazionala izan zen. Tropa frankistak Getariara sartzear zeudela, bere gizona Julian Martinez Gil ezkertiarrarekin eta beren bi haurrekin, 1936ko irailaren 20an Bilbo aldera egin zuten. Han, gizona gerrara alferez gisan joan bitartean, emaztea eta bi haurrak Cambrai-ra (Frantzia) erbesteratu ziren. 1939ko ekainaren 19an, aberriratu berri, beren etxeko altzariak errekisatu egin zituztela eta haiek erreklamatu zituen. Julian Martinez Gilek, oraindik ere, Bilboko Eskolapioen presondegian preso jarraitzen zuen.

### ISABEL ETXEBERRIA GORRITI, BIGARREN ERREPUBLIKAKO MARCELINO DOMINGOREN ERREFORMAREN BAITAN IKASITAKO IRAKASLEA

Kasu berezienetarikoa, Isabel Etxeberria Gorriti donostiar irakaslearena dugu. 1915eko urtarrilaren 15ean Donostian jaio zen. Gaur egun 105 urte ditu eta Girona-ko kostaldeko Llança herrian bizi da. Mende oso baten lekuko izanik, Aranzadi Zientzia Elkarteak Getariako ikerketa proiektu honen baitan berau elkarrizketatzeko aukera izan du. Plazer hutsa izan da, horrenbeste urte Katalunian pasa ostean, oraindik ere garai hartako euskara zaharra mantentzen duen Etxeberriarekin hitzak partekatzea. Bada ekin diezaiogun bere historia azaltzeari eta konkretuki, Getariarekin izan zuen harremana ikertzeari.

Etxeberria, nerabezaro betean, 16 urte zituela, Bigarren Errepublikako aldarrikapenaren lekuko izan zen, beste horrenbeste euskaldunen gisan. Garai hartan bertan, Marcelino Domingoren hezkuntza erreformak ekarritako hobekuntzen jakitun eta erabiltzaile izan zen. Zehazki, hezkuntza erreformak ekarritako pedagogia berritzailearen lekuko izanik, Donostiako irakaskuntzako bigarren promozioarekin irakasle ikasketak burutu zituen. Madrileko “Instituto de Libre Enseñanza”-n ere ikasia.

“Irakaskuntza ikasten hasteko, ezinbestekoa zen oposizioak egitea, irakaskuntzarako plazak mugatuak ziren. Oposizioak atera eta ikasten hasi nintzen. Gero hiru urte ikasten eta laugarrena praktiketan egin genituen. Garai hartan, gauzak aldatu beharra zegoela ikusten zen eta gure ikasketak aldaketa horretara bideratuta zeuden. Bigarren Errepublika eta hura aldarrikatu aurreko garaia oso desberdinak ziren, aldaketa handia izan zen eremu guztietan”[679].

Haren ikaskideetako batzuk Edurne Galarza, Teresa Erviti, Ramona Lizasoain, Carmen Antia, Kontxita Garin, Mercedes Jauregi, Rosalia Cotarelo, Mikaela Salvatierra, Maria Teresa Frutos, Eugenia Garate eta gizonezkoen artean, Arcelus eta Usandizaga gogoratzen ditu Etxeberriak, besteak beste.



**Isabel Etxeberria Gorritiri egindako omenaldian, Llançan (Girona).** (Intza Gurrutxaga, Artzape Getariako herri-aldizkaria).

[678] GUA / AZEDB / CDMH: 32/13317.

[679] Testigantza: Isabel Etxeberria Gorriti.



**Isabel Etxeberria Gorritiri egindako omenaldian, senideekin, Llançan (Girona).**
**(Intza Gurrutxaga, Artzape Getariako herri-aldizkaria).**

"Irakasle onak genituen. Miaja jeneral errepublikazalearen ahizpa, gure kimikako irakaslea izan zen. Historiako irakaslea ere oso ona izan genuen, Cortés abizena zuen"[680].

Gerrak eztanda egin baino lehen, 1935eko urriaren 18an, irakasle gisan praktiketan zegoelarik, langile baten soldata kobratzen zuelarik, Quintanilla de la Riberan (Araba) bere 15 haurrekin irakasle lanetan jardun zuen. Gainera, hezkuntza erreformaren baitan eraikitako eskola bere lehen haurrekin estreinatzeko aukera izan zuen.

Irakaskuntzako inspektorearekin ere izan zuen anekdotarik "Quintanilla-ko eskolara etorri zenean, dena oso ondo nuela, baina Errepublikako presidentearen koadroa falta zitzaidala esan zidan. Hala, Miranda de Ebro-ra jaitsi nintzen gainontzeko erosketak egin bitartean, Errepubliako presidentearen koadroa ere erosteko. Erosi nuen eta orduantxe hasi zen gerra! (algaraka) Eta hantxe geratu zen Errepublikako presidentearen koadroa, ixkina batean."

Bigarren Errepublika garaian hezkuntzan egindako erreformak, zenbait abantaila ekarri zizkion Isabeli ere:

"Praktiketan jada, irakasle titulatu baten gisan kobratzen genuen. Praktikak amaitzean, irakasle titulua ematen ziguten eta ordainsaria ere bai. Behin ere iritsi ez zitzaigun ordainsari hura. Elkarrizketatzailea (negritan ezarri): eta zergatik ez zen iritsi ordainsari hura. Isabel: Pribilegio hori kendu egin zigutelako. Gainontzeko irakasleen berdina ezarri ziguten, 3.000 pezeta urtean. Jada irakaskuntza amaitu genuenerako, Francok agintea hartuta zuen"[681].

Behin gerra hastean, Quintanilla de la Riberan (Araba) depuratu egin zuten eta Donostiara itzultzean, "Servicio Social"-a egin behar izan zuen, frankistek hartara derrigortzen zituzten. Donostiako komedore batean burutu zuen. Handik, 1937ko irailaren 11n Getariako kofradiako eskolara lekualdatu zuten.

Bertara iristean, Getarian miseria eta pobrezia handia zegoela gogoratzen du. Francisco Iruretagoienaren etxean ostatu hartu zuen "Herriko gizonak, gauean, guardia egitera derrigortzen zituztela gogoratzen naiz. Batzuei diru pixka bat ateratzeko ondo zetorkien, miseria asko zegoen"[682]. Haren lankidea izandako Joxepa-rekin ere oraindik gogoratzen da.

"Gerra amaitzean, Joxepa eta biok batera geunden, orduantxe eman ziguten gerraren amaieraren berri"[683].

Arrantzaleen kostaldeko herritxoan, 1939ko irailaren 15era bitartean kofradiako eskolan irakasle gisan jardun zuen.



**Bigarren Errepublikako hezkuntza erreformako bigarren promozioko irakasleak, Donostian.**
**(Isabel Etxeberria Gorriti eta Mayra Fa Etxeberriak emandako argazkia).**

[680] Testigantza: Isabel Etxeberria Gorriti.
[681] Testigantza: Isabel Etxeberria Gorriti.
[682] Testigantza: Isabel Etxeberria Gorriti.
[683] Testigantza: Isabel Etxeberria Gorriti.




**Bigarren Errepublikako hezkuntza erreformako bigarren promozioko irakasleak, koroan, Donostian.** (Isabel Etxeberria Gorriti eta Mayra Fa Etxeberriak emandako argazkia).



**Quintanilla de la Ribera-ko (Araba) eskola.**
(Isabel Etxeberria Gorriti eta Mayra Fa Etxeberriak emandako argazkia).



**Quintanilla de la Ribera-ko (Araba) Isabel Etxeberria Gorritiren ikasleak.**
(Isabel Etxeberria Gorriti eta Mayra Fa Etxeberriak emandako argazkia).



UNIVERSIDAD LITERARIA
DE
VALLADOLID

Núm. ..........

Sección Administrativa de Primera Enseñanza
10 SET 1937
257
Salida

Con fecha de hoy ha sido usted nombrado por ............
Maestro de la Escuela Nacional de Getaria, niños, Orientación Marítima
con el haber anual de cuatro mil pesetas y demás emolumentos legales.

Lo que participo a Vd. para su conocimiento y satisfacción; significándole que el plazo posesorio es de ocho días, a partir de este nombramiento.

Dios guarde a Vd. muchos años.
Valladolid 16 de Junio de 1937

EL RECTOR,

Sr. D. Isabel Echeverría

**Isabel Etxeberria Gorritiren Getariako kofradiako eskolako izendapena.**
(Isabel Etxeberria Gorriti eta Mayra Fa Etxeberriak emandako argazkia).



**Isabel Etxeberria Gorriti Quintanilla de la Ribera-ko (Araba) ikasleekin.** (Isabel Etxeberria Gorriti eta Mayra Fa Etxeberriak emandako argazkia).

GETARIAKO IKASLEEN ZERRENDA [684]

| IZEN-ABIZENAK |
|---|
| ANGEL ANDONEGI |
| BALBINO IRIBAR |
| EUGENIO IRURETAGOIENA |
| KRISTOBAL ETXEBERRIA |
| SEGUNDO BASTERRETXEA |
| TOMAS ZUBIZARRETA |
| JOSE MARI URANGA |
| (AURREKO IKASLEAREN ANAIA) URANGA |
| ANGEL LAZKANO |
| (?) GARMENDIA |
| JOSE LUIS (?) |
| JOSE LUIS (?) |

Gerra amaitu eta gutxira, haren postutik kendu eta haren tokian, frankistekin soldadu ibilitako bat ezarri zuten Isabel Etxeberriaren postuan. Berriro ere espultsatua izan zen, beraz.

“Getarian oso gustora egon nintzen, ikasleekin ez nuen batere arazorik izan”[685].

Handik 1939ko irailaren 17an, Gabiriara lekualdatu zuten, han zenbait urtez egon zen, 1943ko abenduaren 31ara bitartean “Han neskatoen irakaslea izan nintzen. 7 urtetik 14 urtera bitarteko ikasleena. Juan Arzelus izan zen nire lankidea eta oso gustora egon nintzen Gabirian ere. Estankoan ostatu hartu nuen”[686]. Han bazuen anekdotarik. Noizean behin, eskoletatik inspektoreak pasatzen ziren, guztia gobernu frankistak agindu bezala zegoela konprobatzeko. Egun horietako batean, inspektoretako batek, bere ikasle Mirentxu Muruari, “Ave Maria” errezatzeko agindu zion eta hark bai egin ere, euskara garbian. Hark hartu zuen amorrurik hura ez zela egin behar zuen hizkuntzan, alegia gaztelaniaz egin. Hauxe esan zion inspektore frankistak “La Virgen no sabe vascuence”. Bordatzen ere jarduten genuen. Inspektoreak berdez eta beste kolore batzuez bordatutako eskulanak ikusi zizkidan. Haiek ez zirela erabili behar genituen koloreak argitu zidan. Ez dut uste nota onik ipini zidanik inspektore hark”[687]. Amorru hark Isabel Etxeberria Gorritiren espedientean utzi zuen arrastorik. Inspektoreak ohiko gauza bihurtu ziren frankistek menpeko lurralde osoan. Haien guztien burua Gipuzkoako lurraldean, bertako Junta Karlistak izendatutako Josefina Oloriz Arcelus izan zen. Haren egitekoa, beste zenbait ekintzen artean, frankisten ideologiarekin bat ez zetozen irakasleen depurazioa eta kontrola egitea izan zen.

Hala, 1943an gobernu frankistak irakasleak postuetan kokatzeko egindako konkurtsoaren ostean, Isabel Etxeberriak egindako aukeren artetik, 1943ko abenduaren 4an, gaur egun bizi den Gironako herritxo arrantzalean, Llançan lortu zuen bere irakasle postua. 1944ko urtarrilaren 1ean klasea ematen hasi zen. “Herri oso pobrea zen. Gironatik irten zuen animalientzako tren batean iritsi nintzen Llancà-ra. Mutil batek lagundu ninduen herriko ostatura. Ez zegoen janaririk, sabela hutsik oheratu behar izan nuen. Nekazari eta arrantzaleen herria zen eta Bigarren Errepublikan zehar, gehiengoa ezkerreko alderdietakoa izanik, askok muga zeharkatu eta besteek, errepresioa jasan behar izan zuten”[688]. Llançan Miguel Fa Caula-rekin ezkondu, bi alaba Maria Dolores eta Mayra izan eta eskolan klaseak ematen jardun zuen 80ko hamarkadan jubilatu zen arte.

[684] Guztiak zehazterik ez dugu izan. Isabel Etxeberriari esker lortu ditugu honakoen izenak.
[685] Testigantza: Isabel Etxeberria Gorriti.
[686] Testigantza: Isabel Etxeberria Gorriti.
[687] Testigantza: Isabel Etxeberria Gorriti.
[688] Testigantza: Isabel Etxeberria Gorriti.



**Isabel Etxeberria Gorriti, Gabiriako ikasleekin.** (Isabel Etxeberria Gorriti eta Mayra Fa Etxeberriak emandako argazkia).




**Mirentxu Murua.**
(Isabel Etxeberria Gorriti eta Mayra Fa Etxeberriak emandako argazkia).

Getariako kasuan, irakasle postutik botatako irakasle gehienak emakumeak ziren. Horren erroa, lan banaketa sexual tradizionalean emakumeari emandako, hizkuntzaren transmisio eta zaintzaile paperak egon daitezke. Horrezaz gain, hezkuntza, arestian ikusi dugunez, erregimen frankistaren ideologia inposatzeko ezinbestekoa izan zen. Bigarren Errepublika garaian, irakasle getariarrek berebiziko garrantzia izan zuten, beren eskuetan balio tradizionalekin hautsi eta justuago izanen zen munduaren eredua irakasteko aukera izan zuten. Hein handi batean beraz, beren ekintza politikoagatik besterendu zituztela determina genezake.



**Isabel Etxeberria Gorriti, Llançako ikasleekin.** (Isabel Etxeberria Gorriti eta Mayra Fa Etxeberriak emandako argazkia).

### 4.5.2. Gainontzeko udal-langileak

Getariako gainontzeko udal-langileak 1936ko abenduaren 3ko legearen ostean kanporatu zituzten "Uztailaren 18tik aurrera askatutako eremuko egoitza ofizialetik kanpo eskuduntza duen agintaritzak emandako inolako baimenik edo eginkizunik gabe egon diren, edo baimen horiek amaitutakoan aurkeztu ez diren funtzionario guztiak kargutik kenduko dira espedientea osatu gabe"[689].

Getarian zehazki, 1937ko urtarrilaren 14an bi udal-langile kanporatu zituzten[690]:

(…) Examinados los antecedentes o noticias recogidas de todos y cada uno de los empleados municipales de este Ayuntamiento que desempeñan el cargo en la actualidad, resulta que aparece claramente la significación nacionalista vasco de los empleados D. Juan Iriondo Muguerza, depositario municipal y D. Emeterio Isasti Uranga, tamborilero municipal y ex-director de la banda de música.

El Ayuntamiento en vista de la información obtenida y conocimiento que se tiene de los interesados, estima los mencionados empleados, (…) en las sanciones que establece la mencionada circular que como mínimo es apartamiento de todo cargo público retribuido en los municipios y cumpliendo con lo ordenado en la circular de referencia, acordó por unanimidad, destituir de sus respectivos empleos o cargos al Depositario municipal D. Juan Iriondo y tamborilero municipal y exdirector de la banda D. Emeterio Isasti, disponiendo se comunique el presente acuerdo a los respectivos interesados y al Sr. Gobernador Civil para su conocimiento y efecto consiguientes".

1937KO URTARRILAREN 14TIK AURRERA KANPORATUTAKO UDAL-LANGILEAK

| IZEN-ABIZENAK | ARAZTATUTAKO POSTUA | ZERGATIA |
|---|---|---|
| **IRIONDO MUGERZA, JUAN** | Udal gordailuzaina | Ideologia nazionalista |
| **ISASTI URANGA, EMETERIO** | Bandako zuzendaria eta danbor-jotzailea | EAJ/PNV-ko afiliatua |

689 DAVILA, F. Presidencia de la Junta Técnica del Estado. Presidencia Junta de Defensa Nacional. Burgos, 1937ko martxoak 15.

690 GUA.



**Emeterio Isasti Uranga, musika bandako zuzendaria.** (Antxon Agirreren liburutik).

Hala eta guztiz ere, Emeterio Isasti Uranga Getariako bandako zuzendari eta danbor-jotzaileak, 1937ko urriaren 3an, Zarauzko Komandantzia Militarraren aginduz, bere postua berreskuratu zuen:

“El Sr. Alcalde manifiesta que el Sr. Comandante Militar del sector le indicó la conveniencia de que sea repuesto en su empleo el tamborilero municipal D. Emeterio Isasti, siempre que no exista contra el mismo cargo más grave que de lo que él tiene conocimiento. El Ayuntamiento teniendo en cuenta que en su expediente no existe más acusación que de haber sido simpatizante o votante nacionalista vasco, y ello por las circunstancias que (…) en su caso, considera que le es suficiente la sanción de haber estado suspenso o separado de empleo y sueldo hasta ahora y por unanimidad acuerda reponerle en su empleo de tamborilero municipal a D. Emeterio Isasti Uranga con el haber que tenía asignado dicho cargo, y que es de 300 pesetas anuales, que le será abonado desde el 1º del corriente mes”[691].

Hala eta guztiz ere, Emeterio Isasti Urangak, ezin izan zuen bere lana lasai burutu. Herriko frankistek ongi gogoan zuten euskal nazionalisten bozkatzailea izan zela Bigarren Errepublika garaian eta zenbaitetan, hura mendekatzeko izugarrizko irainak erabili zituzten. Errepresioa egunerokoan bere azalean sufritzen jarraitu behar izan zuen:

“Luego se trató del caso del tamborilero Sr. Isasti que no ha actuado desde las fiestas. El Ayuntamiento estimó conveniente su presencia y requerido se presentó regularmente que explica los sentimientos que tenía por las vejaciones que se le han hecho durante las fiestas y al explicar el Sr. Alcalde de que esas vejaciones no tenían relación alguna con el Ayuntamiento no su empleo como tamborilero se dio por satisfecho y quedó en continuar tocando como hasta ahora”[692].



**Emeterio Isasti Uranga berriro ere bere postuan onartzea.** (GUA).

[691] GUA.

[692] GUA.

Juan Iriondo Mugerzak ez zuen zorte bera izan. Udal-agintari frankistek lanik gabe utzi ostean, eta bere familia mantendu ezinik, hil egin zen. Udaletxe frankistak, sufrikarioa eragin ostean, eremu publikoari oinarrian haren ongizatea nahi zuelakoan, 1937ko irailaren 20an honakoa adierazi zuen:

"El Sr. Alcalde dice que acaba de fallecer D. Juan Iriondo Muguerza, Depositario Municipal de esta Villa, que actualmente suspenso por ideologías políticas, pero no habiendo tenido tacha. En su profesión, debe considerarse como funcionario Municipal en activo y pide se haga contar en acta el pésame del Ayuntamiento y comunicarlo a la familia, el Ayuntamiento se suma a esta manifestación del Sr. Alcalde y se acuerda lo propuesto"[693].

Marcelina Iriondok aitaren kargua hartu zuen eta udaletxe frankistak, 1938ko martxoaren 1ean, bere aitari ordaindu ez zizkioten soldatak ordainduko zizkiotela hitza eman zioten[694]. 1938ko ekainaren 12an, Marcelina Iriondo herritik bazihoala eta, bere posturako beste pertsona bat ezarri behar zutela adierazi zion udaletxe frankistari:

"El Sr. Secretario dio cuenta al Ayuntamiento de que Marcelina Iriondo que tiene a su cargo la Depositaria municipal desde el fallecimiento de su difunto padre Juan Iriondo (Q.E.P.D.) se dispone a trasladar en breve de este pueblo y la necesidad de designar la persona que se ha de hacerse cargo de la Tesorería"[695].



**Emeterio Isasti Urangaren aurkako irainak.** (GUA).



**Juan Iriondo Mugerzari doluminak.** (GUA).

693 GUA.

694 GUA.

695 GUA.

Bien bitartean, 1938ko uztailaren 2tik, behin-behinean, Bonifazio Balenziaga arduratu zen udal-gordailuzain postuaz. 1942ko uztailaren 19an bere kargua utzi eta haren ordez, Gabriel Iribarrek hartu zuen postua:

“Acordó el Ayuntamiento admitir al Sr. Balenciaga la renuncia de sus cargos y concederle su voto de gracias por la honradez con que ha procedido en el desempeño de los cargos referidos y que se le abone sueldo integro del presente mes de Julio. (…) y que la Tesorería pase también interinamente a cargo del Concejal D. Antonio Aranguren, como empleado de la sucursal de la Caja de Ahorros (…)”[696].

Hauez gainera, Donostiako udaletik, Ramon Nieto Aguado getariarra bere udal-lanpostutik ere kaleratu egin zuten. 1944ko apirilaren 27an Agustinetako gainean fusilatu egin zuten. Bere erregistro zibilean, garuneko odol jarioaz hil zela adierazten du. Frankistek, fusilamenduak halako hitzak erabiliz ezkutatzen zituzten maiz.

Fusilatzean, Ramon Nieto Aguadok 65 urte zituen eta, Cecilia Ibañezekin ezkonduta, Filomena, Luisa, Ramon, Carmen eta Mercedes Nieto Ibañez seme-alabak, aita gabe geratu ziren.

Bere anaia Pedro Nieto Aguado, Donostiako udaleko langilea, Santanderren tropa frankistek atxilotu eta Gerra-Kontseilua egin zioten.


Depositario cese de Iriondo

El Sr. Secretario dio cuenta al Ayuntamiento de que Marcelina Iriondo que viene a su cargo la depositaría municipal desde el fallecimiento de su difunto padre Jorge Iriondo (q.e.p.d.) se dispone a trasladar su [illegible] fuera de este pueblo y la necesidad de designar la persona que se ha de hacer cargo de la Tesorería.

**Marcelina Iriondoren lanpostu uztea.** (GUA).

BEREN POSTUA MANTENDU ZUTEN UDAL-LANGILEAK

| IZEN-ABIZENAK | POSTUA | ZERGATIA |
|---|---|---|
| BALENZIAGA GOIKOETXEA, BONIFAZIO | Diruzaina, alhondigan eta Probintziako Arbitrioen Administratzailea | tradizionalista eta F.E.T. eta J.O.N.S.-eko afiliatua |
| GAZTAÑAGA SAN SEBASTIAN, JOSE | Udal-idazkaria | Ideologia eskuindarra |
| IRIBAR, JOSE DOMINGO | Garbitzailea | Ideologia politikorik gabea |
| LARRAÑAGA, IGNACIO | Bitarteko laguntzailea | Ideologia eskuindarra |
| UGARTE UNANUE, LEONCIO | Mediku titularra | - |
| GOROSTIAGA ETXEBERRIA, MANUEL “PIARRES” | Aguazila | - |
| OLIBE PRIETO, FEDERICO | Botikaria | Apolitikoa |
| ZUBIZARRETA AREIZAGA, GREGORIO | Ehorzlea | Ideologia eskuindarra |

696 GUA.

## MIKELETEAK

1839an, Gipuzkoako Aldundiak, euskal lurraldeetako Lehen Karlistaldia amaitu ostean eratu zuen *Celadores de Protección y Seguridad Pública* izenarekin. 1844an Mikelete izena hartu zuten, zeina, Lehen Karlistaldian boluntarioki *txapel gorri* (karlistak) zein *txapel zuri* (liberalak) gisan ibili ziren 100 gizonezkok osatu zuten. Urteak igaro ahala, geroz eta mikelete gehiago egon ziren. Gipuzkoako Aldundiaren mende zegoen polizia zen, segurtasun publikoaz arduratzen zen eta horrenbestez, eskumen guztiak Gipuzkoako Aldundiari zegozkion. Horrek, estatu espainiarreko gobernuarekin zenbait talka egitea eragin zion. Hala eta guztiz ere, XIX. mende osoan zehar irautea lortu zuten.

Gerra Zibila hastean, mikeleteak, lurraldea ondo ezagutu eta suzko armak ongi erabiltzen zekitenez, haietako asko, goi-karguak eta milizianoen instrukzioak egiteaz arduratu ziren. Behin Eusko Gudarostea, 1936ko urrian sortuta, haietako asko, bertako batailoietan zerrendatu ziren. Horren eraginez, kolpistak Bilbora sartu zirenean, bertan zeuden mikeleteak preso hartu eta Arriaga Antzokian inprobisatutako kartzelan eduki zituzten. Atxilotutako 126 mikeleteei deklarazioak egin ostean, batzuei, gehienetan goi-kargu eta instrukzioetan parte hartu zuten 16 mikeleteei, Gerra-Kontseiluak egin zizkieten. Gainontzekoei, haien aginduetara ibili izana leporatu eta horrenbestez ez zituzten epaitu.

Atxilotutako mikeleteen artean, Getariako mikeleteen postuko Pedro Agiriano Aranzabal aramaioarra eta Juan Bautista Oiarzabal Agirre azkoitiarra zeuden. Biak, deklarazioa egin ostean, absolbitu egin zituzten. Hala eta guztiz ere, mikelete guztien gisan, 1936ko azaroaren 26an beren postutik kanporatu egin zituzten. Horren guztiaren eraginez, 1937ko abuztuaren 25ean argitaratutako dekretu baten bidez, agintari kolpistek mikeleteak desegin zituzten.

Gerraren ostean, Oiarzabal mikelete azkoitiarrari erabat kostatu zitzaion Getarian lana topatzea:

**"K:** (…) gure aita etorri zan, ta etzuken ofiziyoik ta hasi mollean da…ta fabrikan da, ondo ez. Garai hartan (gerra hasi baino lehen) 3 mikelete zian herrixan eta eamaten zuten kutxa beak. (…gerra ostean) amai laguntzen da. Abertzalia zan (…) ta guri transmititu diu. (…) lanian min hartu zuan da 44 urtekin hil zan. Ta ordun gure ama gelditu zan, aiten aita ta ama zahardadeik gabe eta ezer gabe eta lau ume txiki, ta gure ama 39 urtekin bizitza ateatzea"[697].



**Juan Bautista Oiarzabal Agirre mikeletea.** (Kontxita Oiarzabal Idiakezek emandako argakia).

## KARABINEROAK

1829an Fernando VII.ak garaiko Espainiako Estatuko erregeak sortu zuen. Haien helburu nagusia, kostaldea eta mugak kontrolatu, eta iruzur fiskalak eta kontrabandoa ere kontrolatzea izan ziren urte luzeetan zehar. Gerra Zibilean zehar berebiziko garrantzia izan zuten, izan ere, mikeleteen gisan, armen erabilera ongi ezagutzeaz gain, muga zein kostaldeak ere, ongi baino hobeto ezagutzen zituzten. Hala, 1936an ziren 16.096 karabineroetatik 10.000 indar-errepublikarretara batu ziren, gainontzekoek frankistekin borrokatu zutelarik. Juan Negrinen inplikazioz, 40.000 karabinero izatera iritsi ziren gerrako une batean. Garai hartan batu zen karabinero izatera, esaterako, Joakin Eizagirre Fernandez getariarra, zeinak Kataluniako frontean borrokan jardun zuen.

Gerra garaian izandako karabineroen multzo handiak indar-errepublikarren alde borrokatu izanagatik, 1940ko martxoaren 15eko legearen bitartez, karabineroen autonomia mailarekin amaitu eta Guardia Zibilaren barnean ezarri zituzten:

697 Testigantza: Kontxita Oiarzabal Idiakez.

"Se suprime la actual Inspección General de Carabineros, cuyos cometidos y funciones se agruparán en una sola Sección de la Dirección General de la Guardia Civil, a cuyo Director General pasarán las atribuciones conferidas actualmente al Inspector General del Cuerpo de Carabineros. El personal de este Cuerpo será adscrito a los distintos servicios qué por esta Ley se fijan como privativos del Cuerpo de la Guardia Civil, en la forma que, con arreglo a las aptitudes y condiciones de su personal, determine el Director General"[698].



Página 1862 BOLETIN OFICIAL DEL ESTADO 17 marzo 1940

MINISTERIO DE EDUCACION NACIONAL

MINISTERIO DE TRABAJO

ADMINISTRACION CENTRAL

ANEXO UNICO.—Anuncios oficiales, particulares y Administración de Justicia.

# JEFATURA DEL ESTADO

LEY DE 15 DE MARZO DE 1940 reorganizando el benemérito Cuerpo de la Guardia Civil.

Los acontecimientos políticos sufridos por España en el último decenio con la implantación de la República afectaron hondamente a todas las organizaciones nacionales, pudiendo asegurarse no hubo una sola a la que no alcanzase el espíritu destructor de aquellos gobernantes.

El benemérito Cuerpo de la Guardia Civil, creado por el Duque de Ahumada, y que constituyó la coronación de la obra iniciada por la Reina Católica con la organización de la Santa Hermandad, no se libró del influjo de aquellos hombres que, desde la oposición, habían intentado minar el espíritu benéfico del Instituto, para crearle en el país un ambiente de odiosidad, fomentando, por un lado, la lucha de clases y los movimientos revolucionarios y, por otro, lanzando desde el Poder a la represión a las fuerzas de Orden Público con órdenes de crueldad hasta entonces desconocidas.

Al acometerse la reorganización de las fuerzas de Orden Público, hemos de salvar del naufragio de la revolución aquel espíritu y valores tradicionales que hicieron del Instituto de la Guardia Civil uno de los Cuerpos más prestigiosos en que se inspiró la organización de las fuerzas de Orden Público en distintos países.

Recogiendo aquellas enseñanzas y mejoras que el transcurso del tiempo y las experiencias de la guerra han señalado como más necesarias a los intereses nacionales, pretende esta Ley aprovechar la práctica adquirida en los servicios de Orden Público el más dilatado tiempo compatible con la aptitud física de los que en ella se adscriben, dándoles la satisfacción del servicio al mismo tiempo que se les atenúe de penalidades en aquellos años en que la edad exige servicios más tranquilos, aligerando a su vez a la Hacienda de la carga enorme que representa el sostener durante largo tiempo en pasivos, un personal que, por su lealtad, práctica de la profesión y recto espíritu, puede llenarle valiosos cometidos.

La utilización de las fuerzas de Orden Público en los servicios más en consonancia con sus facultades físicas, preside la reforma. Así, los Tercios de Frontera que por esta Ley se crean, nutridos con gente joven, de vocación decidida, formarán unas Unidades selectas que fortalecerán la organización militar de nuestras tropas de cobertura.

El necesario enlace y compenetración que ha de haber entre las Unidades del Ejército y las fuerzas de la Guardia Civil en el conocimiento, vigilancia y defensa de nuestras fronteras,

Núm. 77 BOLETIN OFICIAL DEL ESTADO Página 1863

han aconsejado el que el Mando superior de los indicados Tercios y de parte de sus Unidades inferiores, se asigne a Jefes y Oficiales del Ejército.

Canalizado el tránsito de las fronteras por las vías de comunicación, y limitada la acción de las fuerzas de vigilancia, fuera de estos puntos, a la prohibición del paso de personas y géneros, no aparece justificada la razón de mantener la duplicidad de Cuerpos que existieron hasta ahora y que exigía de los que estaban adscritos al servicio de fronteras esfuerzos muchas veces incompatibles con las edades a que se desempeñaban, disfrutando con esta dualidad de Cuerpos el contrabando, una vez rebasadas las líneas del Resguardo de un Régimen de tolerancia, como si no pudiese ser objeto como las demás infracciones, de la persecución de las fuerzas de Orden Público.

Por ello, y en lo sucesivo, un Cuerpo único, el de la Guardia Civil, asumirá las funciones de vigilancia y represión del contrabando y el fraude, que, hasta ahora, estaban atribuidas al Cuerpo de Carabineros, innovación sancionada por la experiencia, ya que, en múltiples ocasiones, y dentro de sus propios Reglamentos, ha podido observarse cómo el Cuerpo de Carabineros se ha visto obligado a asegurar el mantenimiento del orden interviniendo en la persecución y captura de delincuentes ordinarios, mientras el de la Guardia Civil descubría y evitaba delitos de contrabando.

Finalmente, en el deseo natural de que a quienes voluntariamente se enrolan en servicios penosos y arriesgados en los que las virtudes de todo género, han de brillar siempre, no les falte en ningún momento el amparo y la ayuda del Estado, cuando sus aptitudes físicas decaigan, se fundamentan los beneficios que se otorgan para cubrir determinadas plazas de confianza o de guardas armados del Estado, Provincia o Municipio y entidades civiles al personal del Instituto.

En virtud de las consideraciones anteriores,

DISPONGO:

**Artículo primero.**—Las fuerzas armadas a las que se adscriben los servicios de policía, orden y vigilancia en los casos y lugares del territorio nacional que se indican, pertenecerán al Cuerpo de la Guardia Civil, que se reorganiza por esta Ley, con mando, disciplina y fuero militar, ejerciendo la jurisdicción los Generales Jefes de las Regiones Militares, Comandantes Generales de Baleares y Canarias y el Jefe Superior de las Fuerzas Militares de Marruecos.

**Artículo segundo.**—Al frente del Cuerpo estará un Oficial General del Ejército de Tierra, con el título de Director General de la Guardia Civil. Sus facultades en todo lo que concierne a distribución de créditos, recursos y adquisiciones de todas clases, así como a la aprobación de inversiones y cuentas, serán las mismas que, como delegadas, ejercen los Directores Generales de los Servicios.

**Artículo tercero.**—El Director General de la Guardia Civil y los Jefes de las Comandancias y Unidades de las Provincias, seguirán dependiendo del Ministro de la Gobernación y de los Gobernadores Civiles, respectivamente, en todo lo concerniente a los servicios, acuartelamiento, percibo de haberes y material.

**Artículo cuarto.**—Se suprime la actual Inspección General de Carabineros, cuyos cometidos y funciones se agruparán en una sola Sección de la Dirección General de la Guardia Civil, a cuyo Director General pasarán las atribuciones conferidas actualmente al Inspector General del Cuerpo de Carabineros. El personal de este Cuerpo será adscrito a los distintos servicios que por esta Ley se fijan como privativos del Cuerpo de la Guardia Civil, en la forma que, con arreglo a las aptitudes y condiciones de su personal, determine el Director General.

**Artículo quinto.**—Al Cuerpo de la Guardia Civil le corresponde la vigilancia y guarda de los campos, pueblos, aglomeraciones rurales, factorías, centros industriales y mineros aislados de

**Karabineroak Guardia Zibilaren menpe.** (BOE).

## GETARIAKO POSTUAN EGONDAKO KARABINEROAK ZEIN KARABINERO GETARIARRAK

### TORIBIO CASALAN RAYA

Verin-goa (Ourense) jaiotzez, baina Getarian bizi zen, hango karabinero postura destinatu baitzuten. Maria Cruz Lopez Bendullaga-rekin ezkonduta zegoen. Gerra hastean, 36 urte zituen eta karabineroa izanik, Arantzazu-mendi itsas-presondegian lanean jardun zuen. Hori aitzakiatzat hartuta, frankistek, atxilotzean, 1940ko maiatzaren 3an egindako Gerra-Kontseiluaren ostean, "matxinadari laguntza" eskaintzea salatuta, 1940ko irailaren 23an, Madrileko Comendadores komentuko presondegian sartu zuten. Handik, 1941eko apirilaren 1ean, Palentziako presondegira lekualdatu zuten. Gerraren eraginez, preso politikoa izan zen[699].

### JOAKIN EIZAGIRRE FERNANDEZ

Gerrako testuinguruan 23 urte zituen. Lanbidez marinela zen. Juan Negrin-ek karabineroen gorputza anizteko emandako aginduaren ostean, Flota Errepublikarrean, Katalunian, karabinero gisa jardun zuen, Valentzia eta indar-errepublikarretatik isolatutako Bartzelonako loturak egiten. Behin erbestean, Agdeko kontzentrazio-esparruan (Herault) aurkitzen zen, Beziers-eko ospitaletik pasa ostean. 1939ko apirilaren 17an, Gurseko kontzentrazio-esparrura lekualdatu eta handik espainiar estatura aberriratu zuten[700].

[698] BOE, 1940ko martxoaren 15eko legea.
[699] AZEDB / CDMH: DNSD-SECRETARIA, FICHERO,11, C0093965 / AGA.
[700] AZEDB / Sabino Arana Fundazioa-Euskal Abertzaletasunaren Agiritegia.

## SANTIAGO MARTIN VIRSEDA

1939ko uztailaren 26an, Zarauzko karabineroen ordezkariek atxilotu egin zuten. Resurreción Zumeta Alberdi Getariako epaile munizipalaren esanetan, ideologia frankistari leiala. Leonor Molet Getariako Sección Femenina-ko buruzagiak eta Resurrección Zumeta Alberdiren emazteak, 1936ko otsaileko Gorteetarako hauteskundeetan, Santiago Martin Virsedak eskuindarrak babestu zituela adierazi zuen. Horren ostean, 1940ko urtarrila bukaeran espetxealdi arindua lortu zuen[701].

## FRANCISCO NIETO RUIZ

Getarian karabinero gisan destinatuta, gerra hasi aurreko lau urte egin zituen eta gerra hasi baino zerbait lehenxeago Zarautzera lekualdatu zuten. Getariako udal-frankistak, jarrera oneko pertsonatzat determinatu zuen[702].

## TOMAS SALVADOR MANSO

Gerra hastean, karabineroen sarjentua zen eta Getarian bere postua betetzen zegoen. Getariako Defentsa-Komiteko zerbitzuak betetzera ukatu egin zen. 1936ko irailaren 20an, Getariako ebakuazioan, beste karabinero eskuindar batzuekin batera ezkutatu eta tropa frankistak Getarian sartu baino lehen, Zarautzen tropa frankistengana aurkeztu zen. Ordutik aurrera, Plaza horretako Komandante Militar izendatu zuten. 1944ko uztailaren 22an dokumentu publikoak faltsifikatzeagatik salatu zuten. Horren eraginez, Gerra-Kontseilua egin zioten eta aske geratu zen, Tomas Salvador Mansok bere nagusiari jarraiki egindako ekintzak zirela deklaratuz[703].

## GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

Gipuzkoako Foru Aldundiko administrazioan lan egin zuen getariarrik ere egon zen. Huraxe izan zen Ignacio Usobiaga Martiarenaren kasua, zeina bere postutik kendu zuten, erregimen frankistaren aurkako ideologia izateagatik. Anselmo Campos Gereka ere, 1937ko martxoaren 13an telefonoaren brigada mugikorretik kendu zuten.



**Bi karabinero Gerra Zibilean zehar.**

[701] GUA / AHPG-GPAH GEZ, 2842/34.

[702] GUA.

[703] GUA / Ipar-Mendebaldeko Eskualde Militarreko Tarteko Artxiboa, Ferrol, 463/36-540/44.

## 4.6. ERREPRESIO EKONOMIKOA

Lanpostuak galtzea gutxi ez eta, erregimen frankistak, indar-errepublikarren aldeko beste zenbait getariarri haien ondasunak ere konfiskatu zizkieten. Egikaritze hau hasiera batean Junta Carlista de Guerra-ren esku egon bazen ere, 1937ko urtarriletik aurrera, Gipuzkoako Ondasunak Konfiskatzeko Batzorde Probintziala (CPIB) eratzean, agintari frankistek, errepresio ekonomikoa egonkortu egin zuten. Azken hau, Batzorde Zentralaren filiala zen, Junta de Defensa Nacional delakoaren Batzorde Teknikoak osatutakoa.

Gipuzkoako Ondasunak Konfiskatzeko Batzorde Probintzialak bere egitekoa betetzeko, Euskal Herriko gainontzeko herrietan gisan, ezinbestekoa zuen Getariako udal-gobernuaren eta Junta Local de Información delakoaren laguntza. Horregatik, gehienetan, Gerra-Kontseiluetan epaituak izaten ziren preso guztien inguruko informazioa eskatzean, haiek zituzten ondasunen inguruko informazioa ere eskatzen zuten, haiek zuten familia eta lanbideaz gain. Gerrako preso politikoak ez ziren Gipuzkoako Ondasunak Konfiskatzeko Batzorde Probintzialaren eragina jasan izan zuten bakarrak izan; hain zuzen, gehienbat erbestean babestu ziren eta indar-errepublikarren aldeko (gehienbat Getariaren kasuan euskal nazionalistak) ideologia zuten getariarrak izan ziren. Batzorde Probintzialak, ondasunak zituenari kendu ahal izan zizkion, hala eta guztiz ere, etxerik xumeena zuen indar-errepublikarren aldeko getariarrei ere hura kendu zieten. Sufrikariorik handiena azken hauena izan zen, izan ere, ondasun asko zituzten getariarrek, dirutan ere bai baitzuten aurrera egin ahal izateko; baina etxe xumeen jabe zirenak, alokairuan gehienak, ez zuten bestelako ondasunik eta gerraoste latza pasa behar izan zuten.

Tropa frankisten atzaparretatik ihesi erbestera joan eta itzuli ziren zenbait familia etxera itzultzean haien etxeak hutsik aurkitu zituzten. Hutsik, hain zuzen, erregimen frankistaren aldeko zenbait getariar zein Getariara heldutako tropa frankistetako zenbait soldadu haien ondasunez jabetu zirelako.


BOLETIN OFICIAL
DE LA JUNTA DE DEFENSA NACIONAL DE ESPAÑA

Año 1936 — Burgos 16 de septiembre — Número 22

PRESIDENCIA DE LA JUNTA DE DEFENSA NACIONAL

**Decreto núm. 108**

Durante largo tiempo ha sido España víctima de actuaciones políticas desarrolladas por algunos partidos que, lejos de cooperar a la prosperidad de la Patria, satisfacían ambiciones personales con detrimento del bien común, pero nunca, como en los momentos anteriores al presente, ha culminado el antipatriotismo en la formación de entidades que, bajo apariencia política, envenenaron al pueblo con el ofrecimiento de supuestas reivindicaciones sociales, espejuelo para que las masas obreras siguieran a sus dirigentes, quienes las aprovecharon para medrar a su costa, lanzarlas a la perpetración de toda clase de desmanes y cristalizar al fin, en la formación del funesto llamado Frente Popular, de cuyos males, si responsables son las agrupaciones dichas, no lo son menos aquellas personas físicas que, con su actuación anterior o coetánea, directa o indirecta, han sido autores materiales o por inducción de los daños y perjuicios sufridos por el Estado y por los particulares, con motivo de la absurda resistencia sostenida contra el movimiento nacional, por lo que procede adoptar, contra unos y otros, medidas encaminadas a garantizar la responsabilidad que en su día pueda alcanzarles para la indemnización procedente, en la inteligencia de que medida elemental y básica de saneamiento es declarar fuera de la Ley a las agrupaciones de actividades ilícitas que siempre estuvieron al margen de ella; en vista de lo cual, como Presidente de la Junta de Defensa Nacional y de acuerdo con la misma, vengo en decretar:

Artículo primero. Se declaran fuera de la Ley todos los partidos y agrupaciones políticas o sociales que, desde la convocatoria de las elecciones celebradas en fecha 16 de febrero del corriente año han integrado el llamado Frente Popular, así como cuantas organizaciones han tomado parte en la oposición hecha a las fuerzas que cooperan al movimiento nacional.

Artículo segundo. Se decreta la incautación de cuantos bienes muebles, inmuebles, efectos y documentos pertenecieren a los referidos partidos o agrupaciones, pasando todos ellos a la propiedad del Estado.

**Ondasunak konfiskatzeko deia.** (BOE).

Gipuzkoako Ondasunak Konfiskatzeko Batzorde Probintzialak, aurreko lerroetan aipatutako 1936ko irailaren 13ko 108. Dekretuaren esanetara funtzionatu zuen. Haren bidez, kolpisten aurka jardun zuen edozein alderdiren ondasunak estatuaren jabetzara pasa ziren. Era berean, kolpisten aurka jardundako pertsonen ondasunen kasuan ere bide berbera erabili zuten, dekretuak aipatzen ez badu ere[704].

### 4.6.1. Gipuzkoako Ondasunak Konfiskatzeko Batzorde Probintzialak (CPIB) Getarian egindako konfiskatzeak

| IZEN-ABIZENAK | KONFISKATUTAKO ONDASUNAK |
|---|---|
| AGOTE BASURTO, EDUVIGIS | Harresiz kanpoko lursail baten hamar-heren indibisoa |
| ARBILLAGA LETURIONDO, JOSEFA | Getarian Galindo-ko lursaila. Zumaia, Zarautz, Usurbil, Orio, Hernani, Elgoibar, Eibar, Beasain, Azkoitia, Aizarnazabal eta Aiako lursailak ere bai |
| AZKUE IBARBIA, JUAN eta IRIBAR AREIZAGA, ANGELA | Gerra aurretik bizi ziren etxea |
| BERISTAIN GARRASTAZU, DAVID | Donostiako Herrieta kalean zuen tailerra |
| ETXEBE AIZPURUA, HILARIO | Gabietako txara eta mahastia |
| IDIAKEZ INDO, CECILIO | Elkano kaleko 28. Zenbakiko etxebizitza |
| IDIAKEZ INDO, “REMI” eta OIARZABAL AGIRRE, JUAN BAUTISTA | Gerra aurretik bizi ziren etxea |
| IRURETA GOMEZ, ANGEL | Zumaiako zenbait ondasun |
| LARRAÑAGA, NAZARIA | San Anton mendiko lursaila, gerra ostean, Ramon Alkortaren esku |
| MARTINEZ GIL, JULIAN eta VILLAVERDE PURAS, ANA | Etxeko altzariak |
| SALES ETXABE, FRANCISCO | 5.000 pezetako hipoteka-kreditua, Kale Nagusiko 40. zenbakiko etxearena / 5.500 pezetako beste bat, Elkano kaleko 3. zenbakiko etxearen eta Berrazo kaleko 20. zenbakiko etxearena / 3.000 pezetako beste bat, Berrazo kaleko sotoko pisu nagusiarena |
| SANSINENENA GOÑI, JUAN MIGUEL | Otadiko zati baten %26 partaidetza zatiezina eta Iruerregeta lursailaren barnean kokatutako ehundegi bat |
| SOLANA PERAL, IÑIGO | Jose Manuel Ricardo Aizpurua Arritegui jaunaren aurkako urteko% 5eko interesa duen 4.000 pezetako hipoteka-kreditua eta Elkano kaleko 5. zenbakiko etxearen laurden indibisoarena |

[704] BOE, 1936ko irailaren 13ko 108. Dekretua.

### 4.6.2. Erantzukizun Politikoen Eskualdeko Auzitegiak (TRRP) epaitutako getariarrak edo Getarian bizitakoak

Errepresio ekonomikoa are bortitzagoa egiteko, agintari frankistek, 1939ko otsailaren 9an, Erantzukizun Politikoen Eskualdeko Auzitegia (TRRP) eratu zuten. Horren kudeaketa, armada, magistratura eta F.E.T. eta J.O.N.S.-eko aparailuen eskuetan geratu zen. Hala, ideologia frankistaren aurkako determinatutako getariarrak, haien ideologiagatik soilik, epaituak izan ziren.

Hiru zigor mota ezberdin jaso zituzten: isun ekonomikoak, lanerako desgaikuntza eta bizileku-askatasunarin ezarritako murrizketak (erbesteratzeak, gehienbat). Euskal Herriko gainontzeko herrietan gisan, Getarian ere, kaltetu gehienek isun ekonomikoak ordaindu behar izan zituzten. Guztira auziperatutako 9 getariar edo Getarian bizitakoetatik hiru absolbitu egin zituzten: Mikaela Garrastazu Olaskoaga, Juan Manuel Irigoien Egaña eta Jose Iruretagoiena Kerejeta, hain zuzen. Hauez guztiez gainera, beren semeak Frantziara alde egin zuten arrantzaleei 30 eta 40 pezetako isuna ezarri zieten. Antonio Alegria aitari, bere semea Getariako alkate izateagatik, 36.000 pezetako isuna jarri zioten. Hori gutxi ez eta, getariar guztiak intsignia monarkikoa ezartzera behartuta zeuden, hala ez eginez gero, lehen abisuan, duro bateko isuna jasotzen zuten eta bigarren abisuan berriz, 20 durokoa (informazio gehiagorako, ikus 3. Eranskina).

Epaiak zuhurtziaz egin ahal izateko, Erantzukizun Politikoen Auzitegi Nazionala eta probintzietako sukurtsalak eratu zituzten. Gipuzkoan, Nafarroako eta Gipuzkoako Erantzukizun Politikoen Eskualdeko Auzitegiak CPIB-k hasitako lanari heldu eta jarraipena eman zion, Donostian instrukzio-epaitegi bat izan zuelarik.


COPIA — Folio 1

Relacion de donativos -multas recaudados para la Suscripcion para el Tesoro Nacional, depósitados en el Banco Guipúzcoano, en cuenta abierta a Comandancia Militar de Zarauz, para el Tesoro Nacional.

COPIA — Folio 2

DE GUETARIA.

En las relaciones de Zarauz y Guetaria, veran que con el mismo nombre y apellido, hay distintas entregas, pero se refieren a la misma persona que ha pagado a plazos por no poder hacer en una sola vez.

Zarautz eta Getariako herritarrek Zarauzko Komandante Militarrari egindako dohaintzak zein isun-ordainketak. (Renoko Unibertsitatea, Idoia Arrieta).

---

**GARRASTAZU OLASKOAGA, MIKAELA**

Gerra ostean Erantzukizun Politikoen Tribunal Nazionalak epaitu egin zuen, baina indultatu egin zuen[705].

---

**IDIAKEZ INDO, CECILIO**

Erantzukizun Politikoen Tribunal Nazionalaren bidez, Getariako udaletxe frankistak, gerra ostean, Elkano kaleko 28. Zenbakiko etxebizitza errekisatu egin zion. 1939ko urriaren 8an Frantzian erbestean aurkitzen zen, bere emazteak, Carmen Uranga Olaskoagak, lehenengoa eta haren anaia Jose Domingo Uranga Olaskoaga Frantziatik aberriratzeko egindako eskaera dokumentuaren arabera[706].

[705] CDMH: 75/00226.

[706] GUA / CDMH: 75/00451 / AZEDB / Aranzadi Zientzia Elkartea, op.cit., 89.or. / Bigarren Errepublikako Emaitzak. 1931ko Udal Hauteskundeak. https://www.euskadi.eus/informazioa/bigarren-errepublikako-emaitzak-1931ko-udal-hauteskundeak-guipuzcoa-udalerriak/web01-a2haukon/eu/

### IRAUNDEGI IBARRA, VICENTE

1940ko uztailaren 24an, Eugenio Egurbidek Getariako frankisten aurka egin zuela akusatu zuen, Gipuzkoako Erantzukizun Politikoen Epaitegian salaketa jarriz. Bere etxea errekisatu eta zenbait ondasun kendu zizkioten, haien artean: izardun gurutze bat, medaila bat eta Itsas Salbamentuko medaila. Bai eta makinaz idatzitako idatzi bat eta bere bi argazki ere. Teofilo Garcia Zarauzko komandantzia militarreko kaboak egin zituen erregistro hauek, 1936ko irailaren 30ean sinatutakoak dira[707].

Nafarroako Erantzukizun Politikoen Auzitegiak, 1941eko irailaren 2an, 100 pezetako isun-ekonomikoa eta 5 urteko kargu publiko guztietako gaitasungabetzera kondenatu zuen.









Tengo el honor de devolver a V. el adjunto oficio núm. [illegible] de fecha 16 del actual, cumplimentado debidamente con los informes que interesaba sobre los hechos del inculpado VICENTE IRAUNDIGUI IBARRA.

Dios guarde a V. muchos años.

Guetaria, 25 de Septbre. de 1940

El Alcalde,

Sr. Juez Instructor Militar de Responsabilidades Políticas de Guipúzcoa SAN SEBASTIAN

**Vicente Iraundegi Ibarra, Gipuzkoako Erantzukizun Politikoen Auzitegia.** (GUA).

### IRIGOIEN EGAÑA, JUAN MANUEL

Erantzukizun Politikoen Legeari jarraiki, Ondasunak Konfiskatzeko Batzorde Probintzialak espedientea ere ireki zion, gerora indultua eman zioten[708].

[707] GUA / AHPG-GPAH GEZ, 2846/68 / Renoko Unibertsitatea, Idoia Arrieta.

[708] Testigantza: Rufini Irigoien Burgaña, eta Jose Mari eta Pili Irigoien Beristain / SANZ GOIKOETXEA, E. 2019. *Zumaia 1936-1945: Giza Eskubideen urraketa eta errepresioa Gerra Zibilean eta Lehen Frankismoan.* Aranzadi Zientzia Elkartea: Donostia.

## IRURETAGOIENA KEREJETA, JOSE

Erantzukizun Politikoen Tribunal Nazionalak epaitu eta 1943an indultua lortu zuen[709].

## OLIDEN ALKORTA, JOSE MARIA

Erantzukizun Politikoen Probintziako Auzitegiak, 500 pezetako isuna ezarri zion eta bere pobreziagatik hura kentzeko erregutu zuen 1940ko urtarrilaren 17an[710].


3-Enero-1939

4 Enero 1939 - Ingresa en esta Prisión Provincial procedente de la Habilitada de Zapateri, por conveniencias del servicio.
El Subdirector Acctal.
Vº. Bº.
El Director.

17 [illegible] 1940 - Se remite al Ilmo. Sr. Presidente del Tribunal Nacional de Responsabilidades políticas instancia que le dirge este penado en suplica de que le sea condonada la multa de 500 pesetas que se le ha impuesto por el Tribunal Regional de responsabilidades políticas, dado su estado de penuria y pobreza.
El Subdirector
Vº Bº
EL DIRECTOR

**Jose Maria Oliden Alkorta, Gipuzkoako Erantzukizun Politikoen Auzitegiak ezarritako isuna.** (AHPG-GPAH GEZ).

## SETIEN CALVO, JUAN

Hala eta guztiz ere, 1939ko maiatzaren 22an egindako akusazio batean, alkateak, arma gainean erabili zuela akusatu zuen, zeinarekin Juan Setien Calvori, gerra ostean eraikitako errepublikar biolentoaren irudia islatu nahi izan zion. Salaketa horien guztien eraginez, Juan Setien Calvok, 1939ko urriaren 28an, arratsaldeko 18:00etan, Gipuzkoako Erantzukizun Politikoen Epaitegian deklarazioa egin behar izan zuen. Gerraren eraginez, preso politikoa izan zen Horren eraginez, 1940ko ekainaren 3an, Nafarroako Erantzukizun Politikoen Auzitegiak, 100 pezeta ordaintzera derrigortu zuen[711].




**Juan Setien Calvo Gipuzkoako Erantzukizun Politikoen Auzitegiak epaitua.** (GUA).



**Juan Setien Calvo-ri Nafarroako Erantzukizun Politikoen Auzitegiak emandako sententzia.** (Nafarroako Artxibo Irekia).

709 CDMH: 75/00184.

710 AZEDB / AHPG-GPAH GEZ, 2855/79 / Ipar-Mendebaldeko Eskualde Militarreko Tarteko Artxiboa, Ferrol, 2149/38-3149/38.

711 GUA.

## URRESTI ANDONEGI, MARIA JOSE

Nafarroako Probintziako Erantzukizun Politikoen Auzitegiak txostenak egin zizkion[712].



RELACION QUE SE CITA.-

María José Urresti Andonegui.-

TRIBUNAL REGIONAL DE RESPONSABILIDADES POLITICAS DE NAVARRA

Rollo núm.

Ruego a V.S.I. que con la maxima urgencia informe a este Tribunal si alguno de los individuos incluidos en la adjunta relación disfruta de un jornal superior a 15 pesetas o posee capital superior a 15.000 pesetas.-

Fta. 43.-

Dios guarde a V.S.I. muchos años.-

Pamplona a 1º de Marzo de 1.941.

EL PRESIDENTE

Sr. Alcalde del Ayuntamiento de GUE

**Maria Jose Urresti Andonegi, Nafarroako Erantzukizun Politikoen Auzitegiak epaitua.** (GUA).



SENTENCIA nº 1145

En la Ciudad de Pamplona a dos de Septiembre de mil novecientos cuarenta y uno.-

Señores:
D. Eladio Carnicero Herrero.-
D. Leocadio Támara García.-
D. JoaquinnOchoa de Olza Arrieta.-

Visto por el Tribunal Regional de Responsabilidades Politicas el expediente número 1.331, seguido contra VICENTE IRAUNDEGUI IBARRA, mayor de edad, casado, ocsante de empleo y vecino de San Sebastian; siendo Ponente el Magistrado Don Leocadio Támara García.-

RESULTANDO: Que el inculpado VICENTE IRAUNDEGUI IBARRA, de ideologia izquierdista al iniciarse el Glorioso Movimiento Nacional no consta el partido politico a que estuviese afiliado; comenzada la subversión rojo-separatista el inculpado que desempeñaba el cargo de Agente de Vigilancia de Pesca del puerto Guetaria-Zarauz se puso al servicio del Frente Popular y próxima la entrada de las Tropas Nacionales huyó al interior de zona roja y mas tarde a Francia, pasando a la zona roja catalana y valenciana donde continuó prestando sus servicios al Frente Popular hasta la terminación de la guerra de liberación en que fué detenido y sujeto a procedimiento por la Autoridad Militar, recayendo decreto de sobreseimiento provisional. Hechos probados y menos graves.-

RESULTANDO: Que, incoado expediente por la extinguida Comisión Provincial de Incautación de Bienes de Guipúzcoa el Excmo Sr. General Jefe de la Sexta Región, por Decreto de fecha 16 de Febrero de 1.939, fijó la responsabilidad del inculpado en cincuenta mil pesetas, pero de conformidad con lo dispuesto en la Disposición transitoria tercera de la Ley de Responsabilidades Politicas de 9 de Febrero de 1.939, el Tribunal acordó la prosecución del expediente con arreglo a los preceptos de esta Ley.-

RESULTANDO: Que el inculpado es casado sin hijos y carece de bienes de fortuna.-

RESULTANDO: Que puestas las actuaciones de manifiesto a los efectos del apartados D) del artº 55 de la Ley de Responsabilidades Politicas el inculpado no ha presentado escrito de defensa.-

RESULTANDO: Que en la tramitación del procedimiento se han observado las disposiciones legales.-

CONSIDERANDO: Que los hechos que se declaran probados se hallan comprendidos en el apartado L) del artº 4º de la Ley de Responsabilidades Politicas - siendo responsable de los mismos el inculpado a quien debe imponerse sanción adecuada a los hechos realizados y a su posición social, económica y cargas familiares.-

CONSIDERANDO: Que no son de estimar circunstancias modificativas de la responsabilidad.-

VISTOS: Los articulos 1,4,8,10,13 y concordantes de la Ley.-

FALLAMOS: Que debemos condenar y condenamos al inculpado VICENTE IRAUNDEGUI IBARRA, como responsable politico a que pague al Estado en concepto de indemnización de perjuicios la cantidad de CIEN PESETAS. Asimismo le imponemos la sanción de inhabilitación para el desempeño de cargos de autoridad, mando y confianza en los organismos oficiales por tiempo de CINCO AÑOS. Notifiquese esta sentencia personalmente a los inculpados y, una vez firme, cumplase lo dispuesto en la Ley para su ejecución.-

Así por esta nuestra sentencia lo pronunciamos, mandamos y firmamos.-

**Vicente Iraundegi Ibarraren sententzia.** (Nafarroako Artxibo Irekia).

[712] GUA.

## 4.7. KARTZELA ETA KONTZENTRAZIO-EREMUETAN PRESO EGONDAKO GETARIARRAK

“Parte oficial de guerra, del cuartel general del Generalísimo correspondiente al día de hoy, primero de abril de 1939, tercer año triunfal:

‘En el día de hoy cautivo y desarmado el Ejército rojo, han alcanzado las tropas Nacionales sus últimos objetivos militares.

LA GUERRA HA TERMINADO

Burgos, 1º de abril de 1939

Año de la Victoria

EL GENERALÍSIMO,

Franco”



CUARTEL GENERAL DEL GENERALISIMO
ESTADO MAYOR

SECCION DE OPERACIONES.

PARTE OFICIAL DE GUERRA

correspondiente al día 1º. de Abril de 1939.- III Año Triunfal

En el día de hoy, cautivo y desarmado el Ejército rojo, han alcanzado las tropas Nacionales sus últimos objetivos militares.

LA GUERRA HA TERMINADO.

BURGOS 1º. de Abril de 1939
Año de la Victoria
EL GENERALISIMO,

CUARTEL GENERAL DEL GENERALISIMO · ESTADO MAYOR

F. Franco

**Gerra amaierako dokumentua.**

Gerra, ekintza gisan, 1939ko apirilaren 1ean, guztientzat amaitu zen. Handik aurrera ez zen bi ejertzito armatuen arteko tirokatzerik izanen; zibil desarmatuak eraildako bonbardaketek ere amaitu ziren. Tropa frankistek, gerra, Bigarren Errepublikako gobernu legitimoaren aurka kolpea eman eta haren porrotaren ostean hasi zuten. Gobernu legitimoa babesten saiatu ziren indar-errepublikarrak gerra galdu bitartean, tropa frankistek haien garaipena lortu zuten. Tropa frankistek, indar-errepublikarren alde jardundako gudari zein milizianoak desarmatu eta arma haiek, beraien arma biltegira batu zituzten.

Hala, alde batetik, frankistek, handik aurrera, beren arma eta ideologia, askatasunez erabili ahal izan zituzten. Bestetik, indar-errepublikarren aldekoek, desarmatuta eta haien ideologia zapalduta, adierazpen askatasuna errotik kendu zieten.

Gerra amaitu ostean, sozietatea, garaile eta garaituen artean banandu zen. Garaileek boterea eta eguneroko bizitzan abantailak izan bitartean, garaituek irabazleen mendeku-gosearen ondorioak jasan behar izan zituzten. Alegia, garaituek, garaileen errepresioa jasan behar izan zuten. Aurreko ataletan ikusi ahal izan dugunez, frankistek, garaituen gaineko errepresio mota ezberdinak gauzatu zituzten: langile publikoen botatzea, errepresio ekonomikoa, emakumeak menpeko egiteko errepresio modu ezberdinak… Hori gutxi ez balitz, gerren ostean gertatu gisan, frankistek, indar-errepublikarren alde jardun zuten gudari zein milizianoak preso egin zituzten. Haiek guztiak, izatez, preso politikoak ziren, hain zuzen, beren ideologia politikoa defendatzeagatik preso hartu zituzten eta ez bestelako ekintzengatik. Hala eta guztiz ere, frankistek, haien izaera politikoa ukatu zieten.

Gerran zehar indar-errepublikarrekin borroka egin zuen getariar bat baino gehiagok ere, frankisten kartzela zein kontzentrazio-eremuetan haiek gauzatutako errepresio fisiko zein psikologikoa jasan behar izan zuten. Indar-errepublikarren alde borrokatu zuten getariarrek, zenbait fronte ezagutu zituzten. Zenbait Katalunia eta Valentziako eremuetaraino borrokan egitera heldu ziren. Esaterako, beste zenbait kasuren artean, Vicente Iraundegi Ibarra getariarra, 1939ko maiatzaren 10ean tropa frankistek preso hartu eta Valentziako “Prisión Celular” deiturikoan preso egon zen, bertatik Ondarretako presondegira lekualdatu zuten arte.

Hala eta guztiz ere, getariar gehienak, 1937ko udan Santoñan preso egin zituzten. Gehienek, gerran zehar, Eusko Gudarostearen aginduetara borrokatu zuten. Horrenbestez, gudari zein miliziano getariar gehienek, euskal lurraldeetan eta Kantabrian borrokan jardun eta tropa frankistek, aipatu Santoñan preso egin zituzten. Abuztuaren 26a, Eusko Gudarosteko gudari zein milizianoentzat, zinez egun lazgarria izan zen. Bi egun lehenago, Eusko Jaurlaritzak, tropa frankisten menpe zeuden tropa italiarrekin, “Santoñako Paktua” gisan ezagutzen dugun hitzarmena sinatu zuen. Haren arabera, gudari eta milizianoei, tropa italiarren gerra-preso egin eta, beraien bizitza barkatuko zitzaien, armak entregatzearen truke. Bitartean, funtzionario, agintariek … errefuxiatzeko aukera izanen zuten:

“Hubo suicidios, intentos de fuga a la desesperada en barcos de pescadores y algunos incluso murieron ametrallados por los italianos en el túnel de Laredo”[713].

Hitzartuak hitzartu, tropa frankistek italiarrek sinatutako hitzarmena hautsi egin zuten. Hartaz, gudari zein milizianoak desarmatu ostean, Santanderreko zezen-plazan 45.000 preso errepublikar eta Sardinero-ko futbol zelaian, 15.000 preso errepublikar pilatu zituzten. Santoñako kaian gutxi gorabehera 10.000 pertsona zeuden eta oraino ez dakigu horien artean zenbat gudari entregatu ziren:

“De la ingente masa de prisioneros capturados en los puertos cántabros, a los militares los llevaron al campo de concentración de Laredo; a los civiles, a el Dueso, alegando que allí se sentirían más seguros, disfrutarían de autonomía dentro del recinto y serían custodiados por los italianos, quienes les facilitarían alimentos y medicinas; de modo que entraron en el penal ‘voluntariamente´”[714].

[713] BADIOLA ARIZTIMUÑO, ASCENSIÓN. 2012. *Cárceles y campos de concentración en Bizkaia: 1937-1940.* Txertoa: Donostia, 26.or.

[714] *Ibidem*, 28.or.


**Santoñako Paktua: armen entrega.** (Irargi Institutua Bidasoa Dokumentu Bilduma).


**Santoñako Paktua: ebakuazioa.** (Irargi Institutua Bidasoa Dokumentu Bilduma).

Abuztuaren 28an bertan, tropa frankistak Duesora sartu eta, presoei haiek soinean zeramatzaten ondasunak kendu eta, deklarazioak hartu eta epai-militarrak 25 pertsonako taldeetan gauzatzeari, eta heriotza-zigorra eskatzeari ekin zioten.

Urrian, El Duesoko presondegian, epaitegi militarra ezarri zuten. Hargatik, presondegian, sailkatzeko zain zeuden gerra-presoak eta zigorra jasotakoak pilatu ziren. Egoera latza pasa zuten preso haiek guztiek. Baldintzak ez ziren batere onak: arkakusoak, zimitzak, elikagaien eskasia (potajerik ez zen, sopen artean, maiz, bareak agertzen ziren... ), leihoak irekita lo egin behar izatea hezetasun eta hotz ikaragarriarekin… Martin Pinillos-ek, Kontzentrazio-Eremuen Inspekzioaren arduradun zenak, preso politikoak, estatu frankistak ondo elikatzen zituela justifikatzen saiatu zen (ikus Presondegietako Ustezko Presoen Menua-Ascension Badiolaren liburutik).

Horri aurre egin ahal izateko, 1937ko martxoan, Bizkaiaren aurkako azken erasoa hasi baino pixka bat lehenago, militar kolpisten buruzagiek egindako Gerrako Presoak Sailkatzeko Agindu Orokorra erabili zuten. Presoak, lau kategorietan sailkatzen zituzten:

A) “Presoak edo aurkeztutakoak, ‘Mugimendu Nazionala’-ren aldekoak izatea justifikatzen dutenak edo, gutxienez, ‘Mugimendu’-aren aurkakoak ez direnak, edo etsaiaren aldean soldadu ibilitakoen kasuan, behartuta egin izana, edo lerro horietan haien borondatez soldadu ibili arren, etsaiaren fronteari aurkeztea sustatzeko igorritako aldarrien ondorioz gurera borondatez etorritakoak”.

B) “Borondatez etsaiaren aldean soldadu ibili eta beste erantzukizun sozial, politiko edo arruntik ez duten presoak”.

C) “Etsaiaren armadako buruak eta ofizialak; gure tropen aurkako ekintzetan nabarmendu edo gailendu diren pertsonak, harrapatutakoak zein aurkeztutakoak; Aberriaren eta ‘Mugimendu Nazionala’-ren etsai diren alderdi eta jarduera politiko zein sozialen buruzagiak eta gailendutako kideak, ‘Mugimendu Nazional Askatzailea’ baino lehen edo ondoren egindako matxinada edo bestelako ekintza sozial edo politikoko kideak”.

D) “Delitu arrunten edo jendearen zuzenbidearen aurkako delituen egiletzat jo daitezkeen pertsona harrapatuak edo aurkeztutakoak, izan delitu horiek ‘Mugimendu Nazionala’ baino lehenagokoak edo ondorengoak”[715].

| | Lunes y miércoles | Martes, jueves y sábados | Viernes y domingos |
|---|---|---|---|
| Desayuno | 7 grs. de café; 100 grs. de leche y 16 grs. de azúcar | 7 grs. de café; 100 grs. de leche y 12 grs. de azúcar | 7 grs. de café; 100 grs. de leche y 18 grs. de azúcar |
| Comida | 125 grs. de garbanzos, 175 grs. de patatas, 30 grs. de carne, 30 grs. de fideos y 25 grs. de manteca | 125 grs. de garbanzos, 175 grs. de patatas, 30 grs. de carne, 30 grs. de fideos y 25 grs. de manteca | 125 grs. de garbanzos, 175 grs. de patatas, 30 grs. de carne, 30 grs. de fideos y 25 grs. de manteca |
| Cena | 300 grs. de patatas, 60 grs. de carne y 25 grs. de manteca | Nada | 235 grs. de lentejas, 60 grs. de carne y 25 grs. de manteca |
| Para todo el día | 400 grs. de pan, cebollas, pimienta y ajos | 400 grs. de pan, sal, cebollas, pimienta y ajos | 400 grs. de pan, sal, cebollas, pimienta y ajos |

**Presondegietako Presoen Ustezko Menua.** (Ascension Badiolaren liburutik).

[715] Sailkatzeko Agindu Orokorra (AGMA).



**Santanderreko zezen plazan, presoak, klasifikatu zain.** (Luis Jiménez de Aberasturiren Agiritegia).

Sailkapen hura probestuz, B atalean sailkatutakoak eta A ataleko zalantzazkoak, kontzentrazio-eremuetara eta kartzela frankistetara eramaten zituzten. Han, gehienak Langile Batailoietan ezartzen zituzten. Horien bitartez, gatibu-lanak egitera behartzen zituzten, kartzela bakoitzeko Presoak Sailkatzeko Batzordearen irizpideak jarraituz. Batzordeek, bi informazio-iturri erabiltzen zituzten: batetik, presoak ziren herrietako agintari-frankistek eginiko txostenak eta, bestetik, agintari haiek aipatutako batzordeetan eginiko adierazpenak.

Herri guztietan gisan, Getarian ere, txosten haiek egiteaz, "Junta Local de Información" delakoa arduratu zen. Bertan, herriko goi-agintariak bildu ziren: udala, eliza, Falangea eta Guardia Zibila. Udalean, hasieran Ramon Manterola eta geroago, Eugenio Egurbide alkateak preso errepublikarren inguruko txostenak egin zituzten. Falangeari dagokionez, Getariako F.E.T. eta J.O.N.S.-eko buruzagiak egiten zituen; hasiera batean, Alejo Jimeno Oses-ek egin zituen eta haren ostean, Eugenio Egurbide Azpeitiak postu hau lortzean, berak egin zituen txostenak. Elizari dagokionez, garai hartako parrokoak egin zituen. Azken horrek, batik bat, presoen moralari lotutako txostenak gauzatu zituen. Guardia Zibilaren txostenik hauteman ezin izan badugu ere, egon egonen ziren.



CERTIFICADO DE ANTECEDENTES Y CONDUCTA

D. Eugenio Egurbide Azpeitia, Alcalde de la Villa de Guetaria
CERTIFICO: que segun resulta de los antecedentes obrantes en esta Alcaldía y ficheros formulados de los evadidos y demás datos que me han sido suministrados por los Agentes de mi autoridad. D. Vicente Iraundegui Ibarra, se encontraba, al iniciar el Glorioso Movimiento Nacional, ejerciendo el cargo de Celador de Puerto en esta localidad, en cuyo cargo llevaba en dicha fecha más de dos años, habiendo observado buena conducta y sin que haya hecho ostentación alguna en la politica ni estar afiliado a ningún partido.
Durante el Movimiento se sumó á los gubernamentales y Comisarias del frente popular á cuyas ordenes y armado presto diversos servicios. Participó en un registro verificado en la casa del Sr. Marques de Casa Torres, y el día de la evacuación, y despues de marchado ya el Comité local del frente poular, se sacaron del Ayuntamiento, donde se encontraban recogidas varias escopetas del vecindario, para lo que fue violentado la puerta del local donde estaban depositadas y faltó tambien de la sala del Ayuntamiento, al que tuvieron facil acceso, un tapiz alusivo a la primera vuelta al mundo por Juan Sebastian Elcano, hechos estos en los que se le atribuye parte activa al referido Vicente Iraundegui.
Aparte de lo hecho constar precedentemente no se tiene conocimiento en esta Alcaldía, de haber participado en ningún hecho criminal nip perseguido á persona alguna de derechas ni practicado detenciones.
Y para que conste y surta los efectos procedentes, expido el presente á instancia de parte interesada, en Guetaria á veintitres de Abril de mil novecientos treinta y nueve
Año de la Victoria

**Eugenio Egurbide Azpeitia alkate frankistak, Vicente Iraundegi Ibarraren aurka eginiko txostena.** (GUA).

1938KO MARTXOAN EUSKO JAURLARITZAK EGINIKO ERREPRESALIATUEN ZENBAKETA[716]

| | |
|---|---|
| **ATZERRIRA ERBESTERATUTAKO EDO ESPAINIA ERREPUBLIKARREREA ERBESTERATUTAKO EUSKALDUNAK** | 200.000 |
| **BIZKAIAN PRESO** | 29.350 |
| **ARABAN PRESO** | 9.150 |
| **GIPUZKOAN PRESO** | 14.500 |
| **NAFARROAN PRESO** | 16.000 |
| **SANTOÑAN PRESO** | 6.300 |
| **KONTZENTRAZIO-EREMU ETA LANGILE BATAILOIETAN PRESO** | 30.000 |
| **GUZTIRA ERREPRESALIATUAK** | 305.300 |

Zifra hauek guztiek, argi eta garbi, gerra galdu zutenek jasandako errepresio bortitza erakusten digute. Frankistek ongi zekiten nor ziren galtzaileak eta teknika ezberdinak erabili zituzten galtzaileen gorputzak diziplinatzeko.

## 4.7.1. Euskal informazio-zerbitzua edo araba-sarea, presoen eta haien familien lagungarri

Preso egindako gudarien egoera, presondegi, kontzentrazio-eremu zein langile batailoietara klasifikatu ostean eramatean ez zen askoz hobea izan. Eguneroko bizi-baldintzak ankerrak izan ziren, gaixotasun eta gosea egunerokotasunaren parte izan zuten:

“Para el desayuno se daba un cazo de agua con achicoria y algo de leche. Al mediodía, un escaso cazo y medio de garbanzos. Entre ellos, a alguno le tocaba algún pedazo de carne, y alguna porción de tocino, o algunos fideos nadando en abundante agua caliente”[717].



**Presondegietako Presoen Ustezko Menua.** **(Ascension Badiolaren liburutik).**

[716] BADIOLA ARIZTIMUÑO, ASCENSIÓN, op.cit., 37.or.

[717] *Ibidem.*, 52.or.

Horrez gainera, zenbait presok tortura fisikoei ere aurre egin behar izan zieten:

“Por otro lado, en muchas cárceles, la crueldad y los malos tratos estaban a la orden del día. A modo de ejemplo, un suceso ocurrido en la cárcel de Escolapios, en la que mataron de un tiro de fusil a un chico que se asomó a la ventana. Era frecuente que se tirase a dar a todo el que se le ocurriera asomarse”[718].

Preso haiek guztiek era guztietako utzikeriak jasan behar izan zituzten. Haien gorputzetan eta baita, beren senideen gorputzetan ere, errepresio anker haren aztarna fisiko zein psikologikoak gaur egunera arte antzeman ditzakegu. Frankistek, galtzaileen gorputzen diziplinatze fisiko eta psikologikoa burutu zuten. Janariaren murrizketa, ez zen gerraosteko janari murritzaren ondorioa izan, presoen gorputzak diziplinatzeko erabilitako metodoetako bat izan zen. Teknika anker horren bitartez, frankistek, presoak energiarik gabe uztea helburu zuten eta modu horretan, antolakuntza politiko eta erresistentzia antolatzeko aterabiderik gabe uztea. Horrez gainera, presoek beren egunerokotasunean, hotzari zein bero izugarriari aurre egin behar izan zieten, eta frankistek, hartarako beharrezko arropa edo babesgarririk ez zieten eman:

“La vestimenta que se dispuso en un principio, tal y como se define en la memoria de Martín Pinillos, se componía de un gorro blanco cilíndrico; camisa blanca de tela fuerte, que había de servir de prenda exterior, con una P y un número de prisionero grabados en el pecho con tinta indeleble; pantalón caqui; alpargatas y dos mudas de ropa interior, además de una manta y una colchoneta en los campos de carácter de permanencia y en los batallones de trabajadores”[719].

Frankistek, presoak, utzikeriaz tratatu zituzten. Estatu frankistaren diziplinatzearen esperimentua izan ziren. Teknika haien guztien bidez, argi eta garbi adierazi zieten galtzaileak zirela eta gerra hasi eta bitartea beren barnean zituzten ideiak zituzten pertsonak diktadura frankistan ez zirela ongietorriak izanen. Tortura fisikoak ere, teknika horien guztien parte izan ziren. Presoek ez zuten ezer balio eta horren adibide dugu, askotan, goseak, gaixorik… egonik ere, hiltzen uzten zietela:

“También se dieron varios casos de reclusos fallecidos al no haber sido operados en un hospital, ante la imposibilidad de sacar del penal a ningún enfermo. Este problema se resolvió, en cierto modo, con la iniciativa y actuación de médicos vascos reclusos que operaban dentro de la prisión, así como de la asistencia de las Hermanas de Caridad”[720].

Presoen bizitzarekin amaitzeko metodo nagusiena, fusilamenduak izan arren, garrotea ere erabili zuten. Esaterako, Bilbon 1937-1939 bitartean, 34 preso politiko garrotearen bidez akabatu zituzten eta beste 550 fusilatuz[721].



**Garrote bidezko hilketa, data ezezaguna.**



**Arrasateko emakumeen fusilamenduaren errekreazioa.** **(Dragoi Produkzioak).**

Diziplinatze fisikoa ez ezik, diziplinatzeko psikologikoa ere eguneroko ekintza bihurtu zen. Kontzentrazio-eremu, Langile Batailoi zein kartzeletan, preso guztiak agur faxista eginez beraiek erreprimitu zituen sistemaren himnoa “Cara al Sol” kantatzera derrigortuak izaten ziren. Bai eta irakurgai faxistak entzun eta irakurtzera ere, bestelako ideologikoak ziren irakurgai guztiak zentsuratuak izan ziren erregimen diktatorialean. Izugarrizko buru jatea egin zieten preso haiei guztiei eta borrokatutako ideiak ezerezean uzten saiatu ziren. Haien gorputzen diziplinatzearen bidez, argi eta garbi utzi zieten zer zen onargarria diktadura frankistan eta zer ez. Egoera hartan, zenbait preso politikok beren alderdiei eta Bigarren Errepublikako gobernuari preso frankisten eta beraien arteko trukatzeetan parte hartzeko ere erregutu zieten.

[718] *Ibidem.*, 63.or.

[719] Memoria de la ICC, AGMAV, C2324, L46 BIS, Cp 3.

[720] BADIOLA ARIZTIMUÑO, ASCENSIÓN, op.cit., 43.or.

[721] *Ibidem*, 64.or.



San Pedro de Cardeña (Burgos) kontzentrazio-eremuko presoak agur faxista egitera derrigortuta.

Egoera miserable hartan, zenbait preso arnasguneak bilatzeaz arduratu ziren. Gehienetan preso-gunetik kanpoko bizitzarekin lotutako ekintza ezberdinetan aurkitzen zituzten egoera hobeak: senideei idatzitako eskutitzak, haientzat eginiko opariak…

Hori bide, batik bat presoen egoeraren jakitun egin ahal izateko, Eusko Jaurlaritzak, Euskal Informazio Zerbitzuak sortu zituen. Lehen helburua, Santoñako Paktua originala, iparraldera eramatea izan zen, hain zuzen, iparraldean erbesteratutako agintariak ez baitzekiten handik aurrera zer-nolako etorkizuna izanen zuten eusko gudariek. Hala, Euskal Informazio Zerbitzuek sortutako lehenengo taldea, emakumez osatuta egon zen. Bittori Etxebarria elizondotarraren eta Delia Lauroba eta Itziar Mujika donostiar Emakume Abertzale Batzako emakumeen lan paregabeari esker, Duesoko kartzelatik, Santoñako Paktuarekin kopia atera eta mugaz bestalde eramatea lortu zuten. Agustin Ariztiarekin batera, Bittori Etxebarriak Alduide aldera irten eta gaua mugan pasa zuen. Ariztiak Elizondora egin zuen eta eguna argitzearekin batera, Etxebarriak, Baionara irten zuen Santoñako Hitzarmenarekin.

Santoñatik preso gehienak Larrinagara eraman zituzten. Bertako kontaktuak Maria Teresa Verdes-ek egin zituen, bilbotarrak, eta Emakume Abertzale Batzako kideak. Haren anaia ere, Larrinagan zegoela baliatuz, kontaktuak hasi zituzten. Hondo bikoitzeko otarrarekin eta gailetetan mezuak sartuz burutu zituzten kontaktu gehienak. Pertsona andanentzako mezuak atera zituzten kartzelatik: agintari nazionalistentzat zein ezkertiarren artean Negrin, Pasionaria, Largo Caballero… Kartzela barneko kontaktuak, Juan Ajuriagerrak koordinatzen zituen. Presoak elkarren artean pasatzen zuten “Espetxean” aldizkaria sortu ere egin zuten.

Halako mezularitza kartzela andanetan gertatu zen. Esaterako, Vicente Iraundegi Ibarra preso getariarra, Valentziako “Prisión Celular” deituriko presondegian zegoela, 1939ko abenduaren 20an bertako Diziplinako Juntak, kanpotik ekartzez zizkien janariaren saskian mezuak aurkitzeagatik, hilabeterako kanpoko saskia jasotzeko baimena kendu zioten[722].

Hartan zebiltzala, Delia Laurobari haren senarra ANV-ko Joxe Azurmendi kapitaina fusilatu egin zioten. Hargatik ordea, ez zion bere lan militanteari utzi eta kontaktuak betetzen jarraitu zuen indarrez beteta. Handik gutxira, Luis Alava izan zen Euskal Informazio Zerbitzuen buruzagia; hala eta guztiz ere, lurraldekako kudeaketa nahiko independentea izan zen. Burgoseko auditorian zituzten kontaktuei esker, zenbait epai galduarazi ahal izan zituzten; zenbait presoen egoera hobetuz.

Bigarren Mundu Gerran zehar, Euskal Informazio Zerbitzuak, zinez informazio garrantzitsua pasa zien aliatuei: Condor Legioaren, mugaren egoeraren, itsasontzi faxista eta nazien… inguruan. Naziek Paris hartzean, Eusko Jaurlaritzaren egoitzan “Servicios Interior” deituriko dokumentazioa topatu zuten. Haiek horren abisua, polizia frankistari eman zieten eta zenbait ikerketen ostean, 1940ko abenduaren 20an lehen atxiloketak burutu zituzten. Euskal Informazio Zerbitzuko kideak atxilotu eta kalabozotik kalabozora erabili ostean, Madridera eraman zituzten. Han torturatu eta ordu luzez galderak erantzunez izan zituzten. 15 egunetan Sustapen Ministerioko tortura tokian izan zituzten.

[722] AHPG-GPAH GEZ, 2846/68.

21 pertsonari auzi militarra egin zieten. 1941eko uztailaren 4an haietatik 19 heriotz-zigorrera kondenatu zituzten, bati 20 urteko kondena ezarri eta bakarra absolbitu egin zuten. Zigortuak "matxinadari laguntzeagatik" kondenatu zituzten. Kondenatutako emakumeak, Ventas-eko emakumeen kartzelara eraman zituzten. 1942ko iraileko sententziaren bidez, heriotz-zigorrak kendu egin zizkieten eta, 30, 25 eta 20 urteko kartzela zigorretara kondenatu zituzten. 1943ko maiatzaren 6an, Luis Alava oraindik ere heriotz-zigorrera kondenatuta, fusilatu egin zuten, 52 urte zituen. 1947ko otsailaren 11n, gainontzekoek, indultua lortu zuten eta kartzelatik atera zituzten.

Euskal Informazio Zerbitzuen egitekoa ezinbestekoa kausitu zen, preso zeuden haiei lagundu ahal izateko.

## 4.7.2. Kontzentrazio-eremuak eta langile-batailoiak

Aurreko lerroetan azaldu gisan, B atalean sailkatutakoak eta A ataleko zalantzazkoak, kontzentrazio-eremuetara eta kartzela frankistetara eramaten zituzten. Estatu frankistak, 1937ko ekainean Inspección de Campos de Concentración (ICC) delakoa sortu zuen, handik aurrera, preso guztien klasifikazioen berri eta kontzentrazio-eremu guztien egoeraren berri izan zuen.



**Irungo kontzentrazio-eremuko presoak, mezan belaunikaturik.** (Biblioteca Nacional de España).



**Porta Coeli-ko kontzentrazio-eremua (Serra, Valentzia).** (Rafael Arnal, El diario.es).



**Presoak gatibu-lanetan, Deustoko Unibertsitatean (Bilbo).** (Biblioteca Nacional de España).



**Deustoko Unibertsitateko presoak (Bilbo).** (Biblioteca Nacional de España).

Kontzentrazio eremuetan, 1937ko irailaren 14ko legeen arabera, presoek zenbait neurri bete behar izaten zituzten. Toki hauetan bandera frankista ezarri eta egunero, presoak bere aurrean formatu eta bandera eskuin besoa jasota agurtu behar izaten zuten. Bandera beti presoen guardia batek zainduta egon behar izaten zuen. Beste bi formazio bete behar izaten zituzten, presoek zuzentasuna izan zezaten, bata goizean eta bestea arratsaldean. Horien bitartean, presoen zerrenda pasatu, irakurketak egin eta ariketa fisikoa egiteko probesten zituzten. Hau guztia amaitzean, hiru "viva" España eta Generalisimo-ari egin behar zizkieten[723]. Familiakoek baino ezin zituzten bisitak egin, Kontzentrazio Eremuetako ordezkariek hala frogatzen zutela ikusten zutenean. Eskutitzek… zentsura pasatzen zuten; familiakoek ekarritako janaria ere, kontzentrazio-eremuan onartzen zena baino ezin zen izan; alde egitea intentatzen zutenek zigorra jasotzen zuten. Preso guztiek burua estali gabe eta eskua zutik agurtu behar zituzten beren nagusiak. Galtzaileek sumisioa erakutsi besterik ez zuten inposatutako ordena berriaren aurrean.



Presoen bataioa, Aranda de Duero-ko (Burgos) kontzentrazio-eremuan. (Biblioteca Nacional de España).



Presoen bataioa, bandera frankistekin, Aranda de Duero-ko (Burgos) kontzentrazio-eremuan. (Biblioteca Nacional de España).

Propagandaren bidez, beti ere, egoera tamalgarri hau guztia deuseztatu eta presoak egoera onean zeudela transmititzen saiatu ziren. Presoen egoerak zinez tamalgarria izaten jarraitzen zuen, eskutitz honek erakusten duen gisan:

"En alguna de las cartas dirigidas a ustedes sobre el trato inhumano dado a los prisioneros de guerra, por la jornada de trabajo excesiva a que los tienen sometidos y a una alimentación insana e insuficiente (…) Hace unos días desfilaron por las céntricas calles del Casco Viejo bilbaíno numerosos prisioneros que se dirigían a la estación de ferrocarril de Lezama. Su paso por ellas produjo enorme sensación en el vecindario. Muchos de los prisioneros no podían tenerse en pie y caminaban sostenidos por sus compañeros. Era un desfile de rotos y sucios"[724].

Gerrak aurrera egin ahala kontzentrazio-eremuek geroz eta preso gehiagorekin, gainezka egiten hasi ziren. Horren aurrean, 1937ko abendutik aurrera, Franco-ren Kuarteletik ICC-ari presoak berriro ere birklasifikatzeko agindua eman zitzaion, eta haren ondorioz zenbait preso aske geratu ziren. Hala eta guztiz ere, gehiengoak preso jarraitu zuen eta Langile Batailoietan gatibu-lanak egitera pasa zituzten.

Langile Batailoiei dagokionez, hiru motatakoak egon ziren:

-Langile Batailoiak (BB.TT.): 1937an sortu zituzten kontzentrazio-eremuko presoekin eta 1940ra bitartean iraun zuten.

-Soldadu Langileen Batailoi Diziplinatzaileak (BDST): 1940an sortu ziren eta bertan 1936-1941 kintetakoak eta frankismoaren aurkako ideologia zutenak barnebildu zituzten.

-Soldadu Langile Zigortuen Batailoi Diziplinatzaileak (BDSTP): 1941an sortutako, baldintzazko askatasunean edo Tasen Fiskaliak zigortutako presoak barnebiltzen zituen.

Francok 1937ko maiatzaren 28an Salamancan ateratako 281. Dekretuaren eraginez, lan eskubidea eman zien presoei eta handik aurrera, gatibu-lanak berretsi egin ziren. Medikuak presoak lanerako egoeran zeuden ala ez determinatzen zuten:

[723] BADIOLA ARIZTIMUÑO, ASCENSIÓN, op.cit., 107.or.

[724] Francisco Velar Jauregibeitiak, Irujoren idazkariak, 1938ko azaroaren 15ean idatzia. CICR-ko Ordezkari Nazionalari bidalitako eskutitza.

"Esta auténtica maquinaria explotadora de hombres se puso en marcha el 7 de octubre de 1938, al crearse el Patronato para la Redención de Penas por el Trabajo, que autorizaba al arrendamiento de la mano de obra esclava a particulares, efectivo a partir de enero de 1939. Afectaba sólo a los presos no comunes y tenía como objetivo la redención de cautivos, lo que puso a prueba su salud física, psíquica y moral"[725].

Oso gutxitan aipatu den arren, gizonezkoak ez ezik emakumezkoak ere derrigortu zituzten gatibu-lanak egitera, oligarken etxeak garbitzera, beren uztak jasotzera, herriko kaleak garbitzera… kondenatuz. Emakumezkoek, gatibu-lanak bete bitartean, zenbaitetan, beren jabeen partetik eraso sexualak jasotzen zituzten.

1938ko urrian ezarritako Redención de Penas por el Trabajo deiturikoarekin, preso zeuden presoak lanean ezarriko dituzten gatibu-lanak eginez:

"Así, de los 34.000 prisioneros englobados en los BB.TT. en noviembre de 1937 se pasa a los 67.900 en enero de 1939, y a los 90.000 de los inmediatos meses de posguerra (Rodrigo, 2003)"[726].

1940an, ICC disolbitu eta Jefatura de Campos de Concentración y Batallones Disciplinarios delakoa sortu zen, Ejertzitoaren Ministerioaren baitan.

1942ko abenduaren 31, kontzentrazio-eremuak eta langile-batailoi gelditzen zirenak disolbatzeko ordena eman zuten. Hortik zenbait, penarik ez dutenak, soldaduska egitera pasako ziren, 1943ra arte luzatuz. BDSTP-ak 1948ra arte luzatu ziren, hemen 1936-1942 kintetako, baldintzapeko askatasuna eta fiskalia de tasas-ek zigorra ezarritakoak barnebiltzen ziren. Hala eta guztiz ere, ez dugu ahaztu behar 1966an itxi zela behin-betiko frankismoko azken kontzentrazio-eremua. Hura Tefía-n (Fuerteventura) kokatutako homosexualen diziplinatzerako 1955ean sortutako kontzentrazio-eremua izan zen. Bertan preso egondakoek, izugarrizko tortuta eta utzikeriak jasan behar izan zituzten, frankismoaren ezaugarrietan sartuko ziren gorputz diziplinatuak inposatzeko.




La Justicia de Franco.

Guztiak bigilatzeko, ofizial eta subofizialez gain, kintetako soldaduak ezartzen zituzten, BDST bakoitzeko 100-120 inguru. Presoak jo eta kastiguak ere ezartzen zizkieten haien bitartean: lanean egon bitartean hondar-zakuak bizkarrean eraman behar izatea…hitz egin ere ezin zuten egin. Pasatako gosea eta hotza, izugarria izan zen preso hauengan guztiengan. Lo egiten zuten barrakoiak, kanpamendu dendak, ukuiluak… ez ziren batere erosoak. Preso askok zapatarik gabe ere kondizio okerrenetan lan egin behar izan zuten. preso piloa egoera horiengatik guztiengatik hil egin ziren. egoera horretan guztiz menpeko, ez ziren gai inongo protestarik gauzatzeko. Alde egiteko saiakeraren bat ere egin zuten.



**Langile Batailoiak gatibu-lanetan, Aritxulegiko tunela.**
**("Trabajadoriak" dokumentala, Kattin Txiki).**

[725] BADIOLA ARIZTIMUÑO, ASCENSIÓN, op.cit., 121.or.

[726] BEAUMONT ESANDI, EDURNE; MENDIOLA GONZALO, F. 2004. "Batallones disciplinarios de soldados trabajadores: castigo político, trabajos forzados y cautividad". *Revista de historia actual,* 2. Zbk.: 34.or.

Inguruko populazioak ere, langile batailoien errepresioarekin beldurra sartzen zieten; diziplinamendu bikoitzaz hitz egin genezake beraz. Hala ere, zenbait herritarrek mespretxua egin zieten ofizial haiei, kafean bakarrik utziz etab. esaterako, Plentzian (Bizkaia) soldaduek presoei eskatzen zieten beren gorroa, gisa horretara baino ez baitzieten janaria ematen bertako baserritarrek.

Estatu espainiar osoan 550 Langile Batailoi inguru osatu zituzten, horietatik 60 baino gehiago Euskal Herrian kokatu ziren. Euskal Herrian, ia-ia 40.000 presok gatibu-lanetan parte hartzea izan zuten. Zenbait getariar ere hartara kondenatu zituzten, Ignacio Ostolaza Illarramendi kasu. 1936ko abenduaren 20ko Getariako ebakuazioan herritik alde egin zuen. Gerraostean, 1940ko abuztuaren 9an Frantziako muga pasatu eta Irunen frankistek atxilotu egin zuten. Horren ostean, zenbait Langile Batailoietan gatibu-lanak gauzatzen jardun behar izan zuen. Horien artean, Oiartzunen jardun zuen, zehazki, 107 zenbakiko Langile Batailoian. Seguruenik, bertan gauzatutako mendiko errepideen eta zenbait gotorlekuren[727] eraikuntzan parte hartu zuen. Garai hartan, esaterako, 4.000 presoren artean, Aritxulegiko mendatetik pasatzen zen Lesaka eta Oiartzun arteko errepidea eraiki zuten, besteak beste.


D. Eugenio [illegible] Azpeitia, Alcalde Presidente del Ayuntamiento de la Villa de Guetaria
CERTIFICO: que según resulte de los antecedentes obrantes en esta Alcaldía e informes y noticias que se han podido adquirir, D. IGNACIO OSTOLAZA ILLARRAMENDI natural y vecino de esta Villa que el día de la evacuación de este pueblo por los rojos se marchó á Francia se repatrió, por la frontera de Irún el día [illegible] DE AGOSTO DE MIL NOVECIENTOS CUARENTA, ingresando primeramente en el Batallón de Trabajadores Nº 146 de AFRICA, pasando luego a Oyarzun Batallón Nº 107 y actualmente se encuentra en el Nº 42.
Y para que conste y obre los efectos procedentes, expido el presente á instancia del interesado, en Guetaria á quince de Julio de mil novecientos cuarenta.

mil novecientos cuarenta.

Ignacio Ostolaza Illarramendi. (GUA).




**Oiartzun-Lesaka errepidea, Langile-Batailoietako presoek egina.** ("Trabajadoriak" dokumentala, Kattin Txiki).




**Aritxulegiko kanpalekua, presoek hasieran lurrean zuloa eginda lo egiten zuten.**
("Trabajadoriak" dokumentala, Kattin Txiki).




**Errotetako barrakoiak (Lezo).**
("Trabajadoriak" dokumentala, Kattin Txiki).

## FRANKISTEN KONTZENTRAZIO-EREMUETAN EDO LANGILE BATAILOIETAN PRESO EGONDAKO GETARIARRAK

| IZEN-ABIZENAK | KONTZENTRAZIO-EREMUA edo LANGILE BATIALOIA |
|---|---|
| AIZPURU AZKUE, (JOSE) AGUSTIN | 14 zenbakidun soldadu diziplinatzaileen batailoia (Lesaka) |
| AIZPURU LAZKANO, AGUSTIN | San Pedro Cardeña-ko kontzentrazio-esparrua (11 zenbakidun Langile Batailoia) / Aranda de Duero-ko kontzentrazio esparrua / 110 zenbakidun lehenengo konpainiako Langile Batailoia / Lleidan |
| AIZPURU ZUBIZARRETA, JOSE ANTONIO | BDST |
| ALKORTA BALENZIAGA, LUIS | 58 eta 87 zenbakidun Langileen Diziplina Batailoia Algeciras / Miranda de Ebroko kontzentrazio-esparrua / 12 zenbakidun Soldadu Langileen Diziplinatze batailoia / 14 zenbakidun 2. Konpainia Langileen / Batailoi Diziplinatzailea |
| ARANGUREN IÑARRA, IGNACIO | Miranda de Ebro-ko kontzentrazio-esparrua / 107 zenbakidun 2. Konpainiako Langile Batailoia (Calatayud eta Teruel) |

[727] Franco beldur zen aliatuek eraso egingo ote zioten Bigarren Mundu Gerra irabazi ostean. Erasoaren beldur, Pirinioetan zehar, gotorlekuak eraiki zituen.

| IZEN-ABIZENAK | KONTZENTRAZIO-EREMUA edo LANGILE BATIALOIA |
|---|---|
| **ARANGUREN SEGUROLA, JOSE MARIA** | Porta Coeli-ko (Valentzia) kontzentrazio-esparrua / Aranda de Duero-ko kontzentrazio-esparrua |
| **ARREGI AZPEITIA, ALBERTO** | Miranda de Ebro-ko kontzentrazio-esparrua / 37 zenbakidun eta 1 zenbakidun Langile Batailoia |
| **ARREGI LEIZAOLA, ALBERTO** | Malagan Langile Batailoietan |
| **AZKUE LARRAÑAGA, FLORENCIO** | Miranda de Ebro-ko kontzentrazio-esparrua / 107 zenbakidun Langile Batailoia (Calatayud) |
| **AZKUE LARRAÑAGA, JOSE JOAKIN** | Miranda de Ebro-ko (Burgos) kontzentrazio-eremua |
| **AZKUE UZIN, LUZIANO** | Rota-ko (Cadiz) kontzentrazio-eremua |
| **BASURTO FURUNDARENA, ANTONIO (JESUS)** | Langile Batailoietan Teruelen |
| **EGUZKIZA AZPEITIA, JOSE** | 23 eta 27 zenbakidun Algeciras-eko Langile Batailoi Diziplinatzailea |
| **GARCIA AZPILLAGA, ENRIKE** | 34 zenbakidun Langile Batailoia / 30 zenbakidun Soldaduen Diziplinatze Batailoia |
| **INTXAURRONDO DANBOLENA, MARTIN HILARIO** | San Pedro Cardeña-ko (Burgos) kontzentrazio-eremua eta 138 zenbakidun Langile Batailoia, Quinto (Zaragoza) |
| **ILLARRAMENDI ARAKISTAIN, JOSE ANTONIO** | 1 zenbakidun Langile Batailoia |
| **IRIGOIEN EGAÑA, JUAN MANUEL** | Langile Batailoia (Zumaiako zubi-txikia eraiki) |
| **ITUARTE ETXEBARRIA, PEDRO** | Langile Batailoia |
| **ITURBE EGAÑA, JUAN** | San Juan Mozarrifar kontzentrazio-esparrua / 25 zenbakidun 2. Konpainiako Langile Batailoia |
| **LARRAMENDI ARRAIZ, JOSE MARIA** | 21 zenbakiko Langile Batailoia / Miranda de Ebro-ko kontzentrazio-esparrua / 134 zenbakiko Langile Batailoiko 4. Konpainia (Contella) |
| **LETE CORREA, PEDRO** | San Fernando-ko (Cadiz) kontzentrazio-eremua |
| **LULOAGA AGOTE, ROMAN** | Miranda de Ebro-ko kontzentrazio-esparrua / 19 zenbakidun 4.Konpainiako A Taldeko Leongo Langile Batailoia / Langile Batailoia: Valentziako Catarroja eta Dolores-en |
| **MARTINEZ GIL, JULIAN** | Muros-eko (A Coruña) Vieta kontzentrazio-eremua |
| **MIRASOLAIN, AGUSTIN ANDRES** | Lleidako (Katalunia) Hilerri Zaharreko kontzentrazio-esparrua |
| **OLAIZOLA IRURETAGOIENA, JOSE FRANCISCO** | Miranda de Ebroko kontzentrazio-esparrua / 34 zenbakidun Langile Batailoia |
| **OLAIZOLA IRURETAGOIENA, MARCIAL** | San Juan Mozarrifar kontzentrazio-esparrua / 25 zenbakidun 2. Konpainiako Langile Batailoia (Huesca, Teruel, Balanguer…) / Oiartzunen Langile Batailoian |
| **OLASKOAGA LAZKANO, BARTOLOME** | 1 zenbakidun Langile Batailoia |
| **OLASKOAGA ZUBIMENDI, EMILIO** | San Juan Mozarrifar / Cadiz-eko Barrios-en |
| **OSTOLAZA ILLARRAMENDI, IGNACIO** | Afrika 146 zenbakidun Langile Batailoian; 107 zenbakiko Langile Batailoia (Oiartzun); 1940an 42 zenbakiko Langile Batailoian |
| **SETIEN CALVO, JUAN** | San Pedro Cardeña-ko kontzentrazio-esparrua / Langile Batailoian |
| **URANGA SILBETI, JUSTO** | Soldadu Langileen Batailoietan |

Frankistek, Bigarren Errepublikako zantzurik utziko ez zuen sistema politikoa inposatu ahal izateko, ezinbestekoa izan zuten populazio osoaren kontrol soziala. Bigarren Errepublikan hedatu ziren ideia askatzaileak kontrolpean izan beharra zuten. Horregatik, ezinbestekoa zen, aurreko lerroetan aipatu gisan, ideia haiek zabaltzeaz arduratu ziren pertsona guztiak kontrolpean izatea. Horiez gain, inongo ideia askatzaileen eraginik izan ez zuten pertsonak ere, kontrolatu egin zituzten, badaezpada, ideia haiengandik kutsatu ez zitezen. Hori burutu ahal izateko metodoak, ezinbestean, errepresioa eragingo zutenak izan behar zuten. Pertsonak, askatasunez pentsatzetik, estatu diktatorial batek pentsatzen zuena obeditzera pasa beharko zuten. Asko eta asko, hari muzin egiten saiatu ziren, baina aparailu frankistak, bazuen hartarako metodorik: kartzelak, kontzentrazio-eremuak, fusilamenduak… Gaur egun, giza eskubideen urraketen oinarri diren ekintzak, hain zuzen.

Zenbait getariarrek ere, errepresio mardul hori jasan beharra izan zuten. Horrek guztiak, beldurraren unibertsoa izendatuko duguna sortu zuen. Getariarrak, nolabait esatearren, urte haietan zehar, ez zuten pentsamendu askatasunik izan. Publikoan eginiko bizitza, beti ere, agintari frankistek kontrolatuta zegoela bazekiten. Hargatik, etxean ere, ahalik eta diskrezio handienarekin, isilpean eta beldur instituzionalizatuarekin bizi beharra izan zuten. Beldur hori, frankismoa bukatzean ez zen amaitu, erreparaziorik ez baitzen bideratu. Horregatik, beldurraren zama, generazioz generazio pasatzen joan da zenbait familiaren artean, eta oraindik ere, bere sustraiak errotuta ditu Getarian ere, beste zenbait herri euskaldunen gisan. Poliki-poliki, erreparazioa bide, oroimena gogoratuz, beldurraren zama besterendu eta barne-askatasun eta lasaitasuna lortzeko gai izango gara.

KARTZELAN EGONDAKO GETARIARRAK

| IZEN-ABIZENAK | TOKIA |
|---|---|
| ADRIAN NAJERA, ALBERTO | Azpeitiako Barrutiko Presondegia |
| ALBERDI LAZKANO, EUTIMIO | Ondarretako Presondegia (Donostia) |
| ALKORTA ALKORTA, KARMEN | Ondarretako Presondegia (Donostia) |
| ALKORTA BALENZIAGA, LUIS | Rota-ko (Cadiz) Presondegia |
| ARANBURU ARRIETA, MODESTO | Ez dakigu zehazki non |
| ARANBURU ARRIETA, NORVERTO | Rota-ko (Cadiz) Presondegia |
| ARANGUREN SEGUROLA, JOSE MARIA | Ondarretako Presondegia (Donostia) |
| ARANZABAL ITURZAETA, BARTOLOME | Ondarretako Presondegia (Donostia) |
| ARREGI AZPEITIA, PEDRO JOSE | Iruñan preso |
| ARREGI OLAIZOLA, JOSE LEANDRO | Ez dakigu zehazki non |
| ARREGI UZIN, PEDRO | Donostiako Barrutiko Presondegia |
| ARREGI UZIN, URBANO | Gandia-ko (Valentzia) komentu batean |
| AZKUE AZKUE, MANUEL | Donostiako Barrutiko Presondegia |
| AZKUE LARRAÑAGA, JOSE JOAKIN | Ondarretako Presondegia (Donostia) |
| AZPEITIA IBARBIA, ANTONIO | Duesoko Presondegia (Kantabria), Puerto de Santamaria (Cadiz), Huelvako Barrutiko Presondegia |
| BALENZIAGA LILI, JULIAN | Ondarretako kartzela / Donostiako Zapatari Presondegia |
| BASURTO FURUNDARENA, ROMUALDO | Ondarretako Presondegia (Donostia) |
| BERISTAIN GARRASTAZU, DAVID | Valdemoro-ko (Madrid) Presondegi batean |
| BORDAGARAI EIZAGIRRE, ANDRES | Ez dakigu zehazki non |
| CASALAN RAYA, TORIBIO | Comendadores Komentuko Presondegia (Madrid); Palentziako Presondegia |
| DE LA HOZ KINTANA, EUGENIO PEDRO (PERIKO) | Ondarretako Presondegia (Donostia) |
| EGAÑA ARRIZABALAGA (EDO AGIRREZABAL), BERNARDA | Ondarretako Presondegia (Donostia) / Larrinagako Presondegia (Bilbo) |
| EGURBIDE AZPEITIA, JOSE | Dueso (Kantabria) / Bilboko Eskolapioen kartzela |
| EMBIL ETXANIZ, FRANCISCO | Ez dakigu zehazki non |
| ETXABE MANTEROLA, JOSE MIGUEL | Azpeitiako Barrutiko Presondegia |
| GALDOS AZPEITIA, JUAN JOSE | Ez dakigu zehazki non |
| GALDOS LANDA, CASILDO | Ez dakigu zehazki non |
| GARCIA AZPILLAGA, JUAN | Ez dakigu zehazki non |
| GARRASTAZU ARRUTI, ANTONIO | Zarauzko kartzelan / Ondarretako kartzela |
| IDIAKEZ INDO, FRANCISCO | Santoñan atxilotua |
| IÑARRA ETXABE, MIGUEL | Zarauzko kartzelan / Ondarretako kartzela |
| IÑARRA MAYOR, JOSE | Ez dakigu zehazki non |
| IRAUNDEGI IBARRA, VICENTE | Valentziako “Prisión Celular”; Ondarretako Presondegia (Donostia) |
| IRIBAR ZULAIKA, FRANCISCO | Escollera-ko Presondegia |
| ITUARTE ETXEBARRIA, JOSE | Santoñan atxilotua |
| ITURZAETA GEZALAGA, RAFAEL | Azpeitiako Barrutiko Presondegia |
| LEKUBE BURGAÑA, JULIAN | Ondarretako Presondegia (Donostia) |
| LOPEZ HERNANDEZ, JUSTO | Ondarretako Presondegia (Donostia) / Larrinagako Presondegia (Bilbo) |
| LULOAGA AGOTE, ROMAN | Las Palmas-eko Presondegia (Canarias); Cadiz-eko Presondegia; Ondarretako Presondegia (Donostia) |
| MANTEROLA AGOTE, ENRIKE | Ondarretako Presondegia (Donostia) |
| MARTINEZ GIL, JULIAN | Bilboko Eskolapioen Presondegia |
| MENDOZA MARTINEZ, DEMETRIO | Laredoko Eskolan preso (Kantabria) |
| MUGERZA BELAUSTEGI, LUCIO | Leonen desagertua |
| OLIDEN ALKORTA, JOSE MARIA | Donostiako Zapatari Kartzela; Ondarretako Presondegia (Donostia); Aranjuez-eko Presondegia (Madrid) |
| OTAMENDI ESNAL, TOMAS | Donostiako Barrutiko Presondegia |
| SEBAL AGIRRE, TOMAS | Dueso-ko Presondegia (Kantabria); Ondarretako Presondegia (Donostia) |

| IZEN-ABIZENAK | TOKIA |
|---|---|
| SETIEN CALVO, JUAN | Ondarretako Presondegia (Donostia) |
| SORAZU FURUNDARENA, FRANCISCO | Ondarretako Presondegia (Donostia) / Zarauzko kartzela |
| URANGA OLASKOAGA, ESTEBAN | Iratxe-ko Komentuko Presondegia (Nafarroa); Larrinaga (Bilbo); Bilboko Barrutiko Presondegia |
| URRESTI ANDONEGI, JOSE | Escollera-ko Presondegia |
| UZIN ESNAL, GENARO | Azpeitiako Barrutiko Presondegia |
| VIEJO ARAGON, MODESTO | Santanderren atxilotua |


Comisariado de Guerra — Negociado de Movilización

Nombre del miliciano: Modesto
Apellidos: Viejo Aragón
Fecha del nacimiento: 5 Noviembre 1.896
Estado: Casado
Lugar de donde procede: Guetaria
Domicilio: Guetaria
¿Ha servido en el Ejército? SI
Arma y Cuerpo: Infantería
Categoría actual: Miliciano
Columna o frente donde actúa: Azpeitia
Grupo o milicia a que pertenece: Guetaria
Nombre de su Jefe: Isidro Berasaluce
Día en que empezó a prestar servicio: 19 Julio 1.936
Partido a que esté afiliado: U. G. T.

Conforme con la presente ficha
El Jefe de

**Modesto Viejo Aragonen miliziano fitxa.** (CDMH).

## 4.7.3. Auzitegi militarrek epaitutako getariarrak

Auzitegi Militar Frankistetan, Presoen Sailkatzeko Agindu Orokorrean C eta D ataletan sailkatutako, 50 getariar inguru epaitu zituzten; haietatik 2 emakumeak izan ziren. Haietako batzuk borrokan ari baziren ere, beste batzuk, 1936ko irailaren 20an Getariako ebakuazioan alde egin zutenak ziren. Azken hauek, frankisten ideologiaren aurkakoa izaki, ikaratuta, labarretan kokatutako Gipuzkoako kostaldeko herri txikia atzean utzi behar izan zuten. Izan zibil izan gudari, guzti-guztiei, Justizia Militarrean oinarritutako epaiak egin zizkieten. Hala, beraz, 1931ko Konstituzioko jurisdikzio arrunta alboratu eta getariar herritarren aurka hartutako neurriak zinez gogorrak izan ziren.

1936ko azaroaren 1ean Espainiako Defentsako Junta Nazionalak, Gerra-Kontseiluen bermea Madrileko hirian ziurtatu zuen dekretua atera zuen. Baina Madril, oraindik, errepublikarra izaki, 1937ko urtarrilaren 7an, kolpistek beren menpe hartu zituzten gainontzeko lurraldeetan hedatu zen aipatu dekretua. Modu horretan, ekintza publikoak ere, justizia militarraren eskuetan geratu ziren.

Jurisdikzio militarraren erabilerak, ohiko zuhurtziaz eta objektibotasunez ez jokatzea zekarren. Epai hauek guztiak ahalik eta azkarren epaitzeko eta sententzia emateko prestatuta zeuden; hala, azkarren iristen ziren frogek balio zuten eta askotan, zenbait testiguk emandako informazioa deuseztatzeko, presoak, jada sententzia jasota, heriotz-zigorra zein denbora luzeko kartzela-zigorra betetzen ziharduen.

Froga hauek guztiak, gehienetan, arestian aipatutako “Junta Local de Información” delakotik ez ezik, herriko ideologia frankistako zenbait testiguk auzitegi militarrari helarazitakoak izaten ziren. Batzuek, epaiketara testigu gisan joaten baziren ere, beste batzuek, presoen aldeko deklarazioak ere egin zituzten. Testigu haiek guztiek, presoaren kondenaren luzapena zein murrizketa erabakitzeko erabakiorrak izaten ziren. Getariar testiguen artean F.E.T. eta J.O.N.S.-era afiliatutako kideak izan ziren: Eugenio Egurbide Azpeitia, Bonifazio Aizpurua Isasti, Luis Aramburu Gallo, Juan Jose Azpeitia Olascoaga, Francisco Azpeitia Ouezabal, Bonifazio Balenziaga Goikoetxea, Antonio Chueca Aramberri, Domingo Etxaniz Itxaso, Jose Gaztañaga San Sebastian, Jose Agustin Goicoechea Idiaquez, Pedro Querejeta Querejeta, Jose Larrañaga Arregi eta Ignacio Larrañaga Uzin.

Epaiketa burutu ahal izateko, Espetxeetako Zuzendaritza Nagusiaren menpe zeuden presoak, epaitu behar izaten zituzten auzitegi militarretik hurbilen ekartzen zituzten. Getariar gehienak, Donostiako Plazako Auzitegi Militarrean epaitu zituzten. Esaterako, Vicente Iraundegi Ibarra getariarra frankistek 1939ko maiatzaren 10ean Valentzian preso hartu zuten. Handik eta, 1940ko apirilaren 27an, trenez eta Guardia Zibilaren zaintzapean Donostiako Ondarretako kartzelara lekualdatu zuten. Han, Donostiako Plazako Auzitegi Militarraren eta Lekeitioko Itsas-Epaitegiaren epailak zain zituen.

Zigor luzeenak, Getariako Defentsa Batzordeko kide izan ziren militanteek jaso zituzten. Haien artean ohikoenak, heriotza-zigorra, biziarteko kondena eta, 12 urte eta egun batekoak izan ziren. Epai militarretan, hiru fase nagusi bereiz genitzake[728]:

1- 1937ko abuztu ingurutik 1937ko abendura: fase honetan, gehienbat, herrietako Defentsa-Batzordeetako buruzagiak epaitu zituzten. Sententzia gogorrenak jaso zituzten, hain zuzen, frankistek, epai haiek eraikitzera zihoazten sozietate berriarentzat eredugarri izatea nahi baitzuten. Esaterako, Jose Maria Oliden Alkorta, jaiotzez getariarrari eta Ondarroan bizi zenari, 30 urteko kartzela zigorra ezarri zioten, Ondarroako Defentsa Batzordeko Garraioen Komisarioa izateagatik.

[728] ARITZABALETA GANTXEGI, I., op.cit., 58-59.orr.

2- 1938. urtearen bigarren zatitik aurrera: fase honetan, beren jardun politikoagatik epaitu zituzten. Hauen kondenak, aurrekoekin alderatuz, baxuagoak ziren eta absoluzio kopurua nabarmenagoa zen, askotan erantzukizun penalik gabeko delituak zirelako eta beste batzuetan frogatu ezin izaten zituztelako. Hala eta guztiz ere, behin-behineko espetxealdian denbora luzea pasa behar izaten zuten.

3- Erbestetik heldutakoak: aurreko guztiek baino kondena arinagoak jaso bazituzten ere; kondenak jaso zituzten zenbait, kontzentrazio-eremuetan zein Langile Batailoietan gatibu-lanak egitera derrigortu zituzten. Jose Joakin Azkue Larrañaga gazte getariarra, esaterako, gerra hastean, Frantziara alde egin zuen. Handik eta urte batzuetara Irungo mugan atxilotu eta zehazki, 1940ko azaroaren 16an, Miranda de Ebro-ko (Burgos) kontzentrazio-eremura preso eraman zuten. “Memoriaren aurpegien” atalean, antzeko egoera bizi izan zuten beste getariar gazte batzuen biografia ere bildu dugu.

Zenbaitetan moral erlijiosokoa izanez gero, kondena murritzagoak jartzea zekarren. Gehienbat honakoa, euskal nazionalistei gertatu zitzaien, katolikoak baitziren eta beraz, frankistek inposatutako erregimenean alde horretatik toki bat baitzuten. Ezkertiar errepublikazale ateo zein agnostikoek ordea, ordena tradizionalaren aurka egiteagatik, kondena luzeagoak ezarri zizkieten maiz.

1941etik aurrera, Zigorrak Aztertzeko Batzordeak, zigorrak arindu egin zituen, presoen kondena-denbora laburtuz. Horren eraginez, 1943rako, preso gehienak aske utzi zituzten, beti ere, Getariako Falangearen eta Guardia Zibilaren zaintzapean. Handik aurrera, kargu publikorik ere ezin izango zuten bete. Gerra-Kontseilua egin zieten getariar batzuk, honakoak ditugu:


114
Auspicio Otaegui y Orcaizaguirre,
Presbítero Doctor en Sagrada Teología Cura Ecónomo de la Iglesia Parroquial de San Ignacio de Loyola de la Ciudad de San Sebastián, provincia de Guipúzcoa, diócesis de Vitoria
Certifico: que Cipriano Iriondo y Rementeria, hijo de D. Miguel y de Dª Josefa, natural de esta ciudad, con domicilio en el Paseo Colón, nº 5, piso 3º izquierda, y feligrés de la parroquia de mi cargo, es de buenos sentimientos cristianos, cumple con sus deberes religiosos, y observa buena conducta moral y religiosa y pertenece a la Juventud Parroquial.
Y para que así conste donde convenga, firmo y sello en San Sebastián a veintitrés de septiembre de mil novecientos treinta y ...
Auspicio Otaegui

**Cipriano Iriondo Rementeria, moral erlijioso oneko deklaratua.**
(Ipar-Mendebaldeko Eskualde Militarreko Tarteko Artxiboa, Ferrol).

---

**ANTONIO AZPEITIA IBARBIA**

Gerra hastean 27 urte zituen, ezkongabea zen eta mekanikoa. EAJ-ELA-ko afiliatua izaki, ardura politikoz, Euskadiko Gudontzidiko Itsas Boluntarioen zerrendan izena eman zuen. Gerra hasi bezain laster, Pasaiako portuan zaintza-lanak egin zituen eta hau ebakuatzean, Donostira alde egin zuen. Denboraldi batera, 1937ko apiriletik abuztura bitartean, D-17 eta Jose Luis Diez miaketa zerbitzuko itsasontzietan gudari gisan jardun zuen. Santoñako Hitzarmenaren ostean, 1937ko abuztuaren 26an, frankistek atxilotu eta Duesoko kartzelan preso hartu zuten. 1937ko irailaren 5ean Santoñan Gerra-Kontseilua egin eta hilaren 21ean emandako sententziarekin, 12 urte eta egun batera “matxinadari laguntzeagatik” kondenatu zuten. 1938ko abuztuaren 18an, Duesoko kartzelatik Puerto de Santamariakora lekualdatu zuten. Urte bereko abenduan, Huelvako Probintziako Presondegira aldatu zutelarik. Gerraren eraginez, preso politikoa izan zen[729].



**Antonio Azpeitia Ibarbia.**
(Gipuzkoako Foru Aldundia).

---

**JULIAN BALENZIAGA LILI**

Getariarra jaiotzez, baina gerra ostean Donostian bizi zen. Arotza eta Getariako elizako organista zen; Viuda e hijos de Arruti aroztegian lan egiten zuen. Getariako irailaren 20ko ebakuazioan Frantziara ihes egin zuen. 1938ko martxoaren 10etik Ondarretako kartzelan preso aurkitzen zen. Haren aurkako salaketa Manuel Gorostiaga Getariako udaltzaingoak eta Alejo Jimeno Oses F.E.T. eta J.O.N.S.-eko buruzagariak ezarri zioten, abertzalea eta Batzokiko sozio zela, gerran zehar armak erabili eta espainiarren aurkako abestiak kantatzen zituela adieraziz.

[729] GUA / CDMH: DNSD-SECRETARIA,FICHERO,5,A0181696 / AZEDB / Sabino Arana Fundazioa-Euskal Abertzaletasunaren Agiritegia / Gipuzkoako Foru Aldundia: http://www.marinavasca.eu/eu/personal.php?o=3 / Xehetasun gehiagorako, “Memoriaren aurpegiak” atala kontsultatu.

Bere kausa martxoaren 12an ireki zion Donostiako plazako 17 zenbakidun epaitegi militarrak. 1938ko ekainaren 8an karguetatik libratu eta bere etxean espetxealdi arindua betetzera derrigortu zuten. 1938ko irailaren 21ean lanera joateko baimena eman zioten, ordura arte ezin zuen halakorik gauzatu. Bere aitaren lantxa errekisatuta zuten frankistek. 1938ko irailaren 1ean berriro ere ebanista lanetara itzultzeko eskakizuna egin zuen. 1938ko azaroaren 21ean behin-betiko askatasuna lortu zuen. 1940ko martxoaren 4an, Evaristo Cocolino Alfonsorekin batera, isun bat ez ordaintzeagatik, Donostiako Zapatari kartzelan 15 egun preso pasa zituzten. 1940ko martxoaren 18an, biak aske utzi zituzten[730].



**Julian Balenziaga Lili aske.** (AHPG-GPAH GEZ).

## EUSEBIO BASURTO ALTUNA

Itsas-poliziako agente getariarra. Eugenio Egurbide Azpeitiak, Getariako alkate frankistak, 1937ko azaroaren 15eko informearen bitartez, Juan Setien Calvo eta Vicente Iraundegi Ibarra getariarrekin batera, Getariako ebakuazioan, Getariako Defentsa Komiteak gordetako arma-gelatik armak atera eta udaletxean zegoen Juan Sebastian Elkanoren koadro bat lapurtzeagatik akusatu zuen. Horren eraginez, 1937ko uztailaren 1ean, Bilbon, Gerra-Kontseilua egin zioten. Eusebio Basurto Altuna, tropa frankistek estatu-kolpea eman ostean, Mutriku, Lekeitio eta Getarian egon zela eta 43 egun zerbitzurik egin gabe egon zen. Haren ostean, Bilboko Itsas Komandantzian eta itsasadarrean bertan lanean aritu zen. Aukera izan zuenean, bere buruzagi eta beste kide batzuekin batera, Donibane Lohizunera egin zuen eta handik, geroago, tropa frankisten menpean hartutako zonaldera pasatu zen. Horren eraginez, Eusebio Basurto Altuna akusazioetatik libre geratu zen.



**Eusebio Basurto Altunaren Gerra-Kontseilua.** (Ipar-Mendebaldeko Eskualde Militarreko Tarteko Artxiboa, Ferrol).

Getariara itzultzean errepresioa jasaten jarraitu zuen. Eusebio Basurtok, 1940ko martxoaren 9an, Bonifazio Balenziaga udal-langilea, Juan Iribarren dendan emandako zaplastekoagatik salatu zuen. Horren aurrean, alkateak hori epaitegien kontua zela argitu zuen, aldiz, zinegotziek hortan esku hartzea izan behar zutela berretsi zuten: “Por último fue escuchada la denuncia verbal del vecino Eusebio Basurto contra el empleado municipal Bonifacio Balenciaga, que dijo haberle dado una bofetada en el establecimiento de Juan Iribar, sin mediar palabra, añadiendo que ha sido insultado varias veces por el mismo empleado y que lo pone en conocimiento de la Corporación a los efectos de sanción que proceda (…)”[731].

## TORIBIO CASALAN RAYA

Verin-goa (Ourense) jaiotzez, baina bere karabinero lanak medio, Getarian bizi zen. Maria Cruz Lopez Bendullaga-rekin ezkonduta zegoen. Gerra hastean, 36 urte zituen eta karabineroa izanik, Arantzazu-mendi itsas-presondegian lanean jardun zuen. Hori aitzakiatzat hartuta, frankistek, atxilotzean, 1940ko maiatzaren 3an egindako Gerra-Kontseiluaren ostean, “matxinadari laguntza” eskaintzea salatuta, 1940ko irailaren 23an, Madrileko Comendadores komentuko presondegian sartu zuten. Handik, 1941eko apirilaren 1ean, Palentziako presondegira lekualdatu zuten. Gerraren eraginez, preso politikoa izan zen[732].



**Toribio Casalan Raya atxilotuta egondako kartzela ezberdinak.** (AGA).

[730] AHPG-GPAH GEZ, 2839/56 / Xehetasun gehiagorako, “Memoriaren aurpegiak” atala kontsultatu.

[731] GUA / Ipar-Mendebaldeko Eskualde Militarreko Tarteko Artxiboa, Ferrol, 107/37.

[732] AZEDB / CDMH: DNSD-SECRETARIA,FICHERO,11,C0093965.

**BERNARDA EGAÑA ARRIZABALAGA (EDO AGIRREZABAL) ETA JUSTO LOPEZ HERNANDEZ**

Haren senarrarekin batera, Getarian bizi zen gerra hastean. Saltzaile ibiltariak ziren biak. Getariako udaletxe frankistaren txostenen arabera, Bernarda Egaña Arrizabalaga (edo Agirrezabal), ezker ideologiakoa zen eta 1936ko irailaren 20an tropa frankistak Getarian sartu baino zertxobait lehenago bere senarra Justo Lopez Hernandezekin Debara alde egin zuen. Gero Bilbora egin zuten gainontzeko errefuxiatuekin batera. Han zeudela, zenbait eskuindarren etxeetatik lapurretak egitea egotzi eta Gerra-Kontseilua egin zieten[733]. Ondarretako kartzelan eta geroago Larrinagako kartzelan egon ziren preso. 1938ko abenduaren 5etik aurrera, Egañak espetxealdi arindua lortu zuen eta epaitegian 1-15 egunetan agertu behar izango zuen hilero. 1939ko otsailaren 10ean behin-betiko askatasuna lortu zuten Egaña-Lopez senar-emazteek[734].

**JOSE EGURBIDE AZPEITIA**

1936ko maiatzetik gutxienez, UGT-ra afiliatuta zegoen eta horren eraginez, gerra hastean, Getariako Defentsa Komitearen aginduetara, 1936ko irailaren 20ra bitartean, fortifikazioak egiten jardun zuen. Horren ostean, Bilbora egin zuen eta bertan, Elorzaren aroztegian lanean jardun zuen. Tropa frankistak Bilbo beraien menpean hartzean, Santander aldera egin zuen eta han, indar-errepublikarren 5. Zenbakiko Batailoian zerrendatu zen. Frankistek 1937ko abuztuaren 26an Limpiasen (Kantabria) atxilotu bitartean, azken hauen aurka borrokan jardun zuen. Frankistek presoari egindako Gerra-Kontseiluan, “matxinadari laguntza” eskaini ziola baina ez zuela maltzurkeriaz egin determinatu eta sei hilabete eta egun bateko kartzela zigorra ezarri zioten. Handik aurrera kargu publikoetan postua lortzetik ere desgaitu zuten. Gerraren eraginez, preso politikoa izan zen[735].

**SEBASTIAN EMBIL ETXANIZ**

Jaiotzez Cadizekoa baina gerra hastean Donostian bizi zen eta lanbidez arotza zen. 1939ko otsailaren 3an prebentzio-espetxe arindua ezarri zioten Ondarretako kartzelatik irtenez. 1939ko apirilaren 13an Embil eta Errandonea, 7 zenbakidun Arapiles batailoira eraman zituzten soldaduska egitera. 1939ko maiatzaren 28an aske geratu zen[736].

**JOSE EGUZKIZA AZPEITIA**

Gerra hastean 19 urte zituen eta Eusko Gudarosteko Prieto Batailoian tropa frankisten aurka borrokatu zuen. Frankistek Santanderren atxilotu eta Milicias de Falangen parte hartzeko eskaera egin zuen. 1937ko urriaren 7an, Misioneros del Corazon de Marian preso aurkitzen zen. 1941eko urriaren 20ra bitartean, 23 eta 27 zenbakidun Algeciras-eko Batailoi Diziplinatzailean gatibu-lanetan jardun behar izan zuen, soldadu lizentziatu zenera arte. Gerraren eraginez, preso politikoa izan zen[737].

**JUAN JOSE GALDOS AZPEITIA**

Getariarra, gerra hastean, Robla (Leon)-Bilbo trenbideko igeltseroa zen. EAJ/PNV eta ELA/STV-ra afiliatuta zegoen. Bilboko Plazako epaitegian Gerra Kontseilua egin zioten, 1937ko abuztuaren 12an hasita, 661 zenbakidun gerrako auditorian, 7 zenbakidun Epaitegi Militarrean epaitu zuten. 1937ko abuztuaren 12an “sobreseimiento de la causa” adierazi zuten. 1943ko azaroaren 29an, oraindik ere askatasuna lortzeko tramiteak jarraitzen zuten[738].

**CASILDO GALDOS LANDA**

1939ko azaroaren 20an Eugenio Egurbide Azpeitia alkate frankistak sinatutako dokumentuaren arabera, ez zen frankisten aurkakoa, baina indar-errepublikarren aldeko guardia lanen bat burutu omen zuen; nahiz eta orduan gazte guztiei agintzen omen zien berretsi. Frantziatik Gobernu frantsesak espultsatu eta Hego Euskal Herrira itzuli zen. Frankistek soldaduska egitera derrigortu zuten. Gerraren eraginez, preso politikoa izan zen eta Gerra-Kontseilua egin zioten[739].

---

[733] Gosea dagoenean eta biziraupenerako oinarrizkoak ez ditugunean, lapurreta egitea zilegi da, edo ez?.

[734] GUA / Ipar-Mendebaldeko Eskualde Militarreko Tarteko Artxiboa, Ferrol, 2140/37.

[735] AZEDB / CDMH: DNSD-SECRETARIA,FICHERO,16,E0010320 / Ipar-Mendebaldeko Eskualde Militarreko Tarteko Artxiboa, Ferrol, 1381/37 / Xehetasun gehiagorako, “Memoriaren aurpegiak” atala kontsultatu.

[736] Ipar-Mendebaldeko Eskualde Militarreko Tarteko Artxiboa, Ferrol, 12592 / Xehetasun gehiagorako, “Memoriaren aurpegiak” atala kontsultatu.

[737] GUA / Ipar-Mendebaldeko Eskualde Militarreko Tarteko Artxiboa, Ferrol, 1150/37 / AGMG: kaxa: 1082. Esp.: 45277 / CDMH: DNSD-SECRETARIA, FICHERO,16, E0010983 / Xehetasun gehiagorako, “Memoriaren aurpegiak” atala kontsultatu.

[738] CDMH: DNSD-SECRETARIA, FICHERO,22, G0008604 / Ipar-Mendebaldeko Eskualde Militarreko Tarteko Artxiboa, Ferrol, 661/37.

[739] GUA / Ipar-Mendebaldeko Eskualde Militarreko Tarteko Artxiboa, Ferrol, 1816 / Xehetasun gehiagorako, “Memoriaren aurpegiak” atala kontsultatu.

## JUAN GARCIA AZPILLAGA

Jaiotzez getariarra, baina gerra hastean 7 urte Aian bizitzen zeramatzan. Pilotaria zen eta 21 urterekin, Eusko Gudarosteko Saseta Batailoian tropa frankisten aurka borrokan jardun zuen. Gerraren eraginez, preso politikoa izan zen. Gerra-Kontseilua egin zioten eta bertan zenbait guardia lan egitea egotzi zioten; beti ere, marxistek agindutakoari men egin ziola berretsiz[740].

## ANTONIO GARRASTAZU ARRUTI

Gerra hastean, 31 urte zituen Igarategi baserriko gazteak. Izquierda Republicana-ko eta UGT-ko afiliatua izanik, ardura politikoz, Gipuzkoako Komandantziaren menpeko milizietan tropa frankisten aurkako borrokan parte hartu zuen. 1943ko ekainaren 7an, Zarautzeko Komandantziako Guardia Zibilak aginduta atxilotu egin zuten eta horren eraginez, Zarautzeko kartzelan irailaren 4ra arte preso izan zuten, Miguel Iñarra Etxabe eta Francisco Sorazu Furundarenakin batera. Bien bitartean, 1943ko ekainaren 15ean, haien aurkako Gerra-Kontseilua hasi zuten. Frantziatik zetozen, gerra garaian ihes egin baitzuten.

1943ko urriaren 15eko Gerra-Kontseiluaren sententziaren arabera, soldaduskara joan beharko zuten auziperatuek[741].


NUMERO..64.....

Diligencia fundada acordando la Prision atenuada. En San Sebastian a cuatro de Septiembre de mil novecientos cuarenta y tres. RESULTANDO que el encartado en el Procedimiento sin numero en averiguacion de su actuacion en la pasada Rebelion de ANTONIO GARRASTAZU ARRUTI fue detenido por orden del Comandante del Puesto de la Guardia Civil de Zarauz, ingresado por orden del Excmo. Sr. Gobernador Militar de esta Plaza en la Prision Provincial de la misma. CONSIDERANDO: que en atencion a que lo actuado hasta el dia de la fecha no se deducen cargos suficientes que aconsejen la Prision de los referidos individuos ya que la pena que en el dia de mañana se le señale no sera la de RECLUSION MENOR. SE DECRETA LA PRISION ATENUADA DE ANTONIO GARRASTAZU ARRUTI, que consistira en que queden en sus domicilios dedicados a sus trabajos libres [...] para que tenga su debido efecto el oportuno mandamiento al Sr Director de la Prision Provincial de esta Plaza; debiendo de ponerle inmediatamente en libertad caso de que no este sujeto a otro procedimiento.

EL DIRECTOR DE LA PRISION PROVINCIAL DE ESTA PLAZA

**Antonio Garrastazu Arruti kartzelan.**
(AHPG-GPAH GEZ).

## MIGUEL IÑARRA ETXABE


IÑARRA ETXABE Miguel.- 24 años.- Guetaria.- A.N.V. Nº 1201

Profesión: Labrador.
En Cataluña: SARGENTO del Bón. Alpino.

Argeles.-"Gernika-Berri"
12/2/39.

CAMPO DE GURS.- Islote A.24.- Sale a trabajar como VAQUERO el 4/6/39 a Borly Grares Sales (Hte. Savoie).

**Miguel Iñarra Etxabe kontzentrazio-eremuan.** (AHPG-GPAH GEZ).

Lanbidez nekazaria, haren emaztea, Josefina Etxar zen. Gerra hastean, 22 urte zituen eta, ANV-ko afiliatua izanik, ardura politikoz, indar-errepublikarrekin 142 zenbakiko Brigada Mixta Vasco-Pirineica-ko sarjentua izan zen. Gerra amaitzean, Frantziara errefuxiatu zen eta 1939ko otsailaren 12an Argelès-sur-Mer (Ekialdeko Pirinioak) "Gernika-Berri"-n aurkitzen zen. Gero, Gurs-eko kontzentrazio-eremuko Islote A., 24 barrakan eduki zuten. 1939ko ekainaren 4an, Borly Grares Sales-era (Haute Savoie) behizain irten zuen. 1939ko uztailaren 1ean, Getariako udaletxe frankistari Getariara aberriratzeko eskaera egin zion.

Horren trukean, Getariako udaletxe frankistak, hala eskatzen bazioten agintarien aurrean aurkeztea eskatzen zioten. Hala, jada, Getarian zegoela, 1943ko ekainaren 7an Zarauzko Komandantziako Guardia Zibilak atxilotu eta 1943ko irailaren 4ra arte bertan izan zuten, Antonio Garrastazu Arruti eta Francisco Sorazu Furundarenakin batera. Bien bitartean, 1943ko ekainaren 15ean, haien aurkako Gerra-Kontseilua hasi zuten. Gerra hastean Frantziara ihes egindakoak ziren. Zarauzko kartzelatik irtetean, etxean preso jarraitu behar izan zuten, handik irteteko agintarien baimena behar zutelarik.

1943ko urriaren 15eko Gerra-Kontseiluaren sententziaren arabera, soldaduskara joan beharko zuten auziperatuek. Baina Etxabek berriro ere Frantziara alde egin zuen[742].

---

740 GUA / CDMH: DNSD-SECRETARIA, FICHERO,23, G0051266 / AZEDB / Ipar-Mendebaldeko Eskualde Militarreko Tarteko Artxiboa, Ferrol, 2041/39. / SANZ GOIKOETXEA, E., op.cit., 107.or.

741 GUA / CDMH: DNSD-SECRETARIA, FICHERO,25, G0140795; DNSD-SECRETARIA, FICHERO,25, G0140796 / AHPG-GPAH GEZ, 3598/34 / Ipar-Mendebaldeko Eskualde Militarreko Tarteko Artxiboa, Ferrol, 810/43 / Xehetasun gehiagorako, "Memoriaren aurpegiak" atala kontsultatu.

742 GUA / Sabino Arana Fundazioa-Euskal Abertzaletasunaren Agiritegia / Ipar-Mendebaldeko Eskualde Militarreko Tarteko Artxiboa, Ferrol, 810/43 / AZEDB / AHPG-GPAH GEZ, 3595/24 / Xehetasun gehiagorako, "Memoriaren aurpegiak" atala kontsultatu.

## VICENTE IRAUNDEGI IBARRA

Luisa Vázquez-ekin ezkonduta zegoen. Gerra hasi baino lehen eta haren bitartean, Getariako itsas-portuko zaintzailea izan zen. 1939ko maiatzaren 10ean, frankistek, Valentziako "Prisión Celular" delakoan, atxilotu zuten. Bertan preso zegoela, 1939ko abenduaren 20an, kartzelako Diziplinako Juntak, janaria ekartzen zioten saskian ustezko mezuekin papertxoak aurkitzeagatik, hilabeterako kanpoko janaria jasotzea debekatu zioten. Sabela asetzeko presondegian bertan gorriak jasaten bazituzten, kanpoko janaririk gabe, Vicente Iraundegi Ibarrari egoera izugarri gogortu zitzaion.

Valentziako Komandantzia Militarrak, Vicente Iraundegi gerra hasi eta 1937ko ekainaren 14ra bitartean, Bilboko eta Getariako Itsas-Delegazioan eta Galeako semaforoan egon zela adierazi zuen. Behin Bilbo ebakuatzean, Frantziara egin eta handik Valentziara iritsi eta frankistek arestian aipatutako 1939ko maiatzaren 10ean preso hartu zuten.

1940ko apirilaren 27an, trenez eta Guardia Zibilaren zaintzapean, Donostiako Ondarretako kartzelara lekualdatu zuten. Bertan, Lekeitioko Itsas-Epaitegiaren eta Donostiako Plazako 4. Zenbakidun Epaitegi Militarraren epaiketaren zain geratu zen. Garai hartan, Getariako alkate eta, aldi berean, F.E.T. eta J.O.N.S.-eko herriko buruzagia zen Eugenio Egurbidek, Vicente Iraundegi Getaria tropa frankistak iritsi baino lehen ebakuatutako testuinguruan, Getariako Defentsa Komiteko arma-gelako armak hartu eta Juan Sebastian Elkanoren kuadro bat lapurtu izanaz akusatu zuen, Juan Setien Calvo eta Eusebio Basurto Altunarekin batera.

Vicente Iraundegiren kasuan, Eugenio Egurbidek, 1940ko maiatzaren 3an egindako informean bere akusazioak desgaitu bazituen ere, hilabete gutxitara, uztailaren 24an, berriro ere Getariako alkate eta F.E.T. eta J.O.N.S.-eko buruzagiaren partetik akusazio bera jaso zuen.

1940ko ekainaren 12an Donostiako Plazako 4. Zenbakidun Epaitegi Militarrak aske utzi bazuen ere, arestian aipatu gisan, uztailaren 24an, Eugenio Egurbidek berriro ere ekintza berberez akusatu zuen Vicente Iraundegi Ibarra itsas-portuko zaindaria, Gipuzkoako Erantzukizun Politikoen Epaitegian salaketa jarriz. Gerraren eraginez, preso politikoa izan zen[743].



Vicente Iraundegi hilabete bat kartzelaz kanpoko janaririk jaso gabe. (AHPG-GPAH GEZ).



JUZGADO ESPECIAL DE MARINA
DE
LEQUEITIO

¡VIVA ESPAÑA!

N.-1583/940

Con fecha 29 de Julio último se cursó un oficio a esa Alcaldía, en el que se decía lo siguiente:

"Recibido su informe nº 276 de fecha 24 del cte. veo qué existen grandes contradicciones entre lo por V. informado con respecto al Agente de Vigilancia de la Pesca VICENTE IRAUNDEGUI IBARRA y lo informado por varias personas que han declarado en el sumario que se le sigue:- Como lo informado por V. es grave y la justicia debe administrarse rectamente, es necesario poner todos los medios precisos para que se esclarezca la verdad absoluta de los hechos delictivos que se le imputan al procesado y por ello tendrá V. la bondad de informar de nuevo a este Juzgado sobre lo siguiente:

1º.- Si Vicente Iraundegui Ibarra perteneció al Comité de Guetaria durante el dominio rojo-separatista.

2º.- Si actualmente habita en Guetaria alguna de las personas que formaron parte del Comité después del 18 de Julio de 1936 o si se sabe qué habitan en otros pueblos, Prisiones, Batallones de Trabajadores, Campos de Concentraciones, etc. especificando en cada caso el nombre de éllos y lugares en que se encuentran.

3º.- Si D. Leoncio (Medico) que segun referencias era administrador del Palacio del Sr. Marques de Casa Torres, falleció, y en caso afirmativo, nombres de las personas que con él vivían en las fechas en que se practicaron los registros en dicho palacio.

4º.- Si se conoce el paradero de los objetos robados, tanto el de los que pertenecieron a ese Ayuntamiento como los de la casa del Sr. Marques de Casa Torres.

5º.- Todos los demas datos que juzgue útiles para po-

Vicente Iraundegi Ibarraren informazioa. (GUA).

## VICTOR IRIBAR AREIZAGA

Bigarren Errepublikan zehar, euskal nazionalismoaren aldeko aldarria egin zuen. Horren eraginez, gerra hastean, Getariatik Frantziara ihes egin zuen, baina denbora baten ostean, berriro ere Getariara egin eta tropa frankisten ejertzitoan sartu behar izan zuen. Gerra ostean, bere anaia Juan Iribar Areizagak argitzen duenez, Victor Iribar Areizaga, Ferrolen Gerra-Kontseilua egin zain aurkitzen zen[744].



JUAN IRIBAR AREIZAGA

GUETARIA
(Guipúzcoa)

Sr. D. Angel Suances Piñeiro

EL FERROL DEL CAUDILLÓ

Muy señor mío y de mayor consideración: Como asistente de Vd. durante mi servicio en la marina, me permito dirigir á V. para exponer el siguiente caso:

Mi hermano el portador de la presente VICTOR IRIBAR AREIZAGA del reemplazo de 1937 marina que durante el Movimiento, con los demás evacuados se marchó á Francia, volvio al cabo de poco tiempo y ha servido en el Ejercito durante la campaña, como acrediten los certificados que obran en su poder. Ahora ha sido llamado a Ferrol para el Consejo de Guerra, (según se supone por la causa de deserción o falta de incorporación con su reemplazo). De esta localidad han pasado varios por dicho Consejo, muchos de ellos que no han prestado servicio alguno con los Nacionales, y otros han tenido que esperar bastante tiempo al turno. Como el caso de mi hermano no es igual, pues tiene hecho el tiempo reglamentario en filas, aunque se retrasara unos días su incorporación, no quisiera que lo tuvieran sin consideración y mucho tiempo, por lo que, si Vd. pudiera, valiendo de sus relaciones, gestionar la pronta tramitación de la causa y su libertad, le agradecería infinito.

Con gracias anticipadas y reiterandome suyo para cuanto le pudiera servir le saluda atentamente su S. S. q. e. s. m.

Victor Iribar Areizaga Gerra-Kontseiluaren zain. (GUA).

[742] GUA / AHPG-GPAH GEZ, 2846/68.

[744] GUA.

## CIPRIANO IRIONDO REMENTERIA

Donostian bizi zen, baina haren gurasoak getariarrak ziren. 1936ko irailaren 8an, Donostiatik Getariara egin zuen eta handik 12 egunera, Getariako ebakuazioan Mutrikura egin zuen. Tropa frankistak jada herrian sartuta zeudela ikustean, Lekeitiora joan zen. Itxarkundia Batailoian intendentzia lanetan jardun zuen. 1937ko abuztuaren 27an tropa frankistek atxilotu egin zuten. Santoñan egindako Gerra-Kontseilua egin ostean, 1937ko irailaren 11n, 12 urte eta egun bateko kartzela-zigorra ezarri zioten “matxinadari laguntzeagatik”, eta Duesoko kartzelan kartzelaratu zuten. Handik, 1938ko abuztuaren 24an, Puerto de Santamaria (Cadiz) presondegira lekualdatu zuten. Urte bereko abenduaren 14an, Colonia Penitenciario Militarizada de Dos Hermanas (Sevilla) delakora.

1943ko irailaren 4an, kondena hiru urtera jaitsi zioten. 1945eko urriaren 9ko indultuen dekretuari erreferentzia eginez, indultatzeko eskaera egin zuen. 1946ko uztailean baldintzapeko askatasuna lortu zuen. Indultu hau jasotzean jada baldintzapeko askatasunean aurkitzen zen eta egondako azken presondegia Colonia Penitenciaria Militarizada de Dos Hermanas (Sevilla) izan zen[745].


M.7278540
Declaración indagatoria de

**Cipriano Iriondo Rementeriaren deklarazioa.** (Ipar-Mendebaldeko Eskualde Militarreko Tarteko Artxiboa, Ferrol).

## JUAN ITURBE EGAÑA

Gerra hastean 24 urte zituen eta EAJ/PNV-ra afiliatuta, ardura politikoz, Eusko Gudarosteko Amaiur Batailoiarekin tropa frankisten aurka borrokan jardun zuen. Getariatik, 1936ko irailaren 20ko ebakuazioan irten eta harik eta, Laredon tropa frankistek preso egin bitartean borrokan jardun zuen. 25 zenbakidun 2. Konpainiako langile batailoian gatibu-lanak egitera behartu zuten. Haren ostean, Donostiako plazako 11 zenbakidun epaitegi militarrak bera eta Marcial Olaizola Iruretagoiena getariarrari “diligencias previas” ireki zizkieten 1939an. Eugenio Egurbidek Iturberi buruz “anduvo con armas” adierazi zuen. 1939ko irailaren 13an Murgiako kontzentrazio-esparruan aurkitzen zen eta egun horretan bertan espetxealdi arindua lortu zuen. 1940ko abenduaren 23an behin-betiko askatasuna lortu zuen eta kausa itxi egin zen. Gerraren eraginez, preso politikoa izan zen[746].


Sr. Jefe de la Comisión Clasificadora de prisioneros Militares
L A R E D O
El que suscribe, Saturnino Iturbe, vecino de Guetaria, á V. S. atentamente expone:
Que ha tenido noticia de que su hijo JUAN ITURBE EGAÑA procedente del batallón-mayor- de Guetaria se encuentra en esa en calidad de prisionero de Guerra.
Para que el mismo reciba el trato que á su actuación é intervención se acredita ha de significarle lo siguiente:
Este, como la inmensa mayoría de la juventud del pueblo, se afilió al partido nacionalista vasco. Al promoverse el actual movimiento, los dirigentes de dicho partido excitaron á la juventud á alistarse en las milicias vascas y prometieron que los milicianos cobrarían un haber diario de 10 pesetas. Ante ello, la juventud, teniendo además presente que en breve iba á ser obligatorio el tomar las armas se afilió.
Durante su permanencia en este, que lo fué hasta el 20 de Septiembre de 1936, se abstuvo de tomar parte en los combates contra los nacionales. No pertenenció a directiva alguna ni participó en ningún acto criminal é intervino en defensa de las personas de derecha y de orden del pueblo, por lo que
A V. S. Suplica que se digne tener en cuenta estas circunstancias y la conducta intachable observada por el interesado.
Guetaria, 20 de Septiembre de 1937

**Juan Iturbe Egaña Laredon atxilotuta.** (GUA).

[745] Ipar-Mendebaldeko Eskualde Militarreko Tarteko Artxiboa, Ferrol, 19/37 / Xehetasun gehiagorako, “Memoriaren aurpegiak” atala kontsultatu.

[746] GUA / AZEDB / Ipar-Mendebaldeko Eskualde Militarreko Tarteko Artxiboa, Ferrol, 2055/39 / AGMG: kaxa: 1578. Esp.: 73816.

**JOSE MARIA LARRAMENDI ARRAIZ**

Gerra hastean, 24 urte zituen eta UGT-ra afiliatuta, indar-errepublikarrekin, Leandro Carro Batailoian, tropa frankisten aurka borrokatzen jardun zuen. Tropa frankistak Santanderren 1937ko abuztuaren 26an atxilotu eta Gerra-Kontseilua egin zioten. 1940ko martxoaren 15an aske utzi zuten. Gerraren eraginez, preso politikoa izan zen[747].

**JOSE MARIA LARRAÑAGA ARANBURU**

Gerra hastean, 19 urte zituen, UGT-ra afiliatuta, Getariako Defentsa Komiteari zenbait gidari-zerbitzu eskaini zizkion. 1936ko irailaren 20ko Getariako ebakuazioan, tropa frankistek bere alde borrokatzeko deituko zuten beldurrez, Getariatik ihes egin zuen. Frankistak Bilbora sartzean atxilotu eta 1937ko uztailaren 16an, Deustoko Infekziosoen Ospitalean sukarrarekin gaixorik aurkitzen zen. 1938ko abenduaren 12an Donostiako Plazako 11 zenbakizun epaitegi militarrean kausa ireki zioten; garai hartan, Iruñeako Kotxeen Parkeko 10. Konpainiako soldadua zen. 1938ko urtarrilaren 22an Bilboko plazan epaitu zuten, "causa sumarisima" 10421 delakoan. Gerraren eraginez, beraz, preso hartu eta frankistek, gerran borrokatzera behartu zuten. 1939 amaieran, espetxealdi arindua lortu zuen eta 1940ko otsailaren 21ean aske geratu zen kausatik[748].

**JOSE ANTONIO LAURGAIN PIOZAGA**

1911ko maiatzaren 12an Donostian jaioa, lanbidez bidezaina. 1937ko abenduaren 17an soldaduskarako deitu zioten. 18 urtez 2. Klaseko soldadu gisan egon beharra ezarri zioten, 1931ko itsas soldaduskakoa zen. Ordutik aurrera, kamillekin lanean Cellan (Teruel) jardun zuen. 1938ko martxoaren 16an Aragoi Garaira (Ayerbe) lekualdatu zuten. Apirilaren 11n, Ager-era (Lleida) lekualdatu zuten. Maiatzaren 9an, Salas de Pallares-era lekualdatu eta ekainaren 18an Escalo-ra. Bertan, irailaren 3an buruan eta besoan eskuko bonba baten eraginez zauritu zuten bitartean jardun zuen. Hilaren 19an, Irungo ospitaletik Donostiako Mola ospitalera lekualdatzeko eskatu zioten. Donostiako Mola ospitalean errekonozimendua egin behar zioten eta hori egin ostean, Irunera itzuli beharrean, sei edo zazpi egun egin zituen bere Donostiako baserrian. Irunen aurkeztean alta eman eta berriro ere Burgoseko bere postura itzultzeko deia egin zioten. Haren ordez, berriro ere bere etxera egin zuen; azkenean, Guardia Zibilaren deiaren aginduz, bi hilabete etxean egin ostean, Burgosera iritsi zen. Bertan, kastigu gisan, hilabete kalabozoan pasa behar izan zuen. Irungo Mugako epaile militarrak 4 urte eta 7 hilabete gehiago soldaduskako egiteko ezarri nahi izan zizkion, baina 1940ko uztailaren 30eko auditorearen bidez, lehengo egoera berdinean eta horrenbestez, kartzela zigorrik gabe geratu zen. 1939ko maiatzaren 26rako lizentziatuta, Getarian bizi zen[749].

**ROMAN LULOAGA AGOTE**

Gerra hastean, 23 urte zituen; anai gazteena zen eta soldaduskara joatetik libratu egin omen zen ama alarguna izateagatik. Lino Solabarria Yaquez Orioko udal-idazkariak salatu egin zuen. 1941eko maiatzaren 11n Canariasen arrantzan zebilela, Guardia Zibilek Las Palmaseko presondegian sartu eta handik abuztuaren 10erako Cadizeko presondegian sartu zuten.

Dokumentu frankisten arabera, 1933tik ELA/STV-ra afiliatuta zegoenez, gerra hastean, ardura politikoz, Orioko Defentsa Komitera aurkeztu zen. Horren eraginez, zenbait guardia-lan bete zituen 15 egunez. Kosta-zainketan ere jardun zuen, armatu gabeko itsasontzi batean. Errepublikarrek bere kinta deitzean, itsas-armadan parte hartu zuen eta tropa frankistak Santanderren sartzean atxilotu egin zu-


LIQUIDACION DE CONDENA [illegible] EN SUMARISIMO ORDINARIO Nº 4.316/41 ROMAN LULOAGA AGOTE. POR DELITO DE AUXILIO A LA REBELION

| | Años | meses | días |
| --- | --- | --- | --- |
| [illegible] sido condenado a la pena de................ | 12 | ----- | 1 |
| En prisión preventiva desde el día 20 de Febrero de 1.941 hasta el día 13 de Julio de 1.943, que se hizo firme la Sentencia, y que le sirve de abono para su cumplimiento......... | 2 | 4 | 24 |
| | 9 | 7 | 7 |
| Se le descuentan TRES días por año bisiestos.. | ---- | ----- | 3 |
| Le restan por cumplir descontado el tiempo de prisión preventiva.......................... | 9 | 7 | 4 |

DEJARA EXTINGUIDA SU CONDENA EL DIA 17 de [illegible] de 1.953

San Sebastián [illegible] de Noviembre 1.943
EL COMANDANTE JUEZ [illegible]

**Roman Luloaga Agoteren kondena.** (AHPG-GPAH GEZ).

747 GUA / AZEDB / Ipar-Mendebaldeko Eskualde Militarreko Tarteko Artxiboa, Ferrol, 2645 / Xehetasun gehiagorako, "Memoriaren aurpegiak" atala kontsultatu.

748 GUA / Ipar-Mendebaldeko Eskualde Militarreko Tarteko Artxiboa, Ferrol, DESGLOSADO 1769/37 eta 10421 / CDMH: DNSD SECRETARIA,FICHERO,35,L0019325; DNSD-SECRETARIA,FICHERO,35,L0019324; DNSD SECRETARIA,FICHERO,35,L0019326; DNSD-SECRETARIA,FICHERO,35,L0019327 / Xehetasun gehiagorako, "Memoriaren aurpegiak" atala kontsultatu.

749 GUA / Ipar-Mendebaldeko Eskualde Militarreko Tarteko Artxiboa, Ferrol, 778.

ten. Orioko Defentsa Komiteak hala aginduta, Jesus Carmena eskuindarra deklaratzera eraman omen zuen. Horrez gainera, Lino Solabarria berak, Ramon Perez Agote atxilotzera ere joan zela adierazi zuen. 1941eko abuztuaren 11n, Las Palmas-eko (Canarias) presondegitik Cadizekora lekualdatu zuten. Cadizetik laster, Donostiako Ondarretako Presondegira lekualdatu zuten. Han zegoela Gerra-Kontseilua egin zioten. Azkenean, Donostiako Ondarretara ekarri eta 1941eko otsailaren 20tik 1943ko uztailaren 13ra bitartean, Getariako bere etxean espetxealdi arinduan egon zen. Langile Batailoietan jardun zuen, Valentziako Catarroja eta Doloresen. Tortosan ere egon zen eta Terueleko frontean zauritu egin zuten[750]. 1944an berriro ere Getariara iritsi zen eta urtarrilaren 8an bertan ezkondu egin zen Gabina Elizondo Salaberriarekin. Gerra-Kontseiluaren ostean, 12 urte eta egun bateko kartzela zigor ez-komutagarria ezarri zioten[751].

## CALISTO LEKUBE BURGAÑA

Mutrikuarra jaiotzez, ezkongabea eta herriko telefono zentralean lan egiten zuen. Gerra hastean, 26 urte zituen eta EAJ/PNV-ra afiliatuta, ardura politikoz, gudari gisan zerrendatu zen. Tropa frankistek Limpiasen 1937ko abuztuaren 26an atxilotu eta Donostiako Plazako 3 zenbakidun Epaitegi Militarrak "aurretiazko eginbideak" ireki zizkion 1939ko abenduaren 7an. 1940ko otsailaren 10ean behin-betiko askatasuna lortu eta 1940ko martxoaren 8an aske utzi zuten[752].


I N F O R M E sobre antecedentes politico sociales de
CALISTO LECUBE BURGAÑA

El Alcalde que suscribe, evacuando informe del individuo arriba expresado, hace constar:

Es natural de Motrico y reside en esta con sus padres desde su infancia. Estaba empleado en la brigada de obreros del Telefono Provincial.

Ha sido simpatizante del Partido Nacionalista Vasco y como tal durante el movimiento y dominación marxista en esta anduvo de Miliciano con el grupo de Gudaris.

No ha pertenecido á Comisaría ó directiva alguna ni ha tomado parte en ningún acto criminal durante su permanencia en esta.

Guetaria, 16 de Septiembre de 1937 2º Año Triunfal.

El Alcalde

**Calisto Lekube Burgañaren aurrekari politikoak, Eugenio Egurbide alkate frankistarena.** (GUA).



**Julian Martinez Gil-ek Muros-ko (Galizia) kontzentrazio-eremutik idatzitako eskutitza.** (GUA).

## JULIAN MARTINEZ GIL

1929. urtetik, Getariako Arrantzaleen Eskolako maisu nazionala izan zen. Izquierda Republicana-koa izaki eta Ejertzitoan alferez osagarri postua zuenez, Getariako Defentsa Komitean aurkeztu zen, betebeharren bat egin behar bazuen ere (ez zuen inolako partaidetzarik izan). 1936ko Getariako ebakuazioan, Bilbo aldera bere emaztea Ana Villaverde Puras eta beren bi haurrekin alde egin zuten. Handik, bere emaztea eta bi haurrak Cambrai-ra (Frantzia) ebakuatu zituzten. Julian Martinez Gil, tropa frankistek atxilotu eta 1937ko azaroan, Muros-eko (A Coruña) Vieta kontzentrazio-eremuan aurkitzen zen.

[750] Familiak emandako testigantza.

[751] AHPG-GPAH GEZ, 2856/107 / AGMG: kaxa: 2735. Esp: 147171 / Testigantza: Gabina Martinez Luloaga.

[752] GUA / AZEDB / Ipar-Mendebaldeko Eskualde Militarreko Tarteko Artxiboa, Ferrol, 2649/39 / Xehetasun gehiagorako, "Memoriaren aurpegiak" atala kontsultatu.

Bertatik, eskutitz bat idatzi zuen eta Luis Aranbururi Gerra-Kontseiluan erabil zezakeen abala idazteko eskatu ziola berretsi zuen. Horrez gainera, tropa frankistak atxilotu zituztenetik oso ondo tratatzen zituztela adierazten du, errealitatean beraientzako gatibu-lanak egiten jardun behar izan bazuen ere. Eskutitz hori, Fernando Sánchez García irakasle nazionalari eta bera salatu zuenari idatzi zion.

1938ko uztailaren 1ean, tropa frankistek bere egin baino lehenago euskal milizien kuartela izan zen, Bilboko Eskolapioen Presondegian preso zegoen. 1939ko ekainaren 19an jada, emaztea eta bi haurrak Getarian aurkitzen ziren, aberriratuta; han, beraien etxeko altzariak errekisatu zizkietela eta, emakumeak, haiek itzultzeko eskaera egin zuen[753].



Iltmo. Sr.

La que suscribe, Ana Villaverde Puras, esposa de D. Julian Martinez Gil que se Maestro de la Escuela de Posito de Pescadores de Gueteria á V. S. atenta y respetuosamente expone:

Que cuando el Movimiento Nacional, la familia de la exponente se trasladó á Bilbao y más tarde la recurrente con sus dos hijos mnores fue evacuada á Francia, de donde acaba de repatriarse, encontrandose el marido actualmente en Bilbao á disposición de la Autoridad Militar.

Al regreso de Francia se ha informado la recurrente que los muebles de su hogar que tenía en la casa número 10 de la calle Mayor se hallan requisados y en poder de la autoridad Militar y siendole necesario recuperar, si es que se puede para formar nuevamente su hogar en la España de Franco, á cuya generosidad se ha acogido, es por lo que

A V. S. s u p l i c a que, de no apreciar inconveniente para ello se digne ordenar le sean entregados á la recurente los muebles de su propiedad, cuya relación se acompaña á la presente.

Es gracia que espera merecer de su reconocida amabilidad, cuyo vida guarde Dios por muchos añso.

Gueteria, 19 de Junio de 1939 - Año de la Victoria

Ana Villaverde Puras Julian Martinez-en emazteak beren altzariak itzultzeko eginiko eskaera. (GUA).



de D.JULIAN MARTINEZ

a) Se le consideraba simpatizante de izquierda republicana pero en las elecciones no mostró actividad alguna y habiendole correspondido actuar en la mesa de ADJUNTO cumplió su misión á completa satisfacción de partes.
b) No formó parte de ninguna comisaria politica ni intervino en ninguna requisa, investigación ó persecución de derechas durante su permanencia en esta.
c) No ha desempeñado ningún cargo
d) Nó
e) No participo con armas ni tuvo intervención alguna de las que se refiere este apartado
f) No tuvo durante su permanencia en esta
g) No le afecta la pregunta de este apartado
La residencia actual del encartado es, segun informes, prisión de Escolapios de Bilbao
Como ampliación se hace constar que la conducta social y moral del informado ha sido muy buena y en su profesión de Magisterio demostró gran celo y actividad en el cumplimiento de su misión

Gueteria, 1 de Julio de 1938
El Alcalde

Eugenio Egurbide Azpeitia alkate frankistak, Julian Martinez Gil-en inguruan eginiko txostena. (GUA).

## RAMON NIETO AGUADO

1878ko abenduaren 29an jaio zen. Getariarra jaiotzaz, baina gerra hastean Donostian bizi zen. Donostiako udaleko langilea izan zen eta tropa frankistak sartzean bere lanpostutik bota egin zuten. 1938ko ekainaren 27an kartzelaratu egin zuten eta 1939ko urtarrilaren 5ean aske utzi zutela adierazten dute. Beren kausa berriro ere ireki egin zuten eta 1944ko apirilaren 18an Donostiako Plazako epaitegian retenituta aurkitzen zen. 1944ko apirilaren 27an Agustinetako gainean fusilatu egin zuten. Bere erregistro zibilean, garuneko odoljarioaz hil zela adierazten du. Frankistek, fusilamenduak halako hitzak erabiliz ezkutatzen zituzten.

Fusilatzean, Ramon Nieto Aguadok 65 urte zituen eta, Cecilia Ibañezekin ezkonduta, Filomena, Luisa, Ramon, Carmen eta Mercedes Nieto Ibañez seme-alabak, aita gabe geratu ziren[754].



Folio

ACTA DE DEFUNCIÓN

REGISTRO CIVIL DE

Número 39

Distrito de

NOMBRE Y APELLIDOS

Ramon Nieto Aguado

En la villa de Renteria, provincia de Guipúzcoa, a las ocho horas y minutos del día veintiuno abril de mil novecientos cuarenta y cuatro ante D. Melchor Torrecilla Larrasa, Juez municipal y D. Antonio San José Barabe Secretario, se procede a inscribir la defunción de D. Ramon Nieto Aguado de sesenta y cinco años natural de Guetaria, provincia de Guipuzcoa, hijo de D. Andres Nieto y de D.ª Micaela Aguado domiciliado en San Sebastián calle Claginez número 7, piso 4º, de profesión jubilado y de estado (1) casado de D.ª Cecilia Ibañez de cuyo matrimonio ha dejado cinco hijos llamados Filomena, Luisa, Ramon, Carmen y Mercedes

falleció en (2) alto de Aguztina el día veintiuno de a las y minutos, a consecuencia de (3) hemorragia cerebral por arma de fuego, según resulta de (4) la autopsia practicada y reconocimiento practicado, y su cadáver habrá de recibir sepultura en el cementerio de esta villa.

Esta inscripción se practica en virtud de (5) diligencias sumariales

consignándose además (6)

habiéndolo presenciado como testigos D. y D. Gabriel Echeverste mayores de edad y vecinos de esta villa.

Leída esta acta, se sella con el del Juzgado y la firman el Sr. Juez, los testigos (7), de que certifico.

Gabriel Echeverste

Ramon Nieto Aguadoren heriotza akta.

753 GUA.

754 AZEDB / AHPG-GPAH GEZ, 2832/68 / Ipar-Mendebaldeko Eskualde Militarreko Tarteko Artxiboa, Ferrol, 348 eta 1683.

## JUAN BAUTISTA OIARZABAL AGIRRE

Jaiotzez azkoitiarra, baina Getarian bizi zen. 1923. urtetik mikelete gisan guardia lanetan jardun zuen. Getariako aurrezki kutxako guardiak egiten zituen. Euskal nazionalista zen. Gerra hastean, Gipuzkoako Foru Aldundiaren aginduetara, Gipuzkoa eta Bizkaiko herri ezberdinetan, Bidania eta Ondarroa kasu, gerran jardun zuen. 1937ko maiatzaren 11n Bilbora iritsi zen. Tropa frankistek atxilotu eta 1937ko ekainaren 30erako Arriaga Antzokian ezarri zuten behin-behineko kartzelan atxilotuta egon zen. Gerra-Kontseiluan deklarazioa hartu eta aske utzi zuten, inongo kargurik gabe. Hori aitzakiatzat eta, haren emaztea "Remi" Idiakez Indo euskal nazionalista ere izanik, haren alaba Kontxita eta Arantzarekin 1937ko otsailaren 13an Getariako udaletxe frankistak herritik espultsatu zituen. Bere alaba Agurne Getariako amonarekin utzi behar izan zuelarik.

Gipuzkoako Foru Aldundiak, Juan Bautista Oiarzabal Agirre, 1936ko azaroaren 26an bere postutik kaleratu egin zuen. 1937ko abuztuaren 25eko dekretuaz, agintari-frankistek mikeleteak desegin zituzten. Horren eraginez, gerra ostean, kontserba-fabrikan eta moilan jardun zuen lanean. 1943an hil egin zen[755].


DECLARACION DEL DETENIDO
JUAN OYARZABAL AGUIRRE
MIQUELETE

Seguidamente comparece el detenido anotado al margen el cual una vez exhortado por el Sr. Juez a decir verdad, manifestó llamarse como queda inscrito, de 29 años de edad, casado, natural de Azcoitia (Guipuzcoa) y vecino de Guetaria, que no ha sido procesado, quien debidamente preguntado manifiesta que pertenece al cuerpo de Miqueletes desde el año [illegible] no habiendo tenido ascenso ni recompensa alguna y no habiendo pertenecido a ningún partido político ni social. Que cuando se inició el Movimiento se encontraba en Guetaria de donde fué trasladado a distintas poblaciones de Guipuzcoa y Vizcaya llegando por último a Bilbao el día 11 de Mayo donde permaneció hasta la entrada de las Fuerzas Nacionales en esta población. Que no ha prestado mas servicios que los propios de su cargo y que unicamente ha prestado servicios en el Alto de Bidania y en Ondarroa pero que en estas posiciones durante los días que estuvo el declarante no se produjo ningún tiroteo y por tanto no tuvo que utilizar su arma. Sabe que en [illegible] se cometieron algunos asesinatos y robos por los milicianos asturianos que estuvieron prestando servicio de orden público en la citada población antes de llegar los miqueletes pero que no le han dicho los nombres de las personas que cometieron estos delitos.

Que no sabe de ningún compañero que se haya distinguido por sus ideas extremistas y que no conoce el folleto que consta en autos, designando como personas que pueden acreditar su actuación a D. José Castañaga, secretario del Ayuntamiento y a D. Alejo Gimeno, jardinero del Marqués de Casa Torre, ambos vecinos de Guetaria.

Leida que le fué la ratifica y firma con S.S.

DOY FE.

**Juan Bautista Oiarzabal Agirreren deklarazioa.**
**(Ipar-Mendebaldeko Eskualde Militarreko Tarteko Artxiboa, Ferrol).**



**Juan Bautista Oiarzabal Agirre, mikelete jantzita, herrira etorritako emakume amerikana batekin.** (Kontxita Oiarzabal Idiakezek emandako argazkia).


ILUSTRISIMO SEÑOR.

Don Manuel Maestre Martinez, Capitán honorífico del Cuerpo Jurídico Militar, Juez Instructor nombrado, para la presente información, encaminada a averiguar la conducta en relación con el Movimiento Nacional, de los individuos del Cuerpo de Miqueletes, actualmente detenidos en la Prisión del "Teatro Arriaga", tiene el honor de informar:

Que de las actuaciones practicadas con la urgencia que las circunstancias actuales requieren, no aparecen cargos contra los individuos de dicho Cuerpo, que a continuación se relacionan: [illegible]

**Juan Bautista Oiarzabal Agirre absolbituta.** (Ipar-Mendebaldeko Eskualde Militarreko Tarteko Artxiboa, Ferrol).

## MARCIAL OLAIZOLA IRURETAGOIENA

Gerra hastean 19 urte zituen eta tropa frankisten atzaparretatik ihesi, 1936ko irailaren 20ko Getariako ebakuazioan herritik alde egin zuen. Bere familia osoa, euskal nazionalista zen. Eusko Gudarosteko Itxarkundia batailoiarekin borrokan jardun zuen. Tropa frankistek, 1937ko abuztuaren 26an Limpiasen atxilotu zuten eta handik, Laredoko futbol-zelaira eraman zuten, bertan pare bat hilabete eginez, gatibu-lanetan. Handik Zaragozako San Juan Mozarrifar kontzentrazio-esparrura lekualdatu zuten; gari granja zen eta bertan preso egon ziren. Han zeudela, Zaragozako Presoen Klasifikaziorako Komisioak, C atalean sailkatu zuen. Bertan zegoela, gatibu lanetan 25 zenbakidun 2. Konpainiako Langile Batailoian jardun zuen: Huesca, Teruel, Balanguer… inguruan. "Halako batean deklarazioa hartu zidatenean, atxilotuta nengoela esan, eta ¿está usted dispuesto a defender a Franco?, galdetu zidaten. Baietz esan nien nik, (…). Ehunetik gorako preso koadrilla bat hori esateko preparatuta geunden. Deklarazio hura egin eta hambost egunera, Bilbora ekarri gintuzten Balaguerretik, Eskolapioetako kartzelara"[756]. Handik irtetean Donostiako 11 zenbakidun auzitegi militarrera joan behar izaten zuen sinatzera. Halako batean, soldaduskara joateko deia jaso zuen. Hartan,

[755] GUA / AZEDB / Testigantza: Kontxita Oiarzabal Idiakez / Ipar-Mendebaldeko Eskualde Militarreko Tarteko Artxiboa, Ferrol, 160/37.

[756] GURRUTXAGA, A., op.cit., 227.or.

Langile Batailoietan jardun zuen Oiartzunen lehendabizi (Pikoketako bidea egiten); handik Pasaiara, zapadoreetan, mendiko babestelekuak egitera… "Hilabete pare bat Pasaian egin, eta Logroñora, artilleria, soldadu. Azkenean, soldadutza egin nuen. 18 urterekin joan, eta 27rekin bueltatu nintzen etxera libre"[757].

---

## JOSE MARIA OLIDEN ALKORTA

Getariarra jaiotzez, Ondarroan bizi zen. Mekanikoa eta ezkongabea. Izquierda Republicana-ko afiliatua izaki, ardura politikoz, Ondarroako Defentsa-Komiteko Garraioen Komisarioa izan zen. Ondarroara tropa frankistak sartzean, Bilbon, Santanderren, Rivadesellan eta Gijonen ere garraioen kudeaketaz arduratu zen. Frankistek, Gijonen, 1937ko urriaren 22an, ontzi batean ihes egitera zihoanean atxilotu zuten. 1938ko ekainaren 13an, Donostiako Zapatari kartzelara lekualdatu zuten. Gerra-Kontseilua egin ostean, 1939ko urtarrilaren 3an, 30 urteko kartzela zigorra ezarri zioten. Handik eta bi egunera, Ondarretako kartzelara lekualdatu zuten. Erantzukizun Politikoen Probintziako Auzitegiak, 500 pezetako isuna ezarri zion eta bere pobreziagatik hura kentzeko erregutu zuen 1940ko urtarrilaren 17an. 1941eko urriaren 9an, Aranjuezeko Presondegira lekualdatu eta bertan, "Empresa de Experiencias Industriales" delakoan gatibu-lanak egin behar izan zituen. 1943ko ekainaren 16an bere kartzela zigorra 12 urtera kommutatzen diote hartarako eskaera egin ostean. Kommutazioaren ostean, bere kartzela zigorra 1949ko urriaren 20an amaitzen zen[758].



**Jose Maria Oliden Alkorta egondako kartzelak.** (AGA).

---

## TOMAS SEBAL AGIRRE

Araiarra, torlojoen maisua, Getariako Maria Mendizabal Iribarrekin ezkonduta zegoen. Gerra hastean, Soraluzen bizi ziren eta Tomas Sebal ideologia sozialistako kideak, Candido Munagorriren torlojuen tailerrrean lan egiten zuen. Tropa frankisten atzaparretatik ihesi, 1936ko abuztutik irailaren 20ra bitartean Getarian errefuxiatu ziren. Amuategi Batailoiko 4. Konpainiako 1. Sekzioko tenientea izan zen. Tropa frankistek, Santoñan atxilotu eta preso politikoa egin zuten. Handik Duesora, 1937ko irailaren 10ean lekualdatu eta handik 1940ko uztailaren 4an, Guardia Zibilaren bigilantziaz, Donostiako Ondarretara (bi egun beranduago iritsi zen) lekualdatu zuten. Gerra-Kontseilua egin eta 1940ko urtarrilaren 24ean, "matxinadari laguntza" eskaintzeagatik, 12 urte eta egun bateko kartzela zigorrera kondenatu zuten. Gerora, 6 urte eta egun batera kommutatu zioten kartzela zigorra. 1942ko abuztuaren 29an, espetxealdi arindua lortu zuen. 1943ko irailaren 12an aske geratu zen. Behin askatasuna lortzean, Bergaran bizitzen jarri zen[759].



D. Eugenio Egurbide Azpeitia, Alcalde Presidente del Ayuntamiento de la Villa de Guetaria y actualmente ejerciendo cargo interino de Jefe Local de la F.E.T. y de las J.O.N.S. de la misma CERTIFICO: que según resulta de los antecedentes obrantes en las dependencias de mi cargo e informes y noticias que se han podido obtener, D. TOMAS SEBAL AGUIRRE vecino de Tolosa, casado con Dña. María Mendizabal Iriber de esta localidad, pernoctó en la misma, desde la evacuación de Tolosa hasta que lo hicieron de Guetaria, durante los meses de Agosto y parte de Noviembre de 1936, y que durante su estancia en esta localidad observó buena conducta y no ejerció ninguna actividad ni tomó parte en acción alguna contra los Nacionales.

Y para que conste y obre los efectos procedentes, expido el presente á instancia de parte interesada, en Guetaria á catorce de Julio de mil novecientos cuarenta

El Alcalde Jefe acctl.

**Eugenio Egurbide Azpeitia alkate frankistak, Tomas Sebal Agirreren inguruan egindako txostena.** (GUA).



CERTIFICACION DE LIBERACION CONDICIONAL

FILIACION Y RESEÑA

SEÑAS PARTICULARES

**Tomas Sebal Agirreren baldintzapeko askatasuna.** (AHPG-GPAH GEZ).

---

[757] GUA / AGMG: kaxa: 2051. Esp.: 103701/ Ferrolek Agiritegi Militarra, 2055/39 / Ibidem, 229.or. / Xehetasun gehiagorako, "Memoriaren aurpegiak" atala kontsultatu.

[758] AZEDB / AHPG-GPAH GEZ, 2855/79 / Ipar-Mendebaldeko Eskualde Militarreko Tarteko Artxiboa, Ferrol, 2149/38-3149/38 / Xehetasun gehiagorako, "Memoriaren aurpegiak" atala kontsultatu.

[759] GUA / AHPG-GPAH GEZ / Ipar-Mendebaldeko Eskualde Militarreko Tarteko Artxiboa, Ferrol, 3779/40.

## JUAN SETIEN CALVO

Mekanikoa eta marinela. Gerra hastean 29 urte zituen eta UGT-ra afiliatuta, ardura politikoz, Getariako Defentsa Komiteari bere kotxearekin zenbait zerbitzu eskaini zizkion. Laredon tropa frankistak sartzean atxilotu eta 1937ko martxoaren 11ko Gerrako Presoak Sailkatzeko Agindu Orokorraren arabera, presoen "c"[760] klasifikazioan sartu zuten. 1937ko azaroaren 20tik, Donostiako Ondarretako kartzelan preso zegoen. Bere aurkako epaiketa, Donostiako Plazako epaitegian egin zioten.

Eugenio Egurbide alkate frankistak, Getaria ebakuatutako testuinguruan, Defentsa Komite errepublikarrak zuen arma-gelako armak hartu eta udaletxeko Juan Sebastian Elkanoren koadroaren lapurretaren lekuko izanaz salatu zuen. Honakoa lekuko gisan salatu bitartean, Eusebio Basurto Altuna eta Vicente Iraundegi Ibarra, alkate frankistak ekintza hau egiteagatik salatu eta epaitegietan epaitu zituzten. Horrez gainera, Casa Torresko markesaren etxean lapurreta egiteaz ere akusatu zuten. Bilbon Gerrako Garraio errepublikarren konponketen sailean boluntarioki lanean egoteagatik ere akusatu egin zuten.

Alejo Jimeno Getariako F.E.T. eta J.O.N.S.-eko buruzagiaren deklarazioa: frankisten aurkako herriko nabarmenen artean deklaratu zuen. Getariako apaiz ekonomo Karmelo Labaka Errezolaren deklarazioa: "buena conducta moral-religiosa". Eugenio Egurbide: ezkertiarra, komiteko parte ez zen izan, baina zenbait zerbitzu egin zituen errekisatutako kotxeekin "(…) pero alternaba con los dirigentes locales y su hermano fue uno de los que formaba parte en el Comité local". Getariako ebakuazioa egin ostean beste hiru edo lau milizianorekin Getariara Zumaiatik hurbildu eta komiteak udaletxean zituen errekisatutako eskopetak hartzeaz gain, Juan Sebastian Elkanoren koadroa lapurtzeaz ere arduratu zuen.

Getariko falangearen informearen arabera: txofer lanak pistolarekin egiten omen zituen. Casa Torres-ko markesaren etxean 16-18 egunetan zehar bizi izan omen zen eta bertako zenbait gauza lapurtu omen zituen.

1937ko abenduaren 15ean Juan Setienen deklarazioa: mekanikoa zen, jaiotzez donostiarra eta Getarian bizi zen, 29 urte eta ezkondua. Pasaian 1932-1934 bitartean lanean zegoela Union Sociedad de Mecanicos delakora afiliatu zen. Tropa frankistak Getariara sartzean, bere kotxean Lekeitiora abiatu zen Zumaiako itsas ordezkaria eta haren familia ere eramanez. Juan Zabala aitaginarrebaren etxean bizitzen egon zen 3 hilabetez eta itsas ordezkari honen aginduak betetzen. Astero egun batean Bilboko itsas ordezkaritzara joateaz arduratzen zen bere lanean. 1937 hasieran Bilbora lekualdatu ziren, Bilboko ordezkariaren menpe geratuz eta martxoan gerrako garraioen parkera lekualdatu zen bertan txofer eginez. 1937ko abuztuaren 25ean Laredon tropa frankistek atxilotu zuten; bere kinta mobilizatuta egoteagatik soldadu zegoen parke hartan. Armarik ez zuela erabili adierazi zuen. Ez zela Casa Torres-ko markesaren etxean bizi eta kotxea bakarrik behin edo behin bere jardinean aparkatu baino ez zuela egin adierazi zuen. Komiteak aginduta Casa Torresko markesaren etxeko logela gehienak presintatuta zeuden, bakarrik beheko solairua bost edo sei miliziano txaleta zaintzen egon zirenek betetzen zuten. Ez zuela udaletxeko asaltoan parte hartu deklaratu zuen eta Elkanoren tapiza ere ez zuela lapurtu adierazi zuen. Bere anaia Pedro Komiteko Garraioen komisarioa izan zela berretsi zuen.

1938ko abenduaren 1ean Donostiako Plazan egindako epaiketaren bidez, "b"[761] klasifikazioan sartu eta 1939ko martxoaren 11n San Pedro de Cardeña-ko (Burgos) kontzentrazio-eremura lekualdatu zuten.

Langile Batailoian gatibu-lanak 1939ko maiatzaren 8ra arte egiten jardun zuen. Hala eta guztiz ere, 1939ko maiatzaren 22an egindako akusazio batean, alkateak, arma gainean erabili zuela akusatu zuen, zeinarekin Juan Setien Calvori, gerra ostean eraikitako errepublikar biolentoaren irudia islatu nahi izan zion. Salaketa horien guztien eraginez, Juan Setien Calvok, 1939ko



ALCALDIA de la M. N. L. é INVICTA VILLA de GUETARIA

N.º

I N F O R M E
Relativo a
JUAN SETIEN CALVO:

Su conducta moral particular ha sido buena. Su ideología politica no se conocía apenas con anterioridad al Movimiento, durante el que se manifestó en favor del frente popular, afiliandose á las milicias voluntarias de U.G.T. Anduvo de chofer con los autos requisados por el F.P.. No perteneció á la directiva pero alternaba con los del Comité y su hermano fue Comisario. Según versiones, el día de la evacuación de este pueblo y despues de evacuado ya llegó á esta con el coche y varios amigos, entre los que se reeuerdan Vicente Iraundegui y Eusebio Basurto, con los cuales subiron al Ayuntamiento y rompiendo la puerta del local donde se encontraban recogidas las escopetas y demas material de guerra recogido por el Comite sacaron y llevaron, faltando tambien en aquella ocasión un tapiz del salón de sesiones del Ayuntamiento, alusivo á la vuelta al Mundo por Juan Sebastian Elcano. De este hecho, aunque no hay pruebas para imputarle como autor, debe ser por lo menos conocedor directo. No se tiene conocimiento de haber participado en otro hecho criminal.
Su profesión era mecanico chofer y anteriormente pescador. No se le conoce bienes de ninguna clase .
Guetaria, 15 de Noviembre de 1937
II Año Triunfal
El Alcalde
Eugenio Egurbide

**Eugenio Egurbide Azpeitia alkate frankistak, Juan Setien Calvoren inguruan eginiko txostena.** (GUA).

[760] "Etsaiaren armadako buruak eta ofizialak; gure tropen aurkako ekintzetan nabarmendu edo gailendu diren pertsonak, harrapatutakoak zein aurkeztutakoak; Aberriaren eta Mugimendu Nazionalaren etsai diren alderdi eta jarduera politiko zein sozialen buruzagiak eta gailendutako kideak, Mugimendu Nazional Askatzailea baino lehen edo ondoren egindako matxinada edo bestelako ekintza sozial edo politikoko kideak".

[761] "Borondatez etsaiaren aldean soldadu ibili eta beste erantzukizun sozial, politiko edo arruntik ez duten presoak".

urriaren 28an, arratsaldeko 18:00etan, Gipuzkoako Erantzukizun Politikoen Epaitegian deklarazioa egin behar izan zuen. Horren eraginez, 1940ko ekainaren 3an, Nafarroako Erantzukizun Politikoen Auzitegiak, 100 pezeta ordaintzera derrigortu zuen. Gerraren eraginez, preso politikoa izan zen. 1940ko maiatzaren 9an absolbitu egin zuten.

Teofilo Garcia Zarauzko Komandantzia Militarreko kaboak, Setienen aita Juan Setienen etxean sartu eta semearen ontzi-kartilla eta bere anaia Pedroren bi argazki hartu zituzten Erregistro dokumentuak, 1936ko irailaren 30ean sinatutakoak dira[762].



Requisados los pisos de los vecinos de esta D. Vicente Iraundegui Ibarra, (Celador del Puerto de esta) se han recogido una cruz de estrella, una medalla y otra de la Sociedad de Salvamentos marítimos. Un bando escrito á maquina y dos fotografías del mismo.

Se ha requisado tambien el piso de Juan Setien que vivía con sus dos hijos Juan y Pedro Setien Salvo, que fueron, uno del Comité y otro chofer que anduvo siempre con coches requisados por el Comité. A este se le ha recogido una cartilla naval de Juan Setien con su forografía y dos fotografías de su hermano Pedro Setien que fue del Comité

Dicha documentación y objetos se entregan por el Cabo del Puesto D. Teofilo García que ha practicado el registro, en la Comandancia militar de Zarauz.

Cuetaria, 30 de Septiembre de 1936

**Errekisamenduak Iraundegi eta Setiendarren etxeetan.** (Renoko Unibertsitatea).

---

### FRANCISCO SORAZU FURUNDARENA

Gerra hastean, 21 urte zituen eta 1936ko irailaren 20ko Getariako ebakuazioan, herritik alde egin zuen. 1943ko ekainaren 7an, Zarautzeko Komandantziako Guardia Zibilak aginduta atxilotu egin zuten eta horren eraginez, Miguel Iñarra Etxabe eta Antonio Garrastazu Arrutirekin batera Zarautzeko kartzelan preso izan zuten. Bien bitartean, 1943ko ekainaren 15ean, haien aurkako Gerra-Kontseilua hasi zuten. Ordura arte Frantzian ihes eginda zegoelako ireki zioten gerra-kontseilua, iheslari gisa izendatu baitzituzten.

Ordutik aurrera, agindu berrira arte, bere etxean preso sartu zuten. Hain zuzen, lanerako edo beti ere, agintarien baimenekin bermatuta baino ezin zuen kalera irten. 1943ko urriaren 15eko Gerra-Kontseiluaren sententziaren arabera, soldaduskara joan beharko zuten auziperatuek[763].



JUZGADO MILITAR EVENTUAL NUMERO 1
PALACIO DE LA DIPUTACION 3º Piso

4 SEP. 1943

Numero. 68...

Diligencia fundada acordando la Prision atenuada. En San Sebastian a 4 de Septiembre de 1.943, RESULTANDO que los encartados en el Procedimiento sin numero en averiguacion de su actuacion durante la pasada rebelión FRANCISCO SORAZU FURUNDARENA, fue detenido por orden del Comandante del Puesto de la Guardia Civil de Zarauz, ingresando por orden del Excmo. Sr. Gobernador Militar de esta Plaza en la Prision Provincial de la misma. CONSIDERANDO: Que en atencion a que de lo actuado hasta el dia de la fecha no se deducen cargos suficientes que aconsejen la Prision de los referidos individuos, ya que la pena que el dia de mañana se les señale no sera la de Reclusion Menor. SE DECRETA la Prision atenuada de FRANCISCO SORAZU FURUNDARENA, que consistira en que queden en sus domicilios dedicados a sus trabajos librandose para que tenga su debido efecto el oportuno mandamiento al Sr Director de la Prision Provincial de esta Plaza; debiendose ponerle inmediatamente en libertad caso de que no este sujeto a otro procedimiento.

Dios guarde a V.S. muchos años

San Sebastian 4 de Septiembre de 1.943
EL TENIENTE CORONEL JUEZ INSTRUCTOR

SR DIRECTOR DE LA PRISION PROVINCIAL DE ESTA PLAZA

**Francisco Sorazu Furundarena espetxean.** (AHPG-GPAH GEZ).

---

[762] GUA / Xehetasun gehiagorako, "Memoriaren aurpegiak" atala kontsultatu.

[763] GUA / AHPG-GPAH GEZ, 3608/57 / Ipar-Mendebaldeko Eskualde Militarreko Tarteko Artxiboa, Ferrol, 810/43 / Xehetasun gehiagorako, "Memoriaren aurpegiak" atala kontsultatu.

## ESTEBAN URANGA OLASKOAGA

Gerra hastean 38 urte zituen, bizargina eta danbolin-jolea zen lanbidez. Gerra hasi baino lehen haren emaztea Teresa Zelaia Azpillaga eta beren hiru seme-alabekin 1924. urtetik Ordizian bizi ziren. Gerra hastean, familia osoak Getariara egin zuen. Esteban Uranga Olaskoaga 1936ko irailaren 20ko ebakuaziora bitartean Getarian egon zen. Haren ostean, Bilbora joan eta bertan, intendentzian, bizargile lanean jarraitu zuen. Ordiziako herriko F.E.T. eta J.O.N.S.-eko ordezkariek Jose Calvo Sotelo hil zenean, "ojala le hubieran matado hace 30 años al llorado Calvo Sotelo" esateagatik hasieran akusatu bazuten ere, ondoren akusazioa Luzuriaga izeneko bati egin zioten. Laredon atxilotu eta Iratxeko komentuko kartzelan (Lizarra) 1937ko urriaren 1era arte egon zen. Haren ostean, Ordiziara itzuli eta bizpahiru egunera berriro atxilotu zuten. Haren ostean, 1939ko martxoaren 15ean Larrinagako kartzelan sartu zuten eta handik, uztailaren 19an, Bilboko presondegira lekualdatu zuten. Gerra-Kontseilua egin eta 6 urte eta egun bateko kartzela zigorra ezarri zioten "matxinadari laguntza" eskaintzeagatik. Gerraren eraginez, preso politikoa izan zen[764].


Los abajo firmantes, adictos al Glorioso Movimiento Nacional, afiliados á la F.E.T. y de las JONS, vecinos de Villafranca de Oria y en ejercicio de cargos que en las antefirmas respectivas se expresan, enterados que continúa aún detenido en la carcel de Bilbao el vecino que fue de esta D. ESTEBAN URANGA OLASCOAGA y que su detención ha motivado alguna denuncia de este pueblo; los firmantes, conocedores del individuo de que se trata y de su conducta politico social observada durante su residencia en esta localidad, así como durante el actual Movimiento y con relación al mismo, afirman:
1ª. que la conducta moral y religiosa del referido Esteban Uranga durante su residencia en esta, ha sido muy buena y honorable, y durante el Movimiento no ha tomado parte absolutamente en nada en favor del frente popular, no habiendo hecho por tanto oposición alguna al Movimiento.
2ª. la acusación que contra el mismo existía, según se han informado los firmantes, de que el referido Esteban Olascoaga dijo en cierta ocasión, en que se encontraba en un café y en tono violento.- ojala le hubieran matado hace 30 años= al llorado CALVO SOTELO -sobre cuyo asesinato eran los comentarios- es incierto, estando comprobado que quien dijo tal era otro -un tal Luzuriaga- y si alguna vez dijo cosa parecida en la barbería, aunque los firmantes ignoran, sería más bien en plan de broma y para dar hilaridad á la conversación que sus clientes mantenían.
3ª. Respecto á las andanzas del referido Esteban Uranga durante el tiempo del Movimiento, les consta á los firmantes que el mismo, con su familia, se marchó á Guetaria, de donde es natural y residen sus padres, antes de la entrada de los Nacionales en esta Villa, y con motivo de la evacuación de dicho pueblo de Guetaria por los Marxistas, se marchó á Francia, en unión de varios amigos de dicho pueblo, donde donde, por carecer de fondos, y en unión de los mismos amigos regresó á Bilbao, donde continuó hasta la entrada de las Tropas Nacionales, trabajando de barbero en la intendencia, sin que en ninguna ocasión haya cogido armas ni desempeñado cargo alguno.
Finalmente y con referencia á su ideología política, han de tambien hacer presente los firmantes que se le consideraba simpatizante al Partido Nacionalista Vasco, en ninguna ocasión tomó parte activa en la politica, ni efectuó campaña de ninguna clase en favor de partido ni desempeñó cargo directivo alguno.
Villafranca , 7 de Agosto de 1938 -III Año Triun

**Esteban Uranga Olaskoagaren inguruko txostena.**
(GUA).


Apellidos Uranga Olascoaga Nombre Esteban
Conocido por
Prisión de Bilbao
Se halla a disposición de Servicio Nacional de Prisiones
Nombre del padre Bartolomé
Nombre de la madre Angela
Nombre del cónyuge Teresa Celaya
Edad 41 Naturaleza Guetaria
Partido de Azpeitia Provincia de Guipuzcoa
Vecindad Villafranca de Oria Provincia Guipuzcoa
Domicilio Ordicia 5 Profesión Peluquero
Delito Rebelión
Ingresó en 15 de Marzo de 1939
Procedente de Larrinaga
Condenado por sentencia de de
de 19 a la pena de
Bilbao 19 de Julio de 1939
Año de la Victoria.
EL DIRECTOR,
Sello de la Prisión.
SERVICIO NACIONAL DE PRISIONES
REGISTRO-INQ
DE LA POBLACION
Sello del Registro.
3 AGO 1939
MADRID
ESCOLAPIOS

**Jose Urresti Andonegi.**
(Gipuzkoako Foru Aldundia).

764 GUA / AZEDB / Ipar-Mendebaldeko Eskualde Militarreko Tarteko Artxiboa, Ferrol, 12596/38.

## JOSE URRESTI ANDONEGI

Gerra hastean 21 urte zituen eta ELA/STV-ra afiliatuta, ardura politikoz, Euskadiko Gudontzidiko Itsas Boluntarioen zerrendan izena eman zuen. 1936ko abuztutik 1937ko azarora bitartean Mouriscan gudari gisan jardun zuen. Bere arreba, Hipolita Urresti Andonegi, anaiaren jarduna aitzakiatzat hartuta eta bere senarra Nikasio Kerejeta Agoteko (EAJ/PNV) Euskadiko Gudontzidiko gudariak izateagatik, 1937ko otsailaren 13an, Getariako udaletxe frankistak, bere bi seme jaio berriekin (Bautista eta Jose Angel) eta, beste bi seme-alabak, Raimundo eta Miren Getariako familiarrekin utziz, herritik espultsatu egin zuten. Hain zuzen, Hipolita Urresti Andonegi Santanderren zenean, bere anaia Jose Urresti Andonegik Frantziara joateko baimena lortu zion.

Mouriscan, Jose Urresti Andonegik eta gainontzeko gudariek (horien artean Agustin Furundarena gudari getariarra zegoen), Bilbo eta Baiona arteko komunikazio eta garraio zerbitzua burutu zuten. Posta ofiziala eramateaz, hornigai-txikiak eramateaz… arduratu ziren. 1937ko urtarrilaren 31n, George Steer kazetari britainiarra Baionara eraman zuten. Bilbo ebakuatzean Baionan zegoen eta gerra amaitu bitartean bertan geratu zen. Baionan (Ipar Euskal Herria) zegoela, ia-ia Ameriketara alde egin zuen. Handik, Kataluniara pasatu eta 1938ko urriaren 18an, Bateria 532 “Oerlicon” deiturikoarekin gerran aurkitzen zen. semeak dio Miranda de Ebron egon zela kartzelan… 1939ko urriaren 28an, oraindik ere, Frantzian aurkitzen zen, aberriratzeko eskaera dokumentu baten bidez jakin dugunez. Beraz, handik itzultzean frankistek atxilotu eta Ferrolen Gerra-Kontseilua egin zioten[765]. Horren eraginez, 1941eko martxoaren 8an, Escollera-ko kartzelan aurkitzen zen. 1942an aske utzi zuten. Gerraren eraginez, preso politikoa izan zen[766].



Jose Urresti Andonegi. (Gipuzkoako Foru Aldundia).



Excmo. Sr.

Los infrascritos, Autoridades Civiles, Eclesiásticas, concejales, industriales, armadores de barcos y particulares, todos con vecindad en esta Villa de Guetaria (Guipúzcoa) á V. E. con el debido respeto exponen:

Que si la Comisión de examen de penas que V. E. tan dignamente preside tuviese la magnanimidad de proponer a la Superioridad la CONMUTACION de la pena impuesta por un Consejo de Guerra celebrado en esa Plaza de El Ferrol del Caudillo al joven JOSE URRESTI ANDONEGUI natural y vecino de Guetaria, de 25 años, preso en la actualidad en la prisión de ESCOLLERA ya que sus ancianos y buenos padres, sexagenarios y pobres se hallan muy necesitados de él, los infrascritos GARANTIZAN que, el referido encartado se dedicará solo y exclusivamente al cumplimiento de sus deberes familiares y patrióticos y que en toda ocasión y en todo lugar, si ello fuera necesario se hallaría á disposición de V. E. o de autoridad competente.

Hacemos esta garantía Excmo. Señor, después de minuciosa aclaración de los hechos ocurridos durante la dominación marxista en esta localidad y aclarado está que el referido encartado no tuvo la menor participación en hecho delictivo alguno, y tambien es seguro que el citado joven, si bien siguiendo a la ola de evacuación general de la juventud que se hizo de esta Villa por ordenes de las autoridades marxistas ó sea Comité del frente popular, por tener medios adecuados para por vía marítima trasladarse a Francia, lo hizo indudablemente contra su voluntad y de seguro víctima de engaño de las promesas de dichos marxistas y teniendo en cuenta todos estos hechos o circunstancias,-sin pretender en ningún caso coaccionar ni aparentemente el funcionamiento de la Justicia- creemos verdaderamente JOSE URRESTI ANDONEGUI ha purgado ya su falta.

---- POR TODO LO EXPUESTO ------

S U P L I C A M O S á V. E. y demás dignos componentes de la Comisión de examen de penas de ese Departamento Marítimo de EL FERROL, aconsejen a la superioridad la CONMUTACION COMPLETA de la pena al encartado que se señala en el cuerpo del presente escrito, para que siendo sostén de su familia y ancianos padres sea a la vez útil a esta España que renace, bañada ya con la sangre generosa de sus mejores hijos, y se caracteriza, como todos los fuertes, por su bondad y misericordia, como en infinidad de ocasiones ha dicho nuestro invicto Caudillo FRANCO.

Gracia que esperamos merecer de V. E. y dignísimos componentes de la indicada Comisión de Justicia, cuyas vidas guarde Dios por muchos años.

Guetaria [illegible] Ferrol, [illegible] de Marzo de 1941

El Alcalde    El Párroco    El Jefe local de la F.E.T.

Jose Urresti Andonegiri bere kartzela-zigorra kommutatu nahia. (GUA).

[765] GUA.

[766] GUA / CDMH: DNSD-SECRETARIA,FICHERO,66,U0014362 / AZEDB / Testigantza: Eusebio Urresti Garmendia eta Bautista eta Jose Angel Kerejeta Urresti / Gipuzkoako Foru Aldundia: http://www.marinavasca.eu/eu/personal.php?o=3

## 4.8. ATZERAGUARDIAKO ERREKETE GETARIARRAK

1937ko irailaren 21ean tropa frankistak Getariara sartzean, aurreko lerroetan adierazi gisan, herriak demokratikoki hautatu zituen agintariak boteretik kendu eta agintari frankistak Getariako udal-gobernuan ezarri ziren. Udal-gobernua, Getariako agintari frankistek hartu zuten. Handik aurrera, Getarian, Euskal Herriko gainontzeko herrietan gisan, erregimen frankista inposatu berriaren aurkako edozein ideologiako pertsona gogor jazarri zuten. Jazarpena ez zen epaiketa eta ordaintza-ekonomikoetara mugatu, herrian bertan ere, jazarpena, indarkeria fisikoaren bidez gauzatu zen. Horretarako, tropa frankistak sartu eta berehala eratutako udal-gobernuak, Gipuzkoako Junta Karlistaren aginduz, "atzeraguardiako erreketeak" deituriko behin-behineko talde militar jazartzailea sortu zuen.

Getariakoa ez zen kasu bakarra izan, fenomeno hau, Euskal Herriko herri guztietan errepikatu zen. Aipatu "atzeraguardiako erreketeak" izenak berak adierazi gisan, atzeraguardiako laboreez arduratzen ziren: zentsura, hilobiratzeak, fusilamenduak, fronteko labore jakin batzuk baina borrokan egin gabe…

Errekete hauek guztiek, behin atzeraguardiako betekizunak egin eta herrian izua zabaldu ostean eta udal-gobernu frankistak bere lana lasaitasunez bete zezakeela ziurtatzean, fronterako bidea hartzen zuten, oraindik borrokarako adinean bazeuden. Gerraren ostean, "Mugimenduaren" alde borroka egiteagatik, askok eta askok lan publikoen eskaera egin zuten eta baita lortu ere, gehienetan. Getarian ere hori izan zen "atzeraguardiako errekete" gehienen kasua.

### ANTONIO ARANGUREN MANTEROLA

Gerra hastean, 24 urte zituen eta lanbidez arotza zen. Getariako "atzeraguardiako erreketeen" buruzagia izan zen. Bere senide zen Teodoro Mitxelenaren hilketan parte hartu zuen, beste zenbait falangistekin batera[767]. Haren ostean, gerra osoan zehar, erreketeen Zumalakarregi Tertzioko 3. Konpainian sarjentu gisan borrokatu zuen.

Gerraren ostean, irabazleen sektoreko gerrako borrokalaria izateagatik, 1941eko irailaren 8tik 1942ko uztailaren 24ra arte, Getariako udaletxe-frankistako zinegotzia izan zen.


REQUETÉ AUXILIAR Gudaria
DE Nº
GUIPÚZCOA
Apellidos Aranguren Manterola
Nombre Antonio
Edad 24 Estado soltero
Profesión carpintero
Domicilio C/ San Roque Nº 17 Teléf
Naturaleza Guetaria Jefe
Grados y Distinciones Antonio Aranguren

**Antonio Aranguren Manterolaren atzeraguardiako errekete fitxa.**
(Euskal Ikasketetarako Fundazio Popularra).

### JOSE ANTONIO AZKUE MARTIJA

Gerra hastean, 24 urte zituen eta lanbidez nekazaria zen. Getariako "atzeraguardiako erreketeen" buruzagia izan zen. Haren ostean, gerra osoan zehar, erreketeen Zumalakarregi Tertzioko 3. Konpainian kabo gisan borrokatu zuen.


REQUETÉ AUXILIAR Gudaria
DE Nº 1972
GUIPÚZCOA
Apellidos Azcue Martija
Nombre José Antonio
Edad 25 Estado soltero
Profesión labrador
Domicilio Altuzа Teléf
Naturaleza Guetaria Jefe
Grados y Distinciones Antonio Aranguren

**Jose Antonio Azkue Martijaren atzeraguardiako erreketeen fitxa.**
(Euskal Ikasketetarako Fundazio Popularra).

### VICTORIANO IRIGOIEN ARRIZABALAGA

Gerra hastean, 25 urte zituen eta lanbidez ebanista zen. Getariako Eguzkitza baserriko semea zen. Getariako "atzeraguardiako erreketeen" buruzagia izan zen. Haren ostean, gerra osoan zehar, erreketeen Zumalakarregi Tertzioko 3. Konpainian borrokatu zuen. Amorebieta-Etxanoko frontean zauritu eta Ebroko Bataila ere parte hartu zuen, bertan ere zaurituz.


REQUETÉ AUXILIAR Gudaria
DE Nº 1970
GUIPÚZCOA
Apellidos Irigoyen Arrizabalaga
Nombre Victoriano
Edad 25 Estado soltero
Profesión ebanista
Domicilio Eguzquitza Teléf
Naturaleza Guetaria Jefe
Grados y Distinciones Antonio Aranguren

**Victoriano Irigoien Arrizabalagaren atzeraguardiako erreketeen fitxa.**
(Euskal Ikasketetarako Fundazio Popularra).

[767] Xehetasun gehiagorako, ikus "4.9. Getarian fusilatuak eta getariar fusilatuak" atala.

Gerraren ostean, estatu frankistak, Domina Militar Kolektiboarekin saritu zuen. Gerran frankisten alde borrokatu zuela justifikatuz, 1939ko uztailaren 29an, Urola treneko zerbitzuetan edo errepideen konponketetan aritzeko lehentasunezko eskubidea zuela adierazi zuen.

---

## JUAN (JOSE) LARRAÑAGA AMEZTI

Gerra hastean, 28 urte zituen eta lanbidez nekazaria zen. Getariako “atzeraguardiako errekete” gisan lan egin zuen. Haren ostean, gerra osoan zehar, erreketeen Zumalakarregi Tertzioko 3. Konpainian borrokatu zuen. Geroago, erreketeen Montejurra Tertzioan ere borrokatu zuen.

Gerraren ostean, estatu frankistak, Domina Militar Kolektiboarekin saritu zuen. Gerran frankisten alde borrokatu zuela justifikatuz, 1939ko uztailaren 29an, Urola treneko zerbitzuetan edo errepideen konponketetan aritzeko lehentasunezko eskubidea zuela adierazi zuen. 1941eko irailaren 20tik aurrera, Askizu auzoko alkatea izendatu zuten.


REQUETÉ AUXILIAR
DE
GUIPÚZCOA
Guetaria
1971
Apellidos Larrañaga Amesti
Nombre Juan Jose
Edad 28 Estado Soltero
Profesión Labrador
Domicilio Teléf
Naturaleza Guetaria
Grados y

**Juan Jose Larrañaga Ameztiren atzeraguardiako erreketeen fitxa.**
(Euskal Ikasketetarako Fundazio Popularra).

Atzeraguardiako erreketeez gain, falangistek ere lehenengoen antzeko lanak burutu zituzten. Gerraren ostean, Bigarren Errepublikako gobernu legitimoaren aurka borrokatu zuten errekete getariarrak lanarekin eta bestelako domina zein sariekin sarituak izan ziren. Bien bitartean, Bigarren Errepublikako gobernua defendatu zuten gudari zein milizianoak, gerra aurretik zituzten lanetatik bota zein lan berriak lortzea neketsua egin zitzaien. Gerraostean, azken hauek, izugarrizko egoera larria bizi izan zuten.



**Fusilatzeen bala aztarnak dituen horma.** (Euskal Memoria).

## 4.9. GETARIAN FUSILATUAK ETA GETARIAR FUSILATUAK

**"J:** hor gutxienez 5 edo 6 bazian Mitxelena bezala sartuak. (…) Aldamenian artua, hazitako artua, da arta tartea ihesi, baina illargillakin ta ikusi, nunbait, nun barrena zihuan, ta tire ta hildakuak e bazan. Ta geo berriz hurrena, artuak eta jaso eta (… garai horretan) gorputzek eote zian kanpo santuko atian aurrian, balak e bai…ta geo gertatzen zan gurdien gurpillekin lurra ebaki egiten du gurpilek, kanalak bezela iten zien. Eta hoietako kanaletan, (…) arto sortekin tapatu. (…) Garai berdinekok etzian, bat artue tente daola, bildutako baiño lehenotik eta geo bestiak, artue bildu ta geo, hor octubrian, octubren aurrenetik aurrea dauden hoiek, artua jaso ta geo hildakuak dia. Ta bestie da lehenagokua. Horrek esaten du bat baino gehixo diela. Hor badia, bost o sei barren. Baino bat dao figuratute. (…) kuadro batin enterrau zittuen, panteoi bat eta erdi hartzeixkibe. (…) Gero haien gainian e enterratu hituan. (…) Geo panteoia berriz"[768].

Juan Eizagirre Ulaziaren testigantzak argi uzten digu, indar-errepublikarren aldeko zenbait pertsona fusilatu eta Getariako hilerrian bertan hilobiratu zituztela. Ez zen ausazko ekintza izan, Euskal Herriko gainontzeko herrietan egindako prozesu sistematikoa baino.

Estatu frankistak, lehen unetik argi izan zuen, bere aurkako ideologia zuen oro deuseztatzeko nahia:

"Sembrar el terror… eliminando sin escrúpulos ni vacilación a todos los que no piensen como nosotros"[769].

Horretaz guztiaz, falangistak eta aipatutako atzeraguardiako erreketeak arduratu ziren. Getariarrak ez ziren baina Getarian fusilatu edo hilobiratu zituzten 8 pertsona identifikatu ditugu. Horrez gainera, Getariatik kanpora fusilatu zituzten 2 fusilatu identifikatu ahal izan ditugu. Getariatik gertu fusilaturik ere izan zen, Meagako auzoan. Huraxe izan zen Pedro Julian Agirre Gallastegiren elgoibartarraren[770] kasua, zeina frankistek 1936ko urriaren 1ean hil zuten.

### EPAIZ KANPO GETARIAN FUSILATUTAKOAK ZEIN HILOBIRATUTAKOAK

---

**BAUTISTA AGINAGA OTEGI**

"1903an jaioa,Tolaretxen bizi zen, EAJ-ko Euzko Gaztedikoa zen. Bere aita Karlos Aginaga hil eta faxistek segituan preso hartu zuten. Getariako Meagan fusilatu zuten beste gizon batekin batera, 1936ko urriaren 10ean. Hantxe bertan lurperatu zituzten. Hilko zutela jakitean, apaiza eskatu zuen. Bera azken enkargua, aitaren hiletak ordaintzeko eskaera izan zen. Faxistek patrikan zeramatzan 600 pezetak kendu zizkioten"[771].

---

**PEDRO JULIAN AGIRRE GALLASTEGI**

1914an Elgoibarren jaio zen. Zumaian bizi zelarik, frankisten aurkakoa izaki, 1936ko urriaren 1ean frankistek preso hartu zuten eta Meagan fusilatu egin zuten. Fusilatu zutenean, 24 urte besterik ez zituen[772].

---

**GREGORIO DIEZ MARTINEZ**

Jaiotzez, Aritzaletakoa (Nafarroa), baina Donostian bizi zen. Gervasio Oliden Zarautzeko abokatuaren txoferra izan zen. Antonio Usobiagarekin batera, Getarian 1936ko urriaren 2an fusilatu zuten. Erail zutenean, 35 urte zituen.

---

**JOSE MARIA HUEGUN HUEGUN**

Jaiotzez donostiarra, 1939ko abenduaren 12an Getarian fusilatu zuten. 32 urte zituen erail zutenean.

---

[768] Testigantza: Juan Eizagirre Ulazia / GURRUTXAGA, A., op.cit., 31-33.or.: "Herriko informante baten testigantza aintzat hartuta egin zuten indusketa Aranzadikoek Getariako hilerrian. Informante horren arabera, 'gerran hildako zazpi' sartu zituzten bertan, 'tartean emakume nafar gazte bat'". (…) gaur egungo Aizpuru-Maroto eta Uzin-Aizpuru sendien panteoitik hasi eta aldameneko Larrañaga-Iribar-Gomez panteoirako lur zatian".

[769] Emilio Mola Vidal general frankistak esana.

[770] Garai hartan Zumaian bizi zen, bertan lan egiten baitzuen.

[771] TELLABIDE AZKOLAIN, J. 2004. *Usurbilgo baserriak eta baserritarrak.* Noaua Kultur Elkartea: Usurbil, 303.or. / Idoia Arrieta Elizalde / GURRUTXAGA, A., op.cit., 29.or.

[772] SANZ GOIKOETXEA, E., op.cit., 9.or. / IRIGORAS, A. 2017. *Kaleko zegamarrak Herri zapalkuntzaren lekuko batzuk (II). Indarkeria politikoaren eragina zegamarrongan 1936-2016.*

## JOSE IRURETA GOMEZ

1904ko irailaren 24an Zumaian jaiotakoa. Francisca Sasiain Agirregabiriarekin ezkonduta zegoen eta Zumaian bizi ziren. Bi seme zituzten, Pedro Maria eta Javier Maria Irureta Sasiain.

1936ko azaroaren 23an, frankistek, ziurrenik, Getarian fusilatu egin zuten, beren ideologiaren aurkakoa izatea aitzakiatzat hartuta. Getariako erregistro zibilean, “hemorragia cerebral consecutiva a la fractura de la base del craneo” delakoaren eraginez hil zela adierazi zuten. Beste zenbait herrietan ere fusilatuak gisa honetara erregistratzen ziren eta horregatik pentsa genezake fusilatu egin zutela. Familiari, istripu batean hil zela adierazi zioten.



**Jose Irureta Gomez.** (Senideek emandako argazkia).



**Jose Irureta Gomez, goiko lerroan, ezkerretik hasi eta lehena.** (Senideek emandako argazkia).



C Nº 376092 C

CERTIFICACION EN EXTRACTO DE ACTA DE DEFUNCION

Libro 15
Folio 122
Núm. 32
Procedencia del documento en su caso:

Don Tomás Indiganeta Quízaga
Juez de Paz de Guetaria
provincia de Guipúzcoa, y Encargado de su Registro civil.

CERTIFICO: Que según consta del acta reseñada al margen y correspondiente a la Sección III de este Registro civil,

D. José Irureta Gomez
nacido en Zumaya, de 32 años de edad

e hijo de Vicente y de Serafina, de estado casado con D. Francisca Sasiain de cuyo matrimonio deja dos hijos llamados, Pedro María y Javier María

FALLECIO

en Guetaria
el día veintitrés de Noviembre
de mil novecientos treinta y seis

Guetaria, a 27 de Octubre de 1962

MODELO OFICIAL ... PRECIO DE ESTE IMPRESO: 2,00 PESETAS

**Jose Irureta Gomezen heriotza-akta.** (Senideek emandako argazkia).



REGISTRO CIVIL DE DISTRITO DE

Número 20

Nombre y Apellidos
Jose
Irureta
Gomez

En Guetaria provincia de Guipúzcoa
... de mil novecientos treinta y seis ante D. ... Juez Municipal
y D. ... Secretario ... se procede a inscribir la defunción de D. José Irureta Gómez
de 32 años, natural de Zumaya, provincia de Guipúzcoa,
hijo de D. Vicente y de D.ª Serafina, domiciliado en Zumaya
de ... n.º ... piso ... de profesión albañil
y de estado casado con Francisca Sasiain Aguirregabiria de cuyo matrimonio deja dos hijos llamados Pedro María y Javier María
falleció en ... Guetaria

el día 23 de Noviembre a las 16 y 30 minutos, a consecuencia de hemorragia cerebral consecutiva a la fractura de la base del craneo
según resulta ... y reconocimiento practicado, y su cadáver habrá de recibir sepultura en el Cementerio de Zumaya.

Esta inscripción se practica en virtud de orden ...

consignándose además ...

habiéndose presenciado como testigos, D. ... y D. ... mayores de edad y vecinos de ...

Leída esta acta, se sella con el de este Juzgado, y la firman el señor Juez, los testigos ... de que certifico.

**Jose Irureta Gomezen heriotza-akta.** (Getariako Erregistro Zibila).

## TEODORO MITXELENA ZUMETA

ELA/STV-ko afiliatua izanik, gerra hastean, Oriotik Donibane Lohizunera (Ipar Euskal Herria) alde egin zuen. Behin itzulita, herriko falangista Timoteo Orte eta Garcia delakoak bere etxera joan eta etxetik atera zuten. Horiez gain, Marcelino Manterola Larrañaga Zarauzko Falangeko buruzagiak, Francisco Torrent Blanco Pako Beltza (Sevilla, 1915) eta Bonifacio Illarramendi Odriozola (Zarautz, 1912) falangista zarauztarrek bere hilketan parte hartu zuten, beste zenbaiten artean[773]. Haien artean zegoen Antonio Aranguren Manterola "Teto" bere senidea ere. Mitxelenak, hiltzera zihoazela konturatuta, inguruko txaradira alde egin zuen; falangistek harrapatu eta kulatazoka hil zuten 1936ko urriaren 24-25eko gauean. Falangistek, Getariako Gregorio Zubizarreta Areizaga ehorzleari, lehenengo eguzki argi-izpiak irten baino lehen hilobiratzeko exijitu zioten. Getariako ehorzleak hilaren 25ean hilobiratu zuen.



D. Gregorio Zubizarreta Areizaga, vecino de Guetaria y enterrador de la misma Villa
DECLARA: Bajo juramento que la madrugada del día veinticinco de octubre de mil novecientos treinta y seis fue requerido por los falangistas destacados en esta D. Timoteo Orte y un tal García, para que abriera el cementerio y diera sepultura á un cadaver antes de que amaneciera. Obedeciendo dicho requerimiento acudió al cementerio, junto al cual, al borde de la carretera se encontraba un hombre muerto, el cual recogieron en una camilla y llevaron al cementerio. El declarante conoció de vista al muerto que según su creencia era uno de Orio, cuyo nombre y apellidos desconocía.
Posterior se entero por conducto particular que de Orio fue sacado de su domicilio la noche de víspera el vecino TEODORO MICHELENA ZUMETA, por lo que puede afirmar que el individuo citado fue enterrado el citado día 25 de octubre de 1936 en el Cementerio de esta localidad, y sin requisitos corrientes y legales de inscripción en el Registro Civil ni autorización judicial.
Y para que conste y obre los efectos procedentes, firmo la presente declaración á ptición de parte interesada, en Guetaria á once de Diciembre de mil novecientos treinta y nueve

Visto Bueno
El Alcalde

Teodoro Mitxelena Zumetaren hilotza, Gregorio Zubizarreta Areizagak Getariako ehorzleak eginiko deklarazioa. (GUA).



Teodoro Mitxelena Zumeta. (Amagoia Gurrutxagaren liburutik).

## ANTONIO USOBIAGA ZABALA

Durangon jaioa, baina Zarautzen bizi zen. Lanbidez, igeltseroa zen, baina baineru eta aguazil ere aritutakoa. Gerra hastean, 33 urte zituen eta Zarautzen bizi zen. Maria Larrañaga Manterolarekin[774] ezkonduta zegoen (1933ko azaroaren 29an) eta Arantza alaba izan zuen.

Zarauzko erreketeek indarrez Narrosen atxilotu, EAJ/PNV-koa (Batzokiko sozioa) eta beraz, beraien ideologia politikoaren aurkakoa zelako. Narrosen atxilotuta zegoenean, bere emaztea Maria Larrañaga Manterola hari buruz galdezka joan zen. Getariara eraman eta 1936ko urriaren 3an, bertako kanposantuan fusilatuta erail egin zuten[775]:

"Herritar askok errepikatzen du gauza bera: tiroa jo bai baina behar bezala ez, eta gau osoa egin omen zuen builaka hil aurretik. Bakarrak esan du: Anjel anaiaren bila hasi eta Antonio nahastuta eraman zutela".

Marcelino Manterola Larrañaga Zarauzko Falangeko buruzagiak, Francisco Torrent Blanco Pako Beltza (Sevilla, 1915) eta Bonifacio Illarramendi Odriozola (Zarautz, 1912) falangista zarauztarrek bere hilketan parte hartu zuten, beste zenbaiten artean[776].

Maria Larrañaga Manterola Antonio Usobiagaren anaia Anjelekin 1941eko maiatzaren 31n ezkondu eta 1947an Ankelo Usobiaga Zabala semea izan zuten.



Antonio Usobiaga Zabala.
(Durango 1936 Kultur Elkartea).

## ANTONIO ZUBIAGA

Beasaindarra jaiotzez eta gerra hastean ere bertan bizi zen. 1936ko azaroaren 17an Getarian fusilatu zuten, Iñaki Egañaren arabera, atxilotu eta sei ordura[777].

[773] GURRUTXAGA, A., op.cit., 33.or.; 197-201.orr.

[774] Gaztetan hoteletan etab. lanean ibilitakoa (Zestoan lan egin zuen); gerora, jostun gisan lan egin zuen.

[775] AZEDB / Testigantza: Arantza eta Ankelo Usobiaga / GURRUTXAGA URANGA, A., op.cit.

[776] GURRUTXAGA, A., op.cit., 33.or.

[777] EGAÑA, IÑAKI. 1999. 1936. *Guerra Civil en Euskal Herria.* (IV lib., La Guerra en Gipuzkoa). Aise liburuak: Andoain, 208. or. / KORTAZAR BILLELABEITIA, J. 2018. *Frankistak Beasainen. Uztailaren 27ko gau beltza eta errepresioa* (III. Liburukia). Aranzadi Zientzia Elkartea: Donostia, 90.or.

## EPAIZ KANPO GETARIATIK KANPO FUSILATUTAKO GETARIARRAK

### JOSE JOAKIN IRURETAGOIENA OLASKOAGA

Getariako Kajuategi baserrikoa. Josefa Olano zaldibiarrekin ezkonduta zegoen eta Ermuako Asuan bizi ziren. Lanbidez arotza zen. Gerra hastean, euskal nazionalistak izaki, tropa frankisten atzaparretatik ihesi, herritik alde egin behar izan zuten. Horren eraginez, ez dakigu gudari gisan jardun zuen, baina Gernikara tropa frankistak sartzean, atxilotu eta fusilatu egin omen zuten. Bitartean, bere emazteak eta seme-alabek erbestera egin behar izan zuten[778].

### RAMON NIETO AGUADO

1878ko abenduaren 29an jaio zen. Getariarra jaiotzaz, baina gerra hastean Donostian bizi zen. Donostiako udaleko langilea izan zen eta tropa frankistak sartzean bere lanpostutik bota egin zuten. 1938ko ekainaren 27an kartzelaratu egin zuten eta 1939ko urtarrilaren 5an aske utzi zutela adierazten dute. 1944ko apirilaren 27an Agustinetako gainean fusilatu egin zuten. Bere erregistro zibilean, garuneko odoljarioaz hil zela adierazten du. Frankistek, fusilamenduak halako hitzak erabiliz ezkutatzen zituzten.

Fusilatzean, Ramon Nieto Aguadok 65 urte zituen eta, Cecilia Ibañezekin ezkonduta, Filomena, Luisa, Ramon, Carmen eta Mercedes Nieto Ibañez seme-alabak, aita gabe geratu ziren.

Bere anaia Pedro Nieto Aguado, Donostiako udaleko langilea, Santanderren tropa frankistek atxilotu eta Gerra-Kontseilua egin zioten[779].

### LUIS TORRES RODRIGUEZ

Gerra hastean 27 urte zituen eta Getarian bizi zen. 1936ko irailaren 1ean, Badajozen tropa frankistek fusilatuta erail zuten.

## GETARIAKO HILERRIAN EGINDAKO INDUSKETEN EMAITZAK

Aranzadi Zientzia Elkarteko Antropologiako Departamenduak Getariako hilerrian egindako indusketan, gudari baten gorpua baino ez zen agertu. Getarian fusilatutakoen gorpuak hilerrian bertan lurperatu ziren, oraindik haien arrastorik aurkitu ez bada ere. Liburuan zehar adierazitako dokumentuak zein pertsona elkarrizketatuak dira horien froga argienak.



**Hilkutxarik gabeko ehorzketa.** (Aranzadi Zientzia Elkartea).

[778] Testigantza: Maria Iruretagoiena Olano.

[779] Xehetasun gehiagorako, ikus “Memoriaren Aurpegiak” atalean, Ramon Nieto Aguadoren biografia osotua.

## 4.10. GETARIA ETA ALEMANIAR NAZIAK

Gerra Zibila amaitu eta hilabete gutxira, 1939ko irailaren 1ean, Bigarren Mundu Gerra hasi zen. Hartan, bi fronte nagusi bereizi ziren: alde batetik, aliatuak (Britainia Handia, Frantzia eta Polonia, hasiera batean) eta bestetik, "Eje" deituriko tropak (Alemania nazia, Italia faxista eta Japon) izan ziren. Hasierako urteetan, batik bat "Eje"-ko tropek hartu zuten indarra eta horietan nabarmenenak alemaniar naziak izan ziren. Garai hartan, gerrak eragindako izugarrizko masakrea eta atsekabea gogoan dira. Ez zen alemaniarrak Getarian zeuden lehen aldia, hain zuzen, jarraian ezarriko dugun 1937ko urtarrilaren 3ko albisteak, garai hartan, Getarian, alemaniar nazien ontziteria herri arrantzaleko portuan zegoela zehazten du:

"Igualmente hace saber a los mismos Gobiernos que varias unidades de la marina de guerra alemana se hallan actualmente en el puerto de Guetaria"[780].

Hala eta guztiz ere, Getariako zenbait arrantzalerentzat garai onenetarikoak izan ziren, irabaziak hazi egin zitzaizkien:

**"S, P eta J:** Alemanen gerra hasi zanian, antxoilla baziyan, ta orduan diru asko ibiltze giñun!"[781].

Une hartan, Gerra Zibiletik eta garaipen frankistatik ihesi joandako erbesteratuak Frantzian aurkitzen ziren. Gerra batetik eta haren errepresiotik alde egin eta beste gerra odoltsu baten atzaparretan aurkitu ziren. Berriro ere faxismo eta nazismoaren atzaparretan zeuden. Garaiko testigantzek argitzen dutenez, euskaldun erbesteratuek hasierako urtea nahikoa lasai pasatu zuten, naziek ez baitzuten Frantzian ofentsibarik egin. 1940ko maiatzean, nazien ofentsibarekin batera, gerraren balantzea euskal erbesteratuentzat ere guztiz aldatu egin zen. Askatasun murritzak izatetik, askatasunik gabe geratu eta ezkutuan bizitzera kondenatu zituzten; izan ere, Gestapo nazien polizia sekretuak detenitu eta estatu espaniar frankistara deportatuko zituen beldur ziren. Behin espainiar estatuan deportatuta, gehienei, epaiketa azkarra eta fusilatzea edo kasurik arinenean kartzelaratzea zetorkien; errefuxiatu haietako batzuk aske geratu ziren, frankisten propaganda zuritzailearen parte bihurtu ziren.

Euskaldun gehienek, erbestean ere, Euskal Herri independente baten aldeko borrokan jarraitu zuten. Eusko Jaurlaritzak oraindik ere, Euskal Herriaren independentziaren ideia mahai gainean ezarrita, 3. Kapituluan zehar aipatu dugun Eresoinka euskal talde folkloriarekin euskal kultura Europan zehar lau haizeetara zabaltzen saiatu zen. Haien azken emanaldia, 1939ko maiatzaren 26an izan zen, Bigarren Mundu Gerra hasi baino lehen, beraz.

Hala eta guztiz ere, Eusko Jaurlaritzak Euskal Herriaren askatasunaren ekinbidea lehen mailako betebeharren agendan ezarriz, Bigarren Mundu Gerra aurrera zihoan heinean, aliatuei laguntza emateko neurriak martxan ezarri zituen.

Haren emaitza, Gernika Batailoiaren sorrera izan zen. Hasiera batean, euskal itsas gudarien balentriaz ohartuta, Frantziako itsas armadaren barnean Itsas Fusilarien 3. Batailoia deiturikoa osatu zuten, De Gaullen onarpenez; baina Churchillek honakoa atzera bota zuen, azken finean Britainia Handiak beto politika aplikatu baitzuen, hain zuzen, Francorekin halako bake hitzarmen bat hitzartuta zuen eta ez zitzaion komeni euskaldunek Bigarren Mundu Gerran parte hartzea. Sortu eta gerran parte hartzeko lanak izan bazituen ere, azkenean 1944an, estatu aliatuetako gobernuek, Gernika Batailoiak gerran parte hartzea onartu zuten, Leizaolak egindako akordionez bidez. Ordurako Frantzia ia guztiz askatuta zegoen, Atlantikoko gotorlekuetan babestutako naziak kanporatzea baino ez zen falta.

Gernika Batailoiko komandantea Gerra Zibilean borrokan jardundako Kepa Ordoki EAE/ANV-ko militantea izan zen. Batailoia osatzera zihoalako jakitun, Gerra Zibilean zehar borrokatu eta garai hartan Frantziako kontzentrazio-eremuetan aurkitzen ziren zenbait gudari zein errepresio frankistaz gogaitutako zenbait gazte euskaldun Gernika Batailoian zerrendatu ziren faxismoaren aurka eta euskaldunen askatasunaren alde borrokatzekotan. Gernika Batailoia, somaliar, magrebiar, frantsez, espainiar errepublikazale, kataluniarrez… osatutako Carnot brigadaren parte izan zen (12.000 gudari zituen baina nazien aldean gaizki armatuta); Chodzko poloniar jatorriko komandante frantsesak zuzendutako Marokoarren eta Atzerritarren Zortzigarren Errejimentu Mistoaren barnean zegoen. Ideologia politiko anitzeko brigada zen: komunistak, anarkistak, euskal nazionalistak, katalan nazionalistak…

Getarian zenbait urtez bizi izan zen ondarroar Jose Ramon Aranberria Amutxastegi "Matxote" Gernika Batailoian borrokatutako gudari gazte haietako bat izan zen. Nazien aurkako erresistentzian ez zuten horrenbeste gudarik parte hartu, baina 3.000 euskaldun inguruk arma-egile lanetan jardun zuten.

Ondarrun frankistek gauzatutako errepresioa jasan ezinik, Aranberria eta lagun batzuk, askatasunaren alde borrokatzeko erabakia hartu zuten:

**"JR:** hamen e, Ondarrun bertan e garai hartan hamen ezauan bizitzeik trankil. Hor Goardia Zibillak eta… '¡Qué hostias estáis hablando en vasco!'… jota (porrarekin ematen ziolako zeinua egiten du) txikitu eiten ziuben! (…) ta amorraute, nazka-nazka einde honaino (leporaino nazkatuta zeudelako zeinua egiten du). Ta gero pentsatu gendun ba jutea… holaxe, gerra…"[782].

---

[780] La Vanguardia, 1937ko urtarrilaren 3a.

[781] Testigantza: *ahotsak.eus*. Sebastian Aranguren Ulazia, Paulo Argibe Uraola eta Jaxinto Isasti Aizpuru. GET-002/013.

[782] Testigantza: Jose Ramon Aranberria. Gernika Batailoiko gudaria. Dokumentala: "Gernika Batailoia. Askatasunaren ametsa: 1945-2015". Baleuko. https://www.eitb.tv/eu/bideoa/film-dokumental-honek-bigarren-mundu-gerrako-gertakizun-ezezagun-bat-erakutsi-nahi-digu-etxetik-urruti-erbestean-askatasunaren-alde-borrokatu-ziren-euskaldunena-alegia-gernika-batailoia-askatasunaren-ametsa-1945-2015/5320/105693/film-dokumental-honek-bigarren-mundu-gerrako-gertakizun-ezezagun-bat-erakutsi-nahi-digu-etxetik-urruti-erbestean-askatasunaren-alde-borrokatu-ziren-euskaldunena-alegia/

Hala, lau lagun txalupa soil batean sartuta eta arraunei eraginez, Ondarrutik Donibane Lohizunerako bide luzea egin zuten:

**"F:** (…) aitxan txalupa txiki bat lapurtu, da erremutan aldein zuen Ondarrutik Donibanera arte, ba hoeita hamasei hoeita hamaika bat milla… hamabi-hamalau ordu arraunian"[783].

**"A:** Ondarroakoak lau ziren, Ondarroako lagun minak. Txalupatxo bat hartu zuten, eta Hendaiaraino etorri ziren arraunean. Hamazazpi urte… dirudienez amak negar egin zuen"[784].

**"JR:** batelian, txalupa txikixa hartuta. Danok estu-estu einde. Hondarrabixan, txafar… hola (faroaren argiaren noranzkoa seinalatuz). Hostia…danok zea giñan da (makurtzeko zeinua egiten du)…txalupa txikixan danok alkarren gaiñian. Karramarro batek bezela. Bildurre hola 'harrapauko gaitxue, harrapauko gaitxue!' ta…"[785].

**"F:** gizarteari buruz beste ikuspegi bat geneukan, ez gaur egungoaren modukoa. Orain, bakoitza bere aldetik dabil. Orduan ez, orduan talde bakarra ginen (…) Garai hartan laguntza eske etortzen zenari besoak zabalik ematen genion. Mundu guztiari! Janaria eta, denetik"[786].

**"JR:** politikaz ari garela, danok ondo arreglatzen giñan gu"[787].

Inongo bapore zein motor elektrikoren laguntzarik gabe, besoen indarrak lagunduta. Behin Ipar Euskal Herrian zirela, bertan zeuden ondarrutarren laguntzarekin, Eusko Jaurlaritzak martxan jarritako Gernika Batailoian zerrendatu ziren. Gernika, naziek euskal sozietatean egindako basakeriaren ikur internazionalista bilakatu zen eta bertan zerrendatutako gudarientzat, zeresan berezia izan zuen batailoi hark Bigarren Mundu Gerran zehar ere.

Haien helburua, Pointe de Grave-n (Frantzia) babestutako naziak garaitzea zen eta horren eraginez, gudari haien lehen geldialdia Ventays-Montalivet-en izan zen; instrukzio militarrak hilabetean zehar egin ostean. Pinudi batean babestuta egon ziren:

**"JR:** Oihanetan eon giñan gu e… metrailletak eta jata parapetuk jarri ta, hartuta gaudezen, bata toki batin ta bestia bestin da, oihanetan! Da alemanak hara sartute! Hurbiltzen hasi zien gureana. Baiño gu ondo prepauta gaudezen e… metrailletakin da… Da arrixku haundixa, (…) gabaz da kalmatze zan baiñe haize rafara batzuk etortze zin…re dios!"[788].

Hala, Aranberriak, Ordoki komandantea eta gainontzeko gudariekin batera, nazien aurkako borroka gogor eta gazi gozoetan borrokatu zuen, bidean zenbait adiskide ere galdu zituelarik. Bera, Getariara ordea bizirik iritsi zen eta ez nolanahiko bidaiaren ostean:

**"C eta G:** gero, handik denbora batera, nire etxean pertsona bat agertu zen eta argazki batzuk ekarri zizkigun. Eta esan zigun Antxon eta bere anaia, mina bat zapaldu eta bertan hil zirela. Pena handia"[789].

Basoan zeudela, naziek inguratuta eta gainontzeko batailoiak blokeatuta, Gernika Batailoia aurrera ezin eginda geratu zen. Hala, eta erretiratu beharrean aurkituta, Libertad Batailoi errepublikazaleko milizianoen babesaren laguntzaz egin zuten atzera. Gernika Batailoian maiteak izan ziren Lesca sendagilea eta Iñaki Aspiazu apaiza bera ere.

1945eko apirilaren 15ean zuzeneko frontera hondarrezko dunetatik egin zuten, Soulac hiria helmuga zutelarik:

**"J:** sartu nitzan mariñan. Ni sartu orduko bazen gerla (…) itsas bazter hortan Le Bleau Cost, hori eiten baitzuzten. Eta alemanek hartiak tzuzten hoik denak. Bezperan gu lehenbizikoak ginen, gero abionak etorri ziren Angleterratik. Eta haek Pirinion gainetik ihortzi zuten (…) Eta geo pam, bazter guztiak sua imaiten tzuten. Bazter guziak eta garbitu artio euskaldun ainitz, aurrian fite joaiten tzen jendia. (…) Norbaitek bihar du in zerbait, bestenaz gauzak eztira beraiek iten. 'Ogia jan nahi dienak, behar du lehenik eta hazia erein'"[790].

1945eko apirilaren 18an Soulac-sur-Mer-en bataila garrantzitsua izan zuten eta alemaniar soldaduak amore ematen joan ziren:

**"F** eta **JR:** gure bandera (ikurrina) generamanez, ingelesak ginela uste zuten. Edozer euren burua frantsesei entregatu aurretik"[791].

1945eko apirilaren 20an Arrosko bateria hartu behar zuten **"JR:** ta han ikurrina sartu zan euskaldunana e!"[792]. Aliatuen erasorik ere jaso zuten, izan ere, naziak zirela pentsatu zuten, ez baitzuten pentsatzen inor egongo zela frontean aurrera horrenbeste egin zuenik. Guztira 1200 aliatu eta 800 alemaniar hil ziren. Hura amaitu ostean, Bordelen tropa aliatuei egindako omenaldizko desfilean, ikurrinarekin desfilatuz, parte hartu zuten:

---

[783] Testigantza: Fernando Agirre. Dokumentala: "Gernika Batailoia. Askatasunaren ametsa: 1945-2015". Baleuko.

[784] Testigantza: Angela Arrizabalaga. Antonio Arrizabalaga gudariaren alarguna. Dokumentala: "Gernika Batailoia. Askatasunaren ametsa: 1945-2015". Baleuko.

[785] Testigantza: Jose Ramon Aranberria. Gernika Batailoiko gudaria. Dokumentala: "Gernika Batailoia. Askatasunaren ametsa: 1945-2015". Baleuko.

[786] Testigantza: Francisco Perez Lusarreta. Gernika Batailoiko gudaria. Dokumentala: "Gernika Batailoia. Askatasunaren ametsa: 1945-2015". Baleuko.

[787] Testigantza: Jose Ramon Aranberria. Gernika Batailoiko gudaria. Dokumentala: "Gernika Batailoia. Askatasunaren ametsa: 1945-2015". Baleuko.

[788] Testigantza: Jose Ramon Aranberria. Gernika Batailoiko gudaria. Dokumentala: "Gernika Batailoia. Askatasunaren ametsa: 1945-2015". Baleuko.

[789] Testigantza: Carmen eta Guillermo Múgica. Anton Múgica Gernika Batailoiko gudariaren anai-arrebak. Dokumentala: "Gernika Batailoia. Askatasunaren ametsa: 1945-2015". Baleuko.

[790] Testigantza: Jamattitt Etxeberria. Frantziako Itsas Armadako soldadua. Dokumentala: "Gernika Batailoia. Askatasunaren ametsa: 1945-2015". Baleuko.

[791] Testigantza: Francisco Perez Lusarreta. Gernika Batailoiko gudaria. Testigantza: Jose Ramon Aranberria. Gernika Batailoiko gudaria. Dokumentala: "Gernika Batailoia. Askatasunaren ametsa: 1945-2015". Baleuko.

[792] Testigantza: Jose Ramon Aranberria. Gernika Batailoiko gudaria. Dokumentala: "Gernika Batailoia. Askatasunaren ametsa: 1945-2015". Baleuko.

**"F eta JR:** oso hunkigarria. Pointe de Grave-ko operazio guztia egin ondoren, jendea leku guztietatik kalera norberari txalo egitera ateratzea. Hori oso hunkigarria da, edonorentzat"[793].

De Gaullek esan omen zuen ez zuela sekula ahaztuko euskaldunek gerra hartan egindako esfortzua eta sakrifizioa. Baina hitz haien emaitza guztiz bestelakoa izan zen:

**"L eta JR:** hitz egitea, esatea, agintzea, oso erraza da! Esandakoa betetzea zailagoa da. Ekintzak, hitzak baino garrantzitsuagoak dira"[794].

Roosevelt hil, Truman presidente ezarri eta Gerra Hotzean sartzeak, formazio militar hura bertan behera utzi zuen. Etsaiez aldatu zuten, faxismoaren truke komunismoa zen etsai berria. Behin Bigarren Mundu Gerra aliatuek irabazi eta estatu espainiar frankista aliatuek onartzean, amets haiek guztiak zapuztu egin ziren.

Aranberria, soldaduskari muzin egina, frankistek iheslari gisan kalifikatu zuten. Beraz, oraindik ere, ezin zuen Euskal Herri maitatura itzuli. Hori hala, CIA-k Eusko Jaurlaritzaren baimenarekin sortutako polizia entrenamendu gogorretan jardun zuen Alemanian. Eusko Jaurlaritzaren helburua, gizonezko haiek guztiak Euzkadiren askatasunaren alde borrokatzeko entrenatzea izan zen. 1945eko udan Gernika batailoiko gudarietako batzuk Rothschild gaztelura (Paris-etik 50km-ra) eraman zituzten. Jose Antonio Agirrek eliteko gorputz militarra sortzea negoziatu zuen estatu batuarrekin. Primitivo Abad jeltzalearen kontrolpean, Ranger amerikarrek eta ingelesek, 100 gizon entrenatu zituzten. Gotzon Arruti zarauztarrak euskaldunen eta ingelesen arteko interprete gisa jardun zuen.

Hala, Parisen babestu zen Jose Ramon Aranberria, erbestera askatasunaren alde borrokatzera joandako beste zenbait kiderekin batera. Han ezagutu zuen bere emaztea, Aberri Egun batez, Pariseko Euskal Etxean eta bere seme Iñigo Aranberria ere bertan izan zuten. Anaia kartzelan zuela probestuz, haren identitatea beretzat hartu eta Getariara itzultzea lortu zuen. Askatasunaren alde borrokatutako gudari gogoangarri bat.

Gernika Batailoia ez zen euskaldunek gerraostean alemaniar naziekin izandako kontaktu bakarra izan. Getariak gertutik bizi izan zuen alemaniar naziekiko kontaktua. Noizik behin haien autobusak pasatzen ziren eta, ogi zein zigarroak banatzen zituzten herritarrentzako:

**"A:** Alemanak autobusa handitan da… \`cigarettes! cigarettes!´ botatzen jarduten zuen; aquellos andaban en abundancia, ta hamen berriz gosia zitxon (…) de turistas etortze hituan"[795].

Orain arte hain entzutetsua izan ez den gai batez hitz egingo dugu segidan. Herriko zaharrenek oraindik ere gogoan izanen dute, beraien memoria guretzat oraindik ere altxor bizia da. Urte luzez isiltasunaren preso izana, gaur argitara eraman beharrekoa.

Alemaniar nazien hegazkinak Euskal Herriko ortzi mugak noiznahi zeharkatzen zituzten. Haien buruzagi nagusia Hermann Göering, urte luzez, Hitlerren konfiantzazko gizona izan zen. Hirugarren Reich-eko Luftwaffe-ko komandante jefe gisan izendatu zuten. 1938an Hitlerrek instituzio guztietako bere ordezkari eta ondorengo izendatu zuen. 1940an Frantzia menpean hartu ostean, *Reichsmarschall* izendatu zuen, zeinak Wehrmarcht-eko gainontzeko komandanteek baino gorago geratzen zen gisa horretara. Abiazio alemaniarrak geroz eta indar gutxiago izanik, politikatik eta eremu militarretik urrunago jarri eta batez ere, ekonomia alorrean beretzat jabetzak eta judutarrei lapurtutako koadroak etab. beretzat hartzeaz arduratu zen[796].

Garai hartan, arestian aipatutako 1943ko martxoaren 31n, Getarian zenbait getariarrek oraindik ere gogoan izango duten alemaniar nazien hegazkinetako baten erorketa kausitu zen. Oraindik istripua zerk kausitu zuen ez badakigu ere, Getariako ortzi-mugak zeharkatzen zebilen hegazkin alemaniar nazia euskal uretan hondoratu zen. Getariako erregistro zibilean ikertu ahal izan dugunez, Alemania naziko abiazioko hiru kide hil ziren istripu hartan. 1943ko apirilaren 18an, Getariako Erregistro Zibilean dokumentua osatzean, Zumaiako Zatiko Marinako Laguntzailea present egon zen. Horrez gainera, Juan Jose Iribar, Manuel Gorostiaga, Tomas Zubizarreta eta Constancio Quintanak testigu gisan gertatukoaren berri eman zuten:

[793] Testigantza: Francisco Perez Lusarreta. Gernika Batailoiko gudaria. Testigantza: Jose Ramon Aranberria. Gernika Batailoiko gudaria. Dokumentala: "Gernika Batailoia. Askatasunaren ametsa: 1945-2015". Baleuko.

[794] Testigantza: Laure Lataste Galarraga. Gerrako haur errefuxiatua. Testigantza: Jose Ramon Aranberria. Gernika Batailoiko gudaria. Dokumentala: "Gernika Batailoia. Askatasunaren ametsa: 1945-2015". Baleuko.

[795] Testigantza: Andoni Arregi Oiarzabal.

[796] Nuremberg-eko epaiketetan deklaratu eta urkara kondenatu zuten. Urkatu aurreko gauean, zianuroa hartuz bere buruaz beste egin zuen.

**THAUS MOELLER**

26 urteko Alemaniako Holtenau herrikoa zen. Abiazioko ofizialordea izan zen. 1943ko martxoaren 31n hil zen “asfixia por inmersión en el agua”.

**HARALD SAUTLER**

22 urteko Austriako Knittelfeld herrikoa zen. Abiazioko ofizialordea izan zen. 1943ko martxoaren 31n hil zen “asfixia por inmersión en el agua”.



REGISTRO CIVIL DE — DISTRITO —
Número — En — provincia de Guipúzcoa, a las — minutos del día — de mil novecientos — ante D. — Juez municipal — y D. — Secretario, se procede a inscribir la defunción de D. Thaus Moeller, de edad 26 años, natural de Holtenau, provincia —, hijo de D. — y de Doña —, domiciliado en — de — núm. — piso —, de profesión Suboficial — y de estado —
falleció en — el día 31 de Marzo, a las — y — minutos, a consecuencia de asfixia por inmersión en el agua, según resulta de — y reconocimiento practicado, y su cadáver habrá de recibir sepultura en el Cementerio de —
Esta inscripción se practica en virtud de —
consignándose además —
habiéndolo presenciado como testigos, D. — y D. —, mayores de edad y vecinos de —
Leída esta acta, se sella con el del Juzgado y la firman el señor Juez, los testigos — de que certifico.

Thaus Moeller-en heriotza-akta. (Getariako Erregistro-Zibila).



REGISTRO CIVIL DE — DISTRITO —
Número — En — provincia de Guipúzcoa, a las — minutos del día — de mil novecientos — ante D. — Juez municipal — y D. — Secretario, se procede a inscribir la defunción de D. Harald Sautler, — de edad —, natural de Knittelfeld, provincia de —, hijo de D. — y de Doña —, domiciliado en — de — núm. — piso —, de profesión Suboficial — y de estado —
fallecido en — el día — de Marzo, a las — y — minutos, a consecuencia de asfixia por inmersión en el agua, según resulta de — y reconocimiento practicado, y su cadáver habrá de recibir sepultura en el Cementerio de —
Esta inscripción se practica en virtud de —
consignándose además —
habiéndolo presenciado como testigos, D. — y D. —, mayores de edad y vecinos de —
Leída esta acta, se sella con el del Juzgado y la firman el señor Juez, los testigos — de que certifico.

Harald Sautler-en heriotza-akta. (Getariako Erregistro-Zibila).

## GEORGE MARKERT

26 urteko Werma Rhein herriko alemaniarra. Abiazioko sarjentua.



REGISTRO CIVIL DE ______ DISTRITO ______

Número ______

NOMBRE Y APELLIDOS

Georg Markert

En ______ provincia de ______, a las ______ y ______ minutos del día ______ de mil novecientos ______, ante D. ______, Juez municipal ______, y D. ______, Secretario ______ se procede a inscribir la defunción de D. Georg Markert, de edad 26 años, ______ natural de Werma Rhein, provincia de ______, hijo de D. ______ y de Doña ______, domiciliado en ______ de ______ núm. ______ piso ______, de profesión ______ y de estado (1) ______

falleció en ______ (2) el día 21 de Mayo, a las ______ y ______ minutos, a consecuencia de (3) ______ según resulta de (4) ______ y reconocimiento practicado, y su cadáver habrá de recibir sepultura en el Cementerio de ______

Esta inscripción se practica en virtud de (5) ______

consignándose además (6) ______

habiéndola presenciado como testigos, D. ______ y D. ______ mayores de edad y vecinos de ______

Leída esta acta, se sella con el del Juzgado y la firman el señor Juez, los testigos (7) ______ de que certifico. Tomás Zubiarreta

George Markert-en heriotza-akta.
(Getariako Erregistro-Zibila).

Gertaera hura Andonegi Arregi Urrestik ere gogoratzen du: "**A:** pilotuak eta aiatze hitun ur gainean eta... piloto alemanak eta. Agertu hituan gorputz batzuek eta... barkuak ekartze zituena"[797].

Orion ere, eroritako hegazkinaren berri izan zuten eta, hura kostalde osoan zehar zabaldu zutela pentsa genezake, haren arrastoak aurkitu ahal izateko.

Espainia frankista Bigarren Mundu Gerran zehar neutrala zela adierazi arren, Dibisio Urdina deitutako infanteriako boluntario frankisten laguntzarekin parte hartu zuen. Euskal Herriko herri ezberdinetatik ere zenbait gazte bertan zerrendatu ziren. Boluntarioak Bigarren Mundu Gerrara eramateaz gain, herrietan bertan ere Dibisio Urdinarentzat ordaintzak egiteko eskariak egin ziren. Jose Cipriano Labrador Diez getariarra haietako bat izan zen, 1942ko abuztuaren 5ean, Dibisio Urdinarekin, nazien alde, Errusian (garai hartako Sobietar Errepublika Sozialisten Batasunaren aurka borrokatzen) borrokatzen aurkitzen zen.



Servicio Telefónico Provincial

DIPUTACION DE GUIPUZCOA

Indicaciones eventuales | Indicaciones de servicio

Si en ese término Municipal ocasionalmente cayese o aterrizase forzosamente algún avión dará urgente cuenta al puesto de la Guardia Civil que tiene instrucciones concretas para intervenir tales casos.

Orion, hegazkinen bat eroriz gero abisua emateko oharra. (Orioko Udal Artxiboa).

[797] Testigantza: Andoni Arregi Oiarzabal.

# 5. LEKUKOTZAK



# ANUNTXI Aranguren Burgaña eta JOXE Azkue Iribar[798]



***"Ordun umia gaixotu zitzakoen Gernika alde horretan zean dabiltzala, ta hil umia. Ta in tzuen Laredon enterratuta laga. Jun tzan orduan, bea Frantzira pasatu zan umeik gabe".***

**Zuen izena nola da?**
Anuntxi Aranguren Burgaña. Joxe Azkue Iribar.

**Eta bertan jaio zeate biok?**

**ANUNTXI:**

Bai.

**Ze urtetan?**
Hau 31n eta ni berrogeixan.

**Zuen gurasoak, getariarrak zien?**
Bai, izatez getariarrak. Bueno, ama Mutrikun jaixoa, baina sei hillabetekin hona etorria. Harrezkeroko ume danak Getaixan jaixuak asi que...

**Zemat anai-arreba zinaten?**
Ni por ejemplo, ezautu det bakarra bi, baino beste bi hilak dazkaulako gerrako denboran.

**Orduan lau izan zineten?**
Bai.

**Eta zuek?**

**JOXE:**

Gu lau, geo bat hil, a bost!.

**Zure gurasoek eta zer kontatzen zuten gerraz?**
Ezer ez, eske hori da ba…Izer ez, izer ez…

[798] Elkarrizketa jaso gisan transkribatu da. Liburua euskara batuan idatzi denez, bertako euskalkiaren nolakotasunak mantentzeko egin da honako aukera.

**Badakigu zuen ama bota egin zutela**
Ta ume ta guzti erten zuela, baina umeik gabe ailau zala Frantzira. Umie hil ein tzitzakolako, gaixotu ta diarreakin.

**Kanporatua izan tzan umiak ze izen tzaukan?**
Benita, Benedita, Benita. Nik aitan histori gutxio dakit, aitak behin e etzun esplikatzen, beti aitze nion 5 de marzo aiatze zanian, hau de ni jaixotako euna ta bea bere moruz, ta ordun etzan oin bezalakoxe zelebrazixoikan han, baina beak esaten zuan nik egun hau zelebratzeñat porke hau den ni jaixotako euna, berriz jaixo ni eun honetan da. Baina etzun esplikatzen gerrako kontuikan.

**Ta zuen kasuan (Joxeri begira)?**

**Anuntxi:**

Nik honi aituta, bai nire jun nitxan Frantzira, han bizi nitzan ni. Eta esaten zuan eta ni bost urtekin jun da taberna batian lagatzen zian nei gurasuak.

**Joxe:**

Ni eskola jute nitxoan momentu hartan, akordatu eskola nola jute nitxoan da. (…) geo mendixan e nola ibiltze ginan da, txakur txiki batekin da jolasian da nola ibiltze ginan. Aita lanian ta ama ta….

**Anuntxi:**

Gure amak esaten tzon, getariar askoi askoi, osaba Silvestrei ta horrenbestei beak arropak garbitu eta jan e ein eiten zuela. Osaba Silvestre ta, nik hoinbeste getariarrei zeatu zonat, esaten tzuan. Ta geo bazitun histoixak, ni re enitxan asko eramaten nuana ta esaten tzuan bai deklaraziyua itea jute gitunan eztakit zenena ta zenen alde ein behar deklaraziyua ta…ni re enai izan egixe esan, zea ama pasata dao ta ahaztu, laga!.

**Etzen hitz egiten ez?**
Batez, batez… nik honi aituta dakit batte.

**Joxe:**

Bonbardeua etortze zanian, tunelea jute ginan danok eta amakin galdu ni eta geo komerixak bilatzen alkar e…danak brrrr… (danak batera joaten zirela refugiora adierazten du). Ta galduta ta, alkarri bilatu…

**Anuntxi:**

Orduan aitzen nuen, eskutik emanda amakin da, libratu eskua da danak ihesika da umia ta bixak apartatu.

**Joxe:**

Bost urtekin zea jakingo nun…

**Gogoratzen al zea bonbardaketan soinuaz?**
Askotan, askotan tunelea jute ginan danok sirena jotze zunian tsuu…ta danok tunelea jute ginan.

# JOXE Arregi Aranguren[799]



***"Eta nunbait hau Tomas Kamio, bota berri berriyak zeuzkala, baakizu botak e asko balixo ta, hura jun tzan botak salbatzea ta gure aita jun tzan harei heldutzea makina o ez sartzeko esanez esplosioa eingo zula ta, bestiak erten tzun baiño bixek harrapatu, bat hil ein tzan ta bestia oso heritua atera zuen".***

**Zure izena ta abizenak?**
Joxe Arregi Aranguren.

**Nun jaio zinen?**
Getaiyan.

**Eta zemagarren urtian?**
1945ian abenduak 18an.

**Zure aitan izena?**
Urbano Arregi Uzin.

**Eta aman izena?**
Genoveva Aranguren Iñarra.

**Aita nungua zan?**
Biak Getaikuak, aita ta ama re bai.

**Aitak zertan eiten tzun lan?**
Itsasuan, arrantzalia.

**Eta Genovevak?**
Sarian eta kontserba fabrikan, bietako bat. Sare konpontzen gehiena.

Osaba Joxe ez al huan gure aitakin inguruan, gure amai esate omen xioan "hura eztek biziko" aitagatik esate omen zitxon, urtebete ein tzuan geo huek ein tzuen hamendik hara hartu, hori baiño lehenau gure aita ta ibili zian aurrena Portugaleten eta portuan denbora eman eta gero eskatu zituela, Alemanen eta minak eta kentzeko, baiña ofizio zea izingo zan peligrosua, txalupa txikin jun da, bote bat ikutzia nahikua dena esplosio bat iteko, nere aittek beti esan du, bi eskeiñi ziala Joxe Exkerra ta bea. Alemanak etorri arratsaldian ta bonbak jartze zituen erriyuan eta geo hoiek biyen misiyua zuen, ez sartzeatik bestiak, hoyek ein ber tzuen bonba haiek deskonektatu.

[799] Elkarrizketa jaso gisan transkribatu da. Liburua euskara batuan idatzi denez, bertako euskalkiaren nolakotasunak mantentzeko egin da honako aukera.

**Erlijiosuak izan tzeate?**
A bai. gure aitak ohitura zuan, bazkaldu ber tzunian eo afaldu ber tzunian, errezatzekua. Ohia jute zanen e errezatzekua, hoi bai. Eta ama? Ama gutxio. Eleiza gehio ama, eleiza azkenean (…) eunero eleiza jun behar tzun goizeko zortzitan. Hotza, negua, elurra, euriya…baiño ama zerta jun bazu ba? (…) eleiza bai eta aitak errezua re bai, eta hiltzeko aurrian izeko batek deitu zion apaizai nunbait beak esan omen tzion hiltzen ai zala, kantzerra zeon pulmoian, sufritzen ai zala eta lasai eoteko, kontzientzia lasaia zula ta apaizek (…).

**Eta aita bueltatu zenian lana bazakan?**
Bueno aitak problema izan tzuan. Etzioen utzitzen itsasoa juten ta etzioen utzitzen kofradiyan sartu ber zala soziyo. Ta kofradiyan sartzeko soziyo, obligatu zuen multa bat paatzea. Hemen daukat errezibo hori re. En el 41, 100 pezetako kuota paautu zuen gue aitak multa. Kofradia sartzeko, berriz e itsasoa hasiko bazan.

**Ba al dakizu zeinek etzuen paatu? Pedro Letek (Correa izingoa).**
Nie aitak paatu ein tzuen, 100 pezeta hamen errezibua. Oain hau jakitekoa litzeke orduan zein tzan presidente kofradiyan. Gutxi gorabehera pentsatzen det zein izango zan baiño…seguru nola eztakiun…

**Etxian zuek txikiyak zinetenian gurasuak hitz ein dizue gerran inguruan?**
Gutxi, hasieran gutxi. Geo hasi giñanian o, zea ta…nei aitak zeoze esplikatze zizkian. (…) zeoze esplikatze zian, ni beakin bizi nitxan da… aitak bai ta amak? Amak e gutxi. Esan dizut hamen etxin etzan hitz eiten.

**Ta amak zeoze kontatu zizun hemen gelditu zinan histuriyak edo? Ba badaude ba histuriyak emakumiai illia rapatu ta**
…bai, Roxario hari re bai. Roxarioi re illea moztu zion, hoixei bai. Roxario Uranga.

**Eta euskeraz?**
Beti, beti. Euskera, etxekua. Ikastolan eta ibili ta beti etxian euskeraz.

**Ta ezta beldurrik izan euskeraz eitteko?**
Hemen ez, hemen ez, horrenbeste…eskolan pixkat bai, kastigua ematen ziun.

# ANDONI Arregi Oiarzabal, MARIA ANTONIA Burgaña Martija eta JOSE ANGEL Kerejeta Urresti[800]



**ANDONI:** Getariar haur errefuxiatua. Bere aita Eusko Gudarostearekin gerran egoteagatik, bere ama, Josefa Oiarzabal Agirre, bera eta bere arreba Isabel Egurbide, 1937ko otsailaren 13an, udaletxe frankistak Getariatik espultsatu zituen.

**JOSE ANGEL:** 1935eko uztailaren 6an getariar haur errefuxiatua. Bere ama, Hipolita Urresti Andonegi Getariatik, berriki indarrez boterea hartu zuten faxistek 1937ko otsailaren 13an bota zutenean, harekin eta haren anaia Bautistarekin batera kanporatua.

**MARIA ANTONIA:** Bere aita Juan Burgaña Etxebarria, Izquierda Republicana-koa izaki, gerran Euskadiko Gudontzidiarekin borrokatu zuen.

***"Ez… amonak azken urtiak oso gaizki pasa zuen. Trauma haundiyakin gelditu zan. Da geo ibiltzen tzan nerbixotatikan ta beti zekan bere gerra hori ta etzuan nahi izaten ta… esaten zuan gu… gaizki pasa zituan urtiak ere bai".***

**ANDONI:** Etorri zianien bialdu ta jun ginen Gernika.

**Zuei ere bai autobusean eraman zizueten?**
Ni horrekin enaiz gogoratzen. Ni dakit ba… ama alarguna zan ta beste arreba zan beste aittena ta ni nitzan bestia, hoixe, jun ginan hiru bat hortik. Gu sartu ziuben hantxe Gernikan, hango refugixotan eztakit nola izan tzan. Eta aita zeon berriz, Gernikan bertan huan frentian. Zan bere aita bere ilobakin, Albertokin frentea.

**Itzuli zinetenean nola aurkitu zenuten etxea?**
Pues nada. Hustuta.

**Gero zuen familia markatuta?**
Bai, nazionalisten gauza horrekin eta guztiarekin bai. Len hamen eon tzian falangistak eta falangista (…).

**AB:** Haben amonak esaten tzun azkenengo urteetan, esaten tzun harek bea Frantzira juntzinian oso tratu ona izan zuela. Eta janak eta hori oso tratu ona izan zuela.

**Etxeren batean edo hartu zituzten?**
Hala eongo zian. Beak hango trato ikuspegi ona zekan. Baina etzait iruitzen, porque orduan todo era tabu e…

[800] Elkarrizketa jaso gisan transkribatu da. Liburua euskara batuan idatzi denez, bertako euskalkiaren nolakotasunak mantentzeko egin da honako aukera.

# ISABEL Egurbide Oiarzabal[801]



Getariar haur errefuxiatua. Bere aitaordea Eusko Gudarostearekin gerran egoteagatik, bere ama, Josefa Oiarzabal Agirre, bera eta bere anaia Andoni Arregi, 1937ko otsailaren 13an, udaletxe frankistak Getariatik espultsatu zituen.

***"(…) eztet nahi izaten galdeturikan nei gauze hoixekin e… porque efektua iten dit oaiñ e".***

**Eta ikusi zenitun zuk abioi guzti hoiek pasatzen?**
Sartu iten giñen zea batian, entradan batian eo… tunel batian egon tziñeten? Bai, sartu iten giñan.

**Bitartean hegazkiñek pasatzen Gernikara? Eta entzuten zenituzten bonbak nola erortzen zien?**
Hombre… nola ez ba! Han bonbardeaketa haundixa ein tzuen e… nola ez ba! Entzun… nahi baiño gehio entzun giñun!.

**Batzuk esaten didate orruak eta guzti entzuten zituztela… eta ez direla inoiz e ahazten garraxi eta soinu horretaz…**
Bai, pasaidun parajin tzianen baiña, gure zeatik juten giñan, orduan… zea zeben etxiak eoteko, plaka batzuek eo beheian zian eta hara jute giñan. Han eote giñan, gertatzen tzanian hori.

**Ez zen festa bat bizi izan zenutena…**
Recuerdo txarrakin jun giñen geo etxea.

**Orduan zuen ama Gernikan zegonen, lortu zun komentu batera sartzea?**
Bai, konbento batea. Eta haiek zian, Gernikako zea zan orduan, azoka, eta… gaixki pasa giñun. Ta geo ama ta re falta ni, ta… Oso gaixki ordia e! Oso gaixki!

**Gainera Frantzian joan zi ñetenean jende gehiagorekin jun tziñeten ez?**
Bai, bai.

**Eta hor hondartza batzutan egon ziñeten bizitzen, hondartzetan, mendian, etxe batzutan?**
Gu zea batian jun giñen enbarkazixo batian.

**Han nun eon ziñazten bizitzen?**
Behintzat planta baja bat zan, eta barrura sartuta leko gehixeo zeon ta, ta geo oso nerbiosa etorri nitzen ni re e…

**Eta hor janaria, jende gehiagorekin… lasaiago bizi zineten agian, ez?**
Bai, baiña zaila da zeao bizitzia e… hori zaila da! Gu gure zeatikan jun da, dana diferente zeon han!

**Orduan Frantziko egun haietaz gogoratzen zea ordun eo?**
Frantziko goguan, eman giñutzen txalet batian, handixa zan eta gu jun giñan kuadrillan ba danak hara.

[801] Elkarrizketa jaso gisan transkribatu da. Liburua euskara batuan idatzi denez, bertako euskalkiaren nolakotasunak mantentzeko egin da honako aukera.

**Eta gizonak?**
Gizonak eztakit nun ibiliko zian.

**Gerran ez? edo gartzelan…**
Gerran bai, gerran. Zergatikan han Gernikan tzeden planta batzuek beheian eta han zeak eon tzian, gudariak.

**Bertan Eusko Gudarostea zeon, ezta?**
Bai.

**Ikusi zenitun? Gudariak ikusi zenitun?**
Bai.

**Eta zer ziren? Gazte asko zegon hor?**
Bai, bazeon gaztia.

**Ilea moztu jendiai ta…**
Bai, bai emakumiak… Rosario Txikixa ta… motz-motz einda han jun tzan hura… burue jaitsi gabe e, etxea moztu zienian.

**Kaletik gaiñea eon behar zuten pasioan, ezta? Ilea moztuta eta pasioan izaten zituzten, plazatik…**
Hura pasioan eztakit ibili zan baiña bere illia moztu ta zea, tente-tente jun tzan.

# JUAN Eizagirre Ulazia[802]



***"Da zergatik eta garaiak beak esaten du, bazien hor ihesi harea eman zituenian da tirua eman, ikusi zuenian gauza onik etzala ihesi hasitakok e bazian ta aldamenian artua, hazitako artua da arto tartea ihesi, baiño illargixekin ikusi nun barrena zeuen ta tire ta hildekuak e bazan".***

**Zure izena? Juan Eizagirre Ulazia ez?**
Bai.

**Ta zure gurasoak nola deitzen zien?**
Francisco Eizagirre Ezenarro aita, ama Maria Ulazia Unanue.

**Eta Getariarrak?**
Bai getariarrak zian.

**Baina gerraren ondoren egon tziren atxiloketak eta?**
Hemen e… gerra ondorenian, karabineruak hor zitxaben baiña republikanuak izan behar tzian hoiek. Eta nola republikanuak zian harrapatu zitunak kartzelan sartu xixkiaen haiek, karabineruak denbora askuan eon hituan kartzelan e… eta zea berriz, Joxe Luis Fizuen aita ta, karabinerua huan hura re eta ez harrapatzeatik Santio mendiko atzea jun, ta baiña gosetu, erten in bihar. Ta a dentro hura re. Haie danak republikanuak zien ta denbora askuan eon tzien zean, kartzelan. Ta geo ustet hasi ziela handik urtieta paga kobratzen e bai, baiña lehenbiziko urtietan ez e, haiek etzien pagaik.

**Teodoran gizona zan hori, nola zun izena?**
Jakin bai baiña enauk akordatzen.

**Afusilamentuak eta horrelakoak ikusi al tzenuten?**
Afusilamenduak? Kanposatuko gorabeherak eta… bai esangoizut. Nik esan dizut, zazpi urte treinta y sieten gorabeheran eta, baiño figuratzen dana da Orixoko Mitxelena bakarrik, horri Gregorio zitxon enterradore Zubizarreta, Tomas huan anaixa ta geo Joxe Mari re ezautu nian nik gazteua ta firmatu zun Gregorio Zubizarreta horrek nola enterratu zun Mitxelena hori. Baiño hor barren gutxinez sei, bost eo sei bazien hor sartuak.

**Mitxelenarekin batera?**
Bai, Mitxelena sartu zuen bezela han, beste bost eo sei bazien han sartuak. Da zergatik eta garaiak beak esaten du, bazien hor ihesi harea eman zituenian da tirua eman, ikusi zuenian gauza onik etzala ihesi hasitakok e bazian ta aldamenian artua, hazitako artua da arto tartea ihesi, baiño illargixekin ikusi nun barrena zeuen ta tire ta hildekuak e bazan. Ta geo, berriz, hurrena, artuak eta jaso eta burue kendu artuei, ta metak ite zian artuen zortena bere hostro ta guzti ta gero ganauai txikituta eo bestela eo emateko.

[802] Elkarrizketa jaso gisan transkribatu da. Liburua euskara batuan idatzi denez, bertako euskalkiaren nolakotasunak mantentzeko egin da honako aukera.

Ta horren garaian e izaten du garai berdiña etziela hoiek zeatikan ni ikusita nao, odol putzuak eote zian kanposantoko atian aurrian. Balak e bai eta han eote zian. Ta geo gertatu zan gurdixan kurpilekin lurra zapaldu eta lurra ebaki eiten du kurpil hoiek istuak nola zian ebakitzen zien ta kanala bezela iten zien. Eta hoietako kanaletan, gabaz hil kristauak, eta geo arto zorten hoiekin tapatu, geo hurrengo egunian enterradoriak enterratzeko, eta han eondakok e badia, hala eondakuak (ez dut ulertzen esaten duen hitza) eondakuak ere bazian. Horrek beak esaten du garai batian etziela, bat artue tente daola, bilduta baiño lehenotik, eta geo bestiak, artua bildu ta geo. Ta hor oktubrian da, otubre aurrenetikan aurrea enterratuta dauden hoiek, hoiek artua jaso ta geo hildakuak dia. Ta bestia da lehenaokua. Horrek bai esaten du bat baiño gehixo diela. Hor badia, bost eo sei barren. Baiño bat do figuratuta, bestiek o etzien firmatu eo… holako zerbait gertatu zitzekon.

**Bueno ba itzul gaitezen gerra ondoko Getaira. Nola gelditu zen? Zuek gosetea ta guzti ezagutu zenuten? Gerraren ondorioz errazionamendua…**

Bai, bai… ezautu, ogiya ze ogi izate huan, oaiñ integrala geiho paaute jaten deula ta Francok integrala eman tziula ogi integrala zala haure. Ta hure integrala, arratoiekin nahastekua huan hura arratoiekin nahastekua… ta lenteja re berdin… gerran sobrautekuak eo anpliatu zun, jarri razionamentue han da. Ta geo etxien e ezautu nun nik, guk oilluak genduzen, oillo mordoxka amak eukitze zun, ta artua itte giñun da garixa re bai ta errotak itxi, ta etzeon errota emateik oilluentzat ondo animalixentzat ondo etorri huan hura… (…) geu ogi razionamentokua jaten ibili giñan da errotak eta denak itxi, gauza hura zan generue euki itxian eta errotik ez! ta hori ze xistema? Hori re (…) beria saltzeatik. Habek hobio zekeabe ta saltzebabe neria gelditu eingoek eta itxi.

# BENITA Irigoien Burgaña, JOSE MARI Irigoien eta RUFINA Irigoien Burgaña[803]



Rufina Lazkano Basurto, emakume getariar eta errepublikazalearen eta, Juan Manuel Irigoien Egañaren ilobak. Benita eta Rufinaren aita Eusebiok, haren gurasoekin eta anai-arrebekin ihes egin behar izan zuen herritik tropa frankistak Zumaian sartzerako. Jose Mariren aita Juan Jose, Eusko Gudarostean gerran aritutakoa zen. Erbestetik Zumaiara itzultzean, errepresioa jasan behar izan zuten. Horregatik, handik Getariara bizitzera joan behar izan zuten.

### Rufina eta Benita:

Haiek itsasoz igesi zuela, Zumaitik zumaiarrak bialdu zituen baino leno, beak eun bat leno o, aitu zuenian ia frankistak zetoztela, (…) nola gure amonak esaten tzuan nola bea republicana ta zea, haiek, aurretikan, bialdu baiño lenuo beak igesi ta jun tzian Lekeitiora. (…) Aitona motor txikiakin arrantzan ta ibiltzen tzan eta motorra hartu ta jun tzian Lekeitiora. Eon tzien Lekeition bizitzen… zazpi-zortzi hillabete bai. Handikan jun tzian (gure aitak esaten tzun-Eusebio-) Bilbora. (…) Geo handikan ia, Santanderra o Laredoa o...

### Jose Mari:

**Elkarrizketatzailea: Juan Josek zemat urte zittun?**
Ba 17-18… nere aita zan zaharrena. Ta Zumaitik igesi ein tzuen ba horreatik, bea ta ibiltze zialako esaten (…) semia zea gerran, Republican alde ta (….) aitona geo bueltakuan etorri zanian, kartzelan. (…) Zumaira zea etortze zien, kargako barkuak eta, (…) hango barkutan nabegatzen, Gijonea, Santanderrea… ta harrapatu zittun gerrak, ba hor (Juan Jose aitari buruz Jose Mari semea).

### Rufina:

**Elkarrizketatzailea: amona?**
Republicana. Gu eskolan hamen “Cara al sol” ikasi, (…) etxea jun ta gu “Cara al sol” kantatzen, gure amonai emate zion astindua, *zeñek erakutsi dizu hori?* Eskolan. *A! Ba nik erakutsikoizuet, ‘Republicana soy y seré, y mi bandera defenderé’.*

### Benita, Jose Mari eta Rufina:

**Elkarrizketatzailea: gerra ostean, Getariatik Zumaiara joaten zien?**
Eiten zuen bueltatxo bat ta gehio ez, etzekaen (Zumaiako) rekuerdo ona…

[803] Elkarrizketa jaso gisan transkribatu da. Liburua euskara batuan idatzi denez, bertako euskalkiaren nolakotasunak mantentzeko egin da honako aukera.

# BAUTISTA Kerejeta Urresti eta GUADALUPE Arregi Berasaluze[804]



***"(…) gu hamendik Getaitik, Karranza jun ginun, bialdu, bialdu! Larrakok, Getaiko alkatiak izena zian. Ramon Manterola. Ta gero hara jun ginuan, Karranza ta geo hara eman ginuen basarri batea jun ginuan ta oso jende ona zala. Esnie ta jateko ta ematen ginuan".***

**Izena, bi abizenak?**
Nere izena Bautista, bueno naiz batian Juan Bautista, ta bestian Bautista ta. Abizenak, Kerejeta Urresti. Nerea, Guadalupe Arregi Berasaluze.

**Biok Getarian jaioak zarete? Ze urtetan?**
Bai bai Getarixan.

**Bautista:** Ni en el año treinta y cinco.

**Guadalupe:** Ni berroeta hiruan.

**Bautista:** Gerraostian, guk falangista emate genitun kaki ta galtzerdixak ta txapela gorrixa ta ju ginun anaia ta biyok, bestia Andoni re bai, kaiakue hura re bai, hura re bai ta bestia Joxe Luis Ituarte (…) hura re bai, ta gu jun giñun más contento que dios. Eliza jun giñun ta rara jun giñun, gaztiak eta geo gure aita horrek fuera etxetik e! Etxetik bialdu giñun gure aitak.

**Falangisten arropa non eman zizueten?**
Han beheian kofradixan ta eskola hua, ta erropak eta han jun giñun.

**Gosetea edo pasa zen zuen etxean?**
Bai pixkat pasatu nian, bai bai. Pasatu nun gosia. Orduan gaiña garai hartan lau ume… gu etorri giñan gerratik eta.

**Zuek etorri zinetenean ze urte zen 38a edo?**
Holakon bat. Gu etorri giñen eta gu jun giñun amona Agustina alta bahuan ba hara eta Raimundo re hara ta arreba berriz, Miren zeara amona Joxepanea ta histori hori de.

**Guadalupe:** Pixkat umiak partitu.

[804] Elkarrizketa jaso gisan transkribatu da. Liburua euskara batuan idatzi denez, bertako euskalkiaren nolakotasunak mantentzeko egin da honako aukera.

**Zuen gurasoak mantendu egin zuten etxea ala galdu egin zuten?**

**BAUTISTA:** Etzan guria etxia e, atzea etxe berta bai. Ta gure ama jute huan arrai saltzea ta oso goorra huan.

**Zuen etxean politikaz ta hitz eitten tzan? Bazenekiten zer tzan ikurrina?**

**GUADALUPE:** Gure amak bandera republikanoa.
**BAUTISTA:** Hauen ama republikanoa huan.

**A bai e zuen ama republikana zan?**

**GUADALUPE:** Ta gordeta zakan bandera.
**BAUTISTA:** Gure etxian beti bandera aberri egunian.

**Urte horietan diktaduran ospatu egiten zenuten aberri eguna?**

**BAUTISTA:** Bai, bai bai nik bai. Nik aberri eguna oso maitia e, orduan bildurra zeon bai.

# KONTXITA Oiarzabal Idiakez[805]



Getariar haur errefuxiatua. Bere ama “Remi” Idiakez Indo 1937ko otsailaren 13an udaletxe frankistak Getariatik espultsatzean, bera eta bere ahizpa Arantza amarekin batera erbestera joan ziren; Agurne ahizpa Getariako amonaren etxean geratu zen. Bien bitartean, haien aitak, Juan Bautista Oiarzabal Agirre mikelete azkoitiarrak, indar-errepublikarrekin tropa frankisten aurka jardun zuen. Familian euskal nazionalistak ziren.

**Ze urtetan jaio ziñan?**
Ni hogeita hamaikan. Agostuan 31n, asi es que 37yan xei urte ein nitun.

**Hemen jaio ziñen?**
Bai, Getaixan. Aita nuen mikeletia.

**Bere izen-abizenak?**
Juan Oiarzabal Agirre, azkoitiarra zan, Getaira destinatu zuen da, getariar batekin ezkondu zan.

**Eta nola deitzen zan Getariar hori?**
Pasa zitun, ikaragarrixak, gure amak.

**Zuen ama nola deitzen zen?**
Remi Idiakez Indo. Orduan oso ondo bizi zian, mariñel bizitza eiñez baiño hoixe, ondo… behen eguneroko zea, gure aitekin oso maiteminduta. Baiña gure aita junt zan, ta gero guri eaman tziuben. Ni jun nitzan ni za(ha)rrena, Kontxita, eta Arantxi hiruarrena bularra ematen ta Agurne pixkat delikada zan ta amonakin laga zuen hemen.

Normandian eon giñan txalet batian, gu amen da hiru ahizpa been seme-alabakin, beste oaiñ esan dizueten Ixabel horren lehengusua Oiarzabal aldetikan, eta horren ama, ta zuen bestia Andoni besokua, Arantxa bezela, besokua, bularra ematen. Danak bularra ematen ai zian! Han oso ondo eon giñan ta eman tziuen etxe bat, Normandian eztakit ze herrita e…

(…) ta geo Ixabel hori Foruan eon tzan lehengusu hori eta ni juten giñan lecheri batea, han ezautu gendun aurrena yogurra.

**A ordura arte ez…**
ez… hamen yogurra noiz etorri da! Oin dela zemat urte! E yogurra noiz etorri da? Yogurra, gazta pilla bat, esnia… ta etzigun kobratzen ez… eztakit bazakilako gu biyok jute giñan, ikusten tzun aspektua… zean da etziun kobratzen. Frantsesez hasi giñen hitz eiten baiño!

805 Elkarrizketa jaso gisan transkribatu da. Liburua euskara batuan idatzi denez, bertako euskalkiaren nolakotasunak mantentzeko egin da honako aukera.

# EUSEBIO Urresti Garmendia[806]



***"(...) deialdian, martxa Santoña ta gero atzea Bilbora etorri ta hartu barkua eta Baiona. Baiño ibili omen dek minakin eta ibili emen dek hola (lepoan zeinua eginez, justu-justu ibili zelakoa)".***

**Zure izena ta abizenak?**
Eusebio Urresti Garmendia Andonegi Lazkano.

**Fetxa de nacimiento? Noiz jaio hitzan?**
Ekainen 7yan 1946an, orain 71 ein bihar.

**Nungua zea?**
Hamengua beti, Getaiyakua, bai beti.

**Zure aiten izena?**
Aita hil zala 25 urte. Jose Urresti Andonegi.

**Eta amana?**
Agustina Garmendia Lazkano. Eztet ondo aitzen da... ama jaiua 1921ean jaioa eta nere aita 1915ean, orain bizi bazan 102.

**Eta aitak lana?**
Esto, lehenengo itsasuan ibili zan, bere atten barkuan ta geo motor txikiyan kuñauakin Gustavokin? Ta geo jun tzan lehorrean Etxebarria.

**Eta ama?**
Beti arrandeyan. Bai baiña hasieran ibili zian gaztetan 20 urtekin ta 16 urtekin Orlando fabrikan lanian.

**Eta leno hasi zea ba kontatzen aita gerran, non eondu zan?**
Gure aita ibili zan Bilbo aldin ta Miranda de Ebron bai. Bilbaotikan Baiona artian barkuan ibili zala.

**Etxian gurasuak gerra kontuak eta kontatu dittuzte? Etzuten beldurrikan etxian?**
Kontatu bai, etzuen dana esango, baiña bere burua jartzekena gogua, hori bai. Oain beste historiya eztakit.

**Zuk galdetzen zenion?**
Nik amai ta bai. Aitak ez, ama. Aita zeoze esan ta hamen (lepoa eskuarekin hartuz).

[806] Elkarrizketa jaso gisan transkribatu da. Liburua euskara batuan idatzi denez, bertako euskalkiaren nolakotasunak mantentzeko egin da honako aukera.

# ANITA Uzin Albizu[807]



**"Ama, nora goaz?" dokumentaletik ateratako argazkia.** (Baleuko).

Getariar haur errefuxiatua. Gerra hasi berritan, 11 urte bete zituen. 1937ko otsailaren 13an, bere ama Severiana Albizu Aginagalde udaletxe-frankistak Getariatik espultsatu zuen eta, bere anai-arreba Salvador, Florencio, Mari Cruz, Simon eta Florenciorekin (Prudencio) batera, erbestera alde egin behar izan zuen. Haren aita Jose Domingo Uzin Alkorta (EAJ/PNV) Eusko Gudontzidiarekin borrokan zebilen, hori izan zen bere ama Getariatik espultsatzeko frankisten arrazoia.

***"Gernikan e eon ginan. (…) Gernika jo zuenin ama han zan. Ama han nuan. Gu ez, ni beste senidikin aparte ginen, ama zan han. Ta ama geatu zan, zea geatu zan osoikan dana puskatuta. Hori badakit, hortikan aurrea… ni beste bostekin, bost senidikin beti gu hantxe, nere anparuan hantxe. Ahal nuan mouan bizi. Nahi kenun bezela ez, ahal genun mouan bizi. Altzan mouan".***

**Eta ondo komentuan?**
Han bizi ginan ta…aeroplanuk etortze zinin ihes ein ahal genun tokira ta…hurrungo etorri berriz ta. Bizi ginen bitartian … (eskuak altxatuz). Bizi nola ezikan bizi gea ta, ditxa nik esaten det etortzia. Jun da bezela etortzia bizikan. Ditxa hori do…ama bostekin jun ta bostekin etorri. Ez aittatu gehixo nei…nehikua ein deu ta...

**Eta geo ama, zuekin elkartu zan?**
Ama geo bai.

**Eta ze esan tzizuen?**
Kontentu danokin da, kontentu. (…) Badakit Mundakatikan baporiak zaudela Frantzia juteko ta erten tzuen biek. Gu geatu ginan hurrengo eunekon, eztakit zemagarrengon… gu baino lehenagotikan erten tzeben bixak bota ein tzituen eta gure baporia hara (Frantziara) emango ziun.

**Eta Frantzitikan?**
Katalunia.

**Eta ze goatze zea Kataluniaz?**
Ama zea ibiltze zan, basarriko lanak iten. Ta ni beste senidikin zaukena jan ta zauken mouan bizi.

**Eta aita?**
Por ahi, aita Frantzian zan da aita ez genun ikusi gu itxea etorri arte.

**Aita etxian tzeon etorri zinatenian?**
Bai, aita itxian tzeon. Aita ordurako etxia etorri zan.

**Eta etorri zinatenian aita ikusteko?**
Aita etxian ikusi gendun da kontentu. Aita itxasoa ta ama fabrika lanea ta ni berriz, hantxe...

807 Elkarrizketa jaso gisan transkribatu da. Liburua euskara batuan idatzi denez, bertako euskalkiaren nolakotasunak mantentzeko egin da honako aukera.

# 6.

# MEMORIAREN AURPEGIAK



# Aurkibide orokorra

**MEMORIAREN AURPEGIAK** ........ 159

**A (1-124)** ........ 162
**B (125-149)** ........ 179
**C (150-162)** ........ 183
**D (163-170)** ........ 185
**E (171-225)** ........ 186
**F (226-228)** ........ 194
**G (229-251)** ........ 194
**H (252)** ........ 198
**I (253-349)** ........ 198
**J (350-354)** ........ 212
**K (355-365)** ........ 213
**L (366-416)** ........ 215
**M (417-450)** ........ 224
**N (451-452)** ........ 228
**O (453-494)** ........ 228
**P (495-499)** ........ 235
**Q (500)** ........ 235
**R (501-503)** ........ 235
**S (504-529)** ........ 236
**T (530-531)** ........ 240
**U (532-580)** ........ 240
**V (581-583)** ........ 247
**Z (584-601)** ........ 248

# A

## 1. ADRIAN NAJERA, ALBERTO

Jaiotzez donostiarra, baina diktaduran zehar Getarian bizi zen. 1940ko azaroaren 22an, kartzelan aurkitzen zen, zehaztu ezin izan dugun arrazoiengatik. Gerraren eraginez, Azpeitiako Barrutiko Presondegian preso politikoa izan zen. Azaroaren 23an aske uzteko eskaera egin zuen epaileak[808].

## 2. AGINAGA OTEGI, BAUTISTA

"1903an jaioa,Tolaretxen bizi zen, EAJ-ko Euzko Gaztedikoa zen. Bere aita Karlos Aginaga hil eta faxistek segituan preso hartu zuten. Getariako Meagan fusilatu zuten beste gizon batekin batera, 1936ko urriaren 10ean. Hantxe bertan lurperatu zituzten. Hilko zutela jakitean, apaiza eskatu zuen. Bera azken enkargua, aitaren hiletak ordaintzeko eskaera izan zen. Faxistek patrikan zeramatzan 600 pezetak kendu zizkioten"[809].

## 3. AGIRIANO ARANZABAL, PEDRO

Jaiotzez Aramaiokoa, baina gerra hastean Getarian bizi zen. Mikeleteen kaboa izan zen. Tropa frankistek atxilotu eta 1937ko ekainaren 30erako Arriaga Antzokian ezarritako behin-behineko kartzelan atxilotuta egon zen. Atxilotzean, 53 urte zituen. Gerra hasterako, Getariako postuko komandante izaten 9 urte zeramatzan eta mikelete gisan 27 urte. Getariatik, Saturrarandik pasatuz, Bilbora lekualdatu zuten eta bertan ordenaren zainketa-lanak burutu zituen "(…) en donde prestó servicios de mantener el Orden, en el edificio instituto destinado a transporte, así como también, en el Ministerio llamado de Agricultura, como Ordenanza"[810]. Gerra-Kontseilua egitean, Nikasio Larrea Epela Getariako parrokoa nazionalista izanda Donibane Lohizunera alde egin zuela deklaratu zuen eta Antonio Alegria Lasa arrain gatzatuen fabriketan negoziatzaile gisan ibiltzeagatik, Genoan egongo zela adierazi zuen, hango merkatariekin kontaktua baitzuen. Balbino Zurutuzak, ofiziala izaki, milizien instruktore gisan jardun zuela adierazi zuen. Juan Auzmendik Euskal Milizien kapitain egin zuela ere deklaratu zuen. Eskuin ideologikoa eta familia kristaukoa zela deklaratu zuen. Gerra-Kontseilua egin eta aske utzi zuten, inongo kargurik gabe. Gipuzkoako Foru Aldundiak, Pedro Agiriano Aranzabal, 1936ko azaroaren 26an bere postutik kaleratu egin zuen. 1937ko abuztuaren 25eko dekretuaz, agintari-frankistek mikeleteak desegin zituzten.

## 4. AGIRRE GALLASTEGI, PEDRO JULIAN

1914an Elgoibarren jaio zen. Zumaian bizi zelarik, frankisten aurkakoa izaki, 1936ko urriaren 1ean frankistek preso hartu zuten eta Meagan fusilatu egin zuten. Fusilatu zutenean, 24 urte besterik ez zituen[811].

## 5. AGOTE BASURTO, EDUVIGIS

Erregimen frankistaren aurkakoa izateagatik, besteak beste, Getarian zituen ondasunak ere konfiskatu egin zizkioten[812].

## 6. AGOTE KAMIO, DONATA

Emakume getariarra, Guadalupe Manterolaren ama. Haren alaba, Guadalupe Manterola Agote, alabetako batekin (Miren) eta bestea (Edurne) Donataren etxean utzita, 1937ko otsailaren 13an Zumaiako udaletxe-frankistak botatako emakumeetako bat izan zen.Bere alabaren senarra, Euskadiko Gudontzidiko Jose Agustin Egaña Egaña Bou Arabako gudari zumaiarra zen. Hori kontutan hartuta bidali zuten Guadalupe Manterola Agote Zumaiatik. Donata Agote Kamiok, Beatriz Alberdi Lazkano eta haren amaginarreba, Joaquina Correa Beitiarekin, Getariako udaletxe frankistari, beren alabak ekartzeko baimena emateko eskaera erregutu zioten 1937ko uztailaren 5ean. Haien erantzuna, Getariara itzul zitezkeela izan zen. Itzultzean, Getarian bizitzen jarri zen. Alabaz gainera, bere seme Enrike Manterola Agote Euskadiko Gudontzidian borrokan zegoen bitartean, Juan Mari semeak erreketeen itsas-armadan jardun zuen. Haren senarra, Manuel Aniceto Manterola gaixo kronikoa izaki, ospitalean aurkitzen zen. Diktadura frankistan zehar errepresioa jasan behar izan zuten[813].

---

[808] AHPG-GPAH GEZ, 2832/7.

[809] TELLABIDE AZKOLAIN, J., op.cit., 303.or. / ARRIETA ELIZALDE, IDOIA / GURRUTXAGA URANGA, AMAGOIA, op.cit., 29.or.

[810] Ipar-Mendebaldeko Eskualde Militarreko Tarteko Artxiboa, Ferrol, 160/37.

[811] SANZ GOIKOETXEA, E., op.cit., 9.or. / IRIGORAS, A. 2017. *Kaleko zegamarrak Herri zapalkuntzaren lekuko batzuk (II). Indarkeria politikoaren eragina zegamarrongan 1936-2016.*

[812] Getariako Udal-Agiritegia (GUA) / Aranzadi Zientzia Elkarteko Datu-Basea (AZEDB).

[813] GUA.

## 7. AIZPURU, JOSE

Getariar hau, gerra hastean, Getariako Defentsa Komiteko partaide izan zen. Gerra amaitzean, Soraluzen bizi zen[814].

## 8. AIZPURUA, MIGUEL

Getariar txikienak, agintari frankistek beren botereaz baliatuz, balio militarretan hezi zituzten. Horregatik, Miguel Aizpurua, Getariako Pelayo -en[815] zerrendan ageri da[816].

## 9. AIZPURU AIZPURU, JOSE DOMINGO

1914ko urtarrilaren 14an jaiotako getariarra. Gerran mutilatua. Gerran zehar tropa frankisten alde borrokatzeagatik, gerrako mutilatuen ordezkaritzak, udaletxe-frankistari, mutilatuari egunero 3 pezeta ordaindu beharko zizkiola agindu zion. Bigarren Errepublikaren alde borrokatutako soldadu mutilatuei ez zitzaien halako ordaintzarik egin[817].

## 10. AIZPURU AZKUE, (JOSE) AGUSTIN

1917ko otsailaren 5ean jaiotako mekaniko getariarra. JSU[818] eta UGT-ra afiliatuta, gerra hastean, ejertzito errepublikarrarekin borrokatu zuen. Ikertu ahal izan dugunez, hegazkinlari hartu zuten. Oviedon ageri zaigu haren azken arrastoa, zehazki Trecha-n. 1937ko abenduaren 20tik 1939ko uztailera bitartean, Gijoneko "Parques y talleres de Automovilismo" delakoan lan egin zuen. 1940ko otsailaren 26an soldaduskarako deitu zuten.Miranda de Ebro-ko kontzentrazio-esparruan sartu zuten. 1941eko irailaren 4an, Lesakako 14 zenbakidun Soldadu Diziplinatzaileen Batailoian gatibu-lanak egin behar izan zituen. 1942ko martxoaren 11n bere erresidentzia Zumaian ezarri zuen. 1957ko ekainaren 26an *Tribunal especial para la represión de la masonería y el comunismo* deiturikoak epaitu egin zuen. 1958ko otsailaren 14an *behin-behinean artxibatu* zioten kasua. Gerraren eraginez, preso politikoa izan zen[819].

## 11. AIZPURUA ISASTI, BONIFACIO

Getariar marinela. Gerra ostean, F.E.T. eta J.O.N.S.-ekoa izaki, kartzeletan zeuden errepublikarren aldeko zenbait abal sinatu zituen[820].

## 12. AIZPURUA LARRAÑAGA, FACUNDO

1906ko abuztuaren 1ean jaiotako getariarra. Gerra hastean, ez zen tropetara inkorporatu, Frantzian zegoen[821].

## 13. AIZPURU LAZKANO, AGUSTIN

1905[822] maiatzaren 7an jaiotako gudari getariarra (EAJ/PNV). Lanbidez harakina. Gerra hastean sortutako Getariako Defentsa Komiteko laguntzailea izan zen. Eusko Gudarostearekin borrokatzeagatik, frankistek etsaitzat hartuta, 1937ko otsailaren 13an, bere emaztea, Justina Sustaeta Azkarraga Getariako udaletxe-frankistak espultsatu egin zuten. Hark, bere alaba Benite Aizpuru Sustaeta besoetan hartu eta Ibon bere semea, gaixotuta, familiakoekin Getarian utziz alde egin behar izan zuen.

Bitartean, Agustin Aizpuru Lazkanok, Eusko Gudarostearekin, "Alkartzeak" Transmisioen Batailoian borrokatu zuen. Frankistek, 1937ko ekainaren 19an Bilbo beraiek menpean hartu zuten egun berdinean atxilotu zuten. Handik, San Pedro de Cardeña-ko (Burgos) kontzentrazio-eremura eraman eta 1937ko irailaren 10ean, 11 zenbakidun Langile Batailoian gatibu-lanetan hasi zen. 1938ko apirilaren 6an, Aranda de Duero-ko (Burgos) kontzentrazio-eremura lekualdatu zuten. Handik, Iruñeako zitadelan ezarritako kontzentrazio-eremura eraman zuten. Iruñeako presoen klasifikaziorako komisioak klasifikatu eta 1938ko apirilaren 28an, 110 zenbakidun lehenengo konpainiako Langile Batailoian klasifikatu zuten. Lleidan langile batailoietan jardun behar izan zuen. "Matxinadari laguntzea"-gatik kondenatu zuten beste zenbait preso politiko errepublikarren antzera. Gerraren eraginez, preso politikoa izan zen[823].

## 14. AIZPURU LAZKANO, JOSE

1913ko martxoaren 24an jaiotako jornalari eta gudari getariarra. Gerra hastean, Getariako Defentsa Komiteko kide izan zen. Eusko Gudarostean borrokatu zuen eta gerran zehar, frankisten ejertzitoak atxilotu eta bere tropetan borrokatu behar izan zuen. Gerraren eraginez, preso politikoa izan zen[824].

---

814 GUA.

815 Tradizionalistek haurrak Comunión Tradicionalista-ko oinarri politiko-sozialen arabera hezteko sortutako asoziazioa.

816 GUA 93-01.

817 GUA.

818 Juventudes Socialistas Unificadas.

819 GUA / AGMG: Guadalajarako Agiritegi Militar Nagusia, Guadalajara kaxa: 468. Esp.:11228. / CDMH: DNSD-SECRETARIA,FICHERO,1,A0024323; TERMC,FICHERO,75,2500205; TERMC,FICHERO,70,2300557.

820 GUA.

821 GUA.

822 Baliteke 1906an jaiotakoa izatea.

823 GUA / AZEDB / AGMG: kaxa: 468. Esp.: 11221. / CDMH: DNSD-SECRETARIA,FICHERO,1,A0024163.

824 GUA / AZEDB / CDMH: DNSD-SECRETARIA,FICHERO,1,A0024164.

## 15. AIZPURU SUSTAETA, BENITE

Getariar haur errefuxiatua. Bere ama Justina Sustaeta Azkarraga 1937ko otsailaren 13an Getariatik agintea hartu berri zuten faxistek kaleratu zutenean, hau ere, bere besoetan joandakoa. Bere anaia txikiena, gaixorik izaki, Ibon Aizpuru Sustaeta, Getarian geratutako familiarrekin geratu zen. Ama eta Benite txikiak bitartean, Bilborako erbesterako bidea hartu zuten. Beniteren aita, Agustin Aizpuru Lazkano Eusko Gudarostearekin estatu kolpea eman zuten faxisten aurka gerran zebilen. Diktaduran zehar errepresioa jasan zuen.

## 16. AIZPURU SUSTAETA, IBON

Bere ama Justina Sustaeta eta harekin batera, Benite arreba 1937ko otsailaren 13an agintea indarrez berriki hartutako faxistek kanporatu zituztenean, Getarian geratu beharra izan zuen, gaixorik baitzen. Getarian geratutako familiarren babesean pasa behar izan zituen, haren ama eta arreba erbestean sufrikarioz zebiltzan bitartean. Haren aita ere, Agustin Aizpuru Lazkano Eusko Gudarostearekin estatu kolpea eman zuten faxisten aurka gerran zebilen. Diktaduran zehar errepresioa jasan zuen.

## 17. AIZPURU ZUBIZARRETA, CIRIACO

1919ko urriaren 25ean jaiotako gudari getariarra. Gerra hastean, ELA/STV-ra afiliatuta, ardura politikoz, besteak beste, Rusia batailoian borrokatu zuen[825].

## 18. AIZPURU ZUBIZARRETA, JOSE ANTONIO

1913ko uztailaren 15ean jaiotako gudari getariarra. Gerra hastean, Eusko Gudarostearen Saseta Batailoiarekin borrokatu zuen. Frankistek atxilotu eta Donostiako Langile Batailoi Diziplinarioen subispekzioko tenienteak Logroño-ko presoen klasifikaziorako komisioak klasifikatu zuela adierazi arren, azken hauek, hari buruzko aktarik ez zela aurkitzen berretsi zuten 1941eko abenduaren 10ean.Langile Batailoietan gatibu-lanak egitera kondenatu zuten. Gerraren eraginez, preso politikoa izan zen[826].

## 19. AIZPURU ZUBIZARRETA, JOAKIN

1915eko abuztuaren 14an jaiotako getariarra. 1936ko otsailerako herritik alde eginda zegoen eta iheslari gisa dekretatu zuten[827].

## 20. AIZPURU ZUBIZARRETA, MARCELINO

Gerran zehar, Eusko Gudarosteko Gogorki Batailoian borrokatu zuen[828].

## 21. ALBERDI AIZPURUA, SEBASTIAN

1917ko otsailaren 15ean jaiotako gudari getariarra. Gerra hastean, Eusko Gudarosteko Aralar Batailoian borrokan jardun zuen[829].

## 22. ALBERDI ARANBURU, ANBROSIO

1916ko otsailaren 8an jaiotako getariarra. 1937ko kintetan, gerrara joateko deia egin zioten[830].

## 23. ALBERDI ARANBURU, ANTONIA

Emakume errefuxiatua. Gerraren eraginez, tropa frankistetatik ihesi, bere ahizpa Manuelarekin batera, Montpellierren (Frantzia) errefuxiatu ziren.

## 24. ALBERDI ARANBURU, MANUELA

Emakume errefuxiatua. Gerraren eraginez, tropa frankistetatik ihesi, bere ahizpa Antoniarekin batera, Montpellierren (Frantzia) errefuxiatu ziren.

## 25. ALBERDI IBARBIA, EULOGIO

1940ko uztailaren 26an, armadako marinel boluntario zerrendatu zen[831].

---

[825] GUA / AZEDB / CDMH: DNSD-SECRETARIA,FICHERO,1,A0024184.
[826] GUA / AZEDB / AGMG: kaxa: 468. Esp.:11225.
[827] GUA.
[828] AZEDB.
[829] GUA / AZEDB.
[830] GUA.
[831] GUA.

## 26. ALBERDI LAZKANO, BEATRIZ

Emakume getariarra, Anita Mendizabalen amaordea. Anita Mendizabal Galdos, bere alaba Ione amona Beatriz Alberdiren etxean utzita, 1937ko otsailaren 13an Getariako udaletxe-frankistak bota ostean, Bilbora alde egin behar izan zuen emakumeetako bat izan zen. Anita Mendizabalen senarra, Euskadiko Gudontzidiko Pedro Lete Correa (EAJ/PNV) gudari getariarra zen. Bere senarraren ardura politikoa kontutan hartuta, Anita Mendizabal Galdos Getariatik bidali zuten. Beatriz Alberdik, Donata Agote Kamio (Guadalupe Manterolaren amarekin) eta bere amaginarreba, Joaquina Correa Beitiarekin, Getariako udaletxe frankistari, beren alabak ekartzeko baimena emateko eskaera erregutu zioten 1937ko uztailaren 5ean. Haien erantzuna, Getariara itzul zitezkeela izan zen. Itzultzean, Getarian bizitzen jarri zen. Diktadura frankistan zehar errepresioa jasan behar izan zuten[832].

## 27. ALBERDI LAZKANO, EUTIMIO

42 urteko tren-gidari getariarra. 1931ko apirilaren 14ko udal-hauteskundeetara aurkeztu zen eta 136 botorekin, ez zuen aukeratua izatea lortu. Luisa Agoterekin ezkonduta zegoen eta 2 seme-alaba zituen gerra ostean. 1941eko ekainaren 14an, Getarian atxilotu eta Ondarretan kartzelaratu zuten. Uztailaren 15ean behin-behineko askatasuna lortu zuen. Gerraren eraginez, preso politikoa izan zen[833].

## 28. ALBERDI SILVETI, EUTIMIO

1919ko otsailaren 15ean jaiotako getariarra. 1937ko urriaren 28tik aurrera, marina frankistan boluntario jardun zuen. 1939ko azaroaren 1ean, 20 urte zituela, Getariara itzuli zen[834].

## 29. ALBIZU AGINAGALDE, SEVERIANA

Emakume errefuxiatua, jaiotzez itziartarra. 1937ko otsailaren 13an, udaletxe-frankistak, bere bost seme-alabekin Salvador, Anita, Simon, Maria Cruz eta Florencio (Prudencio) Uzin Albizurekin batera, Getariatik espultsatu zuten. Hain zuzen, bere senarra Jose Domingo Uzin Alkorta (EAJ/PNV) Euskadiko Gudontzidiarekin kolpistek hasitako gerran Bigarren Errepublikako gobernua defendatzeko borrokatzen baitzebilen. Lehenik Lekeitio aldera egin zuten. 1937ko apirilaren 26an, Gernikako herria suz bete zuen Condor Legioaren bonbardaketaren lekuko izan ziren. Severiana Albizu, azokara joana zen eta haren seme-alabak komentuan sartuta, bonbardaketako uneak beldurrez pasa zituzten, ama itzuliko ote zen jakin gabe. Handik Bilbora egin zuten, gero Frantziara eta azkenik, Kataluniara.Frankistek, emakumea, gizonezkoaren objektu gisan erreparatzen zuten eta ez subjektu politiko aske gisan[835].

## 30. ALBIZU INDO, MELTXOR

Jaiotzez getariarra baina gerra hastean Mundakan bizi zen; lanbidez, marinela zen. EAJ/PNV-ra afiliatuta zegoen eta ardura politikoz, Euskadiko Gudontzidiko Itsas Boluntarioen zerrendan izena eman zuen. Horren eraginez, 1936ko abenduaren 10ean Bou Nabarrako gudari izendatu zuten, artilleriako postuan. Euskadiko Gudontzidiko gainontzeko bou armatuen gisan, Bou Nabarrarekin, indar-errepublikarrei hornigaiak, armak… ekartzen zizkieten merkantzia-ontzien zainketa-lanetan parte hartu zuen. Egiteko horietako batean, hain zuzen, 1937ko martxoaren 4-5ean, Baionatik Bilbora zetorren Galdames merkantzia-ontzia babesteko Bou Gipuzkoa, Bizkaia eta Donostiarekin sortutako konboiarekin bat eginik zetorrela, beren ontzia, Bou Nabarra, Canarias gurutzaontzi frankistak eraso zuen. Matxitxako lurmuturreko bataila hartan, Meltxor Albizu Indo gudari getariarra Canarias gurutzaontzi frankistako kanoikadak hil zuten. Une hartan, 28 urte zituen eta ezkongabea zen[836].

## 31. ALEGRIA IJUARRA, MIGUEL

Francisca Lasa Zumetaren senarra. Gerra hastean, bere semeak, Eusko Gudarostean jardun bazuten ere, senar-emazteak ez ziren politikaz arduratu. Getariako kontserbera baten jabe zen[837].

## 32. ALEGRIA LASA, ANTONIO

1931ko apirilaren 12ko udal-hauteskundeetan 185 boto lortuz, Bigarren Errepublikako Getariako lehen alkate (EAJ/PNV) izendatu zuten. Euskal Estatutuaren aldeko hautua eginik, 1934ko Ardoaren Gerran, Gipuzkoako Gobernadore Zibilaren aginduz bere postutik kargugabetu zuten. Behin, 1936ko otsaileko hauteskundeak Fronte Popularrak irabazita, amnistiatu eta alkate postuan jarraitu zuen. Getariako Bigarren Errepublikako azken alkatea izan zen. Gerra hastean, Getariako Defentsa Komiteko buruza-

---

[832] GUA.

[833] Bigarren Errepublikako Emaitzak. 1931ko Udal Hauteskundeak.https://www.euskadi.eus/informazioa/bigarren-errepublikako-emaitzak-1931ko-udal-hauteskundeak-guipuzcoa-udalerriak/web01-a2haukon/eu/ / AHPG-GPAH GEZ, 2860/33.

[834] GUA / Artzape: http://www.artzape.eus/wp-content/uploads/2020/04/ARTZAPE-67-2007koAbendua.pdf

[835] Testigantza: Ana Uzin Albizu.

[836] AZEDB/ Gipuzkoako Foru-Aldundia: http://www.marinavasca.eu/eu/personal.php?o=3 /

[837] GUA / Gaceta de Madrid, 1934ko abuztuaren 4a, 216. Zbk., 1254.or.

gietako bat izan zen. Getaria ebakuatu ostean, bide luzea zeharkatuta, Capbretonen (Frantzia) babestu zen. Bigarren Mundu Gerra hasita, naziek espainiar estatu frankistara estraditatuko zutelako beldurrez zen. Hartaz, 1941eko urtarrilaren 15ean, Euskal Herriko zein Espainiar Estatuko Bigarren Errepublikaren aldeko politika arloko familia garrantzitsuekin batera, Alsina ontzian alde egin zuen. Bidaian zehar, Dakarren (Senegal) zenbait hilabete pasa behar izan zituzten. Bigarren Errepublikako pasaporteekin, paperik gabeko pertsonak zirela kontsideratu baitzituzten. Tripulazioa ere greban jarri zitzaien eta sabelera zerbait eraman ahal izateko, beraien arropak ere saldu behar izan zituzten. Azkenean Atlas mendien (Maroko) magaleko Sidi-el-Ayashy eta Kasha Tadla kontzentrazio-eremuetara eraman zituzten. Argentinako Euskal Etxetik bidalitako eta Mexikotik bidalitako diruaren bitartez, Casa Blancan ezartzea lortu zuten. Indalecio Prietok bidalitako Quanza itsasontzi portugaldarraren bidez, 1941ko urriaren 31n Hego Abya Yalarako[838] bidean jarraitu zuten; bertako zenbait herrialdeetan kokatuko zirelarik. 1941eko azaroaren 19an, Alegria, Veracruz-era (Mexiko) iritsi zen. 1942ko apirilean, Venezuelara iritsi zen. Handik Euskal Herrira itzultzean, Donostian bizi izan zen[839].

## 33. ALEGRIA, LUKAS

Euskal nazionalista izan zen.

## 34. ALKORTA, BARTOLOME

Gerran zehar, tropa frankistekin borrokatu eta haren ostean 1940ko azaroaren 23an, udal-idazkariaren behin-behineko laguntzaile izendatu zuten[840].

## 35. ALKORTA, CASILDO

Tropa frankistek, bere erabilpenerako, Ford 9783 matrikula zuen kamioia errekisatu zioten[841].

## 36. ALKORTA, IGNACIO

Getariar txikienak, agintari frankistek beren botereaz baliatuz, balio militarretan hezi zituzten. Horregatik, Ignacio Alkorta, Getariako Pelayo -en[842] zerrendan ageri da[843].

## 37. ALKORTA ALKORTA, KARMEN

Bigarren Errepublikako garaian, Emakume Abertzale Batzako militantea izan zen. Orlando kontserberan lan egiten zuen. Zenbait testigantzen arabera, herriko preso errepublikazaleei laguntza emateko diru-bilketa egiteagatik frankisten salaketa jaso zuten. Horregatik moztu zioten ilea, Eulali Tolosa eta Rosario Uranga Olaskoagarekin batera. Hilabetez Ondarretako kartzelan izan zuten. Gerraren eraginez, preso politikoa izan zen[844].

## 38. ALKORTA ALKORTA, KLAUDIA

Gerra garaian, bere ahizparen Zumaiako etxean ezkutatuta egon zen. Orlando kontserberan lan egiten zuen. Zenbait testigantzen arabera, herriko preso errepublikazaleei laguntza emateko diru-bilketa egiteagatik frankisten salaketa jaso zuten. Herritar batek salaketaren berri eman zion eta Zumaian ezkonduta zuen ahizparen etxean ezkutatu ahal izan zuen. Haren senarra, Jose Ituarte Etxebarria (EAJ/PNV-ELA/STV), jaiotzez mutrikuarra, Getarian bizi zena, gerran zehar Euskadiko Gudontzidian borrokan aritu zen. Klaudiak, gerra amaitu ostean, Getariara itzultzean, errepresioa jasan behar izan zuen[845].

## 39. ALKORTA ALDAIZ, ANTONIO

Haur errefuxiatua, lehendabizi Bilbon egon zen eta Santanderren bere arrastoa galtzen zaigu[846].

---

[838] Liburuan zehar, Hego Amerika izenpetzea erabili beharrean, gaur egun Hego Abya Yalako herritar autoktonoek aldarrikatzen duten Hego Abya Yala izenpetzea erabiltzeko hautua egin dugu. Honako izenpetzea, Panama eta Kolonbiako kuna herriak geroago Amerika deituko zenari deitzen zioten. Maiek ere adiera hori erabili zuten. Kontzeptuak, zehazki, “lur heldua”, “lur bizia” edo “loratzen ari den lurra” esan nahi du.

[839] GUA / CDMH: DNSD-SECRETARIA,FICHERO,2,A0042032 / AZEDB /Aranzadi Zientzia Elkartea, op.cit., 89.or. / Bigarren Errepublikako Emaitzak. 1931ko Udal Hauteskundeak. https://www.euskadi.eus/informazioa/bigarren-errepublikako-emaitzak-1931ko-udal-hauteskundeak-guipuzcoa-udalerriak/web01-a2haukon/eu/

[840] GUA.

[841] GUA.

[842] Tradizionalistek haurrak Comunión Tradicionalista-ko oinarri politiko-sozialen arabera hezteko sortutako asoziazioa.

[843] GUA 93-01.

[844] Testigantza: Izaskun Ituarte eta Miren Agirrezabal.

[845] Testigantza: Izaskun Ituarte eta Miren Agirrezabal.

[846] CDMH: DNSD-SECRETARIA,FICHERO,2,A0038956.

## 40. ALKORTA ALDAIZ, KARMEN

8 urteko haur errefuxiatua, 1938an Bartzelonan aurkitzen zen[847].

## 41. ALKORTA ALDAIZ, MERCEDES

14 urteko haur errefuxiatua, 1938an Bartzelonan aurkitzen zen[848].

## 42. ALKORTA BALENZIAGA, LUIS

1920ko uztailaren 7an jaiotako getariarra, gerra hastean, 16 urte zituen eta ikaslea zen. 1940an, atzerritik itzultzean, Vigon (Galizia) frankistek atxilotu eta, 1940ko apirilaren 27an, Rotako Presondegianzuten.1940ko ekainaren 1tik Langile Batailoietan gatibu-lanetara derrigortu zuten. 1941eko urtarrilaren 24an Algeciras-eko (Cadiz) 58 zenbakidun Langileen Diziplina Batailoitik, 87 zenbakidunera lekualdatu zuten gatibu-lanak egiten jarrai zezan. Handik, 1941eko maiatzaren 23an, Soldadu Langileen Diziplinatze 12 zenbakidun Batailoira lekualdatu zuten. Han zegoen bitartean, Miranda de Ebroko kontzentrazio-esparruan preso izan zuten. Uztailaren 31n baja eman eta Langileen Batailoi Diziplinatzaile 14 zenbakidun 2.konpainiara lekualdatu zuten. 1942ko uztailaren 5ean, lizentziatu eta baja eman zioten. Iruritan eta Lesakan Langile Batailoietan gatibu-lanetan jardun zuen. Gerraren eraginez, preso politikoa izan zen[849].

## 43. ALKORTA INDO, IGNACIO

Gerra hastean, 16 urte zituen eta 1941eko kintetako deialdira ez zen agertu. Getariar txikienak, agintari frankistek beren botereaz baliatuz, balio militarretan hezi zituzten. Horregatik, Ignacio Alkorta Indo, Getariako Pelayo -en[850] zerrendan ageri da[851].

## 44. ALKORTA INDO, RAMON

1913ko uztailaren 6an jaiotako getariarra, gerra hastean, 23 urte zituen. Getariako Defentsa Komiteko laguntzaile gisan lan egin zuen. Tropa frankistak Getariara sartzean, frontera borrokatzera joan zen[852].

## 45. ALKORTA ISASTI, CASIMIRO

1917ko abenduaren 12an jaiotako gudari getariarra. Gerra hastean, 18 urte zituen eta ELA/STV-ra afiliatuta egonik, ardura politikoz, Euskadiko Gudontzidiko Itsas Boluntarioen zerrendan izena eman zuen. Hala, Jaimin, D-5, D-18, D-24 eta L-5 ontzietan gudari jardun zuen, 1937ko martxotik irailera bitartean Bilbo ebakuatzean L-5 Santanderrera eta handik, 1937ko abuztuaren 25ean La Pallicera (Frantzia) joan zen. Casimiro Alkorta Isasti 1937ko irailera bitartean L-5an erroldatuta agertzen zaigunez, pentsa genezake, La Pallicerako (Frantzia) bidea hartu zuela hark ere. Gerra amaitu bitartean, L-5, Rocheforten geratu zen. 1939an armadoreei itzuli zioten[853].

## 46. ALKORTA ISASTI, PEDRO

1915eko abenduaren 1ean jaiotako getariarra. Gerra hastean, 21 urte zituen eta marinan zerrendatuta zegoen[854].

## 47. ALKORTA ZUMETA, JOSEFA

Emakume errefuxiatu getariarra. Tropa frankisten atzaparretatik ihesi, Bilbo izan zuen, beste zenbait errefuxiaturekin batera, babesleku. 1937ko apirilaren 18an, hegazkin frankistek Bilbo bonbardatzean, hil egin zuten. Indar-errepublikarrek, haien defentsan, bonbak jaurtitako hegazkin frankistetako bat eraistea lortu zuten; han zihoazen bi soldaduak ere hil egin ziren. Josefa Alkorta Zumeta, Derioko hilerrian hilobiratu zuten[855].

## 48. ALONSO MORO, ROQUE

Soldadu frankista izan zen. Isabel Etxeberria bere postutik kendu eta Alonsok, kofradiako ikasleei eman zien handik aurrera klasea; nahiz eta irakasle titulurik ez izan.

---

[847] CDMH: DNSD-SECRETARIA,FICHERO,2,A0038957.
[848] CDMH: DNSD-SECRETARIA,FICHERO,2,A0038958.
[849] GUA / AGMG: kaxa: 484. Esp.: 12290.
[850] Tradizionalistek haurrak Comunión Tradicionalista-ko oinarri politiko-sozialen arabera hezteko sortutako asoziazioa.
[851] GUA 93-01.
[852] AZEDB / GUA / CDMH: DNSD-SECRETARIA,FICHERO,2,A0039026.
[853] AZEDB / GUA / CDMH: DNSD-SECRETARIA,FICHERO,2,A0039036.
[854] GUA / CDMH: DNSD-SECRETARIA,FICHERO,2,A0039037.
[855] AZEDB.

## 49. ALTUNA BILBAO, ******

Juventudes Solicistas Unificadas-eko militantea izaki, gerran zehar, indar errepublikarrekin tropa frankisten aurka borrokatu zuen[856].

## 50. ALZAGA BASARTE, MARTA

Getariar emakume kanporatua. 1937ko otsailaren 13an, udaletxe frankistak, Getariatik espultsatu egin zuen. Bere alaba Nekane Kerejeta Alzaga familiakoekin utzi eta berak Bilbora egin behar izan zuen. Hura Getariatik kaleratzeko arrazoi nagusia, Euskadiko Gudontzidiko Gerardo Kerejeta Agoteren (EAJ/PNV) emaztea izatea izan zen. Frankistek, emakumea, gizonezkoaren objektu gisan erreparatzen zuten eta ez subjektu politiko aske gisan[857].

## 51. ANDONEGI EIZAGIRRE, SINFORIANO

1906ko martxoaren 8an jaiotako getariarra. Gerra hastean, 30 urterekin, boluntario gisan erreketeen itsas-armadan parte hartu zuen[858].

## 52. ANDREANO, AVELINA

1933ko maiatzaren 30ean, Getariako haurtzaindegian lan egiten zuen[859].

## 53. ANDREANO INDO, GUILLERMO

Bigarren Errepublika garaian indar-errepublikarrei eman zien botoa. Gerra hastean, 24 urte beteta, ez zuen indar-errepublikarrek burututako inongo ekintzetan parte hartu eta tropa frankistak Getariara sartzean ez zuen alde egin. Kintetako deialdiarekin batera, gerran tropa frankistekin borrokatu behar izan zuen. Haren gurasoek, eskuindarrei ematen zioten euren botoa[860].

## 54. ARAGON BERROETA-ALDAMAR, CESAREO

1864an jaiotako Casa Torresko markesa. Bigarren Errepublikaren aldarrikatu baino lehen, bozkak erosteaz arduratzen zen, bere aldeko agintariek irabaz zezaten. Bere jauregietako bat Getarian zuen eta, Getariako udaletxe frankistak argitzera eman zuenez, zenbait gauza errekisatu zituzten bertan Getariako Defentsa Komiteko kideek[861].

## 55. ARAKISTAIN ALTUNA, CAYETANO JOSE

1919ko otsailaren 4an jaiotako getariarra. Gerra hastean, 17 urte zituen eta boluntario gisan, erreketeen itsas-armadan borrokatu zuen[862].

## 56. ARAKISTAIN ALTUNA, LUIS

Getariar txikienak, agintari frankistek beren botereaz baliatuz, balio militarretan hezi zituzten. Horregatik, Luis Arakistain Altuna gerra hastean 15 urte zituena, Getariako Pelayo -en[863] zerrendan ageri da[864].

## 57. ARANBERRIA AMUTXASTEGI, JOSE RAMON “ONDARRU”

Diktadura frankistan zehar, Ondarrun bizi zuten errepresioko garaiari aurre egin nahirik, txalupa batean irten zuen beste hiru lagunekin batera, Donibane Lohizunera (Ipar Euskal Herria). Haien helburua, Euzkadiren askatasunaren alde borrokatzea izan zen. Horregatik, Bigarren Mundu Gerran Eusko Jaurlaritzak sortutako Gernika Batailoian nazien aurka borrokan jardun zuen. Aranberria, soldaduskari muzin egina, frankistek iheslari gisan kalifikatu zuten. 1945eko udan, Bigarren Mundu Gerra amaituta, Jose Antonio Agirrek CIA-rekin adostutako polizia gorputza osatzeko entrenamenduetara egin zuen Paris-etik 50 kilometrora geratzen zen Rothschild gaztelura. Hura etenda geratzean, Parisen babestu zen eta hantxe ezkondu eta beraien semea ere izan zuten. Anaia kartzela frankistetan preso zegoela probestuz, haren identitatea hartu eta Getariara itzultzea lortu zuen[865].

---

[856] AZEDB.
[857] GUA.
[858] GUA.
[859] GUA.
[860] GUA.
[861] GUA / Renoko Unibertsitatea, Idoia Arrieta.
[862] GUA.
[863] Tradizionalistek haurrak Comunión Tradicionalista-ko oinarri politiko-sozialen arabera hezteko sortutako asoziazioa.
[864] GUA 93-01.
[865] Testigantza: Jose Ramon Aranberria. Gernika Batailoiko gudaria. Dokumentala: “Gernika Batailoia. Askatasunaren ametsa: 1945-2015”. Baleuko.

## 58. ARAMBURU GALLO, LUIS

Tradizionalista. Bigarren Errepublika baino lehen, 1931ko urtarrilaren 8an, Getariako alkatea zen. 1936ko irailaren 22an osatutako lehen udaletxe frankistako zinegotzia izan zen. Haren ostean, 1937ko apirilaren 10ean osatutako udal-gobernu frankistako lehen alkateorde izan zen. 1941eko irailaren 9an, Getariako alkate izendatu zuten. F.E.T. eta J.O.N.S.-eko afiliatu izan zen[866].

## 59. ARANBURU ALBERDI, ALEJANDRO

Jaiotzez azpeitiarra, baina Donostian bizi zen. Ezkongabea zen. Haren gurasoak Getarian bizi ziren eta zenbait denboraldi bertan egiten zituen. Gipuzkoako Foru Aldundiarentzat errepideetan lanean jarduten zuen. Gerra hastean, hasiera batean Donostian geratu zen. Gipuzkoako Foru Aldundiak agindutako zenbait zubiren dinamitatze lanetan jardun zuen, Gerra Kontseiluko deklarazioetan erreparatu dugunez, ez omen zuen hura begi onez ikusten. Horregatik, 1937ko irailaren 23an Gerra Kontseilua Donostiako Plazan ireki zioten, Ategorrietako etxean espetxealdi arindua bete bitartean. Deklarazioen arabera, familia eskuindarra zuen. Haren aita, errepublikazale zein euskal nazionalistek mehatxatu egin omen zuten eta haren lehengusua, Pedro Aranburu, ezkutatuta egon zen tropa frankistak iritsi bitartean. Getarian irailaren 11tik 22ra bitartean egon zen. Eugenio Egurbide Azpeitia alkate frankistak, Alejo Jimeno Oses Getariako F.E.T. eta J.O.N.S.-eko buruzagiak eta Ignacio Larrañaga Azpitarte Getariako parrokoak, eskuindarra zela adierazi zuten, bere aldeko deklarazioa eginez, beraz. Hartaz, 1937ko abenduaren 24an, Ignacio Maria Lasarekin batera, etxeko espetxealdia kendu eta aske geratu zen Aranburu[867].

## 60. ARANBURU ARRIETA, MODESTO

Flota Errepublikarrean borrokatu zuen getariarra. Haren ostean, Zebbeus-Maknassy (Tunisia) kontzentrazio-eremuan egon zen eta 1939ko martxoaren 23an, Flota Errepublikarrarekin Iberiar Penintsulara egin zuen. Behin Iberiar Penintsulara iristean, bere inguruko arrastoa galtzen zaigu. Pentsa genezake, gainontzeko flota errepublikarreko gudariei gertatu gisan, frankistek, hura ere atxilotu eta espetxean izan zutela[868].

## 61. ARANBURU ARRIETA, NORVERTO

1915eko uztailaren 2an jaiotako getariarra. Gerra hastean, 21 urte bete berriak zituen. Gerra hastean, marinan soldaduska egiten zegoen, Miguel Cervantes ontzian, hain zuzen. Marinelek, ofizialen aurka altxatu eta ontzia Bigarren Errepublikaren aldeko eskuetan jarri zuten. 1936ko azaroaren 22an itsaspeko italiarrek jaurtikitako torpedo eta bonbardaketa baten eraginez, 1938ko apirilean guztiz konpontzea amaitu zuten. 1939ko martxoaren 5ean Cartagenatik irten eta hilaren 11n, Bizertara (Tunisia) iritsi ziren. Han asilo politikoa eskatu ostean, tripulazioaren zati txiki bat haiek zaintzen geratu bitartean, gainontzekoak, Meheri-Zebbens-eko kontzentrazio-eremura eraman zituzten. Haren ostean, frankistek, itsasontziak eta tripulazioa Iberiar Penintsulara ekarri eta horregatik, 1939ko ekainaren 14an, Norverto Aranburu Arrieta Rotako Presondegian aurkitzen zen[869].

## 62. ARANBURU ZUBIMENDI, ANTONIO

1939ko maiatzaren 19an, 12 zenbakidun Langile Batailoian zegoen. Egun horretan, Langile Batailoien Subinspekzioko 2 zenbakidun konpainiara lekualdatu zuten. Urte bereko irailean, Bilbora lekualdatzea lortu zuen, 2. Klaseko prorrogarekin. 1941ean, 22 zenbakidun Langile Batailoira aurkitzen zen eta bere alta 1947ko irailaren 5ekoa da[870].

## 63. ARANBURU ZUBIMENDI, IGNACIO

Jaiotzaz azpeitiarra eta Getarian bizi zen, 1939ko maiatzaren 12an, 76 urte zituen eta jubilatuta zegoen. Gipuzkoako Diputazioan lan egindakoa zen.

## 64. ARANGUREN BURGAÑA, BENITA

Getariar haur errefuxiatua. 1937ko otsailaren 13an bere ama Salvadora Burgaña Etxeberria Getariatik espultsatzean, hilabete gutxi zituela harekin eraman zuen erbestera. Bilbon zeudela gaixorik jarri eta handik gutxira hil egin zen. Bere ama Salvadora Burgaña Etxeberriak Laredon (Kantanbria) ehortzi zuen. 14 hilabete zituen hil zenean[871].

## 65. ARANGUREN EIZAGIRRE, TOMAS

Ardoaren Gerraren eraginez Gipuzkoako Gobernadore Zibilak, Euskal Estatutuaren alde borrokatutako zinegotziak udalbatzatik espultsatu zituen. Horri jarraiki, Gipuzkoako Gobernadore Zibilak berak 1934ko irailaren 19an udalbatza berria osatu zuen,

---

[866] GUA / Sabino Arana Fundazioa-Euskal Abertzaletasunaren Agiritegia.
[867] Ipar-Mendebaldeko Eskualde Militarreko Tarteko Artxiboa, Ferrol, 1662/37.
[868] Sabino Arana Fundazioa-Euskal Abertzaletasunaren Agiritegia.
[869] GUA.
[870] AGMG.
[871] Testigantza: Anuntxi Aranguren Burgaña.

Tomas Aranguren Eizagirre hautatutako zinegotzietako bat izan zen. 1936ko otsailean Fronte Popularrak hauteskundeak irabazi ostean, Ardoaren Gerran[872] espultsatutako zinegotziak amnistiatu eta Tomas Aranguren zinegotziak bere kargua utzi behar izan zuen, amnistiatuei baitzegokien agintea, herriak emandako agintea[873].

## 66. ARANGUREN BURGAÑA, IGNACIO MARIA

Getariar haur errefuxiatua. 1937ko otsailaren 13an bere ama Salvadora Burgaña Etxeberria Getariatik espultsatu eta bere aita Manuel Aranguren Iñarra Euskadiko Gudontzidiko gudaria Frantzian erbestean zeudelarik jaio zen. Hilabete gutxiren buruan hil egin zen[874].

## 67. ARANGUREN IÑARRA, IGNACIO

Gerra hastean 31 urte zituela Donostian aurkitzen zen eta Eusko Gudarosteko Amaiur Batailoiarekin borrokatu zuen. Hotel Carltonen egon zen. Dokumentuak aztertu ostean, Castro Urdiales-en (Kantabria) atxilotu eta presoen klasifikaziorako komisioak, Miranda de Ebro-ko kontzentrazio esparrura bidali eta berriro ere klasifikatu zutela determina genezake. Haren ostean, Calatayud-en eta Teruel-en (Aragoi) 107 zenbakiko 2 konpainiako Langile Batailoian gatibu-lanetan jardun behar izan zuen. Bere zenbakia 333-a izan zen, gerraren eraginez, preso politikoa izan zen. Alejo Jimeno Oses Getariako Falangeko buruzagiak, 1939ko azaroaren 8an, errepublikazalea izan zela determinatu zuen, jarrera ona izan zuela adierazteaz gain. 1939ko ekainaren 22an, Zarauzko Guardia Zibilaren komandantziara aurkeztu zen eta horrenbestez, orduan askatu zutela pentsa genezaken[875].

## 68. ARANGUREN IÑARRA, JOSE MARIA

Gerra hastean 24 urte zituen eta ELA/STV-ra afiliatuta, ardura politikoz, Euskadiko Gudontzidiko Itsas Boluntarioen zerrendan izena eman zuen. 1936ko azarotik 1937ko azarora bitartean, Euzkal-Erria, Araba, L-2 eta L-6 itsasontzietan borrokatu zuen. L-2 txalupa, 1937ko ekainaren 13an hegazkin frankistek Bilbo bonbardatu ostean oso hondatuta geratu zen. Horren eraginez, Jose Maria Aranguren Iñarra eta bere kideak, L-6 txalupara gudari gisan jarraitzera pasa ziren. 1937ko ekainaren 24an Laredotik EAJ/PNV-ko ordezkaritzarekin eta Andres Atela bertako komandante postuan ezarrita, L-6 Algortara irten zen, Italiar Estatu Nagusiko ordezkariekin bildu eta Santoñako Itunaren inguruko elkarrizketa izateko. 1937ko abuztuaren 14an, Tomas Kamio Uzin, D-17an zauritu zenean, Jose Maria Aranguren Iñarra eta haren kideak L-6 txalupan hartu eta ahal bezain laster Santoñara eraman zuten. Tomas Kamio Uzinen zauriak hain larriak izanik ezin izan zuten ezer egin; segituan hil egin zen. Hala eta guztiz ere, jarduera horretan, gerra osoan gisan, gudariek beren kidea salbatzeko erakutsitako elkartasuna goraipatzekoa izan zen. 1937ko abuztuaren 25ean, L-6 ontziak ere, beste zenbaitekin batera, La Pallicera (Frantzia) egin zuen. Jose Maria Aranguren Iñarra gudari getariarrak ere hala eginen zuela pentsa genezake, 1937ko azarora bitartean, L-6an erroldatuta egon baitzen[876].

## 69. ARANGUREN IÑARRA, MANUEL

Lanbidez marinela. Bere emaztea, 1937ko otsailaren 13an udaletxe-frankistak Getariatik espultsatutako Salvadora Burgaña Etxeberria zen. Manuel Aranguren Iñarrak, 26 urte eta EAJ/PNV-ra afiliatuta, ardura politikoz, Euskadiko Gudontzidiko Itsas Boluntarioen zerrendan izena eman zuen. 1936ko abendutik 1937ko uztailera bitartean, Bou Gipuzkoa, Getxoko Armadaren Kuartelean eta Txepetx ontzietan borrokatu zuen. 1937ko martxoaren 5ean, Matxitxako lurmuturreko batailan parte hartu zuen eta bertan Canarias gurutzaontziaren kanoikaden eraginez, zauritu egin zen. Bou Gipuzkoak, tripulazioan 5 hildakorekin eta 12 zauriturekin Portugaleteko Itsas-Basera sutan sartu zen. Manuel Aranguren Iñarraz gain, zaurituen artean, Juan Burgaña Etxebarria, Atanasio Kamio Uzin eta Jose Maria Olaskoaga Zubimendi getariar gudariak zeuden. Apirilean, Getxoko Armadaren Kuartelera lekualdatu eta bertan maiatzera bitartean egon zen. Handik, maiatzean bertan, Txepetx ontzian ontziratu eta ekainera bitartean bertan erroldatuta egon zen. Seguruenik, 1937ko maiatzaren 23an, Sukarrietatik ateratako Sabino Aranaren gorputz faltsua[877]. Txepetx txalupa azkarrean eramateaz arduratu zen. Txalupa azkarrean, konfiantzazko hiru marinel, hilkutxa zeraman gazte ezezagun bat eta txaluparen buru, Policarpo Bilbao Zubiaga joan zen. 1937ko ekainaren 19an, tropa frankistak Bilbora sartzean, Txepetx txalupa Baionan zegoen. Manuel Aranguren Iñarra ere bertan zegoela pentsa genezake, izan ere, bere marinel errolda ekainean bertan amaitzen da. Frantziako erbestean, bertako basoetan Euskadiko Gudontzidiko beste gudari batzuekin lan egin

[872] Bigarren Errepublikako gobernu zentralak, euskal udaletxeek kobratzen zuten alkoholaren gaineko zerga desgrabatzea erabaki zuen. Horrekin, euskal udalek gastu dezente ordaintzeko dirua biltzen zuten. Horren aurrean, euskal udalek bat egin eta haren aurka agertu ziren; haren oinarrian, garaiko gobernu espainiarrak, Euskal Estatutua abian jartzeko nahirik agertu ez zuela izan zen.

[873] GUA.

[874] Testigantza: Anuntxi Aranguren Burgaña.

[875] AZEDB / CDMH:DNSD-SECRETARIA,FICHERO,4,A0130264.

[876] AZEDB / CDMH: DNSD-SECRETARIA,FICHERO,4,A0130265.

[877] EAJ/PNV-ko ordezkari batzuk, Juan Ajuriagerra Bizkaia Buru Batzarreko buruzagia nagusi zela, Sukarrietan, faxistak iristean Sabino Aranaren gorpuzkinak profanatzeko beldurrez, euskal nazionalismoaren aitaren gorpuzkinak ateratzea erabaki zuten. Juan Ajuriagerrak Sabino Aranaren gorpuzkinak benetan non gordeko ziren jakiterik ez zuen nahi izan. Horregatik, bi hilobiratze kaxa prestatu zituen. Horietako bat, lehenengoa eta benetako gorpuzkinak zituena, Zallako hilerrian hilobiratu zuen. Bigarrena berriz, Txepetx txalupa azkarrean, 1937ko maiatzaren 23an, Lapurdira eraman zuten. Gorpuzkinak Sukarrietatik atera ziren guztiek, Ipar Euskal Herrian (Lestelle-Betharram-eko monasterioan) egon zirela uste izan zuten 1989ra arte. Gisa horretara, Ajuriagerrak, faxistak, Sabino Aranaren benetako gorputzak bilatzetik urrundu nahi izan zituen.

zuen. Hartan zebilela bere eta bere emaztearen bigarren haurra[878], Ignacio Maria hil zitzaien, eta hantxe ehortzi zuten. Erbestetik itzultzean, Salvadora Burgaña Etxeberriak eta biak, Anuntxi eta Jose Maria Aranguren Burgaña haurrak izan zituzten[879].

## 70. ARANGUREN MANTEROLA, ANTONIO "TETO"

Gerrahastean 24 urte zituen eta Getariako arotza zen.Lehenik atzeraguardiako erreketeen buruzagia izan zen. Errekete hauek, atzeraguardiako laboreez arduratzen ziren: zentsura, hilobiratzeak, hilketak, fronteko labore jakin batzuk baina borrokan egin gabe … Hartan, bere senidea zen Teodoro Mitxelena Zumeta hiltzeaz arduratu zen, 1936ko urriaren 24-25 bitartean, gauez[880]. Zeregin horien ostean, gerran, Zumalacarregui Tertzioko 3.en konpainian sarjentu gisan borrokatu zuen.1937ko abuztuaren 1ean gaixorik aurkitzen zen eta ezin izan zuen frontean borrokatzen jarraitu, denboraldi batez. 1941eko irailaren 8tik 1942ko uztailaren 24ra arte, Getariako udaletxe-frankistako zinegotzia izan zen. Getariako F.E.T. eta J.O.N.S.-eko buruzagia ere izan zen tarte horretan[881].

## 71. ARANGUREN MANTEROLA, JESUS

1919ko urtarrilaren 4an jaiotako getariarra. Gerra hastean 17 urte zituen eta boluntario gisan, erreketeen itsas-armadarekin gerran borrokatu zuen[882].

## 72. ARANGUREN ONDARRA, CELEDONIO

Zestoan bizi zen eta 1939ko maiatzaren 3an Gerra-Kontseilua egin zioten. 1937ko abenduan, Zestoako Bar Toki-Alay-n egindako euskal nazionalismoaren aldeko aldarriengatik, 6 hilabete eta egun bateko kartzela-zigorra ezarri zioten[883].

## 73. ARANGUREN ONDARRA, JOSE ANTONIO

Gerran hildakoa[884].

## 74. ARANGUREN ONDARRA, JOSE MARIA

53 urteko kontramaisu getariarra. Gerra hastean, UGT-n afiliatuta zegoen eta ardura politikoz, Euskadiko Gudontzidiko Itsas Boluntarioen zerrendan izena eman zuen. Hala, 1936ko abenduan Bou Goizeko-Izarrean lan egiteko izendatu zuten. 1937ko urtarrilaren 16-17ko gauerdian Goizeko-Izarrak frankistek ezarritako mina batekin talka egitean hondoratu eta bertan Jose Maria Aranguren Ondarra gudari getariarra, Ignacio Goenaga mutrikuarra eta Bienvenido Urkidi Arrieta getariarrekin batera hil egin zen[885].

## 75. ARANGUREN SEGUROLA, JOSE MARIA

1912ko urtarrilaren 24an jaiotako arrantzale getariarra. Gerra hastean, Zumaian bizi zen, 24 urte zituen eta indar-errepublikarrekin batera gerran borrokatu zuen.1937ko abuztuaren 26an frankistek atxilotu, handik Logroñoko Infanteriako Erregimendura eramaneta falangisten "Flechas negras" delakoarekin borrokatzera derrigortu zuten. 1938ko irailaren 24an, Caudiel-tik (Valentzia) gertu zeudela errepublikarrek preso egin zuten "cuando iba a buscar higos". Hiru hilabete preso egin zituen eta haren ostean miliziano gisan jardun zuen gerra amaitu bitartean. 1939ko ekainaren 19an Albaterako kontzentrazio-eremuan preso aurkitzen zen. Bertako Presoen Klasifikaziorako Komisioak A atalean klasifikatu zuen 1939ko ekainaren 25ean. Handik, Porta Coelira lekualdatu zuten. 1939ko maiatzaren 1etik abenduaren 1era arte, Porta Coeliko klasifikaziorako kontzentrazio-eremuan (garai hartan Kartzela Zentrala zena) preso egon zen. Arangurenek zortea izan zuen, bigarren aukera fusilamendua baitzen. Beti ere, falangisten ateratze biolentoen mehatxuan bizi behar izan zuen. 1940 apirilaren 26an, Guardia Zibilaren zaintzapean Porta Coeliko presondegitik irten eta maiatzaren 2an Ondarretako kartzelara iritsi zen. Itxura denez, Aranda de Dueroko (Burgos) kontzentrazio-esparruan klasifikatu zuten. Bertan egindako epaiketa ezberdinen ostean, 1940ko abuztuaren 6an, aske utzi zuten. 1940ko irailaren 25ean espetxealdi arindua bete behar izan zuen. 1940ko abenduaren 10ean karguetatik libre geratu zen. 1941eko ekainaren 21ean kasua artxibatu egin zen. Gerraren eraginez, preso politikoa izan zen[886].

---

[878] Lehenengo haurra, Benita Aranguren Burgaña, Bilbo ebakuatu eta gutxira hil zitzaion Salvadorari. Erbestera kondenatutako emakume getariarrak, Laredon (Kantabria) ehortzi behar izan zuen bere haur besoetakoa.

[879] CDMH:DNSD-SECRETARIA,FICHERO,4,A0130267 / Gipuzkoako Foru Aldundia: http://www.marinavasca.eu/eu/personal.php?o=3 / Testigantza: Anuntxi Aranguren Burgaña.

[880] GURRUTXAGA, A., op.cit., 31.or.

[881] GUA / AZEDB / Euskal Ikasketeterako Fundazio Popularra. Fitxa zbk.: 1965.

[882] GUA.

[883] Ipar-Mendebaldeko Eskualde Militarreko Tarteko Artxiboa, Ferrol, 1019.

[884] Testigantza: Jose Angel Kerejeta Urresti.

[885] AZEDB /AHPB-BAHP, Registro Central de Fallecidos en Campaña. RC Bilbao nº1 nº104/1937. / Gipuzkoako Foru-Aldundia: http://www.marinavasca.eu/eu/personal.php?o=3 /

[886] AHPG-GPAH GEZ, 2839/8 / AZEDB / AGMG: kaxa: 561. Esp.: 17075. / GUA.

## 76. ARANGUREN ULAZIA, RAMON

Getariar txikienak, agintari frankistek beren botereaz baliatuz, balio militarretan hezi zituzten. Horregatik, Ramon Aranguren Ulazia gerra hastean 9 urte zituena, Getariako Pelayo -en[887] zerrendan ageri da[888].

## 77. ARANZABAL AZKARATE, BARTOLOME

1931ko apirilaren 12ko udal-hauteskundeetara aurkeztu eta 16 boto jasoz, ez zuten zinegotzi hautatu[889].

## 78. ARANZABAL ITURZAETA, BARTOLOME

46 urteko gudari getariarra. UGT-ra afiliatuta. Gerra hastean, Getariako Defentsa Komiteko Hornigaien kudeaketa egin zuen. Getaria ebakuatzean, indar-errepublikarrekin gerrara egin zuen. Frantzian erbestean egon zen. 1939ko urriaren 14an atxilotu eta Ondarretako kartzelan sartu zuten. 1940ko martxoaren 9an aske geratu zen. Gerraren eraginez, preso politikoa izan zen[890].

## 79. ARANZABAL ITURZAETA, MANUEL

Gerra hastean, hasieran, Zarautzeko Gerra komisariako partaidea izan zen. Haren ostean, UGT-ko afiliatua izanik, ardura politikoz, Guillermo Torrijos batailoian tropa frankisten aurka borrokan jardun zuen[891].

## 80. ARBILLAGA LETURIONDO, JOSEFA

Emakume errepresaliatua. Jose Agustin Arbillaga Zumaiako mediku-titularraren eta industria-gizonaren alaba izan zen. Hark 1919ra bitartean egindako ondasunak oinordetzan jaso zituen. Victoriano Zelaia Lekue Ondarroako industria-gizonarekin ezkonduta zegoen. Erregimen frankistaren aurkakotzat identifikatu eta Getariako Galindon zuen lursaila errekisatu zioten. Horrez gainera, Zumaia, Zarautz, Usurbil, Orio, Hernani, Elgoibar, Eibar, Beasain, Azkoitia, Aizarnazabal eta Aian zituen lursailak ere errekisatu zizkioten[892].

## 81. AREIZAGA IRURETAGOIENA, JOSE

1915eko martxoaren 15ean jaiotako getariarra. Gerra hastean, 21 urte zituen eta soldaduska egitera joatea tokatzen zitzaion. Hasiera batean, aita hilda eta bere anaia Juan tropa frankistekin borrokan izanik, amari laguntzeko soldaduska egitetik libratu zen. Gerra zehar, 1937ko urtarrilaren 20ko frankisten legearen bidez, soldaduska egitera eta beraz, gerran tropa frankistekin borrokatzera joan behar izan zuen. Zehazki, Sicilia 8 zenbakiko Mendiko Batailoian borrokatu zuen[893].

## 82. AREIZAGA IRURETAGOIENA, JUAN

1920ko maiatzaren 2an jaiotako getariarra. Gerra hastean 16 urte zituen eta tropa frankistek beraiekin borrokara joatera derrigortu zuten. Bitartean, bere anaia Jose Areizaga eta haren ama Josefa, Usotegi baserriko lanez arduratu ziren; hain zuzen, Jose, anai zaharrena eta beraz, etorkizunean baserria aurrera ateratzeko eskulana egingo zuena izango zen. Hala eta guztiz ere, tropa frankistek aginduta, Jose anaiak ere, gerrara joan beharra izan zuen[894].

## 83. ARGIBE URAOLA, PAULO

Gerra garaian Frantzian erbesteratu zen[895].

## 84. ARREGI AZPEITIA, ALBERTO

Fructuoso Arregi Leizaola eta Fermina Azpeitia Oruezabalaren seme getariarra. 1913ko abuztuaren7an jaiotako Akarregi Haundi baserriko semea. Gerra hastean EAJ/PNV-koa izaki, militantzia politikoz, gerrara bere alderdiko Loiola Batailoiko 1. Konpainiarekin borrokara joan zen, Bilbo eta Santanderreko frontean borrokan jardun zuen. 1937ko abuztuaren 25ean Limpias-en (Kantabria) atxilotu zuten. Handik Aranda Duero-ko (Burgos) kontzentrazio-esparrura eraman zuten eta Castro Urdiales-eko presoen klasifikaziorako komisioak klasifikatuta, Miranda de Ebro-ko kontzentrazio-esparrura lekualdatu eta 1937ko azaroaren

---

[887] Tradizionalistek haurrak Comunión Tradicionalista-ko oinarri politiko-sozialen arabera hezteko sortutako asoziazioa.

[888] GUA 93-01.

[889] Bigarren Errepublikako Emaitzak. 1931ko Udal Hauteskundeak. https://www.euskadi.eus/informazioa/bigarren-errepublikako-emaitzak-1931ko-udal-hauteskundeak-guipuzcoa-udalerriak/web01-a2haukon/eu/

[890] AZEDB / AHPG-GPAH GEZ,2839/11 / CDMH:DNSD-SECRETARIA,FICHERO,4,A0130667.

[891] AZEDB / CDMH:DNSD-SECRETARIA,FICHERO,4,A0130668; DNSD-SECRETARIA,FICHERO,4,A0130668.

[892] AZEDB / GUA.

[893] GUA.

[894] GUA.

[895] Testigantza: ahotsak.eus.

6tik aurrera, 37 zenbakidun eta 1 zenbakidun Langile Batailoian gatibu-lanetan jardun behar izan zuen. Langile Batailoian jasandako egoeragatik, hezueria zuen. 1938ko otsailaren 28tik martxoaren 8ra bitartean ospitalean egon behar izan zuen, ez dakigu zehazki zeren eraginez. Zenbait txerto ere eman zizkioten, antitifika zein anbariariolikoa, gatibu-lan deploragarri (gosea, higiene eskasa kasu) haietan oso ohikoa baitzen defentsak oso baxu eduki eta gaixotasunak orokortzea.1938ko otsailaren 11n honako gauzak eman zizkioten: “gerrera” bat, praka bat, gorro bat, bota pare bat, toaila bat, kamiseta bat, gantzontziloak, zapi bat eta alpargatak. Abuztuaren 16an, gantzontzilo bat eta bota pare bat. Abenduaren 14an “gerrera” bat eta beste bota pare bat. Gerraren eraginez, preso politikoa izan zen[896].

## 85. ARREGI AZPEITIA, PEDRO JOSE

1916ko martxoaren 7an jaiotako gudari getariarra. Akarregi Haundi baserrikoa, 23 urte zituen preso hartzean eta ezkongabea zen. 1936ko irailaren 20an Getariako ebakuazioan herritik alde egin zuen eta Eusko Gudarostean borrokatu zuen. 1937ko abenduaren 5ean 64 zenbakidun lehenengo konpainian Langile Batailoian gatibu-lanak egitera derrigortu zuten. 1939ko uztailaren 11n, 64 zenbakidun Langile Batailoikoa izaki eta gaixotuta ospitale militarrean egon ostean, alta eman zioten. 1939ko uztailaren 18an San Juan de Mozarrifar (Zaragoza) kontzentrazio-esparrutik Malgrat-eko 64 zenbakidun Langile Batailoira gatibu-lanak egitera behartu zuten. 1939ko irailaren 5ean, Nafarroako ospitale militarrean (Iruña) sartu behar izan zuten, apendizitisa medio. Irailaren 17an bertan hil egin zen. Orduan, Amaiurren (Baztan) 64 zenbakidun Langile Batailoiarekin gatibu-lanetan aurkitzen zen. Gerraren eraginez, preso politikoa izan zen[897].

## 86. ARREGI LEIZAOLA, ALBERTO

Jose Leandro Arregi Leizaolaren iloba zen eta bere osabarekin batera, Eusko Gudarostean borrokatu zuen. Foruan, Gernikan… borrokan jardun zuten. Frankistek atxilotu ostean, Malagako Langile Batailoietan gatibu-lanetan ere jardun behar izan zuen. Gerraren eraginez, preso politikoa izan zen[898].

## 87. ARREGI LEIZAOLA, FRUCTUOSO

1931ko apirilaren 12ko udal-hauteskundeetan 179 boto lortuz, Bigarren Errepublikako Getariako lehen udal-gobernuko zinegotzi izendatu zuten. Bigarren Errepublikako Getariako azken udal-gobernuko zinegotzia izan zen[899].

## 88. ARREGI LEIZAOLA, JOSE LEANDRO

Gerra hastean, Eusko Gudarostearekin gerran borrokatu zuen. Haren emaztea, Josefa Oiarzabal Agirre, 1937ko otsailaren 13an, udaletxe frankistak, Getariatik espultsatu zuen bere Isabel Egurbide Oiarzabal eta Andoni Arregi Oiarzabal seme-alabekin. Gernikan zeudela, aita Foruan egonik, emaztea eta bi seme-alabak bisitatzera joan zen. Hark, bere iloba Alberto Arregi gudariarekin Eusko Gudarostean borrokan jardun zuen. Josefa Oiarzabal, bere bi seme-alabekin 1937ko irailaren 9an, Frantziatik Getariarako etorreran, Hondarribiako Komandantzia Militarrean aurkitzen zen. Bere familiak, abal bat egin zuen haiek Getariara hurbiltzeko eskatuz. Jose Leandro Arregi Leizaola, 1937ko abuztuaren 26ko Santoñako Errendizioaren ostean atxilotu egin zuten. Gerraren eraginez, preso politikoa izan zen[900].

## 89. ARREGI OIARZABAL, ANDONI

Getariar haur errefuxiatua. Bere aita Eusko Gudarostearekin gerran egoteagatik, bere ama, Josefa Oiarzabal Agirre, bera eta bere arreba Isabel Egurbide, 1937ko otsailaren 13an, udaletxe frankistak Getariatik espultsatu zituen. Getariatik, Leikeitiora eta handik Foruara egin zuten, zeinetan komentu batean bizitzen egon baitziren. 1937ko apirilaren 26ko Gernikako bonbardaketa frankistan ama azokan zen eta une latzak pasa zituzten, ama bizirik zegoen ala ez jakin gabe. Beste zenbait gerrako errefuxiatuk egin gisan, Bordeaux-en (Frantzia) errefuxiatu ziren hilabete batzuz. 1937ko irailaren 9rako, Josefa Oiarzabal bere bi seme-alabekin Hondarribiako Komandantzia Militarrean aurkitzen zen, beste zenbait getariarrekin batera. Bere familiak, abal baten bidez, bera eta bere seme-alabak Getariara hurbiltzeko eskaera egin zuen. Hala, Andoni Arregi Oiarzabal Getariara iritsi zen. Bere familiak, diktadura frankistan zehar errepresioa jasan behar izan zuen[901].

## 90. ARREGI UZIN, ANSELMO

1912ko urriaren 26an jaioa, gerra hastean, 23 urte zituen getariar gudariak. Gerra hastean, EAJ/PNV-ra afiliatuta egonik, ardura politikoz, Euskadiko Gudontzidiko Itsas Boluntarioen zerrendan izena eman zuen. Hartaz, 1937ko urtarriletik irailera bitartean,

[896] AGMG.
[897] AZEDB / GUA / AGMG: kaxa: 586. Esp.: 18609.
[898] Testigantza: Andoni Arregi Oiarzabal.
[899] Aranzadi Zientzia Elkartea, op.cit, 89.or.
[900] AZEDB / GUA / Testigantzak: Andoni Arregi Oiarzabal eta Isabel Egurbide Oiarzabal.
[901] GUA / AZEDB / Testigantza: Andoni Arregi Oiarzabal eta Isabel Egurbide Oiarzabal.

D-11, Ciscar eta D-19 ontzietan gudari gisa jardun zuen. 1937ko ekainean Bizkaiko Itsas Armadak egindako eskakizunari erantzuna emanez, Ciscar ontzian aurreko marinelak ordezkatuko zituen 100 Euskadiko Gudontzidiko gudarietatik bat izan zen. Santanderren jada, D-19 ontzian aurkitzen zen, eta pentsa genezake, 1937ko abuztuaren 25ean ontziak La Pallicera egin zuenean, bertan joan zela. Gerra amaitu bitartean, destruktorea, Rocheforten geratu zen eta gerra amaitzean, armadoreei eman zitzaien[902].

## 91. ARREGI UZIN, PEDRO

1898ko martxoaren 8an jaiotako getariarra. 1944ko abuztuaren 20an, 46 urte zituela, Tomas Otamendi Esnal getariar marinelarekin batera, Zumaian atxilotu eta kartzelan preso hartu zituzten. San Jose itsasontziarekin ekintza susmagarriak egiteagatik epaitu zituzten. Pedro Arregi Uzin, atxilotutako 6 egunetan, inkomunikatuta eduki zuten. 1944ko abuztuaren 26an, Tomas Otamendi Esnalekin batera aske geratu zen[903].

## 92. ARREGI UZIN, URBANO

Gerra hastean, UGT-ko[904] afiliatua izanik, ardura politikoz, Euskadiko Gudontzidiko Itsas Boluntarioen zerrendan izena eman zuen. Horren eraginez, 1936ko azarotik 1937ko abuztura bitartean Euskadiko Gudontzidiko Jaimin, D-22 eta D-17 miaketa ontzietan sugin lanean jardun zuen. Hartan zebilela, 1937ko abuztuaren 14an, D-17 miaketa ontziak, Nojan izandako istripuaren eraginez, zauritu eta mutilatuta geratu zen. Bitartean, Tomas Kamio Uzin, larriki zauritu eta hil egin zen. Valentziara lekualdatu eta tropa frankistek atxilotu eta preso egin zuten. Gandiako komentu batean denboraldi bat pasa eta Getarian hilda zegoela uste zutenean, aske utzi eta herrian agertu zen. Gerraren eraginez, preso politikoa izan zen. Getarian, berriro ere kofradiara sartzeko, 100 pezetako isuna ordaindu behar izan zuen[905].

## 93. ATORRASAGASTI LASA, ANTONIO

Erizain getariarra. Gerra baino lehen, nazionalista zen, baina tropa frankistak Getariara sartzean, tradizionalisten aldeko postura hartu zuen. Familiaren zaintzan egon behar zuelako eta horrek Getarian egotea ekiditen ziolako bere praktikante postuari uko egin zion. Hala eta guztiz ere, udalari, behin familiako arazoak konponduta, bere postura itzultzeko eskaera egin zion[906].

## 94. AZKUE AIZPURU, PRUDENCIO

1916ko abuztuaren 7an jaiotako nekazari getariarra. Gerra hastean, 19 urte zituen eta boluntario gisan, erreketeen itsas-armadako artileria postuan borrokatu zuen[907].

## 95. AZKUE AZKUE, MANUEL

1920ko maiatzaren 12an jaiotako getariarra. Gerra hastean, 16 urte zituen eta Eusko Gudarosteko Amaiur Batailoiarekin borrokan jardun zuen. Hartan, Frantziara alde egin zuen eta 1947ko ekainaren 29an Iruneko mugan, gudari izandako beste batzuekin atxilotu eta inkomunikatuta izan zuten. Hartaz, preso inkomunikatu gehienekin pasatu bezala, hura ere torturatu egin zutela pentsa genezake. Uztailaren 10ean, aske utzi zuten. Gerraren eraginez, preso politikoa izan zen[908].

## 96. AZKUE FERNANDEZ, SABINA

*La madonna de las siete lunas* Zarautzen ikusitako pelikulagatik, herriko maistra enteratu eta kongregaziotik bota zuten. Bere senarra,Periko de la Hoz Kintana Bou Nabarrako gudari getariarra izan zen[909].

## 97. AZKUE IBARBIA, ANTONIO

1911ko martxoaren 28an jaiotako gudari getariarra. Gerra hastean, 25 urte zituen eta Eusko Gudarostearekin Bigarren Errepublikako gobernu legitimoaren aurka estatu-kolpea emandako frankisten aurka borrokatu zuen. 1936ko azaroaren 1ean Gernikan zegoen[910].

---

[902] GUA / AZEDB / Gipuzkoako Foru Aldundia: http://www.marinavasca.eu/eu/personal.php?o=3.

[903] GUA / AZEDB / AHPG-GPAH GEZ, 3579/10.

[904] Iturri batzuk EAJ/PNV-ra afiliatuta zegoela adierazten digute.

[905] AZEDB / Testigantza: Jose Arregi Aranguren / Gipuzkoako Foru Aldundia: http://www.marinavasca.eu/eu/personal.php?o=3 / CDMH:DNSD-SECRETARIA,FICHERO,5,A0160404 / Sabino Arana Fundazioa-Euskal Abertzaletasunaren Agiritegia.

[906] Sabino Arana Fundazioa-Euskal Abertzaletasunaren Agiritegia.

[907] GUA.

[908] GUA / AZEDB / AHPG-GPAH GEZ, 3640/68.

[909] Testigantza: *ahotsak.eus.* Sabina Azkue Fernandez: GET-010 eta 011.

[910] CDMH:DNSD-SECRETARIA,FICHERO,5,A0180054.

## 98. AZKUE IBARBIA, JUAN

Gerra hastean, EAJ-PNV-ko afiliatua izaki, ardura politikoz, Euskadiko Gudontzidiko Itsas Boluntarioen zerrendan izena eman zuen. 1937ko maiatzetik ekainera bitartean, Anthon Mari/D-16 ontzian gudari gisan parte hartu zuen. Bera Bigarren Errepublikako gobernu legitimoaren alde estatu-kolpea emandako tropa frankisten aurka borrokatzeagatik, bere emaztea Angela Iribar Areizaga, 1937ko otsailaren 13an, udaletxe frankistak Getariatik espultsatu egin zuen. Azken horrek, bere seme Joxe Azkue Iribarrekin batera, lehenik Lekeitio eta 1937ko apirilaren 26an, frankista eta alemaniarrek bonbardatutako Gernikako herriko sarraskiaren lekuko izan ziren. Haren ostean, Bilborako bidea hartu zuten, eta beste zenbait errefuxiaturen gisan, Frantzian babestu ziren. Han, Juan Azkue Ibarbia senarra eta aitarekin bizi izan ziren, basoetan lan egiten zutelarik. Frantzian 11 hilabete igaro ostean, eta familiak egindako eskaeraren ostean, udaletxe frankistak 1938ko maiatzaren 19an Getariara itzultzeko baimena eman zien. Itzultzean beren etxea beste batzuen eskuetan zegoela errekisatuta eta beste etxe batean bizitzen jarri behar izan zuten[911].

## 99. AZKUE IBARBIA, PASTOR

Gerra hastean 20 urte zituen eta soldaduska egiteko urteak zituenez, kintekin marinel eraman zuten. Jaime I. korazatuan borrokatzen egon zen. Korazatua Cartagenako portuan zegoela, 1937ko ekainaren 17an, lehertu egin zen. Bertan, beste 300 inguru borrokalarirekin batera, Pastor Azkue Ibarbia hil zen[912].

## 100. AZKUE IDIAKEZ, MIKEL

Getariar haur errefuxiatua. Bere ama Mercedes Idiakez Indo, 1937ko otsailaren 13an udaletxe frankistak Getariatik espultsatu zutenean, berarekin joan zen. Mikel Azkuek, orduan, 2 urte baino ez zituen eta Mercedes Idiakez amak, besoetan eman behar izan zuen, erbesterako bide luzean zehar. Mercedes Idiakez Indo Getariatik botatzeko arrazoi nagusitzat, frankistek adierazi zutenez, haren familia eta bera euskal nazionalista izatea eta haren senarra, Jose Domingo Azkue Uzin Euskadiko Gudontzidiko gudaria, Bigarren Errepublikako gobernu legitimoaren aurka estatu-kolpea emandako tropa frankisten aurka borrokatzen egotea izan ziren. Hala, Mikel Azkue Idiakez, haren ama Mercedes Idiazkezen besoetan, Eusko Jaurlaritzak trazatutako errefuxiatuen bideari jarraiki, Bilbora eta azkenik, Frantzian babestu zen[913].

## 101. AZKUE IRIBAR, JOXE

Getariar haur errefuxiatua. Bere ama Angela Iribar Areizagarekin batera, 1937ko otsailaren 13an udaletxe frankistak Getariatik espultsatu zuen. Horren arrazoi nagusia, bere aita Juan Azkue Ibarbia Euskadiko Gudontzidian Bigarren Errepublikako gobernu legitimoaren aurka estatu-kolpea eman zuten frankisten aurka borrokatzen egotea izan zen. Haren ostean, Lekeitiora egin zuten. 1937ko apirilaren 26an, frankista eta alemaniarrek burututako Gernikako bonbardaketaren sarraskiaren lekuko izan ziren. Haren ostean, Bilborako bidea hartu zuten, eta beste zenbait errefuxiaturen gisan, Frantzian babestu ziren. Han, Juan Azkue Ibarbia senarra eta aitarekin bizi izan ziren, basoetan lan egiten zutelarik. Frantzian 11 hilabete igaro ostean, eta familiak egindako eskaeraren ostean, udaletxe frankistak 1938ko maiatzaren 19an Getariara itzultzeko baimena eman zien. Itzultzean beren etxea beste batzuen eskuetan zegoela errekisatuta eta beste etxe batean bizitzen jarri behar izan zuten[914].

## 102. AZKUE LARRAÑAGA, ENCARNACIÓN

Emakume getariar errepresaliatua. 1940ko urriaren 8an udaletxe frankistako idazkariak, Bigarren Errepublikan zehar inongo ekintzarik ez zuela egin, baina euskal nazionalisten bozkatzailea izan zela adierazi zuen[915].

## 103. AZKUE LARRAÑAGA, FLORENCIO

Gerra hastean 24 urte zituen, nekazaria lanbidez, ezkongabea eta EAJ/PNV-ko militante politikoa izaki, ardura politikoz, kabo graduazioa lortuta, Amaiur Batailoiko 4. Konpainiako 3. Batailoian Bigarren Errepublikako gobernu legitimoaren aurka estatu-kolpea emandako tropa frankisten aurka borrokatu zuen. Frankistek Kantabrian atxilotu eta Castro Urdialeseko presoen klasifikaziorako komisioak klasifikatu eta Miranda de Eboko kontzentrazio-esparrura lekualdatu zuten. Getariako Falangeko buruzagiaren arabera ”pertenecio al partido Nacionalista Vasco alistandose voluntariamente al ejercito de dicho partido marchandose al frente”[916]. Frankistek atxilotu eta Calatayud-eko (Aragoi) 107 zenbakidun Langile Batailoian gatibu-lanak egin behar izan zituen. Bertan bere identifikazio zenbakia 331 zen. 1939ko ekainaren 25ean, Zarauzko Guardia Zibilarena aurkeztu zen, jada askata-

---

[911] AZEDB / GUA / CDMH: DNSD-SECRETARIA,FICHERO,5,A0180055 / Testigantza: Joxe Azkue Iribar / Gipuzkoako Foru Aldundia: http://www.marinavasca.eu/eu/personal.php?o=3

[912] Victoria Fernández Díaz. “El exilio de los marinos republicanos” liburuaren idazlea eta gaian aditua / GUA.

[913] CDMH:DNSD-SECRETARIA,FICHERO,5,A0180056.

[914] AZEDB / GUA / Testigantza: Joxe Azkue Iribar / Gipuzkoako Foru Aldundia: http://www.marinavasca.eu/eu/personal.php?o=3

[915] GUA.

[916] Esaldia garaiko dokumentuan zegoen gisan mantentzeko aukera egin da.

suna lortu zuenean. Askatasun hura erlatiboa zen, beste zenbait preso politikoen gisara, Getariatik Zarauzko Guardia Zibilaren komisaldegira firmatzera pasa behar izango baitzuen aldian-aldian. Gerraren eraginez, preso politikoa izan zen[917].

## 104. AZKUE LARRAÑAGA, JOSE JOAKIN

Getariar igeltseroa eta euskal nazionalista, ezkongabea. Gerra hastean, 26 urte zituen. Dokumentu frankistetan ageri zaizkigun bi aukerez, tropa frankisten atzaparretatik ihesi, 1936ko irailaren 20ko Getariako ebakuazioan, Bizkaira edo Frantziara alde egin zuen. Frantzian amaitu zuela berretsi genezake, izan ere, Iruneko mugan atxilotu eta 1940ko azaroaren 16an, 30 urte zituelarik, Miranda de Ebroko kontzentrazio-eremuan sartu zuten. Handik, 1941eko martxoaren 27an Ondarretako kartzelara lekualdatu eta hurrengo egunean, aske utzi zuten. Gerraren eraginez, preso politikoa izan zen[918].

## 105. AZKUE MARTIJA, JOSE ANTONIO

Gerra hastean 24 urte zituen eta atzeraguardiako errekete gisan jardun zuen. Errekete hauek, atzeraguardiako laboreez arduratzen ziren: zentsura, hilobiratzeak, hilketak, fronteko labore jakin batzuk baina borrokan egin gabe… Haren ostean, Zumalakarregi Tertzioko 3. Konpainian kabo gisan borrokan jardun zuen. 1937ko apirilaren 1ean Aretxabaletako frontean zauritu zuten[919].

## 106. AZKUE MARTIJA, SEBASTIAN

Gerra hastean, 22 urte zituen eta zaintzailea zen[920].

## 107. AZKUE UZIN, DIGNA

Emakume getariar errepresaliatua. Orlando kontserberan lan egiten zuen. Zenbait testigantzen arabera, herriko preso errepublikazaleei laguntza emateko diru-bilketa egiteagatik frankisten salaketa jaso zuten. Ilea moztu behar ziotela eta, krisi epileptikoak eman zion eta azkenean ez zioten moztu. Horrela, emakumeak, ezarritako ordena frankista berrian, gizonezkoaren eta estatu frankistaren menpeko objektua eta ez subjektu politiko askea izan behar zuela berretsi zuten.

## 108. AZKUE UZIN, JOSE DOMINGO

Gerra hastean, 32 urte zituen eta EAJ/PNV-ko afiliatua izaki, ardura politikoz eta marinela izanik, Euskadiko Gudontzidiko Itsas Boluntarioen zerrendan izena eman zuen. Hartaz, 1937 urtarriletik azarora bitartean, lehenik Jaimin eta haren ostean, D-22 miaketa zerbitzuko ontzietan sugin gisan, frankistak ezarritako minak desaktibatzen lan egin zuen. Frankistek, hori aitzakiatzat hartuta, bere emaztea, Mercedes Idiakez Indo[921], honakoaren ideologia nazionalista eta senarraren filiazio politikoa hartuta, 1937ko otsailaren 13an udaletxe frankistak, bere seme Mikel Azkue Idiakezekin espultsatu egin zuten. Jose Domingo Azkue Uzini dagokionez, D-22 destruktorea 1937ko urriaren 24an Arcachonen (Frantzia) babestu eta bertan gerra amaitu bitartean geratu zenez, huraxe ere Frantziara joan zela pentsa genezake. 1937ko azarora bitartean, oraindik ere, D-22 itsasontzian erroldatuta ageri zaigu, Euskadiko Gudontzidiaren esku. 1939an, destruktorea, armadoreei itzuli zitzaien[922].

## 109. AZKUE UZIN, LUZIANO

Gerra hastean, 20 urte zituen eta EAJ/PNV-ra afiliatuta izaki, Euskadiko Gudontzidiko Itsas Boluntarioen zerrendan izena eman zuen. Hartaz, 1937ko apiriletik urrira bitartean, L-3 eta Ciscar ontzietan gudari gisan jardun zuen. Tropa frankistek Iberiar Penintsulako iparraldea beraien menpe hartu ostean, muga pasatuz Frantziatik Kataluniara egin zuen. Han, Bigarren Errepublikako Itsas Armadako Libertad itsasontzian itsasoratu zen. 1939ko martxoaren 5ean Cartagenatik irten eta hilaren 11n, Bizertara (Tunisia) iritsi ziren. Han asilo politikoa eskatu ostean, tripulazioaren zati txiki bat haiek zaintzen geratu bitartean, gainontzekoak, Zebbeus-Maknassy-ko kontzentrazio-eremura eraman zituzten. Haren ostean, frankistek, itsasontziak eta tripulazioa Iberiar Penintsulara ekarri zituzten. Frankistek adostutako askatasuna eman beharrean atxilotu eta Rotako kontzentrazio-eremuan aurkitzen zen[923].

---

[917] GUA / AGMG: kaxa: 609. Esp.: 20019. / CDMH: DNSD-SECRETARIA,FICHERO,5,A0180082.

[918] GUA / AHPG-GPAH GEZ, 2851/42.

[919] AZEDB / GUA.

[920] GUA.

[921] Diario Vasco-ren arabera, 1934ko abenduaren 1ean ezkondu ziren.

[922] AZEDB / CDMH: DNSD-SECRETARIA,FICHERO,5,A0180105 / Gipuzkoako Foru Aldundia: http://www.marinavasca.eu/eu/personal.php?o=3.

[923] AZEDB/ Sabino Arana Fundazioa-Euskal Abertzaletasunaren Agiritegia / GUA / Gipuzkoako Foru Aldundia: http://www.marinavasca.eu/eu/personal.php?o=3 / Victoria Fernández Díaz. “El exilio de los marinos republicanos” liburuaren idazlea eta gaian aditua.

## 110. AZKUE UZIN, MARIA

Getariar emakume errepresaliatua. 1937ko otsailaren 13an, Jose Domingo, Luciano eta Pedro Azkue Uzin anaiak Euskadiko Gudontzidiarekin tropa frankisten aurkako borrokan zebiltzalako bere alabarekin Getariatik espultsatu zuten. 28 urte zituen eta handik Bilbora joan zen. Frankistek, emakumea, gizonezkoaren objektu gisan erreparatzen zuten eta ez subjektu politiko aske gisan[924].

## 111. AZKUE UZIN, PEDRO

Gerra hastean, EAJ/ELA-ra afiliatuta egonik, ardura politikoz, Euskadiko Gudontzidiko Itsas Boluntarioen zerrendan izena eman zuen. Hartaz, 1937ko maiatzetik irailera bitartean, D-2 eta D-20 miaketa zerbitzuko itsasontzietan gudari gisan jardun zuen. Santander ebakuatzerakoan, D-7 eta D-8-arekin batera, Pedro Azkue Uzin marinelaren D-2 ontzian ere, Ogasun Sailaren artxiboak eta euskal kutxa eta bankuetako dosituak sartu zituzten. Santanderretik, 1937ko abuztuaren 25an, La Pallicera joan zen. Pedro Azkue Uzin marinela, 1937ko irailera bitartean D-2 ontzian erroldatuta egon zenez, ontziak eginiko norabide berdina jarraitu zuela pentsa genezake. Gerra amaitu bitartean D-2 destruktorea, Rocheforten (Frantzia) babestu zen. 1939an armadoreei itzuli zitzaien[925].

## 112. AZPEITIA, FRANCISCO

Tradizionalista[926]. 1936ko irailaren 22tik 1941eko irailaren 8ra arte, Getariako udaletxe frankistako zinegotzia izan zen.

## 113. AZPEITIA BASURTO, JOSE MARIA

Getariar txikienak, agintari frankistek beren botereaz baliatuz, balio militarretan hezi zituzten. Horregatik, Jose Maria Azpeitia Basurto gerra hastean 8 urte zituena, Getariako Pelayo -en[927] zerrendan ageri da[928].

## 114. AZPEITIA BASURTO, MATEO

Getariar txikienak, agintari frankistek beren botereaz baliatuz, balio militarretan hezi zituzten. Horregatik, Mateo Azpeitia Basurto gerra hastean 14 urte zituena, Getariako Pelayo -en[929] zerrendan ageri da[930].

## 115. AZPEITIA BASURTO, QUIRINO

Getariar txikienak, agintari frankistek beren botereaz baliatuz, balio militarretan hezi zituzten. Horregatik, Quirino Azpeitia Basurto gerra hastean 10 urte zituena, Getariako Pelayo -en[931] zerrendan ageri da[932].

## 116. AZPEITIA IBARBIA, ANTONIO

Gerra hastean 27 urte zituen, ezkongabea eta mekanikoa zen. EAJ-ELA-ko afiliatua izaki, ardura politikoz, Euskadiko Gudontzidiko Itsas Boluntarioen zerrendan izena eman zuen. Gerra hasi bezain laster, Pasaiako portuan zaintza-lanak egin zituen eta hau ebakuatzean, Donostira alde egin zuen. Denboraldi batera, 1937ko apiriletik abuztura bitartean, D-17 eta Jose Luis Diez miaketa zerbitzuko itsasontzietan gudari gisan jardun zuen; armak ekarri nahi omen zituzten baina halakorik ez zuten lortu. Gudari gisa, hilean 375 pezeta kobratzen zituen. Tropa frankistek Donostia hartzean Bilbora egin zuen, hasiera batean arrantzan jardun zuen eta gero, 1936ko urrian ontzioletan lanerako hartu zuten eta martxora bitartean bertan lanean jardun zuen. haren ostean, engrasadore moduan Jose Luis Diez itsasontzian jardun zuen; beste bi hilabeteetan… Gero Eusko Jaurlaritzak aginduta Santoñan dragaminas bateko 50 tripulaziokoak atxilotu zituzten. Santoñako Hitzarmenaren ostean, 1937ko abuztuaren 26an, frankistek atxilotu eta Duesoko kartzelan preso hartu zuten. 1937ko irailaren 5ean Santoñan Gerra-Kontseilua egin eta hilaren 21ean emandako sententziarekin, 12 urte eta egun batera "matxinadari laguntzeagatik" kondenatu zuten. Hori bide, 1938ko abuztuaren 18an, Duesoko kartzelatik Puerto de Santamariakora lekualdatu zuten. Urte bereko abenduan, Huelvako Probintziako Presondegira aldatu zutelarik. 1943ko abuztuaren 4an 6 urtera kommutatu zioten bere kartzela zigorra. Gerraren eraginez, preso politikoa izan zen[933].

## 117. AZPEITIA IBARBIA, MAXIMINA

Emakume getariar errepresaliatua. 1937ko otsailaren 13an, udaletxe frankistak Getariatik bere seme Antonio Lopez Azpeitiarekin espultsatu egin zuen. Garai horretan, 32 urte zituen. Horretarako arrazoi nagusia, bere anaia Antonio Azpeitia Ibarbia Euskadiko Gudontzidian eta haren senarra, Alfonso Lopez Eusko Gudarostean Bigarren Errepublikako gobernu legitimoaren

---

924 AZEDB/ Sabino Arana Fundazioa-Euskal Abertzaletasunaren Agiritegia / CDMH:Nº. 124 Pag. 3 dia 14 de Febrero 1937.

925 AZEDB / CDMH: DNSD-SECRETARIA,FICHERO,5,A0180106.

926 GUA / Sabino Arana Fundazioa-Euskal Abertzaletasunaren Agiritegia

927 Tradizionalistek haurrak Comunión Tradicionalista-ko oinarri politiko-sozialen arabera hezteko sortutako asoziazioa.

928 GUA 93-01.

929 Tradizionalistek haurrak Comunión Tradicionalista-ko oinarri politiko-sozialen arabera hezteko sortutako asoziazioa.

930 GUA 93-01.

931 Tradizionalistek haurrak Comunión Tradicionalista-ko oinarri politiko-sozialen arabera hezteko sortutako asoziazioa.

932 GUA 93-01.

933 GUA / CDMH: DNSD-SECRETARIA,FICHERO,5,A0181696 / AZEDB / Sabino Arana Fundazioa-Euskal Abertzaletasunaren Agiritegia / Gipuzkoako Foru Aldundia: http://www.marinavasca.eu/eu/personal.php?o=3

aurkako estatu-kolpea emandako tropa frankisten aurka borrokatzen egotea izan zen. Frankistek, emakumea, gizonezkoaren objektu gisan erreparatzen zuten eta ez subjektu politiko aske gisan. Zenbait errefuxiaturen gisan, Eusko Jaurlaritzak trazatutako Bilborako eta Santanderrerako errefuxiatuen bidea egin behar izan[934].

## 118. AZPEITIA IBARGUREN, JOSE MARIA

Gerra hastean 18 urte zituen eta boluntario gisan erreketeen itsas-armadan indar-errepublikarren aurka borrokatu zuen[935].

## 119. AZPEITIA MANCISIDOR, MANUEL

Getariako okina. 1931ko apirilaren 12ko udal-hauteskundeetan, 143 botorekin ez zuen zinegotzia izatea lortu. 1934ko Ardoaren Gerran Getariako udalbatza abertzalea[936] Gipuzkoako Gobernadore Zibilak kargugabetu ostean, 1934ko irailaren 19an, Getariako udaleko zinegotzi bihurtu zen Gobernadore Zibilak hala hautatuta. 1936ko otsailean Fronte Popularrak Gorteetarako hauteskundeak irabazi ostean, udalbatza abertzalea amnistiatu eta beren karguetara itzuli ziren. Horren eraginez, Manuel Azpeitia Mancisidor-ek herritarren bozkaz hautatutakoa errespetatu eta kargua utzi beharra izan zuen[937].

## 120. AZPEITIA OIARZABAL, ANTONIO

Gerra ostean, muga zaintzeko lanetan zebilen Amerika XIX Batailoian soldadu. Makiek, Espainiar Estatuan sartu eta diktadura frankista kentzen ahalegintzeko plana burutu zuten. Azken hauek, Bigarren Mundu Gerran aliatuak lortzen ari ziren garaipena ikusita, Espainiar Estatuko faxismoarekin amaitzeko azken hauen laguntza lortuko zutela pentsatu zuten. Horregatik, Vall D'Aran beraien menpean hartzekotan, "errekonkista" prozesuari hasiera eman nahi izan zioten. 1944ko urriaren 3an plana martxan jarri zen. Haien helburu nagusia, Vall D'Aran beren menpe geratzeko, Pirinioetako gainontzeko mugatik sartualdiak egitea izan zen, muga zaintzen zeuden soldadu eta polizia despistatzeko. Haietako 100 makiek, Krutxetako (Uztarroz) muga zeharkatu eta hiru taldetan banatu ziren. Haietako multzo batek, Bidankozera egin zuen eta Ferniando eta Alzategiako mendilerroan Espainiar Estatu frankistako soldaduekin enfrentamendua izan zuten. Enfretamendu horretan, Antonio Azpeitia Oiarzabal getariarra hil zen, hain zuzen, 1944ko urriaren 5ean. Enfretamendu horretan, Antonio Azpeitia Oiarzabal getariarra hil zen, hain zuzen, 1944ko urriaren 5ean[938].

## 121. AZPEITIA OIARZABAL, JOSE MARIA

Gerra hastean 18 urte zituen eta errekete gisan indar-errepublikarren aurka boluntario gisan jardun zuen[939].

## 122. AZPEITIA OIARZABAL, MANUEL

Gerra hastean, 16 urte zituen eta errekete gisan boluntario gisan indar-errepublikarren aurka jardun zuen[940].

## 123. AZPEITIA OLASCOAGA, JUAN JOSE

Tradizionalista. F.E.T. eta J.O.N.S.-eko afiliatua, 1936ko irailaren 22tik 1941eko irailaren 8ra arte, Getariako udaletxe frankistako zinegotzia zen[941].

## 124. AZPILLAGA CABANAS, SEGUNDO

Gerra hastean, 15 urte zituen. Ez zuen gerran parte hartu eta ez zen frankisten aurkako ideologiakoa[942].

---

[934] CDMH:DNSD-SECRETARIA,FICHERO,5,A0181695 / Sabino Arana Fundazioa-Euskal Abertzaletasunaren Agiritegia.

[935] GUA.

[936] Liburuan zehar "abertzale" hitza agertzen den aldiro, euskal nazionalistei buruz ari gara.

[937] GUA / Bigarren Errepublikako Emaitzak. 1931ko Udal Hauteskundeak. https://www.euskadi.eus/informazioa/bigarren-errepublikako-emaitzak-1931ko-udal-hauteskundeak-guipuzcoa-udalerriak/web01-a2haukon/eu/

[938] AZEDB.

[939] GUA.

[940] GUA.

[941] GUA.

[942] GUA.

# B

## 125. BALENZIAGA GOIKOETXEA, BONIFACIO

Tradizionalista 1942ko uztailaren 19ra arte, udaletxe frankistako diruzaina izan zen. F.E.T. eta J.O.N.S.-era afiliatua eta administratzailea izanik, kartzelaratutako indar-errepublikarren getariar presoen inguruko deklarazioetan parte hartu zuen[943].

## 126. BALENZIAGA LILI, JULIAN

Getariarra jaiotzez, baina gerra ostean Donostian bizi zen. Arotza eta Getariako elizako organista zen; Viuda e hijos de Arruti aroztegian lan egiten zuen. Getariako irailaren 20ko ebakuazioan Frantziara ihes egin zuen. 1938ko martxoaren 10etik Ondarretako kartzelan preso aurkitzen zen. Haren aurkako salaketa Manuel Gorostiaga Getariako udaltzaingoak eta Alejo Jimeno Oses F.E.T. eta J.O.N.S.-eko buruzagariak ezarri zioten, abertzalea eta Batzokiko sozio zela, gerran zehar armak erabili eta espainiarren aurkako abestiak kantatzen zituela adieraziz. Zarauzko Guardia Zibilaren postuko Rafael Calleja komandanteak: 1936ko uztailaren 20an, Balenziaga, Zarauzko kuartelera, arma eskean joan zela adierazi zuen. 1933an errepideak eta paraje publikoak ere pintatu omen zituen aldarri euskal nazionalistekin “levantate (sic) vasco” kasu. Kantu antiespañolistak ere egiten omen zituen eta armekin ibiltzea ere egotzi zion.

1938ko apirilaren 12an Balenziagaren deklarazioa: 30 urte zituen, ezkongabea eta organista zen. Batzokiko sozioa, Eusko Alderdi Jeltzalekoa eta SOV-era afiliatuta zegoela adierazi zuen. 1936ko irailaren 20ra bitartean Getarian egon eta gero arrantza itsasontzi batean Frantziara alde egin zuen. Gerra hastean bere aitarekin arrantzara joaten zen, arrantzalea baitzen. 1936ko uztailaren 20an Antonio Alegria Getariako alkate abertzaleak, beste getariar batekin Zarauzko Guardia Zibilaren kuartelera armen bila joateko eskatu zion, anarkisten aurrean babesteko beti ere. Abuztuaren 20an Batzokiko gainontzeko afiliatuek gisan, Azpeitiako milizien komandantziara eraman zuten eta handik Herniora, oraindik ez zegoen fronterik ezarrita bertan. Handik alde egin zuen Getariara, geroago tropa frankistekin borrokan hil zen getariar batekin batera “(…) quedandose (sic) en la villa y desentendiendose (sic) de cooperar con la gentuza aquella”. Behin, getariar batzuk, bi edo hiru emakume, torpedero alemaniar batera bere lantxarekin eramateko exijituz etorri zitzaizkion moilara. Bi edo hiru egunetara miliziano batzuk hortaz ohartzean, kotxe batean sartu eta gau aldean Getariako tuneletako batean jaitsiarazi eta bere fusilamendua simulatuz interrogatorio biolentoa egin zioten alemaniarrekin nork alde egin zuten adierazteko esanaz. Haren ostean, aske utzi zuten. Etxean gordetzen zuen maleta baten inguruan ere galdetu zioten miliziano haiek. Horren eraginez, Getariako Eusko Alderdi Jeltzaletik bere afiliazioa kendu egin omen zuen. Iraila hasieran, frontetik libratzeko Ezekiel Etxaniz mediku eskuindarrak zertifikatua egitea lortu zuen. Beldurrez, kotxe batetik pistola ametraidolara bat errekisatu eta arma horrekin, Santiago Guibert falangista ingeniaria defendatu omen zuen zeina deklarazioaren momentuan Bilbon aurkitzen zen, baina gerra hastean Getarian uda pasatzen ari zen. Berak eta beste herritar batzuk gasolindegia defendatu zuten milizianoek egin zezakenaren beldur. Getariatik Donibane Lohizunera alde egin zuen eta gero Bordeaux-era joan zen, bere osabarekin lanean jardunez 1937ko maiatzera arte. Handik Baionara joan zen Juan Allende bilbotarraren eta Troncoso komandante frankistaren aginduz. Baionako portutik, gudarien eskuetan jarraitzen zuten arrantzako 8 itsasontzi Hondarribia eta Pasaiara eraman zituen. Hura Troncoso komandanteak emandako ibiltzeko baimenari esker lortu zuen. Bere aitaren itsasontziarekin eta bere lehengusu batekin Santanderren preso zeuden frankistak askatzera joateko nahia azaldu zuen. Troncoso atxilotu eta ezin izan zuen jarduera horiekin jarraitu. 1938ko otsailaren 27an Candido Galera Aranda, Gregorio Lafuente Hernandez, Alejo Jimeno Oses eta Manuel Gorostiaga Etxeberria bere etxeraino joan ziren atxilotzera. Komandantzian Getarian egoteko baimenik ba al zuen galdetu zioten eta Leon Balenziagaren dokumentu autorizatiboa erakutsi zuen zeinak 1937ko urriaren 27ko data zuen, Irungo komandante militarrak sinatuta. Handik Zarautzeko komandantzia militarrera eraman zuten Candido Galerak eta Gregorio Lafuente karabineroek. Juan Maria Arruti sarjentuari entregatu zioten atxilotua. Gudari gisan ez zela armekin ibili deklaratu zuen bere alde. Horren guztiaren eraginez, 1938ko martxoaren 10etik Ondarretako kartzelan atxilotuta aurkitzen zen eta bere kausa martxoaren 12an ireki zion Donostiako plazako 17 zenbakidun epaitegi militarrak. 1938ko ekainaren 8an karguetatik libratu eta bere etxean espetxealdi arindua betetzera derrigortu zuten. 1938ko irailaren 21ean lanera joateko baimena eman zioten, ordura arte ezin zuen halakorik gauzatu. Bere aitaren lantxa errekisatuta zuten frankistek. 1938ko irailaren 1ean berriro ere ebanista lanetara itzultzeko eskakizuna egin zuen. 1938ko azaroaren 21ean behin-betiko askatasuna lortu zuen. 1940ko martxoaren 4an, Evaristo Cocolino Alfonsorekin batera, isun bat ez ordaintzeagatik, Donostiako Zapatari kartzelan 15 egun preso pasa zituzten. 1940ko martxoaren 18an, biak aske utzi zituzten[944].

## 127. BARRENA UMEREZ, JOSEFA

Getariako kofradiako eskolako irakaslea izan zen. Tropa frankistek espedientea ireki eta ez zela haien ideologiaren aurkako konprobatu ostean, bere karguan jarraitu ahal izan zuen[945].

[943] GUA.

[944] AHPG-GPAH GEZ, 2839/56.

[945] CDMH: 32/13222.

## 128. BARRENETXEA ASTRAIN, IGNACIA

Tropa frankistak Getariara sartu bitartean irakaslea izan zen[946].

## 129. BASTERRETXEA LARRAÑAGA, MARCELINO

Gerra hastean 30 urte zituen, lanbidez arotza zen eta EAJ/PNV-ELA/STV-ko afiliatua izaki, ardura politikoz, Euskadiko Gudontzidiko Itsas Boluntarioen zerrendan izena eman zuen. Hartaz, 1937ko apiriletik azarora bitartean Euskadiko Gudontzidiko D-2, D-22 eta Ciscar miaketa zerbitzuetako ontzietan gudari gisan jardun zuen. 1937ko ekainean Bizkaiko Itsas Armadak egindako eskakizunari erantzuna emanez, Ciscar ontzian aurreko marinelak ordezkatuko zituen 100 Euskadiko Gudontzidiko gudarietatik bat izan zen. Santanderrera iristean, Bizkaiko Itsas Armadak hala aginduta, tripulazioaren 2/3-ekin batera Ciscarretik lehorreratu eta denboralditxo bat, D-22 destruktorean egin zuen, berriro ere, D-2ra itzuliz. Azken horretan egin zituen bere azken zerbitzuak eta haren norabideak argitzen digunez, Santander ebakuatzerakoan, D-7 eta D-8-arekin batera, Ogasun Sailaren artxiboak eta euskal kutxa eta bankuetako depositoak sartu zituzten. Santanderretik, 1937ko abuztuaren 25an, La Pallicera joan zen. Marcelino Basterretxea Larrañaga marinela, 1937ko azarora bitartean D-2 ontzian erroldatuta egon zenez, ontziak eginiko norabide berdina jarraitu zuela pentsa genezake. Gerra amaitu bitartean D-2 destruktorea, Rocheforten (Frantzia) babestu zen. 1939an D-2a armadoreei eman zitzaien eta Marcelino Basterretxea Larrañagaren pista bertan galtzen zaigu. Horrez guztiaz gain, ikertutako dokumentuetan, abiazio zelaian ere lanean jardun zuela adierazten zaigu[947].

## 130. BASTERRETXEA SANTAMARIA, GENARO

1931ko apirilaren 12ko udal-hauteskundeetan, 185 botorekin, Getariako lehenengo udaletxe errepublikarreko zinegotzia izatea lortu zuen. Getariako Bigarren Errepublikako azken udal-gobernuko zinegotzia izan zen[948].

## 131. BASURTO, QUIRINO

EAJ/PNV-ri bere bozka eman zion, euskal nazionalista baitzen. San Antonio Abad baporearen jabe zen, Resurrección eta Aniceto Zumeta Alberdi eskuindarrekin eta, Josefina Antonia Indo eta Maria Iruretagoiena Urbieta euskal nazionalistekin batera. San Antonio Abad ontziak, Getariako ebakuazioan lagundu eta gerran zehar, Bilboko zenbait ebakuazioetan ere lagundu zuen. Hori aitzakiatzat hartuta, Resurreción Zumeta Alberdik, baporea erreklamatu egin zuen Zarautzeko Komandantzia Militarrean, zati bat ekonomikoki berea baitzen[949].

## 132. BASURTO ALBIZU, SEVERO

Bere familia euskal nazionalista bada ere, udaletxe-frankistak egindako ikerketetan, bera ez dela frankisten aurkako inolako ideologiakoa determinatu zuten[950].

## 133. BASURTO ALTUNA, EUSEBIO

Itsas-poliziako agente getariarra. Eugenio Egurbide Azpeitiak, Getariako udaleko alkate frankistak, 1937ko azaroaren 15eko informearen bitartez, Juan Setien Calvo eta Vicente Iraundegi Ibarra getariarrekin batera, Getariako ebakuazioan, Getariako Defentsa Komiteak gordetako arma-gelatik armak atera eta udaletxean zegoen Juan Sebastian Elkanoren koadro bat lapurtzeagatik akusatu zuen. Horren eraginez, 1937ko uztailaren 1ean, Bilbon, Gerra-Kontseilua egin zioten. Eusebio Basurto Altuna, tropa frankistek estatu-kolpea eman ostean, Mutriku, Lekeitio eta Getarian egon zela eta 43 egun zerbitzurik egin gabe egon zen. Haren ostean, Bilboko Itsas Komandantzian eta itsasadarrean bertan lanean aritu zen. Aukera izan zuenean, bere buruzagi eta beste kide batzuekin batera, Donibane Lohizunera egin zuen eta handik, geroago, tropa frankisten menpean hartutako zonaldera pasatu zen. Horren eraginez, Eusebio Basurto Altuna akusazioetatik libre geratu zen[951].

## 134. BASURTO FURUNDARENA, ANTONIO (JESUS)

Gerra hastean 17 urte zituen eta EAJ/PNV-ra afiliatuta egonik, ardura politikoz, Euskadiko Gudontzidiko Itsas Boluntarioen zerrendan izena eman zuen. Hartaz, 1936ko urritik 1937ko urrira bitartean, Euskadiko Gudontzidiko Mourisca, Jaimin, L-3 eta Ciscar ontzietan gudari gisan jardun zuen. Hain zuzen, 1937ko ekainean Bizkaiko Itsas Armadak egindako eskakizunari erantzuna emanez Ciscar ontzian aurreko marinelak ordezkatuko zituen 100 Euskadiko Gudontzidiko gudarietatik bat izan zen. Bilboko

[946] GUA.

[947] GUA / CDMH: DNSD-SECRETARIA,FICHERO,6,B0036300-DNSD-SECRETARIA,FICHERO,6,B0036301. / Gipuzkoako Foru Aldundia: http://www.marinavasca.eu/eu/personal.php?o=3

[948] Aranzadi Zientzia Elkartea, op.cit., 89.or. / Bigarren Errepublikako Emaitzak. 1931ko Udal Hauteskundeak. https://www.euskadi.eus/informazioa/bigarren-errepublikako-emaitzak-1931ko-udal-hauteskundeak-guipuzcoa-udalerriak/web01-a2haukon/eu/

[949] GUA.

[950] GUA.

[951] GUA / Ipar-Mendebaldeko Eskualde Militarreko Tarteko Artxiboa, Ferrol, 107/37.

ebakuazioan zenbait errefuxiaturen babesean lan egin zuen eta Bizkaiko hiriburuaren ebakuazioaren ostean, Kantabriara egin zuen. Azkenik, Gijonera, eta hantxe, 1937ko urriaren 20 hegazkin frankistek egindako bonbardaketaren ostean, Ciscar itsasontzia hondoratu egin zen[952]. Haren ostean, frankistek atxilotu eta Teruelen Langile Batailoietan gatibu-lanak egiten aurkitzen zen 1942an[953].

## 135. BASURTO FURUNDARENA, ROMUALDO

Gerra hastean 21 urte zituen eta soldaduskan zegoen. Hain zuzen, itsas-armadan ezarri zuten eta gerra ere halaxe egin zuela pentsa genezake. Zein ontzitan jardun zuen eta horrenbestez, ezin dugu frankista ala errepublikarrekin gerran jardun zuen. Hala eta guztiz ere, 1941eko apirilaren 20an ustezko lapurreta batengatik atxilotu eta Ondarretako presondegian egon zen. 1941eko maiatzaren 8an, aske utzi zuten[954].

## 136. BASURTO OÑEDERRA, FELICIANA

Emakume getariar errepresaliatua. 1937ko otsailaren 13an, Getariako udaletxe frankistak bere Eugenio, Mari Karmen eta Cirilo Egurbide Basurto seme-alabekin batera, Getariatik espultsatu zuten. Haren arrazoitzat, Feliciana Basurtoren senarra Jose Egurbide Azpeitia (UGT) gudari gisan aritzea izan zen. Frankistek, emakumea, gizonezkoaren objektu gisan erreparatzen zuten eta ez subjektu politiko aske gisan. Feliciana Basurtok, behin Getariatik haren hiru seme-alabekin espultsatuta, Eusko Jaurlaritzak errefuxiatuentzat trazatutako Bilborako bidea egin zuen. Diktadura frankistan zehar, hark eta bere familiak frankisten errepresioa jasan beharra izan zuten[955].

## 137. BERASALUZE EGAÑA, GREGORIO

Gerra hastean Getarian bizi zen. Gerra hastean, emaztea eta haur bat zituen. Izquierda Republicana-ko[956] afiliatua izanik, ardura politikoz, Euskadiko Gudontzidiko Itsas Boluntarioen zerrendan izena eman zuen. 1936ko abendutik 1937ko azarora bitartean, Bou Bizkaia eta Ciscarren gudari gisan jardun zuen. Bou Bizkaiarekin, 1937ko martxoaren 5eko Matxitxakoko batailan, armen kargamenduarekin zetorren merkantzia-ontzia Bermeoko portuan sartzen lagundu zuen. 1937ko ekainean Bizkaiko Itsas Armadak egindako eskakizunari erantzuna emanez, Ciscar ontzian aurreko marinelak ordezkatuko zituen 100 Euskadiko Gudontzidiko gudarietatik bat izan zen. Santanderrera iristean, Bizkaiko Itsas Armadak hala aginduta, tripulazioaren 2/3-ekin batera Ciscarretik lehorreratu eta berriro ere, Bou Bizkaiako gudari izatera pasa zen. Santander frankistek menpean hartu ostean, 1937ko abuztuaren 24an, Bou Gipuzkoa eta Iparreko-Izarra[957] ontziekin batera armez kargaturik, Bou Bizkaia, Gijoneko portura joan zen. 1937ko abuztuaren 28an, Bou Bizkaia Frantziara heldu zen eta azken oroigarri gisa, Girondan sartzean, ikurrina jaso zuen. Azaroan jada, Bou Bizkaia, Antonio Fernandez Santos ontzi-tenientearen eskuetan geratu zen. 1938an, berriro ere funtzionamenduan ezartzeko planak egin zituzten, baina bertan behera geratu ziren. 1939an armadoreei itzuli eta 1966an desegin egin zuten[958].

## 138. BERASALUZE EGAÑA, ISIDRO

1912 urriaren 28an jaiotako gudari getariarra. EAJ/PNV-ra[959] afiliatuta, ardura politikoz, Euskadiko Gudontzidiko Itsas Boluntarioen zerrendan izena eman zuen. Horren eraginez, 1936ko abendutik urtarrilera bitartean Rafael Cantos miaketa-ontzian lan egin zuen. Haren ostean, urtarriletik aurrera, Mari-Toya miaketa zerbitzuko ontzira pasa zen. Bere zerbitzua betetzen zegoela, 1937ko urtarrilaren 18ko eguerdian, Punta Lucero iparraldean Mari-Toya miaketa ontziak frankisten mina bat jo, lehertu eta segituan hondoratu egin zen. Gudarietako 6 hil egin ziren; tartean, berarekin batera, Jose Antonio Zubimendi Olaskoaga gudari getariarra, Julian Sanchez Gomez ontzi-alfereza eta Manuel Basante Rodet ontziko patroia hil ziren[960].

## 139. BERASALUZE EGAÑA, PILAR

Emakume getariar errefuxiatua. 1937ko ekainaren 21ean, Renedo de Pielagos-en (Santander) aurkitzen zen[961].

---

[952] Frankistek, gerora itsasontzia hondotik atera eta haien eginkizunetarako aprobetxatu zuten.

[953] GUA / CDMH: DNSD-SECRETARIA,FICHERO,6,B0037073. / AGMG: kaxa: 660. Esp.: 22916. / Gipuzkoako Foru Aldundia: http://www.marinavasca.eu/eu/personal.php?o=3

[954] GUA / AHPG-GPAH GEZ, 2852/43.

[955] GUA / AZEDB / CDMH: DNSD-SECRETARIA,FICHERO,6,B0037087.

[956] Liburuan zehar Izquierda Republicana alderdi politikoa "IR" laburduraz adieraziko da.

[957] Honek ez zuen kargamendu militarrik eraman soinean.

[958] AZEDB / CDMH: DNSD-SECRETARIA,FICHERO,7,B0056242 / Gipuzkoako Foru Aldundia: http://www.marinavasca.eu/eu/personal.php?o=3.

[959] Ikertutako dokumentu batzuetan UGT-koa dela ageri zaigu.

[960] AZEDB / Gipuzkoako Foru Aldundia: http://www.marinavasca.eu/eu/personal.php?o=3 / GUA / CDMH:DNSD-SECRETARIA,FICHERO,7,B0056243 / AHPV.

[961] CDMH: DNSD-SECRETARIA,FICHERO,7,B0056244.

## 140. BERASALUZE ELIAS, (A) NICETO

Gerra hastean, Juventudes Socialistas Unificadas-eko afiliatua izanik, ardura politikoz, Kultura eta Kirol Batailoian jardun zuen. Getariako Defentsa Komiteko laguntzailea ere izan zen[962].

## 141. BERISTAIN GARRASTAZU, DAVID

1911n Getariako Lasalde baserrian jaioa, errementaria zen. Donostiako Antiguoko Ariceta familiarekin bere ofizioa ikasi ostean, gaur egungo Herrieta-Kalean, orduan Magallanes deiturikoan, bere tailerra ireki zuen. Gerra hastean, EAJ/PNV-ra afiliatuta egonik, ardura politikoz gerrara egin zuen. 1937ko irailaren 28an, Madrileko Valdemoroko presondegi batean hil zen. Gerraren eraginez, preso politikoa izan zen. Horren ostean, bere tailerra frankistek errekisatu egin zioten. Hasieran, Valdemoroko (Madrid) hilerrian hilobiratu zuten eta 1961eko otsailaren 25ean Erorien Haranera lekualdatu zuten. Bere ama Mikaela Garrastazu Olaskoaga Erantzukizun Politikoen Tribunalak epaitu zuen, sententzia gisa absoluzioa jasoz[963].

## 142. BORDAGARAI EIZAGIRRE, ANDRES

Gerra hastean, 20 urte zituenez (21 abuztuan egiten zituen), itsas-armadan soldaduska egiten zegoen. Indar-errepublikarren flotarekin bat egin zuen eta zein ontzietan lanean jardun zuen ez badakigu ere, Flota Errepublikarrarekin Afrikara iritsitako gudarietako bat izan zen. Han, Zebbeus-Maknassy-ko kontzentrazio-eremuan gatibu-lanak egiten egon behar izan zuen. 1939ko martxoaren 29an, Flota Errepublikarrarekin Iberiar Penintsulara egin zuen eta seguruenik, frankistek, beste zenbaitekin egin bezala, atxilotu egingo zuten. Gerraren eraginez, preso politikoa izan zen[964].

## 143. BORDAGARAI EIZAGIRRE, TORIBIO

Gerra hastean 24 urte zituen eta tropa frankistek Getariara soldaduak beraiekin borrokatzera joateko deialdian, baiezkoa eman besterik ez zuen izan. Gerran zehar, tropa frankistekin borrokatu zuen[965].

## 144. BURGAÑA ETXEBARRIA, JAIME

Gerra hastean 15 urte zituen. Eugenio Egurbide alkate frankistak eta Bonifazio Balenziagak abalatutako informean, frankisten aurkako ideologiarik ez zuela adierazi zuten[966].

## 145. BURGAÑA ETXEBARRIA, JOSE MARIA

Gerrara joana zen[967].

## 146. BURGAÑA ETXEBARRIA, JUAN

Gerra hastean 24 urte zituen eta Izquierda Republicana-ra afiliatuta egonik, ardura politikoz, Euskadiko Gudontzidiko Itsas Boluntarioen zerrendan izena eman zuen. Hartaz, 1936ko abendutik 1937ko azarora bitartean, Bou Gipuzkoa eta Ciscar destruktorean gudari gisan jardun zuen. 1937ko martxoaren 5ean, Matxitxakoko lurmuturreko batailan, Canarias gurutzaontzi frankistaren kanoikadek zauritu egin zuten. 5 hildako eta 11 zauritu gehiagorekin Bou Gipuzkoak Portugaleteko itsas-basera sutan sartzea lortu zuen. Zaurituen artean, Juan Burgaña Etxebarriarekin batera, Manuel Aranguren Iñarra, Atanasio Kamio Uzin eta Jose Maria Olaskoaga Zubimendi getariar gudariak zeuden. Errekuperatu ostean eta Bou Gipuzkoari konponketak egin ostean, beste zenbait ekintzetan ere parte hartu zuten. Esaterako, 1937ko ekainean Bizkaiko Itsas Armadak egindako eskakizunari erantzuna emanez, Ciscar ontzian aurreko marinelak ordezkatuko zituen 100 Euskadiko Gudontzidiko gudarietatik bat izan zen. Santanderrera iristean, Bizkaiko Itsas Armadak hala aginduta, tripulazioaren 2/3-ekin batera Ciscarretik lehorreratu eta berriro ere, Bou Gipuzkoako gudari izatera pasa zen. Santander frankistek menpean hartu ostean, 1937ko abuztuaren 24an, Bou Gipuzkoa armez kargaturik Gijoneko portura joan zen, Bou Bizkaia eta Iparreko-Izarra[968] ontziekin batera. 1937ko abuztuaren 28an, Bou Gipuzkoa Frantziara heldu zen eta azken oroigarri gisa, Girondan sartzean, ikurrina jaso zuen. Azaroan jada, Bou Gipuzkoa, Antonio Fernández Santos ontzi-tenientearen eskuetan geratu zen. Orduantxe, Juan Burgaña Etxebarriak bere azken zerbitzuak gudari gisan egin zituen. 1938an, berriro ere funtzionamenduan ezartzeko planak egin zituzten, baina bertan behera geratu ziren. Frantzian, bitartean, Nikasio, Cipriano eta Gerardo Kerejeta Agoterekin batera, basoetan lan egin zuen.1939an armadoreei itzuli eta 1966an desegin egin zuten. Urtebete pasa inguru, Jose Maria Burgaña BelaustegiVenezuelan errefuxiatutako Euskadiko Gudontzidiko kapitain eta idazkariarekin nahastuta, Ondarretako kartzelan preso izan zuten[969].

---

[962] AZEDB / CDMH: DNSD-SECRETARIA,FICHERO,7,B0056246.

[963] Gogora: Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutua / Gogora: Instituto de la Memoria, la Convivencia y los Derechos Humanos: David Beristain Farrastazo bezala adierazi / AZEDB / CDMH: 75/01190-75/00226 / AGUIRRE SORONDO, A. 2010. “De albeitares y herreros. Herradores de Guipuzcoa por localidades”. *Boletín de estudios históricos sobre San Sebastián*, 43. Zbk.: 243.or.

[964] GUA / Sabino Arana Fundazioa-Euskal Abertzaletasunaren Agiritegia.

[965] GUA.

[966] GUA.

[967] Testigantza: Maria Antonia Burgaña Martija.

[968] Honek ez zuen kargamendu militarrik eraman soinean.

[969] GUA / AZEDB / Testigantza: Maria Antonia Burgaña Martija / Gipuzkoako Foru Aldundia: http://www.marinavasca.eu/eu/personal.php?o=3.

## 147. BURGAÑA ETXEBARRIA, LEONCIO

1915eko ekainaren 24an Getarian jaiotako gudaria. Gerra hastean, UGT-ra afiliatuta egonagatik, ardura politikoz frontera joan zen. Frontean zela, granada baten leherketaz hil zen. Antxon Narbaizak azaltzen digunez, hileta, bere familiak hilkutxa huts eta ikurrina bat bertan ezarriz egin behar izan zion. Gudari getariarrak, 21 urte zituen hil zenean Hernaniko frontean bertan hilobiratu zutenean. Getariako gudarien artean lehena hil zena izan zen[970].

## 148. BURGAÑA ETXEBARRIA, MARIA

Errepublikazalea. Gerra hastean, haren senar Primitivo Urbieta Embilekin eta familia osoarekin batera, Laredon aurkitzen zen, han kontserbera bat baitzuten. Gerraren eraginez, Ipar Euskal Herrira erbesteratu behar izan zuen familia osoak, hain zuzen, Maria Burgaña bera errepublikazalea baitzen eta haren senarra Primitivo Urbieta errepublikazalea, Getariako udaleko zinegotzi izan zen Bigarren Errepublikan zehar.

1937ko irailaren 10ean, erbestean zeudelarik, Primitivo Urbietak Getariara itzultzeko eskaera egin zuen. Udaletxe frankistak itzultzeko baimena eman zion. Itzultzeko baldintzetako bat, beraien etxeko balkoian bandera frankista ezartzea izan zen. Getariara itzultzean, haien etxea hutsik zegoen, frankistek beren ondasunak konfiskatu zizkieten. Maria Burgañak, kalean, emakume frankistetako bat, bere etxetik lapurtutako belarritakoekin ikusi zuen eta Burgañarenak zirenez, emateko agindu zion. Emakume frankistak lapurtutakoa itzultzea beste erremediorik ez zuen izan[971].

## 149. BURGAÑA ETXEBARRIA, SALVADORA[972]

1937ko otsailaren 13an, udaletxe-frankistak Getariatik espultsatu zuen, bere alaba Benita Aranguren Burgañarekin. Bere senarra, Manuel Aranguren Iñarra (EAJ/PNV) eta haren anaia Jose Aranguren Iñarra (ELA/STV) eta, bere anaia Juan Burgaña Etxeberria (IR) Euskadiko Gudontzidiko gudariak izan ziren; bitartean, haren anaia, Leoncio Burgaña Etxeberria (UGT) Eusko Gudarosteko gudaria izan zen. Frankistek aurrekoa erabili zuten Salvadora Burgaña Etxeberria bere alaba Benitarekin Getariatik bidaltzeko arrazoi nagusi gisan. Frankistek, emakumea, gizonezkoaren objektu gisan erreparatzen zuten eta ez subjektu politiko aske gisan. Getariatik, Gernikara egin zuen eta bonbardaketaren lekuko izan zen. Handik Bilbora egin zuen eta alaba Benita gaixorik zegoen. Benita hil egin zen eta Laredon ehortzi beharra izan zuen. Tropa frankisten atzaparretatik ihesi, Frantziara iritsi zen. Han bere senarra Manuel Aranguren Iñarrarek basoetan beste zenbait marinel getariarrekin lan egin bitartean, Ignacio Maria semea jaio zen. Hura ere, handik gutxira hil egin zen. Frantziako erbestean, Salvadora Burgaña Etxeberriak, basoan lana egiten zuten gizonezkoek arropak garbitzen lan egin zuen, beste zenbait jardueren artean. Frantziako erbestetik itzuli ostean, Anuntxi eta Jose Mari anai-arrebak jaio eta Getarian hasi ziren.

# C

## 150. CALVO ARANGUREN, ANTONIO

Gerra hastean, 20 urte zituen eta soldaduska egiten ari zen. Soldaduska itsasontzian egiten ari zen eta bere itsasontzia frankisten esku geratu zen. Hartaz, gerra osoan zehar, indar-errepublikarren aurka borrokatu zuen[973].

## 151. CALVO VEGA, ANTONIO

1934an, kintetara deitzean, ez zegoen Getarian eta iheslari deklaratu zuten[974].

## 152. CAMPOS GEREKA, ANSELMO

1936ko otsailaren 23an, udaletxe errepublikarrak, familian lana egiten zuen bakarra eta ama mantentzen zuena izanik, berriro ere "prorroga" edo luzapena eman zioten. 1937ko martxoaren 13an telefonoaren brigada mugikorretik kendu zuten.

---

970 PARES / Testigantza: Anuntxi Aranguren Burgaña eta Joxe Azkue.

971 Testigantza: Ibon Urbieta.

972 Testigantza: Anuntxi Aranguren Burgaña.

973 GUA.

974 GUA.

## 153. CARAZO SAN MIGUEL, MARIA PAZ

Fernando Sánchez García maisuaren emaztea. Bigarren Errepublikan zehar, nesken irakasle nazionala izan zen. Gerra ostean, diktadura frankistan, espedientea ireki bazioten ere, frankisten ideologiaren aurkari ez adierazita, bere karguan jarraitu ahal izan zuen[975].

## 154. CASALAN RAYA, TORIBIO

Verin-goa (Ourense) jaiotzez, baina Getarian bizi zen. Maria Cruz Lopez Bendullaga-rekin ezkonduta zegoen. Gerra hastean, 36 urte zituen eta karabineroa izanik, Arantzazu-mendi itsas-presondegian lanean jardun zuen. Hori aitzakiatzat hartuta, frankistek, atxilotzean, 1940ko maiatzaren 3an egindako Gerra-Kontseiluaren ostean, "matxinadari laguntza" eskaintzea salatuta, 1940ko irailaren 23an, Madrileko Comendadores komentuko presondegian sartu zuten. Handik, 1941eko apirilaren 1ean, Palentziako presondegira lekualdatu zuten. Gerraren eraginez, preso politikoa izan zen[976].

## 155. CHARRO MARTINEZ, DOLORES

Gerra hastean, Getariako irakaslea zen eta tropa frankistak herrira sartzean, ideologia frankistaren aurkako izateagatik, agintari frankistek bere lanetik kanporatu egin zuten[977].

## 156. CHUECA, JUAN

Getariako epaile munizipala izan zen[978].

## 157. CHUECA ARAMBERRI, ANTONIO

Denda zuen eta F.E.T. eta J.O.N.S.-eko afiliatua izan zen[979].

## 158. CHUECA, DOMINGO

Getariako F.E.T. eta J.O.N.S.-eko idazkaria izan zen. Hori bide, Getariako preso errepublikazale zein euskal nazionalisten inguruko informeak egituratzen zituen Junta de Información Local-eko partaide izan zen[980].

## 159. CHUECA ARAMBERRI, ISIDRO

Getariako postaria izan zen. 1931ko apirilaren 12ko udal-hauteskundeetan, 144 botorekin, Primitivo Urbietarekin berdinduta, azken honek eraman zuen Bigarren Errepublikako Getariako lehen udal-gobernuko zinegotzi postua. Gerra osteko diktadura frankistan zehar, F.E.T. eta J.O.N.S.-era afiliatuta zegoen eta 1941eko irailaren 8tik 1945era bitartean, Getariako udal-gobernu frankistako alkateorde izendatu zuten[981].

## 160. CIBUSGAÑA ETXEBERRIA, LEON

Gerra hastean, Izquierda Republicana-ra afiliatuta, ardura politikoz, miliziano gisan indar-errepublikarrekin frankisten aurka borrokan jardun zuen[982].

## 161. CORTAZAR URRUZOLA, RAMON

Zeresan handiko arkitektoa izan zen Gipuzkoan. Bertako eraikin neoklasiko eta berritzaile gehienen eraikitzailea izan zen XIX. mende amaiera eta XX. mende hasieran. Getariako seme kuttuna izendatuta zegoen. Orduko Getariako alkateari, 1945ean, berau hiltzean haren oroigarria bidali zioten[983].

## 162. CORREA BEITIA, JOAQUINA

Pedro Lete Correa (EAJ/PNV) Euskadiko Gudontzidiko gudari getariarraren ama. 1937ko uztailaren 5ean, Guadalupe Manterola Agoteren ama Donata Agoterekin eta, Beatriz Alberdi Lazkanorekin batera, azken horren alaba Ana Mendizabal Galdos eta Guadalupe Manterola Agote, Getariara hurbildu ahal izateko eskaera egin zieten orduko udaletxe-frankistari. Azken horrek, bi emakumeak gerturatzeko baimena eman zien[984].

---

[975] GUA / CDMH: 32/13222.

[976] AZEDB / CDMH: DNSD-SECRETARIA,FICHERO,11,C0093965 / AGA.

[977] AZEDB.

[978] GUA.

[979] GUA.

[980] Ipar-Mendebaldeko Eskualde Militarreko Tarteko Artxiboa, Ferrol.

[981] GUA / CDMH: DNSD-SECRETARIA,FICHERO,14,C0231253 / 1931ko Udal Hauteskundeak. https://www.euskadi.eus/informazioa/bigarren-errepublikako-emaitzak-1931ko-udal-hauteskundeak-guipuzcoa-udalerriak/web01-a2haukon/eu/.

[982] AZEDB.

[983] GUA.

[984] GUA.

# D

## 163. DARKISTADE GARAI, ALBERTO

Gerra hastean 30 urte inguru zituen eta Santurtzin bizi zen. ELA/STV-ra afiliatuta, ardura politikoz, indar-errepublikarekin gerrara egin zuen. Horren ostean, Frantziara errefuxiatzean, Saint Cyprien kontzentrazio-eremuko 16. Zenbakiko eremuan eta Gurseko kontzentrazio-eremuko Islote A.- Bª 11.-Gº1º. Haren anaiek, Enrike, Jesus, Jose eta Gabriel Darkistade Garaik ere gerrara indar-errepublikarrekin egin zuten[985].

## 164. DARKISTADE GARAI, ENRIKE

ELA/STV-n afiliatuta izaki, ardura politikoz, Itsas Boluntarioenzerrendan izena eman ostean, lehen egitekoa Lezo Urreiztietaren Matxino ontzian arma-hornikuntzan burutu zuen. Bere egitekoa 1936ko urritik 1937ko otsailera arte luzatu zen. Abendurako, Bou Gipuzkoako sugin gisan jardun zuen eta 1937ko martxoaren 5eko Matxitxako lurmuturreko batailan borrokatu zuen. Ekainera bitartean Bou Gipuzkoako marinela izaten jarraitu zuen. 1937ko ekainean Bizkaiko Itsas Armadak egindako eskakizunari erantzuna emanez, Jose Luis Diez ontzian aurreko marinelak ordezkatuko zituen 114 Euskadiko Gudontzidiko gudarietatik bat izan zen. Santanderrera iristean, Bizkaiko Itsas Armadak hala aginduta[986], tripulazioaren 2/3 Jose Luis Diez destruktoretik jaisteko agindu zuen. Enrike Darkistade Garai, destruktorean jarraitu zuen gutxietako gudaria izan zen. Handik aurrera, destruktoreak, gehienbat, Asturias aldean zenbait jarduera bete zituen. 1937ko abuztuaren 27ko frankisten aurkako borrokan, Jose Luis Diezek 2 hildako, 6 desagertutako eta 10 zauritu (haien artean, Rafael Mentxaka bigarren ofiziala) izan zituen. Atxilotutako bi arrantza-ontziren dotazioetako 24 arrantzale ere hil ziren, Canariasen tiroak harrapatu zuen tokian baitzeuden. Darkistade ez zen hildakoa suertatu. 1937ko irailaren 31n Jose Luis Diez destruktorea Falmouthera (Ingalaterra) joan zen, Asturiaseko portuak bonbardaketen aurrean arriskutsuak izan zitezkeelakoan. Seguruenik Darkistade, Asturiasen geratu zen eta frankistek atxilotu egin zuten, bere itsas-erroldaren azken zantzua irailekoa baita. Haren anaiek, Alberto, Jesus, Jose eta Gabriel Darkistade Garaik ere gerrara indar-errepublikarrekin egin zuten[987].

## 165. DARPON MITXELENA, ENRIKE

Gerra hastean 26 urte zituen eta EAJ/PNV-ra afiliatuta, ardura politikoz, Euskadiko Gudontzidiko Itsas Boluntarioen zerrendan izena eman zuen. 1937ko urtarriletik azarora bitartean, D-11 eta D-19 destruktoreetan gudari gisan borrokan jardun zuen. 1937ko abuztuaren 25ean, D-19ak, beste zenbait euskal ontzirekin batera, La Pallicera (Frantzia) egin zuen. Enrike Darpon Mitxelenak ere Frantziako bidea egin zuela pentsa genezake, 1937ko azarora bitartean D-19an erroldatuta ageri baitzaigu[988].

## 166. DE LA HOZ KINTANA, EMILIO

Gerra hastean 23 urte zituen eta EAJ/PNV-ra afiliatuta, ardura politikoz, Euskadiko Gudontzidiko Itsas Boluntarioen zerrendan izena eman zuen. 1937ko maiatzetik abuztura bitartean, L-5 txalupan eta Jose Luis Diez destruktorean gudari gisan jardun zuen.

1937ko ekainean Bizkaiko Itsas Armadak egindako eskakizunari erantzuna emanez, Jose Luis Diez ontzian aurreko marinelak ordezkatuko zituen 114 Euskadiko Gudontzidiko gudarietatik bat izan zen. Santanderrera iristean, Bizkaiko Itsas Armadak hala aginduta, tripulazioaren 2/3 Jose Luis Diez destruktoretik jaisteko agindua eman zuen. Handik aurrera, Emilio de la Hoz Kintanak, berriro ere L-5 txalupako gudari lanetan jardun zuen. Baliteke, L-5 txalupak 1937ko abuztuaren 25ean Santanderretik La Pallicera (Frantzia) egitean, Emilio de la Hoz Kintana Santanderren atxilotuta geratzea zein La Pallicera egitea; hain zuzen, bere itsas-errolda 1937ko abuztuan bertan amaitzen baita[989].

## 167. DE LA HOZ KINTANA, EUGENIO PEDRO (PERIKO)

Gerra hastean 24 urte zituen eta Sabina Azkue Fernandez bere emaztea izan zen. EAJ/PNV-ra afiliatuta, ardura politikoz, beste 18 Getariako gazte nazionalista zein errepublikazaleekin batera, Zarauzko udaletxera egin zuen. Handik Azpeitiako komandantzia sortu berrira eraman zituzten eta han instrukzioa jaso ostean, Hernioko frontera. Gero Zarauzko Villa San Luisera bidali zuten beste 5 gudari getariarrekin batera. Zarautzetik Andatzako frontera bideratu eta hantxe borrokatu zuten. Jose Ituarte getariarra ere bertan zen. Irailaren 5ean Zarautzera itzuli ziren. Polizia lanetan jardun zuten Zarautzen. Irailaren 20an, Getariako ebakuazioan, beste gudari getariarrekin batera Mater Dolorosa ontzian Baionara egin zuen ihes. Hondarribiako Ama

---

985 AZEDB.

986 Abuztuaren 5etik Bou Gipuzkoa BIA-ren aginduetara zegoen.

987 AZEDB / CDMH:DNSD-SECRETARIA,FICHERO,14,D0001954 / Gipuzkoako Foru Aldundia: http://www.marinavasca.eu/eu/personal.php?o=3.

988 AZEDB / CDMH: DNSD-SECRETARIA,FICHERO,14,D0001951 / GUA / Gipuzkoako Foru Aldundia: http://www.marinavasca.eu/eu/personal.php?o=3

989 GUA / AZEDB / ipuzkoako Foru Aldundia: http://www.marinavasca.eu/eu/personal.php?o=3

Guadalupekoa itsasontzian, Baionatik Mundakara egin zuten gudariek, Periko de la Hoz Kintanak Eusko Jaurlaritza sortu berriko ordezkaritzari hala eskatuta. Hori egin zuten getariarrak, Pedro Ituarte, Emilio de la Hoz Kintana eta Kalixto Lekube izan ziren, lurrez Bilbora egin zuten.Carlton hotelera egin zuten Agirreri eman beharreko dokumentazioarekin. Handik berriro ere Mundakara egin zuten. Mundakatik, baporean berriro ere Santurtzirantz. Eta handik berriro 40 boluntario inguru Baionarantz eta jada bouetan itzuli ziren lehen merkantzia ontziak babesten. 1936ko abendutik 1937ko martxora bitartean, Bou Nabarrako gudaria izan zen. 1937ko martxoaren 5ean, Matxitxako lurmuturreko bataila gogor eta adoretsuaren ostean, bizirik ateratako bat izan zen. Horren ostean, Canarias gurutzaontziak erreskatatu eta Bou Nabarran bizirik ateratako gainontzeko gudariekin batera preso hartu zuten. Periko de la Hoz Kintana, bizirik geratu zen. Bou Nabarrako bizirik geratutako 20 gudariak, Canarias gurutzaontziak hartu eta Ondarretako kartzelara eraman zituzten. Hasiera batean, guztiak heriotz-zigorrera kondenatu zituzten, baina Canarias gurutzaontziko kapitain Salvador Morenok eta korbetako kapitainak Manuel Calderón deiturikoak, ahalak eta bi egin zituzten gudari haiek guztiak kartzelatik ateratzeko, gudariek erakutsitako adorea baitzuten beren memorian present. Gobernu-frankistari hainbat eskari egin ostean, heriotz-zigorra kentzea lortu zuten eta 1939ko urtarrilaren 14ko udaletxe frankistako dokumentu baten arabera, jada kartzelatik irtenda aurkitzen ziren. Gerraren eraginez, preso politikoa izan zen. Frankismoan zehar ere gudari hauei laguntzeaz arduratu ziren[990].Gerraren eraginez, preso politikoa izan zen.

## 168. DE LA HOZ KINTANA, IGNACIO

Gerra hastean 15 urte zituen. Haren ostean, Getariako udaletxe-frankistak eginiko txostenean, bere familiakoak euskal nazionalistak zirela adierazi zuten[991].

## 169. DIEZ MARTINEZ, GREGORIO

Jaiotzez, Aritzaletakoa (Nafarroa), baina Donostian bizi zen. Gervasio Oliden Zarautzeko abokatuaren txoferra izan zen. Antonio Usobiagarekin batera, Getarian 1936ko urriaren 2an fusilatu zuten. Erail zutenean, 35 urte zituen[992].

## 170. DOPORTO MARCHORI, MARIANO

Jaiotzez Caceres-ekoa, baina gerra hastean, Donostian aurkitzen zen. Igeldoko behatoki-metereologikoko zuzendaria zen. Alderdi Sozialistako izaki, gerra hastean, indar-errepublikarren zerbitzuan lan egiteko inolako arazorik ez zuen izan. Horretan, 1936ko irailaren 13an Donostia ebakuatzean, behatoki-metereologikoa egun batzuz Getarian ezarri zuten. Handik Bilbora lekualdatu eta 1937ko ekainaren 19an tropa frankistak Bizkaiko hiriburura sartzean, Santanderrera joan zen. Han zegoela, bere taldeko kide izandako eta orain Igeldoko behatoki-metereologikoko zuzendari Justiniano García Polok zenbait tresna erreklamatu zizkion. Frankisten errepresioa bere azalean bizi izan zuen. Nafarroako Erantzukizun Politikoen Auzitegiak, 1941eko irailaren 29an, Frantzian erbesteratuta zegoen bitartean, behatoki-metereologikoko materiala lapurtu egin balu bezala adierazita, 2.000 pezeta ordaintzera eta 10 urteko inhalibitaziora kondenatu zuen. Epaila ez zuen bete eta Bigarren Mundu Gerra amaitu ostean, Irlandara erbesteratu zen. Han Irlandako Estatu Libreko zerbitzu metereologikoko zuzendari izendatu zuten[993].

# E

## 171. EGAÑA ARRIZABALAGA (EDO AGIRREZABAL), BERNARDA

Denda zuen eta Justo Lopez Hernandez, bere senarrarekin batera, ideologia ezkertiarrekoak izateagatik eta eskuindarrei egindako lapurretez akusatuta, epaiketa egin zioten[994]. Bilbon errefuxiatu ziren beste horrenbeste getariarren gisan. Ondarretako kartzelatik Larrinagako kartzelara lekualdatu zituzten 1937ko abenduaren 15ean. 1938ko abenduaren 5etik aurrera, Egañak espetxealdi arindua lortu zuen eta epaitegian 1-15 egunetan agertu behar izango zuen hilero. 1939ko otsailaren 10ean behin-betiko askatasuna lortu zuten Egaña-Lopez senar-emazteek[995].

---

[990] GUA / AZEDB / Testigantza: ahotsak.eus. Sabina Azkue Fernandez / Gipuzkoako Foru Aldundia: http://www.marinavasca.eu/eu/personal.php?o=3 // Xehetasun gehiagorako ikus, NARBAIZA AZKUE, A. 2010. Periko Kintana, itsagizona eta gudaria. Itxaropena: Zarautz.

[991] GUA.

[992] AZEDB / GURRUTXAGA, A., op.cit., 29.or.

[993] Nafarroko Artxibo Irekia: ES/NA/AGN/F363/TRP_SENTENCIAS,Lb.3,N.1215.

[994] Gosea dagoenean eta biziraupenerako oinarrizkoak ez ditugunean, lapurreta egitea zilegi da, edo ez?.

[995] Ipar-Mendebaldeko Eskualde Militarreko Tarteko Artxiboa, Ferrol, 2140/37.

## 172. EGAÑA MANTEROLA, EDURNE

Bere ama, 1937ko otsailaren 13an Zumaiatik espultsatu zutenean, bere amona Donata Agote getariarraren etxea babesleku izan zuen. Diktadura frankistan zehar errepresioa jasan zuen[996].

## 173. EGAÑA MANTEROLA, MIREN

Zumaiar-getariar haur errefuxiatua. Bere ama, 1937ko otsailaren 13an Zumaiatik espultsatu zutenean, berarekin Bilbo aldera joan zen ihesi. Diktadura frankistan zehar errepresioa jasan zuen[997].

## 174. EGIBAR ARRESIGOR, NEMESIO

Gerra hastean 20 urte zituen eta JSU-ra[998] afiliatuta egonik, indar-errepublikarrekin gerrara egin zuen, Kultura eta Kirolen Batailoian[999].

## 175. EGURBIDE AZPEITIA, EUGENIO

Bigarren Errepublika herritarren boto bidez ezarri aurretik, Miguel Primo de Rivera jeneralaren diktaduran, Getariako udaletxeko alkatea izan zen. Kolpistek Bigarren Errepublikaren aurkako estatu-kolpea eman eta tropa frankistak Getariara sartzean, 1936ko irailaren 22an sortutako lehen udaletxe frankistako lehen alkateordea izan zen. Harik eta 1937ko apirilaren 11n, alkatea izatea lortu zuen. Horrez gainera, Alejo Jimeno Oses-en ostean, Getariako F.E.T. eta J.O.N.S.-eko buruzagia izan zen eta, kartzelaratutako getariar presoei buruzko zenbait informe gauzatu zituen. Informe haiek preso getariarrei kondena gogorrak ezartzeko erabili zituztelarik[1000].

## 176. EGURBIDE AZPEITIA, JOSE

1936ko maiatzetik gutxienez, UGT-ra afiliatuta zegoen eta horren eraginez, gerra hastean, Getariako Defentsa Komitearen aginduetara, 1936ko irailaren 20ra bitartean, Getaria ebakuatu bitartean, fortifikazioak egiten jardun zuen 5 zenbakidun Ingeniarien Batailoian. Horren ostean, Bilbora egin zuen eta bertan, Elorzaren aroztegian lanean jardun zuen. Tropa frankistak Bilbo beraien menpean hartzean, Santander aldera egin zuen eta han, indar-errepublikarren 5. Zenbakiko Batailoian zerrendatu zen. Frankistek 1937ko abuztuaren 26an Limpiasen (Kantabria) atxilotu bitartean, azken hauen aurka borrokan jardun zuen. Presoen Klasifikaziorako Komisioak C atalean klasifikatu zuen.1937ko urriaren 15ean Bilboko Eskolapioen kartzelan aurkitzen zen. Bere deklarazioan, Getariatik faxistak zeramatzan 5 ontzi atera zituela adierazi zuen. Fiskalak 12 urte eta egun batera kondenatzen zuen, auxilio a la rebelion egindakoa zela adieraziz. 1937ko abenduaren 3an, egindako ekintzak “matxinadari laguntza” eskaini ziola baina ez zituela maltzurkeriaz egin determinatuz, sei hilabete eta egun bateko kartzela zigorra ezarri zioten. Handik aurrera kargu publikoetan postua lortzetik ere desgaitu zuten. Gerraren eraginez, preso politikoa izan zen[1001].

## 177. EGURBIDE BASURTO, CIRILO

Getariar haur errefuxiatua. 1937ko otsailaren 13an, bere ama Feliciana Basurto Oñederra udaletxe frankistak Getariatik espultsatzean, bera, Eugenio eta Mari Karmen Egurbide Basurto amarekin batera joan beharra izan zuten. Ama Feliciana Basurto Oñederra botatzeko aitzakia nagusia, beren aita Jose Egurbide Azpeitia (UGT) gerran zehar indar-errepublikarrekin gudari gisan jardun zuela izan zen. Behin herritik kanporatuta, beste zenbait errefuxiatuk bezala, Eusko Jaurlaritzak errefuxiatuentzako trazatutako bidean Bilbo aldera egin zuten.

## 178. EGURBIDE BASURTO, EUGENIO

Getariar haur errefuxiatua. 1937ko otsailaren 13an, bere ama Feliciana Basurto Oñederra udaletxe frankistak Getariatik espultsatzean, bera, Cirilo eta Mari Karmen Egurbide Basurto amarekin batera joan beharra izan zuten. Ama Feliciana Basurto Oñederra botatzeko aitzakia nagusia, beren aita Jose Egurbide Azpeitia (UGT) gerran zehar indar-errepublikarrekin gudari gisan jardun zuela izan zen. Behin herritik kanporatuta, beste zenbait errefuxiatuk bezala, Eusko Jaurlaritzak errefuxiatuentzako trazatutako bidean Bilbo aldera egin zuten.

## 179. EGURBIDE BASURTO, MARI KARMEN

Getariar haur errefuxiatua. 1937ko otsailaren 13an, bere ama Feliciana Basurto Oñederra udaletxe frankistak Getariatik espultsatzean, bera, Cirilo eta Eugenio Egurbide Basurto amarekin batera joan beharra izan zuten. Ama Feliciana Basurto

[996] GUA.
[997] GUA.
[998] Juventudes Socialistas Unificadas.
[999] GUA / AZEDB.
[1000] GUA.
[1001] AZEDB / CDMH: DNSD-SECRETARIA,FICHERO,16,E0010320/ Ipar-Mendebaldeko Eskualde Militarreko Tarteko Artxiboa, Ferrol,1381/37.

Oñederra botatzeko aitzakia nagusia, beren aita Jose Egurbide Azpeitia (UGT) gerran zehar indar-errepublikarrekin gudari gisan jardun zuela izan zen. Behin herritik kanporatuta, beste zenbait errefuxiatuk bezala, Eusko Jaurlaritzak errefuxiatuentzako trazatutako bidean Bilbo aldera egin zuten.

## 180. EGURBIDE ISASTI, JOSE

Gerra hastean, Fronte Popularreko kidea izanik, Getariako Defentsa Komiteko Obren arduraduna izan zen. 1936ko irailaren 20an Getaria ebakuatu ostean, Eusko Gudarostearekin tropa frankisten aurka borrokan jardun zuen[1002].

## 181. EGURBIDE OIARZABAL, ISABEL

Getariar haur errefuxiatua. Bere aitaordea Eusko Gudarostearekin gerran egoteagatik, bere ama, Josefa Oiarzabal Agirre, bera eta bere anaia Andoni Arregi, 1937ko otsailaren 13an, udaletxe frankistak Getariatik espultsatu zituen. Getariatik, Leikeitiora eta handik Foruara egin zuten, zeinetan komentu batean bizitzen egon baitziren. 1937ko apirilaren 26ko Gernikako bonbardaketa frankistan ama azokan zen eta une latzak pasa zituzten, ama bizirik zegoen ala ez jakin gabe. Beste zenbait gerrako errefuxiatuk egin gisan, Bordeaux-en (Frantzia) errefuxiatu ziren hilabete batzuz. 1937ko irailaren 9rako, Josefa Oiarzabal bere bi seme-alabekin Hondarribiako Komandantzia Militarrean aurkitzen zen, beste zenbait getariarrekin batera. Bere familiak, abal baten bidez, bera eta bere seme-alabak Getariara hurbiltzeko eskaera egin zuen. Hala, Isabel Egurbide Oiarzabal Getariara iritsi zen. Bere familiak, diktadura frankistan zehar errepresioa jasan behar izan zuen[1003].

## 182. EGUZKIZA AZPEITIA, FRANCISCO

Gerra hastean 17 urte zituen eta ez zen Getarian aurkitzen, ihesi alde egin zuen[1004].

## 183. EGUZKIZA AZPEITIA, JOSE

Gerra hastean 19 urte zituen, ezkontidea Ignacia Oteiza Galdina, lanbidez erlojugilea eta Eusko Gudarosteko Prieto Batailoian tropa frankisten aurka borrokatu zuen. Eibarreko frontean zegoela desertatu eta Bilbora egin zuen. Bertan batailoiak berriro ere harrapatu eta 4 egun egin ostean alde egin zuen Karrantzara amarekin eta han harrapatu eta berriro Rasinesen (Kantabria) egon zen Prieto baitailoiarekin borrokan. Handik alde egin eta Santanderren ezkutatu zen tropa frankistak sartu bitartean. Tropa frankistei entregatzean Milicias de Falangen parte hartzeko eskaera egin zuen. 1937ko urriaren 7an, Misioneros del Corazon de Marian preso aurkitzen zen. 1941eko urriaren 20ra bitartean, 23 eta 27 zenbakidun Algeciras-eko Batailoi Diziplinatzailean gatibu-lanetan jardun behar izan zuen, soldadu lizentziatu zenera arte. Gerraren eraginez, preso politikoa izan zen[1005].

## 184. EIZAGIRRE, NIEVES

Emakume getariar errepresaliatua. 1937ko otsailaren 13an, 27 urte zituela, Getariako udaletxe frankistak bere alaba Miren Edurne Zenosiain Eizagirrekin batera, Getariatik espultsatu zituen. Horren eraginez, bere alabarekin batera, beste zenbait errefuxiaturen gisan, Eusko Jaurlaritzak errufuxiatuentzako trazatutako bidea egin zuen. Lehenik Bilbora egin zuten eta haren ostean, Santaderretik Ipar Euskal Herrira, hain zuzen, Bidartera. Han denboralditxoa egin ostean, Zumaiara joan ziren bizitzera[1006].

## 185. EIZAGIRRE BALENZIAGA, JOSE

Gerra hastean, 30 urte zituen eta txoferra zen lanbidez. Euskal Herriko ebakuazioen liburuan 1937ko martxoaren 1ean ageri da[1007].

## 186. EIZAGIRRE FERNANDEZ, JOAKIN

Gerrako testuinguruan 23 urte zituen. Lanbidez marinela zen. Flota Errepublikarrean, Katalunian, karabinero gisa jardun zuen, Valentzia eta indar-errepublikarretatik isolatutako Bartzelonako loturak egiten. Behin erbestean, Agdeko kontzentrazio-esparruan (Herault) aurkitzen zen, Beziers-eko ospitaletik pasa ostean. 1939ko apirilaren 17an, Gurseko kontzentrazio-esparrura lekualdatu eta handik espainiar estatura aberriratu zuten[1008].

---

[1002] GUA / CDMH: DNSD-SECRETARIA,FICHERO,16,E0010324.

[1003] GUA / AZEDB / Testigantza: Andoni Arregi Oiarzabal eta Isabel Egurbide Oiarzabal.

[1004] GUA.

[1005] GUA / Ipar-Mendebaldeko Eskualde Militarreko Tarteko Artxiboa, Ferrol, 1150/37 / AGMG: kaxa: 1082. Esp.: 45277 / CDMH: DNSD-SECRETARIA,FICHERO,16,E0010983.

[1006] CDMH: DNSD-SECRETARIA,FICHERO,17,E0011629.

[1007] GUA / CDMH: DNSD-SECRETARIA,FICHERO,17,E0011628.

[1008] AZEDB / Sabino Arana Fundazioa-Euskal Abertzaletasunaren Agiritegia.

## 187. EIZAGIRRE ZUBIMENDI, KARMEN

Getariar haur errefuxiatua. Bere ama Ignacia Zubimendi Larrañaga Getariako udaletxe frankistak 1937ko otsailaren 13an Getariatik espultsatu zuenean, bere sabelean zegoen. Hartaz, amak, Karmen sabelean zuela eta Miren Edurne Eizagirre Zubimendi txikia berarekin eramanez, beste zenbait errefuxiaturen gisan, Eusko Jaurlaritzak errefuxiatuentzako trazatutako bidea egin zuten. Lehenik Bilbora, eta handik, bidean aurrera eginez, Frantziara, hain zuzen, La Ferte Mace-ra (Orne) iritsi ziren. 1937ko urriaren 9ko udaletxe frankistarekin dokumentu baten arabera, oraindik ere Frantzian aurkitzen ziren. Itzultzean, hasieran, Getariara egin zuten eta bertan, aipatutako Karmen Eizagirre Zubimendi jaio zen. Handik, denboraldi batera, Zumaiara lekualdatu ziren[1009].

## 188. EIZAGIRRE ZUBIMENDI, MIREN EDURNE

Getariar haur errefuxiatua. Bere ama Ignacia Zubimendi Larrañaga Getariako udaletxe frankistak 1937ko otsailaren 13an Getariatik espultsatu zuenean, haurdun zegoen amarekin batera 2 urte eta hilabete batzuk zituela, Getariatik irten zen. Hartaz, beste zenbait errefuxiaturen gisan, Eusko Jaurlaritzak errefuxiatuentzako trazatutako bidea egin zuten. Lehenik Bilbora, eta handik, bidean aurrera eginez, Frantziara, hain zuzen, La Ferte Mace-ra (Orne) iritsi ziren. 1937ko urriaren 9ko udaletxe frankistarekin dokumentu baten arabera, oraindik ere Frantzian aurkitzen ziren. Itzultzean, hasieran, Getariara egin zuten eta bertan, Karmen Eizagirre Zubimendi Miren Edurneren ahizpa jaio zen. Handik, denboraldi batera, Zumaiara lekualdatu ziren[1010].

## 189. EMBIL, ANGEL MARIA

Getariar txikienak, agintari frankistek beren botereaz baliatuz, balio militarretan hezi zituzten. Horregatik, Angel Maria Embil, Getariako Pelayo -en[1011] zerrendan ageri da[1012].

## 190. EMBIL ETXANIZ, FRANCISCO

Gerra hastean 23 urte zituen, bere emaztea Teodora Berasategi zen eta biak Zarautzen bizi ziren, Francisco Embil getariarra izanik. Ardura politikoz, euskal milizietan izena eman zuen eta gerran zehar, Eusko Gudarosteko Diziplina Batailoian tropa frankisten aurka borrokatu zuen. Haren ostean, soldaduska ere egin behar izan zuen eta zehazki, 1943ko apirilaren 2an, Gobernadore Zibilaren aginduz, atxilotu egin zuten. Hari "actividades contrarias al orden público" delakoak egozten zizkioten eta haren ostean, 1943ko apirilaren 16an aske utzi zuten. Gerraren eraginez, preso politikoa izan eta errepresioa jasan behar izan zuen[1013].

## 191. EMBIL ETXANIZ, JOSEBE (PEPITA)

Gerra garaian, 1937ko azaroaren 8an, Donostiako Muro zapata-dendan lanean aritu zen, haren aita Arturo hil eta amak bost seme-alaba aurrera atera beharra baitzituen. 18 urte zituen eta laster, Gabriel Olaizolaren deiari men eginez, Donibane Lohizunenera egin zuen. Han, Eusko Jaurlaritzaren aginduz sortutako Eresoinka abesbatzarekin bat egin zuen. Haren helburu nagusia, garaiko Euskadi faxismoaren aurka askatasunarengatik borrokatzen ari zen herria zela ohartaraztea izan zen. Hartarako, 1937ko irailaren 22tik azaroaren 17ra bitartean110 euskal artistek entseatzen jardun zuten, guztira 43 obra euskaraz. Lehen aktuazioa, 1937ko abenduaren 18an Pariseko Pleyel aretoan estreinatu zuten. Harik eta 1939ko maiatzaren 26ko Pariseko Chiallot Teatroan eman zuten azken ikuskizunera bitartean, Amsterdam, Brusela, London, Haga, Rotterdam, Hilversum eta Europako beste hiri handi batzuetan barrena ikuskizunak egin zituzten. Haren ostean, 1940an, Josebe Embil Etxaniz, Plácido Domingo Ferrer-ekin ezkondu zen. Haien seme-alabak, Mari Pepa eta Placido Domingo hartuta, Mexikora egin zuten. Erdi- eta Hego- Abya Yalan zehar, zenbait eszenatoki ezagutu zituzten[1014].

## 192. EMBIL ETXANIZ, SEBASTIAN

Jaiotzez Cadizekoa baina gerra hastean Donostian bizi zen eta lanbidez arotza zen. Donostiatik ebakuatzean Azpeitiara egin zuen eta handik, Bilbora, Frantziara egin nahi bazuen ere. Joakin Zubiria Bilboko kartzeletako inspektore nagusiarekin hitz egin zuen eta berau Troncoso komandante frankistarekin kontaktatuta zegoen, eskuindar presoen ihesa programatzeko. Haren gomendioz eta ELA/STV-ra afiliatuta zegoela probestuz, 1936ko azaroaren 25ean, Eusko Gudarosteko Lehenago il batailoian zerrendatu eta borrokan jardun zuen, teniente gisan. 1937ko urtarrilaren 14an teniente izaki, Gorbeara egin zuen martxoaren 31 arte bertan egonez. Ordutik aurrera Zubiriarekin preso eskuindarren ihesa prestatu zuen. Hala hura prestatu ostean, Troncosorena joan eta bere agente bihurtu zuen Irungo mugan[1015]. 1938ko urtarrilaren 14an Gasteizko Presoen Komisio Klasifikatzaileak, C atalean klasifikatu zuen. Abenduaren 8an Gasteiztik Donostiako Presondegi Probintzialera lekualdatu zuten. 1939ko otsailaren 3an prebentzio-espetxe arindua ezarri zioten Ondarretako kartzelatik irtenez. 1939ko apirilaren 13an Embil eta Errandonea, 7

---

[1009] AZEDB.

[1010] AZEDB / CDMH: DNSD-SECRETARIA,FICHERO,17,E0011637 / Sabino Arana Fundazioa-Euskal Abertzaletasunaren Agiritegia.

[1011] Tradizionalistek haurrak Comunión Tradicionalista-ko oinarri politiko-sozialen arabera hezteko sortutako asoziazioa.

[1012] GUA 93-01..

[1013] GUA / AZEDB / CDMH: DNSD-SECRETARIA,FICHERO,17,E0016794 / AHPG-GPAH GEZ, 3606/7.

[1014] Sabino Arana Fundazioa-Euskal Abertzaletasunaren Agiritegia.

[1015] Hori guztia, Embilek, frankistek egindako Gerra-Kontseiluan deklaratu zuen, beraz, pentsa genezake, indar frankisten bortizkeria arintzeko deklarazioa izan zela egin zuena. Izan ere, Lenago il batailoiko teniente kargua izanik, bazekien zigor handia ezarriko ziotela.

zenbakidun Arapiles batailoira eraman zituzten soldaduska egitera. 1939ko maiatzaren 28an aske geratu zen. Gerraren eraginez, preso politikoa izan zen[1016].

## 193. ERANDEGI, JOSE

Gerra hastean, indar-errepublikarrek, Gipuzkoan armen kontrolean mobilizatu zuten[1017].

## 194. ERORKI BAKAN, ALFREDO

Gerra hastean 27 urte zituen eta indar-errepublikarren aurka, itsas armada erreketean boluntario jardun zuen[1018].

## 195. ERRAZKIN AIZPURUA, JOSE AGUSTIN

Gerra hastean 16 urte zituen. Lleidan,Langileen Infanterian, 23 Batailoian 2. Konpainian 51. Zutabean borrokatzen zauritu egin zen. Handik Avellaneseko ospitalera eraman eta 1938ko ekainaren 7an hil egin zen[1019].

## 196. ERRAZKIN AIZPURUA, JOSE MARIA

Gerran Eusko Gudarostearekin borrokatu zuen. 1938ko ekainaren 28an Prat de Compte-n (Katalunia) hil zen[1020].

## 197. ERRAZKIN AIZPURUA, JOSE MANUEL

Gerra hastean, 22 urte zituen eta EAJ/PNV-ra afiliatuta,ardura politikoz, Euskadiko Gudontzidiaren Itsas Boluntarioen zerrendan izena eman zuen. 1936ko abendutik 1937ko urrira bitartean, Bou Gipuzkoa eta C-6 itsaspeko gudari gisan jardun zuen. Hark bere lehen gudari-zerbitzuak Bou Gipuzkoan egin zituen. Esaterako, 1937ko martxoaren 5ean, Matxitxako lurmuturreko batailan parte hartu zuen eta bertan Canarias gurutzaontziaren kanoikaden aurka borrokan egin zuen. Bou Gipuzkoak, tripulazioan 5 hildakorekin eta 12 zauriturekin Portugaleteko Itsas-Basera sutan sartu zen. Zaurituen artean, Atanasio Kamio Uzin, Juan Burgaña Etxebarria, Manuel Aranguren Iñarra eta Jose Maria Olaskoaga Zubimendi getariar gudariak zeuden.Jose Maria Errazkin Aizpuru ez zen zauritu, baina martxoaren 23an, gripearengatik hilabete inguru Club Deportivo-ko ospitalean egon zen. Errekuperatu ostean, 1937ko maiatzean, C-6 itsaspeko errepublikarrera pasa zen, hango komandanteak Euskadiko Gudontzidiara hala eskatuta. Izan ere, ez zen bere tripulazioaz fio eta euskaldunez fio zen. Ekainaren 9an Bilboko portutik irten eta hilaren 20an, bere torpedoekin Cervera gurutzaontzia eraso zuen, emaitzarik lortu gabe; hurrengo egunean Santanderrera itzuli zen. Balentria hori erakutsi ostean, C-6 itsaspekoko Ivan Alekseievich Burmistrov korbeta-kapitain sobietarra Bizkaiko Itsasoko Itsaspekoen buru izendatu zuten. Santanderreko ebakuazioan, C-6 itsaspekoak sobietar aholkulariak eraman zituen. 1937ko uztailaren 24an ere, Baleares ontzi frankistaren kontra torpedoak bota zituen eta, 1937ko urriaren 15ean berriz, Jupiterren aurka. Ez bazion bietako inori ere eman, haien balentria eredugarria izan zen. Urriaren 19an, 150 kg-ko bonba bat jaurti eta guztiz txikituta geratu zen. L-1 txalupak atoia hartu eta Torres (Astuarias) lurmuturrera eraman zuen; tropa frankistek bereganatu ez zezaten urriaren 20an guztiz txikitu zuten. Haren tripulazioa, 3 zenbakiko torpederora lekualdatu zuten. Jose Maria Errazkin Aizpururen azken pista urrian dugu, bere itsas-errolda C-6 itsaspekoan ezarrita, data horretan amaitzen baita. Beraz, pentsa genezake, seguruenik 3 zenbakiko torpederora aldatu zela haren ostean[1021].

## 198. ERRAZKIN AIZPURUA, MARIA FRANCISCA

Bigarren Errepublikan zehar, Emakume Abertzale Batzako kide izan zen. Frankistek, emakumea, gizonezkoaren objektu gisan erreparatzen zuten eta ez subjektu politiko aske gisan. Horren eraginez, diktadura frankistan zehar errepresioa jasan behar izan zuen.

## 199. ERRAZKIN AIZPURUA, MARI LUISA

Bigarren Errepublikan zehar, Emakume Abertzale Batzako kide izan zen. Frankistek, emakumea, gizonezkoaren objektu gisan erreparatzen zuten eta ez subjektu politiko aske gisan. Horren eraginez, diktadura frankistan zehar errepresioa jasan behar izan zuen.

---

[1016] Ipar-Mendebaldeko Eskualde Militarreko Tarteko Artxiboa, Ferrol, 12592.

[1017] AZEDB.

[1018] GUA.

[1019] GUA / Gogora: Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutua / Gogora: Instituto de la Memoria, la Convivencia y los Derechos Humanos / Testigantza: Jose Mari, Mari Isabel eta Mari Karmen Ezenarro Errazkin. / Testigantza: Floren Iribar.

[1020] GUA / Gogora: Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutua / Gogora: Instituto de la Memoria, la Convivencia y los Derechos Humanos. / Testigantza: Jose Mari, Mari Isabel eta Mari Karmen Ezenarro Errazkin. / Testigantza: Floren Iribar.

[1021] AZEDB / GUA / Testigantza: Jose Mari, Mari Isabel eta Mari Karmen Ezenarro Errazkin / Gipuzkoako Foru-Aldundia: http://www.marinavasca.eu/eu/personal.php?o=3

## 200. ERRAZKIN AIZPURUA, RICARDO

Gerra hastean 26 urte zituen eta ardura politikoz, Eusko Gudarosteko milizietan izena eman zuen. Gerran zehar, Eusko Gudarosteko Montaña 2 Batailoian tropa frankisten aurka borrokatu zuen[1022].

## 201. ESNAL, KANDIDO

Getariako Defentsa Komiteko kideetako bat izan zen[1023].

## 202. ESNAL AGOTE, JESUS

27 urte gudari getariarra. Gerra hastean, Izquierda Republicanara afiliatuta, ardura politikoz, gerrara joan zen. 1936ko urriaren 5an frontean zela zauritu egin zen. Handik, Durangoko ospitalera eraman zuten eta bertan hil zen, balek eragindako zauriak larriak baitziren. Bere gorpua Durangoko hilerrian enterratu zuten[1024].

## 203. ESNAL AGOTE, LUIS

Gerra hastean 25 urte zituen eta EAJ/PNV-ko[1025] afiliatua izanik, ardura politikoz, Euskadiko Gudontzidiko Itsas Boluntarioen zerrendan izena eman zuen. 1936ko abendutik 1937ko azarora bitartean Bou Bizkaia eta Jose Luis Diez destruktorean gudari gisan jardun zuen. Bou Bizkaiarekin, 1937ko martxoaren 5eko Matxitxakoko batailan, armen kargamenduarekin zetorren Yorbrook merkantzia-ontzia Bermeoko portuan sartzen lagundu zuen. 1937ko ekainean Bizkaiko Itsas Armadak egindako eskakizunari erantzuna emanez, Jose Luis Diez destruktorean aurreko marinelak ordezkatuko zituen 114 Euskadiko Gudontzidiko gudarietatik bat izan zen. Santanderrera iristean, Bizkaiko Itsas Armadak hala aginduta, tripulazioaren 2/3-ekin batera Jose Luis Diezetik lehorreratu eta berriro ere, Bou Bizkaiako gudari izatera pasa zen. Santander frankistek menpean hartu ostean, 1937ko abuztuaren 24an, Bou Gipuzkoa eta Iparreko-Izarra[1026] ontziekin batera armez kargaturik, Bou Bizkaia, Gijoneko portura joan zen. 1937ko abuztuaren 28an, Bou Bizkaia Frantziara heldu zen eta azken oroigarri gisa, Girondan sartzean, ikurrina jaso zuen. Azaroan jada, Bou Bizkaia, Antonio Fernandez Santos ontzi-tenientearen eskuetan geratu zen. Luis Esnal Agote Frantziara iritsi zela pentsa genezake, bere itsas-errolda 1937ko azarora bitartekoa baita. 1938an, berriro ere funtzionamenduan ezartzeko planak egin zituzten, baina bertan behera geratu ziren. 1939an armadoreei itzuli eta 1966an desegin egin zuten[1027].

## 204. ESNAL IBARBIA, JOSE REGINO

Frankista izaki, Picamendi baserriko bizilagun honek, indar-errepublikarreko presoen inguruko txostenak egin zituen[1028].

## 205. ESNAL OSTOLAZA, BERNARDINO

Gerra hastean 20 urte zituen eta indar-errepublikarren aurka, Zumalakarregi Tertzioko infanterian borrokatu zuen. 1941eko irailaren 20tik aurrera, Meaga auzoko alkate izendatu zuten[1029].

## 206. ESNAL OSTOLAZA, JOSE MARIA

Gerra hastean 22 urte zituen eta indar-errepublikarren aurka, errekete boluntario gisan jardun zuen[1030].

## 207. ESTEBANEZ ZAMONA, ANGEL

Gerra hastean, 24 urte zituen eta ez zekiten non aurkitzen zen. Seguruenik, ihes egin zuen[1031].

## 208. ESTEBEZ ONDATEGI, VICTOR

Gerra hastean, UGT-ko afiliatua izaki, ardura politikoz, Gipuzkoan indar-errepublikarren armen kontrolean mobilizatu zen. Gerraren ostean, Kataluniatik Le Boulou-era egin zuen. 1939ko otsailaren 17an, Argelès-eko kontzentrazio-eremuan zegoen eta

1022 AZEDB / GUA / CDMH: DNSD-SECRETARIA,FICHERO,17,E0021745.

1023 GUA.

1024 AZEDB / AHPV / CDMH: DNSD-SECRETARIA,FICHERO,17,E0031868.

1025 Ikertutako iturri batzuek UGT-koa zela argitzen dute.

1026 Honek ez zuen kargamendu militarrik eraman soinean.

1027 GUA / AZEDB / CDMH: DNSD-SECRETARIA,FICHERO,17,E0031869; DNSD-SECRETARIA,FICHERO,17,E0031870/ Gipuzkoako Foru Aldundia: http://www.marinavasca.eu/eu/personal.php?o=3.

1028 GUA.

1029 GUA.

1030 GUA.

1031 GUA.

haren ostean, Gurs-eko kontzentrazio-eremuko Islote A. Bª 19.-Gª-4º-an aurkitzen zen. Gerraren eraginez soldadu mutilatua zen. Preso politikoa izan zen[1032].

## 209. ETXABE FURUNDARENA, DIONISIO

Gerra hastean 26 urte zituen eta indar-errepublikarren aurka, erreketeen itsasontzietan boluntario gisan jardun zuen[1033].

## 210. ETXABE MANTEROLA, JOSE MIGUEL

1941eko apirilaren 23an lapurretagatik atxilotu eta hiru egunera aske utzi zuten. Genaro Uzin Esnal eta Rafael Iturzaeta Gezalaga getariarrekin bertan preso egon zen[1034].

## 211. ETXANIZ ITXASO, DOMINGO

Denda zuen eta diktadura frankistan zehar, F.E.T. eta J.O.N.S.-eko afiliatua izan zen. 1936ko irailaren 22an osatutako lehen udaletxe frankistako bigarren alkateordea izan zen 1937ko apirilaren 11 bitartean[1035].

## 212. ETXANIZ ITXASO, EZEKIEL

Gerra hastean 28 urte zituen eta medikua zen. Getariara tropa frankistak sartu baino lehen, euskal nazionalista aitortua, Getariako Defentsa Komiteari zenbait zerbitzu egin zizkion. Tropa frankistak herrira sartu ostean, gerran zehar, Oriamendi Tertzioko Teniente Mediku lanetan jardun zuen[1036].

## 213. ETXEBARRIA BERRIO, CONCEPCIÓN

44 urte zituela 1937. urtean, Santanderren aurkitzen zen[1037].

## 214. ETXEBARRIA BERRIO, FRANCISCA

Gerraren eraginez, 25 urterekin, 1938an, Bartzelonan errefuxiatuta zegoen[1038].

## 215. ETXEBARRIA BERRIO, ISIDRO

Gerra hastean 16 urte zituen eta ez zekiten non zegoen[1039].

## 216. ETXEBARRIA BERRIO, JUAN

Gerraren eraginez, Bartzelonara errefuxiatu zen[1040].

## 217. ETXEBARRIA BERRIO, MARIA TERESA

Bilbon itsasontzi ingeles batean ebakuatua izan zen[1041].

## 218. ETXEBARRIA BERRIO, RAMON

Ermuan jaio zen eta tratularia zen. Gerra hastean 28 urte zituen eta Santanderreko frontean borrokatzen desagertu egin zen[1042].

## 219. ETXEBE AIZPURUA, HILARIO

Diktadura frankistan zehar, haren aurkako ideologiakoa zela determinatuta, errepresioa jasan behar izan zuen. Esaterako, Gabietan zuen txara eta mahastia Getariako udaletxe frankistak errekisatu egin zizkion[1043].

---

1032 AZEDB.
1033 GUA.
1034 AHPG-GPAH GEZ.
1035 GUA.
1036 GUA.
1037 CDMH: DNSD-SECRETARIA,FICHERO,16,E0004148.
1038 AZEDB / CDMH: DNSD-SECRETARIA,FICHERO,16,E0004149.
1039 GUA.
1040 AZEDB.
1041 CDMH: DNSD-SECRETARIA,FICHERO,16,E0004150.
1042 CDMH: DNSD-SECRETARIA,FICHERO,16,E0004151.
1043 GUA / AZEDB.

## 220. ETXEBERRIA ERKIZIA, JOSE MARIA

Gerra hastean 19 urte zituen eta Tertzio Lacar-en tropa frankistekin indar-errepublikarren aurka borrokan jardun zuen[1044].

## 221. ETXEBERRIA GORRITI, ISABEL

1915eko urtarrilaren 15ean Donostian jaioa. Prim kalekoa. Euskaltzalea eta katalanista. Ama, Lorenza Gorriti Olaizola, Arroakoa, Cruz Venta etxekoa. Aita, Debakoa, baina Donostian bizi izan zen urte askoz. Aita, Jose Antonio Etxeberria Rementeria, Gipuzkoako Diputazioko delineatzailea zen eta Ramon Cortazar Urruzola arkitektoaren laguntzailea izan zen. Arroako Cruz Venta "posada"-n elkar ezagutu zuten, Etxeberria delineatzaileak, Arroako "kamineroen" etxea egiten ari zela Cruz Ventan hartu baitzuen ostatu. Hala, 1905eko urriaren 27an ezkondu eta Donostiara bizitzera joan ziren. Han, bost haur izan zituzten: hiru neskato (Benita, Maria Teresa eta Isabel) eta bi mutiko (Juan eta Modesto). Haietako bat, Isabel Etxeberria Gorriti izan zen.

Haurra zela, eskola ezberdinetan ikasi zuen eta Teresiana mojetan ikasi zuenean, azal koloreko mediarik ez zietela janzten uzten gogoratzen da. Bigarren Errepublika aldarrikatzean 16 urte zituen eta haren ospakizunean parte hartu zuen, beste horrenbeste donostiarrek egin gisan. Garai berriak, garai hobeak ate joka zetozen. Garai berri eta beraz, garaiko sozietatean zegoen pobreziaren sendagaietako bat alfabetizazioa eta jakintza izan zitekeelakoan, magisteritzako ikasketak egin zituen, zientzietan espezializatuta. Bigarren Errepublika garaian, hezkuntza erreformak ekarritako hobekuntzen jakitun eta erabiltzaile izan zen. Hala, hezkuntza erreformak ezarritako pedagogia berritzailearen jasotzaile izan zen eta hark emandako bi promozioetan azkenaren parte izan zen. Madrileko "Instituto de Libre Enseñanza"-n ere ikasia.

Gerrak eztanda egin baino lehen, 1935eko urriaren 18an, irakasle gisan praktiketan zegoelarik, langile baten soldata kobratzen zuelarik, Quintanilla de la Riberan (Araba) bere lehen haurrekin irakasle lanetan jardun zuen. Behin gerra hastean, Quintanilla de la Riberan (Araba) depuratu eta Getariara lekualdatu zuten, 1937ko irailaren 11n. Bertara iristean, Getarian miseria eta pobrezia handia zegoela gogoratzen du. Haren lankidea izandako Joxepa-rekin ere oraindik gogoratzen da. Arrantzaleen kostaldeko herritxoan, 1939ko irailaren 15era bitartean kofradiako eskolan irakasle gisan jardun zuen. Gerra amaitu eta gutxira, haren postutik kendu eta haren tokian, frankistekin soldadu ibilitako bat ezarri zuten. Berriro ere espultsatua egin zuten, beraz.

Handik 1939ko irailaren 17an, Gabiriara lekualdatu zuten, han zenbait urtez egon zen, 1943ko abenduaren 31ara bitartean. Han bazuen anekdotarik. Noizean behin, eskoletatik inspektoreak pasatzen ziren, guztia gobernu frankistak agindu bezala zegoela konprobatzeko. Egun horietako batean, inspektoretako batek, bere ikasle Mirentxu Muruari, "Ave Maria" esateko agindu zion eta hark bai egin ere, euskara garbian. Hark hartu zuen amorrurik hura ez zela egin behar zuen hizkuntzan egin, alegia gaztelaniaz egin. Amorru hark Isabel Etxeberria Gorritiren espedientean utzi zuen arrastorik. Hala, 1943an gobernu frankistak irakasleak postuetan kokatzeko egindako konkurtsoaren ostean, Isabel Etxeberriak egindako aukeren artetik, 1943ko abenduaren 4an, gaur egun bizi den Gironako herritxo arrantzalean, Llançan lortu zuen bere irakasle postua. 1944ko urtarrilaren 1ean klasea ematen hasi zen. Llançara iristean, herritarrek bizitako gosetea gogoan du. Herri oso errepublikazalea izan zen Llança, gehiengoa nekazari eta arrantzaleak ziren, Mediterraneoko Getaria izan zitekeen. Bertan 1980ko ekainaren 30ean jubilatu zenera arte eman zituen klaseak. Herrian, hondartzan bainatzen zen bakarra zela kontatu digu, garairako nahikoa bazen. Bigarren Errepublikako hezkuntza erreformarengatik bere promoziko irakasleei "paga" bat egokitzen bazitzaien ere, ez zitzaien behin ere heldu, gobernu frankistak hura kendu baitzuen. Hala eta guztiz ere, Donostian ikasitako zenbait irakaslek, haien artean Isabel Etxeberria Gorritik ahalak eta bi egin zituzten "paga" hura lortzeko. Kasua epaietara eraman zuten, galdu bazuten ere, sententzia 1968ko apirilaren 13an atera zietelarik.

Isabel Etxeberria Gorritiren senarra, Miguel Fa Caula, Extremadurako kontzentrazio-eremuan egon zen, gerrara 16 urte zituela joan baitzen. Haren ostean soldaduska egin behar izan zuen eta zazpi urte Kataluniatik kanpo egin ostean, Llançara itzuli zen. Haren aita, Diego Fa Feliu ere, bere semea kontzentrazio-eremutik Llança-ra (Girona) itzultzean, kartzelan aurkitzen zen. Diego Fa Feliu, zinegotzi errepublikazalea izateagatik heriotz-zigorrera kondenatuta egon zen, baina bere semearen laguntzagatik, kartzelatik irtetea lortu zuen[1045].

## 222. ETXEGOIEN, FERMINA

Bigarren Errepublikako gobernu legitimoaren alde tropa frankisten aurka frontean borrokatu zuen.

## 223. ETXEZARRETA BERASALUZE, EMILIO

Euskal nazionalista izanda ere, gerra ostean, Getariako Casa Albergue-ko atezaina zen eta baita, Arrantzaleen Kofradiako idazkaria ere. Euskal nazionalista zela aitzakiatzat hartuta, Resurrección Zumeta Alberdi eskuindar eta Getariako epaile munizipalak haren aurkako txostena egin zuen[1046].

## 224. EZENARRO AZKUE, (JOSE) JOAKIN

Pilotaria zen eta gerra hastean, Bartzelonan aurkitzen zen beste 20 pilotarirekin batera hara joanak baitziren. Haien artean, getariarrak hiru eta gainontzekoak, Elgoibarrekoak, Azkoitiakoak… ziren. Bartzelonan gerrak eztanda egitean, EAJ/PNV-koa izanik,

---

[1044] GUA.

[1045] Testigantza: Isabel Etxeberria Gorriti / Dokumentazioa: Isabel Etxeberria Gorriti / PARES.

[1046] GUA.

indar-errepublikarrekin bat egin eta beraiekin borrokan tropa frankisten aurka jardun zuen. Mezulari lanak eginez gerran jardun zuen. Bartzelonan zeudenean, Madrileko gobernadorea izan zen Jesus Aranburu Olaran mediku zestoarra, garai hartan, Bartzelonan ikasten zegoen eta kolpisten aldekoa izanik, Joakin Ezenarro Azkue eta ingurukoen artean babestu zen[1047].

### 225. EZEIZA, PRISCA

Leoncio Ugarte Getariako herriko medikuaren emaztea eta Carmen Ugarte Ezeizaren ama[1048].

# F

### 226. FEO ALFONSO, MIGUEL

41 urteko telegrafista falangista debarra. Milizianoek arma-tiroz hil zuten. 1936ko irailean, bi zestoarrek, Donostia-Bilbo errepidearen 35. Kilometroan, itsasertzeko arroketan aurkitu zuten[1049].

### 227. FURUNDARENA AGIRREBENGOA, AGUSTIN

Gerra hastean, ELA/STV-ra afiliatuta, ardura politikoz, Euskadiko Gudontzidiko Itsas Boluntarioen zerrendan izena eman zuen. 1936ko irailetik, seguruenik Mourisca ontzia Donostiako ebakuaziotik gudarien bi konpainiekin Getariara iritsi zenetik bertako gudari gisan jardun zuen. Bertan, kostako edo kabotajeko patroi lanak, hau da, 1. Mailako patroi gisan jardun zuen. Mouriscan Agustin Furundarena Agirrebengoak eta gainontzeko gudariek (horien artean, Jose Urresti Andonegi getariarra zegoen), Bilbo eta Baiona arteko komunikazio eta garraio zerbitzua egin zuten. Posta ofiziala eramateaz, hornigai-txikiak eramateaz… arduratu ziren. 1937ko urtarrilaren 31n, George Steer kazetari britainiarra Baionara eraman zuten. Bilbo ebakuatzean Baionan zegoen eta gerra amaitu bitartean bertan geratu zen. Hala, Agustin Furundarena Agirrebengoaren itsas-erroldan 1937ko azarora bitartean Mouriscan zerrendatuta agertzen denez, Frantziara joan zela pentsa genezake. 1939an ontzia armadoreei itzuli zieten[1050].

### 228. FURUNDARENA AGIRREBENGOA, PRUDENCIO

Gerra hastean, EAJ/PNV-ko afiliatua izanik, ardura politikoz, Eusko Gudarosteko Saseta Batailoian tropa frankisten aurka borrokatu zuen[1051].

# G

### 229. GALDOS AZPEITIA, JUAN JOSE

Getariarra, gerra hastean, Robla (Leon)-Bilbo trenbideko igeltseroa zen. EAJ/PNV eta ELA/STV-ra afiliatuta zegoen. Gerraren eraginez preso politikoa izan zen eta Bilboko Plazako epaiteagian Gerra-Kontseilua egin zioten. 1937ko abuztuaren 12an hasita, 661 zenbakidun gerrako auditorian, 7 zenbakidun Epaitegi Militarrean epaitu zuten. 1937ko abuztuaren 12an “sobreseimiento de la causa” adierazi zuten. 1943ko azaroaren 29an, oraindik ere askatasuna lortzeko tramiteak jarraitzen zuten[1052].

[1047] Ahozko testigantza.
[1048] GUA.
[1049] CDMH: FC-CAUSA_GENERAL,1334,Exp.11.
[1050] AZEDB / CDMH: DNSD-SECRETARIA,FICHERO,21,F0143424 / Gipuzkoako Foru-Aldundia: http://www.marinavasca.eu/eu/personal.php?o=3.
[1051] AZEDB / CDMH: DNSD-SECRETARIA,FICHERO,21,F0143425.
[1052] CDMH: DNSD-SECRETARIA,FICHERO,22,G0008604 / Ipar-Mendebaldeko Eskualde Militarreko Tarteko Artxiboa, Ferrol, 661/37.

## 230. GALDOS LANDA, CASILDO

1939ko azaroaren 20an Eugenio Egurbide Azpeitia alkate frankistak sinatutako dokumentuaren arabera, ez zen frankisten aurkakoa, baina indar-errepublikarren aldeko guardia lanen bat burutu omen zuen; nahiz eta orduan gazte guztiei agintzen omen zien berretsi. Gerraren eraginez, preso politikoa izan zen eta Gerra-Kontseilua egin zioten. Gerra-Kontseiluko bere deklarazioaren arabera, Getariako kaian bi guardia egin zituen ehiza eskopetarekin, beti ere, gainontzeko getariarren gisan Getariako Defentsa Komiteak hala derrigortu zuela adieraziz. 1936ko irailaren 20ko ebakuazioan Getariatik alde egin zuen tropa frankistak egiten ari ziren ankerkerien beldur, Pont Saint Esprit-en (Okzitania) erbesteratu zen. Handik, Maria Etxeberria donostiarraren diruarekin Getariara itzultzea adosten ari zen. Hartan zebilela ordea, Gobernu Frantsesak bere lurraldetik espultsatu eta handik, 1937ko urriaren 7an, Estatu Espainiarreko Ingeniarien Kuartelera bideratu zuten; haren ostean Itsas-Komandantziara eta azkenik, Artilleria astuneko hiru zenbakiko errejimendura bideratu zuten, zeinetan Gerra-Kontseilua egin zioten. Eugenio Egurbide Getariako alkate frankistaren, Zarautzeko Komandante Militarraren Getariako delegazioaren eta Alejo Jimeno Oses Getariako F.E.T. eta J.O.N.S-eko buruzagiaren arabera Frantziara “se supone lo haria (sic) por el pánico que infundian los rojos”. 1938ko otsailaren 5ean, Ansanigo-ko (Huesca) Artileriako Parkean aurkitzen zen[1053].

## 231. GARATE, AGUSTINA

Bigarren Errepublikan zehar, Meagaseko eskola pribatu mistoko irakaslea izan zen[1054].

## 232. GARCIA AZPILLAGA, ENRIKE

Jaiotzez getariarra, baina gerra hastean 7 urte Aian bertan bizitzen zeramatzan. Ile-apaintzailea zen eta 19 urterekin, Eusko Gudarosteko Saseta Batailoian ametrailadoretan tropa frankisten aurka borrokan jardun zuen, Gipuzkoa, Bizkaia eta Santanderren. Tropa frankistek Santanderren atxilotu eta Santoñako presoen klasifikatzeko komisioak, 1937ko urriaren 25ean, Miranda de Ebroko kontzentrazio-esparrura lekualdatu zuen. Handik, 1937ko azaroaren 6an, 34 zenbakidun Langile Batailoian gatibu-lanak egitera kondenatu zuten.1941eko irailaren 4an, Sondikako (Bizkaia) 30 zenbakidun Soldaduen Diziplinatze Batailoian gatibu-lanetara kondenatu zuten. 1943ko urtarrilean, infanteriako soldadu izendatu zuten. Urte bereko uztailetik azaroaren 30era bitartean, infanteriako 2 zenbakidun soldadu “con disponibilidad” izatera pasatu zen.Horrez guztiaz gainera, bere aita Angel Garcia Altuna mikeleteen kaboa ere preso zuen. Gerraren eraginez, preso politikoa izan zen eta Langile Batailoietan gatibu-lanak egiten jardun behar izan zuen[1055].

## 233. GARCIA AZPILLAGA, JUAN

Jaiotzez getariarra, baina gerra hastean 7 urte Aian bizitzen zeramatzan. Pilotaria zen eta 21 urterekin, Eusko Gudarosteko Saseta Batailoian tropa frankisten aurka borrokan jardun zuen. Gerraren eraginez, preso politikoa izan zen. Gerra-Kontseilua egin zioten eta bertan zenbait guardia lan egitea egotzi zioten; beti ere, marxistek agindutakoari men egin ziola berretsiz[1056].

## 234. GARMENDIA LAZKANO, AGUSTINA

Bere anaia Eusebio Garmendia Lazkano eta haren senarra izango zena Jose Urresti Andonegi Euskadiko Gudontzidiko gudariak eta hura desegin ostean, Flota Errepublikarreko gudariak izan ziren. Jose Urresti Andonegi bizirik iritsi bazen ere, Eusebio Garmendia Lazkano 1940-1941ean, Ain-Sefra-ko ospitalean oso gaixorik hil egin zen. Bitartean, Agustina Garmendia Lazkanok Getarian geratu behar izan zuen. 12 urterako Orlando fabrikan lanean hasita zegoen. 30-35 urte inguru zituenean arrandegia jarri zuen[1057].

## 235. GARMENDIA LAZKANO, EUSEBIO

Gerra hastean, 17 urte zituen eta, marinel getariarra eta ELA/STV sindikatuko afiliatua izanik, ardura politikoz, Euskadiko Gudontzidiko Itsas Boluntarioen zerrendan izena eman zuen. 1937ko martxotik apirilera bitartean, Jaimin destruktorean borrokatu zuen. Handik, 1937ko apiriletik ekainera bitartean, geroago lehertuta hondoratutako D-17 miaketa ontzian lanean jardun zuen. Ekainetik urrira bitartean, Ciscar destruktorean ontziratu zen eta geroago, data zehatzik ez daukagun arren, Ulloa ontzira lekualdatu zuten. 1940-1941ean, Kenadsako ikatz minetan (Argelia) gatibu-lanetan eduki zuten beste errepublikarrekin batera, kondizio tamalgarrietan. 1940-1941ean, Ain-Sefra-ko ospitalean oso gaixorik hil egin zen. Gerraren eraginez, preso politikoa izan zen[1058].

---

[1053] GUA / Ipar-Mendebaldeko Eskualde Militarreko Tarteko Artxiboa, Ferrol, 1816.

[1054] GUA.

[1055] GUA / AZEDB / AGMG: kaxa: 1289. Esp.: 56546. / SANZ GOIKOETXEA, E., op.cit., 107.or.

[1056] GUA / CDMH: DNSD-SECRETARIA,FICHERO,23,G0051266 / AZEDB / Ipar-Mendebaldeko Eskualde Militarreko Tarteko Artxiboa, Ferrol, 2041/39. / SANZ GOIKOETXEA, E., op.cit., 107.or.

[1057] AZEDB / Sabino Arana Fundazioa-Euskal Abertzaletasunaren Agiritegia / Gipuzkoako Foru Aldundia: http://www.marinavasca.eu/eu/personal.php?o=3 / Victoria Fernández Díaz. “El exilio de los marinos republicanos” liburuaren idazlea eta gaian aditua / Testigantza: Eusebio Urresti Garmendia eta Bautista eta Jose Angel Kerejeta Urresti.

[1058] AZEDB / Sabino Arana Fundazioa-Euskal Abertzaletasunaren Agiritegia / Gipuzkoako Foru Aldundia: http://www.marinavasca.eu/eu/personal.php?o=3 / Victoria Fernández Díaz. “El exilio de los marinos republicanos” liburuaren idazlea eta gaian aditua.

## 236. GARRASTAZU ARANGUREN, JUAN (IGNACIO)

Soldaduska Afrikan egin zuen. Gerra hastean 22 urte zituen eta indar-errepublikarren aurka, errekete boluntario gisan jardun zuen[1059].

## 237. GARRASTAZU ARANGUREN, RAMON

Gerran tropa frankistekin borrokan egiteagatik, haren ordaintzan “Medalla Pensionada” delakoa lortu zuen[1060].

## 238. GARRASTAZU ARRUTI, ANTONIO

Gerra hastean, 31 urte zituen Igarategi baserriko gazteak. Izquierda Republicana-ko eta UGT-koa afiliatua izanik, ardura politikoz, Gipuzkoako Komandantziaren menpeko milizietan tropa frankisten aurkako borrokan parte hartu zuen. 1943ko ekainaren 7an, Zarautzeko Komandantziako Guardia Zibilak aginduta atxilotu egin zuten, Miguel Iñarra Etxabe eta Francisco Sorazu Furundarenarekin batera. Ordura arte, Frantzian ihes eginda egon ziren. Haiek atxilotzeko agindua, Emilio Vadillo Salazar *cabo de la ciento trece comandancia rural de la guardia civil y en la actualidad prestando sus servicios en el puesto de Zarauz* izenekoak eman zuen. Marciano Herrero Bajo eta segundos Jose Plaza Giner eta Jose Gonzalez Pereñarekin joan zen Getariara hirurak atxilotzera.Marciano Herrero eta Jose Gonzalez Azkizuko Amezketa baserrian arakatzera joateko eta bera, Igarategira Jose Plaza Ginerrekin begiratzera joango zela adostu zuten. Azken horretan Garrastazu Igarategikoa eta Iñarra kaletarra ezkutatuta zeuden. Amezketa baserritik Sorazu atxilotu eta hirurak Zarauzko komandantziara preso eraman zituzten. Garrastazuren deklarazioa, ezkondua eta 38 urtekoa, lanbidez okina: gerra hasi eta hiru egunetara bere eskopeta errepublikazaleek errekisatu egin zioten. Hura entregatzera zihoala Jesus Esnal eta Silvestre Isastirekin (Venezuelan azken hau) aurkitu omen zen eta txakolina edatera inbitatu omen zuten. Behin mozkortuta, Donostira eraman omen zuten. Han Hotel Maria Cristinari eraso egitera eraman zuten beraiek emandako arma zahar batekin. Baina kamioitik Maria Kristina hotelera iritsi baino lehen alde egin omen zuen. Handik Getariara itzuli eta 12 egunean mahantsondoetan lanean jardun zuen. Orduan alkate zen Antonio Alegriak, Getariako Komiteko Kandido Esnalek eta Bartolome delakoak arma eman eta Alejo Jimeno Iturregi baserritik atxilotzeko agindua eman omen zioten, baina azken hau han ez omen zen aurkitzen. Handik Hernanira joan zen eta gero irailaren 10ean itzuli omen ziren. Getariako ebakuazioan Frantziara alde egin zuen itsasontzian eta bertan egon zen 1943ko maiatzaren 31ra bitartean. Ez zela inongo alderdietara afiliatutakoa adierazi zuen. Baionan okin gisan lanean aritu zen 16 hilabetez Kanbon, Irigoienen etxean eta bertan Juana Ecidi Garay Panamakoarekin ezkondu eta bi haur izan zituen zeina Kanbon zegoen une hartan. Bere familiarrei beste seme bat izan zuela eta bere anaiari aitabitxia izateko proposatzera joan zen Getariara. 1943ko ekainaren 1ean irten zuten Kanbotik, muga Ezpeletatik zeharkatuz eta ekainaren 5ean Getariara iritsiz. Muga pasatzea klandestinoki, alemaniarrek muga pasatzen uzten ez zietelako egin zutela berretsi zuen[1061].

## 239. GARRASTAZU ARRUTI, J. IGNACIO

Gerra hastean 25 urte zituen eta indar-errepublikarren aurka, errekete boluntario gisan jardun zuen[1062].

## 240. GARRASTAZU ARRUTI, JOSE MARIA

Gerra hastean, adingabea izanik, Milizia Tradizionalistekin indar-errepublikarren aurka gerran borrokatu zuen. Gerran zehar, Getariako zenbait herritarrek homosexuala zela salatu eta Zarauzko Komandantziak atxilotu eta galdeketa luzea egin zion. Galdeketa horretako getariarren deklarazioetan, eraso homofoboen zantzu argiak errepara genitzake. Horrezaz gain, Zarauzko Komandante Militarraren aurkako jarrerak izateagatik salatu zuten[1063].

## 241. GARRASTAZU OLASKOAGA, JOSE

Gerra hastean, Izquierda Republicana-ko afiliatua izanik, ardura politikoz, bere alderdiko miliziekin tropa frankisten aurka borrokatu zuen[1064].

## 242. GARRASTAZU OLASKOAGA, MIKAELA

Emakume getariar errepresaliatua. Gerra ostean Erantzukizun Politikoen Tribunal Nazionalak epaitu egin zuen, baina indultatu egin zuen. Bere semea David Beristain Garrastazu, EAJ-ko militantea izaki, gerrara egin zuen. Frankistek atxilotu ostean egin zuten. 1937ko irailaren 28an, Madrileko Valdemoroko presondegi batean hil zen[1065].

---

[1059] GUA.

[1060] GUA.

[1061] GUA / CDMH: DNSD-SECRETARIA,FICHERO,25,G0140795; DNSD-SECRETARIA,FICHERO,25,G0140796 / AHPG-GPAH GEZ, 3598/34/ Ipar-Mendebaldeko Eskualde Militarreko Tarteko Artxiboa, Ferrol, 810/43.

[1062] GUA.

[1063] GUA.

[1064] AZEDB.

[1065] CDMH: 75/00226.

## 243. GAZTAÑAGA SAN SEBASTIAN, JOSE

1931ko urtarrilaren 31tik 1942ko abendura bitartean, Getariako udal-idazkaria izan zen. Aurretik Idiazabalen udal-idazkaria izana zen. Eskuineko alderdien bozkaitzaile izanik, gerra ostean, ez zuen inolako errepresiorik jasan behar izan. Diktadura frankistan zehar, hilean 5.000 pezeta kobratzen zituen, gutxi gorabehera. F.E.T. eta J.O.N.S.-era afiliatuta, getariar presoen txostenak egiten jardun zuen[1066].

## 244. GESALAGA ARRIOLA, JOSE

Gerra hastean, EAJ/PNV-ko afiliatua izanik, ardura politikoz, Eusko Gudarosteko Saseta Batailoian tropa frankisten aurka borrokatu zuen. Haren ostean, Frantziara erbesteratu zen eta kontzentrazio-eremuan egon behar izan zuen[1067].

## 245. GIBERT EZEIZA, MARCELO

1892an jaioa, Getarian bizi zen. Lanbidez arkitektoa zen. Bigarren Errepublikan zehar, Azpeitiako udal-arkitektoa izan zen. 1938tik aurrera Azpeitian tropa frankistetan hildakoen omenez egindako monumentu eta mausoleoaren eraikuntzaz arduratu zen[1068].

## 246. GIBERT TOBAR, JOSE ANTONIO

Gerra hastean 15 urte zituen eta indar-errepublikarren aurka, erreketeen itsas-armadan boluntario gisan jardun zuen[1069].

## 247. GOICOECHEA IDIAQUEZ, JOSE AGUSTIN

Lanbidez marinela, ideologiaz tradizionalista eta, F.E.T. eta J.O.N.S.-eko afiliatua zen. 1937ko apirilaren 10ean Gobernuko Delegatu Ignacio Urkijo deiturikoak osatutako udaletxe frankistako zinegotzia izan zen. 1941eko irailaren 8ra arte zinegotzi postuan mantendu zen. Gerran zehar indar-errepublikarren alde jardundako preso kartzelaratuen txostenak eta abalak egin zituen[1070].

## 248. GOMEZ DIAZ, RAMON

Getariako bigarren jagolea[1071].

## 249. GOROSTEGI, IGNACIO

Erreketea[1072].

## 250. GOROSTIAGA ETXEBERRIA, MANUEL “PIARRES”

1924tik aurrera Getariako aguazila izan zen. Bigarren Errepublikan zehar ere Getariako aguazila zen eta diktadura frankistan ere halaxe izaten jarraitu zuen. Elkanoren lehorreratzean, Juan Sebastian Elkanoren papera egiten zuen, 1922an lehenengoz gauzatu zuelarik. Estropadetan ere jardun zuen, Donostiako kontxan 1916, 1917 eta 1918 urteetan lehiatuz. 1937ko otsailaren 13an zenbait emakume beraien etxeetatik bidaltzeko abisua ematera joan zen. Ikertu ahal izan dugunaren arabera, Julian Balenziaga Lili eta Calisto Lekube euskal nazionalistak salatu eta haien inguruko deklarazioetan parte hartu zuen, besteak beste. Junta Local de Información-eko bokala izanik, Getariako errepublikazale zein nazionalisten inguruko informeak eta bigilantzia gauzatzeaz arduratu zen[1073].

## 251. GOROSTIDI LARUNBIDE, FRANCISCO

Gerra hastean 19 urte zituen eta indar-errepublikarren aurka, errekete boluntario gisan jardun zuen[1074].

---

[1066] GUA / Gaceta de Madrid, 34. Zenbakia, 1931ko otsailaren 3a, 613.or.
[1067] AZEDB / CDMH: DNSD-SECRETARIA,FICHERO,26,G0153170.
[1068] BUCES CABELLO, J., op.cit., 85.or.
[1069] GUA.
[1070] GUA / Sabino Arana Fundazioa-Euskal Abertzaletasunaren Agiritegia.
[1071] AZEDB.
[1072] GUA.
[1073] GUA / Sabino Arana Fundazioa-Euskal Abertzaletasunaren Agiritegia.
[1074] GUA.

# H

## 252. HUEGUN HUEGUN, JOSE MARIA

Jaiotzez donostiarra, 1939ko abenduaren 12an Getarian fusilatu zuten. 32 urte zituen erail zutenean[1075].

# I

## 253. IBAÑEZ ORUETA, JOSE LINO

1940ko kintakoa, ez zekiten non zegoen. Seguruenik, ihes egin zuen[1076].

## 254. IBARBIA SUBIÑAS, FRANCISCO

Aita Antonio eta ama Leone. Gerra hastean 16 urte zituen. Udaletxe frankistak eginiko txostenetan, bere familia ideologia euskal nazionalistakoa zela adierazi zuten. Gerran zehar ez zuela inongo parte hartzerik izan determinatu zuten[1077].

## 255. IBARBIA SUBIÑAS, JOSE

Aita Antonio eta ama Leone. Gerra hastean 17 urte zituen eta ELA/STV-ra afiliatuta, ardura politikoz, Euskadiko Gudontzidiko Itsas Boluntarioen zerrendan izena eman zuen. 1937ko apiriletik irailera bitartean, L-2 eta L-6 txalupetan gudari gisan jardun zuen. L-2 txalupa, 1937ko ekainaren 13an hegazkin frankistek Bilbo bonbardatu ostean oso hondatuta geratu zen. Horren eraginez, Jose Ibarbia Subiñas eta bere kideak, L-6 txalupara gudari gisan jarraitzera pasa ziren. 1937ko ekainaren 24an Laredotik EAJ/PNV-ko ordezkaritzarekin eta Andres Atela bertako komandante postuan ezarrita, L-6 Algortara irten zen, Italiar Estatu Nagusiko ordezkariekin bildu eta Santoñako Itunaren inguruko elkarrizketa izateko. Ezin genezake guztiz berretsi Jose Ibarbia Subiñas txalupan bertan egon zen ala ez, baliteke oraindik, kontsultatutako datuen arabera, L-2 txalupan egon izana. 1937ko abuztuaren 14an, Tomas Kamio Uzin, D-17an zauritu zenean, Jose Ibarbia Subiñas eta haren kideek L-6 txalupan hartu eta ahal bezain laster Santoñara eraman zuten. Tomas Kamio Uzinen zauriak hain larriak izanik ezin izan zuten ezer egin; segituan hil egin zen. Hala eta guztiz ere, jarduera horretan, gerra osoan gisan, gudariek beren kidea salbatzeko erakutsitako elkartasuna goraipatzekoa izan zen. 1937ko abuztuaren 25ean, L-6 ontziak ere, beste zenbaitekin batera, La Pallicera (Frantzia) egin zuen. Jose Ibarbia Subiñas gudari getariarrak ere hala eginen zuela pentsa genezake, 1937ko irailera bitartean, L-6an erroldatuta egon baitzen[1078].

## 256. IBARGUREN LARRAÑAGA, ANGEL

Gerra hastean 22 urte zituen eta indar-errepublikarren aurka, errekete boluntario gisan jardun zuen[1079].

## 257. IDIAKEZ INDO, CECILIO

Carmen Uranga Olaskoagarekin ezkonduta zegoen eta hiru seme-alaba Jose Maria, Angela eta Mari Karmen deiturikoak zituzten. EAJ/PNV-ra afiliatuta, 1931ko apirilaren 12an ospatutako udal-hauteskundeen ostean, lehen udaletxe errepublikarreko zinegotzia bilakatu zen, 183 boto bere alde zituelarik. Getariako Bigarren Errepublikako azken udal-gobernuko zinegotzia izan zen. Erantzukizun Politikoen Tribunal Nazionalaren bidez, Getariako udaletxe frankistak, gerra ostean, Elkano kaleko 28. Zenbakiko etxebizitza errekisatu egin zion. 1939ko urriaren 8an Frantzian erbestean aurkitzen zen, bere emazteak, Carmen Uranga Olaskoagak, lehenengoa eta haren anaia Jose Domingo Uranga Olaskoaga Frantziatik aberriratzeko egindako eskaera dokumentuaren arabera[1080].

---

[1075] AZEDB.

[1076] GUA.

[1077] GUA.

[1078] GUA / AZEDB / CDMH: DNSD-SECRETARIA,FICHERO,32,I0004953 / Gipuzkoako Foru Aldundia: http://www.marinavasca.eu/eu/personal.php?o=3.

[1079] GUA.

[1080] GUA / CDMH: 75/00451 / AZEDB / Aranzadi Zientzia Elkartea, op.cit., 89.or. / Bigarren Errepublikako Emaitzak. 1931ko Udal Hauteskundeak. https://www.euskadi.eus/informazioa/bigarren-errepublikako-emaitzak-1931ko-udal-hauteskundeak-guipuzcoa-udalerriak/web01-a2haukon/eu/.

## 258. IDIAKEZ INDO, FRANCISCO

Lanbidez arotza zen.1932ko otsailaren 12an Ciriciaco Gatzaga errepublikazalea hil zuen, azken horrek egindako mehatxuen babesean. Kondenatu eta kartzela-zigorra bete behar izan zuen, 1934ko irailaren 22an karguetatik absolbitu eta aske geratu zen (ikus 2.kapitulua). Gerra hastean 27 urte zituen eta EAJ/PNV-ko afiliatua izanik, ardura politikoz, Eusko Gudarosteko Amaiur Batailoiarekin tropa frankisten aurka borrokan jardun zuen, sarjentu postua lortu zuelarik. Frankistek, Santanderren atxilotu zuten. Bigarren Errepublikan zehar eta gerraren eraginez, preso politikoa izan zen[1081].

## 259. IDIAKEZ INDO, MARIA

Getariar emakume errepresaliatua. Emakume Abertzale Batzan afiliatuta zegoen. Gerra hastean Hernanin bizi zen eta bertatik espultsatu zuten. Modesto Santamaria Etxeberriarekin ezkonduta zegoen eta 11 urteko Vicente semearekin batera alde egin zuen. Santamariak gerran zehar osasun anbulantzian lanean jardun zuen. Beste zenbait errefuxiaturen gisan, Eusko Jaurlaritzak trazatutako erbesterako bidea egin behar izan zuen. Azkenean, Ipar Euskal Herriko Hendaian bere semearekin eta senarrarekin bizitzen geratu zen[1082].

## 260. IDIAKEZ INDO, MERCEDES

Getariar emakume errepresaliatua. 1937ko otsailaren 13an, udaletxe frankistak, Getariatik espultsatu zuen bere seme Mikel Azkue Idiakezekin batera. Hori egiteko arrazoi nagusitzat, bere familia eta bera euskal nazionalista izatea eta haren senarra, Jose Domingo Azkue Uzin, Euskadiko Gudontzidian Bigarren Errepublikako gobernu legitimoaren aurkako estatu-kolpea emandako tropa frankisten aurka borrokatzen jardutea izan zen. Frankistek, emakumea, gizonezkoaren objektu gisan erreparatzen zuten eta ez subjektu politiko aske gisan. Hala, errefuxiatu gehienen gisan, Eusko Jaurlaritzak trazatutako bidea jarraitu zuen, Bilbora eta geroago, Frantzian babestu zelarik[1083].

## 261. IDIAKEZ INDO, “REMI”

Getariar emakume errepresaliatua. 1937ko otsailaren 13an, Getariako udaletxe frankistak Getariatik espultsatu egin zuen. Bere bi alaba Arantza eta Kontxita Oiarzabal Idiakez hartu eta Agurne Getarian amonarekin utzi zuen. Horren aitzakia, bere senarra Juan Bautista Oiarzabal Agirre mikeletea, gerran, indar-errepublikarrekin tropa frankisten aurka borrokatzen egotea eta familia euskal nazionalista izatea izan zen. Frankistek, emakumea, gizonezkoaren objektu gisan erreparatzen zuten eta ez subjektu politiko aske gisan. Frankistek euskal nazionalista gisan kalifikatu izanak, Getariatik kanporatzeko aitzakia bikaina izatea eragin zuen. Horren eraginez, beste zenbait errefuxiaturen gisan, Eusko Jaurlaritzak trazatutako erbesterako bidea egin behar izan zuten. Getariatik Foruara egin zuten, Josefa Oiarzabal Agirre koinatarekin eta haren, Isabel Egurbide eta Andoni Arregi seme-alabekin batera bertako komentuan egon ziren. 1937ko apirilaren 26ko Gernikako bonbardaketa bertatik bertara bizi izan zuten. Bilbora iristean, Idiakeztarrei, bankuaren jabetzako jauregia eman zieten, ate-zaindari eta guzti. Eibarretik, Getariatik eta Hernanitik espultsatutako lau ahizpak etxe horretan bizitzen egon ziren. Bere senarra, bitartean, Bilboko mikeleteen kolegioan zegoen eta Kontxita Oiarzabalek bisitak egiten zizkion, aldian aldiko. Bilbon, haurrak eskolara ere joaten ziren. Bidean aurrera, azkenean Frantziara iritsi eta Normandian kokatu zituzten. Bertan, Josefa Oiarzabal Agirre eta haren seme-alabekin batera, guztiak, txalet batean bizitzen egon ziren. Bien bitartean, Isabel Egurbide eta Kontxita Oiarzabal lehengusinak, esne-saltzaile batengana joan eta hark, jogurt eta gazta ematen zizkien. 1937ko irailaren 9an, Hondarribiako Komandantzia Militarrean aurkitzen ziren ezin irtenda, Josefa Oiarzabal bere seme-alabekin eta “Remi” Idiakez Indo bere alabekin. Haien familiak hala eskatuta, Getariako udaletxe-frankistak handik Getariara etortzeko baimena eman zien. Getariara itzultzean, “Remi” Idiakez Indo eta haren senarra Juan Bautista Oiarzabal Agirrek beren etxea frankistek errekisatuta izaki, beste etxe bat alokatu beharra izan zuten. Diktadura frankistan zehar ere, familia osoaren gisan, “Remik” ere, euskal nazionalista izateagatik, errepresioa jasan behar izan zuen[1084].

## 262. ILLARRAMENDI ARAKISTAIN, JOSE

57 zenbakiko bateriako artileroa zen. Seguruenik gerraren eraginez, 1939ko irailaren 4an Burgoseko ospitalean aurkitzen zen. Handik Donostiako ospitale batera lekualdatzeko eskatu zuen[1085].

## 263. ILLARRAMENDI ARAKISTAIN, JOSE ANTONIO

1909ko martxoaren 18an jaio zen, lanbidez ebanista zen, ezkongabea eta indar-errepublikarrekin tropa frankisten aurka borrokan jardun zuen. Frankistek atxilotu eta 1 zenbakidun Langile Batailoian gatibu-lanak egin behar izan zituen[1086].

---

[1081] GUA / AZEDB / CDMH: DNSD-SECRETARIA,FICHERO,32,I0008803 / ROQUERO USSÍA, M.R. 2013. “El caso Idiakez: lengua, prensa y política en la II República”. *Boletín de estudios históricos sobre San Sebastián,* 46: 479-527.

[1082] CDMH: DNSD-SECRETARIA,FICHERO,32,I0008804; DNSD-SECRETARIA,FICHERO,32,I0008805. / Testigantza: Kontxita Oiarzabal Idiakez.

[1083] AZEDB / GUA / CDMH: DNSD-SECRETARIA,FICHERO,32,I0008806.

[1084] AZEDB / GUA / Sabino Arana Fundazioa-Euskal Abertzaletasunaren Agiritegia / Testigantza: Kontxita Oiarzabal Idiakez.

[1085] GUA.

[1086] GUA / AGMG: kaxa: 1571. Esp.: 73438.

## 264. ILLARRAMENDI ARAKISTAIN, DONATO

Gerra hastean 18 urte zituen eta tropa frankistekin indar-errepublikarren aurka borrokatu zuen. Horren konpentsazio gisara, bere 10 zenbakiko infanteriako erregimenduak diruz konpentsatu zuen[1087].

## 265. ILLARRAMENDI GALDOS, PAULINA

Bere alaba[1088] Frantziara erbesteratu zen bere alabetako batekin eta bestea Paulina Illarramendiren esku utzi zuen. Alabak, kontsulatuaren bidez, Getarian geratutako alaba hara eramateko adierazi zuen. Hartaz, amona Paulina Illarramendi Galdos berarekin batera Frantziara joan zen eta 1937ko azaroaren 30ean Frantzian aurkitzen zen[1089].

## 266. INCHAURRANDIETA ARRECHE, LUIS "TXAPO"

Gerra hastean, 31 urte zituen Lezoko apaizak. Getarian bizi izan zen eta gerran zehar apaiz errekete gisan Bigarren Errepublikako gobernu legitimoaren indarren aurka borrokan jardun zuen. 1936ko urriaren 10ean, Oriamendi Tertzioko alferez izendatu zuten. Diktadura frankistan zehar, zenbait getariarri errepresio bortitza eragin zien eta gerran zehar zenbait fusilatze ere agindu zituen, Leon Urtiaga Elezburu "Aita Roman" karmeldar apaiz eta zaldibiarrarena kasu. Fusilatzeko pelotoiko buru, Inchaurrandietak sarjentu ezberdinen laguntzaz, 1937ko maiatzaren 19an Larrea komentuko paretan (Etxano) hil zuen. "Ahora bien, en esta ejecución hubo algo excepcional que retrata a una parte del clero que apoyó a los 'nacionales', tan ordenados y tan patriotas: el pelotón de ejecución lo mandó el capellán del Tercio de Oriamendi, don Luis Inchaurrandieta, que tenía grado de alférez, quien primero confesó al padre Román y después dio la voz de fuego y también el tiro de gracia. Eran las 12:15 del 19 de mayo de 1937. Servicios del alférez-capellán que al triunfo de Franco se le pagaron con la parroquia de Guetaria"[1090].1942an iritsi zen Getariara eta bere anaia eta aita errepublikazaleek hil zituzten; hiru edo lau urte egin ostean hil omen zen. San Salvador elizako gurutzea txukuntzen eta apaintzen ari zela, hura gainera erori eta hil egin zen[1091].

## 267. INDO, JOSEFINA ANTONIA

EAJ/PNV-ri bere bozka eman zion, euskal nazionalista baitzen. San Antonio Abad baporearen jabe zen, Resurrección eta Aniceto Zumeta Alberdi eskuindarrekin eta, Maria Iruretagoiena Urbieta eta Quirino Basurto euskal nazionalistekin batera. San Antonio Abad ontziak, Getariako ebakuazioan lagundu eta gerran zehar, Bilboko zenbait ebakuazioetan ere lagundu zuen. Hori aitzakiatzat hartuta, Resurreción Zumeta Alberdik, baporea erreklamatu egin zuen Zarautzeko Komandantzia Militarrean, zati bat ekonomikoki berea baitzen[1092].

## 268. INTXAURRONDO DANBOLENA, EUGENIO

Gerra hastean, Eusko Gudarosteko Lenago il bigarren Batailoiko 66 zenbakian tropa frankisten aurka borrokatu zuen. 1938ko maiatzaren 21ean atxilotuta ageri zaigu eta handik 8 egunera aske utzi zuten[1093].

## 269. INTXAURRONDO DANBOLENA, MARTIN HILARIO

1896ko urtarrilaren 14an Berastegin (Gipuzkoa) jaio zen. Haren gurasoak, Josefa Antonia Danbolena Esnaola eta Martin Intxaurrondo Olaetxea ziren. Lanbidez gidaria zen eta gerra hastean, Pasaian bizi zen. 1936ko urrian, bere emazte eta hiru seme-alabekin, Eusko Jaurlaritzako Gizarteko Laguntza Sailari ostatua eta hornigaien eskaera egin zion. Eusko Gudarosteko Larrañaga Bataloiko (Alderdi Komunista) gudaria izan zen. Frankistek Gijonen (Asturias) preso hartu eta 1938ko ekainaren 10era bitartean, San Pedro de Cardeña-ko (Burgos) kontzentrazio-eremuan atxilotuta izan zuten. Egun horretatik aurrera, 138. Zenbakidun Langile Batailoian gatibu lanetan jardun zuen. Hartan zebilela, 1938ko uztailaren 10ean Guadalajarako ospitalean sartu zuten, bere egoera tamalgarria medio. 1939ko abuztuan oraindik ere ospitalean jarraitzen zuen. 1939ko azaroaren 30ean hil zela agertzen du Guadalajarako ospitaleko agirietan, Quinto de Ebron (Zaragoza). Quinto de Ebrotik, 19 pertsona Erorien Haranera hilobiratzera eraman ziren, baina oraindik ere ezin izan da frogatu ea bertan hilobiratua izan zen[1094].

## 270. IÑARRA, FRANCISCO

Errepideko brigadako langilea zen. Euskal nazionalista ELA/STV-ra afiliatua eta Eusko Alderdi Jeltzalearen bozkatzailea izan arren, gerran zehar ez zuen parte hartzerik izan. Bi seme ditu, eta haietako batek miliziano gisan gerran tropa frankisten aurka jardun zuen[1095].

---

[1087] GUA.
[1088] Ez dakigu zehazki zein zen Paulina Illarramendiren alaba.
[1089] GUA.
[1090] DE MORA VAQUERIZO, J.M. 2001. Los muertos estaban quietos. Universidad Autónoma de México: México, 91.or.
[1091] GUA.
[1092] GUA.
[1093] AZEDB.
[1094] AGMG / AZEDB.
[1095] GUA.

## 271. IÑARRA ETXABE, JOSE

Marinela eta ezkongabea. EAJ/PNV-ELA/STV-era afiliatuta eta Frantzian Landasetan erbesteratutakoa[1096].

## 272. IÑARRA ETXABE, MAURICIO

Nekazaria eta ezkongabea, gerra hastean, 20 urte zituen. EAJ/PNV-ELA/STV-era afiliatuta eta Hasparrenen (Ipar Euskal Herria) erbesteratua. 1949ko abuztuaren 23an, Irorako txartela eskatu zuen[1097].

## 273. IÑARRA ETXABE, MIGUEL

Lanbidez nekazaria, haren emaztea, Josefina Etxar zen. Gerra hastean, 22 urte zituen eta, EAE/ANV-ko afiliatua izanik, ardura politikoz, indar-errepublikarrekin 142 zenbakiko Brigada Mixta Vasco-Pirineica-ko sarjentua izan zen. 1939ko uztailaren 1ean, Getariako udaletxe frankistari Getariara aberriratzeko eskaera egin zion. Horren trukean, Getariako udaletxe frankistak, hala eskatzen bazioten agintarien aurrean aurkeztea eskatzen zioten. 1943ko ekainaren 7an, Zarautzeko Komandantziako Guardia Zibilak aginduta atxilotu egin zuten, Antonio Garrastazu Arruti eta Francisco Sorazu Furundarenarekin batera. Ordura arte, Frantzian ihes eginda egon ziren. Haiek atxilotzeko agindua, Emilio Vadillo Salazar *cabo de la ciento trece comandancia rural de la guardia civil y en la actualidad prestando sus servicios en el puesto de Zarauz i*zenekoak eman zuen. Marciano Herrero Bajo eta Jose Plaza Giner eta Jose Gonzalez Pereñarekin joan zen Getariara hirurak atxilotzera. Marciano Herrero eta Jose Gonzalez Azkizuko Amezketa baserrian arakatzera joateko eta bera, Igarategira Jose Plaza Ginerrekin begiratzera joango zela adostu zuten. Azken horretan Garrastazu Igarategikoa eta Iñarra kaletarra ezkutatuta zeuden. Amezketa baserritik Sorazu atxilotu eta hirurak Zarauzko komandantziara preso eraman zituzten. Miguel Iñarra Etxaberen deklarazioa, 29 urte, ezkongabe eta arotza lanbidez, Magallanes kalekoa: gerra hastean soldaduskan aurkitzen zen Figueras-en (Girona) Montaña Chiclana deituriko batailoian. Uztailaren 21era arte kuartelean mantendu zuten eta haren ostean, Aragoiko frontera irten zuen, zeinetan 4 edo 5 egunetara Belchiten zauritu egin zuten eta Figueras-eko ospitale militarrera eraman zuten. 3 hilabeteren ostean alta jaso eta Batallon Alpinista 42 zenbakira bideratu zuten Pirinio Garaira eta geroago, Aros mendietara Andorratik gertu zeinetan gerra amaitu bitartean egon zen eta gero Frantziara pasatu zen batailoi osoarekin. Gerra amaitzean, Frantziara errefuxiatu zen eta 1939ko otsailaren 12an Argelès-sur-Mer (Ekialdeko Pirinioak) "Gernika-Berri"-n aurkitzen zen. Gero, Gurs-eko kontzentrazio-eremuko Islote A., 24 barrakan eduki zuten. 1939ko ekainaren 4an, Borly Grares Sales-era (Haute Savoie) behizain irten zuen. Handik Getariarako bidea hartu zuen. Zarauzko kartzelatik irtetean, etxean preso jarraitu behar izan zuten, handik irteteko agintarien baimena behar zutelarik. 1943ko urriaren 15eko Gerra-Kontseiluaren sententziaren arabera, soldaduskara joan beharko zuten auziperatuek, baina honek Frantziara alde egitea lortu zuen[1098].

## 274. IÑARRA ESNAL, JOSE MIGUEL

Gerra hastean, Getarian bizi zen. ELA/STV-ra afiliatuta, ardura politikoz, Euskadiko Gudontzidiko Itsas Boluntarioen zerrendan izena eman zuen. Horren eraginez, 1936ko azarotik abendura bitartean Hispania bouan (gerora Araba izenpetu zutena) euskal portuetara zetozen merkantzia-ontzien zainketa-lanak bermatu zituen. Abendutik aurrera, Bou Nabarran ontziratu zuten. Bi itsasontzietan, sugin-lanak egin zituen. Meltxor Albizu Indo eta Antonio Ituarte Etxebarriarekin batera, 1937ko martxoaren 5eko Matxitxako lurmuturrean Canarias gurutzaontzi frankistak eraso egitean hil zuten. 52 urte zituen eta ezkongabea zen[1099].

## 275. IÑARRA MAYOR, JOSE

Getariar honek, gerra hastean, Flota Errepublikarrean gerran jardun zuen. 1939ko martxoaren 23an, Zebbeus-Maknassy-ko (Tunisia) kontzentrazio-eremuan preso izan zuten. Haren ostean, Iberiar Penintsulara itzultzean, frankistek, berretsi ezin dezakegun arren, seguruenik, atxilotu egingo zuten[1100].

## 276. IÑARRA MAYOZ, JOAKIN

Tropa frankistak herrira sartu baino lehen, ebakuazioan, ihes egin zuen[1101].

## 277. IÑARRA MAYOZ, JOSE MIGUEL

Gerra hastean, itsasoan soldaduskan zegoen eta horren eraginez, gerra osoa, tropa frankistekin Mendez Nuñez ontzian indar-errepublikarren aurka borrokatuz egin zuen[1102].

---

1096 Sabino Arana Fundazioa-Euskal Abertzaletasunaren Agiritegia.

1097 GUA / Sabino Arana Fundazioa-Euskal Abertzaletasunaren Agiritegiaa.

1098 GUA / Sabino Arana Fundazioa-Euskal Abertzaletasunaren Agiritegia / Ipar-Mendebaldeko Eskualde Militarreko Tarteko Artxiboa, Ferrol, 810/43 / AZEDB / AHPG-GPAH GEZ, 3595/24.

1099 GUA / AZEDB / AHPV / Gipuzkoako Foru Aldundia: http://www.marinavasca.eu/eu/personal.php?o=3.

1100 Sabino Arana Fundazioa-Euskal Abertzaletasunaren Agiritegia.

1101 GUA.

1102 GUA.

## 278. IRAUNDEGI IBARRA, VICENTE

Luisa Vazquez-ekin ezkonduta zegoen. Gerra hasi baino lehen, 1934ko otsailaren 20tik, eta haren bitartean, Getariako itsas-portuko zaintzailea izan zen. 1939ko maiatzaren 10ean, frankistek, Valentziako “Prisión Celular” delakoan, atxilotu zuten. Bertan preso zegoela, 1939ko abenduaren 20an, kartzelako Diziplinako Juntak, janaria ekartzen zioten saskian ustezko mezuekin paper-txoak aurkitzeagatik, hilabeterako kanpoko janaria jasotzea debekatu zioten. Sabela asetzeko presondegian bertan gorriak jasaten bazituzten, kanpoko janaririk gabe, Vicente Iraundegi Ibarrari egoera izugarri gogortu zitzaion. 1940ko apirilaren 27an, trenez eta Guardia Zibilaren zaintzapean, Donostiako Ondarretako kartzelara lekualdatu zuten. Bertan, Lekeitioko Itsas-Epaitegiaren eta Donostiako Plazako 4. Zenbakidun Epaitegi Militarraren epaiketaren zain geratu zen. Garai hartan, Getariako alkate eta, aldi berean, F.E.T. eta J.O.N.S.-eko herriko buruzagia zen Eugenio Egurbidek, Vicente Iraundegi Getaria tropa frankistak iritsi baino lehen ebakuatutako testuinguruan, Getariako Defentsa Komiteko arma-gelako armak hartu eta Juan Sebastian Elkanoren kuadro bat lapurtu izanaz akusatu zuen, Juan Setien Calvo eta Eusebio Basurto Altunarekin batera. Eugenio Egurbidek, Juan Setien Calvo ez zuen ekintzaren egiletzat hartu, haren lekuko izandako pertsonatzat kalifikatu zuen. Bitartean, Eusebio Basurto Altunak, jasotako akusazioa medio, Gerra-Kontseilua izan eta absolbitu egin zuten. Vicente Iraundegiren kasuan, Eugenio Egurbidek,1940ko maiatzaren 3an egindako informean bere akusazioak desgaitu bazituen ere, hilabete gutxitara, uztailaren 24an, bigarren aldiz Getariako alkate eta F.E.T. eta J.O.N.S.-eko buruzagiaren partetik akusazio bera jaso zuen. 1940ko ekainaren 12an Donostiako Plazako 4. Zenbakidun Epaitegi Militarrak aske utzi bazuen ere, arestian aipatu gisan, uztailaren 24an, Eugenio Egurbidek hirugarren aldiz ekintza berberez akusatu zuen Vicente Iraundegi Ibarra itsas-portuko zaindaria, Gipuzkoako Erantzukizun Politikoen Epaitegian salaketa jarriz. Gerraren eraginez, preso politikoa izan zen. Bere etxea errekisatu eta zenbait ondasun kendu zizkioten, haien artean: izardun gurutze bat, medaila bat eta Itsas Salbamentuko medaila. Bai eta makinaz idatzitako idatzi bat eta bere bi argazki ere. Teofilo Garcia Zarauzko komandantzia militarreko kaboak egin zituen erregistro hauek, 1936ko irailaren 30ean sinatutakoak dira[1103].

Nafarroako Erantzukizun Politikoen Auzitegiak, 1941eko irailaren 2an, 100 pezetako isun-ekonomikoa eta 5 urteko kargu publiko guztietako gaitasungabetzera kondenatu zuen.

## 279. IRIBAR, JOSE DOMINGO

Garbitzailea lanbidez eta ideologia politikorik gabea “independente”. Horren eraginez, 1937ko apirilaren 10ean osatutako udalbatza frankistak bere postuan mantendu zuen[1104].

## 280. IRIBAR AGIRRE, FRANCISCO

Getariako udaletxe frankistak 1938ko otsailaren 1ean egindako txostenean, bere jabetzako ondasunik ez zuela, marinela zela eta euskal nazionalistei bere botoa eman ziela adierazi zuten[1105].

## 281. IRIBAR AIZPURUA, IGNACIO

Gerra hastean, Getariako Defentsa Komiteak agindutako guardia lanak bete zituen. 1936ko irailaren 20ko ebakuazioan Frantziara ihes egin zuen. Handik itzultzean, Osasun Militarrean zerbitzua bete zuen[1106].

## 282. IRIBAR AIZPURUA, SEBASTIAN

Gerra hastean, 20 urte zituen. Tropa frankistak Getariara sartu baino egun bat lehenago, 1936ko irailaren 20 ebakuazioan, Getariatik alde egin zuen[1107].

## 283. IRIBAR AREIZAGA, ANGELA

Emakume getariar errepresaliatua. 1937ko otsailaren 13an, bere seme Joxe Azkue Iribarrekin batera, udaletxe frankistak, gerrako fronteak borroka bizian zeudenean, Getariatik espultsatu zuten. Horren arrazoi nagusia, bere senarra Juan Azkue Ibarbia, Euskadiko Gudontzidiko gudaria izatea izan zen. Frankistek, emakumea, gizonezkoaren objektu gisan erreparatzen zuten eta ez subjektu politiko aske gisan. Hori bide, Eusko Jaurlaritzak trazatutako errefuxiatuen bidea egin behar izan zuen. Hartan Lekeitiora iritsi eta 1937ko apirilaren 26an Gernikako alemaniar eta frankisten hegazkin bidezko bonbardaketak eragindako sarraskiaren lekuko izan zen. Handik Bilbora eta beste zenbait errefuxiaturen gisan, Frantziarako bidea hartu zuen. Han, Juan Azkue Ibarbia senarrarekin elkartuta, basoetan 11 hilabetez lanean jardun zuten. Familiak udaletxe frankistari egindako eskarien eraginez, 1938ko maiatzaren 19an, instituzio frankistako agintariek errefuxiatu politikoak Frantziatik itzultzeko inolako arazorik ez zegoela adierazi zieten. Itzultzean, gerra aurreko etxea errekisatuta, beste etxe batean alokairuan bizi behar izan zuten[1108].

[1103] GUA / AHPG-GPAH GEZ, 2846/68.
[1104] Sabino Arana Fundazioa-Euskal Abertzaletasunaren Agiritegia.
[1105] GUA.
[1106] GUA.
[1107] GUA.
[1108] AZEDB / GUA / Testigantza: Joxe Azkue Iribar.

## 284. IRIBAR AREIZAGA, ANICETO

Euskal nazionalista, 1936ko irailaren 20ko ebakuazioan Getariatik Bilbo aldera San Antonio Abad ontzitxoan alde egin zuen. Hala eta guztiz ere, 1938ko urriaren 22an, tropa frankistekin borrokan zegoen[1109].

## 285. IRIBAR AREIZAGA, JOSE CRUZ

Gerra hastean, 26 urte zituen eta EAJ//PNV-ra afiliatuta, 1936ko irailaren 20ko Getariako ebakuazioan, Frantziara ihes egin zuen. 1939ko maiatzaren 20an, Bilbora itzuli zen, Raus de Santander itsasontzian. Bilbon, Zaintza-Komisaldegian, Zumaiako Itsas-Laguntzailearen bulegoetan eta Getariako Komandantzia Militarrean deklarazioa egin ostean, arrantzarako behin-behineko baimena lortu zuen. 1941eko ekain aldean, Zumaiako Itsas-Laguntzaileak, arrantza-baimena kendu egin zion. Diktaduran zehar, beraz, errepresioa jasan zuen[1110].

## 286. IRIBAR AREIZAGA, JUAN

Lanbidez marinela. Gerra hastean, 24 urte zituen eta EAJ/PNV-koa izaki, 1936ko uztailaren 20ko ebakuazioan, Frantziara ihes egin zuen.1937ko urriaren 8an jada Getarian aberriratuta aurkitzen zen eta autoritateek hala agindutakoan, beraien aurrean aurkeztu behar izaten zuen. Bere anaia Aniceto eta Victor Iribar Areizaga tropa frankistekin borrokan egoteagatik, ez zuen gerrara joan beharrik izan[1111].

## 287. IRIBAR AREIZAGA, VICTOR

Bigarren Errepublikan zehar, euskal nazionalismoaren aldeko aldarria egin zuen. Horren eraginez, gerra hastean, Getariatik Frantziara ihes egin zuen, baina denbora baten ostean, berriro ere Getariara egin eta tropa frankisten ejertzitoan sartu behar izan zuen. Gerra ostean, bere anaia Juan Iribar Areizagak argitzen duenez, Victor Iribar Areizaga, Ferrolen Gerra-Kontseilua egin zain aurkitzen zen[1112].

## 288. IRIBAR ARREGI, GABRIEL

Getariar txikienak, agintari frankistek beren botereaz baliatuz, balio militarretan hezi zituzten. Horregatik, Gabriel Iribar Arregi, Getariako Pelayo -en[1113] zerrendan ageri da[1114].

Gerra hastean, 16 urte zituen eta 18 urterekin, 1938ko abuztuaren 23an, tropa frankistekin gerran borrokatzeko deitu zuten eta halaxe egin zuen gerra amaitu bitartean. 1942ko abenduan, oraingoan soldaduska egitera joan behar izan zuen. Garai hartan, Getariako udaleko diruzaina zen.

## 289. IRIBAR GALARRAGA, CELEDONIO

Gidaria zen eta taxien alokairuan gerra aurretik hasita, lan egiten zuen. Gerra testuinguruan, tropa frankistek, bere Chrysler markako kotxea eta Chevrolet markako kamioneta errekisatu zizkioten. Horrez gainera, gerra ostean oraindik ere mantentzen zuen Renault markako kotxearekin ere, Zarautzeko Komandantziari zenbait zerbitzu egin zizkion. 1940ko irailaren 7an ordea, udaletxe frankistari, autoritate gorenei idazteko erregutu zien, gasolina lortu ahal izateko txartela ez baitzioten berritzen eta horrenbestez, ezin baitzituen bere zerbitzuak bete[1115].

## 290. IRIBAR ULAZIA, SEBASTIAN

1931ko apirilaren 12ko udal-hauteskundeetan 185 boto jaso zituen eta, Getariako Bigarren Errepublikako lehen udaleko zinegotzia bilakatu zen. Ardoaren Gerraren eraginez, Gipuzkoako Gobernadore Zibilak bere postutik kendu egin zuen. 1936ko otsailean Fronte Popularrak Gorteetarako hauteskundeak irabaztean, gainontzeko zinegotziekin amnistiatu eta Getariako azken udalbatza errepublikarreko zinegotzia izendatu zuten[1116].

## 291. IRIBAR ZULAIKA, CLAUDIO

Gerra hastean 26 urte zituen eta indar-errepublikarren aurka, erreketeen itsas-armadan boluntario gisan jardun zuen. 1942ko otsailaren 21ean Mazogarriko lur bat erabiltzeko baimena eskatu zuen, lehen ere lantzen zuela adieraziz[1117].

---

[1109] GUA.

[1110] GUA.

[1111] GUA.

[1112] GUA.

[1113] Tradizionalistek haurrak Comunión Tradicionalista-ko oinarri politiko-sozialen arabera hezteko sortutako asoziazioa.

[1114] GUA 93-01.

[1115] GUA.

[1116] GUA / Bigarren Errepublikako Emaitzak. 1931ko Udal Hauteskundeak. https://www.euskadi.eus/informazioa/bigarren-errepublikako-emaitzak-1931ko-udal-hauteskundeak-guipuzcoa-udalerriak/web01-a2haukon/eu/.

[1117] GUA.

## 292. IRIBAR ZULAIKA, FRANCISCO

Gerra hastean, 21 urte zituen eta EAJ/PNV-ra afiliatuta, ardura politikoz, Euskadiko Gudontzidiko Itsas Boluntarioen zerrendan izena eman zuen. 1936ko abendutik 1937ko azarora bitartean, L-1, L-2 eta L-3 txalupetan gudari gidan jardun zuen. Bere azken zerbitzuak L-3 txalupan bete zituen. 1937ko abuztua hasieran BIA-ren menpe geratuta, minen araketan Santander, Gijon eta Avilesen lanean jardun zuen. 1937ko urriaren 24an Arcachonen (Frantzia) babestu zen, gerra amaitu bitartean. Han berriro ere, Euskadiko Gudontzidiaren menpean geratu zen. Francisco Iribar Zulaikaren itsas-errolda 1937ko azaroa bitartekoa denez, pentsa genezake, hura ere Frantziara joan eta bertan geratu zela. Frantziatik itzultzean, Escolleran preso hartu zuten[1118].

## 293. IRIBAR ZULAIKA, PELAYO

Bere familiakoak euskal nazionalistak izan arren, berak ez omen zuen inongo ekintzetan parte hartu, udaletxe frankistako txostenen arabera[1119].

## 294. IRIBAR ZULAIKA, SILVESTRE

Gerra hastean 23 urte zituen eta EAJ/PNV-ra afiliatuta, ardura politikoz, Euskadiko Gudontzidiko Itsas Boluntarioen zerrendan izena eman zuen. 1937ko urtarriletik irailera bitartean, Rafael Cantos, D-18, D-24, Ciscar, D-21 eta D-8 destruktoreetan gudari gisan jardun zuen. 1937ko maiatzaren 21ean, D-18a, ustekabean, Ciscar miaketariak aurretik eraman eta Bilboko Abran hondoratu egin zuen. Horren eraginez, Silvestre Iribar Zulaika eta bere kide gehienak D-24 destruktorean lan egitera pasa ziren. 1937ko ekainaren 13an hegazkin frankistek egindako erasoak, D-24 destruktorea hondoratu egin zuen. 1937ko ekainean Bizkaiko Itsas Armadak egindako eskakizunari erantzuna emanez, Ciscar ontzian aurreko marinelak ordezkatuko zituen 100 Euskadiko Gudontzidiko gudarietatik bat izan zen. Santanderrera iristean, Bizkaiko Itsas Armadak hala aginduta, tripulazioaren 2/3-ekin batera Ciscarretik lehorreratu eta berriro ere, D-8 destruktorean uztaileko denboraldi bat egin zuen. Horren ostean, D-8an, abuztuan bertan ontziratu zen. Santander ebakuatzerakoan, D-7 eta D-2-arekin batera, Silvestre Iribar Zulaika gudari zen D-8 destruktorean ere, Ogasun Sailaren artxiboak eta euskal kutxa eta bankuetako depposituak sartu zituzten. 1937ko abuztuaren 25ean, Joaquin Egia bertan ontziratuta, La Pallicera (Frantzia) heldu zen. Silvestre Iribar Zulaikak ere Frantziara egin zuela pentsa genezake, izan ere, bere itsas-errolda irailera arte mantendu zen[1120].

## 295. IRIBARTE AZPEITIA, JUAN JOSE

Getariar presoen inguruko zenbait txosten egin zituen[1121].

## 296. IRIGOIEN ARRIZABALAGA, TEODORO

Dokumentu frankisten arabera, Bigarren Errepublikako azken hauteskundeetan EAJ/PNV-ren aldeko botoa eman zuen. Garai hartan, Zarautzeko Casa Arruti altzarien fabrikan lan egiten zuen eta bertako jabea euskal nazionalista zelako eman omen zion euskal nazionalistei botoa. Bere anaia Victoriano Irigoien Arrizabalaga erreketeak geroago eginen zuen gisan, 1937ko maiatzaren 14an, Casa Arruti fabrika itxita egoteagatik, "Ferrocarriles Vascongados" konpainian lan egitea eskatu zuen[1122].

## 297. IRIGOIEN ARRIZABALAGA, VICTORIANO

1911ko martxoaren 6an jaio zen. Eguzkitza baserriko errekete getariarra eta lanbidez, ebanista. Gerra hastean 25 urte zituen. Tropa frankistak Getariara heldu bezain laster, atzeraguardiako errekete gisan jardun zuen. Errekete hauek, atzeraguardiako laboreez arduratzen ziren: zentsura, hilobiratzeak, hilketak, fronteko labore jakin batzuk baina borrokan egin gabe… Zeregin horien ostean, Zumalakarregi Tertzioko 3. Konpainian Bigarren Errepublikako gobernu legitimoaren indarren aurka borrokan jardun zuen. Hartan, 1937ko ekainaren 4an, Amorebieta-Etxanoko frontean zauritu egin zen.

Ekainaren 9an Gasteizko 3 zenbakidun behin-behineko epaitegian bere aurkako kausa ireki zioten "inutilización voluntaria" delakoagatik. Ekainaren 4an, aurreko lerroetan azaldu gisan, zauritu eta Samaniegoko Ospitalean ingresatu zuten. Ezkerreko eskuan zauritu zen "siendo dicho tatuaje del tamaño de una moneda de dos pesetas, lo que indica que el disparo ha sido hecho a corta distancia del miembro lesionado". Zauria bere buruari egin ziola berresten zuen medikuaren testigu horrek. 1937ko ekainaren 16an, Irigoieni Vidal Sanz Ugarte epaileak deklarazioa hartu zion: 26 urte zituen garai hartan, ezkongabea eta nekazaria zen. Ez

1118 GUA / AZEDB / CDMH: DNSD-SECRETARIA,FICHERO,33,I0027130 / Gipuzkoako Foru Aldundia: http://www.marinavasca.eu/eu/personal.php?o=3. Testigantza: Floren Iribar.

1119 GUA.

1120 GUA / AZEDB / CDMH: DNSD-SECRETARIA,FICHERO,33,I0027131 / Gipuzkoako Foru Aldundia: http://www.marinavasca.eu/eu/personal.php?o=3.

1121 GUA.

1122 GUA.

zekien kasik gaztelaniarik eta euskaraz, Antonio Orue interpretearekin deklaratu zuen "Interrogado convenientemente contesta: por medio del interprete D. Antonuio Orúe, por no saber casi mas (sic) que vascuence". Haren arabera, Bizkargi mendian zeudelarik, fusil kartutxoak hartzera joan omen zenean "resultando en aquel momento con la mano atravesada por un balazo del campo enemigo, el cual se hallaba a menos distancia de cien metros, por lo que aprovechaba el menor descuido para disparar". Hiru egun inguru zeramatzaten mendi hartan eta zauritzea goizeko zazpirak inguruan izan zen. Garai hartan zauritu dezente izan omen zituzten. Bere konpainiako kanpitaina Giberto Amozarrain zen, tenientea Maximiano Murua, Alfereza Quijosa eta sarjentua Mugica. Damian Sagastizabal erreketeak zauritu ostean, praktikantearengana lagundu zion. Zarauzko Guardia Zibilak "adicto al Glorioso Movimiento" zela berrestu zuen. Jose Ignacio Urdampilleta Getariako parrokoak ere, 1937ko ekainaren 25ean, "buena conducta social y religiosa" kalifikatu zuen. Eugenio Egurbide alkate frankistak ere "buena conducta" zuela adierazi zuen.

1937ko uztailaren 10ean, berriro ere tropa frankistekin borrokan aritzeko gai zela adierazi zioten medikuek errebisioa egin ostean. Gilberto Amozarrain kapitainak "buena conducta" zuela deklaratu zuen. Francisco Quijosa alferezak ere "buena conducta" adierazi zion. Eusebio Mugica sarjentuak ere "buena conducta" adierazi zuen. "Sobresiemiento provisional" gisan geratu zen. 1938ko irailaren 27an, Ebroko batailan borrokatu zuen eta bertan ere zauritu egin zen. Domina Militar Kolektiboarekin saritu zuten. Gerraren ostean, 1939ko uztailaren 29an, udaletxe-frankistari, gerran parte hartu eta irabazi izateagatik, Urola treneko zerbitzuetan edo errepideen konponketetan lan egiteko lehentasunezko eskubidea zuela adierazi zion[1123].

## 298. IRIGOIEN AZPIAZU, JOSE FRANCISCO

Gerra hastean, 18 urte zituen eta erreketeen itsas-armadan boluntario gisan borrokan jardun zuen. Haren ostean, 1940ko irailaren 9an, lanik gabe aurkitzen zela eta, "Ferrocarriles Vascongados" trenen konpainiako trenbideen obretan langile sartzeko eskaera egin zuen. Hark, gerran zehar tropa frankisten alde aritu zela eta, lan hura lortzeko lehentasunezko eskubidea zuela adierazi zuen[1124].

## 299. IRIGOIEN EGAÑA, JUAN MANUEL

Juan Manuel Irigoien Egañak, motor txikian, haien seme-alabekin, Marciela, Eusebio, Santos, María Teresa, Emilio eta Benjamin-ekin Lekeitiora egin zuten, tropa frankistek, Zumaiatik indar-errepublikarrekin borrokatzen zituzten emakumeak espultsatu baino egun bat lehenago. Lekeition hilabete batzuk egin ostean, Bilbora egin zuten. Tropa frankistek Bilbo hartu aurreko egunetan, Colindresera egin zuten eta handik, Santanderrera. Santanderren zenbait bonbardaketa frankista beren azaletan bizi izan zituzten. Erbestetik itzultzean, Getariara egin zuten eta ez ziren Zumaiara itzuli. Juan Manuel Irigoien Egañak, Langile Batailoietan urtebetez gatibu-lanak egiten jardun behar izan zuen. Esaterako, Zumaiako zubi txikia beste preso batzuekin batera eraiki zuen. Horrez guztiaz gainera, 1938ko ekainaren 8an, justizia frankistak 50.000 pezetako isuna ordaintzera kondenatu zuen. Erantzukizun Politikoen Legeari jarraiki, Ondasunak Konfiskatzeko Batzorde Probintzialak espedientea ere ireki zion, gerora indultua eman zioten[1125].

## 300. IRIGOIEN LAZKANO, BENJAMIN

Zumaiar haur errefuxiatua, 7 urtekoa. Bere ama Rufina Lazkano Basurto eta Juan Irigoien Egañarekin batera, tropa frankistek Zumaiatik indar-errepublikarrekin borrokan ari zirenen emazteak espultsatu baino egun bat lehenago herritik alde egin zuten. Erbestean, Lekeitio, Colindres eta azkenik, Santanderrera iritsi ziren. Handik berriro ere, Euskal Herrira itzuli ziren, Zumaiatik laster Getariara egin zuten bizitzera. Bitartean, haien aitak, Juan Irigoien Egañak, Langile Batailoietan gatibu-lanetan jardun zuen; hartan, beste preso batzuekin batera, Zumaiako zubi txikia eraiki zuen[1126].

## 301. IRIGOIEN LAZKANO, EMILIO

Zumaiar haur errefuxiatua, 8 urtekoa. Bere ama Rufina Lazkano Basurto eta Juan Irigoien Egañarekin batera, tropa frankistek Zumaiatik indar-errepublikarrekin borrokan ari zirenen emazteak espultsatu baino egun bat lehenago herritik alde egin zuten. Erbestean, Lekeitio, Colindres eta azkenik, Santanderrera iritsi ziren. Handik berriro ere, Euskal Herrira itzuli ziren, Zumaiatik laster Getariara egin zuten bizitzera. Bitartean, haien aitak, Juan Irigoien Egañak, Langile Batailoietan gatibu-lanetan jardun zuen; hartan, beste preso batzuekin batera, Zumaiako zubi txikia eraiki zuen[1127].

---

[1123] GUA / AZEDB / CDMH: DNSD-SECRETARIA,FICHERO,33,I0027131 / Gipuzkoako Foru-Aldundia: http://www.marinavasca.eu/eu/personal.php?o=3.

[1124] GUA.

[1125] Testigantza: Rufini Irigoien Burgaña, eta Jose Mari eta Pili Irigoien Beristain / SANZ GOIKOETXEA, E. 2019. *Zumaia 1936-1945: Giza Eskubideen urraketa eta errepresioa Gerra Zibilean eta Lehen Frankismoan.* Aranzadi Zientzia Elkartea: Donostia.

[1126] Testigantza: Rufini Irigoien Burgaña, eta Jose Mari eta Pili Irigoien Beristain / SANZ GOIKOETXEA, E. 2019. Zumaia 1936-1945: Giza Eskubideen urraketa eta errepresioa Gerra Zibilean eta Lehen Frankismoan. Aranzadi Zientzia Elkartea: Donostia / CDMH: DNSD-SECRETARIA,FICHERO,33,I0027801; DNSD-SECRETARIA,FICHERO,33,I0027802.

[1127] Testigantza: Rufini Irigoien Burgaña, eta Jose Mari eta Pili Irigoien Beristain / SANZ GOIKOETXEA, E. 2019. Zumaia 1936-1945: Giza Eskubideen urraketa eta errepresioa Gerra Zibilean eta Lehen Frankismoan. Aranzadi Zientzia Elkartea: Donostia / CDMH:DNSD-SECRETARIA,FICHERO,33,I0027804; DNSD-SECRETARIA,FICHERO,33,I0027803.

## 302. IRIGOIEN LAZKANO, EUSEBIO

Zumaiar haur errefuxiatua, 14 urtekoa. Bere ama Rufina Lazkano Basurto eta Juan Irigoien Egañarekin batera, tropa frankistek Zumaiatik indar-errepublikarrekin borrokan ari zirenen emazteak espultsatu baino egun bat lehenago herritik alde egin zuten. Erbestean, Lekeitio, Colindres eta azkenik, Santanderrera iritsi ziren. Handik berriro ere, Euskal Herrira itzuli ziren, Zumaiatik laster Getariara egin zuten bizitzera. Bitartean, haien aitak, Juan Irigoien Egañak, Langile Batailoietan gatibu-lanetan jardun zuen; hartan, beste preso batzuekin batera, Zumaiako zubi txikia eraiki zuen[1128].

## 303. IRIGOIEN LAZKANO, JUAN JOSE

Irigoien-Lazkano familiako semerik zaharrena zen. 17-18 urte inguru zituen gerra hasi zenean. Errepublikazalea zen eta Eusko Gudarostearekin borrokan egin zuen.

## 304. IRIGOIEN LAZKANO, MARCIELA

Zumaiar haur errefuxiatua, 17 urtekoa. Bere ama Rufina Lazkano Basurto eta Juan Irigoien Egañarekin batera, tropa frankistek Zumaiatik indar-errepublikarrekin borrokan ari zirenen emazteak espultsatu baino egun bat lehenago herritik alde egin zuten. Erbestean, Lekeitio, Colindres eta azkenik, Santanderrera iritsi ziren. Handik berriro ere, Euskal Herrira itzuli ziren, Zumaiatik laster Getariara egin zuten bizitzera. Bitartean, haien aitak, Juan Irigoien Egañak, Langile Batailoietan gatibu-lanetan jardun zuen; hartan, beste preso batzuekin batera, Zumaiako zubi txikia eraiki zuen[1129].

## 305. IRIGOIEN LAZKANO, MARIA TERESA

Zumaiar haur errefuxiatua, 10 urtekoa. Bere ama Rufina Lazkano Basurto eta Juan Irigoien Egañarekin batera, tropa frankistek Zumaiatik indar-errepublikarrekin borrokan ari zirenen emazteak espultsatu baino egun bat lehenago herritik alde egin zuten. Erbestean, Lekeitio, Colindres eta azkenik, Santanderrera iritsi ziren. Handik berriro ere, Euskal Herrira itzuli ziren, Zumaiatik laster Getariara egin zuten bizitzera. Bitartean, haien aitak, Juan Irigoien Egañak, Langile Batailoietan gatibu-lanetan jardun zuen; hartan, beste preso batzuekin batera, Zumaiako zubi txikia eraiki zuen[1130].

## 306. IRIGOIEN LAZKANO, MARIANO

Zumaiar haur errefuxiatua. Bere ama Rufina Lazkano Basurto eta Juan Irigoien Egañarekin batera, tropa frankistek Zumaiatik indar-errepublikarrekin borrokan ari zirenen emazteak espultsatu baino egun bat lehenago herritik alde egin zuten. Erbestean, Lekeitio, Colindres eta azkenik, Santanderrera iritsi ziren. Handik berriro ere, Euskal Herrira itzuli ziren, Zumaiatik laster Getariara egin zuten bizitzera. Bitartean, haien aitak, Juan Irigoien Egañak, Langile Batailoietan gatibu-lanetan jardun zuen; hartan, beste preso batzuekin batera, Zumaiako zubi txikia eraiki zuen[1131].

## 307. IRIGOIEN LAZKANO, SANTOS

Zumaiar haur errefuxiatua, 10 urtekoa. Bere ama Rufina Lazkano Basurto eta Juan Irigoien Egañarekin batera, tropa frankistek Zumaiatik indar-errepublikarrekin borrokan ari zirenen emazteak espultsatu baino egun bat lehenago herritik alde egin zuten. Erbestean, Lekeitio, Colindres eta azkenik, Santanderrera iritsi ziren. Handik berriro ere, Euskal Herrira itzuli ziren, Zumaiatik laster Getariara egin zuten bizitzera. Bitartean, haien aitak, Juan Irigoien Egañak, Langile Batailoietan gatibu-lanetan jardun zuen; hartan, beste preso batzuekin batera, Zumaiako zubi txikia eraiki zuen[1132].

## 308. IRIONDO EMBIL, KANDIDO

Gerra hastean, 34 urte zituen eta indar-errepublikarrekin tropa frankisten aurka borrokan jardun zuen[1133].

---

[1128] Testigantza: Rufini Irigoien Burgaña, eta Jose Mari eta Pili Irigoien Beristain / SANZ GOIKOETXEA, E. 2019. Zumaia 1936-1945: Giza Eskubideen urraketa eta errepresioa Gerra Zibilean eta Lehen Frankismoan. Aranzadi Zientzia Elkartea: Donostia.

[1129] Testigantza: Rufini Irigoien Burgaña, eta Jose Mari eta Pili Irigoien Beristain / SANZ GOIKOETXEA, E. 2019. Zumaia 1936-1945: Giza Eskubideen urraketa eta errepresioa Gerra Zibilean eta Lehen Frankismoan. Aranzadi Zientzia Elkartea: Donostia / CDMH: DNSD-SECRETARIA,FICHERO,33,I0027807.

[1130] Testigantza: Rufini Irigoien Burgaña, eta Jose Mari eta Pili Irigoien Beristain / SANZ GOIKOETXEA, E. 2019. Zumaia 1936-1945: Giza Eskubideen urraketa eta errepresioa Gerra Zibilean eta Lehen Frankismoan. Aranzadi Zientzia Elkartea: Donostia / CDMH: DNSD-SECRETARIA,FICHERO,33,I0027809; DNSD-SECRETARIA,FICHERO,33,I0027814.

[1131] Testigantza: Rufini Irigoien Burgaña, eta Jose Mari eta Pili Irigoien Beristain / SANZ GOIKOETXEA, E. 2019. Zumaia 1936-1945: Giza Eskubideen urraketa eta errepresioa Gerra Zibilean eta Lehen Frankismoan. Aranzadi Zientzia Elkartea: Donostia / CDMH: DNSD-SECRETARIA,FICHERO,33,I0027808; DNSD-SECRETARIA,FICHERO,33,I0027810; DNSD-SECRETARIA,FICHERO,33,I0027811.

[1132] Testigantza: Rufini Irigoien Burgaña, eta Jose Mari eta Pili Irigoien Beristain / SANZ GOIKOETXEA, E. 2019. Zumaia 1936-1945: Giza Eskubideen urraketa eta errepresioa Gerra Zibilean eta Lehen Frankismoan. Aranzadi Zientzia Elkartea: Donostia / CDMH: DNSD-SECRETARIA,FICHERO,33,I0027812; DNSD-SECRETARIA,FICHERO,33,I0027813.

[1133] GUA / AZEDB / CDMH: DNSD-SECRETARIA,FICHERO,33,I0027659.

## 309. IRIONDO MUGERZA, JUAN

Tropa frankistak Getariara sartzean, euskal nazionalista izateagatik, bere gordailuzain kargutik kendu egin zuten. 1937ko irailaren 20an hil egin zen[1134].

## 310. IRIONDO REMENTERIA, CIPRIANO

Donostian bizi zen, baina haren gurasoak getariarrak ziren. 1936ko irailaren 8an, Donostiatik Getariara egin zuen eta handik 12 egunera, Getariako ebakuazioan Mutrikura egin zuen. Tropa frankistak jada herrian sartuta zeudela ikustean, Lekeitiora joan zen. Handik, Bilbora eta bi hilabete bertan pasa ostean, Bermeora joan zen. Han, Itxarkundia Batailoiko komandanteak, Donostiatik ezagutzen zuenak, bere kinta laster mobilizatuko zutela eta Batailoiko Intendentzian sartzeko gomendatu zion. Hala, Itxarkundia Batailoiko Intendentzian jardun zuen; hilabete batez, ordea, igeltseroa lanbidez, gudarientzako txabolak eraikitzen egon zen eta hamabost egunez, frontera hornidurak eramateko andarien sarjentu lanetan. 1937ko abuztuaren 27an tropa frankistek atxilotu egin zuten. Santoñan egindako Gerra-Kontseilua egin ostean, 1937ko irailaren 11n, 12 urte eta egun bateko kartzela-zigorra ezarri zioten "matxinadari laguntzeagatik", eta Duesoko kartzelan kartzelaratu zuten. Handik, 1938ko abuztuaren 24an, Puerto de Santamaria (Cadiz) presondegira lekualdatu zuten. Urte bereko abenduaren 14an, Colonia Penitenciario Militarizada de Dos Hermanas (Sevilla) delakora. Haren defentsan, Donostiako Jose Antonio Arzak eta Antonio Elosegik egin zuten, bere jarrera ona izan zela adieraziz. Donostiako San Ignazio Loiolakoko apaiz ekonomo Auspicio Otaegi Orkaizagirrek ere, mezara joaten zen gaztetzat determinatu zuen. 1943ko irailaren 4an, kondena hiru urtera jaitsi zioten. 1945eko urriaren 9ko indultuen dekretuari erreferentzia eginez, indultatzeko eskaera egin zuen. 1946ko uztailean baldintzapeko askatasuna lortu zuen. Indultu hau jasotzean jada baldintzapeko askatasunean aurkitzen zen eta egondako azken presondegia Colonia Penitenciaria Militarizada de Dos Hermanas (Sevilla) izan zen[1135].

## 311. IRURETA GOMEZ, ANGEL

Diktadura frankistaren aurkakoa izanik, bere ondasunak desjabetu zizkioten[1136].

## 312. IRURETA GOMEZ, JOSE

1904ko irailaren 24an Zumaian jaiotakoa. Francisca Sasiain Agirregabiriarekin ezkonduta zegoen eta Zumaian bizi ziren. Bi seme zituzten, Pedro Maria eta Javier Maria Irureta Sasiain. 1936ko azaroaren 23an, frankistek, ziurrenik, Getarian fusilatu egin zuten, beren ideologiaren aurkakoa izatea aitzakiatzat hartuta. Getariako erregistro zibilean, "hemorragia cerebral consecutiva a la fractura de la base del craneo" delakoaren eraginez hil zela adierazi zuten. Beste zenbait herrietan ere fusilatuak gisa honetara erregistratzen ziren eta horregatik pentsa genezake fusilatu egin zutela. Familiari, istripu batean hil zela adierazi zioten[1137].

## 313. IRURETAGOIENA ARREGI, ANTONIO

Kajuategi baserriko nekazaria, gerra hastean 23 urte zituen. Tropa frankistekin indar-errepublikarren aurka borrokan jardun zuen. Hartan, hil egin zen, seguruenik Ebroko frontean, hain zuzen, Tarragonako Bot herrian hilobiratu baitzuten. Horren eraginez, udal-frankistak bere familiari pezeten ordaintza eskaini zion. 1959ko martxoaren 28an Erorien Haranera lekualdatu zuten[1138].

## 314. IRURETAGOIENA ARREGI, JOSE FRANCISCO

1937an soldadu gisa lizentziatu zenez, gerrara tropa frankistekin borrokatzera joan zela pentsa genezake[1139].

## 315. IRURETAGOIENA KEREJETA, JOSE

Erantzukizun Politikoen Tribunal Nazionalak epaitu eta 1943an indultua lortu zuen[1140].

---

[1134] GUA / Sabino Arana Fundazioa-Euskal Abertzaletasunaren Agiritegia.

[1135] Ipar-Mendebaldeko Eskualde Militarreko Tarteko Artxiboa, Ferrol, 19/37.

[1136] SANZ GOIKOETXEA, E. 2019. Zumaia 1936-1945: Giza Eskubideen urraketa eta errepresioa Gerra Zibilean eta Lehen Frankismoan. Aranzadi Zientzia Elkartea: Donostia / AZEDB.

[1137] GUA / AZEDB.

[1138] GUA / Gogora: Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutua / Gogora: Instituto de la Memoria, la Convivencia y los Derechos Humanos.

[1139] GUA.

[1140] CDMH: 75/00184.

## 316. IRURETAGOIENA OLANO, JOSE MARIA

Ermuar haur errefuxiatua. Bere aita, Joakin Iruretagoiena Olaskoaga, haren Zaldibiako emazte Josefa Olanorekin Asuara (Ermua) ezkondu ziren. Gerra hasi baino lehenagotik bertan bizi ziren; aitak aroztegia zuen eta amak ere, josten, tabernan… lan egiten zuen. Euskal nazionalistak izateagatik, tropa frankistak geroz eta hurbilago zeudenean, herritik alde egin zuten. Handik, Jose Maria Iruretagoiena Olano eta haren arrebek, Maria Angeles eta Mirenek, amarekin batera, Gernikara ihes egin zuten. Han, 1937ko apirilaren 26ko Gernikan alemaniarrek eta frankistek eginiko bonbardaketa ospetsuaren tokiko izan ziren. Gernikan, aita Joakin Iruretagoiena Olaskoaga frankistek atxilotu eta fusilatu egin zuten. Gernikatik, seguruenik Bilbon ontziratuta, Bordeuax-era egin zuten. Bertan, sei hilabete inguru pasatu ostean, Kataluniara eraman zituzten. Maria (Miren) Iruretagoiena Olano, arreba, han zeuden bitartean, familia aberats baten etxean bizitzen egon zen; Jose Maria, Maria Angeles eta ama, bien bitartean, komentuan bizi izan ziren. Bartzelonan zeuden garai hartan, amak behin “Miren” izenez deitu zion eta horren eraginez, amak, hiru egun kartzelan pasa behar izan zituen. Gerra jada amaitu berritan, Euskal Herrira itzuli ziren. Behin itzulita, ama eta anai-arreba guztiek bide ezberdinak hartu behar izan zituzten, gosea baitzen gerraostean eta sabel guztiak betetzeko lanik gabe ezin baitzuten bizi. Hala, Jose Maria, Getariako Kajuategi familiaren baserrira joan zen[1141].

## 317. IRURETAGOIENA OLANO, MARIA ANGELES

Ermuar haur errefuxiatua. Bere aita, Joakin Iruretagoiena Olaskoaga, haren Zaldibiako emazte Josefa Olanorekin Asuara (Ermua) ezkondu ziren. Gerra hasi baino lehenagotik bertan bizi ziren; aitak aroztegia zuen eta amak ere, josten, tabernan… lan egiten zuen. Euskal nazionalistak izateagatik, tropa frankistak geroz eta hurbilago zeudenean, herritik alde egin zuten. Handik, Maria Angeles Iruretagoiena Olano eta haren anai eta ahizpak, Jose Maria eta Mirenek, amarekin batera, Gernikara ihes egin zuten. Han, 1937ko apirilaren 26ko Gernikan alemaniarrek eta frankistek eginiko bonbardaketa ospetsuaren tokiko izan ziren. Gernikan, aita Joakin Iruretagoiena Olaskoaga frankistek atxilotu eta fusilatu egin zuten. Gernikatik, seguruenik Bilbon ontziratuta, Bordeuax-era egin zuten. Bertan, sei hilabete inguru pasatu ostean, Kataluniara eraman zituzten. Maria (Miren) Iruretagoiena Olano, ahizpa, han zeuden bitartean, familia aberats baten etxean bizitzen egon zen; Jose Maria, Maria Angeles eta ama, bien bitartean, komentuan bizi izan ziren. Bartzelonan zeuden garai hartan, amak behin “Miren” izenez deitu zion eta horren eraginez, amak, hiru egun kartzelan pasa behar izan zituen. Gerra jada amaitu berritan, Euskal Herrira itzuli ziren. Behin itzulita, ama eta anai-arreba guztiek bide ezberdinak hartu behar izan zituzten, gosea baitzen gerraostean eta sabel guztiak betetzeko lanik gabe ezin baitzuten bizi. Hala, Maria Angeles, Zaldibiako amaren jaiotetxean bizi eta Ordizian tabernan lan egin zuen[1142].

## 318. IRURETAGOIENA OLANO, MARIA (MIREN)

Ermuar haur errefuxiatua. Bere aita, Joakin Iruretagoiena Olaskoaga, haren Zaldibiako emazte Josefa Olanorekin Asuara (Ermua) ezkondu ziren. Gerra hasi baino lehenagotik bertan bizi ziren; aitak aroztegia zuen eta amak ere, josten, tabernan… lan egiten zuen. Euskal nazionalistak izateagatik, tropa frankistak geroz eta hurbilago zeudenean, herritik alde egin zuten. Handik, Maria Iruretagoiena Olano eta haren ahizpak eta anaiak, Maria Angeles eta Jose Mariak, amarekin batera, Gernikara ihes egin zuten. Han, 1937ko apirilaren 26ko Gernikako alemaniarrek eta frankistek eginiko bonbardaketa ospetsuaren tokiko izan ziren. Gernikan, aita Joakin Iruretagoiena Olaskoaga frankistek atxilotu eta fusilatu egin zuten. Gernikatik, seguruenik Bilbon ontziratuta, Bordeuax-era egin zuten. Bertan, sei hilabete inguru pasatu ostean, Kataluniara eraman zituzten. Maria Iruretagoiena Olano, han zeuden bitartean, familia aberats baten etxean bizitzen egon zen; haren anai-arrebak eta ama, bien bitartean, komentuan bizi izan ziren. Bartzelonan zeuden garai hartan, amak behin “Miren” izenez deitu zion eta horren eraginez, amak, hiru egun kartzelan pasa behar izan zituen. Gerra jada amaitu berritan, Euskal Herrira itzuli ziren. Behin itzulita, ama eta anai-arreba guztiek bide ezberdinak hartu behar izan zituzten, gosea baitzen gerraostean eta sabel guztiak betetzeko lanik gabe ezin baitzuten bizi. Hasieran, Maria Iruretagoiena Olano, haren izebaren etxean Zarautzen bizi izan zen; haren ostean, 1941n, 11 urterekin Getariako Akerretxikiko familiarengana joan zen lan egin eta bizitzera[1143].

## 319. IRURETAGOIENA OLASKOAGA, JOSE JOAKIN

Josefa Olano zaldibiarrekin ezkonduta zegoen eta Ermuako Asuan bizi ziren. Jaiotzez Getariako Kajuategi baserrikoa. Lanbidez arotza zen. Gerra hastean, euskal nazionalistak izaki, tropa frankisten atzaparretatik ihesi, herritik alde egin behar izan zuten. Horren eraginez, ez dakigu gudari gisan jardun zuen, baina Gernikara tropa frankistak sartzean, fusilatu egin zuten. Bitartean, bere emazteak eta seme-alabek erbestera egin behar izan zuten[1144].

---

[1141] Testigantza: Maria (Miren) Iruretagoiena Olano.
[1142] Testigantza: Maria (Miren) Iruretagoiena Olano.
[1143] Testigantza: Maria (Miren) Iruretagoiena Olano.
[1144] Testigantza: Maria (Miren) Iruretagoiena Olano.

## 320. IRURETAGOIENA REMENTERIA, JUANITO

Getariar txikienak, agintari frankistek beren botereaz baliatuz, balio militarretan hezi zituzten. Horregatik, Juanito Iruretagoiena Rementeria gerra hastean 15 urte zituena, Getariako Pelayo -en[1145] zerrendan ageri da[1146].

## 321. IRURETAGOIENA URBIETA, MARIA

EAJ/PNV-ri bere bozka eman zion, euskal nazionalista baitzen. San Antonio Abad baporearen jabe zen, Resurreccion eta Aniceto Zumeta Alberdi eskuindarrekin eta, Josefina Antonia Indo eta Quirino Basurto euskal nazionalistekin batera. San Antonio Abad ontziak, Getariako ebakuazioan lagundu eta gerran zehar, Bilboko zenbait ebakuazioetan ere lagundu zuen. Hori aitzakiatzat hartuta, Resurreción Zumeta Alberdik, baporea erreklamatu egin zuen Zarautzeko Komandantzia Militarrean, zati bat ekonomikoki berea baitzen. 1954ko irailaren 15ean, kamioi militar batek harrapatu eta zauritu egin zuen. Horren aurrean, salatu eta Justizia Militarrak, akzidente soil baten gisan kalifikatu zuen. Horren eraginez, Maria Iruretagoiena Urbietak izandako zaurien erreparazioa bere poltsikotik ordaindu behar izan zuen[1147].

## 322. ISASTI AIZPURU, EMETERIO

Apaiza eta irakaslea zen. EAJ/PNV-ko afiliatua izanik, tropa frankisten atzaparretatik ihesi Parisera (Frantzia) erbesteratu zen[1148].

## 323. ISASTI AIZPURU, FRANCISCO

EAJ/PNV-ra afiliatuta, tropa frankistak herrira sartu baino lehen zenbait guardia egin zituen[1149]. 1936ko irailaren 20ko ebakuazioan herritik alde egin behar izan zuen[1150].

## 324. ISASTI AIZPURUA, IGNACIO

Erbesteratua omen zen.

## 325. ISASTI AIZPURU, SILVESTRE

18 urterekin ihes egin zuen Getariatik. Venezuelara joan zen eta ez zen gehiago Euskal Herrira itzuli. Caracas-ko Euskal Etxeko bizargina izan zen. 62 urterekin hil zen.

## 326. ISASTI AZPEITIA, JOSE

1931ko apirilaren 12ko udal-hauteskundeetan 184 boto irabazi ostean, Getariako Bigarren Errepublikako lehen udal-gobernuko zinegotzia izendatu zuten. 1934ko Ardoaren Gerraren eraginez, Gipuzkoako Gobernadore Zibilak bere postutik kendu zuen haren ordez, 1934ko irailaren 19an, berak hautatutako Getariako udalbatza osatuz. 1936ko otsailean Fronte Popularrak Gorteetarako hauteskundeak irabazi ostean, kanporatutako gainontzeko zinegotziekin batera amnistiatu eta udalbatzan zuen postua bete ahal izan zuen. Getariako Bigarren Errepublikako azken udal-gobernuko zinegotzia izan zen[1151]. Tropa frankistak Getariara sartzean herrian geratu zen. Bere alaba Miren Isastik kontatu digunez, gau batean, garia auzolanean jo eta afaldu ostean, Isasti etxera joan zen bere argi-farola eskuan hartuta. Gaua egiten ari ziren guardiek argi-farolarekin itsasaldean egon zitezkeen errepublikazaleei seinaleak eman zizkiela uste izanda, Gazta-Haundi baserrira joan eta familia osoa udaletxean atxilotuta izan zuten aste batez.

## 327. ISASTI ELOSUA, GREGORIO

Gerra hastean, 18 urte zituen eta tropa frankisten atzaparretatik ihesi Getariatik alde egin zuen[1152].

## 328. ISASTI URANGA, CASIMIRO

Eugenio Egurbide alkateak, frankisten aurka ez zuela ezer egin determinatzen zuen Casimiro Isastiren informea, ez zuen sinatu nahi izan[1153].

---

[1145] Tradizionalistek haurrak Comunión Tradicionalista-ko oinarri politiko-sozialen arabera hezteko sortutako asoziazioa.

[1146] GUA 93-01.

[1147] GUA / Ipar-Mendebaldeko Eskualde Militarreko Tarteko Artxiboa, Ferrol, 499/54.

[1148] Sabino Arana Fundazioa-Euskal Abertzaletasunaren Agiritegia.

[1149] 1939ko irailaren 2ko dokumentu frankistaren arabera, zainketa haiek armaz egin zituen. Hala izan edo ez izan, arma erabili zuela esateak, odol-delituagatik agian salatzeko balio zien frankistei.

[1150] GUA.

[1151] Aranzadi Zientzia Elkartea, op.cit., 89.or. / Bigarren Errepublikako Emaitzak. 1931ko Udal Hauteskundeak.https://www.euskadi.eus/informazioa/bigarren-errepublikako-emaitzak-1931ko-udal-hauteskundeak-guipuzcoa-udalerriak/web01-a2haukon/eu/. Testigantza: Miren Isasti Eizmendi.

[1152] GUA.

[1153] GUA.

## 329. ISASTI URANGA, EMETERIO

Tropa frankistak Getariara sartu baino lehen bandako zuzendaria eta danbor-jotzailea zen. EAJ/PNV-ko afiliatua zela eta beraz, indar frankisten aurkako ideologia zuela aitzakiatzat hartuta, tropa frankistak Getariara sartzean bere postutik kendu zuten. 1937ko urriaren 3an, Komandante Militarrak hala aginduta, berriro ere, udal-gobernuak bere postuan berrezarri zuen Emeterio Isasti Uranga[1154].

## 330. ISASTI URANGA, GREGORIO[1155]

Getariarra jaiotzez, gerra hastean, Deban bizi zen. 41 urte zituen eta ezkongabea zen. Gerra hastean, ardura politikoz, gerrarako adinez nagusia izan arren, Eusko Gudarosteko Amaiur batailoian borrokan jardun zuen. Hartan, 1937ko maiatzaren 14an, Bilboko hiriaren defentsan zeudela, Lezaman konkretuki, hegazkin frankistek botatako bonbek eragindako zaurien erruz, bere kide batekin batera hil egin zen. Derioko hilerrian lurperatu zuten[1156].

## 331. ISASTI URANGA, NAZARIO

Gerra ostean Gurs-eko kontzentrazio-eremuan zegoen eta handik estatu espainiarrera itzuli zen[1157].

## 332. ITUARTE BENGOETXEA, ATANASIO

Bere semeak gerrara euskal nazionalistekin tropa frankisten aurka borrokatzera joan ziren. Horren eraginez, bere semeetako Pedro Ituarte Etxebarria Amaiur Batailoian borrokatu zuena, kartzelatik ateratzeko erregutu zuen[1158].

## 333. ITUARTE ETXEBARRIA, ANTONIO

Mutrikuarra jaiotzez, baina gerra hastean Getarian bizi zen. EAJ/PNV-ra afiliatuta, ardura politikoz eta marinela izanik, Euskadiko Gudontzidiko Itsas Boluntarioen zerrendan izena eman zuen. 1936ko abendutik, Bou Nabarrarekin, euskal portuetara zetozen merkantzia-ontzien zainketa-lanetan jardun zuen. Egiteko horietako batean, hain zuzen, Galdames merkantzia-ontzia Baionatik Bilbora Bou Nabarran bera, Bou Bizkaia, Gipuzkoa eta Donostiarekin batera babesten ari zirelarik, Matxitxako lurmuturrean, Canarias gurutzaontzi frankistak eraso zituen. Frankisten gurutzaontziarekin izandako 1937ko martxoaren 5eko borrokan, hil egin zuten. 34 urte zituen eta ezkongabea zen.

## 334. ITUARTE ETXEBARRIA, JOSE

Gerra hastean 26 urte zituen eta EAJ/ELA-ra afiliatuta, ardura politikoz, Euskadiko Gudontzidiko Itsas Boluntarioen zerrendan izena eman zuen. Berau mutrikuarra zen eta Klaudia Alkorta Alkorta getariarrarekin ezkondu zen. 1936ko azarotik 1937ko abuztura bitartean Euskadiko Gudontzidiko Jaimin eta D-17 ontzietan gudari gisan jardun zuen. Labezain postuan jardun zuen.

1937ko martxoa amaiera aldean, Jamin, Industria Sailaren ardurapean utzi zuten, arrantza-ontzi bihurtzeko. Handik eta hilabete batera, Jose Ituarte Etxebarria D-17 destruktorean ontziratu zen. Hartan zebilela, D-17ak, Santoñatik Santanderrera zihoanean, azpiaz hondoa joeta 1937ko abuztuaren 14an Nojako hondartzan lehertu egin zen. Bertan, Tomas Kamio Uzin getariar gudaria hil zen. Handik eta egun gutxira, 1937ko abuztuaren 26an, Santoñako Hitzarmenarekin, frankistek atxilotu eta preso egin zuten. Gerraren eraginez, preso politikoa izan zen[1159].

## 335. ITUARTE ETXEBARRIA, JOSE LUIS

Getaria ebakuatu ostean, bide luzea zeharkatuta, Frantzian babestu zen. Bigarren Mundu Gerra hasita, naziek espainiar estatu frankistara estraditatuko zutelako beldurrez zen. Hartaz, 1941eko urtarrilaren 15ean, Euskal Herriko zein Espainiar Estatuko Bigarren Errepublikaren aldeko politika arloko familia garrantzitsuekin batera, Alsina ontzian alde egin zuen. Bidaian zehar, Dakarren (Senegal) zenbait hilabete pasa behar izan zituzten. Bigarren Errepublikako pasaporteekin, paperik gabeko pertsonak zirela kontsideratu zituzten. Tripulazioa ere greban jarri zitzaien eta ahora zerbait eraman ahal izateko, beraien arropak ere saldu behar izan zituzten. Azkenean Atlas mendien magaleko Sidi-el-Ayashy eta Kasha Tadla kontzentrazio-eremuetara eraman zituzten. Argentinako Euskal Etxetik bidalitako eta Mexikotik bidalitako diruaren bitartez, Casa Blancan ezartzea lortu zuten. In-

---

[1154] GUA / Sabino Arana Fundazioa-Euskal Abertzaletasunaren Agiritegia.
[1155] ARITZABALETA GANTXEGI, I., op.cit, 99.or.
[1156] Aranzadi Zientzia Elkarteko Datu-Basea.
[1157] Sabino Arana Fundazioa-Euskal Abertzaletasunaren Agiritegia.
[1158] GUA.
[1159] GUA / AZEDB / Testigantza: Izaskun Ituarte eta Miren Agirrezabal / Gipuzkoako Foru Aldundia: http://www.marinavasca.eu/eu/personal.php?o=3.

dalecio Prietok bidalitako Quanza itsasontzi portugaldarraren bidez, 1941ko urriaren 31n Hego Abya Yalarako[1160] bidean jarraitu zuten; bertako zenbait herrialdeetan kokatuko zirelarik. Jose Luis Ituarte Etxebarria, hala Argentinara iritsi zen. Argentinara iritsi bitartean, seguruenik, haren herrikide Antonio Alegria Lasarekin joan zen[1161].

## 336. ITUARTE ETXEBARRIA, LUIS

Getariako udaletxe frankistak egindako txostenean, bere jarrera ez zela beren ideologiari erasokorra determinatu zuten[1162].

## 337. ITUARTE ETXEBARRIA, MIGUEL

Gerra hastean, Amuategi Batailoiarekin tropa frankisten aurka borrokatu zuen[1163].

## 338. ITUARTE ETXEBARRIA, PEDRO

Jaiotzez mutrikuarra, baina Getarian bizi zen. Gerra hastean, 22 urte zituen eta EAJ/PNV-ra afiliatuta, ardura politikoz, Eusko Gudarosteko Amaiur Batailoian tropa frankisten aurka borrokatu zuen. Hartan, abuztua bukaeran Laredon atxilotu egin zuten. Haren ostean, Langile Batailoietan gatibu-lanak egin behar izan zituen. Gerraren eraginez, preso politikoa izan zen.

## 339. ITUARTE ESNAL, ITZIAR

Getariar haur errefuxiatua, Frantziako Renazé udalerrian[1164].

## 340. ITUARTE ESNAL, LORE

Getariar haur errefuxiatua, Frantziako Renazé udalerrian[1165].

## 341. ITUARTE URBIETA, ANTONIO

Gerra hastean, EAJ/PNV-ko afilitua izaki, ardura politikoz, tropa frankisten aurka borrokan jardun zuen eta haren ostean, erbestera egin zuen. Donibane Lohizunen (Ipar Euskal Herria) erbesteratu zen[1166].

## 342. ITURBE, SATURNINO

Getariarra. Juan Iturbe Egañaren aita zen eta Getariako udaletxe frankistari bere semearen jarrera gerran zehar tropa frankisten aurkakoa ez zela izan adierazi zien. Horren bidez, semea ahalik eta egoera onenean kartzelatik ateratzea nahi zuen[1167].

## 343. ITURBE EGAÑA, JUAN

Gerra hastean 24 urte zituen, ezkongabea eta EAJ/PNV-ra afiliatuta, ardura politikoz, Eusko Gudarosteko Amaiur Batailoiarekin tropa frankisten aurka borrokan jardun zuen. Herrira frankistak sartu baino lehen, Komiteak agindutako 6 guardia egin zituen. Getariatik, 1936ko irailaren 20ko ebakuazioan irten eta Mundakarra egin zuen. Abenduaren 28an bere kinta deitu eta Amaiur Batailoiko ametrailadoreetan borrokatu zuen, Gernika, Bizkaian oro har, 1937ko abuztuaren 26ko arratsaldeko 16:00etan Laredon tropa frankistek preso egin arte. Zaragozako Presoen Klasifikaziorako Komisioak C atalean klasifikatu zuen eta 25 zenbakidun 2. Konpainiako langile batailoian gatibu-lanak egitera behartu zuten. Haren ostean, Donostiako plazako 11 zenbakidun epaitegi militarrak berta eta Marcial Olaizola Iruretagoiena getariarrari “diligencias previas” ireki zizkieten 1939an. 1939ko irailaren 13an Murgiako kontzentrazio-esparruan aurkitzen zen eta egun horretan bertan espetxealdi arindua lortu zuen. 1940ko abenduaren 23an behin-betiko askatasuna lortu zuen eta kausa itxi egin zen. Gerraren eraginez, preso politikoa izan zen[1168].

---

[1160] Liburuan zehar, Hego Amerika izenpetzea erabili beharrean, gaur egun Hego Abya Yalako herritar autoktonoek aldarrikatzen duten Hego Abya Yala izenpetzea erabiltzeko hautua egin dugu. Honako izenpetzea, Panama eta Kolonbiako kuna herriak geroago Amerika deituko zenari deitzen zioten. Maiek ere adiera hori erabili zuten. Kontzeptuak, zehazki, “lur heldua”, “lur bizia” edo “loratzen ari den lurra” esan nahi du.

[1161] GUA / AZEDB.

[1162] GUA.

[1163] AZEDB / CDMH: DNSD-SECRETARIA,FICHERO,33,I0031222; DNSDSECRETARIA,FICHERO,33,I0031221.

[1164] AZEDB.

[1165] AZEDB.

[1166] GUA / AZEDB / CDMH: DNSD-SECRETARIA,FICHERO,33,I0031264.

[1167] GUA.

[1168] GUA / AZEDB / Ipar-Mendebaldeko Eskualde Militarreko Tarteko Artxiboa, Ferrol, 2055/39 / AGMG: kaxa: 1578. Esp.: 73816.

### 344. ITURBE GALARRAGA, ANICETO

Getariarra jaiotzez, gerra ostean Donostian bizi zen eta bere emaztea Elena Etura zen. Gerra hastean, 27 urte zituen eta Eusko Gudarosteko Sukarrieta Batailoian tropa frankisten aurka borrokan jardun zuen. Haren ostean, 1943ko apirilaren 6an atxilotu eta bost egunez kartzelan izan zuten, aske geratu arte[1169].

### 345. ITURRINO ARANGUREN, LUIS

Gerra hastean 17 urte zituen eta Eusko Gudarosteko Prieto Batailoian tropa frankisten aurka borrokatu zuen[1170].

### 346. ITURRINO AZPEITIA, AGUSTIN

Getariar txikienak, agintari frankistek beren boterеaz baliatuz, balio militarretan hezi zituzten. Horregatik, Agustin Iturrino Azpeitia gerra hastean 12 urte zituena, Getariako Pelayo -en[1171] zerrendan ageri da[1172].

### 347. ITURZAETA BASURTO, ASCENSIO

Gerra hastean 34 urte zituen eta ez borrokatzeko, Getariatik ihes egin zuen[1173].

### 348. ITURZAETA BASURTO, TORIBIO

Gerra hastean 20 urte zituen eta ez borrokatzeko, Getariatik ihes egin zuen[1174].

### 349. ITURZAETA GEZALAGA, RAFAEL

Jaiotzaz Aizarnazabalgoa, baina Getarian bizi zen. 1941eko apirilaren 23an lapurretagatik atxilotu eta hiru egunera aske utzi zuten. Genaro Uzin Esnal eta Jose Miguel Etxabe Manterola getariarrekin Azpetiako Barrutiko Presondegian preso egon zen[1175].

# J

### 350. JIMENO, FACUNDO

Getariar txikienak, agintari frankistek beren botereaz baliatuz, balio militarretan hezi zituzten. Horregatik, Facundo Jimeno, Getariako Pelayo -en[1176] zerrendan ageri da[1177].

### 351. JIMENO, JOSE MARIA

Getariar txikienak, agintari frankistek beren botereaz baliatuz, balio militarretan hezi zituzten. Horregatik, Jose Maria Jimeno, Getariako Pelayo -en[1178] zerrendan ageri da[1179].

### 352. JIMENO ALBERDI, MARCELINO

Getariar txikienak, agintari frankistek beren botereaz baliatuz, balio militarretan hezi zituzten. Horregatik, Marcelino Jimeno Alberdi, Getariako Pelayo -en[1180] zerrendan ageri da[1181].

---

[1169] GUA / AZEDB / AHPG-GPAH GEZ, 3595/37.
[1170] GUA.
[1171] Tradizionalistek haurrak Comunión Tradicionalista-ko oinarri politiko-sozialen arabera hezteko sortutako asoziazioa.
[1172] GUA 93-01.
[1173] GUA.
[1174] GUA.
[1175] AHPG-GPAH GEZ, 2784/71.
[1176] Tradizionalistek haurrak Comunión Tradicionalista-ko oinarri politiko-sozialen arabera hezteko sortutako asoziazioa.
[1177] GUA 93-01.
[1178] Tradizionalistek haurrak Comunión Tradicionalista-ko oinarri politiko-sozialen arabera hezteko sortutako asoziazioa.
[1179] GUA 93-01.
[1180] Tradizionalistek haurrak Comunión Tradicionalista-ko oinarri politiko-sozialen arabera hezteko sortutako asoziazioa.
[1181] GUA 93-01.

## 353. JIMENO BAKAIKOA, PEDRO

Fuentelarreinakoa (Madrid) jaiotzez, Getariako Sagatzaga baserrian bizi zen eta apaiza zen.Gerra hastean 21 urte zituen eta, hasiera batean Getariako eskolez arduratu bazen ere, soldaduska, Donostiako kuartelean egin zuen[1182].

## 354. JIMENO OSES, ALEJO

Tropa frankistak Getariara sartzean F.E.T. eta J.O.N.S.-eko buruzagi izendatu zuten. Bere zereginekin betetzeko, 1936ko irailaren 23an, bere babeserako arma erabiltzeko baimena Zarautzeko Komandante Militarrari eskatuz "Actualmente ejerce el cargo o Jefatura local de la F.E.T. y de las J.O.N.S., cargo que en las actuales circunstancias, el cumplimiento del deber lleva consigo enemistades, y la lógica aconseja estar prevenido para su seguridad personal. Por todo lo cual a V.S. suplica se digna autorizar al recurrente para el uso de arma corta". 1937ko apirilaren 11tik 1941eko irailaren 8ra bitartean, Getariako udaletxe-frankistako zinegotzi izendatu zuten. Getariatik alde egitean, bere ordez, Eugenio Egurbide Azpeitia ezarri zen Getariako F.E.T. eta J.O.N.S.-eko buruzagi gisan[1183].

# K

## 355 KAMIO UZIN, ATANASIO

Gerra hastean, 25 urte zituen eta EAJ/PNVra afiliatuta izaki, ardura politikoz, Euskadiko Gudontzidiko Itsas Boluntarioen zerrendan izena eman zuen. 1937ko urtarriletik azarora bitartean, Euskadiko Gudontzidiko Bou Gipuzkoa eta Ciscar destruktorean gudari gisan jardun zuen. 1937ko martxoaren 5ean, Matxitxako lurmuturreko batailan parte hartu zuen eta bertan Canarias gurutzaontziaren kanoikaden eraginez, zauritu egin zen. Bou Gipuzkoak, tripulazioan 5 hildakorekin eta 12 zauriturekin Portugaleteko Itsas-Basera sutan sartu zen. Atanasio Kamio Uzinez gain, zaurituen artean, Juan Burgaña Etxebarria, Manuel Aranguren Iñarra eta Jose Maria Olaskoaga Zubimendi getariar gudariak zeuden. Errekuperatu ostean eta Bou Gipuzkoari konponketak egindakoan, beste zenbait ekintzetan ere parte hartu zuten. Esaterako, 1937ko ekainean Bizkaiko Itsas Armadak egindako eskakizunari erantzuna emanez, Ciscar ontzian aurreko marinelak ordezkatuko zituen 100 Euskadiko Gudontzidiko gudarietatik bat izan zen. Santanderrera iristean, Bizkaiko Itsas Armadak hala aginduta[1184], tripulazioaren 2/3-ekin batera Ciscarretik lehorreratu eta berriro ere, Bou Gipuzkoako gudari izatera pasa zen. Santander frankistek menpean hartu ostean, 1937ko abuztuaren 24an, Bou Gipuzkoa armez kargaturik Gijoneko portura joan zen, Bou Bizkaia eta Iparreko-Izarra[1185] ontziekin batera. 1937ko abuztuaren 28an, Bou Gipuzkoa Frantziara heldu zen eta azken oroigarri gisa, Girondan sartzean, ikurrina jaso zuen. Azaroan jada, Bou Gipuzkoa, Antonio Fernandez Santos ontzi-tenientearen eskuetan geratu zen. Orduantxe, Atanasio Kamio Uzinek, bere azken zerbitzuak gudari gisan egin zituen. 1938an, berriro ere funtzionamenduan ezartzeko planak egin zituzten, baina bertan behera geratu ziren. 1939an armadoreei itzuli eta 1966an desegin egin zuten[1186].

## 356. KAMIO UZIN, FRANCISCO

Gerra hastean, EAJ/PNV-ko afiliatua izaki, ardura politikoz, Euskadiko Gudontzidiko Itsas Boluntarioen zerrendan izena eman zuen. Hartaz, 1937ko ekainean Euskadiko Gudontzidiaren Getxoko kuartelean lan egin ostean, Bou Iparreko-Izarra ontzian ontziratu zen. Santander frankistek menpean hartu ostean, 1937ko abuztuaren 24an, Iparreko-Izarreko[1187] armez kargatuta zihoazen Bou Gipuzkoa eta Bou Bizkaiarekin ontziekin batera Gijonera joan zen. 1937ko irailaren 7an, Valeriano Saiz BIA-ko gaituarekin, beste 10 kidez eta senidez, komandantearekin eta jatorrizko tripulazioarekin irten eta irailaren 9an, Le Verdonen sartu zen. Azaroan, Juan Sobier Poith ezarri zuten bertako komandante eta 1938ra arte postu hori bete zuen. Azaroan, hain zuzen, Francisco Kamio Uzinen Bou Iparreko-Izarra ontziko azken arrastoa ageri zaigu. 1939an boua armadoreei eman eta 1969an desegin egin zuten.

## 357. KAMIO UZIN, TOMAS

1913ko urriaren 17an jaiotako marinel getariarra. Gerra hastean, Getarian bizi zen eta EAJ/PNV-ra afiliatuta egonik, ardura politikoz jokatuz, Euskadiko Gudontzidiko Itsas Boluntarioen zerrendan izena eman zuen. 1937ko urtarriletik apirilera bitartean, Rafael Cantos miaketa ontzian lan egin zuen; haren ostean, hilabetez maiatzera bitartean, D-18 miaketa ontzian lan egin zuen. Maiatzetik ekainera berriz, D-24an bete zuen bere gudari zerbitzua. Ekainetik aurrera, apiriletik miaketa zerbitzua egiten zuen

[1182] GUA.

[1183] Garai hartan, frankistena zen herriko botere guztia eta beraz, arma, beraien ideologiaren aurkakoak zirenei errepresioa eragiteko erabiliko zuen.

[1184] Abuztuaren 5etik Bou Gipuzkoa BIA-ren aginduetara zegoen.

[1185] Honek ez zuen kargamendu militarrik eraman soinean.

[1186] AZEDB / GUA / Gipuzkoako Foru Aldundia: http://www.marinavasca.eu/eu/personal.php?o=3 / CDMH: DNSD-SECRETARIA,FICHERO,9,C0034665.

[1187] Honek ez zuen kargamendu militarrik eraman soinean.

D-17 miaketa ontzian lan egin zuen. Hartan zebilela, D-17ak, Santoñatik Santanderrera zihoanean, azpiaz hondoa joeta 1937ko abuztuaren 14an Nojako hondartzan lehertu egin zen.Jose Antonio Arregi Aranguren, Urbano Arregi Uzin orduan D-17ko gudaria zenaren semeak azaltzen digunez, Kamiok, bere bota berrien bila joan nahi izan zuen eta hartzera joatean leherketa izan eta larriki zauritu zen, bere aita Urbanorekin batera. L-6 ontzi laguntzaileak, Tomas Kamio Uzin gudari getariarra hartu eta larriki zaurituta Santoñara eraman zuen. Handik gutxira hil egin zen[1188].

## 358. KEREJETA AGOTE, CIPRIANO

Frankistek iheslari deklaratu zuten. Landetan (Frantzia) bere anaia Gerardo eta Nikasiorekin eta, Juan Burgaña Etxebarriarekin basoetan lanean jardun zuen.

Behin gerra bukatuta Frantzian bizi eta bere familia izan zuen. Diktadura frankista garaian, noizik eta behin Getariara itzultzen zen, beti ere ezkutuan. Inork ikusiz gero, salatu egiten zuten eta kartzelara ez joateko azkar alde egiten zuen[1189].

## 359. KEREJETA AGOTE, GERARDO

Gerra hastean, 24 urte zituen eta EAJ/PNV-ra afiliatuta, ardura politikoz, Euskadiko Gudontzidiko Itsas Boluntarioen zerrendan izena eman zuen. 1937ko urtarriletik uztailera bitartean, Jaimin, D-22 eta Ciscar destruktoreetan gudari gisan jardun zuen. Bere emaztea Marta Alzaga 1937ko otsailaren 13an, Getariako udaletxe frankistak herritik espultsatu zuen, Gerardo Kerejeta Agote Bigarren Errepublikako gobernu legitimoarekin estatu-kolpea emandako frankisten aurka borrokan aurkitzearren. Marta Alzagak, beren alaba Nekane Kerejeta Alzaga Getarian familiarekin utzi beharra izan zuen. Jaimin destruktorea, 1937ko martxoa amaiera aldean, Jamin, Industria Sailaren ardurapean utzi zuten, arrantza-ontzi bihurtzeko. Gerardo Kerejeta Agote, martxoan bertan, D-22 destruktorera lekualdatu zuten. 1937ko ekainean Bizkaiko Itsas Armadak egindako eskakizunari erantzuna emanez, Ciscar ontzian aurreko marinelak ordezkatuko zituen 100 Euskadiko Gudontzidiko gudarietatik bat izan zen. Santanderrera iristean, Bizkaiko Itsas Armadak hala aginduta, tripulazioaren 2/3-ekin batera Ciscarretik lehorreratu egin zen. Hemendik, Frantziara egin zuen; hain zuzen, udaletxe frankistako dokumentuen arabera, 1939ko maiatzaren 11n Frantzian aurkitzen baitzen eta itzultzeko eskaera egin zuen. Frantzian, bitartean, bere anaia Cipriano, Nikasio Kerejeta Agoterekin eta Juan Burgaña Etxebarriarekin batera, basoetan lan egin zuen[1190].

## 360. KEREJETA AGOTE, NIKASIO

Gerra hastean 30 urte zituen eta EAJ/PNV-ko afiliatua izanik, ardura politikoz, Euskadiko Gudontzidiko Itsas Boluntarioen zerrendan izena eman zuen. 1936ko abendutik 1938ra bitartean, Bou Donostiako gudaria izan zen. Hori aitzakiatzat hartuta, 1937ko otsailaren 13an, Getariako udaletxe frankistak, bere emaztea Hipolita Urresti Andonegi herritik espultsatu zuen. Horren eraginez, Raimundo eta Miren Kerejeta Urresti, Getariako familiarekin utzi beharra izan zuen. Emazteak, berekin, bizki jaioberriak, Bautista eta Jose Angel Kerejeta Urresti, besoetan hartuta eraman beharra izan zituen. Beste zenbait errefuxiaturen gisan, Eusko Jaurlaritzak trazatutako bidea, Bilbotik, Santoñara eta handik Frantziara (Privas) jarraitu behar izan zuten. Bitartean, Nikasio Kerejeta Agotek, 1937ko martxoaren 5ean, Matxitxako lurmuturreko guduan, Bou Donostiarekin, salbu ipintzea lortu zuen. Bou Nabarra euskal gudaontziaren eta Canarias gurutzaontzi frankistaren arteko gudua amaitu ostean, Bou Nabarratik salbatutako gudariak salbu ipintzeko Bou Donostia haiengana hurbildu zen. Bou Nabarran bizirik ateratako gudariek Bou Donostiakoei, beraiek salbu zeudela eta hala jarraitzeko esan zieten, lehenengoak frankistei entregatuko zirela adieraziz. Nikasio Kerejeta Agotek, bere herriko Periko de la Hoz Kintana, Julian Lekube Burgaña eta Enrike Manterola Agote Bou Nabarrako gudariak Canarias gurutzaontziko frankisten atzamarretan atxilotuta geratu baino lehenagoko unean denbora askoan atzenez ikusteko aukera izan zuen. Haren ostean Bou Donostia Arcachonen (Frantzia) babestu zen. Hilaren 12an La Pallicera (Frantzia) joan eta zenbait konponketa egin zizkioten. 1937ko uztailean, armaz kargatutako Viiu merkantzia-ontzia Gijoneraino eskoltatu zuen. Iparraldeko fronteko batailak amaituta, 1937ko azaroaren 1ean Errepublikar Armadak bere egin zuen ontzia. 1938ko apirilaren 17an, boua desarmatu eta haren armak, Frantziako armategi batean utzi behar izan zituzten. Ordura arte, Nikasio Kerejeta Agote Bou Donostian erroldatuta egon zen. Frantzian, bitartean, bere anaia Cipriano, Gerardo Kerejeta Agoterekin eta Juan Burgaña Etxebarriarekin batera, basoetan lan egin zuen.1939ko martxoaren 9an, Hipolita Urresti Andonegi bere emazteak, udaletxe frankistari, berau Frantziatik itzultzeko eskakizuna egin zion[1191].

## 361. KEREJETA ALZAGA, NEKANE

Bere ama, Marta Alzaga, udaletxe frankistak 1937ko otsailaren 13an Getariatik espultsatu zuen, haren senarra Gerardo Kerejeta Agote (EAJ/PNV) Euskadiko Gudontzidiko gudaria izateagatik. Ama Bilbora erbesteratu bitartean, Nekane Getariako familiaren etxean egon zen[1192].

---

[1188] AZEDB / GUA / Testigantza: Jose Arregi Aranguren / Gipuzkoako Foru Aldundia: http://www.marinavasca.eu/eu/personal.php?o=3.

[1189] Testigantza: Bautista eta Jose Angel Kerejeta Urresti.

[1190] GUA / AZEDB / CDMH: DNSD-SECRETARIA,FICHERO,53,Q0000751 / Gipuzkoako Foru Aldundia: http://www.marinavasca.eu/eu/personal.php?o=3.

[1191] GUA / AZEDB / CDMH: DNSD-SECRETARIA,FICHERO,53,Q0000753;DNSDSECRETARIA,FICHERO,53,Q0000752. / Testigantza: Jose Angel Kerejeta Urresti eta Bautista Kerejeta Urresti / Gipuzkoako Foru Aldundia: http://www.marinavasca.eu/eu/personal.php?o=3.

[1192] GUA.

## 362. KEREJETA URRESTI, BAUTISTA

1935eko uztailaren 6an getariar haur errefuxiatua. Bere ama, Hipolita Urresti Andonegi Getariatik, berriki indarrez boterea hartu zuten faxistek 1937ko otsailaren 13an bota zutenean, harekin eta haren anaia Jose Angelekin batera kanporatua. Bitartean, haien anai-arreba Miren eta Raimundo familiakoekin geratu ziren Getarian. Hipolita amak, eta bi anai kanporatuek Bilbotik Santoñara eta handik Frantziako Privas-erako erbesterako bide gogorra egin behar izan zuten. Horrez gainera, haien aita, Nikasio Kerejeta Agote Euskadiko Gudontzidian borrokan zebilen[1193].

## 363. KEREJETA URRESTI, JOSE ANGEL

1935eko uztailaren 6an getariar haur errefuxiatua. Bere ama, Hipolita Urresti Andonegi Getariatik, berriki indarrez boterea hartu zuten faxistek 1937ko otsailaren 13an bota zutenean, harekin eta haren anaia Bautistarekin batera kanporatua. Bitartean, haien anai-arreba Miren eta Raimundo familiakoekin geratu ziren Getarian. Hipolita amak, eta bi anai kanporatuek Bilbotik Santoñara eta handik Frantziako Privas-erako erbesterako bide gogorra egin behar izan zuten. Horrez gainera, haien aita, Nikasio Kerejeta Agote Euskadiko Gudontzidian borrokan zebilen[1194].

## 364. KEREJETA URRESTI, MIREN

Haren ama Hipolita Urresti Andonegi, bere bi anaia, Bautista eta Jose Angelekin batera 1937ko otsailaren 13an faxistek kanporatu zituztenean, Getarian geratu zen, bere familiakoekin. Haren aita, Nikasio Kerejeta Agote, bitartean, Euskadiko Gudontzidian gerran zebilen[1195].

## 365. KEREJETA URRESTI, RAIMUNDO

Haren ama Hipolita Urresti Andonegi, bere bi anaia, Bautista eta Jose Angelekin batera 1937ko otsailaren 13an faxistek kanporatu zituztenean, Getarian geratu zen, bere familiakoekin. Haren aita, Nikasio Kerejeta Agote, bitartean, Euskadiko Gudontzidian gerran zebilen[1196].

# L

## 366. LABRADOR DIEZ, JOSE CIPRIANO

1917ko abenduaren 9an jaio zen. Gerra hastean, 18 urte zituen. Gerra garaian “en rebeldía” deklaratu ostean, kausa ireki zioten. Bere deklarazioaren arabera: gerra hastean Madrilen zen, ikaslea zen. Madrildik alde egin behar izan omen zuen, marxistek atxilotu egin nahi zutelako. Azkenean, Almerian 1937ko abuztuaren 13an atxilotu zuten eta 1939ko martxoaren 28an Valentzian frankistek askatu egin zuten. Bitartean, honako kartzeletan egon zen: Almeria, Baza, Alacant, Valentzia… “Hermandad de Cautivos por España” deituriko elkarteko Madriden sozio zen eta bere karnet zenbakia 5.262 zen. Canillas-en (Madrid) bete zituen bere soldaduska egitekoak. 1942ko abuztuaren 5ean “División Española de Voluntarios en Alemania” aurkitzen zen; Errusian aurkitzen zen. Horren guztiaren eraginez, ez zuten kondenatu[1197].

## 367. LARRAMENDI ARRAIZ, JOSE MARIA

Jaiotzez tolosarra. Gerra hastean, ezkongabea, lanbidez arotza zen Donostian, 24 urte zituen eta UGT-ra afiliatuta, indar-errepublikarrekin, Leandro Carro Batailoian, tropa frankisten aurka borrokatzen jardun zuen. Gerra hasi berritan, Getarian aurkitzen zen eta Fronte Popularraren aginduz hiru guardia errepidean egin zituen. 1936ko irailaren 20an San Antonio Abad itsasontzian itsasoratu zen Lekeitiora, bertan 15 egun eginez. Bere kinta deitu eta boluntarioki Leandro Carro batailoira aurkeztu zen. Harekin borrokatu zuen 1936ko urriaren 1etik, tropa frankistak 1937ko abuztuaren 26an Santanderren atxilotu zuten arte.Santanderren atxilotu ostean, Santoñara bidali zuten, 21 zenbakiko Langile Batailoira gatibu-lanak egitera, zeinetan 12 hilabete bete zituen. Handik, Miranda de Ebroko kontzentrazio esparrura eta 134 zenbakiko Langile Batailoiko 4. Konpainiara (Contella) bidali zuten.Bertan 1939ko uztailaren 10era bitartean gatibu-lanak egiten jardun zuen, zeinetan lizentziatu egin zuten, eta Getariara itzultzeko aukera eman zioten. 1939ko abenduaren 7an, Getariako Guardia Zibilari berau atxilotzeko agindua helarazi zioten. Donostiako Plazako seigarren erregio militarreko 3. Epaitegi militarrak “aurretiazko eginbideak” ireki zizkion. Frankistek atxilotzean, Presoen Klasifikaziorako Komisioak A sailkapena eman zion. Zarauzko Guardia Zibilaren postuko Gabriel Garcia Perez sarjentuaren arabera, “jokabide ona” adierazi zuen, nahiz eta

---

[1193] CDMH: DNSD-SECRETARIA,FICHERO,53,Q0000795. / Testigantza: Bautista eta Jose Angel Kerejeta Urresti.

[1194] CDMH: DNSD-SECRETARIA,FICHERO,53,Q0000796 / Testigantza: Bautista eta Jose Angel Kerejeta Urresti.

[1195] Testigantza: Bautista eta Jose Angel Kerejeta Urresti.

[1196] Testigantza: Bautista eta Jose Angel Kerejeta Urresti.

[1197] GUA / Ipar-Mendebaldeko Eskualde Militarreko Tarteko Artxiboa, Ferrol, 3867.

UGT-ra afiliatu eta frontera joan zela argitu. Eugenio Egurbidek ere “jokabide ona” zuela adierazi zuen, baina gerra iristean “milicias voluntarias del frente popular” delakora aurkeztu eta “habiendo hecho alguna salida con arma” adierazi zuen; hala eta guztiz ere, “sin que tenga conocimiento esta Alcaldía, de haber participado en ningún hecho criminal” berretsi zuen. Arma zuelako deklarazioa, kaltegarria izan zitekeen. Deklaraziorik gogorrena, Alejo Jimeno Oses, garai hartan, oraindik ere Getariako F.E.T. eta J.O.N.S.-eko buruzagia zenarena dugu. Azken horren arabera, Larramendi Getariako Zentro Errepublikarrean afiliatuta zegoela adierazi eta herrian Fronte Popularrak agintea izan bitartean egondako arpilatze zein lapurreten errudunetako baten gisan identifikatu zuen; batik bat, Casa Torres-ko markesaren etxean egindako arpilatzeen parte hartzaile aktibo gisan identifikatu zuen. Horrez gainera, Getariako milizianoen kuartelean parte hartu eta “fué (sic) uno de los que vinieron a detenerme el día 21de julio de 1936”. Deklarazio hauek guztiak gerra irabazi zutenek idatzitakoak direla kontutan hartu behar dugu eta askotan gerra galdu zutenak guztiz zapaltzeko eginak izan zirela. Larramendiren deklarazioaren arabera “Niega haber participado en saqueos y requisas, ni en la finca del Sr. Marques (sic) de Casa Torres.- Niega asimismo haber participado en la detención de D. Alejo Gimeno el dia (sic) veintiuno de Julio del treinta y seis.-.” 1940ko urtarrilaren 27an Eibarren bizitzen zegoen. 1940ko otsailaren 21ean Eibarko Guardia Zibilaren komandanteak, ez dakitela Larramendi non aurkitzen den adierazten du. 1940ko martxoaren 15ean behin-betiko askatasuna lortu zuen[1198].

## 368. LARRAÑAGA, JOSE

Errekete gisa egindako zerbitzuengatik prestazioa jasotzen zuen[1199].

## 369. LARRAÑAGA, JOSE

Bere jabetzako kotxea, tropa frankistek saldu egin zioten[1200].

## 370. LARRAÑAGA, IGNACIO

Bere kamioia, tropa frankistek gerrarako errekisatu zioten[1201].

## 371. LARRAÑAGA, NAZARIA

Aizpuruaren alarguna tropa frankisten atzaparretatik ihesi, Donibane Lohizunera erbesteratu zen. Hark, San Anton mendian zuen lursaila errekisatu egin ziotela eta Ipar Euskal Herritik Getariara itzultzean, Ramon Alkortaren eskuetan zegoela adierazi zuen. 1935ean, gerra aurretik, lursailaren bi zati, Manuel Aranguren eta Juan Azkueri Nazaria Larrañagaren adostasunez eman zizkieten. Gerra osteko egoera oso bestelakoa zen, erbestean zegoela, ideologia frankistaren aurkakoa izateagatik errekisatu baitzioten. Udaletxe frankistari berriro ere bere lurra itzultzeko eskaera egin zion[1202].

## 372. LARRAÑAGA, SATURNINO

Nuestra Señora del Rosario ontziko patroia izanik, Getariako udaletxe frankistak, 1936ko urriaren 13an Getariara itzultzeko baimena eman zion[1203].

## 373. LARRAÑAGA AMEZTI, JUAN (JOSE)

Gerra hastean, 28 urte zituen. Tropa frankistak Getariara heldu bezain laster, atzeraguardiako errekete gisan jardun zuen. Errekete hauek, atzeraguardiako laboreez arduratzen ziren: zentsura, hilobiratzeak, hilketak, fronteko labore jakin batzuk baina borrokan egin gabe… Haren ostean, erreketeen Zumalakarregi Tertzioko 3. Konpainian Bigarren Errepublikako indarren aurka borrokan jardun zuen. 1938ko apirilaren 9an, Montejurra Tertzioan borrokatzen aurkitzen zen. Horren ostean, Domina Militar Kolektiboarekin saritu zuten. 1939ko uztailaren 29an, udaletxe-frankistari, gerran parte hartu eta irabazi izateagatik, Urola treneko zerbitzuetan edo errepideen konponketetan lan egiteko lehentasunezko eskubidea zuela adierazi zion. 1941eko irailaren 20tik aurrera, Askizu auzoko alkatea izendatu zuten[1204].

## 374. LARRAÑAGA ARANBERRI, EZEKIEL

Getariar txikienak, agintari frankistek beren botereaz baliatuz, balio militarretan hezi zituzten. Horregatik, Ezekiel Larrañaga Aranberri gerra hastean 16 urte zituena, Getariako Pelayo -en[1205] zerrendan ageri da[1206].

[1198] GUA / AZEDB / Ipar-Mendebaldeko Eskualde Militarreko Tarteko Artxiboa, Ferrol, 2645.
[1199] GUA.
[1200] GUA.
[1201] GUA.
[1202] GUA.
[1203] GUA.
[1204] GUA.
[1205] Tradizionalistek haurrak Comunión Tradicionalista-ko oinarri politiko-sozialen arabera hezteko sortutako asoziazioa.
[1206] GUA 93-01.

## 375. LARRAÑAGA ARANBERRI, JOAKIN

Gerra hastean 18 urte zituen eta erreketeen itsas-armadan boluntario gisan indar-errepublikarren aurka borrokan jardun zuen. Canarias gurutzaontzian denboraldi batean bere zerbitzua eskaini zuen[1207].

## 376. LARRAÑAGA ARANBURU, ISIDRO

Gerra hastean 16 urte zituen eta Getariako udaletxe frankistaren arabera, ez zuen gerran parte hartu. Bere jarrera, frankistek ezarritako erregimenaren arabera, ona zen[1208].

## 377. LARRAÑAGA ARANBURU, JOSE MARIA

Gerra hastean, 19 urte zituen, UGT-ra afiliatuta, Getariako Defentsa Komiteari zenbait gidari-zerbitzu eskaini zizkion. 1936ko irailaren 20ko Getariako ebakuazioan, tropa frankistek bere alde borrokatzeko deituko zuten beldurrez, Getariatik ihes egin zuen. 1937ko ekainaren 19ra bitartean, frankistek Bilbo hartu bitartean Loiola Batailoiko gudari izan zen. 1937ko abuztuaren 7an Presoen Klasifikaziorako Komisioak A atalean sailkatu zuen. Irailaren 9an, Deustoko Presoen Klasifikaziorako Komisioak, C atalean sailkatu zuen, armekin ibilitako gudaria zela kontutan hartuz, Getariako Defentsa Komitearekin hartu-emana zuela konfirmatuz eta Casa Torresko markesaren etxean koltxoi eta arropak hartu zituela argudiatuz. 1937ko uztailaren 16an, Deustoko Infekziosoen Ospitalean sukarrarekin gaixorik aurkitzen zen. Egoera horretan, bere aita Jose Maria Larrañaga Zulaikak, bere semea Getariara gerturatzeko eskaera egin zuen, beti ere, hura azkarrago errekuperatu eta tropa frankistekin borrokatzeko prest egongo zelakoan. 1938ko maiatzaren 19an, Cuerpo Ejército Marroquí estafeta de campaña nº39-90 Compañía de automoviles delakoan aurkitzen zen. 1938ko abenduaren 12an Donostiako Plazako 11 zenbakizun epaitegi militarrean kausa ireki zioten; garai hartan, Iruñeako Kotxeen Parkeko 10. Konpainiako soldadua zen. 1938ko urtarrilaren 22an Bilboko plazan epaitu zuten, “causa sumarisima” 10421 delakoan. 1938ko abenduaren 21ean Donostiako Plazara lekualdatzeko agindua eman zioten berriro ere. 1939ko urtarrilaren 27an Cuerpo de Ejército del maestrazgo sección de ambulancia nº 186 , estafeta nº 59 aurkitzen zen eta epaitegira lekualdatzeko deia egin zuten, bertan 1938ko irailaren 1etik zebilen. Han zegoela Ebroko Batailan, Katalunian eta Toledon parte hartu zuen. 1939ko irailaren 27an Donostian Larrañagak deklaratu egin zuen: beronek komitearen aginduz, karneta zuenez, Donostiatik Getariara hornigaiak eramaten lan egin zuela berretsi zuen. Kotxeak Komitearen aginduz Casa Torresko jardinean gordetzen zituztenez, egun batez, Komiteak, beste pertsona batzuk etxe hartatik ateratzen zituzten gauzak eramateko agindu zion eta bertatik 3 edo 4 koltxoi eraman zituen, bi aulki eta mahai bat ere hartu zituzten. Handik, Getariako kofradiara eraman zituen Komitearen aginduz, bertan tropa frankistetatik ihesi zetozen zenbait errefuxiatu babesten baitziren. Getariako ebakuazioan Bilbora alde egin eta boluntarioki Loiola Batailoian izena eman zuen, bere aburuz, jateko zerbait izan zezan. Telegrafoetan lan egin zuen Otxandianon, ofizial kargua lortuta. Gero gaixotuta, Deuston ospitalean egon zen, bertan aurkitzen zen tifusarekin tropa frankistak Bilbora sartu zirenean. Handik, sendatuta, Deustoko Unibertsitateko Kontzentrazio Eremura eraman zuten. Gerora “aske” utzi zuten soldaduska egitera behartuta. Ez zen egon UGT-ko milizietan haren deklarazioaren arabera. Antonio Alegria alkateak, Jose Maria Agerrenekoa eta Pedro Alikante baserriko eskuindarrak udaletxera eramateko agindu zion, baina Alegriak ezer ez egin eta egun berean etxera itzuli ziren. Komitean irratia entzutera ere joaten omen zen Larrañaga. Loiolako Kuarteletik Getariako Komitearen aginduz, milizianoak Tolosako frontera eraman zituen eta Andazarraten egoteko pistola bat eman zioten eta gau bat egin ostean hurrengo goizean Getariara egin zuen. 1939 urtearen amaieran espetxealdi arindua ezarri eta igande eta jai egunetako mezara eta lanera baino ezingo zen irten etxetik. Kamioiarekin bere anaia Ignaciorekin batera lan egiten zuenez, epaileak Getariatik kanpora bidaiak egiteko baimena eman behar zion eta hala jaso zuen. 1940ko otsailaren 21ean aske geratu zen kausa horretatik. Getariako falangeko buruzagi Alejo Jimenoren, idazkari Domingo Chueca-ren eta administradore Bonifazio Balenziagaren arabera, UGT-ko milizietan parte hartu omen zuen eta Getariako ebakuazioan Bizkaia aldera egin omen zuen milizianoekin; Casa Torresko markesaren etxean koltxoi eta arropa zuria hartu zituela ere berretsi zuten. Getariatik bere anaia Rafaelekin alde egin zuela adierazi zuten. Eugenio Egurbide alkate frankistak, UGT-ko milizianoa izan, txofer gisan jardun Komitearentzako egin zituela adierazi zuen[1209].

## 378. LARRAÑAGA ARANBURU, JULIAN

1931ko apirilaren 12ko udal-hauteskundeetan 145 boto lortu ostean, Getariako Bigarren Errepublikako lehen udal-gobernuko zinegotzi hautatu zuten. 1934ko Ardoaren Gerraren ostean agintean zegoen udalbatza abertzalea espultsatu ostean, urte bereko irailaren 19an, Gipuzkoako Gobernadore Zibilak Getariako alkate izendatu zuen. 1936ko otsailera bitartean, Fronte Popularrak Gorteetarako hauteskundeak irabazi arte, Getariako alkate izaten jarraitu zuen. Ordutik aurrera, bere postua, gobernuak amnistiatu eta herritarrek hautatutako Antonio Alegria Lasak hartu zuen[1210].

---

[1207] GUA.

[1208] GUA.

[1209] GUA / Ipar-Mendebaldeko Eskualde Militarreko Tarteko Artxiboa, Ferrol, DESGLOSADO 1769/37 eta 10421 / CDMH: DNSDSECRETARIA,FICHERO,35,L0019325; DNSD-SECRETARIA,FICHERO,35,L0019324; DNSDSECRETARIA,FICHERO,35,L0019326; DNSD-SECRETARIA,FICHERO,35,L0019327.

[1210] GUA / Bigarren Errepublikako Emaitzak. 1931ko Udal Hauteskundeak. / https://www.euskadi.eus/informazioa/bigarren-errepublikako-emaitzak-1931ko-udal-hauteskundeak-guipuzcoa-udalerriak/web01-a2haukon/eu/.

### 379. LARRAÑAGA ARREGI, JOSE

F.E.T. eta J.O.N.S.-eko afiliatua izanik, indar-errepublikarreko presoentzako abalak egin zituen[1211].

### 380. LARRAÑAGA AZPEITIA, BERNARDINO

Gerra hastean, 22 urte zituen. Euskal nazionalista izan zen. Gerran ez zuen parte hartu. 1940ko otsailaren 17an, bere aita Ezekiel Larrañagaren Sendi Deuna itsasontziaren naufragioan hil egin zen[1212].

### 381. LARRAÑAGA AZPEITIA, FERMIN

Gerra hastean, 19 urte zituen. Euskal nazionalista izan arren, gerran ez zuen parte hartu[1213].

### 382. LARRAÑAGA AZPEITIA, IGNACIO MARIA

Gerra hastean 26 urte zituen eta EAJ/ELA-ra afiliatuta egonik, ardura politikoz, Euskadiko Gudontzidiko Itsas Boluntarioen zerrendan izena eman zuen. 1937ko apiriletik azarora bitartean, L-5 txalupako gudaria izan zen. Bilbo ebakuatzean L-5 Santanderrera eta handik, 1937ko abuztuaren 25ean La Pallicera (Frantzia) joan zen. Ignacio Maria Larrañaga Azpeitia 1937ko azarora bitartean L-5an 2. Mekanikari gisan erroldatuta agertzen zaigunez, pentsa genezake, La Pallicerako (Frantzia) bidea hartu zuela hark ere. Gerra amaitu bitartean, L-5, Rocheforten geratu zen. 1939an, ontzia, armadoreei itzuli zioten. Ignacio Maria Larrañaga Azpeitia, 1940ko otsailaren 17an, Getarian, itsasoan izandako naufragio baten eraginez hil egin zen[1214].

### 383. LARRAÑAGA AZPEITIA, JOSE

Gerra hastean 24 urte zituen eta, EAJ/PNV-ra afiliatuta, ardura politikoz, Euskadiko Gudontzidiko Itsas Boluntarioen zerrendan izena eman zuen. 1936ko abendutik 1937ko irailera bitartean, Bou Araba, Getxoko Armadaren Kuartelean eta D-14 destruktorean gudari gisa jardun zuen. Jose Larrañaga Azpeitia Bou Araban gudari gisan lehenengoz jardun zuen. Hark labean izandako zenbait matxura medio, bere artileria desmuntatu eta beste bouei ezarriz, bertako tripulazioa Getxoko txalet batean ezarritako Armadaren Kuartelera lekualdatu zuten. Horrela, Jose Larrañaga Azpeitiak apiriletik maiatzerako hilabetea bertan egin zuen. Handik, maiatzean bertan, D-14 destruktorean ontziratu zen. 1937ko abuztuaren 25ean Santanderretik La Pallicera (Frantzia) egin zuen. Jose Larrañaga Azpeitian itsas-erroldako azken zantzua 1937ko irailean D-14an ageri zaigunez, hark ere Frantziarako bidea egin zuela pentsa genezake. Diktadura frankistan zehar, autoritate frankistek hala eskatuz gero, autoritatearen aurrean aurkezteko betebeharra izan zuen. 1940ko otsailaren 17an, bere anaia Ignacio Mariarekin batera, Getarian, itsasoan izandako naufragio batean hil egin zen[1215].

### 384. LARRAÑAGA AZPEITIA, JUAN

1915eko abenduaren 8an jaio eta Zarauzko Nekazabal baserrian bizi zen. Gerra hasi eta berehala, 1936ko abuztuaren 1ean, miliziano zerrendatu eta Heliodoro Ramiroren agindupean, tropa frankisten aurka borrokatu zuen[1216].

### 385. LARRAÑAGA AZPEITIA, SERAPIO

Gerra garaian Bartzelonan desagertua[1217].

### 386. LARRAÑAGA AZPEITIA, SILVESTRE

1940ko otsailaren 17an, bere aita Ezekiel Larrañagaren Sendi Deuna itsasontziaren naufragioan hil egin zen[1218].

### 387. LARRAÑAGA IRURE, PEDRO JOSE

Izquierda Republicanakoa zen. 1936ko irailaren 20ko Getariako ebakuazioan, tropa frankisten atzaparretatik ihesi Getariatik alde egin zuen[1219].

---

1211 GUA.
1212 GUA.
1213 GUA.
1214 GUA / AZEDB / CDMH: DNSD-SECRETARIA,FICHERO,35,L0019390 / Gipuzkoako Foru Aldundia: http://www.marinavasca.eu/eu/personal.php?o=3.
1215 GUA.
1216 CDMH: PS_BILBAO_88.
1217 Testigantza: Andoni Arregi Oiarzabal.
1218 GUA.
1219 GUA.

## 388. LARRAÑAGA IRURE, SERAPIO

Izquierda Republicanakoa izaki, diktadura frankistan zehar errepresioa jasan behar izan zuen[1220].

## 389. LARRAÑAGA UZIN, DAMIANA

Eskuindar ideologiakoa. 14 urte zituenetik, Getariako telefonoko banatzailea izan zen. 1938an, tropa frankisten aldeko ideologiakoa izateagatik, telefonoko arduraduna izatea lortu zuen[1221].

## 390. LARRAÑAGA UZIN, JOSE

Gerra hastean 26 urte zituen eta erreketeen itsas-armadan boluntario gisan indar-errepublikarren aurka borrokan jardun zuen[1222].

## 391. LARRAÑAGA UZIN, IGNACIO

F.E.T. eta J.O.N.S.-eko afiliatua.

## 392. LARRAÑAGA UZIN, SATURNINO

Gipuzkoako Gobernadore Zibilak, 1934ko abuztuan, Getariako udaletxeko zinegotzi izateko hautatu zuen[1223].

## 393. LARRAÑAGA ZULAIKA, JOSE MIGUEL

Jose Maria Larrañaga Aranburu iheslariaren aita zen. 1937ko uztailaren 16an, bere semea, Deustuko Infekziosoen Ospitalean zegoela, hura bere etxera ekartzeko erregutu zuen. Eskaeraren bidez, semea sendatutakoan, tropa frankistekin borrokatzera joango zela berresten zuen[1224].

## 394. LARREA EPELA, NIKASIO

Azkoitiar apaiz euskal nazionalista. Gerra aurretik, Getariaz gain, Azpeitia, Araba eta Ibizan parrokoa izan zen. EAJ/PNV-koa izaki, tropa frankisten atzaparretatik ihesi, erbestera egin behar izan zuen. 1939ko abenduaren 18an, Capbretonen (Frantzia) errefuxiatuta zegoen. 1940an, La Habana-ra (Cuba) erbesteratu eta bertan, Isla de Pinos, El Guatao eta Jaruco-n apaiz egin zuen. Haren ostean, "Colegio de Niñas Educandas San Francisco de Sales"-eko kapilau postua lortu zuen[1225].

## 395. LASA MURUA, MARTIN

Jaiotzez getariarra, baina Zarautzen bizi zen. Gerra hastean 34 urte zituen eta, Zarautzeko Defentsa Komiteko Gerra Komisarian parte hartu zuen. Haren ostean, Capbretonera erbesteratu zen[1226].

## 396. LASA ZUMETA, FRANCISCA

Miguel Alegriarekin ezkonduta zegoen. Beren semeak, Antonio Alegria Lasa kasu, euskal nazionalistak izan arren, beraiek ez zuten inongo momentuan parte hartze politikorik izan[1227].

## 397. LASAGA INZA, DOMINGO

1905eko urriaren 22an Mañerun jaio zen eta Villabonan bizi zen. Getarian, UGT-ko afiliatua izanik, 1936ko uztailaren 21ean, ardura politikoz, miliziano zerrendatu eta indar-errepublikarrekin tropa frankisten aurka borrokara joan zen. Haren buruzagia, Isidro Berasaluze izan zen[1228].

## 398. LAURGAIN PIOZAGA, JOSE ANTONIO

Donostiarra, 1911ko maiatzaren 12an jaio zen eta lanbidez bidezaina zen. 18 urtez 2. Klaseko soldadu gisan egon beharra ezarri zioten, 1931ko itsas soldaduskakoa zen. Ordutik aurrera, kamillekin lanean Cellan (Teruel) jardun zuen. 1938ko martxoaren 16an Aragoi Garaira (Ayerbe) lekualdatu zuten. Apirilaren 11n, Ager-era (Lleida) lekualdatu zuten. Maiatzaren 9an, Salas de

[1220] GUA.
[1221] GUA.
[1222] GUA.
[1223] GUA / El Diario Vasco 1935-06-16.
[1224] GUA.
[1225] AZEDB / DOMINGO CUADRIELLO, JORGE. 2009. El exilio Republicano Español en Cuba. Siglo XXI: Madrid / Azkoitiako Udal-Agiritegia.
[1226] GUA / AZEDB.
[1227] GUA.
[1228] CDMH: PS_BILBAO_88..

Pallares-era lekualdatu eta ekainaren 18an Escalo-ra lekualdatu zuten. Bertan, irailaren 3an buruan eta besoan eskuko bonba baten eraginez zauritu zuten bitartean jardun zuen. Hilaren 19an, Irungo ospitaletik Donostiako Mola ospitalera lekualdatzeko eskatu zioten. Donostiako Mola ospitalean errekonozimendua egin behar zioten eta hori egin ostean eta Irunera itzuli beharrean, sei edo zazpi egun egin zituen bere Donostiako baserrian. Irunen aurkeztean alta eman eta berriro ere Burgoseko bere postura itzultzeko deia egin zioten. Haren ordez, berriro ere bere etxera egin zuen; azkenean, Guardia Zibilaren deiaren aginduz, bi hilabete etxean egin ostean, Burgosera iritsi zen. Bertan, kastigu gisan, hilabete kalabozoan izan zuten. Irungo Mugako epaile militarrak 4 urte eta 7 hilabete soldaduskako gehiago ezarri nahi izan zizkion, baina 1940ko uztailaren 30eko auditorearen bidez, lehengo egoera berdinean eta horrenbestez, kartzela zigorrik gabe geratu zen. 1939ko maiatzaren 26an lizentziatu zen eta Getarian bizitzen jarri zen[1229].

## 399. LAZKANO AZKUE, JOSE

Nekazari getariarra. Gerra hastean 27 urte zituen eta erreketeen Oriamendi Tertzioan indar-errepublikarren aurka borrokatu zuen[1230].

## 400. LAZKANO BASURTO, RUFINA

Getariarra zen, baina Zumaiara ezkondua. Zumaian, indar-errepublikarrekin beraien senarrak borrokan zituztelako udaletxe frankistak espultsatu baina egun bat lehenago, Zumaiatik alde egin zuten. Rufina Lazkano Basurto, ideologia errepublikarrekoa zen. Bere senarrak, Juan Manuel Irigoien Egañak, motor txikian, haien seme-alabekin, Marciela, Eusebio, Santos, María Teresa, Emilio eta Benjamin-ekin Lekeitiora egin zuten. Lekeition hilabete batzuk egin ostean, Bilbora egin zuten. Tropa frankistek Bilbo hartu aurreko egunetan, Colindresera egin zuten eta handik, Santanderrera. Santanderren zenbait bonbardaketa frankista beren azaletan bizi izan zituzten. Erbestetik itzultzean, lehen gaua Zumaiara iristean, elizako arkupean pasa beharra izan zuten aiton-amonek beren zazpi seme-alabekin. Etxerik ez zioten ematen. Miseria asko zeukaten eta horren eraginez, Zumaiako portuan lurrean soberan geratzen ziren ikatz-puskak biltzen zituen, etxean sua egin ahal izateko. Handik gutxira Getariara bizitzera joan ziren, bere jaioterrira. Haren senarra, Irigoienek, gudari gisan jardun ostean, Langile Batailoietan urtebetez gatibu-lanak egiten jardun behar izan zuen. Esaterako, Zumaiako zubi txikia beste preso batzuekin batera eraiki zuen[1231]. Lazkanoren ilobak, eskolatik, “Cara al sol” kantatzen etortzean, amonak astindua eman eta hauxe kantatzeko esan zien bere ilobei “Republicana soy y seré, y mi bandera defenderé”.

## 401. LAZKANO OSA, ANGEL

Getariar txikienak, agintari frankistek beren botereaz baliatuz, balio militarretan hezi zituzten. Horregatik, Angel Lazkano Osa gerra hastean 11 urte zituena, Getariako Pelayo -en[1232] zerrendan ageri da[1233].

## 402. LAZKANO ULAZIA, CIRILO

Mirubia baserriko nekazaria eta errepideko brigadako langilea. Bigarren Errepublikako azken hauteskundeetan, EAJ/PNV-ri botoa eman zion. Tropa frankistak Getariara sartzean, udaletxe frankistaren menpeko guardia eta zaintza-lanak bete zituen[1234].

## 403. LAZKANO ULAZIA, DAMIAN

Mirubia baserriko nekazaria, gerra hastean 22 urte zituen eta, tropa frankisten atzaparretatik ihesi, 1936ko irailaren 20ko Getariako ebakuazioan Frantziara alde egin zuen. 1939ko uztailaren 17an oraindik ere Frantzian aurkitzen zen eta bere aberriratzea eskatu zuen[1235].

## 404. LEKUBE BURGAÑA, CALISTO

Jaiotzez mutrikuarra zen, ezkongabea eta herriko telefono zentralean lan egiten zuen. Gerra hastean, 26 urte zituen eta EAJ/PNV-ra afiliatuta, ardura politikoz, gudari gisan zerrendatu zen. Frankistek Limpiasen (Santander) 1937ko abuztuaren 26an atxilotzean, Presoen Klasifikaziorako Komisioak, A atalean sailkatu zuen. Atxilotzean 29 urte zituen, ezkongabea eta telegrafoetako langilea zen. Donostiako Plazako 3 zenbakidun Epaitegi Militarrak “aurretiazko eginbideak” ireki zizkion 1939ko abenduaren 7an. Alejo Jimeno Getariako F.E.T. eta J.O.N.S.-eko buruzagiak deklaratutakoaren arabera, Calisto Lekube euskal nazionalista zen eta Jose Egurbide, Ricardo Errazkin, Jose Maria Olaskoaga eta Tomas Arangurenekin batera, Casa Torres-ko markesaren etxea arpilatu eta bera atxilotzera joan omen ziren. Horrez gainera, Jimenok Lekubek bere riflea erabili zuela miliziano gisan

---

[1229] GUA / Ipar-Mendebaldeko Eskualde Militarreko Tarteko Artxiboa, Ferrol, 778.

[1230] GUA.

[1231] Testigantza: Rufini Irigoien Burgaña eta, Jose Mari eta Pili Irigoien Beristain.

[1232] Tradizionalistek haurrak Comunión Tradicionalista-ko oinarri politiko-sozialen arabera hezteko sortutako asoziazioa.

[1233] GUA 93-01.

[1234] GUA.

[1235] GUA.

adierazi zuen. Eugenio Egurbide alkate frankistaren arabera, Jimenok esan gisan "jokabide onekoa" zen Lekube, baina falangeko buruzagiak egin gisan, armarekin ibili zela adierazi zuen. Zarauzko Guardia Zibilaren komandantziako Gabriel Garcia Perez sarjentua, JImenoren deklaraziora batu zen.

Calisto Lekuberen deklarazioaren arabera, gerra hastean Getarian aurkitzen zen eta bertan egon zen, tartean Fronte Popularrak agindutako errepideko hiru guardia egin zituelarik, 1936ko irailaren 20ko ebakuaziora bitartean. Egun horretan, Mater Dolorosa Getariako itsasontzian Frantziarako bidea hartu eta bertan 20 egun egin zituen. Handik, Hondarribiako Santa Cruz itsasontzian, Bermeora joan zen. Geroago Bilbora eta Hotel Carlton-en bere izenpetzea emanda, 1936ko urriaren 1ean Loiola Batailoira bideratu zuten. 1937ko abuztuaren 26an, tropa frankistek Limpiasen (Santander) atxilotu zuten. Handik, Castro Urdialesera lekualdatu eta bertan hilabeteko epez egon zen eta ondoren, Miranda de Ebroko (Burgos) kontzentrazio-esparrura. Han bertan, berriro ere 23 zenbakidun 4. Konpainiako Langile-Batailoiko gatibu-lanak egitera behartu zuten 1939ko uztailaren 14a bitartean. Data horretan soldadu lizentziatu eta Getariara joateko baimena eman zioten. gerran zehar, telefono brigadetan jardun zuen.1939ko abenduaren 13an berriro ere atxilotu egin zuten Getariako 1 eta 2 deituriko, Rafael Calleja Martin eta Marciano Herrero Bajo, Guardia Zibilek eta handik Donostiako Probintziako Presondegira eraman zuten Fermin de la Hera Martinez eta Ricardo Vazquez Ares Guardia Zibilek.

1939ko abenduaren 28an, behin-behineko askatasuna eman zioten Lekuberi. Bonifazio Balenziagak 1940ko urtarrilaren 3an honako deklarazioa egin zuen "Una vez comenzado el Movimiento se hizo miliciano voluntario no viendole (sic) el declarante con armas pero le consta que las llevaba". Jose Gaztañaga San Sebastian udal-idazkariaren arabera, euskal nazionalista zela adierazi zuen eta gudaria izan zela baina behin ere ez buruzagia; hala ere "(…) dice que lo vio armado y que era miliciano sin que se destacara en nada". 1940ko urtarrilaren 27ko Lekuberen deklarazioan, Jimenok adierazitako bere detentzioaren inguruko gertaera gezurtatzen du "Que nunca habia (sic) usado pistola y si es cierto que hizo dos o tres guardias, en domingo, en la carretera, armado de escopeta por orden del Comité". Antonio Aranguren Manterola 1940ko urtarrilaren 29an Aurrezki Kutxako langilea zenak, deklarazioa egingo du, zeina gerra garaian Atzeraguardiako Erreketea izan zen. Haren deklarazioaren arabera "Que durante la dominación roja se hizo voluntario, miliciano armado, y que hizo guardias, principalmente en ocasión de haber entrado en el puerto un barco cargado de munición, encargandose (sic) el LECUBE de custodiarlo". Manuel Gorostiaga Etxeberria Getariako udaltzaingoaren arabera "Sabe por referencias sin embargo que en cierta ocasion (sic) se presento (sic) un grupo de milicianos armados entre los cuales iba el Lecube en el domicilio de D. Alejo Jimeno con la intencion (sic) de detenerlo no logrando detenerlo por haberse escapado". 1940ko otsailaren 10ean behin-betiko askatasuna lortu zuen eta 1940ko martxoaren 8an askatu zuten[1236].

## 405. LEKUBE BURGAÑA, JULIAN "GALLEGO"

Gerra hastean 23 urte zituen eta EAJ/PNV-ra afiliatuta egonik, ardura politikoz, Euskadiko Gudontzidiko Itsas Boluntarioen zerrendan izena eman zuen. Hala, 1936ko abendutik 1937ko martxoaren 5eko Matxitxako lurmuturreko borrokara bitartean, Bou Nabarrako gudari gisan jardun zuen. 1937ko martxoaren 5ean, Matxitxako lurmuturreko bataila gogor eta adoretsuaren ostean, bizirik ateratako bat izan zen. Horren ostean, Canarias gurutzaontziak erreskatatu eta Bou Nabarran bizirik ateratako gainontzeko gudariekin batera preso hartu zuten. Julian Lekube Burgaña, bizirik geratu zen. Bou Nabarrako bizirik geratutako 20 gudariak, Canarias gurutzaontziak hartu eta Ondarretako kartzelara eraman zituzten. Hasiera batean, guztiak heriotz-zigorrera kondenatu zituzten, baina Canarias gurutzaontziko kapitain Salvador Morenok eta korbetako kapitainak Manuel Calderon deiturikoak, ahalak eta bi egin zituzten gudari haiek guztiak kartzelatik ateratzeko, gudariek erakutsitako adorea baitzuten beren memorian present. Gobernu-frankistari hainbat eskari egin ostean, heriotz-zigorra kentzea lortu zuten eta handik denboraldi batera kartzelatik irten zuen. Frankismoan zehar ere gudari hauei laguntzeaz arduratu ziren. Gerraren eraginez, preso politikoa izan zen[1237].

## 406. LEKUBE GOENAGA, ANAKLETO

Gerra hastean 21 urte zituen eta soldaduska egiteko ezgai deklaratu zuten. Tropa frankistak Getariara sartzean ordea, soldaduskara joatera derrigortu eta 1937ko martxoaren 10ean Donostiako zerbitzu-laguntzaileetan lanean zegoen. Data horretan, haren aitak, semea familiara itzultzeko eskaera egin zuen[1238].

## 407. LEKUBE GOENAGA, IGNACIO

30 urteko marinel mutrikuar, ezkongabea. Gerra hastean, Getarian bizi zen, EAJ/PNV-ra afiliatuta, ardura politikoa hartuta, Euskadiko Gudontzidiko Itsas Boluntarioen zerrendan izena eman zuen. Hala, 1936ko abenduan, Bou Goizeko-Izarran destinatu zuten. 1937ko urtarrilaren 16-17ko gauerdian Goizeko-Izarrak frankistek ezarritako mina batekin talka egitean hondoratu eta bertan Ignacio Lekube Goenaga gudari mutrikuarra, Bienvenido Urkidi eta Jose Maria Aranguren getariarrekin batera hil egin zen[1239].

---

[1236] GUA / AZEDB / Ipar-Mendebaldeko Eskualde Militarreko Tarteko Artxiboa, Ferrol, 2649/39.

[1237] GUA / AZEDB / CDMH: DNSD-SECRETARIA,FICHERO,35,L0033552 / Sabino Arana Fundazioa-Euskal Abertzaletasunaren Agiritegia / Gipuzkoako Foru Aldundia: http://www.marinavasca.eu/eu/personal.php?o=3.

[1238] GUA.

[1239] GUA / AZEDB / Gipuzkoako Foru Aldundia: http://www.marinavasca.eu/eu/personal.php?o=3.

## 408. LERSUNDI ORUETA, MANUEL

1936ko abuztuaren 22an, Manuel Lersundi Orueta lanbidez doitzailea eta tradizionalista, bere aita Santiago Lersundi Aranbururen arabera, Soraluzeko Defentsa Komiteak atxilotu egin zuen. Etxe zahar batean beste tradizionalista batzuekin preso izan ostean, abuztuaren 27an Arratera (Eibar) eraman zuten. Torturatu eta haren ostean, iraila hasieran, Getarian hil eta bere hilotza itsasora jaurti zuten. Ekintza hura egitea Manuel Mugica Arisnabarreta-ri"Caron"egotzi zioten eta gerora, frankistek Begoñan atxilotu eta Gerra-Kontseiluaren ostean Donostian fusilatu egin zuten. Lersundiren gorpua hasiera batean Getariako hilerrian ehortzi bazuten ere, gerora Soraluzekora lekualdatu zuten.

## 409. LETE CORREA, PEDRO

Jaiotzez mutrikuarra, baina Getarian bizi zen. Gerra hastean 30 urte zituen eta EAJ/PNV-ra afiliatuta, ardura politikoz, Euskadiko Gudontzidiko Itsas Boluntarioen zerrendan izena eman zuen. 1936ko abendutik 1937ko urrira bitartean, Bou Iparreko-Izarra eta Ciscar destruktorean gudari gisa jardun zuen. Hori aitzakiatzat hartuta, bere emaztea Ana Mendizabal Galdos, 1937ko otsailaren 13an, Getariako udaletxe frankistak herritik espultsatu zuen. Bien alaba, Ione Lete Mendizabal, ama erbestean zen bitartean, bere amonaren etxean geratu zen.

Bou Iparreko-Izarrak, zenbait kostazaintza-lan burutu zituen. 1937ko martxoaren 5eko Matxitxako lurmuturreko borrokaren ostean Bou Bizkaiarekin batera Euskadiko Gudontzidian funtzionatzen jarraitu zuen ontzia izan zen. Bilboko ebakuazioan errefuxiatuen ontzien inguruan eskolta-lanak burutu zituen. Horrez gainera, Bilbo ebakuatzean, Portugaleteko biltegietatik aterako itsas-tresneria, arropa, janaria… Iparreko-Izarra, Bou Bizkaia eta Bou Gipuzkoan, eta gainontzeko txalupa laguntzaileetan sartu zituzten.

Pedro Letek 1937ko ekainera arte bete zituen bertako zerbitzuak. 1937ko ekainean Bizkaiko Itsas Armadak egindako eskakizunari erantzuna emanez, Jose Luis Diez ontzian aurreko marinelak ordezkatuko zituen 114 Euskadiko Gudontzidiko gudarietatik bat izan zen. Santanderrera iristean, Bizkaiko Itsas Armadak hala aginduta, tripulazioaren 2/3 Jose Luis Diez destruktoretik jaisteko agindu zuen. Pedro Lete Correa, destruktorean jarraitu zuen gutxietako gudaria izan zen. Handik aurrera, destruktoreak, gehienbat, Asturias aldean zenbait jarduera bete zituen. 1937ko abuztuaren 27ko frankisten aurkako borrokan, Jose Luis Diezek 2 hildako, 6 desagertutako eta 10 zauritu (haien artean, Rafael Mentxaka bigarren ofiziala) izan zituen. Atxilotutako bi arrantza-ontziren dotazioetako 24 arrantzale ere hil ziren, Canariasen tiroak harrapatu zuen tokian baitzeuden. Darkistade ez zen hildakoa suertatu.

1937ko irailaren 31n Jose Luis Diez destruktorea Falmouthera (Ingalaterra) joan zen, Asturiaseko portuak bonbardaketen aurrean arriskutsuak izan zitezkeelakoan.

1938an Juan Antonio Castro Izagirre tolosarra agintean zuela, Frantziatik Mediterraneora eramaten saiatu zen. Gibraltarren geratu zen ordea, izan ere, Canarias gurutzaontziak eraso egin zion. 1938ko abenduaren 30ean Gibraltarretik irteten ahalegindu zen, baina ontzi frankistek tirokatuta, hondartzan hondoa jo zuen. Borrokaren emaitza, 4 hildako, 12 zauritu eta desagertu bat izan ziren. Vulcano bost aldiz jota, 5 zauritu izan ziren. 1939ko martxoaren 23an, Zebbeus-Maknassy-ko (Tunisia) kontzentrazio-eremuan aurkitzen zen. 1939ko martxoaren 25ean Britainia Handiko agintariek Jose Luis Diez destruktorea frankistei entregatu zieten. Seguruenik, horren ostean, frankistek atxilotu egin zuten. Ez dakigu zehazki Pedro Lete Correa frankistek noiz atxilotu zuten, baina 1940ko ekainaren 16an San Fernandoko kontzentrazio-eremuan (Cadiz) atxilotuta zegoen. Gerraren eraginez, preso politikoa izan zen Getariara itzultzean, berriro ere kofradian sartu nahi izanez gero, 100 pezetako isuna ordaindu behar zuela adierazi zioten. Lete gudariak ordea, ez zituen ordaindu. Diktadura frankistan zehar, berak eta bere familiak errepresioa beraien azalean bizitzen jarraitu zuten[1240].

## 410. LETE MENDIZABAL, IONE

Bere ama Ana Mendizabal Galdos Getarian agintean indarrez jarri berri ziren faxistek herritik kanporatu zuten. Haren aita, Pedro Lete Correa, Euskadiko Gudontzidian zebilen bitartean. Ama, Ana Mendizabal frankistek espultsatuta kanpoan zen bitartean, bere amonaren etxean egon zen[1241].

## 411. LOMA AZKAGA, LUIS

UGT-ra afiliatuta, ardura politikoz, Getarian, lehen miliziak sortzen ari zirela miliziano gisan zerrendatu zen[1242].

[1240] GUA / AZEDB / CDMH: DNSD-SECRETARIA,FICHERO,35,L0042119 / Sabino Arana Fundazioa-Euskal Abertzaletasunaren Agiritegia / Gipuzkoako Foru Aldundia: http://www.marinavasca.eu/eu/personal.php?o=3.

[1241] GUA.

[1242] AZEDB.

## 412. LOPEZ, ALFONSO

Gerra hastean, Eusko Gudarostearekin Bigarren Errepublikako gobernu legitimoaren alde tropa frankisten aurka borrokatzen jardun zuen. Getariako udaletxe frankistak, hori aitzakiatzat hartuta, bere emaztea Maximina Azpeitia Ibarbia eta haren semea Antonio Lopez Azpeitia, 1937ko otsailaren 13an Getariatik espultsatu zituen[1243].

## 413. LOPEZ AZPEITIA, ANTONIO

Getariar haur errefuxiatua. Bere ama Maximina Azpeitia Ibarbia, 1937ko otsailaren 13an Getariako udaletxe frankistak herritik espultsatu zuenean, Antonio Lopez Azpeitia semea berarekin erbesteratu zen. Bere aita, Alfonso Lopez Eusko Gudarosteko gudaria eta haren osaba, Antonio Azpeitia Ibarbia Euskadiko Gudontzidiko gudaria izatea frankistek bi senideak Getariatik botatzeko aitzakiatzat erabili zuten. Frankistek, emakumea, gizonezkoaren objektu gisan erreparatzen zuten eta ez subjektu politiko aske gisan. Zenbait errefuxiaturen gisan, Eusko Jaurlaritzak trazatutako Bilborako eta Santanderrerako errefuxiatuen bidea egin behar izan zuen[1244].

## 414. LOPEZ GARCIA, GERMAN

Gerra hastean, 15 urte zituen eta tropa frankistek Getarian ez zegoela adierazi zuten. Beraz, haien atzaparretatik ihesi herritik alde egin zuela pentsa genezake[1245].

## 415. LOPEZ HERNANDEZ, JUSTO

Haren emaztearekin batera, Getarian bizi zen gerra hastean. Saltzaile ibiltariak ziren biak. Getariako udaletxe frankistaren txostenen arabera, Justo Lopez Hernandez, ezker ideologiakoa zen eta 1936ko irailaren 20an tropa frankistak Getarian sartu baino zertxobait lehenago bere emazte Bernarda Egaña Agirrezabal (edo Arrizabalagarekin) Debara alde egin zuen. Han, biek, zenbait egun pasa zituzten. Ideologia ezkertiarrekoak izateagatik eta eskuindarrei egindako lapurretez akusatuta, epaiketa egin zioten[1246]. Bilbon errefuxiatu ziren beste horrenbeste getariarren gisan. Ondarretako kartzelatik Larrinagako kartzelara lekualdatu zituzten 1937ko abenduaren 15ean. 1939ko otsailaren 10ean behin-betiko askatasuna lortu zuten Egaña-Lopez senar-emazteek[1247].

## 416. LULOAGA AGOTE, ROMAN

Jaiotzez Altzakoa, gerra hastean, 23 urte zituen, arrantzalea, ezkongabea zen eta Orion bizi zen; Zabalbide errepublikarren batailoian borrokatu zuen, anai gazteena zen eta soldaduskara joatetik libratu egin omen zen ama alarguna izateagatik. Lino Solabarria Yaquez Orioko udal-idazkariak salatu egin zuen. 1941eko maiatzaren 11n Canariasen arrantzan zebilela, Guardia Zibilek Las Palmaseko presondegian sartu eta handik abuztuaren 10erako Cadizeko presondegian sartu zuten. Dokumentu frankisten arabera, 1933tik ELA/STV-ra afiliatuta zegoenez, gerra hastean, ardura politikoz, Orioko Defentsa Komitera aurkeztu zen. Horren eraginez, zenbait guardia-lan bete zituen 15 egunez. Kosta-zainketan ere jardun zuen, armatu gabeko itsasontzi batean. Errepublikarrek bere kinta deitzean, itsas-armadan parte hartu zuen, baita Infanteriako Castero Kapitainaren Batailoian ere, eta tropa frankistak Santoñan 1937ko abuztuaren 26an atxilotu egin zuten. Bertan 40 egun egin zituen eta presoen komisioak klasifikatzean, handik Miranda de Ebroko kontzentrazio-eremura lekualdatu zuten, zeinetan 8 egun egin zituen. Bertatik, 1937ko urriaren 15ean 19 zenbakidun 4.Konpainiako A Taldeko Leongo Langile Batailoian gatibu-lanak egitera kondenatu zuten. Bere askatasuna, 1940ko maiatzaren 31n lortu zuen. Orioko Defentsa Komiteak hala aginduta, Jesus Carmena eskuindarra deklaratzera eraman omen zuen. Horrez gainera, Lino Solabarria berak, Ramon Perez Agote atxilotzera ere joan zela adierazi zuen. 1941eko abuztuaren 11n, Las Palmas-eko (Canarias) presondegitik Cadizekora lekualdatu zuten. Cadizetik laster, Donostiako Ondarretako Presondegira lekualdatu zuten. Han zegoela Gerra-Kontseilua egin zioten. Azkenean, Donostiako Ondarretara ekarri eta 1941eko otsailaren 20tik 1943ko uztailaren 13ra bitartean, Getariako bere etxean espetxealdi arinduan egon zen. Langile Batailoietan jardun zuen, Valentziako Catarroja eta Doloresen. Tortosan ere egon zen eta Terueleko frontean zauritu egin zuten[1248]. 1944an berriro ere Getariara iritsi zen eta urtarrilaren 8an bertan ezkondu egin zen Gabina Elizondo Salaberriarekin. Gerra-Kontseiluaren ostean, 12 urte eta egun bateko kartzela zigor ez-kommutagarria ezarri zioten[1249].

---

[1243] Sabino Arana Fundazioa-Euskal Abertzaletasunaren Agiritegia.

[1244] Sabino Arana Fundazioa-Euskal Abertzaletasunaren Agiritegia.

[1245] GUA.

[1246] Gosea dagoenean eta biziraupenerako oinarrizkoak ez ditugunean, lapurreta egitea zilegi da, edo ez?.

[1247] GUA / Ipar-Mendebaldeko Eskualde Militarreko Tarteko Artxiboa, Ferrol, 2140/37.

[1248] Familiak emandako testigantza.

[1249] AHPG-GPAH GEZ, 2856/107/ AGMG: kaxa: 2735. Esp.: 147171 / Testigantza: Gabina Martinez Luloaga.

# M

## 417. MANTEROLA, MANUEL ANICETO

Bere seme gehienak gerran zituen eta haren alaba Guadalupe Manterola Agote Getariako udaletxe frankistak 1937ko otsailaren 13an Getariatik espultsatu egin zuen. Berau Donata Agoterekin ezkonduta zegoen. Manuel Aniceto Manterola garai hartan, gaixo kronikoa izanik, ospitalean aurkitzen zen.

## 418. MANTEROLA AGOTE, CRESCENCIO

Manuel Aniceto eta Donataren semeak, gerra hastean 25 urte zituen eta, tropa frankistekin soldadu joateko dei egin zioten. Getariako udaletxe frankistak, familia sostengatzen zuen bakarra zela eta soldadu ez joateko eskaera egin zuen. Aita gaixo kronikoa ospitalean zegoen eta haren anai bat ere, Andazarrateko tuberkulosoen sendategian zegoen. Crescencioren arreba, 1937ko otsailaren 13an Getariako udaletxe frankistak Getariatik espultsatutako emakumeetako bat izan zen. Horrez gain, Enrike Manterola Agote Euskadiko Gudontzidian borrokan aurkitu bitartean, Juan Maria Manterola Agote erreketeen itsas-armadan borrokan zegoen[1250].

## 419. MANTEROLA AGOTE, GUADALUPE

Emakume getariar honek, bere alaba Miren berarekin hartu eta bere alaba Edurne ama Donata Agoterekin etxean utzita, Getariako udaletxe-frankistak 1937ko otsailaren 13an herritik espultsatu ostean, Bilbo aldera alde egin behar izan zuen. Bigarren Errepublika garaian inongo ekintza politikorik egin ez bazuen ere, bere senarra Euskadiko Gudontzidiko Jose Agustin Egaña Egaña gudari zumaiarra izateagatik herritik bidaltzeko arrazoi nagusia izan zen. 1937ko uztailaren 5ean, haren ama Donata Agote Kamio eta Beatriz Alberdi Lazkano eta amaginarreba Joaquina Correak, beren alabak Getariara ekar zitzaten baimena eskatu zieten udaletxe frankistari. Azken horrek, baimenari baiezkoa eman zien. Frankistek, emakumea, gizonezkoaren objektu gisan erreparatzen zuten eta ez subjektu politiko aske gisan[1251].

## 420. MANTEROLA AGOTE, ENRIKE

Gerra hastean 30 urte zituen eta EAJ/PNV-ra afiliatuta, ardura politikoz, Euskadiko Gudontzidiko Itsas Boluntarioen zerrendan izena eman zuen. 1936ko abendutik 1937ko martxoaren 5eko Matxitxako lurmuturreko frankisten aurkako borrokara bitartean, Bou Nabarrako gudari izan zen. Horren aitzakiatzat eta bere senarra Joakin Egaña Egaña zumaiarrarekin ezkonduta egoteagatik, bere arreba Guadalupe Manterola Agote Zumaiako udaletxe frankistak herritik espultsatu zuen. Hala, emakume espultsatuak, Miren alaba besoetan hartu eta Edurne alaba Getariako Donata Agote Kamioren etxean utziz, Bilbora egin zuen. Bien bitartean, haren anaiak Bou Nabarran aipatu gisan, gudari zerbitzuak bete zituen. 1937ko martxoaren 5ean, Matxitxako lurmuturreko bataila gogor eta adoretsuaren ostean, bizirik ateratako bat izan zen. Horren ostean, Canarias gurutzaontziak erreskatatu eta Bou Nabarran bizirik ateratako gainontzeko gudariekin batera preso hartu zuten. Enrike Manterola Agote, bizirik geratu zen. Bou Nabarrako bizirik geratutako 20 gudariak, Canarias gurutzaontziak hartu eta Ondarretako kartzelara eraman zituzten. Hasiera batean, guztiak heriotz-zigorrera kondenatu zituzten, baina Canarias gurutzaontziko kapitain Salvador Morenok eta korbetako kapitainak Manuel Calderón deiturikoak, ahalak eta bi egin zituzten gudari haiek guztiak kartzelatik ateratzeko, gudariek erakutsitako adorea baitzuten beren memorian present. Gobernu-frankistari hainbat eskari egin ostean, heriotz-zigorra kentzea lortu zuten eta denboraldi bat pasa ostean, kartzelatik irten ziren. Gerraren eraginez, preso politikoa izan zen. Frankismoan zehar ere gudari hauei laguntzeaz arduratu ziren. Diktaduran zehar, errepresioa bere azalean jasan behar izan zuen[1252].

## 421. MANTEROLA AGOTE, JUAN MARIA

Gerra hastean 18 urte zituen eta erreketeen itsas-armadarekin indar-errepublikarren aurka borrokan jardun zuen[1253].

## 422. MANTEROLA EGURBIDE, RAMON

Getariako lehen alkate frankista izan zen 1936ko irailaren 22tik 1937ko apirilaren 11ra bitartean. Gerran zehar, Getariako Defentsa Komiteak, bere etxean zuen telefonoa kendu eta San Jose Villan Mendigoixaleen kuartelean ezarri omen zuten. Tropa frankistak sartzean, Getariako udaletxe-frankistari bere telefonoa itzuli edo berri bat ezartzeko eskaera egin zion. Izan ere,

[1250] GUA.

[1251] GUA.

[1252] GUA / CDMH: DNSD-SECRETARIA,FICHERO,38,M0020141 / Sabino Arana Fundazioa-Euskal Abertzaletasunaren Agiritegia / Gipuzkoako Foru Aldundia: http://www.marinavasca.eu/eu/personal.php?o=3.

[1253] GUA.

kostaldeko herri ezberdinetan arrainaren salmentan jarduten zuen[1254]. Zarauzko komandante militarrak, bere postutik kendu egin zuen, lan efikaza ez egiteagatik.

### 423. MANTEROLA LARRAÑAGA, AGUSTIN

Getariar txikienak, agintari frankistek beren botereaz baliatuz, balio militarretan hezi zituzten. Horregatik, Agustin Manterola Larrañaga gerra hastean 8 urte zituena, Getariako Pelayo -en[1255] zerrendan ageri da[1256].

### 424. MANTEROLA LARRAÑAGA, AURORA

Donostian neskame gisan lan egiten zuen eta hau izan daiteke Getariako udalak egindako aurrekari politikoen informearen arabera, *bere jarrera ideologia frankistarekiko ona zen*[1257] agertzearen arrazoietako bat.

### 425. MANTEROLA LARRAÑAGA, EPIFANIO

Getariar txikienak, agintari frankistek beren botereaz baliatuz, balio militarretan hezi zituzten. Horregatik, Epifanio Manterola Larrañaga gerra hastean 12 urte zituena, Getariako Pelayo -en[1258] zerrendan ageri da[1259].

### 426. MANTEROLA LARRAÑAGA, JESUSA

Getariako udalak egindako aurrekari politikoen informearen arabera, Getariako F.E.T. eta J.O.N.S.-eko afiliatua eta Sección Femeninako kidea izan zen[1260].

### 427. MANTEROLA LARRAÑAGA, SATURNINO

Getariar txikienak, agintari frankistek beren botereaz baliatuz, balio militarretan hezi zituzten. Horregatik, Saturnino Manterola Larrañaga, Getariako Pelayo -en[1261] zerrendan ageri da.

Gerra hastean 16 urte zituen eta erreketeen itsas-armadarekin indar-errepublikarren aurka boluntario gisan jardun zuen. 1937ko irailaren 27an, Calvo Sotelo gudaontzi frankistan sartzeko eskaera egin zuen. Marte miaketari frankistan ere, bere zerbitzua egin zuen[1262].

### 428. MANTEROLA IRURE, DIONISIO

Gerra hastean, 53 urte zituen, Ignacia Zinkunegirekin ezkonduta zegoen eta marinela zen. 1936ko irailaren 20an, Getariako ebakuazioan, herritik Frantziara alde egin zuen. 1937ko uztailaren 2an oraindik ere Frantzian aurkitzen zen eta, bere emazteak, Ignacia Zinkunegik, bere aberriratzea eskatu zuen, bere senarrak buruko gaitzen bat zuela medio[1263].

### 429. MANZISIDOR ALBISU, JOSE

Frankisten aldekoa. Bigarren Errepublikaren alde ez zuen zerbitzurik bete eta tropa frankistak Getariara sartzean, zenbait zerbitzu egin zituen. Dokumentu frankisten arabera, bere kamioneta, DODGE 42.101 matrikulakoa ejertzito errepublikarrak errekisatu egin zion[1264].

### 430. MANZISIDOR ALBISU, SATURNINO

Jaiotzez Debakoa, baina Getarian bizi zen. EAJ/PNV-koa izaki, 1936ko irailaren 20ko Getariako ebakuazioan Frantziara ihes egin zuen. 1939ko uztailaren 15ean, Getariako udaletxe frankistari aberriratzeko eskaera egin eta berretsi egin zioten[1265].

### 431. MARTIKORENA BASURTO, ANGEL

1937ko ekainean, itsas-armadako kupoa izanik, Donostiako kuartelean aurkitzen zen. Mariano Vidal deituriko osabak, Intendentzian mantentzeko eta fronteko lehen lerrora ez eramateko eskakizuna egin zuen[1266].

---

[1254] GUA.
[1255] Tradizionalistek haurrak Comunión Tradicionalista-ko oinarri politiko-sozialen arabera hezteko sortutako asoziazioa.
[1256] GUA 93-01.
[1257] GUA 93-01.
[1258] Tradizionalistek haurrak Comunión Tradicionalista-ko oinarri politiko-sozialen arabera hezteko sortutako asoziazioa.
[1259] GUA 93-01.
[1260] GUA 93-01.
[1261] Tradizionalistek haurrak Comunión Tradicionalista-ko oinarri politiko-sozialen arabera hezteko sortutako asoziazioa.
[1262] GUA 93-01.
[1263] GUA.
[1264] GUA.
[1265] GUA.
[1266] GUA.

## 432. MARTIN VIRSEDA, SANTIAGO

Karabineroa. 1939ko uztailaren 26an, Zarauzko karabineroen ordezkariek atxilotu egin zuten eta Ondarretako kartzelan preso egon zen. Resurreción Zumeta Alberdi Getariako epaile munizipalaren esanetan, ideologia frankistari leiala. Leonor Molet Getariako Sección Femeninako buruzagiak eta Resurrección Zumeta Alberdiren emazteak, 1936ko otsaileko Gorteetarako hauteskundeetan, Santiago Martin Virsedak eskuindarrak babestu zituela adierazi zuen. Horren ostean, 1940ko urtarrila bukaeran espetxealdi arindua lortu zuen[1267].

## 433. MARTINEZ GIL, JULIAN

1929. urtetik, Getariako Arrantzaleen Eskolako maisu nazionala izan zen. Izquierda Republicana-koa izaki eta Ejertzitoan alferez osagarri postua zuenez, Getariako Defentsa Komitean aurkeztu zen, betebeharren bat egin behar bazuen ere (ez zuen inolako partaidetzarik izan). 1936ko Getariako ebakuazioan, Bilbo aldera bere emaztea Ana Villaverde Puras eta beren bi haurrekin alde egin zuten. Handik, bere emaztea eta bi haurrak Cambrai-ra (Frantzia) ebakuatu zituzten. Julian Martinez Gil, tropa frankistek atxilotu eta 1937ko azaroan, Muros-eko (A Coruña) Vieta kontzentrazio-eremuan aurkitzen zen. 1938ko uztailaren 1ean, tropa frankistek bere egin baino lehenago euskal milizien kuartela izan zen, Bilboko Eskolapioen Presondegian zegoen. 1939ko ekainaren 19an jada, emaztea eta bi haurrak Getarian aurkitzen ziren, aberriratuta; han, beraien etxeko altzariak errekisatu zizkietela eta, emakumeak, haiek itzultzeko eskaera egin zuen[1268].

## 434. MARTINEZ SEGURA, PEDRO

Gerran zehar, tropa frankistekin borrokatu zuen eta haren ostean, albaitari postua eskatu eta lortu zuen[1269].

## 435. MAYOZ OTAEGI, JOSE FRANCISCO

Lanbidez bidezain peoia. F.E.T. eta J.O.N.S.-eko afiliatua zen. Afrikako gerran parte hartu zuen, zehazki, Ingeniari Zapadore Minadoreen Batailoian. Hartan, 1925ean, Alhucemas-eko lehorreratzea parte hartu zuen. Gisa horretara, seguruenik, Afrikako gerran borroka eginagatik ordaintza jasotzea nahi zuen[1270].

## 436. MAYOZ PEÑA, BERNABE

1910eko urtarrilaren 10ean jaiotako getariarra. Gerra hastean, 1937ko ekainaren 28an, kolpistekin boluntario zerrendatu zen. Hartan, Terueleko frontean, 1938ko urtarrilaren 3an egindako operazio batean desagertu zela adierazten dute. Geroago familiak bere berri eskatzean, Mayozen batailoiko soldadu batek, Bernabe Mayoz Peña soldadu frankista 1938ko urtarrilaren 12an hil egin zela adierazten die[1271].

## 437. MENDIZABAL ALBERDI, MANUEL

Gerra hastean, 24 urte zituen eta ELA/STV-ra afiliatuta egonik, ardura politikoz, Euskadiko Gudontzidiko Itsas Boluntarioen zerrendan izena eman zuen. 1937ko maiatzetik azarora bitartean, D-8 destruktorean 2. Mailako mekanikari-gudari gisan jardun zuen. Santander ebakuatzerakoan, D-7 eta D-2-arekin batera, D-8 ontzian ere, Ogasun Sailaren artxiboak eta euskal kutxa eta bankuetako depposituak sartu zituzten. 1937ko abuztuaren 25ean, Joaquin Egia bertan ontziratuta, La Pallicera (Frantzia) heldu zen. 1937ko azaroaren 1ean Rocheforten (Frantzia) zegoen. Manuel Mendizabal Alberdi gudariaren itsas-errolda azarora bitartekoa denez, Santanderreko ebakuazioan Frantziara egin eta bertan aurkitzen zela pentsa genezake[1272].

## 438. MENDIZABAL GALDOS, ANA

Emakume mutrikuarrak, Getariara ezkonduta zegoenak, bere alaba Ione etxean utzita, Getariako udaletxe-frankistak 1937ko otsailaren 13an herritik espultsatu ostean, Bilbo aldera alde egin behar izan zuen. Bigarren Errepublika garaian inongo ekintza politikorik egin ez bazuen ere, bere senarra Euskadiko Gudontzidiko Pedro Lete Correa (EAJ/PNV) izateagatik herritik bidaltzeko arrazoi nagusia izan zen. 1937ko uztailaren 5ean, Beatriz Alberdi Lazkano eta amaginarreba Joaquina Correak, Guadalupe Manterola emakume espultsatuaren, ama Donata Agoterekin batera, beren alabak Getariara ekar zitzaten baimena eskatu zieten udaletxe frankistari. Azken horrek, baimenari baiezkoa eman zien. Frankistek, emakumea, gizonezkoaren objektu gisan errepáratzen zuten eta ez subjektu politiko aske gisan[1273].

[1267] GUA / AHPG-GPAH GEZ, 2842/34 / Renoko Unibertsitatea.

[1268] GUA.

[1269] GUA.

[1270] GUA.

[1271] GUA.

[1272] GUA / AZEDB / Sabino Arana Fundazioa-Euskal Abertzaletasunaren Agiritegia / CDMH: DNSD-SECRETARIA,FICHERO,42,M0167350 / Gipuzkoako Foru Aldundia: http://www.marinavasca.eu/eu/personal.php?o=3.

[1273] GUA.

## 439. MENDIZABAL IRIBAR, JOSE AGUSTIN

Gerra hastean 24 urte zituen eta Arantzazuko erlijioso frantziskanoa zen. Tropa frankistak Getariara sartzean, beraiekin soldadu joateko deitu zioten, baina “ausente” zegoen[1274].

## 440. MENDOZA MARTINEZ, DEMETRIO

Gerra hastean Zarautzen bizi zen eta ezker ideologiakoa izaki, tropa frankisten atzaparretatik ihesi, bere emaztea eta alabarekin, 1936ko irailaren 12an Mundakara egin zuen. Handik 15 egunera Santurtzira joan ziren eta bertan, Sarasketa jabearen tailerrean ebanista gisan lanean jardun zuen. Han armak hartzera deitu zuten, Bilbo tropa frankistek hartu behar zuten unean. Handik Laredoraino joan zen eta bertan atxilotu eta bertako hondartzako eskoletako gelan sartuta zuten. Gerraren eraginez, preso politikoa izan zen[1275].

## 441. MENTERA SEMILLERA, MIGUEL

Gerra hastea 19 urte zituen eta tropa frankistak Getariara sartzean beraiekin borrokatzera joatera deitzerakoan “ausente” aurkitzen zen[1276].

## 442. MITXELENA IRIBAR, BALTASAR

Tropa frankisten atzaparretatik ihesi, 20 urterekin, 1936ko irailaren 20ko ebakuazioan Getariatik alde egin zuen. Getariako udaletxe frankistako kideek eginiko txostenetan, jarrera oneko pertsonatzat kalifikatu zuten[1277].

## 443. MITXELENA ZUMETA, TEODORO

1892ko ekainaren 20an jaio zen. Lanbidez ebanista, Zarauzko Arruti Hermanos altzari dendan lan egiten zuen. Faustina Azkue Aierberekin ezkonduta zegoen eta, Antonio eta Karmen seme-alabak izan zituzten. ELA/STV-ko afiliatua izanik, gerra hastean, Oriotik Donibane Lohizunera (Ipar Euskal Herria) alde egin zuen. Behin itzulita, herriko falangista Timoteo Orte eta Garcia delakoak bere etxera joan eta etxetik atera zuten. Haien artean ziren, Marcelino Manterola Zarauzko Falangeko buruzagia eta, Francisco Torrent Blanco *Pako Beltza* eta Bonifacio Illarramendi falangista zarauztarrak, bai eta fusilatuaren seniden zen Antonio Aranguren Manterola “Teto” atzeraguardiako getariar erreketea ere. Haiek Teodoro Mitxelena Zumeta 1936ko urriaren 24an fusilatu eta Getariako Gregorio Zubizarreta Areizaga ehorzleari, lehenengo eguzki argi-izpiak irten baino lehen hilobiratzeko exijitu zioten. Apaiza eskatu omen zuen, baina ez omen zioten eman. Getariako ehorzleak hilaren 25ean hilobiratu zuen[1278].

## 444. MIRASOLAIN, AGUSTIN ANDRES

Pilotaria eta euskal nazionalista, gerra hastean, Bartzelonan (1936ko apiriletik) aurkitzen zen. Getariako udaletxe-frankistak jarrera oneko pertsonatzat determinatu zuen. Lleidako (Katalunia) Hilerri Zaharreko kontzentrazio-esparruan gatibu-lanak egiten jardun behar izan zuen. Gerraren eraginez, preso politikoa izan zen[1279].

## 445. MIRASOLAIN FERNANDEZ, ENRIKE

Gerra hastean, 24 urte zituen eta tropa frankistek Getariara sartzean beraiekin borrokatzera joateko egindako deialdian “ausente” zegoela determinatu zuten[1280].

## 446. MOLET GARATE, BASILIO

1898ko abenduaren 15ean Getarian jaio zen eta haren emaztea Ana Fernandez Ortiz Cadiz-ekoa izan zen. 1918ko maiatzaren 4an Donostian ezkondu ziren. 4 seme-alaba zituzten: Ageda (7 urte), Jaime (14 urte), Maria (11 urte) eta Felisa (6 urte). Elorrion Alderdi Komunistara afiliatuta eta UGT-ra sindikatuta, ardura politikoz, 1936ko uztailaren 19an soldadu zerrendatu zen eta 1937ko urriaren 20an Villaviciosa-n (Asturias) bitartean Eusko Gudarostean gidari lanak burutu zituen. Data horretan desagertu egin zen[1281].

---

[1274] GUA.
[1275] GUA / CDMH: PS-SECCION_MILITAR_PST, C. 108, F.22.
[1276] GUA.
[1277] GUA.
[1278] GUA / AZEDB / GURRUTXAGA URANGA, A., op.cit., 197-201.or.
[1279] GUA / AGMG: kaxa: 1921. Esp.: 95482.
[1280] GUA.
[1281] CDMH: PS_SM_PSET_224_5916 eta PSET_108_374.

### 447. MOLET GARATE, LEONOR

F.E.T. eta J.O.N.S.-era afiliatuta, Getariako Sección Femeninako buruzagia izan zen. Getariako epaile munizipala izan zen Resurrección Zumeta Alberdirekin ezkonduta zegoen[1282].

### 448. MUGERZA BELAUSTEGI, LUCIO

Mutrikuarra jaiotzez, baina Getarian bizi zen; lanbidez, marinela zen. EAJ/PNV-ra afiliatuta, ardura politikoz, gerran Bigarren Errepublikaren udal-gobernu legitimoaren alde tropa frankisten aurka borrokatu zuen Saseta Batailoian. Tropa frankistek, Laredon atxilotu eta preso politiko egin zuten. Leonen desagertuta[1283].

### 449. MUGERZA OSTOLAZA, JUAN JOSE

Getariarra jaiotzez, gerra ostean Donostian bizi eta Leandra Etxegoienekin ezkonduta zegoen. 1940ko ekainaren 24an lapurretagatik kartzelaratu eta hiru egunera atera egin zuten[1284].

### 450. MURGA MUNILLA, RAMONA

Getariako udal-frankistako txostenen arabera, ez zuten herrian ezagutzen[1285].

## N

### 451. NIETO AGUADO, RAMON

1878ko abenduaren 29an jaio zen. Getariarra jaiotzaz, baina gerra hastean Donostian bizi zen. Donostiako udaleko langilea izan zen eta tropa frankistak sartzean bere lanpostutik bota egin zuten. 1938ko ekainaren 27an kartzelaratu egin zuten Donostiako plazako 4 zenbakidun epaitegi militarrak kausa ireki eta kargurik gabe, 1939ko urtarrilaren 5ean aske utzi zuten. Kausa hori berriro ere ireki egin zuen 1943ko urriaren kausa hori berriro ere ireki egin zioten. Donostiako Guardia munizipalak oso “gorria” zela, sozialista eta Guillermo Torrijosekin oso ondo moldatzen zela eta tropa frankistak sartu baino lehen haren aginduetara lan egin zuela leporatzen zion. Horrez gainera, Donostiako ebakuazioan, irailaren 12an, bere kaxako 2.000 pezetekin alde egin zuela ere leporatu zion. 1944ko apirilaren 18an Donostiako Plazako epaitegian retenituta aurkitzen zen Donostiako beste 5 udal-langile izandakoekin batera. 1944ko apirilaren 27an Agustinetako gainean fusilatu egin zuten. Bere erregistro zibilean, garuneko odoljarioaz hil zela adierazten du. Frankistek, fusilamenduak halako hitzak erabiliz ezkutatzen zituzten. Fusilatzean, Ramon Nieto Aguadok 65 urte zituen eta, Cecilia Ibañezekin ezkonduta, Filomena, Luisa, Ramon, Carmen eta Mercedes Nieto Ibañez seme-alabak, aita gabe geratu ziren[1286].

### 452. NIETO RUIZ, FRANCISCO

Karabineroa. Getarian, gerra hasi aurreko lau urte egin zituen eta gerra hasi baino zerbait lehenxeago Zarautzera lekualdatu zuten. Getariako udal-frankistak, jarrera oneko pertsonatzat determinatu zuen[1287].

## O

### 453. ODRIOZOLA LARRAÑAGA, JOSE

Gerra hastean 27 urte zituen eta tropa frankistak Getariara sartzean eta beraiekin borrokatzera joateko deitzean, ihes eginda aurkitzen zela determinatu genezake; hain zuzen, “se ignora” agertu zuten[1288].

---

[1282] GUA.
[1283] GUA.
[1284] AHPG-GPAH GEZ, 2831/116.
[1285] GUA.
[1286] AZEDB / AHPG-GPAH GEZ, 2832/68 / Ipar-Mendebaldeko Eskualde Militarreko Tarteko Artxiboa, Ferrol, 348 eta 1683.
[1287] GUA.
[1288] GUA.

## 454. OIARBIDE BERASATEGI, VALENTIN

Miguel Primo de Riveraren diktaduran (1923-1930) zehar, 1926an, Getariako udal-idazkaria izan zen[1289].

## 455. OIARZABAL AGIRRE, JOSEFA

Getariar emakume errepresaliatua. Bere senarra, Jose Leandro Arregi Leizaola Eusko Gudarostearekin gerran borrokan edukitzeagatik, 1937ko otsailaren 13an, bere Isabel Egurbide eta Andoni Arregi seme-alabekin Getariatik espultsatu zuten. Handik, Lekeitiora egin zuten eta Foruan hilabete igaro zuten. Instant hartan, 1937ko apirilaren 26an, Gernikako bonbardaketa frankistaren unean azokan aurkitzen zen eta haren seme-alabek atsekabezko uneak pasa zituzten, ama bizirik agertu zen arte. Frankistekin bat egin zuten alemaniarrek bonbak jaurtitzen zituzten bitartean, komentu baten ertzean ezkutatuta egon zen beste 10 pertsonarekin. Haren ostean, Foruara itzuli ahal izan zuen. Tropa frankisten atzaparretatik ihesi, beste zenbait errefuxiatuk bezalaxe, Frantzia babestu ziren. 1937ko irailaren 9an, Hondarribiako Komandantzia Militarrean aurkitzen ziren beste zenbait getariarrekin. Bere familiak idatzitako abal baten bidez, Getariara itzuli ahal izan zuten. Frankisten kanporatzeak, argi eta garbi haiek, emakumea, gizonezkoaren objektu gisan erreparatzen zutela eta ez zutela subjektu politiko aske gisan identifikatzen argitzen digu. Diktadura frankistan zehar ere, errepresioa jasan behar izan zuten[1290].

## 456. OIARZABAL AGIRRE, JUAN BAUTISTA

Jaiotzez azkoitiarra, baina Getarian bizi zen. 1923. urtetik mikelete gisan guardia lanetan jardun zuen.Getariako aurrezki kutxako guardiak egiten zituen. Euskal nazionalista zen. Gerra hastean, Gipuzkoako Foru Aldundiaren aginduetara, Gipuzkoa eta Bizkaiko herri ezberdinetan, Bidania eta Ondarroa kasu, gerran jardun zuen. 1937ko maiatzaren 11n Bilbora iritsi zen. Tropa frankistek atxilotu eta 1937ko ekainaren 30erako Arriaga Antzokian ezarri zuten behin-behineko kartzelan atxilotuta egon zen. Gerra-Kontseilua egin eta aske utzi zuten, inongo kargurik gabe. Hori aitzakiatzat eta, haren emaztea “Remi” Idiakez Indo euskal nazionalista ere izanik, haren alaba Kontxita eta Arantzarekin 1937ko otsailaren 13an Getariako udaletxe frankistak herritik espultsatu zituen. Bere alaba Agurne Getariako amonarekin utzi behar izan zuelarik. Gipuzkoako Foru Aldundiak, Juan Bautista Oiarzabal Agirre, 1936ko azaroaren 26an bere postutik kaleratu egin zuen. 1937ko abuztuaren 25eko dekretuaz, agintari-frankistek mikeleteak desegin zituzten. Horren eraginez, gerra ostean, kontserba-fabrikan eta moilan jardun zuen lanean. 1943an hil egin zen[1291].

## 457. OIARZABAL IDIAKEZ, AGURNE

Getariar haur errepresaliatua. Bere ama “Remi” Idiakez Indo Getariako udaletxe frankistak 1937ko otsailaren 13an espultsatzean, Agurne Oiarzabal, Getariako amonarekin etxean geratu zen. Bitartean, aitak, Juan Bautista Oiarzabal Agirre mikelete azkoitiarrak, indar-errepublikarrekin tropa frankisten aurka borrokan jardun zuen. Diktadura frankistan zehar, familia osoaren gisan, euskal nazionalistak izateagatik, Agurnek ere, errepresioa jasan behar izan zuen[1292].

## 458. OIARZABAL IDIAKEZ, ARANTZA

Getariar haur errefuxiatua. Bere ama “Remi” Idiakez Indo 1937ko otsailaren 13an udaletxe frankistak Getariatik espultsatzean, bera eta bere ahizpa Kontxita amarekin batera erbestera joan ziren; Agurne ahizpa Getariako amonaren etxean geratu zen. Bien bitartean, haien aitak, Juan Bautista Oiarzabal Agirre mikelete azkoitiarrak, indar-errepublikarrekin tropa frankisten aurka jardun zuen. Familian euskal nazionalistak ziren. Beste zenbait errefuxiaturen gisan, Eusko Jaurlaritzak trazatutako errefuxiatuen bidea jarraitu zuten. Foruan zeudela, Gernikako 1937ko apirilaren 26ko alemaniar eta frankisten bonbardaketa bertatik bertara ikusi ahal izan zuten. Egun hartan, beraien izeba Josefa Oiarzabal Agirre Gernikako azokara joan zen eta komentu bateko izkina batean gordeta egoteagatik, salbatu egin zen. Une haiek atsekabe handikoak gertatu zitzaizkion Kontxita eta Arantzaren lehengusina Isabel Egurbideri. Azkenean ama itzultzean, haren barnean izugarrizko poza sentitu zuen. Handik, bi familiek Bilbora egin zuten. Haurrak eskolara joaten ziren eta haien aita mikeletea mikeleteen kolegioan bisitatzeko aukera ere izan zuten. Tropa frankistak Bilbora sartu baino lehen, ebakuatu eta Kantabriako herri ezberdinak pasa ostean, portuan ontziratu eta itsasontzian Frantziara iritsi ziren. Han Normandiako txalet batean kokatu zuten familia osoa eta, Kontxita Oiarzabal Idiakezek gogoratzen duenez, bera eta Isabel Egurbide lehengusina esne-saltzailearengana joan eta hark, gazta eta jogurrak ematen zizkien. Frantziatik berriro ere Getaria aldera hurbiltzeko garaia iritsi zitzaien. Hartan, 1937ko irailaren 9ko dokumentu baten bidez jakin ahal izan dugunez, Hondarribiako Komandantzia Militarrean geratzeko agindu zieten bi familiei. Haien familien eskariz, Getariako udaletxe frankistak, Getariara itzultzeko baimena eman zien. Familiako gainontzeko kideen gisan, Arantzak ere, diktadura frankistan zehar errepresioa jasan behar izan zuen, euskal nazionalistak izateagatik[1293].

---

[1289] GUA.

[1290] AZEDB / Testigantza: Andoni Arregi Oiarzabal eta Isabel Egurbide Oiarzabal.

[1291] GUA / AZEDB / Testigantza: Kontxita Oiarzabal Idiakez / Ipar-Mendebaldeko Eskualde Militarreko Tarteko Artxiboa, Ferrol, 160/37.

[1292] Testigantza: Kontxita Oiarzabal Idiakez.

[1293] Testigantza: Kontxita Oiarzabal Idiakez.

## 459. OIARZABAL IDIAKEZ, KONTXITA

Getariar haur errefuxiatua. Bere ama “Remi” Idiakez Indo 1937ko otsailaren 13an udaletxe frankistak Getariatik espultsatzean, bera eta bere ahizpa Arantza amarekin batera erbestera joan ziren; Agurne ahizpa Getariako amonaren etxean geratu zen. Bien bitartean, haien aitak, Juan Bautista Oiarzabal Agirre mikelete azkoitiarrak, indar-errepublikarrekin tropa frankisten aurka jardun zuen. Familian euskal nazionalistak ziren. Beste zenbait errefuxiaturen gisan, Eusko Jaurlaritzak trazatutako errefuxiatuen bidea jarraitu zuten. Foruan zeudela, Gernikako 1937ko apirilaren 26ko alemaniar eta frankisten bonbardaketa bertatik bertara ikusi ahal izan zuten. Egun hartan, beraien izeba Josefa Oiarzabal Agirre Gernikako azokara joan zen eta komentu bateko izkina batean gordeta egoteagatik, salbatu egin zen. Une haiek atsekabe handikoak gertatu zitzaizkion Kontxita eta Arantzaren lehengusina Isabel Egurbideri. Azkenean ama itzultzean, haren barnean izugarrizko poza sentitu zuen. Handik, bi familiek Bilbora egin zuten. Haurrak eskolara joaten ziren eta haien aita mikeleteen kolegioan bisitatzeko aukera ere izan zuten. Tropa frankistak Bilbora sartu baino lehen, ebakuatu eta Kantabriako herri ezberdinak pasa ostean, portuan ontziratu eta itsasontzian Frantziara iritsi ziren. Han Normandiako txalet batean kokatu zuten familia osoa eta, Kontxita Oiarzabal Idiakezek gogoratzen duenez, bera eta Isabel Egurbide lehengusina esne-saltzailearengana joan eta hark, gazta eta jogurtak ematen zizkien. Frantziatik berriro ere Getaria aldera hurbiltzeko garaia iritsi zitzaien. Hartan, 1937ko irailaren 9ko dokumentu baten bidez jakin ahal izan dugunez, Hondarribiako Komandantzia Militarrean geratzeko agindu zieten bi familiei. Haien familien eskariz, Getariako udaletxe frankistak, Getariara itzultzeko baimena eman zien. Familiako gainontzeko kideen gisan, Kontxitak ere, diktadura frankistan zehar errepresioa jasan behar izan zuen, euskal nazionalistak izateagatik[1294].

## 460. OKIÑENA, JOSE

Euskal nazionalista izan zen.

## 461. OLABERRIA ARANBURU, EUGENIO

Jaiotzez Elorriokoa, baina Getarian bizi zen. Gerra hastean, 24 urte zituen. Getariako udaletxe-frankistak, bere ideologiaren aldekoa eta beraz, jarrera oneko pertsonatzat determinatu zuen[1295].

## 462. OLAIZOLA BALERDI, MARTINA

Gerra hastean, Donostiako Hotel Londresen lanean aurkitzen zen. Handik, lehen liskarrak hastean, Getariara egin zuen. Garai hartan, bere mutil laguna, Isidro Berasaluze Egaña zen. Hura, gerrara, Euskadiko Gudontziarekin joan zen, bere anaia Gregorio Berasaluze Egañarekin. Martina Olaizola Balerdi haurdun zegoen Isidro joan zenerako, eta Isidro 1937ko urtarrilaren 18an Mari-Toya destruktoreak mina frankista bat jo eta lehertzean, hil egin zen. Gerra amaitzean, handik eta denbora batera, Martina Olaizola Balerdi, bere anaia Gregorio Berasaluze Egañarekin ezkondu zen[1296].

## 463. OLAIZOLA ETXABE, MANUEL

Gerra hastean, 23 urte zituen eta Getariako udaletxe-frankistak gerran ez zuela parte hartu deklaratu zuen. Hala eta guztiz ere, litekeena da, Irrintzi Batailoian indar-errepublikarrekin tropa frankisten aurka borrokatu izatea[1297].

## 464. OLAIZOLA IRURETAGOIENA, IGNACIO

1941eko apirilaren 28an, lapurretagatik atxilotu egin zuten. Handik eta, bi egunera aske utzi zuten[1298].

## 465. OLAIZOLA IRURETAGOIENA, JOSE FRANCISCO

Gerra hastean, ezkongabea, Añay baserrikoa, 24 urte zituen, Galo Arruibarrenori errentatzen zieten lurra eta Intxarkundia Batailoiarekin, tropa frankisten aurka Gipuzkoa, Bizkaia eta Santanderren borrokatu zuen. Frankistek Laredon atxilotu eta Lizarrako presoen klasifikaziorako komisioak klasifikatu ostean, 1937ko urriaren 20an, Miranda de Ebroko kontzentrazio-esparruan sartu zuten.1937ko azaroaren 6an, 34 zenbakidun Langile Batailoian gatibu-lanak egitera behartu zuten. 1939ko maiatzaren 14an Zapadores Minadores Batailoiko 2 zenbakidunera lekualdatu zuten; handik aurrera, soldadu gisan, 18 urte bertan egitera kondenatu zuten, zeina 1933ko abuztuaren 1eko bajatik hasten zen kontatzen. 1939ko ekainaren 14an, 15 konpainiako Zapadores Minadores delakoetara lekualdatu zuten.1944an oraindik ere soldaduska egiten jarraitzen zuen. Gerraren eraginez, preso politikoa bilakatu zen[1299].

[1294] Testigantza: Kontxita Oiarzabal Idiakez.
[1295] GUA.
[1296] Testigantza: Martina Olaizola Balerdi.
[1297] GUA.
[1298] AHPG-GPAH GEZ, 2855/73.
[1299] GUA / AGMG: kaxa: 2051. Esp.: 103699 / CDMH: DNSD-SECRETARIA,FICHERO,47,O0007650.

## 466. OLAIZOLA IRURETAGOIENA, MARCIAL

Gerra hastean 19 urte zituen eta tropa frankisten atzaparretatik ihesi, 1936ko irailaren 20ko Getariako ebakuazioan herritik alde egin zuen. Bere familia osoa, euskal nazionalista zen. 1936ko irailean Zarauztik Saturraran aldera egin zuen beste zenbait gudaririkin batera. Saturrarandik, Gernikara joan ziren, arto eta gari fabrika batean errefuxiatuta egonez. Handik Bermeoko gudarien kuartelera egin zuten. Handik Legutiora, gerrak bortizki eragin zien tokira. Legution posizioak galdu eta Urkiolara. Felipe Lizaso Eizmendi haien komandantea izan zen, Itxarkundia Batailoikoa. Tropa frankistek, 1937ko abuztuaren 26an Limpiasen atxilotu zuten eta handik, Laredoko futbol-zelaira, bertan pare bat hilabete eginez, gatibu-lanetan. Handik Zaragozako San Juan Mozarrifar kontzentrazio-esparrura lekualdatu zuten; gari granja zen eta bertan preso egon ziren. Han zeudela, Zaragozako Presoen Klasifikaziorako Komisioak, C atalean sailkatu zuen. Bertan zegoela, gatibu lanetan 25 zenbakidun 2. Konpainiako Langile Batailoian jardun zuen: Huesca, Teruel, Balanguer… inguruan. "Halako batean deklarazioa hartu zidatenean, atxilotuta nengoela esan, eta ¿está usted dispuesto a defender a Franco?, galdetu zidaten. Baietz esan nien nik, (…). Ehunetik gorako preso koadrilla bat hori esateko preparatuta geunden. Deklarazio hura egin eta hambost egunera, Bilbora ekarri gintuzten Balaguerretik, Eskolapioetako kartzelara"[1300]. Handik irtetean Donostiako 11 zenbakidun auzitegi militarrera joan behar izaten zuen sinatzera. Halako batean, soldaduskara joateko deia jaso zuen. Hartan, Langile Batailoietan jardun zuen Oiartzunen lehendabizi (Pikoketako bidea egiten); handik Pasaiara, zapadoreetan, mendiko babestelekuak egitera… "Hilabete pare bat Pasaian egin, eta Logroñora, artilleria, soldadu. Azkenean, soldadutza egin nuen. 18 urterekin joan, eta 27rekin bueltatu nintzen etxera libre"[1301]. Gerraren eraginez, preso politikoa izan zen[1302].

## 468. OLAIZOLA IRURETAGOIENA, MANUEL

Gerra hastean 16 urte zituen eta tropa frankistek 1938ko abuztuaren 23an beraiekin borrokatzera eraman zuten. Garai hartan 18 urte zituen[1303].

## 467. OLANO ******, JOSEFA

Zaldibiarra, Getariako Jose Joakin Iruretagoiena Olaskoagarekin ezkondu zen. Gerra baino lehen, josten, tabernan… lan egiten zuen. Euskal nazionalistak izaki, Ermuako Asuatik alde egin beharra izan zuten. Handik, bere seme-alaba, Maria Angeles, Miren eta Jose Maria Iruretagoiena Olaskoagarekin, Gernikara egin zuten. Gernikan, 1937ko apirilaren 26an frankistek eta alemaniar naziek eginiko bonbardaketa sarraskitsuarekin lekuko izan ziren. Haren senarra, Jose Joakin Iruretagoiena Olano, Gernikara tropa frankistak sartzean atxilotu eta fusilatu egin zuten. Bien bitartean, beste zenbait errefuxiaturen gisan, Eusko Jaurlaritzak trazatutako bidea egin behar izan zuten. Seguruenik, Bilbon erbesterako ontzia hartu eta Bordeaux-era eraman zituzten. Han sei hilabete komentu batean igaro ostean, Kataluniarako bidea hartu zuten. Katalunian beste komentu batean bizitzen egon zen, Jose Maria eta Maria Angelesekin; Miren, bitartean, familia aberats baten etxean bizitzen egon zen. Egoera tamalgarria bizi izan zuten, hain zuzen, Josefa Olano ama, askotan, etxez etxe janariaren eske joaten zen, komentuan errazio oso txikiak eman eta bizitza duina ezin baitzuten atera. Bartzelonan zeuden garai hartan, Olanok bere alabari, behin "Miren" izenez deitu zion eta horren eraginez, hiru egun kartzelan pasa behar izan zituen. Gerra jada amaitu berritan, Euskal Herrira itzuli ziren. Behin itzulita, ama eta anai-arreba guztiek bide ezberdinak hartu behar izan zituzten, gosea baitzen gerraostean eta sabel guztiak betetzeko lanik gabe ezin baitzuten bizi. Hala, Olanok, Donostiako Maezu medikuaren etxean lan egin behar izan zuen[1304].

## 469. OLASKOAGA, JOSE MARIA

Gerra hastean, UGT-ra afiliatuta, ardura politikoz, milizietan izena eman eta Getariako Defentsa Komiteari zenbait zerbitzu eskaini zizkion. 1936ko irailaren 20ko Getariako ebakuazioan, herritik alde egin zuen[1305].

## 470. OLASKOAGA ARREGI, EMILIO

Gerra hastean, euskal nazionalista izaki, 1936ko irailaren 20ko Getariako ebakuazioan herritik alde egin zuen[1306].

## 471. OLASKOAGA AZKUE, LUZIANO

Getariar bidezaina. Hasiera batean, frankisten aurkako ideologia zuela akusatu zuten, azken hauteskundeetan EAJ/PNV-ri botoa emateagatik. Bere deklarazioan, boto hura, Antonio Alegria Lasa (EAJ/PNV) Alegiako orduko alkateak eskatuta eman zuela adierazi zuen eta beraz, ez zela ideologia hartakoa. Horrez gainera, Getariako Defentsa-Komiterako zerbitzuak egiteaz ere akusatu zuten, baina horren aurrean, eskuindarrek ere derrigorrean haiek bete zituztela adierazi zuen. 1936ko irailaren 21ean, tropa frankistak Getariara sartzean, beraiek nahi zutenerako beren kargura jarri zen[1307].

---

[1300] GURRUTXAGA, A., op.cit., 227.or.
[1301] *Ibidem*, 229.or.
[1302] GUA / AGMG: kaxa: 2051. Esp.: 103701/ Ipar-Mendebaldeko Eskualde Militarreko Tarteko Artxiboa, Ferrol, 2055/39.
[1303] GUA.
[1304] Testigantza: Maria (Miren) Iruretagoiena Olano.
[1305] GUA.
[1306] GUA.
[1307] GUA.

## 472. OLASKOAGA EIZAGIRRE, EUGENIO

Gerra hastean 26 urte zituen. 1936ko irailaren 20ko Getariako ebakuazioan, herritik alde egin zuen[1308].

## 473. OLASKOAGA EIZAGIRRE, IGNACIO

1939an, Arrantzaleen Kofradiako zuzendaria zen[1309].

## 474. OLASKOAGA LAZKANO, BARTOLOME

1909ko martxoaren 13an jaioa, arrantzalea, ezkongabea eta, indar-errepublikarrekin tropa frankisten aurka borrokan jardun zuen. Frankistek atxilotu eta 1 zenbakidun Langile Batailoian gatibu-lanak egiten jardun behar izan zuen[1310].

## 475. OLASKOAGA LOPETEGI, PEDRO

Emilio Olaskoaga Zubimendi gudariaren aita. Bere semea Laredoko atxilotuta zegoenean, haren aldeko abala egin zuen[1311].

## 476. OLASKOAGA ZUBIMENDI, EMILIO

Gerra hastean 20 urte zituen eta ardura politikoz, Lehenago il Batailoiarekin Bigarren Errepublikako gobernu legitimoaren aurka estatu-kolpea emandako tropa frankisten aurka borrokatu zuen. Frankistek Santoñan (Kantabria) atxilotu eta 1937ko irailaren 22an, Laredon aurkitzen zen. Haren ostean, San Juan de Mozarrifar-eko (Zaragoza, Aragoi) kontzentrazio-eremura lekualdatu zuten. 1940ko maiatzaren 10ean, Barrios-en (Cadiz) Langile Batailoietan gatibu-lanak egiten jardun behar izan zuen. Gerraren eraginez, preso politikoa izan zen[1312].

## 477. OLASKOAGA ZUBIMENDI, EUGENIO

1936ko irailaren 20ko Getariako ebakuazioan, Frantziara ihes egin zuen[1313].

## 478. OLASKOAGA ZUBIMENDI, JOSE AGUSTIN

32 urteko marinel getariarra, ezkongabea. Gerra hastean, ELA/STV-ra afiliatuta izaki, ardura politikoz, Euskadiko Gudontzidiko Itsas Boluntarioen zerrendan izena eman zuen. Hala, 1936ko abendutik urtarrilera bitartean, Rafael Cantos miaketa ontzian lan egin zuen eta urtarriletik aurrera, Mari-Toya miaketa zerbitzuko ontzira pasa zen. Bere zerbitzua betetzen zegoela, 1937ko urtarrilaren 18ko eguerdian, Punta Lucero iparraldean Mari-Toya miaketa ontziak frankisten mina bat jo, lehertu eta segituan hondoratu egin zen. Gudarietako 6 hil egin ziren; tartean, berarekin batera Isidro Berasaluze Egaña gudari getariarra, Julian Sanchez Gomez ontzi-alfereza eta Manuel Basante Rodet ontziko patroia hil ziren.

## 479. OLASKOAGA ZUBIMENDI, JOSE MARIA

Gerra hastean 26 urte zituen eta IR-UGT-ra afiliatuta egonik, ardura politikoz, Euskadiko Gudontzidiko Itsas Boluntarioen zerrendan izena eman zuen. 1936ko abendutik 1937ko urrira bitartean, Bou Gipuzkoa eta Ciscar destruktorean gudari endai-mutil gisan jardun zuen. 1937ko martxoaren 5ean, Matxitxako lurmuturreko batailan parte hartu zuen eta bertan Canarias gurutzaontziaren kanoikaden eraginez, zauritu egin zen. Basurtoko Gandarias ospitalean errekuperatzen egon zen. Bou Gipuzkoak, tripulazioan 5 hildakorekin eta 12 zauriturekin Portugaleteko Itsas-Basera sutan sartu zen. Jose Maria Olaskoaga Zubimendiz gain, zaurituen artean, Juan Burgaña Etxebarria, Atanasio Kamio Uzin eta Manuel Aranguren Iñarra getariar gudariak zeuden. 1937ko ekainean Bizkaiko Itsas Armadak egindako eskakizunari erantzuna emanez Ciscar ontzian aurreko marinelak ordezkatuko zituen 100 Euskadiko Gudontzidiko gudarietatik bat izan zen. Bilboko ebakuazioan zenbait errefuxiaturen babesean lan egin zuen eta Bizkaiko hiriburuaren ebakuazioaren ostean, Kantabriara egin zuen. Azkenik, Gijonera, eta hantxe, 1937ko urriaren 20 hegazkin frankistek egindako bonbardaketaren ostean, Ciscar itsasontzia hondoratu egin zen. Geroago, data zehatzik ez daukagun arren, Ulloa ontzira lekualdatu zuten. Haren ostean, Zebbeus-Maknassy kontzentrazio-esparrua (Tunisia) egon zen. 1939ko apirilaren 3an flota errepublikarrarekin Iberiar Penintsulara iritsi eta seguruenik, beste askoren gian, frankistek, atxilotu egin zuten[1314].

---

[1308] GUA.

[1309] GUA.

[1310] GUA / AGMG: kaxa: 2051. Esp.: 103744.

[1311] GUA.

[1312] GUA / AZEDB / AGMG: kaxa: 2052. Esp.: 103748.

[1313] GUA.

[1314] GUA / CDMH: DNSD-SECRETARIA,FICHERO,47,O0008821 / Sabino Arana Fundazioa-Euskal Abertzaletasunaren Agiritegia / Gipuzkoako Foru Aldundia: http://www.marinavasca.eu/eu/personal.php?o=3.

## 480. OLAZIREGI ALZAGA, IGNACIO

Jaiotzez Hondarribikoa, Manuela Atorrasagasti Etxeberriarekin ezkonduta zegoen. 1923ko martxoaren 18an Gabriel Olaziregi Atorrasagasti deituriko semea Getarian izan zuten. Hain zuzen, 1921-1923 bitartean Getarian bizi izan ziren. 1937ko apirilaren 14an Barazarreko (Bizkaia) frontean larriki zauritu zen eta seguruenik bertan hil zen[1315].

## 481. OLIBE PRIETO, FEDERICO

Getariako botikaria. Tropa frankistak Getariara sartzean “apolitiko” gisan definitu eta bere postuan jarraitu zuen. Getariako udaletxe frankistak estatu frankistaren aginduz ezarritako diru-bilketa guztietan parte hartu zuen[1316].

## 482. OLIDEN ALKORTA, JOSE MARIA

Getariarra jaiotzez, Ondarroan bizi zen. Mekanikoa eta ezkongabea. Izquierda Republicana-ko afiliatua izaki, ardura politikoz, Ondarroako Defentsa-Komiteko Garraioen Komisarioa izan zen. Ondarroara tropa frankistak sartzean, Bilbon, Santanderren, Rivadesellan eta Gijonen ere garraioen kudeaketaz arduratu zen. Frankistek, Gijonen, 1937ko urriaren 22an, ontzi batean ihes egitera zihoanean atxilotu zuten. 1938ko ekainaren 13an, Donostiako Zapatari kartzelara lekualdatu zuten. Uztailaren 6an Donostiako Plazako 17 zenbakidun epaitegi militarrak bere aurkako epaiketa hasi zuen. Jose Ramon Osa Carroquiri Ondarroako alkate eta “Caballero de Españak” bere aurka deklaratu zuen: Markinako Guardia Zibilaren aurrean berak ezarri zuen salaketa. Ondarroan eraildako tradizionalisten gaineko errua bota zion. Victor Bengoetxea Zendoia Ondarruko Falangeko buruzagiak ere antzeko deklarazioa egin zuen. Jacinto Beristain Aranburu falangeko afiliatuak eta Renovación Españolako militante ohiak, bere tailerrean lan egin eta jarrera ona izan zuela bitarte horretan deklaratu zuen. Olidenen deklarazioa: ez omen zegoen inongo alderdietara afiliatuta, Sindicato Profesional de Obreros del Volante-koa omen zen, zeinak oinarri katolikoa zuen. Heredero de Beristainen lan egiten zuen mekaniko gisan gerra hasi zenean. Ondarroara tropa frankistak heltzean, Bilbon gerra garraioetako institutuan mekaniko gisan lan egin zuen. Gero Santander, Ribadesella eta Gijonen lanean egon zen garraioen tailerretan. Oraindik Gijon errepublikazalea zelarik, beste zortzi lagunekin batera Santanderrera lantxa batean egin zuten. Bi itsasontzik remolkatu eta Santanderrera eramatean atxilotu egin zituzten. Bere deklarazioan arabera, lantxan zihoazenak tropa frankistei aurkeztera omen zihoazen. Berekin lantxan zihoazenetakko batzuk Luzio Gisasola Bilbotarra, Luis Risco eta Arturo Araluze bilbotarrak… izan ziren; azken bi hauek Bilboko Asaltoko Guardien kuartelean atxilotuta zeuden. Gainontzekoen izenez ez zen gogoratzen. Ondarroan hiru astez izan zen zinegotzi, militar eta oligarkiak estatu-kolpea eman ostetik. 1936ko abuztuaren 20an hartu zuen zinegotzi postua Juan Badiola eta Jose Maria Urkiagarekin batera. 1933-1934an egin omen zen IR-koa baina estatu kolpea baino 3-4 hilabete lehenago desafiliatu egin omen zen, izan ere, mezara joateagatik burla egiten omen zioten. Gerra-Kontseilua egin ostean, 1939ko urtarrilaren 3an, 30 urteko kartzela zigorra eta inhabilitazio osoa ezarri zioten. Handik eta bi egunera, Ondarretako kartzelara lekualdatu zuten. Erantzukizun Politikoen Probintziako Auzitegiak, 500 pezetako isuna ezarri zion eta bere pobreziagatik hura kentzeko erregutu zuen 1940ko urtarrilaren 17an. 1941eko urriaren 9an, Aranjuezeko Presondegira lekualdatu eta bertan, “Empresa de Experiencias Industriales” delakoan gatibu-lanak egin behar izan zituen. 1943ko ekainaren 16an bere kartzela zigorra 12 urtera kommutatzen diote hartarako eskaera egin ostean. Komutazioaren ostean, bere kartzela zigorra 1949ko urriaren 20an amaitzen zen[1317].

## 483. OLLOKIEGI IBARBIA, CECILIO

Getariar txikienak, agintari frankistek beren botereaz baliatuz, balio militarretan hezi zituzten. Horregatik, Cecilio Ollokiegi Ibarbia gerra hastean 13 urte zituena, Getariako Pelayo -en[1318] zerrendan ageri da[1319].

## 484. ORDOZKITI ARRUTI, JOSE

Donostiarra, baina bere gurasoak Getarian bizi zituen. Horren eraginez, gerran zehar, bisitak egiten zizkien eta Donostian, diputazioaren ofizinetan lan egiten zuen. Diputazioaren ofizinak Mutrikura lekualdatzean, hara egin zuen. Getariako udaletxe frankistak jarrera oneko pertsonatzat determinatu zuen[1320].

## 485. ORLANDO GUZMAN, SALVADOR

Gerra baino lehenagotik Getarian bizi zen italiarra zen. Arrain gaztuen eskala handiko esportazioan egiten zuen lan eta itsasontzi ingelesen kontsignatarioa zen. Gerra garaian, tropa frankistek Reo markako 9347 matrikulako bere garraioa errekisatu egin zioten. Haren ostean, garraioa saldu egin zuten[1321].

---

[1315] AZEDB / Getariako Erregistro-Zibila / Orioko Udal Artxiboa.

[1316] GUA.

[1317] AZEDB / AHPG-GPAH GEZ, 2855/79/ Ipar-Mendebaldeko Eskualde Militarreko Tarteko Artxiboa, Ferrol, 2149/38-3149/38.

[1318] Tradizionalistek haurrak Comunión Tradicionalista-ko oinarri politiko-sozialen arabera hezteko sortutako asoziazioa..

[1319] GUA 93-01.

[1320] GUA.

[1321] GUA.

## 486. ORLANDO TESSO, CARLOS GERO

Salvador Orlandoren senidea zen eta berarekin arrain gaztuaren eskala handiko esportazioan lan egiten zuen. Salvador Orlandok adierazi zuenez, haren senidea ere, frankisten ideologiaren aldekoa zen. Gerra hastean, Italian aurkitzen zen, hain zuzen, Getarian jaiota ere, italiar nazionalitatea baitzuen[1322].

## 487. ORTE, TIMOTEO

Orioko falangista. Teodoro Mitxelena Zumeta oriotarra fusilatu eta Getariako hilerriko ehorzle Gregorio Zubizarretari hura ehorzteko agindua eman zion[1323].

## 488. ORTEGA SODUPE, MAXIMA

Bigarren Errepublikan zehar, Askizu auzoko eskola misto pribatuko irakaslea izan zen. Eskola hark, udaletxearen diru-laguntza jasotzen zuen[1324].

## 489. OSTOLAZA ILLARRAMENDI, IGNACIO

Gerra hastean, 25 urte zituen eta 1936ko irailaren 20ko Getariako ebakuazioan, herritik alde egin zuen. 1940ko abuztuaren 9an Iruneko mugan aberriratu eta frankistek atxilotu ostean, Afrika 146 zenbakiko Langile Batailoian lehenik eta haren ostean, 107 zenbakiko Langile Batailoian Oiartzunen gatibu-lanak egiten jardun zuen. 1940ko uztailaren 15ean 42 zenbakiko Langile Batailoian gatibu-lanak egiten aurkitzen zen.

## 490. OTAMENDI ESNAL, ANTONIO

Getariako udaletxe frankistaren arabera, ideologia frankistari leiala zen[1325].

## 491. OTAMENDI ESNAL, TOMAS

1895eko urriaren 21ean jaiotako getariarra. 1944ko abuztuaren 19an, Pedro Arregi baino egun bat lehenago atxilotu eta preso egin zuten. Biak, San Jose itsasontziarekin egindako ekintza susmagarriengatik epaitu zituzten. 1944ko abuztuaren 26an, Pedro Arregi Uzinekin batera, aske geratu zen. Ondarretako presondegian preso egon zen[1326].

## 492. OTAMENDI ILLARRAMENDI, BERNARDO

18 urteko marinel eta gudari getariarra. Gerra hastean, ardura politikoz, Eusko Gudarostean izena eman zuen. Legutioko batailan, 1936ko abenduaren 19an zauritu eta Basurtoko ospitale zibilean hil egin zen. Bere gorpua, Derioko hilerrian hilobiratu zuten[1327].

## 493. OTAMENDI ILLARRAMENDI, DIONISIO

Gerra hastean, 21 urte zituen eta soldaduskara joateko zuen luzapenagatik, beranduago joan zen tropa frankistekin borrokatzera[1328].

## 494. OTEGI CAMPOS, SANTIAGO

22 urteko abokatua eta eskuindarra. 1936ko otsaileko Gorteetarako Hauteskundeetan eskuindarren ahalduna izan zen. Bera eta bere familia ideologia frankistari leial izan ziren. 1928tik uda Getarian pasatzen zuten[1329].

---

[1322] GUA / Ipar-Mendebaldeko Eskualde Militarreko Tarteko Artxiboa, Ferrol, 101/41.
[1323] GUA.
[1324] GUA.
[1325] GUA.
[1326] AHPG-GPAH GEZ, 3626/53.
[1327] GUA.
[1328] GUA.
[1329] GUA.

# P

## 495. PEREZ ARANBURU, EDUARDO

Gerra hastean 18 urte zituen eta tropa frankistek beraiekin borrokatzera joateko deitzean, “ausente, ignorado” identifikatu zuten eta beraz, seguruenik, Getariatik ihes eginda zegoen[1330].

## 496. PEREZ EURAZABAL, MANUEL

Gerra hastean 16 urte zituen eta tropa frankistek beraiekin borrokatzera joateko deitzean, “desconocido” identifikatu zuten eta beraz, seguruenik, Getariatik ihes eginda zegoen[1331].

## 497. PEREZ EURABAZABAL, ROBUSTIANO

Gerra hastean 19 urte zituen eta tropa frankistek beraiekin borrokatzera joateko deitzean, “ausente” identifikatu zuten eta beraz, seguruenik, Getariatik ihes eginda zegoen[1332].

## 498. PILLADO FERNANDEZ, ANTONIO

Getariako Defentsa-Komiteari zerbitzuak egitera ukatu zen. Tropa frankistak Getariara sartzean, Itsas-Armada kolpistarako boluntario gisan aurkeztu zen eta beraiekin borrokan egin zuen[1333].

## 499. PORRAS RODRIGUEZ, GUILLERMO

Gerra hastean, 21 urte zituen eta magisteritza ikasten zuen. Getariako Defentsa-Komiteari zerbitzuak egitera ukatu zen. Tropa frankistak Getariara sartzean, ejertzito kolpistarako boluntario gisan aurkeztu zen eta beraiekin borrokan egin zuen[1334].

# Q

## 500. QUEREJETA QUEREJETA, PEDRO

1937ko irailaren 30ean Getariako Circulo Tradicionalista-ko presidentea zen. 1941eko irailaren 8an, Getariako 3. Udaletxe-frankistako zinegotzi izendatu zuten. F.E.T. eta J.O.N.S.-eko afiliatua izanik, preso errepublikarren inguruko zenbait txosten egin zituen[1335].

# R

## 501. RICA JUARISTI, JOSE LUIS

Gerra hastean, Bilbon bere ikasketak egiten aurkitzen zen. 1936ko abenduan, haren ama, Fermina Urbieta Esnal Bilbora iritsi zen. 1937ko ekainean tropa frankistak Bilbora sartzear zeudela, amarekin, Frantziara erbesteratu zen. 1937ko azaroaren 10ean Getariara itzuli ziren. Getariako udaletxe-frankistak jarrera oneko pertsonatzat identifikatzen du[1336].

---

[1330] GUA.
[1331] GUA.
[1332] GUA.
[1333] GUA.
[1334] GUA.
[1335] GUA.
[1336] GUA.

## 502. RICA URBIETA, JUANA

Gerra hastean, Bilbon bere ikasketak egiten aurkitzen zen. 1936ko abenduan, haren ama, Fermina Urbieta Esnal Bilbora iritsi zen. 1937ko ekainean tropa frankistak Bilbora sartzear zeudela, amarekin, Frantziara erbesteratu zen. 1937ko azaroaren 10ean Getariara itzuli ziren. Getariako udaletxe-frankistak jarrera oneko pertsonatzat identifikatzen du[1337].

## 503. RODRIGUEZ IBAZETA, FERNANDO

1937ko abuztuaren 20an, Gipuzkoako errepideen zuzendariari, behin baino gehiagotan ere egindako Gipuzkoako errepideetako langile gisan hartzea eskatu zion. Haren egoera tamalgarria zen, bost seme-alaba baitzituen eta haiei ere sabela gosez kitatu beharra zien[1338].

# S

## 504. SAINZ MARTINEZ, SATURNINO

Karabineroen sarjentua eta Getariako delegatu militarra izan zen[1339].

## 505. SALES ETXABE, FRANCISCO

Ideologia frankistaren aurkakoa izateagatik, bere Getariako ondasunak desjabetu zizkioten[1340].

## 506. SALVADOR MANSO, TOMAS

Gerra hastean, karabineroen sarjentua zen eta Getarian bere postua betetzen zegoen. Getariako Defentsa-Komiteko zerbitzuak betetzera ukatu egin zen. 1936ko irailaren 20an, Getariako ebakuazioan, beste karabinero eskuindar batzuekin batera ezkutatu eta tropa frankistak Getarian sartu baino lehen, Zarautzen tropa frankistengana aurkeztu zen. Ordutik aurrera, Plaza horretako Komandante Militar izendatu zuten. 1944ko uztailaren 22an dokumentu publikoak faltsifikatzeagatik salatu zuten. Horren eragi-nez, Gerra-Kontseilua egin zioten eta aske geratu zen, Tomas Salvador Mansok bere nagusiari jarraiki egindako ekintzak zirela deklaratun[1341].

## 507. SAMANIEGO ALKORTA, FELICITAS

60 urte ingurukoa, getariarra, ezkongabea eta arrain gazituaren salmentan lan egiten zuen. Euskal nazionalista izan zen, haren familiakoen gisara[1342].

## 508. SÁNCHEZ GARCÍA, FERNANDO

Maria Paz Carazo San Miguel maistraren senarra. Getariako mutilen eskolako irakasle nazionala. Izquierda Republicana-koa izateaz salatu zuten. Sánchezek ordea, Lehen Hezkuntzako Gipuzkoako delegatuari, ez zela ideologia ezkertiarrekoa berretsi zion: ez zuela bere eskoletan umeek intsignia alderdikoirik eramaten uzten, meza nagusira jateko ohitura zuela nahiz eta derri-gorra ez izan, azken Gorteetako hauteskundeetan Fronte Popularra ez zuela bozkatu, tropa frankistei zenbait diru-laguntza eman zizkiola… adieraziz. Horrez gainera, Julian Martinez Gil Arrantzaleen Eskolako irakasle nazionala, Getariako Defentsa-Komiteari zerbitzuak eskaintzeaz akusatu zuen. Bere etxean, umezurtz geratutako neskatila bat hartu zuen[1343].

## 509. SAN MARTIN MURUA, JOSE

Gerra hastean, 20 urte zituen.Tropa frankistak Getariara sartzean, erreketeen itsas-armadan izena eman eta Juan Mari itsasontzian, indar-errepublikarren aurka borrokatu zuen. 1936ko urriaren 10-25 bitartean kostako guardia-lanak egin zituen[1344].

---

1337 GUA.
1338 GUA.
1339 AGMG, Pedro Arregi Azpeitiatik.
1340 GUA.
1341 GUA / Ipar-Mendebaldeko Eskualde Militarreko Tarteko Artxiboa, Ferrol, 463/36-540/44.
1342 GUA.
1343 GUA.
1344 GUA.

## 510. SANSINENENA GOÑI, JUAN MIGUEL

Ideologia frankistaren aurkakoa izateagatik, otadiko zati baten %26 partaidetza zatiezina eta Iruerregeta lursailaren barnean kokatutako ehundegi bat desjabetu zizkion Getariako udaletxe-frankistak, Gipuzkoako Ondasunak Konfiskatzeko Batzorde Probintzialaren aginduz[1345].

## 511. SANTAMARIA IDIAKEZ, VICENTE

1925eko ekainaren 19an jaioa. EAJ/PNV-ra afiliatuta egonik, tropa frankisten atzaparretatik ihesi, Frantzian (Ref. Mlle. Labadie)erbesteratu zen. 1937tik 1941era Frantzian errefuxiatu zen. 1949ko urriaren 7an Zarautzen zegoen, baina berriro ere ihes egin zuen[1346].

## 512. SARASKETA, PEDRO

Getariarra, gerra hastean, ardura politikoz, armen kontrolean eta Larrañaga Batailoian tropa frankisten aurka borrokatu zuen[1347].

## 513. SASIAIN GARMENDIA, KARMEN

Getariako irakasle nazionala. Tropa frankistak Getariara sartzean, espedientea ireki, Karmen Sasianen jarreraren inguruko txostenak bildu eta 1939ko otsailaren 10eko Langile Publikoen Garbiketarako Legearekin bere lanetik bota egin zuten[1348].

## 514. SEBAL AGIRRE, TOMAS

Araiarra, torlojoen maisua, Getariako Maria Mendizabal Iribarrekin ezkonduta zegoen. Gerra hastean, Soraluzen bizi ziren eta Tomas Sebal ideologia sozialistako kideak, Candido Munagorriren torlojuen tailerrrean lan egiten zuen. Tropa frankisten atzaparretatik ihesi, 1936ko abuztutik irailaren 20ra bitartean Getarian errefuxiatu ziren. Amuategi Batailoiko 4. Konpainiako 1. Sekzioko tenientea izan zen. Eibarreko frontean egon eta haren ostean Amorebietan zauritu egin zuten eta Ave Maria ospitalean eduki zuten. Errekuperatzean berriro ere batailoian ibili zen Castro-Alen-en… Tropa frankistek, Santoñan atxilotu eta preso politikoa egin zuten. Handik Duesora, 1937ko irailaren 10ean lekualdatu eta handik 1940ko uztailaren 4an, Guardia Zibilaren bigilantziaz, Donostiako Ondarretara (bi egun beranduago iritsi zen) lekualdatu zuten. Donostiako Plazako 8 zenbakidun epaitegi militarrak kausa ireki zion zeina 1940ko maiatzaren 14an Santoñan irekitakoarena zen. Uztailaren 17an, espetxealdi arindua lortu zuen.Tolosako Guardia Zibilak armekin ibili zela adierazi zuen. Soraluzeko Miguel Larrañaga falangeko buruzagiak adierazi zuen Soraluzeko komitean ez egonik ere, haiekin harreman oso ona zuela. 1940ko urtarrilaren 24ean, "matxinadari laguntza" eskaintzeagatik, 12 urte eta egun bateko kartzela zigorrera kondenatu zuten. Gerora, 6 urte eta egun batera kommutatu zioten kartzela zigorra. 1942ko abuztuaren 29an, espetxealdi arindua lortu zuen. 1943ko irailaren 12an aske geratu zen. Behin askatasuna lortzean, Bergaran bizitzen jarri zen[1349].

## 515. SESMA SOROZABAL, EUSTAKIO (EDUR)

Gerra hasterako 21 urte zituen eta iheslari deklaratuta zegoen. Gerran zehar, EAJ/PNV-ko atzeraguardian jardun zuen[1350].

## 516. SETIEN CALVO, JUAN

Mekanikoa eta marinela. Gerra hastean 29 urte zituen eta UGT-ra afiliatuta, ardura politikoz, Getariako Defentsa Komiteari bere kotxearekin zenbait zerbitzu eskaini zizkion. Laredon tropa frankistak sartzean atxilotu eta 1937ko martxoaren 11ko Gerrako Presoak Sailkatzeko Agindu Orokorraren arabera, presoen "c" klasifikazioan sartu zuten. 1937ko azaroaren 20tik, Donostiako Ondarretako kartzelan preso zegoen. Bere aurkako epaiketa, Donostiako Plazako epaitegian egin zioten.

Eugenio Egurbide alkate frankistak, Getaria ebakuatutako testuinguruan, Defentsa Komite errepublikarrak zuen arma-gelako armak hartu eta udaletxeko Juan Sebastian Elkanoren koadroaren lapurretaren lekuko izanaz salatu zuen. Honakoa lekuko gisan salatu bitartean, Eusebio Basurto Altuna eta Vicente Iraundegi Ibarra, alkate frankistak ekintza hau egiteagatik salatu eta epaitegietan epaitu zituzten. Horrez gainera, Casa Torresko markesaren etxean lapurreta egiteaz ere akusatu zuten. Bilbon Gerrako Garraio errepublikarren konponketen sailean boluntarioki lanean egoteagatik ere akusatu egin zuten.

Alejo Jimeno Getariako F.E.T. eta J.O.N.S.-eko buruzagiaren deklarazioa: frankisten aurkako herriko nabarmenen artean deklaratu zuen. Getariako apaiz ekonomo Karmelo Labaka Errezolaren deklarazioa: "buena conducta moral-religiosa". Eugenio Egurbide: ezkertiarra, komiteko parte ez zen izan, baina zenbait zerbitzu egin zituen errekisatutako kotxeekin "(…) pero alter-

---

[1345] GUA / AZEDB.
[1346] Sabino Arana Fundazioa-Euskal Abertzaletasunaren Agiritegia.
[1347] AZEDB.
[1348] GUA / AZEDB / CDMH: 32/13317.
[1349] GUA / AHPG-GPAH GEZ / Ipar-Mendebaldeko Eskualde Militarreko Tarteko Artxiboa, Ferrol, 3779/40.
[1350] GUA / AZEDB.

naba con los dirigentes locales y su hermano fue uno de los que formaba parte en el Comité local". Getariako ebakuazioa egin ostean beste hiru edo lau milizianorekin Getariara Zumaiatik hurbildu eta komiteak udaletxean zituen errekisatutako eskopetak hartzeaz gain, Juan Sebastian Elkanoren koadroa lapurtzeaz ere arduratu zuen. Getariko falangearen informearen arabera: txofer lanak pistolarekin egiten omen zituen. Casa Torres-ko markesaren etxean 16-18 egunetan zehar bizi izan omen zen eta bertako zenbait gauza lapurtu omen zituen.

1937ko abenduaren 15ean Juan Setienen deklarazioa: mekanikoa zen, jaiotzez donostiarra eta Getarian bizi zen, 29 urte eta ezkondua. Pasaian 1932-1934 bitartean lanean zegoela Union Sociedad de Mecanicos delakora afiliatu zen. Tropa frankistak Getariara sartzean, bere kotxean Lekeitiora abiatu zen Zumaiako itsas ordezkaria eta haren familia ere eramanez. Juan Zabala aitaginarrebaren etxean bizitzen egon zen 3 hilabetez eta itsas ordezkari honen aginduak betetzen. Astero egun batean Bilboko itsas ordezkaritzara joateaz arduratzen zen bere lanean. 1937 hasieran Bilbora lekualdatu ziren, Bilboko ordezkariaren menpe geratuz eta martxoan gerrako garraioen parkera lekualdatu zen bertan txofer eginez. 1937ko abuztuaren 25ean Laredon tropa frankistek atxilotu zuten; bere kinta mobilizatuta egoteagatik soldadu zegoen parke hartan. Armarik ez zuela erabili adierazi zuen. Ez zela Casa Torres-ko markesaren etxean bizi eta kotxea bakarrik behin edo behin bere jardinean aparkatu baino ez zuela egin adierazi zuen. Komiteak aginduta Casa Torresko markesaren etxeko logela gehienak presintatuta zeuden, bakarrik beheko solairua bost edo sei miliziano txaleta zaintzen egon zirenek betetzen zuten. Ez zuela udaletxeko asaltoan parte hartu deklaratu zuen eta Elkanoren tapiza ere ez zuela lapurtu adierazi zuen. Bere anaia Pedro Komiteko Garraioen komisarioa izan zela berretsi zuen.

1938ko abenduaren 1ean Donostiako Plazan egindako epaiketaren bidez, "b"[1351] klasifikazioan sartu eta 1939ko martxoaren 11n San Pedro de Cardeña-ko (Burgos) kontzentrazio-eremura lekualdatu zuten.

Langile Batailoian gatibu-lanak 1939ko maiatzaren 8ra arte egiten jardun zuen. Hala eta guztiz ere, 1939ko maiatzaren 22an egindako akusazio batean, alkateak, arma gainean erabili zuela akusatu zuen, zeinarekin Juan Setien Calvori, gerra ostean eraikitako errepublikar biolentoaren irudia islatu nahi izan zion. Salaketa horien guztien eraginez, Juan Setien Calvok, 1939ko urriaren 28an, arratsaldeko 18:00etan, Gipuzkoako Erantzukizun Politikoen Epaitegian deklarazioa egin behar izan zuen. Horren eraginez, 1940ko ekainaren 3an, Nafarroako Erantzukizun Politikoen Auzitegiak, 100 pezeta ordaintzera derrigortu zuen. Gerraren eraginez, preso politikoa izan zen.1940ko maiatzaren 9an absuelto omen da.

Teofilo Garcia Zarauzko Komandantzia Militarreko kaboak, Setienen aita Juan Setienen etxean sartu eta semearen ontzi-kartilla eta bere anaia Pedroren bi argazki hartu zituzten Erregistro dokumentuak, 1936ko irailaren 30ean sinatutakoak dira[1352].

## 517. SETIEN CALVO, PEDRO

Gidaria zen. UGT-koa izaki, ardura politikoz, gerra hastean, Getariako Defentsa Komiteko Komunikazioen Komisariaren arduraduna izan zen. Eugenio Egurbide Azpeitia Getariako alkate frankistak (1938/03/17) Casa Torres-ko Markesaren etxean errekisamenduak egiteaz salatu zuen. 1936ko irailaren 20ko ebakuazioan, miliziekin Bizkaia aldera egin zuen. Gerra ostean, Frantziako Saint Cyprien (Pyrénées-Orientales) kontzentrazio-eremuko 16. Zenbakiko esparruan aurkitzen zen. Handik, Gurseko kontzentrazio-eremuko, Islote C. 15 barrakoiko G° 5°-ean egon zen[1353].

## 518. SILBETI, KRISTINA

Getariako udaletxe-frankistak jarrera oneko pertsonatzat hartu zuen. Hala eta guztiz ere, Bigarren Errepublikan zehar EAJ/PNV-ri bozkatu izana egotzi zion[1354].

## 519. SILBETI, CRESCENCIO

Euskal nazionalista izan zen.

## 520. SILBETI OLASKOAGA, ESTEBAN

1936ko irailaren 20ko Getariako ebakuazioan herritik alde egin zuen. Getariako udaletxe-frankistak, jarrera oneko pertsonatzat deklaratu zuen. Berrio ere Getarian bizitzen jartzeko, 1939ko ekainaren 15ean, Ignacio Aranburu Zubimendi (Diputazioko langilea izandakoa) eta Jose Gaztañaga San Sebastian, Getariako udal-idazkariaren abala jaso zuen[1355].

## 521. SOLANA PERAL, IÑIGO

Diktadura frankistaren aurkakoa izateagatik, bere ondasunak desjabetu zizkioten[1356].

---

[1351] "Borondatez etsaiaren aldean soldadu ibili eta beste erantzukizun sozial, politiko edo arruntik ez duten presoak".
[1352] GUA.
[1353] GUA / AZEDB / Sabino Arana Fundazioa-Euskal Abertzaletasunaren Agiritegia.
[1354] GUA.
[1355] GUA.
[1356] GUA / AZEDB.

## 522. SORAZU, PEDRO

Eskuindarra. Bigarren Errepublikako Gorteetarako hauteskundeetan eskuindarren hauteskunde-agentea izan zen[1357].

## 523. SORAZU FURUNDARENA, FRANCISCO

Gerra hastean, 21 urte zituen eta 1936ko irailaren 20ko Getariako ebakuazioan, herritik alde egin zuen. 1943ko ekainaren 7an, Zarautzeko Komandantziako Guardia Zibilak aginduta atxilotu egin zuten, Antonio Garrastazu Arruti eta Francisco Sorazu Furundarenarekin batera. Ordura arte, Frantzian ihes eginda egon ziren. Haiek atxilotzeko agindua, Emilio Vadillo *Salazar cabo de la ciento trece comandancia rural de la guardia civil y en la actualidad prestando sus servicios en el puesto de* Zarauz izenekoak eman zuen. Marciano Herrero Bajo eta segundos Jose Plaza Giner eta Jose Gonzalez Pereñarekin joan zen Getariara hirurak atxilotzera. Marciano Herrero eta Jose Gonzalez Azkizuko Amezketa baserrian arakatzera joateko eta bera, Igarategira Jose Plaza Ginerrekin begiratzera joango zela adostu zuten. Azken horretan Garrastazu Igarategikoa eta Iñarra kaletarra ezkutatuta zeuden. Amezketa baserritik Sorazu atxilotu eta hirurak Zarauzko komandantziara preso eraman zituzten. Francisco Sorazu Furundarenaren deklarazioa, Amezketa baserrikoa, 28 urtekoa, nekazaria eta ezkongabea: Getarian diputazioarentzako egin zuen lan bertako ebakuaziora arte eta itsasontzian Frantziara egin zuen. SOV-eko afiliatua izan zen. Ordutik aurrera, agindu berrira arte, bere etxean preso sartu zuten. Hain zuzen, lanerako edo beti ere, agintarien baimenekin bermatuta baino ezin zuen kalera irten. 1943ko urriaren 15eko Gerra-Kontseiluaren sententziaren arabera, soldaduskara joan beharko zuten auziperatuek[1358].

## 524. SORAZU FURUNDARENA, JOSE

Gerra hastean, 19 urte zituen eta 1938rako zerbitzuen ziurtagiri bat zuenez, gerran tropa frankistekin borrokatu zuela pentsa genezake[1359].

## 525. SORAZU LARRAÑAGA, VICENTE

Getariako bidezainen brigadako langilea. Bigarren Errepublikako Gorteetako hauteskundeetan, EAJ/PNV-ra afiliatuta egonik, hari eman zion botoa. Gerra hastean, ez zuen Getariako Defentsa Komitean inolako zerbitzurik bete. Tropa frankistak herrira sartzean, beren zerbitzura jarri zen. Haien aginduz, Zarautz eta Getaria arteko bidea konpondu zuen. Bai eta 22 egunez, guardia-lanak bete ere[1360].

## 526. SUSTAETA AZKARRAGA, JESUSA

Tropa frankistek Getariara sartzean, ia-ia ilea soildu eta olio errizinoa emanez, Getariako kaleetan barna paseatu zuten. Haren koinata Victoriano frankista izateagatik libratu zen.

## 527. SUSTAETA AZKARRAGA, JUSTINA

Getariar emakume kanporatua. 1937ko otsailaren 13an, udaletxe frankistak, Getariatik kanporatu zuen. Bere alaba Benite Aizpuru Sustaeta berarekin eraman zuen Bilbora, baina Ibon Aizpuru Sustaeta, gaixotuta, Getarian familiakoekin geratu zen. Justina Sustaeta Azkarragaren senarra, Agustin Aizpuru Lazkano (EAJ/PNV) Eusko Gudarostearekin borrokan jardun zuen eta hori izan zen, lehenengoa Getariatik kaleratzeko arrazoi nagusia. Frankistek, emakumea, gizonezkoaren objektu gisan erreparatzen zuten eta ez subjektu politiko aske gisan[1361].

## 528. SUSTAETA AZKARRAGA, VICTORIANO

Gerra hastean, EAJ/PNV-ra afiliatuta, ardura politikoz, Euskadiko Gudontzidiaren Itsas Boluntarioen zerrendan izena eman zuen. 1937ko urtarriletik urrira bitartean, Rafael Cantos, D-21 eta Ciscar destruktoreetan gudari gisan jardun zuen. Haren lehen destruktorea, Rafael Cantos izan zen. 1937ko martxoa amaiera aldean, destruktorea, arrantzarako Industria Sailaren ardurapean uztean, D-21 destruktorera pasa zen. 1937ko ekainean Bizkaiko Itsas Armadak egindako eskakizunari erantzuna emanez Ciscar ontzian aurreko marinelak ordezkatuko zituen 100 Euskadiko Gudontzidiko gudarietatik bat izan zen. Bilboko ebakuazioan zenbait errefuxiaturen babesean lan egin zuen eta Bizkaiko hiriburuaren ebakuazioaren ostean, Kantabriara egin zuen. Azkenik, Gijonera, eta hantxe, 1937ko urriaren 20an, hegazkin frankistek egindako bonbardaketaren ostean, Ciscar itsasontzia hondoratu egin zen. Hala eta guztiz ere, Flota Errepublikarrarekin tropa frankisten aurka borrokan jarraitu zuen. 1939ko martxoaren 23an, Zebbeus-Maknassy-ko (Tunisia) kontzentrazio-eremuan preso izan zuten. Haren ostean, Iberiar Penintsulara itzultzean, frankistek, berretsi ezin dezakegun arren, seguruenik, atxilotu egingo zuten[1362].

---

[1357] GUA.

[1357] GUA / AHPG-GPAH GEZ, 3608/57 / Ipar-Mendebaldeko Eskualde Militarreko Tarteko Artxiboa, Ferrol, 810/43.

[1359] GUA.

[1360] GUA.

[1361] GUA.

[1362] GUA / CDMH: DNSD-SECRETARIA,FICHERO,64,S0194642 / AZEDB.

## 529. SUSTAETA URKIDI, ANDRES

Gerra hastean, 49 urte zituen eta UGT-ko afiliatua izanik, ardura politikoz, Euskadiko Gudontzidiko Itsas Boluntarioen zerrendan izena eman zuen. Hartaz, 1937ko apiriletik azarora bitartean, D-16 destruktorean arrantzako patroi edo 2. Mailako patroi-gudari gisan jardun zuen. 1937ko abuztuaren 25ean Santanderretik La Pallicera (Frantzia) joan zen. Gerra amaitu bitartean Rocheforten (Frantzia) egon zen. Ez dakigu zehazki, Andres Sustaeta Urkidi Frantziaraino heldu zen; baina 1939ko uztailaren 13an Getarian aurkitzen zen. Jaiotza eta bizilekuz mutrikuarra zen. Aipatutako datatik, bederatzi edo hamar hilabete lehenago, bertako Mutrikuko Komandantzia Militarrak desterratuta, familiako batzuen etxean bizitzen aurkitzen zen. 1939ko uztailaren 13an, Andres Sustaeta Urkidik, Mutrikura itzultzeko eskaera egin zuen[1363].

# T

## 530. TOLOSA *****, EULALI

Orlando kontserberan lan egiten zuen. Zenbait testigantzen arabera, herriko preso errepublikazaleei laguntza emateko diru-bilketa egiteagatik frankisten salaketa jaso zuten. Horregatik moztu zioten ilea, Rosario Uranga Olaskoaga eta Karmen Alkortarekin batera. Litekeena da, Eulali Tolosa ere Emakume Abertzale Batzako militantea izatea.

## 531. TORRES RODRIGUEZ, LUIS

Gerra hastean 27 urte zituen eta Getarian bizi zen. 1936ko irailaren 1ean, Badajozen tropa frankistek fusilatuta erail zuten[1364].

# U

## 532. UGARTE EZEIZA, LEONCIO

Gerra hastean 27 urte zituen eta errekete gisan indar-errepublikarren aurka borrokan jardun zuen[1365].

## 533. UGARTE UNANUE, LEONCIO

Mediku titularra eta nazionalisten jarraitzailea, Casa Torresko markesaren administradorea. Bere emaztea Prisca Ezeiza eta haren alaba, Carmen Ugarterekin bizi zen. Frankistak sartzean oraindik ere lanean jarraitu zuen. 1938ko otsailean hil zen[1366].

## 534. UGARTE, CARMEN

Getariako falangista guztien izenean eskutitz bat bidali zion Zarauzko komandante militarrari 1937ko martxoaren 20an. Argi geratzen zaigu, Getariako falangista eta beraz, Sección Femenina-ko kide izango zela. Horrez gainera, komandanteari zuzenean idazten dionez, Sección Femenina-ko buruzagietako bat izango zela pentsa genezake, haien burua Leonor Molet Garate izango zelarik[1367].

## 535. ULAZIA ARREGI, IGNACIO

Erbestea. 1936ko ekainaren 17an Bilbo tropa frankistek hartu zutenean, berau enterratu egin zuten bere iloba Juan Eizagirre Ulaziak gogoratzen duenez[1368].

## 536. ULAZIA ESNAL, CESAREO

Gerra hastean 37 urte zituen, ezkongabea eta lanbidez arrantzalea zen. Eskuindarra zen eta erregimen frankistaren aldekoa zen; Bigarren Errepublikako Gorteetarako azken hauteskundeetan eskuindarren aldeko botoa eman zuen[1369].

---

[1363] GUA / Gipuzkoako Foru Aldundia: http://www.marinavasca.eu/eu/personal.php?o=3.

[1364] MARTÍN BASTOS, Javier. 2015. *Badajoz: tierra quemada. Muertes a causa de la represión franquista 1936-1950*. PREMHEX, Badajoz.

[1365] GUA.

[1366] Sabino Arana Fundazioa-Euskal Abertzaletasunaren Agiritegia.

[1367] Renoko Unibertsitatea, Idoia Arrieta.

[1368] Testigantza: Juan Eizagirre Ulazia.

[1369] GUA.

## 537. ULAZIA IÑARRA, JOAKIN

Tropa frankistak Getariara sartzean, 1939ko kintakoa izanik, 18 urterekin, Arapiles 7. Zenbakiko Batailoian beraiekin borrokatzera eraman zuten. "Atasia" delako gaixotasuna zuen eta Segundo Martinez-ek gaztearen berri emateko eskatu zuen[1370].

## 538. ULAZIA, MARIANO

Bidezain lanetan jarduten zuen. Bigarren Errepublikako Gorteetarako azken hauteskundeetan, EAJ/PNV-ri eman zion bere botoa; alderdi horretako afiliatua baitzen. Tropa frankistak Getariara sartzean, lehen egunean hauengana aurkeztu eta beraientzako zerbitzuak bete zituen: Zarautz eta Getaria arteko errepideko konponketak, gaueko guardia-zerbitzuak… burutu zituen[1371].

## 539. ULAZIA OLARRA, IGNACIO

Getariar txikienak, agintari frankistek beren botereaz baliatuz, balio militarretan hezi zituzten. Horregatik, Ignacio Ulazia Olarra, Getariako Pelayo -en[1372] zerrendan ageri da[1373].

## 540. ULAZIA OSTOLAZA, DIONISIO

Akarregi baserriko nekazaria. Gerra hastean, 24 urte zituen eta EAJ/PNV-koa izanik, 1936ko irailaren 20ko Getariako ebakuazioan herritik alde egin zuen. Kanbon (Ipar Euskal Herria) erbesteratu zen. 1937an Getariara itzultzen saiatu zen[1374].

## 541. ULAZIA SORAZU, IGNACIO

Getariar txikienak, agintari frankistek beren botereaz baliatuz, balio militarretan hezi zituzten. Horregatik, Ignacio Ulazia Sorazu gerra hastean 10 urte zituena, Getariako Pelayo -en[1375] zerrendan ageri da[1376].

## 542. ULAZIA UNANUE, JULIAN

Eskuindar ideologiakoa. 1931ko apirilaren 12ko udal-hauteskundeetan, 148 botorekin, Bigarren Errepublikako lehen Getariako udal-gobernuko zinegotzia izendatu zuten. Tropa frankistak Getariara sartzean, beren aldeko hautua egin zuen[1377].

## 543. ULAZIA UNANUE, SEBASTIAN

Bizkaiako sindikatu metalurgikoan afiliatuta[1378].

## 544. URANGA OLASKOAGA, ESTEBAN

Gerra hastean 38 urte zituen, bizargina eta danbolin-jolea zen lanbidez. Gerra hasi baino lehen haren emaztea Teresa Zelaia Azpillaga eta beren hiru seme-alabekin 1924. urtetik Ordizian bizi ziren. Gerra hastean, familia osoak Getariara egin zuen. Esteban Uranga Olaskoaga 1936ko irailaren 20ko ebakuaziora bitartean Getarian egon zen. Haren ostean, Bilbora joan eta bertan, intendentzian, bizargile lanean jarraitu zuen. Ordiziako herriko F.E.T. eta J.O.N.S.-eko ordezkariek Jose Calvo Sotelo hil zenean, "ojala le hubieran matado hace 30 años al llorado Calvo Sotelo" esateagatik hasieran akusatu bazuten ere, ondoren akusazioa Luzuriaga izeneko bati egin zioten.Laredon atxilotu eta Iratxeko komentuko kartzelan (Lizarra) 1937ko urriaren 1era arte egon zen. Haren ostean, Ordiziara itzuli eta bizpahiru egunera berriro atxilotu zuten. Haren ostean, 1939ko martxoaren 15ean Larrinagako kartzelan sartu zuten. Gerra-Kontseilua egin eta 6 urte eta egun bateko kartzela zigorra ezarri zioten "matxinadari laguntza" eskaintzeagatik. Gerraren eraginez, preso politikoa izan zen[1379].

## 545. URANGA OLASKOAGA, FAUSTINA

Tropa frankistak Getariara sartzean, haien errepresioa bere gorputz-azalean bizi behar izan zuen[1380].

---

[1370] GUA.

[1371] GUA.

[1372] Tradizionalistek haurrak Comunión Tradicionalista-ko oinarri politiko-sozialen arabera hezteko sortutako asoziazioa.

[1373] GUA 93-01.

[1374] GUA.

[1375] Tradizionalistek haurrak Comunión Tradicionalista-ko oinarri politiko-sozialen arabera hezteko sortutako asoziazioa.

[1376] GUA 93-01.

[1377] GUA / Bigarren Errepublikako Emaitzak. 1931ko Udal Hauteskundeak. https://www.euskadi.eus/informazioa/bigarren-errepublikako-emaitzak-1931ko-udal-hauteskundeak-guipuzcoa-udalerriak/web01-a2haukon/eu/.

[1378] CDMH.

[1379] GUA / AGA/ Ferroleko Agiritegi Militarra, 12596/38.

[1380] Testigantza: Eugenio Kamio Uranga eta Nerea Kamio.

## 546. URANGA OLASKOAGA, JOSE DOMINGO

Gerra hastean 40 urte zituen eta EAJ/PNV-ko afiliatua izanik, ardura politikoz, Euskadiko Gudontzidiko Itsas Boluntarioen zerrendan izena eman zuen. 1936ko urritik 1937ko azarora bitartean, L1 txalupan eta, D-11 eta D-9 destruktoreetan makinista, labezain eta arrantzako edo 2. Mailako patroi-gudari gisan jardun zuen. Jose Domingo Uranga Olaskoagak bere azken gudari zerbitzuak D-9 destruktorean egin zituen. Honakoa, abuztuaren hasieran, BIA-ren menpean geratu zen; Santanderren eta Gijonen minen miaketan parte hartu zuen. 1937ko urriaren 23an Arcachonen (Frantzia) babestu eta gerra amaitu bitartean hantxe egon zen. Frantziara heltzean, Euskadiko Gudontzidiaren esku geratu zen. Hala, Jose Domingo Uranga Olaskoaga ere, Frantziara iritsi zen. 1939ko urriaren 5ean, Karmen Uranga Olaskoagak udaletxe frankistara bere anaia eta bere senarra Cecilio Idiakez Indo aberriratzeko egindako eskaerari jarraiki, oraindik ere Frantzian aurkitzen zirela berretsi genezake[1381].

## 547. URANGA OLASKOAGA, KARMEN

Getariar emakume errepresaliatua. Cecilio Idiakez Indorekin ezkonduta, hiru seme-alaba zituzten: Jose Maria, Angela eta Mari Karmen. Senarra eta anaia, euskal nazionalistak izaki, Frantziako erbestean zituen. Tropa frankistak Getariara sartzean, alkateordearen abisuz, Karmen Urangak udaletxera joan behar izaten zuen, isun-ekonomikoak ordaintzera. 1939ko urriaren 5ean, Karmen Uranga Olaskoagak udaletxe frankistara bere anaia Jose Domingo Uranga Olaskoaga eta bere senarra Cecilio Idiakez Indo aberriratzeko egindako eskaerari jarraiki, oraindik ere Frantzian aurkitzen zirela berretsi genezake[1382].

## 548. URANGA OLASKOAGA, ROSARIO

Bigarren Errepublikan zehar, Getariako Emakume Abertzaleen Batzako presidentea izan zen. Tropa frankistak Getariara sartzean, haien errepresioa bere gorputz-azalean bizi behar izan zuen. Orlando kontserberan lan egiten zuen. Zenbait testigantzen arabera, herriko preso errepublikazaleei laguntza emateko diru-bilketa egiteagatik frankisten salaketa jaso zuten. Horregatik moztu zioten ilea, Eulali Tolosa eta Karmen Alkortarekin batera. Frankistek, emakumea, gizonezkoaren objektu gisan erreparatzen zuten eta ez subjektu politiko aske gisa. Izan ere, Getariako Emakume Abertzale Batzako emakumeek nahiz eta ordena tradizionala babestu, eremu publikoan ordura arte emakumeek ez zuten tokia hartu eta mitinak, propaganda… egiten hasi ziren[1383].

## 549. URANGA SILBETI, ESTEBAN

Ezkongabea eta marinela lanbidez. Gerra hastean, 26 urte zituen eta euskal nazionalista izaki, 1936ko irailaren 20an Getariako ebakuazioan herritik ihes egin zuen. Frantzian erbesteratu zen. 1937ko ekainaren 22an oraindik ere Frantzian jarraituz, Getariako udaletxe-frankistari aberriratzeko baimena eskatu zion. Hori lortzeko, Ignacio Aranburu Zubimendi eta Bonifazio Balenziagak, bere aldeko abala egin zuten[1384].

## 550. URANGA SILBETI, JOSE DOMINGO

Ezkongabea eta marinela lanbidez. Gerra hastean, 26 urte zituen eta euskal nazionalista izaki, 1936ko irailaren 20an Getariako ebakuazioan herritik ihes egin zuen. Frantzian erbesteratu zen. 1937ko ekainaren 22an oraindik ere Frantzian jarraituz, Getariako udaletxe-frankistari aberriratzeko baimena eskatu zion. Hori lortzeko, Ignacio Aranburu Zubimendi eta Bonifazio Balenziagak, bere aldeko abala egin zuten[1385].

## 551. URANGA SILBETI, JUSTO

Jaiotzez getariarra, gerra hastean Irunen bizi zen, 24 urte zituen, lanbidez barberua, ezkongabea eta EAJ/PNV-ko afiliatua izaki, ardura politikoz, euskal milizietan zerrendatu zen. Frankistek estatu-kolpea eman eta porrotaren ostean hasitako gerran, Getariako Defentsa Komitea sortzean, bere zerbitzuetara jarri zen. 1936ko irailaren 20ko ebakuazioan Getariatik ihes egin zuen, Lehenago il Eusko Gudarosteko batailoiarekin frontera joanez. Gerran zehar, tropa frankistek atxilotu eta Irungo presoen klasifikaziorako komisioak klasifikatu omen zuen. Soldaduska 18 urtez egitera kondenatu zuten, eta kontaketa 1932an hasten zen. 1937ko abenduaren 9an, “Compañía de Depósitos” delakoan kokatu eta bertan 1938ko otsailaren 6ra arte egon beharra izan zuen. Egun hartan, Zalditeriako lehenengo Konpainiarekin Terueleko sektorera, Aragoiko frontera bidali zuten. Gerra amaitu bitartean konpainia horretan lanean jardun zuen. 1939ko ekainaren 15era bitartean, Madriden, soldadu gisan, hornikuntza-zerbitzuak bete zituen. Egun horretan gaixorik egoteagatik ospitalean sartu eta handik bost egunera irten zuen. 1939ko ekainaren 20an soldadu lizentziatu eta Getarian ezarri zen bizitzen.Langile Batailoietan gatibu-lanak egiten jardun behar izan zuen. Gerraren eraginez, preso politiko egin zuten[1386].

---

[1381] GUA / AZEDB / CDMH: DNSD-SECRETARIA,FICHERO,66,U0005419 / Gipuzkoako Foru Aldundia: http://www.marinavasca.eu/eu/personal.php?o=3.

[1382] GUA.

[1383] Testigantza: Eugenio Kamio Uranga eta Nerea Kamio.

[1384] GUA.

[1385] GUA.

[1386] GUA / AZEDB / AGMG: kaxa: 2632. Esp.: 140987.

## 552. URANGA URREZBERUETA, AGUSTIN

Ideologia eskuindarrekoa. Lanbidez gidaria eta gerra hastean, Donostian bizi zen. Gerra garaian, Getarian, izeba-osaben etxean geratu zen eta frankisten aldeko hautua egin zuen[1387].

## 553. URBIETA BURGAÑA, ANTONIA

Maria Burgaña Etxebarria eta Primitivo Urbieta Embil errepublikazaleen alaba. Gerra hastean, familia osoarekin, Laredon aurkitzen zen, handik Ipar Euskal Herrira erbesteratu ziren. Erbestetik Getariara itzultzean, beraien etxeko ondasunak frankistek konfiskatuta zeudela ohartu ziren. Getariara itzultzeko kondizioetako bat, beraien etxeko balkoian bandera frankista ezartzea izan zen[1388].

## 554. URBIETA BURGAÑA, GREGORIO

Maria Burgaña Etxebarria eta Primitivo Urbieta Embil errepublikazaleen semea. Gerra hastean, familia osoarekin, Laredon aurkitzen zen, handik Ipar Euskal Herrira erbesteratu ziren. Erbestetik Getariara itzultzean, beraien etxeko ondasunak frankistek konfiskatuta zeudela ohartu ziren. Getariara itzultzeko kondizioetako bat, beraien etxeko balkoian bandera frankista ezartzea izan zen[1389].

## 555. URBIETA BURGAÑA, JUAN MARI

Maria Burgaña Etxebarria eta Primitivo Urbieta Embil errepublikazaleen semea. Gerra hastean, familia osoarekin, Laredon aurkitzen zen, handik Ipar Euskal Herrira erbesteratu ziren. Erbestetik Getariara itzultzean, beraien etxeko ondasunak frankistek konfiskatuta zeudela ohartu ziren. Getariara itzultzeko kondizioetako bat, beraien etxeko balkoian bandera frankista ezartzea izan zen[1390].

## 556. URBIETA BURGAÑA, MARITXU

Maria Burgaña Etxebarria eta Primitivo Urbieta Embil errepublikazaleen alaba. Gerra hastean, familia osoarekin, Laredon aurkitzen zen, handik Ipar Euskal Herrira erbesteratu ziren. Erbestetik Getariara itzultzean, beraien etxeko ondasunak frankistek konfiskatuta zeudela ohartu ziren. Getariara itzultzeko kondizioetako bat, beraien etxeko balkoian bandera frankista ezartzea izan zen[1391].

## 557. URBIETA BURGAÑA, TOMAS

Maria Burgaña Etxebarria eta Primitivo Urbieta Embil errepublikazaleen semea. Gerra hastean, familia osoarekin, Laredon aurkitzen zen, handik Ipar Euskal Herrira erbesteratu ziren. Erbestetik Getariara itzultzean, beraien etxeko ondasunak frankistek konfiskatuta zeudela ohartu ziren. Getariara itzultzeko kondizioetako bat, beraien etxeko balkoian bandera frankista ezartzea izan zen[1392].

## 558. URBIETA EMBIL, PRIMITIVO

1931ko apirilaren 12ko udal-hauteskundeetan Getariako Bigarren Errepublikako lehen udal-gobernuko zinegotzi izendatu zuten, 144 botorekin. Lanbidez upelgilea zen. Getariako Union Republicana elkarteko presidentea izan zen. 1934ko euskal estatutuaren aldeko zinegotzien dimisioan ez zuen parte hartu. Lerrouxen Alderdi Erradikaleko kide izanik, CEDA-ren urteetan, probintziako gestorea izatea lortu zuen. 1936ko maiatzean, bera eta ekainean bere familia osoa Laredon aurkitzen ziren, izan ere, bertan “viuda de M.A. Bravo” arrain gazituaren eta kontserben fabrika zuen. Horren eraginez, gerra hastean, Laredon zeudela, Frantziara erbesteratu ziren. 1937ko irailaren 10ean, bere familiarekin Frantzian erbesteratuta jarraitzen zuen eta Getariako udaletxe-frankistari aberriratzeko eskaera egin zion. Getariako udaletxe-frankistak eta herriko gainontzeko agintariek, jarrera oneko pertsonatzat kalifikatuta, ez zuen Getariara itzultzeko inongo arazorik izan[1393]. Hala eta guztiz ere, Getariara itzultzeko kondizio bat bete behar izan zuten. Beren balkoian bandera frankista ezartzea. Horrez gainera, etxera itzultzean, hutsik zegoen, frankistek haien ondasunak konfiskatu zizkieten[1394].

## 559. URBIETA ESNAL, FERMINA

Euskal nazionalista zen. Antonio Ricaren alarguna, gerra hastean, bere alaba, Juana Rica Urbieta Bilbon ikasten zegoen. 1936ko abenduaren 11n, Gurutze Gorriaren laguntzaz, Bilbora bere alabarengana egin zuen. 1937ko ekainean Bilbo tropa frankisten

[1387] GUA.
[1388] GUA / Testigantza: Ibon Urbieta.
[1389] GUA / Testigantza: Ibon Urbieta.
[1390] GUA / Testigantza: Ibon Urbieta.
[1391] GUA / Testigantza: Ibon Urbieta.
[1392] GUA / Testigantza: Ibon Urbieta.
[1393] GUA.
[1394] Testigantza: Ibon Urbieta.

eskuetan erortzeaz zegoela, Frantziara erbesteratu ziren ama alabak. Ordura bitartean, Fermina Urbieta Esnalek, bere senarraren alarguntasuna kobratzen jarraitu zuen, trenbideetako langilea izan baitzen. 1937ko ekainean alarguntasuna kendu zioten. 1937ko azaroaren 11n, erbestetik itzultzean, Getariako udaletxe-frankistari ekainetik azarora bitarteko alarguntasuna erreklamatu eta handik aurrera berriro ere jasotzen jarraitzeko eskaera egin zion[1395].

## 560. URDANPILLETA, IGNACIO

Getariako parrokoa zen eta 1936ko urriaren 25ean, “Cristo Rey”-ren entronizazioko meza eman zuen San Salvador elizan[1396].

## 561. URKIDI ARRIETA, BIENVENIDO

24 urteko marinel getariarra, ezkongabea. Getariako Batzokiko diruzaina zen. Gerra hastean, Getarian bizi zen, EAJ/PNV-ra eta ELA/STV-ra afiliatuta, ardura politikoa hartuta, Euskadiko Gudontzidiko Itsas Boluntarioen zerrendan izena eman zuen. Hala, 1936ko abenduan, Bou Goizeko-Izarran destinatu zuten. 1937ko urtarrilaren 16-17ko gauerdian Goizeko-Izarrak frankistek ezarritako mina batekin talka egitean hondoratu eta bertan Bienvenido Urkidi Arrieta gudari getariarra, Ignacio Goenaga mutrikuarra eta Jose Maria Aranguren getariarrekin batera hil egin zen[1397].

## 562. URRESTI ANDONEGI, AGUSTIN

Gerra hastean, euskal nazionalista izaki, ardura politikoz Eusko Gudarostean zerrendatu zen. Horren eraginez, EAJ/PNV-rekin atzeraguardian lanean jardun zuen[1398].

## 563. URRESTI ANDONEGI, HIPOLITA

1937ko otsailaren 13an, Getariako udaletxe frankistak, Nikasio Kerejeta Agote (EAJ/PNV) Euskadiko Gudontzidiko gudaria eta bere zenbait anai Bigarren Errepublikako gobernu legitimoarekin estatu-kolpea emandako frankisten aurka borrokatzen egoteagatik, Getariatik bota zuten. Frankistek, emakumea, gizonezkoaren objektu gisan erreparatzen zuten eta ez subjektu politiko aske gisan. Horren eraginez, bere Miren eta Raimundo seme-alabak Getariako familiarekin utzi eta, Bautista (Severianaren besoetan) eta Jose Angel txikiak besoetan hartuta Karrantzarako bidea hartu behar izan zuen. Haiek ere, beste zenbait errefuxiatuk egin bezala, Eusko Jaurlaritzak trazatutako errefuxiatuen bidea egin zuten. Karrantzatik, Bilbora, eta handik Santanderrera egin zuten. Santanderren, Hipolita Urrestiren anaia Jose Urresti, bere arreba bi ume txikiekin babesgabe zebilela ohartu zen. Hark, azkenean, Frantziara joateko baimena lortu zion. Haren ostean, La Rochellera (Frantzia) joan eta bertan Nikasio, Gerardo, Cipriano Kerejeta Agoterekin eta Juan Burgaña Etxebarriarekin elkartu ziren. Han basoetan lanean egin zuten. 1937ko irailaren 16an, Hipolitaren amak, bere alaba eta haren ilobak, udaletxe frankistari aberriratzeko baimena eskatu zion. Agiri hori, bere ama Agustinak, Privasera (Frantzia) bidali zion alabari. Bertan bizitzen ere egon ziren, Frantzian egon bitartean[1399].

## 564. URRESTI ANDONEGI, JOSE

Gerra hastean 21 urte zituen eta ELA/STV-ra afiliatuta, ardura politikoz, Euskadiko Gudontzidiko Itsas Boluntarioen zerrendan izena eman zuen. 1936ko abuztutik 1937ko azarora bitartean Mouriscan gudari gisan jardun zuen. Bere arreba, Hipolita Urresti Andonegi, anaiaren jarduna aitzakiatzat hartuta eta bere senarra Nikasio Kerejeta Agoteko (EAJ/PNV) Euskadiko Gudontzidiko gudariak izateagatik, 1937ko otsailaren 13an, Getariako udaletxe frankistak, bere bi seme jaio berriekin (Bautista eta Jose Angel) eta, beste bi seme-alabak, Raimundo eta Miren Getariako familiarrekin utziz, herritik espultsatu egin zuten. Hain zuzen, Hipolita Urresti Andonegi Santanderren zenean, bere anaia Jose Urresti Andonegik Frantziara joateko baimena lortu zion. Mouriscan, Jose Urresti Andonegik eta gainontzeko gudariek (horien artean Agustin Furundarena gudari getariarra zegoen), Bilbo eta Baiona arteko komunikazio eta garraio zerbitzua egin zuten. Posta ofiziala eramateaz, hornigai-txikiak eramateaz… arduratu ziren. 1937ko urtarrilaren 31n, George Steer kazetari britainiarra Baionara eraman zuten. Bilbo ebakuatzean Baionan zegoen eta gerra amaitu bitartean bertan geratu zen. Baionan (Ipar Euskal Herria) zegoela, ia-ia Ameriketara alde egin zuen. Handik, Kataluniara pasatu eta 1938ko urriaren 18an, Bateria 532 “Oerlicon” deiturikoarekin gerran aurkitzen zen. semeak dio Miranda de Ebron egon zela kartzelan…1939ko urriaren 28an, oraindik ere, Frantzian aurkitzen zen, aberriratzeko eskaera dokumentu baten bidez jakin dugunez. Beraz, handik itzultzean frankistek atxilotu eta Ferrolen Gerra-Kontseilua egin zioten[1400]. Horren eraginez, 1941eko martxoaren 8an, Escollera-ko kartzelan aurkitzen zen.1942an aske utzi zuten. Gerraren eraginez, preso politikoa izan zen[1401].

---

[1395] GUA.

[1396] La Voz de España egunkaria.

[1397] AZEDB / AHPV/ Gipuzkoako Foru Aldundia: http://www.marinavasca.eu/eu/personal.php?o=3.

[1398] AZEDB / CDMH: DNSD-SECRETARIA,FICHERO,66,U0014360.

[1399] GUA / AZEDB / Testigantza: Bautista, Jose Angel Kerejeta Urresti eta Anuntxi Aranguren Burgaña.

[1400] GUA.

[1401] GUA / CDMH: DNSD-SECRETARIA,FICHERO,66,U0014362 / AZEDB / Testigantza: Eusebio Urresti Garmendia eta Bautista eta Jose Angel Kerejeta Urresti / Gipuzkoako Foru Aldundia: http://www.marinavasca.eu/eu/personal.php?o=3.

## 565. URRESTI ANDONEGI, MARIA JOSE

Probintziako Erantzukizun Politikoen Auzitegiak txostenak egin zizkion[1402].

## 566. USOBIAGA MARTIARENA, IGNACIO

Gipuzkoako Diputazioan lan egiten zuen eta erregimen frankistaren aurkakoa izateagatik, bere kargutik bota zuten[1403].

## 567. USOBIAGA ZABALA, ANTONIO

Durangon jaioa, baina Zarautzen bizi zen. Lanbidez, igeltseroa zen, baina baineru eta aguazil ere aritutakoa. Gerra hastean, 33 urte zituen eta Zarautzen bizi zen. Maria Larrañaga Manterolarekin[1404] ezkonduta zegoen (1933ko azaroaren 29an) eta Arantza alaba izan zuen. Zarauzko erreketeek indarrez Narrosen atxilotu, EAJ/PNV-koa (Batzokiko sozioa) eta beraz, beraien ideologia politikoaren aurkakoa zelako. Narrosen atxilotuta zegoenean, bere emaztea Maria Larrañaga Manterola hari buruz galdezka joan zen. Getariara eraman eta 1936ko urriaren 3an, bertako kanposantuan fusilatuta erail egin zuten[1405]: “Herritar askok errepikatzen du gauza bera: tiroa jo bai baina behar bezala ez, eta gau osoa egin omen zuen builaka hil aurretik. Bakarrak esan du: Anjel anaiaren bila hasi eta Antonio nahastuta eraman zutela” Marcelino Manterola Larrañaga, Maria Larrañaga Manterola Antonio Usobiagaren anaia Anjelekin 1941eko maiatzaren 31n ezkondu eta 1947an Ankelo Usobiaga Zabala semea izan zuten[1406].

## 568. UZIN, IGNACIO

Getariako udaletxe-frankistako zinegotzia 1936ko irailaren 22tik 1941eko irailaren 8ra arte. Preso zeuden errepublikarren inguruko abalak eta txostenak egin zituen[1407].

## 569. UZIN ALBIZU, ANA

Getariar haur errefuxiatua. Gerra hasi berritan, 11 urte bete zituen eta handik eta, 1937ko otsailaren 13an, bere ama Severiana Albizu Aginagalde udaletxe-frankistak Getariatik espultsatu zutenean, bere anai-arreba Salvador, Florencio (Prudencio), Mari Cruz eta Simonekin batera, erbestera alde egin behar izan zuten. Haren aita Jose Domingo Uzin Alkorta (EAJ/PNV) Eusko Gudontzidiarekin borrokan zebilen, hori izan zen bere ama Getariatik espultsatzeko frankisten arrazoia. Lehenik Lekeitio aldera egin zuten. 1937ko apirilaren 26an, Gernikako Alemaniako Condor Legioak frankisten zuzendaritza elkarbanatuz egindako Gernikako bonbardaketaren lekuko izan ziren. Severiana Albizu, azokara joana zen eta haren seme-alabak komentuan sartuta bonbardaketako uneak beldurrez pasa zituzten, ama itzuliko ote zen jakin gabe. Haren ostean, Bilbora eta handik Frantziara egin zuten. Azken helmuga, Katalunia izan zuten.Kataluniatik bueltan Getariar soldadu bat Zaragozan tokatu eta hark Donostiara gerturatzen lagundu zien. Handik, Getariara egin zuten eta katalana ez beste ezer ez zekiten hitz egiten Anita eta bere anai-arrebek[1408].

## 570. UZIN ALBIZU, FLORENCIO (PRUDENCIO)

Getariar haur errefuxiatua. 1937ko otsailaren 13an, bere ama Severiana Albizu Aginagalde udaletxe-frankistak Getariatik espultsatu zutenean, bere anai-arreba Salvador, Anita, Mari Cruz eta Simonekin batera, erbestera alde egin behar izan zuten. Haren aita Jose Domingo Uzin Alkorta (EAJ/PNV) Eusko Gudontzidiarekin borrokan zebilen, hori izan zen bere ama Getariatik espultsatzeko frankisten arrazoia. Lehenik Lekeitio aldera egin zuten. 1937ko apirilaren 26an, Gernikako Alemaniako Condor Legioak frankisten zuzendaritza elkarbanatuz egindako Gernikako bonbardaketaren lekuko izan ziren. Severiana Albizu, azokara joana zen eta haren seme-alabak komentuan sartuta bonbardaketako uneak beldurrez pasa zituzten, ama itzuliko ote zen jakin gabe. Haren ostean, Bilbora eta handik Frantziara egin zuten. Azken helmuga, Katalunia izan zuten. Kataluniatik bueltan getariar soldadu bat Zaragozan tokatu eta hark Donostiara gerturatzen lagundu zien. Handik, Getariara egin zuten eta katalana ez beste ezer ez zekiten hitz egiten Florencio eta bere anai-arrebek[1409].

## 571. UZIN ALBIZU, MARIA CRUZ

Getariar haur errefuxiatua. 1937ko otsailaren 13an, bere ama Severiana Albizu Aginagalde udaletxe-frankistak Getariatik espultsatu zutenean, bere anai-arreba Salvador, Florencio (Prudencio), Anita eta Simonekin batera, erbestera alde egin behar izan zuten. Haren aita Jose Domingo Uzin Alkorta (EAJ/PNV) Eusko Gudontzidiarekin borrokan zebilen, hori izan zen bere ama Getariatik espultsatzeko frankisten arrazoia. Lehenik Lekeitio aldera egin zuten. 1937ko apirilaren 26an, Gernikako Alemaniako Condor Legioak frankisten zuzendaritza elkarbanatuz egindako Gernikako bonbardaketaren lekuko izan ziren. Severiana Albi-

[1402] GUA.
[1403] GUA / Ferroleko Artxibategi Militarra, 2111.
[1404] Gaztetan hoteletan etab. lanean ibilitakoa (Zestoan lan egin zuen); gerora, jostun gisan lan egin zuen.
[1405] AZEDB / Testigantza: Arantza eta Ankelo Usobiaga / Amagoia Gurrutxaga Uranga.
[1406] Amagoia Gurrutxaga Uranga.
[1407] GUA.
[1408] Testigantza: Ana Uzin Albizu. / Gipuzkoako Foru Aldundia: http://www.marinavasca.eu/eu/personal.php?o=3.
[1409] Testigantza: Ana Uzin Albizu. / Gipuzkoako Foru Aldundia: http://www.marinavasca.eu/eu/personal.php?o=3.

zu, azokara joana zen eta haren seme-alabak komentuan sartuta bonbardaketako uneak beldurrez pasa zituzten, ama itzuliko ote zen jakin gabe. Haren ostean, Bilbora eta handik Frantziara egin zuten. Azken helmuga, Katalunia izan zuten. Kataluniatik bueltan getariar soldadu bat Zaragozan tokatu eta hark Donostiara gerturatzen lagundu zien. Handik, Getariara egin zuten eta katalana ez beste ezer ez zekiten hitz egiten Mari Cruz eta bere anai-arrebek[1410].

## 572. UZIN ALBIZU, SALVADOR

Getariar haur errefuxiatua. 1937ko otsailaren 13an, bere ama Severiana Albizu Aginagalde udaletxe-frankistak Getariatik espultsatu zutenean, bere anai-arreba Anita, Florencio (Prudencio), Mari Cruz eta Simonekin batera, erbestera alde egin behar izan zuten. Haren aita Jose Domingo Uzin Alkorta (EAJ/PNV) Eusko Gudontzidiarekin borrokan zebilen, hori izan zen bere ama Getariatik espultsatzeko frankisten arrazoia. Lehenik Lekeitio aldera egin zuten. 1937ko apirilaren 26an, Gernikako Alemaniako Condor Legioak frankisten zuzendaritza elkarbanatuz egindako Gernikako bonbardaketaren lekuko izan ziren. Severiana Albizu, azokara joana zen eta haren seme-alabak komentuan sartuta bonbardaketako uneak beldurrez pasa zituzten, ama itzuliko ote zen jakin gabe. Haren ostean, Bilbora eta handik Frantziara egin zuten. Azken helmuga, Katalunia izan zuten. Kataluniatik bueltan getariar soldadu bat Zaragozan tokatu eta hark Donostiara gerturatzen lagundu zien. Handik, Getariara egin zuten eta katalana ez beste ezer ez zekiten hitz egiten Salvador eta bere anai-arrebek[1411].

## 573. UZIN ALBIZU, SIMON

Getariar haur errefuxiatua. 1937ko otsailaren 13an, bere ama Severiana Albizu Aginagalde udaletxe-frankistak Getariatik espultsatu zutenean, bere anai-arreba Salvador, Florencio (Prudencio), Mari Cruz eta Anitarekin batera, erbestera alde egin behar izan zuten. Haren aita Jose Domingo Uzin Alkorta (EAJ/PNV) Eusko Gudontzidiarekin borrokan zebilen, hori izan zen bere ama Getariatik espultsatzeko frankisten arrazoia. Lehenik Lekeitio aldera egin zuten. 1937ko apirilaren 26an, Gernikako Alemaniako Condor Legioak frankisten zuzendaritza elkarbanatuz egindako Gernikako bonbardaketaren lekuko izan ziren. Severiana Albizu, azokara joana zen eta haren seme-alabak komentuan sartuta bonbardaketako uneak beldurrez pasa zituzten, ama itzuliko ote zen jakin gabe. Haren ostean, Bilbora eta handik Frantziara egin zuten. Azken helmuga, Katalunia izan zuten. Kataluniatik bueltan getariar soldadu bat Zaragozan tokatu eta hark Donostiara gerturatzen lagundu zien. Handik, Getariara egin zuten eta katalana ez beste ezer ez zekiten hitz egiten Anita eta bere anai-arrebek[1412].

## 574. UZIN ALKORTA, JOSE DOMINGO

Gerra hastean, 41 urte zituen eta EAJ/PNV-ko afiliatua izanik, Euskadiko Gudontzidiko Itsas Boluntarioen zerrendan izena eman zuen.1937ko apiriletik azarora bitartean, D-2, Jose Luis Diez eta D-10 destruktoreetan gudari gisan jardun zuen. Hori aitzakiatzat hartuta, bere emaztea Severiana Albizu Aginagalde, bere Salbador, Anita, Simon, Mari Kruz eta Florencio (Prudencio) Uzin Albizu seme-alabekin 1937ko otsailaren 13an, Getariako udaletxe-frankistak Getariatik espultsatu zituen. Handik, beste zenbait errefuxiaturen gisan, Eusko Jaurlaritzak trazatutako errefuxiatuen bidea egin zuten. Bitartean, 1937ko apiriletik ekainera bitartean, Jose Domingo Uzin Alkortak bere gudari-zerbitzuak, D-2 destruktorean egin zituen. 1937ko ekainean Bizkaiko Itsas Armadak egindako eskakizunari erantzuna emanez, Jose Luis Diez ontzian aurreko marinelak ordezkatuko zituen 114 Euskadiko Gudontzidiko gudarietatik bat izan zen. Santanderrera iristean, Bizkaiko Itsas Armadak hala aginduta, tripulazioaren 2/3 Jose Luis Diez destruktoretik jaisteko agindua eman zuen. Haren ostean, Jose Domingo Uzin Alkorta D-10 destruktorera lekualdatu zuten.1937ko abuztuaren hasieran, D-10 destruktorea, BIA-ko itsas armadaren menpe egotera pasa zen. Abuztuaren 25ean, La Pallicera (Frantzia) heldu zen. Gerra amaitu bitartean, Rocheforten (Frantzia) egon zen. Jose Domingo Uzin Alkortaren itsas-erroldak 1937ko azarora bitartean, D-10ean egon zela adierazten duenez, gudari getariarrak ere Frantziara egin zuela pentsa genezake. Bai eta 1937ko irailaren 24an idatzitako abal frankista batek ere Frantzian dagoela berresten duelako[1413]. Frantziara heltzean, destruktorea Euskadiko Gudontzidiaren menpean geratu zen berriro ere[1414].

## 575. UZIN ALKORTA, PRUDENCIO

Gerra hastean, Euskadiko Gudontzidiko Itsas Boluntarioen zerrendan izena eman zuen. 1937ko apiriletik azarora bitartean, L-2 eta L-6 txalupetan gudari gisan jardun zuen. Bere lehen zerbitzuak L-2 txalupan izan ziren. Hura, 1937ko ekainaren 13an hegazkin frankistek Bilbo bonbardatu ostean oso hondatuta geratu zen. Horren eraginez, Prudencio Uzin Alkorta eta bere kideak, L-6 txalupara gudari gisan jarraitzera pasa ziren. 1937ko ekainaren 24an Laredotik EAJ/PNV-ko ordezkaritzarekin eta Andres Atela bertako komandante postuan ezarrita, L-6 Algortara irten zen, Italiar Estatu Nagusiko ordezkariekin bildu eta Santoñako Itunaren inguruko elkarrizketa izateko. 1937ko abuztuaren 14an, Tomas Kamio Uzin, D-17an zauritu zenean, Prudencio Uzin Alkorta eta

[1410] Testigantza: Ana Uzin Albizu. / Gipuzkoako Foru Aldundia: http://www.marinavasca.eu/eu/personal.php?o=3.
[1411] Testigantza: Ana Uzin Albizu. / Gipuzkoako Foru Aldundia: http://www.marinavasca.eu/eu/personal.php?o=3.
[1412] Testigantza: Ana Uzin Albizu. / Gipuzkoako Foru Aldundia: http://www.marinavasca.eu/eu/personal.php?o=3.
[1413] GUA.
[1414] GUA / AZEBD / Gipuzkoako Foru Aldundia: http://www.marinavasca.eu/eu/personal.php?o=3 /.

haren kideak L-6 txalupan hartu eta ahal bezain laster Santoñara eraman zuten. Tomas Kamio Uzinen zauriak hain larriak izanik ezin izan zuten ezer egin; segituan hil egin zen. Hala eta guztiz ere, jarduera horretan, gerra osoan gisan, gudariek beren kidea salbatzeko erakutsitako elkartasuna goraipatzekoa izan zen. 1937ko abuztuaren 25ean, L-6 ontziak ere, beste zenbaitekin batera, La Pallicera (Frantzia) egin zuen. Prudencio Uzin Alkorta gudari getariarrak ere hala eginen zuela pentsa genezake, 1937ko azarora bitartean, L-6an erroldatuta egon baitzegoen[1415].

## 576. UZIN BERASALUZE, FERMIN

Gerra hastean, 15 urte zituen. Eugenio Egurbide Azpeitia eta Bonifacio Balenciaga frankistek eginiko abalean, bera eta bere familia jarrera oneko pertsonatzat determinatu zituzten[1416].

## 577. UZIN BERASALUZE, JOSE DOMINGO

Gerra hastean, 23 urte zituen eta EAJ/PNV-ko afiliatua izanik, Euskadiko Gudontzidiko Itsas Boluntarioen zerrendan izena eman zuen. 1936ko azarotik 1937ko abuztura bitartean, L-4, Bou Araba, Getxoko Armadaren Kuartelean eta Bou Gazteizen gudari gisan jardun zuen. Jose Domingo Uzin Berasaluzek bere lehen zerbitzuak, 1936ko azaroan, L-4 txalupan egin zituen. Haren ostean, Bou Araban ontziratu zen. Hark labean izandako zenbait matxura medio, bere artileria desmuntatu eta beste bouei ezarriz, bertako tripulazioa Getxoko txalet batean ezarritako Armadaren Kuartelera lekualdatu zuten. Horrela, Jose Domingo Uzin Berasaluzek apiriletik ekainerako hilabete tarteak bertan egin zituen. Handik, Bou Gaiztezen erroldatu zuten. Oraindik ere, eraikitze prozesuan zegoen. 1937ko ekainaren 15ean tropa frankistak Bilbora sartu baino lehen, artileriarik gabe, gainontzeko ontziekin Santoñara joan zen. 1937ko abuztuaren 27an frankisten esku geratu eta haien Armadan sartu zuten, lehendabizi Santa Rosa izenarekin eta haren ostean, Virgen del Carmen izena ezarriz. Horren eraginez, Jose Domingo Uzin Berasaluze tropa frankistekin, Regimiento Batallon de Montaña Arapilesekin borrokatzera pasa zen. 1939an Frantziatik aberriratu eta kartzelan egon omen zen[1417].

## 578. UZIN BERASALUZE, SALVADOR

Gerra hastean, 18 urte zituen eta EAJ/PNV-ko afiliatua izanik, Euskadiko Gudontzidiko Itsas Boluntarioen zerrendan izena eman zuen. 1937ko apiriletik abuztura bitartean, D-2 eta Ciscar destruktoreetan gudari gisan jardun zuen. Bere lehen zerbitzuak, 1937ko apiriletik ekainera bitartean, D-2 destruktorean egin zituen. 1937ko ekainean Bizkaiko Itsas Armadak egindako eskakizunari erantzuna emanez, Ciscar ontzian aurreko marinelak ordezkatuko zituen 100 Euskadiko Gudontzidiko gudarietatik bat izan zen. Santanderrera iristean, Bizkaiko Itsas Armadak hala aginduta, tripulazioaren 2/3-ekin batera Ciscarretik lehorreratu eta, berriro ere, D-2ra itzuli zen. Azken horretan egin zituen bere azken zerbitzuak eta haren norabideak argitzen digunez, Santander ebakuatzerakoan, D-7 eta D-8-arekin batera, Ogasun Sailaren artxiboak eta euskal kutxa eta bankuetako depposituak sartu zituzten. Santanderretik, 1937ko abuztuaren 25an, La Pallicera joan zen. Salvador Uzin Berasaluze marinela, 1937ko abuztura bitartean D-2 ontzian erroldatuta egon zenez, ontziak eginiko norabide berdina jarraitu zuela (Frantziara) edo Santanderren bertan frankistek atxilotu egin zutela pentsa genezake[1418].

## 579. UZIN ESNAL, GENARO

1941eko apirilaren 23an lapurretagatik atxilotu eta hiru egunera aske utzi zuten. Rafael Iturzaeta Gezalaga eta Jose Miguel Etxabe Manterola getariarrekin Azpeitiako Barrutiko Presondegian preso egon zen[1419.]

## 580. UZIN IRURETAGOIENA, JOSE

Gerra hastean, 21 urte zituen eta erreketeen itsas-armadan indar-errepublikarren aurka borrokan jardun zuen[1420].

---

[1415] GUA / AZEBD / Gipuzkoako Foru Aldundia: http://www.marinavasca.eu/eu/personal.php?o=3 /.
[1416] GUA.
[1417] GUA / AZEBD / Gipuzkoako Foru Aldundia: http://www.marinavasca.eu/eu/personal.php?o=3 /.
[1418] GUA / AZEBD / Gipuzkoako Foru Aldundia: http://www.marinavasca.eu/eu/personal.php?o=3 /.
[1419] AHPG-GPAH GEZ, 2856/16.
[1420] GUA.

# V

## 581. VICUÑA MEJIAS, FRANCISCO JAVIER

Gerra hastean, 18 urte zituen eta tropa frankisten itsas-armadan gerran borrokatu zuen[1421].

## 582. VIEJO ARAGON, MODESTO

Lomas-ekoa (Palentzia) jaiotzez, lanbidez, hargina zen eta Getariako kanteran lanean jardun zuen. Bere emaztea, Maria Oiarzabal Zubizarreta izan zen, 1924ko urriaren 6an Azkoitian ezkondu ziren. Gerra hastean, 37 urte zituen, Getarian bizi ziren eta Viejo, UGT-ko militantea izanik, ardura politikoz, Getariako Defentsa-Komitera aurkeztu zen. 1936ko irailaren 20ko Getariako ebakuaziotik aurrera, Eusko Gudarosteko Ingenieros 4 Batailoiarekin tropa frankisten aurka borrokan jardun zuen. Tropa frankistek Santanderren atxilotu eta 1937ko irailaren 30ean bertan aurkitzen zen. Bien bitartean, bere emazteak Bartzelonara egin zuen eta 1938 hasieran Donostiara bizitzera lekualdatu ziren. 1939ko apirilaren 11n, Modesto Viejo Aragon Donostiako etxera heldu zen, espetxe-zigorra bete ostean. Gerraren eraginez, preso politikoa izan zen[1422].

## 583. VILLAVERDE PURAS, ANA

Bigarren Errepublikan zehar irakasle nazionala izan zen. Tropa frankistak Getariara sartzear zeudela, bere gizona Julian Martinez Gil ezkertiarrarekin eta beren bi haurrekin, 1936ko irailaren 20an Bilbo aldera egin zuten. Han, gizona gerrara alferez gisan joan bitartean, emaztea eta bi haurrak Cambrai-ra (Frantzia) erbesteratu ziren. 1939ko ekainaren 19an, aberriratu berri, beren etxeko altzariak errekisatu egin zituztela eta haiek erreklamatu zituen. Julian Martinez Gilek, oraindik ere, Bilboko Eskolapioen presondegian preso jarraitzen zuen[1423].

# Z

## 584. ZAYA SANCHO, JOSE MARIA

Getariar honek, gerra hastean, Flota Errepublikarrean gerran jardun zuen. 1939ko martxoaren 23an, Zebbeus-Maknassy-ko (Tunisia) kontzentrazio-eremuan preso izan zuten. Haren ostean, Iberiar Penintsulara itzultzean, frankistek, berretsi ezin dezakegun arren, seguruenik, atxilotu egingo zuten[1424].

## 585. ZELAIA AZPILLAGA, TERESA

Getariar emakume errepresaliatua. Gerran zehar, Ordiziatik Getariara, bere amaren etxera bizitzera joan behar izan zuen. Berak, Esteban Uranga Olaskoaga bere senarra askatzeko idatzitako dokumentuan, Ordizian jada etxerik ez zutela adierazi zuen. Bere senarra Laredon atxilotu eta Iratxeko monasterioan (Lizarra) preso egon zen. 1937ko urriaren 1ean aske utzi eta Ordiziara itzultzean, berriro ere bizpahiru egunera atxilotu egin zuten. Bitartean, beraien hiru-seme alabak aurrera ateratzeko, Teresa Zelaia Azpillaga getariarrak, arraina saltzen lana egin zuen[1425].

## 586. ZENOSIAIN EIZAGIRRE, MIREN EDURNE

Getariar haur errefuxiatua. Bere ama Nieves Eizagirre 27 urterekin Getariako udaletxe frankistak 1937ko otsailaren 13an Getariatik espultsatu zuenean, berarekin joan zen. Horren eraginez, bere amarekin batera, beste zenbait errefuxiaturen gisan, Eusko Jaurlaritzak errufuxiatuentzako trazatutako bidea egin zuen. Lehenik Bilbora egin zuten eta haren ostean, Santaderretik Ipar Euskal Herrira, hain zuzen, Bidartera. Han denboralditxoa egin ostean, Zumaiara joan ziren bizitzera[1426].

---

[1421] GUA.

[1422] GUA / AZEDB / CDMH: DNSD-SECRETARIA,FICHERO,68,V0063053; DNSDSECRETARIA,FICHERO,68,V0063054; DNSD-SECRETARIA,FICHERO,68,V0063055; DNSDSECRETARIA,FICHERO,68,V0063056.

[1423] GUA.

[1424] Sabino Arana Fundazioa-Euskal Abertzaletasunaren Agiritegia.

[1425] GUA.

[1426] CDMH: DNSD-SECRETARIA,FICHERO,17,E0011629.

## 587. ZINKUNEGI, IGNACIA

Bere senarrak, Dionisio Manterola Irurek, 1936ko irailaren 20ko ebakuazioan alde egin zuen herritik Frantziara. Ignacia Zinkunegik, 1937ko uztailaren 2an, Getariako udaletxe-frankistari haren aberriratzea gauzatzeko eskakizuna egin zion[1427].

## 588. ZUBIAGA, ANTONIO

Beasaindarra jaiotzez eta gerra hastean ere bertan bizi zen. 1936ko azaroaren 17an Getarian fusilatu zuten, atxilotu eta sei ordura[1428].

## 589. ZUBIMENDI, JAIME

F.E.T. eta J.O.N.S.-eko afiliatua[1429].

## 590. ZUBIMENDI EIZAGIRRE, IGNACIA

Emakume getariar erbesteratua. La Ferte de Mace-n (Orne) errefuxiatua[1430].

## 591. ZUBIMENDI ESNAL, JOSE ANTONIO

Gerra hastean, 21 urte zituen eta Bigarren Errepublikaren garaian, soldaduskarako 1. Klaseko luzapena lortu zuen. Tropa frankistak sartzean, beraiekin borrokatzera joatera derrigortu zuten. Gerran zehar, zauritu eta mutilatu egin zen[1431].

## 592. ZUBIMENDI EZENARRO, JOSE MARIA

Tropa frankistak Getariara sartu ostetik, epaile munizipala eta erregistro zibilaren arduraduna. Gerran zehar, itsas-armada erreketearekin indar-errepublikarren aurka boluntario gisan borrokan jardun zuen. 3. Udal-frankistako zinegotzia, 1941eko irailaren 8an[1432].

## 593. ZUBIMENDI LARRAÑAGA, IGNACIA

Emakume getariar errepresaliatua. 1937ko otsailaren 13an, Getariako udaletxe frankistak, haurdun zegoela eta bere haur Miren Edurne Eizagirre Zubimendi txikiarekin, Getariatik espultsatu egin zuen. Horren eraginez, zenbait errefuxiatuk egin gisan, Eusko Jaurlaritzak errefuxiatuentzako trazatutako bidea egin zuten. Lehenik, Bilbora eta haren ostean, Frantziako La Ferte de Mace-n errefuxiatuz. 1937ko urriaren 9ko udaletxe frankistarekin dokumentu baten arabera, oraindik ere Frantzian aurkitzen ziren. Getariara itzultzean, bere bigarren alaba, Karmen Eizagirre Zubimendi izan zuen eta haren ostean, denboralditxo batera, Zumaiara lekualdatu ziren[1433].

## 594. ZUBIZARRETA AREIZAGA, GREGORIO

Eskuindarra. Tropa frankistak Getariara sartzean, ideologia eskuindarrekoa izaki, ehorzle izaten jarraitu zuen. 1936ko urriaren 24an, Timoteo Orte eta García falangistek Teodoro Mitxelena Zumeta fusilatu ostean, hura ehorzteko agindua eman zioten[1434].

## 595. ZUBIZARRETA GESALAGA, TOMAS

1936an Getariako bake-epailea zen[1435].

## 596. ZUBIZARRETA LARRAÑAGA, IÑAKI

Haur errefuxiatua. 1937ko maiatzaren 23an, Bilbotik tropa frankisten atzaparretatik ihesi, bere anaia Jon-ekin batera, Ingalaterrako ipar-ekialdeko kostaldeko Scarborough herrira heldu zen. 1938ko apirilaren 1ean, hondartzan korrika zebilela, 11 urterekin, olatu batek irentsi eta itota hil zen. Haren ostean, Euskal Umeen Ingalaterrako Komiteak, haren berri bere ama Amelia eta Joseri eskutitz bidez helarazi zion. Aita, Jose, kartzelan zegoen. Haren ostean, bere seme Jon, 8 urteko bere anaia aberriratzeko eskaera egin zuten[1436].

---

[1427] GUA.

[1428] EGAÑA, IÑAKI. 1999. 1936. Guerra Civil en Euskal Herria. (IV lib., La Guerra en Gipuzkoa). Aise liburuak: Andoain, 208. or. / KORTAZAR BILLELABEITIA, J., op.cit., 90.or.

[1429] GUA.

[1430] Sabino Arana Fundazioa-Euskal Abertzaletasunaren Agiritegia.

[1431] GUA.

[1432] GUA.

[1433] GUA / AZEDB / CDMH: DNSD-SECRETARIA,FICHERO,69,Z0015895;DNSD-SECRETARIA,FICHERO,69,Z0015860 / Sabino Arana Fundazioa-Euskal Abertzaletasunaren Agiritegia.

[1434] GUA.

[1435] GUA.

[1436] AZEDB / Basque Children Association of 37 UK https://www.basquechildren.org/.

## 597. ZUBIZARRETA LARRAÑAGA, JON

Haur errefuxiatua. 1937ko maiatzaren 23an, Bilbotik tropa frankisten atzaparretatik ihesi, bere anaia Iñakirekin batera, Ingalaterrako ipar-ekialdeko kostaldeko Scarborough herrira heldu zen. 1938ko apirilaren 1ean bere anaia Iñaki hondartzan itota hiltzean, bere guraso Amelia eta Josek, berau aberriratzeko eskaera egiten zuten[1437].

## 598. ZUBIZARRETA LARRAÑAGA, LORENZO

Gerra hastean 21 urte zituen eta erreketeen itsas-armadan indar-errepublikarren aurka boluntario gisan jardun zuen. 1937ko uztailaren 24an, Donostiako Plazako epaitegian, 3 zenbakidun Artilleria Astuneko Erregimenduko Zubizarreta soldaduari epaila egin zioten. 1937ko uztailaren 20ra bitartean "(…) por estar de Ordenanza en el Pósito de Pescadores de esta Plaza y destinado a la Batería a Pié (sic), en averiguación de su actuación anterior a dicha fecha". 1937ko irailaren 14an Lorenzo Zubizarretak bere deklarazioa egin zuen. 23 urte zituen deklarazioaren momentuan. Haren ama Juliana zen eta aita Tomas; garai hartan "artillero segundo la cuarta bateria de acompañamiento de 6,5". Gerra hastean Andoainen aurkitzen zen. Gerran zehar, Donostiako Erreketeen Itsas Armadan boluntario gisan borrokan aurkitzen zen. 1927tik Getariako Comunion Tradizionalistako kidea zen. 1937ko urtarrilaren 16tik Donostiako Itsas Armadako Erreketeekin ibili zen eta kaia zaintzeko lanak egin zituen. Haren ostean Pasajes itsasontzian ontziratu eta lurreko ejertzitora egin zuen. Eugenio Egurbide alkate frankistaren eta Pedro Kerejetaren Zirkulo Tradizionalistako presidentearen deklarazioen arabera "Que a raiz de la liberación de este pueblo se ofrecio (sic) como Requeté marino auxiliar voluntario, habiendo prestado varios servicios de guardia en esta y más tarde paso (sic) al Requeté Marino Activo, con cuyo motivo se marchó a San Sebastian (sic), donde ha debido de prestar servicio hasta su incorporación al Ejercito (sic). Getarian errepublikazaleak zeudela, gerra hastean, tropa frankistekin bat egiteko Usurbil aldera joaten ahalegindu zen, baina Getariako Defentsa Komiteak herrira ekarri eta guardiak egin behar izan zituen. Andoainen zegonean, Vicente Albisturren tailerrean ebanista gisa jardun zuen. 1937ko abenduaren 21ean, Artilleria Arineko 13. Erregimenduan aurkitzen zen[1438].

## 599. ZUBURKERIA ETXEBERRIA, LEON

Gerra hastean, Izquierda Republicana-koa izaki, milizianoekin tropa frankisten aurka borrokatu zuen[1439].

## 600. ZUMETA ALBERDI, ANICETO

Eskuindarra eta bere anaiarekin, eta Quirino Basurto, Maria Iruretagoiena Urbieta eta Josefina Antonia Indo euskal nazionalistekin batera, San Antonio Abad baporearen jabea zen[1440].

## 601. ZUMETA ALBERDI, RESURRECCIÓN

Eskuindarra (hauteskundeetako agentea) eta Getariako Sección Femeninako buruzagi Leonor Molet-ekin ezkonduta. Getariako epaile munizipala izan zen. Udaletxe frankistari, bi eskaera nagusi egin zizkion. Alde batetik, berak eta bere anaia Anicetok, Quirino Basurto, Maria Iruretagoiena Urbieta eta Josefina Antonia Indo euskal nazionalisten artean zuten San Antonio Abad baporea bere eskuetara itzultzea. Haren arabera, Getariako ebakuazioan baporea Bilbora eraman zuten eta handik indar-errepublikarren aldeko ebakuazioetan jardun zuen. Zumetak zioenez, bere ogibidea zen baporea behar zuen, sabelera zerbait eraman ahal izateko. Hala eta guztiz ere, Emilio Etxezarreta Berasaluze Getariako Arrantzaleen Kofradiako idazkaritzatik eta Casa Albergue-ko atezaintzatik botatzen ere saiatu zen, euskal nazionalista zela esan eta bere kargua hartu nahian. Indar-errepublikarren alde jardundako beste zenbaiti ere errepresioa eragin zien[1441].

---

[1437] AZEDB / Basque Children Association of 37 UK https://www.basquechildren.org/.

[1438] GUA.

[1439] AZEDB.

[1440] GUA.

[1441] GUA.

prorrogable término de seis días, a partir de la publicación de este Decreto y notificarán sin demora al Gobierno civil de la provincia el resultado de la votación.

2) A su vez, el Secretario de la Diputación provincial remitirá al propio Gobierno civil relación certificada y conforme de la lista de ex Diputados por orden de votación.

3) El Gobernador civil convocará oportunamente a las personas que deban integrar la Diputación provincial, notificándoles en forma su designación y requiriéndolas para que comparezcan el día 25 del corriente, a las doce horas, en el edificio de la Corporación, a fin de dejar ésta constituída.

Artículo 7.° 1) En dicho día y hora, y bajo la presidencia del Gobernador civil, se constituirá la Diputación, tomando posesión los proclamados y levantándose acta por el Secretario.

2) En la propia sesión, retirado ya el Gobernador civil y presidiendo interinamente el Vocal de más edad, se designará la Comisión provincial permanente, mediante votación en sufragio secreto, eligiendo el número de individuos que señala al efecto el vigente Estatuto provincial.

Artículo 8.° El Gobierno queda facultado para designar libremente, aun fuera de la Corporación provincial respectiva, al Presidente y al Vicepresidente de la Diputación.

Artículo 9.° Las nuevas Diputaciones y Comisiones provinciales tendrán todas las facultades que a dichos organismos asigna el mencionado Estatuto provincial, cuya vigencia subsiste en todo lo que no resulte incompatible con este Decreto o con las disposiciones que para su cumplimiento dicte el Ministerio de la Gobernación.

Artículo 10. Las reclamaciones que se formulen por infracción de este Decreto se presentarán, en término de quince días naturales, en la Diputación provincial, y con su informe se cursarán al Ministerio antes indicado, que resolverá sumariamente y sin ulterior recurso.

Artículo 11. Será obligatoria la aceptación de los cargos conferidos con sujeción al presente Decreto, a reserva siempre de casos de absoluta y justificada imposibilidad, que, previo informe de la Comisión provincial permanente, serán fallados por el aludido Ministerio.

Artículo 12. Queda autorizado el Ministro de la Gobernación para dictar por Real orden las disposiciones que el régimen peculiar de Navarra y el de las provincias que integran el Archipiélago canario hagan necesarias durante el actual período transitorio.

Disposición final. El Gobierno dará en su día cuenta a las Cortes de cuanto en el presente Decreto se establece.

Dado en Palacio a quince de Febrero de mil novecientos treinta.

ALFONSO

El Ministro de la Gobernación,
ENRIQUE MARZO BALAGUER.

---

REAL DECRETO

Núm. 522.

De acuerdo con Mi Consejo de Ministros, a propuesta del de la Gobernación y con arreglo a los artículos 6.° y 8.° del Real decreto de 29 de Julio de 1910,

Vengo en conceder la Gran Cruz de la Orden civil de Beneficencia, con distintivo blanco, a doña Isabel Briones de Sáenz, por su labor altamente caritativa y abnegada llevada a cabo en Buenos Aires (República Argentina) en pro de las necesidades del Ejército español de Africa.

Dado en Palacio a trece de Febrero de mil novecientos treinta.

ALFONSO

El Ministro de la Gobernación,
ENRIQUE MARZO BALAGUER.

## MINISTERIO DE INSTRUCCION PUBLICA Y BELLAS ARTES

EXPOSICION

SEÑOR: El Real decreto de 22 de Enero de 1910, que reorganizó la Junta para ampliación de Estudios, imprimiéndole un saludable carácter de autonomía, merced al cual pudo desarrollar una labor hondamente fructífera en los varios e interesantes aspectos de su actividad, fué modificado por el Real decreto de 21 de Mayo de 1926, que impuso graves limitaciones a aquel criterio autonómico de feliz tradición en este organismo.

La circunstancia de haber presentado la dimisión de sus cargos significados Vocales de la Junta, de nombramiento posterior a la indicada reforma, suscita la oportunidad de una reorganización inspirada en los mismos principios que dieron origen a la obra.

Esto no obsta para reconocer en justicia que todos y cada uno de los señores Vocales nombrados con posterioridad al Real decreto de 21 de Mayo de 1926 han laborado, juntamente con los demás, dando muestras de celo y competencia por todo extremo plausible.

En atención a lo expuesto, el Ministro que suscribe tiene el honor de someter a la aprobación de V. M. el siguiente proyecto de Decreto.

Madrid, 15 de Febrero de 1930.

SEÑOR:
A L. R. P. de V. M.,
SANTIAGO STUART Y FALCÓ

REAL DECRETO

Núm. 523.

De conformidad con el Consejo de Ministros, y a propuesta del de Instrucción pública y Bellas Artes,

Vengo en decretar lo siguiente:

Artículo 1.° Se deroga el Real decreto de 21 de Mayo de 1926, que modificó el sistema de renovación de la Junta para ampliación de estudios y se repone en toda su vigencia el Real decreto orgánico y Reglamento de 22 de Enero de 1910.

Artículo 2.° La Junta quedará de nuevo constituída por las personas que la integraban en la fecha en que fué reformada, declarándose las vacantes que procedan por fallecimiento o por haber abandonado sus titulares la residencia de Madrid. Para cubrir estas vacantes, la Junta reorganizada hará al Ministerio las propuestas reglamentarias.

Artículo 3.° Al admitir las dimisiones presentadas y al revocar los nombramientos de Vocales que en virtud de la presente disposición deban ser revocados, se darán las gracias de Real orden a todos los que cesaren, correspondiendo así a la meritoria labor que realizaron en el desempeño de sus cargos.

Dado en Palacio a quince de Febrero de mil novecientos treinta.

ALFONSO

El Ministro de Instrucción pública y Bellas Artes,
SANTIAGO STUART Y FALCÓ

## MINISTERIO DE TRABAJO Y PREVISION

REALES DECRETOS

Núm. 524.

Vengo en admitir la dimisión que del cargo de Director general de Trabajo Me ha presentado D. José Marvá y Mayer, quedando altamente satisfecho del celo e inteligencia con que lo ha desempeñado.

Dado en Palacio a quince de Febrero de mil novecientos treinta.

ALFONSO

El Ministro de Trabajo y Previsión,
PEDRO SANGRO Y ROS DE OLANO.

## 7.2. ERANSKINA: EL DÍA EGUNKARIKO ARRANTZALEEN GAIAREN INGURUKO TRANSKRIPZIOAK

### 1936-05-24:

ARRANTZALE GAIAK

Aurreko ariari jarraituaz emen natorkizute irakurle arrantzallon alde zerbait idazteko asmoaz. Ezarri nituan ze kalte aundia egiten digun arrastek oiek, eta baita azaldu ere egi batzuk, bañon oraindik ba dauzkat beste banaka batzuk, eta beoyek ezarri nai nituzke gaur.

Emendik lengo egunean irten zun bokarta arrantza ontzi batek, eta bazkaria nai ba'zuten arrastero oien albora juan bearra izan zuten. Eskatu arraiak, eta baita eman ere. Emenguak zioten berari; 'Aurki juan bearra izan zute hogeita hamabost millatik kanpora, eta orain 'aprotxa' bazter kala auetan'.

¡Bai zera!-zion bertako buruak- xailtxoa dek ori. Bialdu ezkero ostea, orduan bai arrai pranko atxituko zenukela bazter aldian. Zion gañera:

-¡Kala ontan sekula ez det pexkaillik eta legatzik aitzen. Oso aberatza det, eta urte guzian egunoro egundako irabazpideak eramaten dizkiogu nagusiari. Galerazita ba'lego onen urre arrantzan egitea, arrai au guzia beriala zabalduko luzake bazter alderuntz eta orduan zeon (gurea alegia) bizitza askoz egokiagua ta errexagua izango litzake.

Onela itzegin zuan arrastero buru egiten zunak. Gañera zion, berak pozik juango omen irake kanporago besteak ere juango balira. Bañon… berak juan, eta besteak ori nai. ¿Nola bialdu leike?

Nire ustez bi gauza daude egokien: Lenengo eman eskubide osoa itxastar ontzi txikiari arrastero oietako bat ikusi bezin laxter beregana juan, ta 'detenituta' kaira ekartzea.

Bigarren ostea, geren kaletan 'bloke' edo arri puska aundi orlakoak bota pilla bat, eta onekin ere ezlitzake kalterik izango gure onerako.

¿Zer balio du ba, hogeita hamabost millatik kanpora bialtzia gauaz illargitan, edo egunez goi illuna dagonian, berdin bazterrian arrantzan egingo luteke ta?

Zigorra bear dute eman aundia. Prantzin bezela egingo ba'genuke, bai ederki. Lenengo aldiz arrapatzen dunari, patroi ta makinistai 'tituloa' kendu. Bigarren aldizkuari: ontzia. Ori da egizko 'justicia'. Orrela egin bear luteke omen ere. Bañon…'ufa' orkonpon egin ta urren arte…

Mutur batetik bestera, au da: 'Cabo Higuer'etik Cabo matxitxako'ra, zaitzaie txiki bat daukagu, eta bera egualdi txar xamarra dagonian kaian lasaiasko akaita artuaz patxaran.

Egun oyek 'aprobetxatzen' dituzte basterrian arrantzan egiteko. Egualdi ona degunian ostea zaitzaile orrek egun guzian aitz bazterrian txangurruak atxitzen. Au gere begiakin aurrez aurre ikusten degu askotan. Gero illunabarrian etorri molla ta emen kontu eman: 'Izan gera egun guzian onenbeste millatik kanpuan'. 'Sin novedad' ta ederki asko 'dietak' jaso eta ¡aupa motell! ¿Nun dira zaltzale pixkorrak? Onela guziak egiten ba'dute, berriz ere arrastero jateak egingo dituzte dirutzak, eta mariñel gixajuak beti praka zarrak soñean…

Ezin sinisteko añako kalteak egiten dituzte arrastero demonioz jositako oyek. Arrai aundienak jaso, eta txikiak 'kriya' ostea il da gero ureta bota.

¡Zenbat kriya galduarazten dute!

¿Oiek ez aldute 'veda' edo dalako ori? Urtero guri ezartzen digute langostakiñ, txangurruakin eta abar. Ta ¿oientzat zer? Ez dute bear aundirik ez, zergatik txikiak, aundiak nola 'beda' edo 'pera' guziak atxitzen dituzte-ta.

Ekin bear diogu ba lanari. Ez utzi alde batera Ondarruan Asanblea egin dala ta, ez. erri bakoitzak izenta ditzala biña gizon eta guzien artian 'komisio' ederra egiñik ekin lanari bear dan tokietan.

Gosea ez degu bear, baizik azea.

Eguxki

Getari'tik".

### 1936-05-28:

GETARI

ERRIKO BERRIAK- Gai au aspaldi ontan oso ixil arkitzen da, ta derizkiot noiz edo noiz zerbait idatzi bear genukela. Gañera, baten batzuk egon leizke zai euren izenak argitalduak ikusteko, ta… orra bada emen ta txo.

EUSKEL IZENA,- Aranburu pelotari pamatuak eta bere emazte Bordagarai'tar Agatek izan dute lenengo poxpoliña. ¡Bai izen egokia ezarri ere ugutzaterakuan Miren Terese. ¡Ori da ondorengueri bide egokia jartzia. Jakin bezate ¡ze politak diran euskal izenak! Euskalerrian euskeraz, eta Kastilla aldian… ba, eurak nai duten eran.

¿Ez alda orrela Agustin?

Artu itzak ameika zorion eta beste bat izaten deken arte…

MAKAL XAMAR-Entzun degunez oieratua arkitzen zaigu Urbieta'tar Gregorio inguruko gizon ezaguna.

Lenbaitlen sendatzen ba'zera poztuko giñake.

GASOLINA TA PETROLIOA.- Makinen janari auxe garestia degu, eta orain ostera geitu nai digute. Len irurogeita amasei, ta ill onen aurrenetik larogeita seira igo nai digute Estaduak. Petrolioa, len hogeita bost xentimo, ta orain berriz berrogeita amar jarri nai digute. Ez det nai emen gai ontan geigo idatzerik, beste egun batean edo urrengo idazkia izango da ta. ¿Nola bizi bear degu? Txiroari ez diote erruki aundirik. Itxas aldera beituta oraintxe… ez dakit zer esan ere. Urren arte bada.

ARANTZAZURA.- Ill onen azkeneko igandean talde bat juan bearrian omen dira. Hurrengo illen bostean luistarrak. Ongi joan eta obeto ibilli.

¡Arantzazu'ko Ama, gutzaz erruki!

ABERRI EGUNA.- Egun ontako oso pesta aundiak antolatzen ari gera, ta egitaraua ia bukaturik daukagu. Emango degu beonen berri aste ontan. Gure kiroltzaleak oso prest daude ta… ia ba, aurrera.

Eguzki".

## 1936-06-02:

ARRANTZALE ARAZOAK

Gasolin eta Petrolio garestitze ori estaduak egiten badigu ¡ezin gindezke inolaz ere itxasoratu ontzian! ¿Nolatan ordaindu dirutza ori? ¡Laurogei ta hamasei xentimo litro bakoitza!

Geitzo au berebil jabearentzat izan detela, bañon itxastar txiruontzat ezin leiken arazoa degu. Berebil jabeak aberats edo dirudunak izaten dira, eta beoyei ez diote mitzik artuko, geitze orrek. ¿Bañon guri?

¡A, pizti erruki gabeak! Bost ajola zaiote oieri, eurak kapela ta makilla eskuan dituztelarik kalean ebilliko dira ta… eta nai izateko orrela aurrerantz ere jarzai; guri txiruori al dituzten lapurretak egin bear, 'Monopolio es un embrollo, y al mismo tiempo es un quita dinero'.

Ogiak ere naiko lan ematen digu, berriz lenez gañera gasolina ordaindu eziñik ibiltzeko. ¡Auxe bizibide latza, kristauak! ¿Goserik ez dute ikusten jauntxo oiek? Ez noski.

Aurreko igandean Bilbo'n batu ziran Kofradi guzitako buruak, eta bertan itzegin zuten gasolin ta petrolio garestitzearen aurka.

Baita Prieto aldunakin ere egonak ziran, ta itz onak eman zizkioten. ¿Zer egiten degu itzakin? ¡Guk egiteak nai ditugu! Agindu asko, eta eman gutxi. Horrela ziran antxuen milloiekin ere, bañon oraindik 'Banco España'n… gure etxe bakoitzeko kutxan egon bear lukena.

Donosti'n ere jaurlariakin egonak ditugu beste buru egiten duten batzuk. Guzien erantzuna bat da: 'Hare todo lo que pueda' ta gu bitartian ebili aize otz, eguraldi txar, arraik eza, ta orrelako ebilieretan…

Bide ontan zerbait egiteko garaia da. Guzia garestitzen, eta bizibidea lazten, 'camino de Bilbao' edo…zerbait egin bearrian izango gera oraingo ontan…

Gezurra dirudi, ez dute gerokoari beitu aundirik egiten. Gero, ¿mirari iruditzen al'zaiote agintariari gizadia orren nastua ikustia? Naspilla guziak goseak eta ezin biziak ekarri oi ditu, ta ori guzia ez sortzeko, aurrez oroitu, ta obetoago oldoztu. Aurreko idazki batean nion arrastero bazterreko oiek 'aprobetxatzen' dituztela goi illun, eta illargi egunak bazterrian arrantzan jarduntzeko. Ez nion gezurra.

Lengo egunean antxo arrantzatik etxeruntz goizeko irurak aldian gentozela ikusi (ta albotik igaro giñan) genduzen ordurako sareak itxasperatuta. Aiek jakin ordu aietan ez dutela inguruan zaitzallerik… ¡Lau milletan zegon! Eta Araudiak dio seitik kanpora jardun bear dutela arrantzan. Oiekin berdin izango gera beti. Ill arte, zarauztarrena…

Ogeita hamabost millatik kanpora lortuko ba genduke ere: ala ere asmatuko luteke bide zuzenena zein tokitatik dagon, ta ¡aurrera! aundiak jaso, ta txikiak ilda gero uretara botatzen.

Nire emengo jardunaldiak ¿zer egingo dute? Ezer ez, bañon nik nai non edo nun azaldu garen miñ eta aserrea, ta emen lerrotxo auetan badarik eta EUZKERAZ pozik jarraituko diot gai garrantzidun oni.

¿Zeratko galtzaleak, guarda-kostak? Geu arrapatzalle pixkorrenak. Gauaz eta egunaz ebili oi gera arrantzan, eta ba genduke 'geuk' eskubidea, besterik ez bada ere berengana juan, izen eta 'folioa' artu eta Agintariari kontu eman. Gero eman zigor aundia, ta berriz urrera etortzeko gogoak kendu. Auxe nai genduke. Orrelaxe egokien. Nik ala uste beintzat.

Bateon batek onuzkero esango zuan: 'Egia diozu, seme, bañan zu beti itxasoan lan da lan madarikatzen ebili bearko dezu'.

-o-

Araudia badatorkigula diote, ta onek bederik zuzenduko al ditu akats guziak. Zailtxoa izan leike ordea, zarra berritze ori. Ordoya kendu ta minioa eman bear lodi berriz usteldu ez dedin burniak. Zailtxoa zailtxoa arazo au zuzentzen. Euzkadi'k izan bearko du 'Monopolioa', ta orduan bi errialean gasolina izango degu. ¡Ai horrela balitz!

EGUZKI

OARRA.- ‘Eguzki’, arrantzale gaiak onelaxe, gauzak diran bezela esanaz argitaratu nai nituzke nik, eta oso pozik, oso pozik ordea, artu det zure idazkia. Bialdu nai dezun guzian. Ni saiatuko naiz alik ondoen argitaratzen.

¿Ta mutrikuarrak, pasaitarrak, ondarribitarrak, eta abar, ez al dute ezer esan bearrik?

LUZEAR”.

## 1936-06-07:

ARRANTZALE ARAZOAK

Lan naiko gorroto ez diogularik, geitu azten digute arrastera oiek. Antxo arrantza (guk beintza) gauaz egin bearrra izaten degu bolara ontan, eta Donosti ta Pasai gañean ibiltzen gera. Leku txarra ordea, bada bide ortan ontxi ta batez ere arrastero asko juan etorrian ibiltzen baitira. Erañegun emengo bi ontzi txikieri biña sare eraman dizkiote. Egia diot, euren ontzi jabearen izenak ona emen: Ezenarro’tar Joseba Bentura, ta Goyaberri’ko Tomas’eri biña sare.

Geuri ere… ia eraman ziguten, larri giñan deadarka, bañon uste nik guriak lotan juatenn dirala, beste behintzat hainbeste argitalderi aldegin bear. Ondo dakite argi oiek ‘malleruenak’ dirala bañon ala ere… alperrik. ¡Auxe lana! Arrai kontuan naiko kalte egiten digutelarik orain ostera geren sareak ere eramaten edo zatitzen dizkigute. Oiek dituk alprojak… bost ajola zaiote oieri eurak ondo ba’dira.

¡Makiña izerdi atera bearrian izaten gera besterentzat, arrantzale txiruok!

¿Nun dira lengo txipiroi urte aundi aiek? ¡Zenbatei bizia kentzen genion egunero! Ta orain ostea aguariñik ere ez degu ureta botatzen. ¿Zergaitik da ba? Ez det orren jakinduri aundia bañon edozeiñ mariñelek esango du arrastero oiek egiten digutela kalte guzia.

Begira bertan arrantzan ibiltzen diran batzueri entzuna: Prantziko ondartzetan sortzen da txipiroi kriya, eta eurak sareakin eundoko arruakak arrapatzen dituzte. Bañon, nola oso txikiak izaten dira, ezin kaira ekarri, eta ostera il da ureta bota oi dituzte. Txipiroi ori bera lenbidi Ondarribiarrak somatu bear luketena da. Ondoren Pasai ta Donostiarrak, eta gero Getaria’rrok. Bañon arrastero oiek aunditu edo an bañon len atxitzen ba dituzte, ¿nolatan guk txipiroi urtea izan?

¡Aiek maukak urte aietakuak! Makiñabat txanpon ateratzen genduzen, eta orain, berriz, ezer eza alde guzietan.

Garbi ikusten da nun dagon kaltea. Eta oiek kanporuntz bialdu arte (…) es degu bizibiderik lengo neurrira lortuko.

-o-

Zerbait gaitik aurrreko idazkian esaten nuan Gobiernuak agindutako ‘irumilloi’ Madrid’ko Banko España’n arkitzen zirala. Ez nion gezurra, Lengoan irakurri nuan eguneroko ontan ‘orain behintzat ezin leikela dirutza ori eman’.

Alderdi ederra giñakigun orren zai egon ba’giñan…

¿Zer egin? ¿Opor? Kalterako izan ordea oporketa… Lanik gabe, ezin aurkitu ogirik, eta ixil-ixilik burua beratuta ta apal aurrera jarrai bear lengo bideari.

Besteren esan guziari ez genioke jaramon egin bear. Argatik sortzen dira gaur ludian orrenbeste ixkanbil, bestek agindu, eta langille gizajuak oporrera, naiz etxean umetxoak goseak arkitu. Bor berak onduen derizkioguna egin bear genduke, eta ez egon besteak agindu arte. Lanak berakin du ogia.

Alkartu egin bear genukela entzun nion norbaiti lengo egunian. ¿Naiko alkartuak, ez al gaude Kofradi guziak? Ezer arazo srotzen danian atxa mugitzen dira gure gizonak bear diran tokietan, bañon, ¿zer? Bai-bai, ta beti lanian… Ez diote legorreko arazoari bezela itxasokuei begiratzen, eta orrexegatik gaudeaiñ atzeratuak. ¡Alkartu! Bai nai danian, bañon piñ jarraitzekotan.

-o-

Nire oyu au ordea txiroa izan eta ‘Luzear’ jaunak deitzen dioten ezkero Mutriku, Ondarribi ta Oaisaitar idazleari, guziok ia entzuten, eta denen artean zerbait egiten degun.

Ez degu uste gure emengo idazkiak iñori ikutu aundirik egingo diogunik, bañon ez estutu orregatik, guk behintzat azaldu ditzagun geren arazoak eta guziak eta bakoitzak eman ditzatela nai dituen arrazoiak…

Eguzki

Getari’tik”.

## 1936-06-16:

ARRANTZALE ARAZOAK

POPARIAN DATOZ

¡Auxe poza nabaitzen detana barren ontan! Arrasteruen oporraldi orrek ematen ditana dala, ezin uka leike jaunak… Oiek zenbat eta luzaroan egon: guk arrantzaliok ainbat obeago. Or konpon oien eskabide labarmenal, guk nai deguna, noski, egon ditezela era ortan iru bat illabetean. Bitartean pezkaillak eta beste arrai asko barruzka datoz guk uda aldean atxitzeko…

¡Aurtengo uda ontan urte ona izateko usteak dituk nik, baldin oporketa orrek zuzentasunik ez padu. Barbariñak gorri-gorri izango dira ugari arri ortx guzietan, eta zapo, gastaika, traman, neskazar, eta 'txipiroiak' ere asko eta asko. Ala obe, ezta? Tira ba, noiz edo noiz izan bear du gure urtea ere, eta izan deiela aurtengua. Gañera premia ere iñoiz bañon geigo egon leike, ta datorrela ez da kalterako izango' ta. ¡Ez orixe!

-o-

Orratiokan bai omen ditugu iru millolen erdiak, tira ba, egia ba'da pozten naiz, naiz oraindik oiek ere urruti egon, bañon oraingoak egitan omen datoz, eta ez txantxetan.

Ala ere, orain berri txarrak dira. Bizkai alde ortan oporrera dijuazten edo. ¿ zer ekarriko dutelakoan oporketakin? ¿Ugaldu egingo ote dira arraiak? ¿ Antxua geitu, ta aunditu? ¡A, kirtenak! Aurten kasketaldi txarra zeukak kontserbako janari orrek, eta guk origatik ezin ezer egin. naiago dik bere etxian egon antxo orrek, salmuera tartean bañon. Arrazoi dik…¡Egin opor! Orrela iraungo dik (…) gaiñ goseak. ¿Zuzentza nun? Erantzunik ez du noski.

-o-

¡Ze nolako bake santua gurea arrantzan gau (…)! Len geren sareak ureta bota orduko bildurrez osoa al giñan noiz arrastero piztitxar oien argiak ikusiko, ¿bañan orain? Lasai egoten gera jakiñik kaian ondo amorratuak daudela. ¡Hurrengo ateraldian kontuak…¡¡Aurre aldera beituko dute gutxi, ta ostea guk pagatu bear (…) denboraldi ontako azerreak…

¡Egongo al dira ba antxo kontera bukatu arte!

Besterik gabe urren arte. ¡ Au poza nera!

EGUZKI".

## 1936-06-17:

ARRANTZALE ARAZOAK

Bear bearreko ikusten det arazo onen jarraipidea, ta geren egarriak lortzeko guazen aurrera.

1932'ren urteean Monopolioak Gas-Oil (…) zar orri geitu nai zioten balioa. Bañon agertu zan gizon bat, aundia bera, orain Madrid'etik ateratzen dan izperringi 'Ideales Pesqueros'ko zuzendaria. Eladio Fernandez Egotxeagada gixon au. Beonek kortietan III onen 7'an lau urte, deadarka itz egin zuan Gas-Oil orren gareztitze aurka. Ministro Aziendakuari iñori bañon gehiago botatzen zizkion puntadak, eta baita iritxi ere ez geitzea.

Orain oraingoz ere atzeratua izan bear du gareztitze arrek, bañon egon ditezke gure gaurko aldunak urrengorako tiratuan.

Orduan 22 xentimo balio zuan litroak. Geroztik 25' eratu dute, eta berriz ostera nai zuten 50' eratu. Bañon ez dute nai dutenik egin, nun edo nun aurka irten eta 'espuelak' dantzati dizkiobe Monopolio'ko jauntxoai…

Gobiernuen arroaldietan aurka irtentzeko zai egon bear luteke Egotxeaga jauna bezalako gizonak. Itz egin, bear dan tokietan, eta horrela iristen dira eskabideak. Orretako batzen dira kortietan 450 Aldun eta beren eskubidea tiruak aurrera ateratzeko izan bear luke, ta ez bata besteal muturka aritzeko ariyak mendian bezela. Ez utzi Monopolioa'ri nai duanik egiten, eta ipiñi hurrengo arroaldirako egizko 'trintxerak'.

-o-

Gobiernuak eskeñitako iru milloiak era ontan banatzekoak ziran:

Astuarias'ko itxastarrei 1.750.000 laurlako. Mariñelai euneko larogeitamar: 90% eta ontxi jabbeai euneko amar, 10 %.

Gipuzkoa, Bizkaia, eta Montañari; 2.250.00 laurleko. Euneko irurogei mariñelai, 60%; eta euneko berrogei jabeai, 40%.

Ikusten degunez Asturias' ori zatirik aundiena. ¿Zer dala ta esango dezute? Nik 'Ideales Pesqueros' izperringian irakurri det, eta beste gauzen ondoren dio, ikatza guk bañon geigo ordaintzen dutelako, eta urrutiago arrantzan ibiltzen diralako.

¡Argigarria auxe jaunak! Ikatza behintzat guk bañon urreago daukate. Minak eurak dituztelako. Eta urrutian arrantzan ibiltze ori 'segun da nola' re kasketaldi daukan arraiak.

Au dio 'Ideales Pesqueros'en izparrak.

-o-

Begira beste agerkaia, eta au erderaz esango dizutet. Barkatu.

'Los lacayos del Instituto Social de la Marina que, a las órdenes del cediata marqués de Valterra, disolvieron el Secretariado Cooperativa de los Pescadores y derrocharon las cien mil pesetas que tenía de capital, van a asistir ahora un nuevo golpe de muerte al único organismo que queda en pié Mutualidad de los pescadores para convertirla en… regionales, dirigidas por los mismos de… a los Pescadores. El proyecto es destruirla, y todo esto durante el bienio negro.

Ezagutzen edo zuzmatzen ditu ministroak katramila uek guxiak?

¿Bai ote daki jaun orrek Mutualidade orrek zor dituela ogetaka eriotz?

¡Ezin leike jauntxo oieri lenez gaiñ berriro 'golpe' au egiten utzi! Oiek izena dute 'Fariseos de la República' que aún dirigen el Instituto Social de la Marina para asestar esta clase de puñaladas a las espaldas de los pescadores'.

Dirutza ori arrantzale sendietan egon bear lukena da. ¡ eun milla pesta, eztira gero auntzen gauerdiko estula! Amaikatxok jaten dute zure bizkar.

Gogoan izango al ditu ministroak 'maniobra' oiek guziak.

-o-

Bai dira igandero Sendagille, Lege gizon, Ingeniero, eta orrelako dirudunak arrantzan jardutzen diranak kañaberriakin. Euren atseden ori, ez dago aiñ txarki, bañon, batzuk arrai asko atxitzen dituzte, eta hurrengo egunian Donostin saldu. Aste egunian naiko irabazten ez duelarik igandean ere irabazten. Bai dira gauz onen kejaan diranak, eta orregatik argitaltzen det. Utzi ortik jan bear dutenai oiek arrapatzen dituzten arraiak, eta horrela larunbatian eun arrai dauen tokian astelenian ere eun billatu leizke, eta ez berrogeita amar jauntxo oiek igandean atxitu dituztelako.

EGUZKI"

## 1936-06-23:

ARRANZALE ARAZOAK

Aserre nator gaur, eta asarre ori zuzen-zuzenen erri agintariengana dijua batere ezparik gabe. Iñori bañon gehiago dagokit azaltzia mintasun au, ta bera zergatik dan orain ikusiko dezute.

Urte auetan lankoala gutxi arrapau oi degu, eta emengo eza ori ikusiaz jauntxo batek, gure molla atzian 'Bibero' deritzaion deposito ori egiten asiak dira, Galizi'tik ekarri, ta emen saltzeko. Guretzat ezin kalte aundiagorik. Guk atxitzen ditugun aleak ondo saltzen ba'genituan len, orain ostera merke saldu bearrian izango gera. Geyago oraindik, 'Bibero' ori egiten asteko-nik uste-lenengo erri agintariai baimena eskatu bear lioketela. Edo bestela Kofradi'koari. Bañon jauntxo oiek ez diote iñori jaramonik egin, eta egunak dira lan da lan ari dirala. ¿Nun zerate erri agintariak? Ez derizkiot ondo dagonik lotsagabekeri ori. Alegia diote, Madrid'tik dutela bear diran baimenak. Bañon beti gure errian ari dira, eta Alkatia denon buru ta nagusi noski, ia ba orain zer egin bear dezuten.

¡¡Ikusteko geunden alajaña! Besteren errira etorri, begiz jo egokien zaion lekua nai duana egiteko, ta, iñori ezer agertu gabe aurrera beren lanetan. Ori emengo agintaritza oinperatzia da, eta ez da noski nire iritzia bakarrik.

Kofradi'ko agintariak azkeneko batzarra egin zutenian bateon batek aditzera eman zun esanaz ia uzteko eskubiderik bai ote zegon. Eta erantzun zioten, ezin leikela ezertxo ere egin Madrid'eko agindun aurka.

Ederki, bañon ¿ez ote da gure morru sarrerako kaltegarri izango 'Bibero' ori? Ba leikela 'errepunpa' geitzea, eta orduann ez dula balio burua arraskatzia…--berriz erantzuna--. Etorriko dira onera lanean asterako baimena eske, eta orduan ikusiko da zer egin leiken. Baño len esan detana, iñori jaramonik egin ez, ta 'kaxo motel' (aquí mando yo…' ta utzi pakean.

Gauzauek Getari'n gertatu bearko dute, beste erri batean aurretik espuelak dantzatuko lizkioteke jauntxokeri oieri.

¡Ai gure aurtengo udarako lankostak! ¡Leku ederrian irten dituzte zeon balioak! Eta gure irabazpidiak! ¡nun dira? Batzuentzat pozkarri izan leike. Len kilo bakoitza amar laurleko ordaindu bear zuanak, orain bosterata leizke, ta lepoaño bota lankosta prexkuakin… Egon uste orretan… gero esango dizut. Ori esan eta jarduntzen duanak, mentuaz sekula jan ez du, eta (…) gaudenak geok atxitzen ditugunak sarritan jan.

Ludi ontan guziontzat on zaigunik ez da. Batzuek konprome batzukin, bestiak ez ordea… guziok konten izateko gauz bat esango ba'gendu? ¡Aze zoramena! Bañan denok ditugu geren 'ajeak' eta bakoitza bereakin ludi oni agur egiñ arte izan bearko degu. ¡ Ia ze erremeio…'

'Bibero' orrekin gu ontzi txikizaleok oso naigabeturik gaude, aundi zaleak, edo behintzat erosleak oso pezez. Orregatik gorago diot guzion ontzat ezer ez dala ludian.

-o-

¡¡Orixe parre ta izeka egitea gure erri ta Kofradi agintariari jaun oiek! Nai dutena egin, eta ala ere gu ixilik.

Ni ez ordea ixil egoteko egiña…emen bederik azalduko ditut erriko akats guziak—badira izperringia artu orduko lenengo begirakada 'Euskal Gaieta'ra ematen dutena ia emengo berririk ote dakarren—eta tientuan egon leizke buru oiek, zer gertatzen dan guzi-guzia denak jakingo dutena da ta.

-o-

Beste arazo egokia benetan bai daukat altxian gordeta, eta luzatxo nijuakizulako urregorako gordetzen det. Asiera du 'Ondartzako 'planta'.

## 7.3. ERANSKINA: GETARIAKO NUESTRA SEÑORA DEL ROSARIO ONTZIKO TRIPULAZIOAREN DEKLARAZIOA

ANTE DON JOAQUIN DE EGUIA Y UNZUETA, Jefe de Marina de Guerra del Gobierno de Euzkadi, comparece la tripulación del vapor "NUESTRA SEÑORA DEL ROSARIO" apresado frente a la costa de Lequeitio en el día de la fecha por la motora armada "EUZKADI", estando compuesta esta tripulación por los siguientes individuos:

Patrón: Pelegrín Agote Camio, de 43 años de edad, natural de Guetaria.
Marinero: Mariano Iribar Bordagaray, de 43 años de edad, natural de Guetaria.
" José Larrañaga Arregui, de 37 años de edad, " "
" José de Zenakorta y Urresti, de 40 años, natural de Motrico.
" Alejo Bordagaray Olave, de 20 años, " Guetaria.
" Juan Aranguren Ondarroa, de 45 años, " Guetaria.
Maquinista: Eduardo Darpón Ochotorena, de 46 años, " Guetaria.
Marinero: Julián Berasaluce Camio, de 42 años, " Guetaria.
" Emeterio Isasti Uranga, de 45 años, " Guetaria.
" Fermín Lucín Berasaluce, de 16 años, " Guetaria.

De orden del Sr. Eguia comparece unicamente los llamados Fermín Lucín Berasaluce y José de Zenakorta y Urresti, quienes a las preguntas efectuadas por el Sr. Eguia, responden:

1º Que en Guetaria no han fusilado a nadie, si bien tienen noticias de que se han efectuado algunos fusilamientos en Tolosa, Lasarte, etc.

2º Afirman que en Guetaria se ha cortado el pelo a dos Emakumes, una de ellas hija de Esteban de Uranga, llamada Rosario, Presidenta de E.A.B.

3º Los castigos impuestos en Guetaria han sido multas.

En este momento del interrogatorio uno de los miñones que ha procecedido a efectuar el cacheo de los prisioneros, coloca sobre la mesa despacho del Sr. Eguia varias navajas de las usadas por los pescadores en sus faenas profesionales de pesca, dos monederos y una pequeña cantidad de metálico, habiendo observado en uno de los monederos la existencia de una pequeña insignia con los colores de la bandera monárquica, responde el llamado Lucín, que obligan a llevar tales insignias en las solapas castigando con multas alquien así no lo efectua, motivo por el cual ha estado él detenido cuatro días.

Hoja nº 2.

Afirman que por los elementos rebeldes han sido llamadas las quintas del 31 al 36.

Se retiran estos compareciendo el patrón de la embarcación llamado Pelegrín Agote Camio.

A las preguntas efectuadas por el Sr. Eguia, responde que él es patrón accidental de la embarcación, ya que el titular por encontrarse mal de manos llevaba tres días retirado; hace constar que el rol de la embarcación ha quedado depositado en la Ayudantia de Lequeitio y encontrándose al frente de la embarcación por necesitar trabajar para acudir al sostenimiento de un hijo inválido y una hija de 14 años, ya que hace 20 días ha muerto su esposa y no cuenta con más ayuda.

Continua afirmando que desde el comienzo de la sublevación militar no ha salido de Guetaria.

Respecto a la situación en Guetaria, manifiesta que el que tiene dinero come, ya que hay abundancia géneros, sin embargo los pescadores están pasando estrechez ya que han tenido cerrado un mes entero el puerto sin poder hacerse a la mar, llevan trabajando cinco días, habiendo vendido el besugo a 22 pesetas la arroba, dedicándose a sus faenas profesionales sin que les defiendan los bous que desde Pasajes salen hasta Zumaya y regreso.

Esta flotilla de bous está compuesta por el "GALERNA" y dos o tres menores.

Alguna vez aparecen el Velasco de cuatro chimeneas así como algunos extranjeros, ultimamente estuvieron fondeados dos buques de guerra alemanes frente a Zarauz donde está el Consul. La comunicación con tierra la efectuaban de noche por medio de Morse.

Los bous pequeños dicen que van armados con un cañón a proa y otro a popa ignorando su calibre ya que no entienden de estas cosas por no haber servido en la armada.

La guarnición de Guetaria está compuesta de tres Requetés y tres o cuatro falangistas. A los niños de doce años les enseñan la instrucción militar un cabo de falange y otro de Requetés, no está al tanto de las relaciones que existe entre ellos aunque cree hay bastantes discrepancias, las cuales resolvieron ultimamente a tiros en Donostia, resultando 10 muertos; la misa mayor van con sus banderas roja y amarilla y roja y negra la de falange.

En Guetaria hay dos barcos de Laredo que pasaron voluntariamente con sus tripulaciones. Existe también otra embarcación de Santoña muy bien atendida por la falange que les proporciona alimentos y dinero. Estas tripulaciones hacen guardia de día en puerto y de noche los falangistas y requetés.

El "ESPAÑA" y el "VELASCO" van muy poco por aquellas aguas.

En Guetaria no existe cañones en ningún punto y en cuanto a Motrico solo saben de su existencia lo que les ha indicado la canoa que les ha apresado.

Hoja nº 3.

Hace presente su extrañeza por la actual situación de Bilbao, ya que según sus noticias se encontraba destruida toda la población por el bombardeo sufrido el pasado día y cuyos detalles daba a conocer la voz de España; asimismo se ha dado a conocer la destrucción de la ciudad de Santander.

Manifiesta su desesperación por la escasez de víveres a que están sometidos como consecuencia de la forzosa inactividad de la flotilla pesquera, ya que por tener que satisfacer los comerciantes los géneros al contado, no fian a los pescadores. El día de Navidad se han encontrado éstos sin pan, ya que no tenían modo de adquirirlo. El Ayuntamiento hizo un reparto a las familias necesitadas de

1 litro de aceite, 8 panes, 5 kilos de patatas.

En tierra es obligatorio llevar la insignia monárquica, siendo multado con un duro la primera falta y con veinte la segunda.

Confirma el corte de pelo de que ha hablado Ucín, manifestando que han sido dos las mujeres castigadas, una casada y otra soltera, ésta la que fué Prewidenta de Emakumes, hija de Uranga, les cortaron el pelo en el Ayuntamiento por elementos de falange, mandándolas seguidamente a casa donde han estado dos meses sin salir, el motivo de tal castigo ha sido el que eran nacionalistas.

Allí les dicen que en Bilbao se vive muy mal y ellos manifiestan que aunque allí hay pan si no hay dinero no se come. El besugo ha bajado a 18 pesetas la arroba y lo llevan a Donostia a vender.

En Guetaria de 11 vapores quedan unicamente tres y otras tantas motoras, no viéndose bous.

Por las autoridades facciosas se ha lanzado un bando creando un Voluntariado de Mar de 22 a 38 años, ofreciéndoles plazas de fogoneros en los bous con 50 duros de sueldo, comida y ropa.

El precio del pan en Guetaria es de 0,60 el kilo, hay vino navarro a 0,90 litro y carne de tercera a una peseta libra.

Antonio Alegría le han multado con 36.000 pesetas por haber sido Alcalde su hijo, ignorando si las ha satisfecho.

A los pescadores les han impuesto multas de 30 y 40 duros por haber escapado sus hijos a Francia, de donde han vuelto muy pocos.

Los falangistas destacados en Guetaria son todos ellos navarros.

Confirma el llamamiento de quintas a partir del reemplazo del 31.

El actual Alcalde es Ramón de Manterola.

En cuanto a noticias de la guerra no saben nada, ya que en sus conversaciones en las tabernas deben de callar para evitar la vigilancia de requetés y falangistas.

Bilbao, 7 Enero 1.937.

# GETARIAKO UDALAK GIZA ESKUBIDEEN ERREPARAZIORAKO EGINDAKO EKITALDIAK

## 1. KATXAPON ALTXAMENDU FAXISTAREN AURKA BORROKATU ETA ERREPRESIOA JASAN ZUTEN GETARIARREN OMENEZKO PLAKAREN EZARPENA

2019ko martxoaren 3an, Getariako Udalak, Katxapon, “1936ko uztailaren 18ko Francoren altxamendu faxistaren aurka borrokatu eta errepresioa jasan zuten Getariar guztien omenez” plakaren ezarpena gauzatu zen. Ekitaldira, Getariako udaleko bi alderdietako zinegotziak, Maribel Vaquero Gipuzkoako Foru Aldundiko Bizikidetza eta Giza Eskubideetako zuzendaria, Aintzane Ezenarro Gogora Memoriaren Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuko zuzendaria eta Eneko Sanz Aranzadi Zientzia Elkarteko ikerlaria bertaratu ziren. Getariar andana hurbildu zen ekitaldira.



**Nika Lertxundi Getariako alkatea plakari oihala kentzen.**
**(Artzape Getariako herri-aldizkaria).**



**Getariako herritar omenduak.**
**(Artzape Getariako herri-aldizkaria).**

## 2. ALTXAMENDU FRANKISTAREN AURKA ETA HAREN ONDORIOZ HILDAKOEN OMENEZKO OROIGARRIAREN EZARPENA GETARIAKO HILERRIAN

2019ko ekainaren 9an, Getariako Udalak eta Aranzadi Zientzia Elkarteak, Getariako hilerrian, altxamendu frankistaren aurka eta haren ondorioz hildakoen omenezko oroigarria ezarri zuten. Ekitaldira, Getariako alkatea Nika Lertxundi eta ordezkariak, Aranzadi Zientzia Elkarteko Juantxo Agirre Idazkari Nagusia eta Getariako herritarrak hurbildu dira.



**Getariako hilerriko harriaren ekitaldia.** **(Artzape Getariako herri-aldizkaria).**



**Getariako herritarrak ekitaldian.** **(Artzape Getariako herri-aldizkaria).**



**Juantxo Agirre Aranzadi Zientzia Elkarteko Idazkari Nagusia.**
**(Artzape Getariako herri-aldizkaria).**



**Getariako herritarrak ekitaldian.** **(Artzape Getariako herri-aldizkaria).**



**Nika Lertxundi Getariako alkatea ekitaldian.** **(Artzape Getariako herri-aldizkaria).**

## 3. GERRA GARAIAN ETA DIKTADURA FRANKISTAN ZEHAR ERREPRESIOA JASAN ZUEN ISABEL ETXEBERRIA GORRITIREN OMENEZKO EKITALDIA

2020ko irailaren 12an, Getariako Udalak eta Llançà-ko Udalak Isabel Etxeberria Gorriti irakasle errepresaliatua omendu zuten. Ekitaldira, Getariako Udaleko Haritz Alberdi alkatea eta Ibon Gereka zinegotzia, Llançà-ko alkatea eta zenbait zinegotzi eta, ikerketa burutu duen Aranzadi Zientzia Elkartetik, Juantxo Agirre Idazkari Nagusia eta Ione Zuloaga ikerlaria hurbildu ziren. Getariako senideez eta Llançà-ko herritarrez bete zen plaza nagusia.



**Isabel Etxeberria Gorriti omenaldian.** (Artzape Getariako herri-aldizkaria).



**Isabel Etxeberria Gorriti omendua, Getariako Haritz Alberdi Alkatea, Ibon Gereka zinegotzia, Francesc Guisset Llançà-ko Alkatea, Aranzadi Zientzia Elkarteko Juantxo Agirre Idazkari Nagusia eta Ione Zuloaga ikerlariarekin.** (Artzape Getariako herri-aldizkaria).

# 8. INDIZE ONOMASTIKOA



## INDIZE ONOMASTIKOA


| IZENA / NOMBRE | I. Liburukia / Tomo I | II. Liburukia / Tomo II |
|---|---|---|
| **A** | | |
| ADRIAN NAJERA, ALBERTO | | 114,162 |
| AGINAGA OTEGI, BAUTISTA | | 133,162 |
| AGIRIANO ARANZABAL, PEDRO | 85 | 85,95,162 |
| AGIRRE GALLASTEGI, PEDRO JULIAN | | 133, 162 |
| AGOTE BASURTO, EDUVIGIS | | 98,162 |
| AGOTE KAMIO, DONATA | | 54,162 |
| AIZPURU, JOSE | | 163 |
| AIZPURUA, MIGUEL | | 19,163 |
| AIZPURU AIZPURU, JOSE DOMINGO | | 163 |
| AIZPURUA AZKUE, JOSE AGUSTIN | 85 | 112, 163 |
| AIZPURUA ISASTI, BONIFACIO | | 115,163 |
| AIZPURUA LARRAÑAGA, FACUNDO | | 163 |
| AIZPURU LAZKANO, AGUSTIN | 80,81,85 | 71,163,164 |
| AIZPURU LAZKANO, JOSE | 80,85,158 | 163 |
| AIZPURU SUSTAETA, BENITE | | 52,71,163,164 |
| AIZPURU SUSTAETA, IBON | | 164,239 |
| AIZPURU ZUBIZARRETA, CIRIACO | | 164 |
| AIZPURU ZUBIZARRETA, JOSE ANTONIO | 85 | 112,164 |
| AIZPURU ZUBIZARRETA, JOAKIN | 156 | 164 |
| AIZPURU ZUBIZARRETA, ,MARCELINO | 85 | 164 |
| ALBERDI AIZPURUA, SEBASTIAN | 85 | 164 |
| ALBERDI ARANBURU, ANBROSIO | | 164 |
| ALBERDI ARANBURU,ANTONIA | | 54,71,164 |
| ALBERDI ARANBURU, MANUELA | | 54,71,164 |
| ALBERDI IBARBIA, EULOGIO | | 164 |
| ALBERDI LAZKANO, BEATRIZ | | 54,162,165 |
| ALBERDI LAZKANO, EUTIMIO | 20 | 114,165 |
| ALBERDI SILVETI, EUTIMIO | | 165 |
| ALBIZU AGINAGALDE, SEVERIANA | | 52,54,56,60,62 ,69,71,74,158, 165,245,246 |
| ALBIZU INDO, MELTXOR | 85,102,103, 138,140,141, 144,147,148 | 165 |
| ALEGRIA IJURRA, MIGUEL | 13,14, 28 | 165 |
| ALEGRIA LASA, ANTONIO | 20,21,23,24 36,54,55,57, 58,60,63-65, 69,80,85,158 | 8,69,70,71, 165-166 |
| ALEGRIA, LUKAS | | 166 |
| ALKORTA, BARTOLOME | 76 | 166 |
| ALKORTA, CASILDO | 81 | 166 |
| ALKORTA, IGNACIO | | 19,166 |
| ALKORTA ALKORTA, KARMEN | 35 | 40,43,44,47, 54,114,166 |
| ALKORTA ALKORTA, KLAUDIA | | 54,56,166 |

| IZENA / NOMBRE | I. Liburukia / Tomo I | II. Liburukia / Tomo II |
|---|---|---|
| ALKORTA ALDAIZ, ANTONIO | | 71,166 |
| ALKORTA ALDAIZ, KARMEN | | 71,167 |
| ALKORTA ALDAIZ, MERCEDES | | 71,167 |
| ALKORTA BALENZIAGA, LUIS | 85 | 112,114,167 |
| ALKORTA INDO, IGNACIO | | 19,167 |
| ALKORTA INDO, RAMON | 80,85 | 167 |
| ALKORTA ISASTI, CASIMIRO | 85,114,118, 122,124,127, 144 | 167 |
| ALKORTA ISASTI, PEDRO | | 167 |
| ALKORTA ZUMETA, JOSEFA | | 60,71,167 |
| ALONSO MORO, ROQUE | | 18,47,167 |
| ALTUNA BILBAO, ***** | 85 | 168 |
| ALZAGA BASARTE, MARTA | | 52,54,56,168 |
| ANDONEGI EIZAGIRRE, SINFORIANO | 76 | 168 |
| ANDREANO, AVELINA | 27,39 | 168 |
| ANDREANO INDO, GUILLERMO | 76 | 168 |
| ARAGON BERROETA-ALDAMAR, CESAREO | | 168 |
| ARAKISTAIN ALTUNA, CAYETANO JOSE | 77 | 168 |
| ARAKISTAIN ALTUNA, LUIS | | 19,168 |
| ARANBERRIA AMUTXASTEGI, JOSE RAMON "ONDARRU" | | 137-139, 168 |
| ARANBURU GALLO, LUIS | | 11-12,14, 115,169 |
| ARANBURU ALBERDI, ALEJANDRO | | 169 |
| ARANBURU ARRIETA, MODESTO | 85,143 | 75,77,114,169 |
| ARANBURU ARRIETA, NORVERTO | 85 | 169 |
| ARANBURU ZUBIMENDI, ANTONIO | | 169 |
| ARANBURU ZUBIMENDI, IGNACIO | | 169,238,242 |
| ARANGUREN BURGAÑA, BENITA | | 52,67,71,169 |
| ARANGUREN BURGAÑA, IGNACIO MARIA | | 71,170 |
| ARANGUREN EIZAGIRRE, TOMAS | 65,66 | 169-170 |
| ARANGUREN IÑARRA, IGNACIO | 85 | 112,170 |
| ARANGUREN IÑARRA, JOSE MARIA | 85,105-106, 138-139,144 | 170 |
| ARANGUREN IÑARRA, MANUEL | 85,105- 106,138- 139,144 | 67,71,170-171 |
| ARANGUREN MANTEROLA, ANTONIO "TETO" | 76 | 12,14,131,135, 171,221,227 |
| ARANGUREN MANTEROLA, JESUS | 77 | 171 |
| ARANGUREN ONDARRA, CELEDONIO | | 171 |
| ARANGUREN ONDARRA, JOSE ANTONIO | | 171 |
| ARANGUREN ONDARRA, JOSE MARIA | 85,108-109, 136,144,147 | 171 |
| ARANGUREN SEGUROLA, JOSE MARIA | 85 | 113-114,171 |
| ARANGUREN ULAZIA, RAMON | | 19,172 |
| ARANZABAL AZKARATE, BARTOLOME | 20 | 172 |

| IZENA / NOMBRE | I. Liburukia / Tomo I | II. Liburukia / Tomo II |
|---|---|---|
| ARANZABAL ITURZAETA, BARTOLOME | 52,80,85,158 | 114,172 |
| ARANZABAL ITURZAETA, MANUEL | 13-14,85 | 172 |
| ARBILLAGA LETURIONDO, JOSEFA | | 55,98,172 |
| AREIZAGA IRURETAGOIENA, JOSE | 77 | 172 |
| AREIZAGA IRURETAGOIENA, JUAN | 77 | 172 |
| ARGIBE URAOLA, PAULO | | 72,172 |
| ARREGI AZPEITIA, ALBERTO | 85 | 113,172-173 |
| ARREGI AZPEITIA, PEDRO JOSE | 85,147 | 114,173 |
| ARREGI LEIZAOLA, ALBERTO | | 113,173 |
| ARREGI LEIZAOLA, FRUCTUOSO | 20,23, 64-65,69 | 8,173 |
| ARREGI LEIZAOLA, JOSE LEANDRO | 86 | 58,173,232 |
| ARREGI OIARZABAL, ANDONI | | 52-53,58,62, 66-68,70-72, 139,141,148, 173 |
| ARREGI UZIN, ANSELMO | 86,117,123, 132,144 | 173-174 |
| ARREGI UZIN, PEDRO | | 114,174 |
| ARREGI UZIN, URBANO | 86,114,122, 124,144,150 | 114,174,213 |
| ATORRRASAGASTI LASA, ANTONIO | | 174 |
| AZKUE AIZPURU, PRUDENCIO | 77 | 174 |
| AZKUE AZKUE, MANUEL | 86 | 83,114,174 |
| AZKUE FERNANDEZ, SABINA | | 18,32,34,174, 185 |
| AZKUE IBARBIA, ANTONIO | 86 | 174 |
| AZKUE IBARBIA, JUAN | 86,121,144 | 72,98,175,202 |
| AZKUE IBARBIA, PASTOR | 143 | 175 |
| AZKUE IDIAKEZ, MIKEL | | 52,72,175 |
| AZKUE IRIBAR, JOXE | | 52,61,68,72, 144,175,202 |
| AZKUE LARRAÑAGA, ENCARNACIÓN | | 55,175 |
| AZKUE LARRAÑAGA, FLORENCIO | 86 | 113,175-176 |
| AZKUE LARRAÑAGA, JOSE JOAKIN | | 83,113-114, 116,176 |
| AZKUE MARTIJA, JOSE ANTONIO | 76-77 | 131,176 |
| AZKUE MARTIJA, SEBASTIAN | | 176 |
| AZKUE UZIN, DIGNA | | 43,55,176 |
| AZKUE UZIN, JOSE DOMINGO | 86,114,124, 144 | 72,176 |
| AZKUE UZIN, LUZIANO | 86,126,132, 143-144 | 75,77,113,176 |
| AZKUE UZIN, MARIA | | 52,55,177 |
| AZKUE UZIN, PEDRO | 86,119-120, 123,144 | 177 |
| AZPEITIA, FRANCISCO | | 9-11,50,177 |
| AZPEITIA BASURTO, JOSE MARIA | | 19,177 |
| AZPEITIA BASURTO, MATEO | | 19,177 |
| AZPEITIA BASURTO, QUIRINO | | 19,177 |

| IZENA / NOMBRE | I. Liburukia / Tomo I | II. Liburukia / Tomo II |
|---|---|---|
| AZPEITIA IBARBIA, ANTONIO | 86,122,131, 144 | 114,116,177 |
| AZPEITIA IBARBIA, MAXIMINA | | 52,55,72-73, 177-178 |
| AZPEITIA IBARGUREN, JOSE MARIA | 77 | 178 |
| AZPEITIA MANCISIDOR, MANUEL | 20,65-66 | 178 |
| AZPEITIA OIARZABAL, ANTONIO | | 178 |
| AZPEITIA OIARZABAL, JOSE MARIA | 77 | 178 |
| AZPEITIA OIARZABAL, MANUEL | 77 | 178 |
| AZPEITIA OLASCOAGA, JUAN JOSE | | 11,115,178 |
| AZPILLAGA CABANAS, SEGUNDO | | 178 |
| **B** | | |
| BALENZIAGA GOIKOETXEA, BONIFACIO | | 14,94,115,117, 179,182,217,2 21,242 |
| BALENZIAGA LILI, JULIAN | | 114,116-117, 179,197 |
| BARRENA UMEREZ, JOSEFA | | 179 |
| BARRENETXEA ASTRAIN, IGNACIA | | 180 |
| BASTERRETXEA LARRAÑAGA, MARCELINO | 86,119,124, 132,144 | 180 |
| BASTERRETXEA SANTAMARIA, GENARO | 20-21,23,30 36,60,65,69 | 8,180 |
| BASURTO, QUIRINO | | 180 |
| BASURTO ALBIZU, SEVERO | | 180 |
| BASURTO ALTUNA, EUSEBIO | | 26,117,120, 127,180,202, 237 |
| BASURTO FURUNDARENA, ANTONIO (JESUS) | 86,112-114, 126,132,144 | 113,180-181 |
| BASURTO FURUNDARENA, ROMUALDO | | 114,181 |
| BASURTO OÑEDERRA, FELICIANA | | 52,55- 56,72,181,187 |
| BERASALUZE EGAÑA, GREGORIO | 86,108,132, 138,144 | 181 |
| BERASALUZE EGAÑA, ISIDRO | 52,86,115- 116,144,151 | 181,229,231 |
| BERASALUZE EGAÑA, PILAR | | 72,181 |
| BERASALUZE ELIAS, (A)NICETO | 80-81,86 | 182 |
| BERISTAIN GARRASTAZU, DAVID | 86,148 | 98,114,182, 196 |
| BORDAGARAI EIZAGARRE, ANDRES | 143 | 75,77,114,182 |
| BORDAGARAI EIZAGARRE, TORIBIO | | 182 |
| BURGAÑA ETXABARRIA, JAIME | | 182 |
| BURGAÑA ETXABARRIA, JOSE MARIA | | 182 |
| BURGAÑA ETXABARRIA, JUAN | 86,105-106, 132,138-139, 144,156 | 72,148,182 |
| BURGAÑA ETXABARRIA, LEONCIO | 52,86,148 | 183 |
| BURGAÑA ETXABARRIA, MARIA | | 55-56,72,183 |
| BURGAÑA ETXABARRIA, SALVADORA | | 52,55-56,61, 67,69,72,183 |

| IZENA / NOMBRE | I. Liburukia / Tomo I | II. Liburukia / Tomo II |
|---|---|---|
| **C** | | |
| CALVO ARANGUREN, ANTONIO | 77 | 183 |
| CALVO VEGA, ANTONIO | 156 | 183 |
| CAMPOS GEREKA, ANSELMO | | 97,183 |
| CARAZO SAN MIGUEL, MARIA PAZ | 39 | 45,184 |
| CASALAN RAYA, TORIBIO | 86 | 85,96,114,117, 184 |
| CHARRO MARTINEZ, DOLORES | | 47,85,184 |
| CHUECA, JUAN | 28,32,66 | 184 |
| CHUECA ARAMBERRI, ANTONIO | | 14,115,184 |
| CHUECA, DOMINGO | | 14,184 |
| CHUECA ARAMBERRI, ISIDRO | 20-21,23,52 | 12,14,26,184 |
| CIBUSGAÑA ETXEBERRIA, LEON | 86 | 184 |
| CORTAZAR URRUZOLA, RAMON | | 20,23,184 |
| CORREA BEITIA, JOAQUINA | | 55,184 |
| **D** | | |
| DARKISTADE GARAI, ALBERTO | 86 | 72,79,82,185 |
| DARKISTADE GARAI, ENRIKE | 86,95,106, 131,138,144 | 185 |
| DARPON MITXELENA, ENRIKE | 86,117,123, 144 | 185 |
| DE LA HOZ KINTANA, EMILIO | 86,109,127, 131,144 | 185 |
| DE LA HOZ KINTANA, EUGENIO PEDRO (PERIKO) | 86,102-103, 138,141,145, 149 | 114,185-186 |
| DE LA HOZ KINTANA, IGNACIO | | 186 |
| DIEZ MARTINEZ, GREGORIO | | 133,186 |
| DOPORTO MARCHORI, MARIANO | 152-153 | 186 |
| **E** | | |
| EGAÑA ARRIZABALAGA (EDO AGIRREZABAL), BERNARDA | | 55,72,114, 118,186 |
| EGAÑA MANTEROLA, EDURNE | | 52,187 |
| EGAÑA MANTEROLA, MIREN | | 52,72,187 |
| EGIBAR ARRESIGOR, NEMESIO | 86 | 187 |
| EGURBIDE AZPEITIA, EUGENIO | 12-15,17,158-159 | 7,9-11,14, 16,24,26,30, 41,50,70,100, 105,115,117-118,120-121, 123-124,126-127,187 |
| EGURBIDE AZPEITIA, JOSE | 52,86 | 114,118,187 |
| EGURBIDE BASURTO,CIRILO | | 52,72,187 |
| EGURBIDE BASURTO, EUGENIO | | 52,72,187 |
| EGURBIDE BASURTO, MARI KARMEN | | 52,72,187-188 |
| EGURBIDE ISASTI, JOSE | 80,86,158 | 188 |
| EGURBIDE OIARZABAL, ISABEL | | 43,52,57-58, 61,68,70,72, 149,188 |
| EGUZKIZA AZPEITIA, FRANCISCO | 156 | 188 |

| IZENA / NOMBRE | I. Liburukia / Tomo I | II. Liburukia / Tomo II |
|---|---|---|
| EGUZKIZA AZPEITIA, JOSE | 86 | 113,118,188 |
| EIZAGIRRE, NIEVES | | 52,55,72,188 |
| EIZAGIRRE BALENZIAGA, JOSE | | 188 |
| EIZAGIRRE FERNANDEZ, JOAKIN | 86,143 | 82,85,95-96,188 |
| EIZAGIRRE ZUBIMENDI, KARMEN | | 72,189 |
| EIZAGIRRE ZUBIMENDI, MIREN EDURNE | | 72,189 |
| EMBIL, ANGEL MARIA | | 19,189 |
| EMBIL ETXANIZ, FRANCISCO | 86 | 114,189 |
| EMBIL ETXANIZ, JOSEBE (PEPITA) | 157 | 189 |
| EMBIL ETXANIZ, SEBASTIAN | 86 | 118,189-190 |
| ERANDEGI, JOSE | 86 | 190 |
| ERORKI BAKAN, ALFREDO | 77 | 190 |
| ERRAZKIN AIZPURUA, JOSE AGUSTIN | 148 | 190 |
| ERRAZKIN AIZPURUA, JOSE MARIA | 148 | 190 |
| ERRAZKIN AIZPURUA, JOSE MANUEL | 86,106,129, 138,145 | 190 |
| ERRAZKIN AIZPURUA, MARIA FRANCISCA | 35 | 40,55,190 |
| ERRAZKIN AIZPURUA, MARIA LUISA | 35 | 40,55, 190 |
| ERRAZKIN AIZPURUA, RICARDO | 86 | 191 |
| ESNAL, KANDIDO | 80,158 | 191 |
| ESNAL AGOTE, JESUS | 86,148 | 191 |
| ESNAL AGOTE, LUIS | 86,108,131, 138,145 | 191 |
| ESNAL IBARBIA, JOSE REGINO | | 191 |
| ESNAL OSTOLAZA, BERNARDINO | 77 | 191 |
| ESNAL OSTOLAZA, JOSE MARIA | 77 | 191 |
| ESTEBANEZ ZAMONA, ANGEL | 156 | 191 |
| ESTEBEZ ONDATEGI, VICTOR | 86 | 78-79,82, 191-192 |
| ETXABE FURUNDARENA, DIONISIO | 77 | 192 |
| ETXABE MANTEROLA, JOSE MIGUEL | | 114,192 |
| ETXANIZ ITXASO, DOMINGO | | 50,115,192 |
| ETXANIZ ITXASO, EZEKIEL | 77,8 | 192 |
| ETXEBARRIA BERRIO, CONCEPCION | | 72,192 |
| ETXEBARRIA BERRIO, FRANCISCA | | 72,192 |
| ETXEBARRIA BERRIO, ISIDRO | | 192 |
| ETXEBARRIA BERRIO, JUAN | | 72,192 |
| ETXEBARRIA BERRIO, MARIA TERESA | | 72,192 |
| ETXEBARRIA BERRIO, RAMON | | 192 |
| ETXEBE AIZPURUA, HILARIO | | 98,192 |
| ETXEBERRIA ERKIZIA, JOSE MARIA | 77 | 193 |
| ETXEBERRIA GORRITI, ISABEL | 38 | 47,86-91,193 |
| ETXEGOIEN, FERMINA | 83,86 | 193 |
| ETXEZARRETA BERASALUZE, EMILIO | | 193 |
| EZENARRO AZKUE, (JOSE) JOAKIN | 86 | 193-194 |
| EZEIZA, PRISCA | | 194 |

| IZENA / NOMBRE | I. Liburukia / Tomo I | II. Liburukia / Tomo II |
|---|---|---|
| **F** | | |
| FEO ALFONSO, MIGUEL | 159-161 | 194 |
| FURUNDARENA AGIRREBENGOA, AGUSTIN | 86,93,112-113,145 | 194 |
| FURUNDARENA AGIRREBENGOA, PRUDENCIO | 86 | 194 |
| **G** | | |
| GALDOS AZPEITIA, JUAN JOSE | 87 | 114,118,194 |
| GALDOS LANDA, CASILDO | | 114,118, 195 |
| GARATE, AGUSTINA | 39 | 55,195 |
| GARCIA AZPILLAGA, ENRIKE | 87 | 113,195 |
| GARCIA AZPILLAGA, JUAN | 87 | 114,119,195 |
| GARMENDIA LAZKANO, AGUSTINA | 55 | 157,195 |
| GARMENDIA LAZKANO, EUSEBIO | 87,114,122,132,143,145 | 55,77,195 |
| GARRASTAZU ARANGUREN, JUAN (IGNACIO) | 77 | 196 |
| GARRASTAZU ARANGUREN, RAMON | 77 | 196 |
| GARRASTAZU ARRUTI, ANTONIO | 52,87 | 114,119,196 |
| GARRASTAZU ARRUTI, J. IGNACIO | 77 | 196 |
| GARRASTAZU ARRUTI, JOSE MARIA | 77 | 47-50,196 |
| GARRASTAZU OLASKOAGA, JOSE | 87 | 196 |
| GARRASTAZU OLASKOAGA, MIKAELA | | 99,196 |
| GAZTAÑAGA SAN SEBASTIAN, JOSE | 30,58,64 | 94,115,197 |
| GESALAGA ARRIOLA, JOSE | 87 | 72,197 |
| GIBERT EZEIZA, MARCELO | | 22-23,197 |
| GIBERT TOBAR, JOSE ANTONIO | 77 | 197 |
| GOICOECHEA IDIAQUEZ, JOSE AGUSTIN | | 10-12,115,197 |
| GOMEZ DIAZ, RAMON | | 197 |
| GOROSTEGI, IGNACIO | | 197 |
| GOROSTIAGA ETXEBERRIA, MANUEL "PIARRES" | 27 | 8,14,26,94,116,139,197 |
| GOROSTIDI LARUNBIDE, FRANCISCO | 77 | 197 |
| **H** | | |
| HUEGUN HUEGUN, JOSE MARIA | | 133,198 |
| **I** | | |
| IBAÑEZ ORUETA, JOSE LINO | 156 | 198 |
| IBARBIA SUBIÑAS, FRANCISCO | | 198 |
| IBARBIA SUBIÑAS,JOSE | 87,125-126,128,145 | 198 |
| IBARGUREN LARRAÑAGA, ANGEL | 77 | 198 |
| IDIAKEZ INDO, CECILIO | 20,23,27,30,40-51,57,60,64-65,69 | 8,98-99,198 |
| IDIAKEZ INDO, FRANCISCO | 40-51,60-61,87 | 114,199 |
| IDIAKEZ INDO, MARIA | 35 | 40,55,72,199 |
| IDIAKEZ INDO, MERCEDES | | 52,55-56,72,199 |

| IZENA / NOMBRE | I. Liburukia / Tomo I | II. Liburukia / Tomo II |
|---|---|---|
| IDIAKEZ INDO, "REMI" | | 36,52,55-56,57-74,98,125,156,199 |
| ILLARRAMENDI ARAKISTAIN, JOSE | | 199 |
| ILLARRAMENDI ARAKISTAIN, JOSE ANTONIO | 87 | 113,199 |
| ILLARRAMENDI ARAKISTAIN, DONATO | | 200 |
| ILLARRAMENDI GALDOS, PAULINA | | 72,200 |
| INCHAURRANDIETA ARRECHE, LUIS "TXAPO" | 77-78 | 14,28-31,200 |
| INDO, JOSEFINA ANTONIA | | 200 |
| INTXAURRONDO DANBOLENA, EUGENIO | | 200 |
| INTXAURRONDO DANBOLENA, MARTIN HILARIO | | 113,200 |
| IÑARRA, FRANCISCO | | 200 |
| IÑARRA ETXABE, JOSE | | 72,201 |
| IÑARRA ETXABE, MAURICIO | | 72,201 |
| IÑARRA ETXABE, MIGUEL | 87 | 72,78-79,82,114,119,128,201 |
| IÑARRA ESNAL, JOSE MIGUEL | 87,102-103,138,141,145,148 | 201 |
| IÑARRA MAYOR, JOSE | 87,143 | 75,77,114,201 |
| IÑARRA MAYOZ, JOAKIN | | 201 |
| IÑARRA MAYOZ, JOSE MIGUEL | | 201 |
| IRAUNDEGI IBARRA, VICENTE | 158-159 | 26,100,103,105,108,114-115,117,120,127-128,202 |
| IRIBAR, JOSE DOMINGO | | 94,202 |
| IRIBAR AGIRRE, FRANCISCO | | 202 |
| IRIBAR AIZPURUA, IGNACIO | 156 | 202 |
| IRIBAR AIZPURUA, SEBASTIAN | | 202 |
| IRIBAR AREIZAGA, ANGELA | | 52,55-56,61,73,98,202 |
| IRIBAR AREIZAGA, ANICETO | 77 | 203 |
| IRIBAR AREIZAGA, JOSE CRUZ | 156 | 203 |
| IRIBAR AREIZAGA, JUAN | 76,156 | 203 |
| IRIBAR AREIZAGA, VICTOR | 76-77,156 | 120,203 |
| IRIBAR ARREGI, GABRIEL | 77 | 203 |
| IRIBAR GALARRAGA, CELEDONIO | 81 | 203 |
| IRIBAR ULAZIA, SEBASTIAN | 20-21,23,64,69 | 8,203 |
| IRIBAR ZULAIKA, CLAUDIO | 77 | 203 |
| IRIBAR ZULAIKA, FRANCISCO | 87,125-126,145 | 114,204 |
| IRIBAR ZULAIKA, PELAYO | | 204 |
| IRIBAR ZULAIKA, SILVESTRE | 87,115,120,122-124,132,145 | 204 |
| IRIBARTE AZPEITIA, JUAN JOSE | | 204 |
| IRIGOIEN ARRIZABALAGA, TEODORO | | 204 |

| IZENA / NOMBRE | I. Liburukia / Tomo I | II. Liburukia / Tomo II |
|---|---|---|
| IRIGOIEN ARRIZABALAGA, VICTORIANO | 77 | 131,204-205 |
| IRIGOIEN AZPIAZU, JOSE FRANCISCO | 77 | 205 |
| IRIGOIEN EGAÑA, JUAN MANUEL | | 73,99-100, 113,153,205 |
| IRIGOIEN LAZKANO, BENJAMIN | | 73,205 |
| IRIGOIEN LAZKANO, EMILIO | | 73,205 |
| IRIGOIEN LAZKANO, EUSEBIO | | 73,206 |
| IRIGOIEN LAZKANO, JUAN JOSE | | 206 |
| IRIGOIEN LAZKANO, MARCIELA | | 73,206 |
| IRIGOIEN LAZKANO, MARIA TERESA | | 73,206 |
| IRIGOIEN LAZKANO, MARIANO | | 73,206 |
| IRIGOIEN LAZKANO, SANTOS | | 73,206 |
| IRIONDO EMBIL, KANDIDO | 87 | 206 |
| IRIONDO MUGERZA, JUAN | | 84,91-94,207 |
| IRIONDO REMENTERIA, CIPRIANO | 87 | 116,121,207 |
| IRURETA GOMEZ, ANGEL | | 98,207 |
| IRURETA GOMEZ, JOSE | | 134,207 |
| IRURETAGOIENA ARREGI, ANTONIO | 77,155 | 207 |
| IRURETAGOIENA ARREGI, JOSE FRANCISCO | 77 | 207 |
| IRURETAGOIENA KEREJETA, JOSE | | 99,101,207 |
| IRURETAGOIENA OLANO, JOSE MARIA | | 73,208 |
| IRURETAGOIENA OLANO, MARIA ANGELES | | 73,208 |
| IRURETAGOIENA OLANO, MARIA (MIREN) | | 31-32, 57-74,208 |
| IRURETAGOIENA OLASKOAGA, JOSE JOAKIN | | 136,208 |
| IRURETAGOIENA REMENTERIA, JUANITO | | 19,209 |
| IRURETAGOIENA URBIETA, MARIA | | 209 |
| ISASTI AIZPURU, EMETERIO | | 73,209 |
| ISASTI AIZPURU, FRANCISCO | 87 | 209 |
| ISASTI AIZPURUA, IGNACIO | | 73,209 |
| ISASTI AIZPURU, SILVESTRE | | 209 |
| ISASTI AZPEITIA, JOSE | 20-21,23, 64,69 | 8,209 |
| ISASTI ELOSUA, GREGORIO | 156 | 209 |
| ISASTI URANGA, CASIMIRO | | 209 |
| ISASTI URANGA, EMETERIO | | 44,85,91-94, 210 |
| ISASTI URANGA, GREGORIO | 87,15 | 210 |
| ISASTI URANGA, NAZARIO | 87 | 82,210 |
| ITUARTE BENGOETXEA, ATANASIO | | 210 |
| ITUARTE ETXEBARRIA, ANTONIO | 87,102-103, 138,140-141, 145,148-149 | 210 |
| ITUARTE ETXEBARRIA, JOSE | 87,114,122 145 | 114,210 |
| ITUARTE ETXEBARRIA, JOSE LUIS | | 73,210-211 |
| ITUARTE ETXEBARRIA, LUIS | | 211 |
| ITUARTE ETXEBARRIA, MIGUEL | 87 | 211 |

| IZENA / NOMBRE | I. Liburukia / Tomo I | II. Liburukia / Tomo II |
|---|---|---|
| ITUARTE ETXEBARRIA, PEDRO | 87 | 113,211 |
| ITUARTE ESNAL, ITZIAR | | 73,211 |
| ITUARTE ESNAL, LORE | | 73,211 |
| ITUARTE URBIETA, ANTONIO | 87 | 73,211 |
| ITURBE, SATURNINO | | 211 |
| ITURBE EGAÑA, JUAN | 87 | 113,121,211 |
| ITURBE GALARRAGA, ANICETO | 87 | 212 |
| ITURRINO ARANGUREN, LUIS | 87 | 212 |
| ITURRINO AZPEITIA, AGUSTIN | | 19,212 |
| ITURZAETA BASURTO, ASCENSIO | 156 | 212 |
| ITURZAETA BASURTO, TORIBIO | 156 | 212 |
| ITURZAETA GEZALAGA, RAFAEL | | 114,212 |
| **J** | | |
| JIMENO, FACUNDO | | 19,212 |
| JIMENO, JOSE MARIA | | 19,212 |
| JIMENO ALBERDI, MARCELINO | | 19,212 |
| JIMENO BAKAIKOA, PEDRO | | 212 |
| JIMENO OSES, ALEJO | 52-53,56, 68,158 | 10-11,14-15, 105,116,127, 213 |
| **K** | | |
| KAMIO UZIN, ATANASIO | 87,105-106, 132,138-139, 145 | 213 |
| KAMIO UZIN, FRANCISCO | 87,110,145 | 213 |
| KAMIO UZIN, TOMAS | 87,115,122, 124,127,145, 150 | 213 |
| KEREJETA AGOTE, CIPRIANO | 156 | 73,214 |
| KEREJETA AGOTE, GERARDO | 87,114,124, 132,145 | 73,214 |
| KEREJETA AGOTE, NIKASIO | 87,100-101, 138,145 | 66,73,214 |
| KEREJETA ALZAGA, NEKANE | | 52,214 |
| KEREJETA URRESTI, BAUTISTA | | 18,52,57-74,154,214 |
| KEREJETA URRESTI, JOSE ANGEL | | 52-53,57-74,148,215 |
| KEREJETA URRESTI, MIREN | | 52,57-74,215 |
| KEREJETA URRESTI, RAIMUNDO | | 52,57-74,215 |
| **L** | | |
| LABRADOR DIEZ, JOSE CIPRIANO | | 141,215 |
| LARRAMENDI ARRAIZ, JOSE MARIA | 52,87 | 113,122,215-216 |
| LARRAÑAGA, JOSE | | 216 |
| LARRAÑAGA, JOSE | | 216 |
| LARRAÑAGA, IGNACIO | | 216 |
| LARRAÑAGA, NAZARIA | | 73,98,216 |
| LARRAÑAGA, SATURNINO | | 216 |
| LARRAÑAGA AMEZTI, JUAN (JOSE) | 76-77 | 132,216 |

| IZENA / NOMBRE | I. Liburukia / Tomo I | II. Liburukia / Tomo II |
|---|---|---|
| LARRAÑAGA ARANBERRI, EZEKIEL | | 216 |
| LARRAÑAGA ARANBERRI, JOAKIN | 76-77 | 12,115,216 |
| LARRAÑAGA ARANBURU, ISIDRO | | 217 |
| LARRAÑAGA ARANBURU, JOSE MARIA | 52,80-81, 87,156 | 122,217 |
| LARRAÑAGA ARANBURU, JULIAN | 20-21, 23,58,66 | 217 |
| LARRAÑAGA ARREGI, JOSE | | 44,115,218 |
| LARRAÑAGA AZPEITIA, BERNARDINO | | 218 |
| LARRAÑAGA AZPEITIA, FERMIN | | 218 |
| LARRAÑAGA AZPEITIA, IGNACIO MARIA | 87,127,145 | 218 |
| LARRAÑAGA AZPEITIA, JOSE | 87,104,121, 145 | 218 |
| LARRAÑAGA AZPEITIA, JUAN | 87 | 218 |
| LARRAÑAGA AZPEITIA, SERAPIO | | 218 |
| LARRAÑAGA AZPEITIA, SILVESTRE | | 218 |
| LARRAÑAGA IRURE, PEDRO JOSE | | 218 |
| LARRAÑAGA IRURE, SERAPIO | | 219 |
| LARRAÑAGA UZIN, DAMIANA | | 219 |
| LARRAÑAGA UZIN, JOSE | 77 | 219 |
| LARRAÑAGA UZIN, IGNACIO | | 115,219 |
| LARRAÑAGA UZIN, SATURNINO | 66 | 219 |
| LARRAÑAGA ZULAIKA, JOSE MIGUEL | | 219 |
| LARREA EPELA, NIKASIO | 34 | 73,219 |
| LASA MURUA, MARTIN | | 73,219 |
| LASA ZUMETA, FRANCISCA | | 219 |
| LASAGA INZA, DOMINGO | 87 | 219 |
| LAURGAIN PIOZAGA, JOSE ANTONIO | 156 | 122,219-220 |
| LAZKANO AZKUE, JOSE | 77 | 220 |
| LAZKANO BASURTO, RUFINA | | 56,73,220 |
| LAZKANO OSA, ANGEL | | 19,220 |
| LAZKANO ULAZIA, CIRILO | | 220 |
| LAZKANO ULAZIA, DAMIAN | 156 | 220 |
| LEKUBE BURGAÑA, CALISTO | 87 | 123,220-221 |
| LEKUBE BURGAÑA, JULIAN "GALLEGO" | 87,103,138, 141,145,149 | 114,221 |
| LEKUBE GOENAGA, ANAKLETO | | 221 |
| LEKUBE GOENAGA, IGNACIO | 87,108-109, 136,145,150 | 221 |
| LERSUNDI ORUETA, MANUEL | 158-161 | 222 |
| LETE CORREA, PEDRO | 87,110,132, 143,145 | 75,77,113,147, 222 |
| LETE MENDIZABAL, IONE | | 52,222 |
| LOMA AZKAGA, LUIS | 87 | 222 |
| LOPEZ, ALFONSO | 88 | 223 |
| LOPEZ AZPEITIA, ANTONIO | | 52,73,223 |
| LOPEZ GARCIA, GERMAN | 156 | 223 |
| LOPEZ HERNANDEZ, JUSTO | | 73,114,118,223 |
| LULOAGA AGOTE, ROMAN | 88 | 113-114,122, 223 |

| IZENA / NOMBRE | I. Liburukia / Tomo I | II. Liburukia / Tomo II |
|---|---|---|
| **M** | | |
| MANTEROLA, MANUEL ANICETO | | 224 |
| MANTEROLA AGOTE, CRESCENCIO | | 224 |
| MANTEROLA AGOTE, GUADALUPE | | 52,55,224 |
| MANTEROLA AGOTE, ENRIKE | 88,103,138, 141-142,145, 149 | 114,224 |
| MANTEROLA AGOTE, JUAN MARIA | 77 | 224 |
| MANTEROLA EGURBIDE, RAMON | | 9-11,14,50, 224-225 |
| MANTEROLA LARRAÑAGA, AGUSTIN | | 19,225 |
| MANTEROLA LARRAÑAGA, AURORA | | 225 |
| MANTEROLA LARRAÑAGA,EPIFANO | | 19,225 |
| MANTEROLA LARRAÑAGA, JESUSA | | 225 |
| MANTEROLA LARRAÑAGA, SATURNINO | 76-77 | 225 |
| MANTEROLA IRURE, DIONISIO | | 225 |
| MANZISIDOR ALBISU, JOSE | | 225 |
| MANZISIDOR ALBISU, SATURNINO | | 225 |
| MARTIKORENA BASURTO, ANGEL | | 225 |
| MARTIN VIRSEDA, SANTIAGO | | 85,97,226 |
| MARTINEZ GIL, JULIAN | 39,80,88 | 85-86,98, 113-114,123- 124,226 |
| MARTINEZ SEGURA, PEDRO | 77 | 226 |
| MAYOZ OTAEGI, JOSE FRANCISCO | | 226 |
| MAYOZ PEÑA, BERNABE | 77,155 | 226 |
| MENDIZABAL ALBERDI, MANUEL | 88,120,145 | 226 |
| MENDIZABAL GALDOS, ANA | | 52,55-56,226 |
| MENDIZABAL IRIBAR, JOSE AGUSTIN | | 227 |
| MENDOZA MARTINEZ, DEMETRIO | 88 | 114,227 |
| MENTERA SEMILLERA, MIGUEL | | 227 |
| MITXELENA IRIBAR, BALTASAR | 156 | 227 |
| MITXELENA ZUMETA, TEODORO | | 135,227 |
| MIRASOLAIN, AGUSTIN ANDRES | 88 | 113,227 |
| MIRASOLAIN FERNANDEZ, ENRIKE | | 227 |
| MOLET GARATE, BASILIO | 88 | 227 |
| MOLET GARATE, LEONOR | | 14-15,30, 42,228 |
| MUGERZA BELAUSTEGI, LUCIO | 88,151 | 114,228 |
| MUGERZA OSTOLAZA, JUAN JOSE | | 228 |
| MURGA MUNILLA, RAMONA | | 228 |
| **N** | | |
| NIETO AGUADO, RAMON | | 94,124,136, 228 |
| NIETO RUIZ, FRANCISCO | | 97,228 |
| **O** | | |
| ODRIOZOLA LARRAÑAGA, JOSE | 156 | 228 |
| OIARBIDE BERASATEGI, VALENTIN | | 229 |

| IZENA / NOMBRE | I. Liburukia / Tomo I | II. Liburukia / Tomo II |
|---|---|---|
| OIARZABAL AGIRRE, JOSEFA | | 55-56,57-74,149,229 |
| OIARZABAL AGIRRE, JUAN BAUTISTA | 88 | 36,85,95,98,125,156,229 |
| OIARZABAL IDIAKEZ, AGURNE | | 52,229 |
| OIARZABAL IDIAKEZ, ARANTZA | | 52,57-74,229 |
| OIARZABAL IDIAKEZ, KONTXITA | | 30,52,57-74,229 |
| OKIÑENA, JOSE | | 230 |
| OLABERRIA ARANBURU, EUGENIO | | 230 |
| OLAIZOLA BALERDI, MARTINA | | 230 |
| OLAIZOLA ETXABE, MANUEL | | 230 |
| OLAIZOLA IRURETAGOIENA, IGNACIO | | 230 |
| OLAIZOLA IRURETAGOIENA, JOSE FRANCISCO | | 113,230 |
| OLAIZOLA IRURETAGOIENA, MARCIAL | 88 | 113,125,231 |
| OLAIZOLA IRURETAGOIENA, MANUEL | 77 | 231 |
| OLANO ****, JOSEFA | | 47,57-74,136,231 |
| OLASKOAGA, JOSE MARIA | 88 | 231 |
| OLASKOAGA ARREGI, EMILIO | | 231 |
| OLASKOAGA AZKUE, LUZIANO | | 231 |
| OLASKOAGA EIZAGIRRE, EUGENIO | | 232 |
| OLASKOAGA EIZAGIRRE, IGNACIO | | 232 |
| OLASKOAGA LAZKANO, BARTOLOME | | 113,232 |
| OLASKOAGA LOPETEGI, PEDRO | | 232 |
| OLASKOAGA ZUBIMENDI, EMILIO | 88 | 113,232 |
| OLASKOAGA ZUBIMENDI, EUGENIO | | 232 |
| OLASKOAGA ZUBIMENDI, JOSE AGUSTIN | 88,115-116,137,146,151 | 232 |
| OLASKOAGA ZUBIMENDI, JOSE MARIA | 88,105-106,132,138-139,143,146 | 75,77-78,232 |
| OLAZIREGI ALZAGA, IGNACIO | 88,151 | 233 |
| OLIBE PRIETO, FEDERICO | | 94,233 |
| OLIDEN ALKORTA, JOSE MARIA | 88 | 101,114-115,126,233 |
| OLLOKIEGI IBARBIA, CECILIO | | 19,233 |
| ORDOZKITI ARRUTI, JOSE | | 233 |
| ORLANDO TESSO, CARLOS GERO | | 234 |
| ORLANDO GUZMAN, SALVADOR | 81 | 233 |
| ORTE, TIMOTEO | | 135,234 |
| ORTEGA SODUPE, MAXIMA | 39 | 234 |
| OSTOLAZA ILLARRAMENDI, IGNACIO | | 112-113,234 |
| OTAMENDI ESNAL, ANTONIO | | 234 |
| OTAMENDI ESNAL, TOMAS | | 114,234 |
| OTAMENDI ILLARRAMENDI, BERNARDO | 88,151 | 234 |
| OTAMENDI ILLARRAMENDI, DIONISIO | 77 | 234 |
| OTEGI CAMPOS, SANTIAGO | | 234 |
| **P** | | |
| PEREZ ARANBURU, EDUARDO | 156 | 235 |
| PEREZ EURAZABAL, MANUEL | 156 | 235 |
| PEREZ EURAZABAL, ROBUSTIANO | 156 | 235 |
| PILLADO FERNANDEZ, ANTONIO | 77 | 235 |
| PORRAS RODRIGUEZ, GUILLERMO | | 235 |
| **Q** | | |
| QUEREJETA QUEREJETA, PEDRO | | 12,14,16,36,115,235 |
| **R** | | |
| RICA JUARISTI, JOSE LUIS | 77 | 235 |
| RICA URBIETA, JUANA | | 73,236 |
| RODRIGUEZ IBAZETA, FERNANDO | | 236 |
| **S** | | |
| SAINZ MARTINEZ, SATURNINO | | 236 |
| SALES ETXABE, FRANCISCO | | 98,236 |
| SALVADOR MANSO, TOMAS | | 85,97,236 |
| SAMANIEGO ALKORTA, FELICITAS | | 236 |
| SÁNCHEZ GARCÍA, FERNANDO | 39 | 45,124,236 |
| SAN MARTIN MURUA, JOSE | 76-77 | 236 |
| SANSINENENA GOÑI, JUAN MIGUEL | | 98,237 |
| SANTAMARIA IDIAKEZ, VICENTE | | 73,237 |
| SARASKETA, PEDRO | 88 | 237 |
| SASIAIN GARMENDIA, KARMEN | | 47,55,86,237 |
| SEBAL AGIRRE, TOMAS | 88 | 114,126,237 |
| SESMA SOROZABAL, EUSTAKIO (EDUR) | 88 | 237 |
| SETIEN CALVO, JUAN | 52,80,88 | 26,101,113,115,117,120,127,237-238 |
| SETIEN CALVO, PEDRO | 52,80,88,158-159 | 79,82,238 |
| SILBETI, KRISTINA | | 238 |
| SILBETI, CRESCENCIO | | 238 |
| SILBETI OLASKOAGA, ESTEBAN | | 238 |
| SOLANA PERAL, IÑIGO | | 98,238 |
| SORAZU, PEDRO | | 239 |
| SORAZU FURUNDARENA, FRANCISCO | | 115,119,128,239 |
| SORAZU FURUNDARENA, JOSE | | 239 |
| SORAZU LARRAÑAGA, VICENTE | | 239 |
| SUSTAETA AZKARRAGA, JESUSA | | 239 |
| SUSTAETA AZKARRAGA, JUSTINA | | 52,55-56,67,73,239 |
| SUSTAETA AZKARRAGA, VICTORIANO | 88,115,123,132,143,146 | 75,77-78,239 |
| SUSTAETA URKIDI, ANDRES | 88,121,146 | 240 |

| IZENA / NOMBRE | I. Liburukia / Tomo I | II. Liburukia / Tomo II |
|---|---|---|
| **T** | | |
| TOLOSA ***, EULALI | | 43,240 |
| TORRES RODRIGUEZ, LUIS | | 136,240 |
| **U** | | |
| UGARTE EZEIZA, LEONCIO | 78 | 240 |
| UGARTE UNANUE, LEONCIO | | 94,240 |
| UGARTE, CARMEN | | 14-15,30,240 |
| ULAZIA, MARIANO | | 241 |
| ULAZIA ARREGI, IGNACIO | | 240 |
| ULAZIA ESNAL, CESAREO | | 240 |
| ULAZIA IÑARRA, JOAKIN | | 241 |
| ULAZIA OLARRA, IGNACIO | | 241 |
| ULAZIA OSTOLAZA, DIONISIO | | 74,241 |
| ULAZIA SORAZU, IGNACIO | | 19,241 |
| ULAZIA UNANUE, JULIAN | 20,23,58,59, 65-66,69 | 8,241 |
| ULAZIA UNANUE, SEBASTIAN | | 241 |
| URANGA OLASKOAGA, ESTEBAN | | 115,129,241 |
| URANGA OLASKOAGA, FAUSTINA | | 55,241 |
| URANGA OLASKOAGA, JOSE DOMINGO | 88,117,120, 125,146 | 241,242 |
| URANGA OLASKOAGA, KARMEN | | 55-56,99,242 |
| URANGA OLASKOAGA, ROSARIO | 35 | 40,43-44, 55,242 |
| URANGA SILBETI, ESTEBAN | | 74,242 |
| URANGA SILBETI, JOSE DOMINGO | | 242 |
| URANGA SILBETI, JUSTO | 88 | 113,242 |
| URANGA URREZBERUETA, AGUSTIN | | 242 |
| URBIETA BURGAÑA, ANTONIA | | 74,243 |
| URBIETA BURGAÑA, GREGORIO | | 74,243 |
| URBIETA BURGAÑA, JUAN MARI | | 74,243 |
| URBIETA BURGAÑA, MARITXU | | 74,243 |
| URBIETA BURGAÑA, TOMAS | | 74,243 |
| URBIETA EMBIL, PRIMITIVO | 20-21,23,58, 66,69 | 8,74,243 |
| URBIETA ESNAL, FERMINA | | 74,243 |
| URDANPILLETA, IGNACIO | | 244 |
| URKIDI ARRIETA, BIENVENIDO | 88,108-109, 136,146,147, 151 | 244 |
| URRESTI ANDONEGI, AGUSTIN | 88 | 244 |
| URRESTI ANDONEGI, HIPOLITA | | 52-74,148,244 |
| URRESTI ANDONEGI, JOSE | 88,112-113, 143,146 | 115,129-130,157,244 |
| URRESTI ANDONEGI, MARIA JOSE | | 102,244 |
| USOBIAGA MARTIARENA, IGNACIO | | 97,245 |
| USOBIAGA ZABALA, ANTONIO | | 135,245 |
| UZIN, IGNACIO | | 9-11,50,245 |

| IZENA / NOMBRE | I. Liburukia / Tomo I | II. Liburukia / Tomo II |
|---|---|---|
| UZIN ALBIZU, ANA | | 35,51-74,158,245 |
| UZIN ALBIZU, FLORENCIO (PRUDENCIO) | | 51-74,245 |
| UZIN ALBIZU, MARIA CRUZ | | 51-74,245 |
| UZIN ALBIZU, SALVADOR | | 51-74,245-246 |
| UZIN ALBIZU, SIMON | | 51-74,246 |
| UZIN ALKORTA, JOSE DOMINGO | 88,119-121, 131,146 | 158,246 |
| UZIN ALKORTA, PRUDENCIO | 88,125-126, 128,146 | 246 |
| UZIN BERASALUZE, FERMIN | | 43-44,247 |
| UZIN BERASALUZE, JOSE DOMINGO | 88,104,111, 127,146 | 83,247 |
| UZIN BERASALUZE, SALVADOR | 88,119-120, 132,146 | 247 |
| UZIN ESNAL, GENARO | | 115,247 |
| UZIN IRURETAGOIENA, JOSE | 78 | 247 |
| **V** | | |
| VICUÑA MEJIAS, FRANCISCO JAVIER | | 247 |
| VIEJO ARAGON, MODESTO | 52,88 | 115,248 |
| VILLAVERDE PURAS, ANA | | 47,55,74,86, 98,124,248 |
| **Z** | | |
| ZAYA SANCHO, JOSE MARIA | 88,143 | 75,77-78,248 |
| ZELAIA AZPILLAGA, TERESA | | 55,248 |
| ZENOSIAIN EIZAGIRRE, MIREN EDURNE | | 52,74,248 |
| ZINKUNEGI, IGNACIA | | 248 |
| ZUBIAGA, ANTONIO | | 135,248 |
| ZUBIMENDI, JAIME | | 249 |
| ZUBIMENDI EIZAGIRRE, IGNACIA | | 55,74,249 |
| ZUBIMENDI ESNAL, JOSE ANTONIO | 78 | 249 |
| ZUBIMENDI EZENARRO, JOSE MARIA | 76,78 | 249 |
| ZUBIMENDI LARRAÑAGA, IGNACIA | | 52,55,74,249 |
| ZUBIZARRETA AREIZAGA, GREGORIO | | 94,135,249 |
| ZUBIZARRETA GESALAGA, TOMAS | | 249 |
| ZUBIZARRETA LARRAÑAGA, IÑAKI | | 63-65,74,249 |
| ZUBIZARRETA LARRAÑAGA, JON | | 63-65,74,249 |
| ZUBIZARRETA LARRAÑAGA, LORENZO | 78 | 249-250 |
| ZUBURKERIA ETXEBERRIA, LEON | 88 | 250 |
| ZUMETA ALBERDI, ANICETO | | 250 |
| ZUMETA ALBERDI, RESURRECCIÓN | 52 | 250 |

# ITURRIAK ETA BIBLIOGRAFIA



## AGIRITEGIAK / ARCHIVOS

Alegiako Udal-Agiritegia / Archivo Municipal de Alegia
Azkoitiako Udal-Agiritegia / Archivo Municipal de Azkoitia
Getariako Udal-Agiritegia / Archivo Municipal de Getaria
Orioko Udal-Agiritegia / Archivo Municipal de Orio.
Errenteriako Erregistro Zibila / Registro Civil de Errenteria
Getariako Erregistro Zibila / Registro Civil de Getaria
Zumaiako Erregistro Zibila / Registro Civil de Zumaia
Administrazioaren Agiritegi Orokorra / Archivo General Militar de la Administración
Aranzadi Zientzia Elkartea / Sociedad de Ciencias Aranzadi
Artxibo Historiko Nazionala /Archivo Histórico Nacional
Avilako Agiritegi Militar Nagusia / Archivo General Militar de Ávila (AGMAV)
Bizkaiko Probintziako Artxibo Historikoa / Archivo Histórico Provincial de Bizkaia
Erorien Haraneko Benediktarren Abadiako Agiritegia / Archivo de la Abadía de los Benedictinos del Valle de los Caídos, Cuelgamuros (AABVC)
Euskadiko Artxibo Historikoa / Archivo Histórico de Euskadi
Euskadiko Dokumentu Ondarearen Zentroa / Centro de Patrimonio Documental de Euskadi
Euskal Ikasketetarako Fundazio Popularra / Fundación Popular de Estudios Vascos
Euskal Memoria Fundazioa
Ipar-Mendebaldeko Eskualde Militarreko Tarteko Artxiboa, Ferrol / Archivo Intermedio de la Región Militar Noroeste, Ferrol (AIRMN)
Gipuzkoako Artxibo Orokorra / Archivo General de Gipuzkoa
Gipuzkoako Probintziako Artxibo Historikoa / Archivo Histórico Provincial de Gipuzkoa
Gogora: Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutua / Gogora: Instituto de la Memoria, la Convivencia y los Derechos Humanos
Guadalajarako Agiritegi Militar Nagusia / Archivo General Militar de Guadalarajara (AGMA)
Memoria Historikoaren Zentro Dokumentala / Centro Documental de la Memoria Histórica
Nafarroako Agiritegi Irekia / Archivo Abierto de Navarra
Renoko Unibertsitatea / Universidad de Reno
Sabino Arana Fundazioa-Euskal Abertzaletasunaren Agiritegia / Sabino Arana Fundazioa-Archivo del Nacionalismo Vasco

## HEMEROTEKA / HEMEROTECA

ABC. Hemeroteka Digitala / ABC. Hemeroteca Digital
Ahora, Madrid
Diario de Burgos
Donostiako Liburutegi Digitala / Biblioteca Digital de Donostia
El Día
El Diario Vasco
Eguna
Espainiako Liburutegi Nazionala. Hemeroteka Digitala / Biblioteca Nacional de España. Hemeroteca Digital
Euzkadi
Gaceta
Gipuzkoako Foru Aldundia. Hemeroteka Digitala / Diputación Foral de Gipuzkoa. Hemeroteca Digital
Koldo Mitxelena Kulturunea
La Constancia
La Vanguardia. Hemeroteka Digitala / La Vanguardia. Hemeroteca Digital
La Voz de Guipúzcoa
La Voz de España

## BULETINAK / BOLETINES

Estatuko Aldizkari Ofiziala / Boletín Oficial del Estado (BOE)
Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala / Boletín Oficial de Gipuzkoa (BOG)

## BIBLIOGRAFIA / BIBLIOGRAFÍA

Aguirre Sorondo, A., 2000. Getaria, itsasoaren, zeruaren eta mendiaren artean. Getariako Udala, Getaria.

Aguirre Sorondo, A., 2010. De albeitares y herreros. Herradores de Guipuzcoa por localidades. Boletín de Estudios Históricos sobre San Sebastián 43, 149-346.

Alonso Carballés, J.J., 1998. 1937 Los niños vascos evacuados a Francia y Bélgica: historia y memoria de un éxodo infantil, 1936-1940. Asociación de Niños Evacuados el 37.

Almorza Arrieta, K., Buces Cabello, J., 2016. Saseta Defentsa-Sistema. Aranzadi Zientzia Elkartea, Donostia.

Aranbarri Etxaniz, S., 1989. Anai arteko borroka Azkoitian, 1936-1939. S. Aranbarri, Donostia.

Aranzadi Zientzia Elkartea, Beledo, A., Egaña, I., Martín, C., Zato, M., 2010. Gipuzkoa: udal errepublikanoetatik frankistetara 1936-1937. Aranzadi Zientzia Elkartea, Donostia.

Aritzabaleta Gantxegi, I., 2019. Deba 1936-1945: Giza Eskubideen zapalketa eta errepresioa Gerra Zibilean eta Lehen Frankismoan. Aranzadi Zientzia Elkartea, Donostia.

Aróstegui Sánchez, J., 2013. Combatientes requetés en la Guerra Civil española (1936-1939). La esfera de los libros, Madrid.

Badiola Ariztimuño, A., 2012. Cárceles y campos de concentración en Bizkaia: 1937-1940. Txertoa, Donostia.

Barranquero Texeira, E., Prieto Borrego, L., 2004. Las mujeres durante la Segunda República: trabajo y vida cotidiana. In: Morales Muñoz, M. (coord.), La Segunda República. Historia y memoria de una experiencia democrática, 125-145. Diputación de Málaga.

Barruso Barés, P., 1995. Verano y Revolución. La Guerra Civil en Gipuzkoa. Haranburu, Donostia.

Barruso Barés, P., 1996. El movimiento obrero durante la II República: organizaciones obreras y dinámica sindical (1931-1936). Diputación Foral de Guipúzcoa, Departamento de Economía y Turismo, Donostia.

Beaumont Esandi, E., Mendiola Gonzalo, F., 2004. Batallones disciplinarios de soldados trabajadores: castigo político, trabajos forzados y cautividad. Revista de historia actual 2, 31-48.

Buces Cabello, J., 2016. Azpeitia 1936-1945: Giza Eskubideen zapalketa eta errepresioa Gerra Zibilean eta Lehen Frankismoan. Aranzadi Zientzia Elkartea, Donostia.

Calleja, E.G., Aróstegui Sánchez, J., 1994. La tradición recuperada: el Requeté carlista y la insurrección. Historia Contemporánea 11, 29-54.

Castro, R., 1998. Juan María Bandrés. Memorias para la paz. Hijos de Muley Rubio, Madrid.

De Mora Vaquerizo, J.M., 2001. Los muertos estaban quietos. Universidad Autónoma de México, México.

Del Arco y Blanco, M.A., Gómez Oliver, M.A., 2005. El estraperlo: forma de resistencia y arma de represión en el Primer Franquismo. Studia historica. Historia contemporánea 23, 179-199.

Del Arco y Blanco, M.A., 2010. El estraperlo: pieza clave en la estabilización del régimen franquista. Historia del Presente 15, 65-78.

Díaz Freire, J.J., 1999. La reforma de la vida cotidiana y el cuerpo femenino durante la dictadura de Primo de Rivera. In: El Rumor de lo Cotidiano: Estudios sobre el País Vasco Contemporáneo. Euskal Herriko Unibertsitatea, Bilbo.

Di Febo, G., 2003. Nuevo Estado, nacionalcatolicismo y género. In: Mujeres y hombres en la España franquista: sociedad, economía, política, cultura, 19-44. Editorial Complutense, Madrid.

Domingo Cuadriello, J., 2009. El exilio Republicano Español en Cuba. Siglo XXI, Madrid.

Egaña, I., 1999. 1936 Guerra Civil en Euskal Herria. (IV lib., La Guerra en Gipuzkoa). Aise liburuak, Andoain.

Espuelas, S., 2008. La creación del seguro de desempleo en la II República. Un análisis de su impacto y de por qué fue voluntario. Universidad de Barcelona. Eskuragarri hemen: https://www.aehe.es/wp-content/uploads/2008/09/La-creacion-del-seguro.pdf

Etxaniz Makazaga, J.M., 2000. Veterinarios en el exilio como consecuencia de la Guerra Civil 1936-1939. Boletín de la Real Sociedad Bascongada de Amigos del País 56(2), 399-442.

Gómez Escarda, M., 2008. La mujer en la propaganda política republicana de la Guerra Civil española. Barataria: Revista castellano-manchega de ciencias sociales 9, 83-101.

Gurrutxaga Uranga, A., 2017. Zarauzko gutunak: 36ko gerra. Zarautz.

Irigoras, A., 2017. Kaleko zegamarrak Herri zapalkuntzaren lekuko batzuk (II). Indarkeria politikoaren eragina zegamarrongan 1936-2016.

Irujo, M., 1978. La Guerra Civil en Euzkadi antes del Estatuto. Kirikiño argitaraldia.

Irujo, X., 2017. La verdad alternativa: 30 mentiras sobre el bombardeo de Gernika. Txertoa, Donostia.

Joly, M., 2008. Las violencias sexuadas de la Guerra Civil española: paradigma para una lectura cultural del conflicto. Historia Social 61, 89-107.

Kortazar Billelabeitia, J., 2018. Frankistak Beasainen. Uztailaren 27ko gau beltza eta errepresioa (III. Liburukia). Aranzadi Zientzia Elkartea, Donostia.

Martín Bastos, J., 2015. Badajoz: tierra quemada. Muertes a causa de la represión franquista 1936-1950. PREMHEX, Badajoz.

Martinez, M., Mendaza, D., Egaña, I., 2000. 1936 Guerra Civil en Euskal Herria. Aralar Liburuak, Andoain.

Narbaiza Azkue, A., 2010. Periko Kintana, itsagizona eta gudaria. Itxaropena, Zarautz.

Nash, M., 2000. Rojas: Las mujeres republicanas en la Guerra Civil. Taurus, Madrid.

Pardo San Gil, J., 1998. Euzkadiko Gudontzidia=La Marina de Guerra Auxiliar de Euzkadi. Untzi Museoa, Donostia.

Peix Geldart, B., 2013. Relaciones políticas y diplomáticas entre España y Suecia de 1931 a 1939. Universidad de Valladolid, Valladolid.

Roquero Ussía, M.R., 2013. El caso Idiakez: lengua, prensa y política en la II República. Boletín de Estudios Históricos sobre San Sebastián 46, 479-527.

Ugalde Solano, M., 1993. Mujeres y nacionalismo vasco: génesis y desarrollo de Emakume Abertzale Batza. 1906-1936. Emakunde, Bilbao.

Ugarte Telleria, J., 2009. El carlismo en la guerra del 36: la formación de un cuasi-estado nacional-corporativo y foral en la zona vasco-navarra. Historia Contemporánea 38, 49-87.

Urzainki Mikeleiz, A., 2010. Igeldo, un observatorio meterológico para el Golfo de Bizkaia. Eskuragarri hemen: https://www.divulgameteo.es/uploads/Igeldo-Bizkaia.pdf.

Sanz Goikoetxea, E., 2019. Zumaia 1936-1945: Giza Eskubideen urraketa eta errepresioa Gerra Zibilean eta Lehen Frankismoan. Aranzadi Zientzia Elkartea, Donostia.

Tellabide Azkolain, J., 2004. Usurbilgo baserriak eta baserritarrak. Noaua Kultur Elkartea, Usurbil.

Torrealdai Nabea, J.M., 1998. El Libro Negro del Euskera. Ttarttalo, Donostia.

## WEB-GUNEAK

Segurtasun-Saila. Hauteskundeetako emaitzen Agiritegia. Bigarren Errepublikako emaitzak.

## ARGAZKI FUNTSAK / FONDOS FOTOGRÁFICOS

Aranzadi Zientzia Elkartea, Donostia / Sociedad de Ciencias Aranzadi, Donostia.
Jesus Elosegi Funtsa. Aranzadi Zientzia Elkartea / Fondo Jesus Elosegi. Sociedad de Ciencias Aranzadi.
Pascual Marin Funtsa / Fondo Pascual Marin.
Indalecio Ojanguren Funtsa / Fondo Indalecio Ojanguren.
Kutxa fototeka: Gipuzkoa Donostia Kutxa, Donostia.

## AHOZKO-ITURRIAK

AHOTSAK.EUS:
-Sebastian Aranguren Ulazia, Paulo Argibe Uraola eta Jaxinto Isasti Aizpuru (GET-002/013)
-Sabina Azkue Fernandez (GET-010/029)
-Sabina Azkue Fernandez eta Eugeni Lazkano Ulazia (GET-010/005)
-Raimunda Basurto Lazkano eta Jesusita Manterola Larrañaga (GET-028/009)
-Juliana Eizagirre Osa (GET-026/014)
-Maritxu Ezenarro Idiakez (GET-017/002)
-Maria (Miren) Iruretagoiena Olano (GET-025/034)
-Juanita Isasti Otamendi (GET-016/011)
-Martina Olaizola Balerdi (GET-015)

DURANGO 1936 KULTUR ELKARTEA:
-Arantza eta Ankelo Usobiaga Larrañaga

ARANZADI ZIENTZIA ELKARTEA:
-Itziar Aizpuru Sustaeta eta Jon Elizegi Aizpuru
-Anuntxi Aranguren Burgaña eta Joxe Azkue
-Iñigo Aranberria
-Joxe Arregi Aranguren
-Joseba Andoni Arregi Oiarzabal, Jose Angel Kerejeta Urresti eta Antonia Burgaña Martija
-Gregorio Berasaluzeren alaba, horrela erregistratuta aurkitu dugu.
-Isabel Egurbide Oiarzabal
-Juan Eizagirre Ulazia
-Jose Mari, Mari Isabel eta Mari Karmen Ezenarro Errazkin
-Izaskun Ituarte eta Miren Agirrezabala
-Eugenio Kamio Uranga eta Nerea Kamio
-Bautista Kerejeta Urresti eta Guadalupe Arregi Berasaluze
-Gabina Martinez Luloaga
-Mari Karmen Mitxelena
-Kontxita Oiarzabal Idiakez
-Ibon Urbieta
-Eusebio Urresti Garmendia
-Arantza eta Ankelo Usobiaga Larrañaga
-Anita Uzin Albizu

## LIBURUAN ZEHAR ERABILITAKO LABURDURAK

Agiritegi, buletin eta erregistroak:

AGA: Administrazioaren Agiritegi Orokorra, Alcalá de Henares / Archivo General de Administración, Alcalá de Henares
AGMAV: Avilako Agiritegi Militar Nagusia, Ávila / Archivo General Militar de Ávila, Ávila
AGMG: Guadalajarako Agiritegi Militar Nagusia, Guadalajara / Archivo General Militar de Gudalajara, Guadalajara
GPAH-AHPG: Gipuzkoako Probintziako Artxibo Historikoa / Archivo Histórico Provincial de Gipuzkoa.
BPAH-AHPV: Bizkaiko Probintziako Artxibo Historikoa, Bilbo / Archivo Histórico Provincial de Bizkaia, Bilbao
AN: Nazionalismoaren Artxibo Historikoa, Bilbo / Archivo Histórico del Nacionalismo, Bilbao
APPSS: Donostiako Probintziako Presondegiko Artxiboa / Archivo de la Prisión Provincial de San Sebastián
AZEDB: Aranzadi Zientzia Elkarteko Datu-Basea
BO: Boletin Ofiziala / Boletín Oficial
BOE: Estatuko Aldizkari Ofiziala / Boletín Oficial del Estado
BOG: Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala / Boletín Oficial de Gipuzkoa
CDMH: Memoria Historikoaren Zentro Dokumentala, Salamanca / Centro Documental de la Memoria Histórica, Salamanca
GUA: Getariako Udal-Agiritegia / Archivo Municipal de Getaria
PARES: Artxibo Espainiarren Ataria / Portal de Archivos Españoles
RD: Errege Dekretua / Real Decreto

Instituzio eta legeak:

BBTT: Langileen Batailoia / Batallón de Trabajadores
BDST: Soldadu Langileen Batailoi Diziplinatzaileak / Batallón Disciplinario de Soldados Trabajadores
BDSTP: Soldadu Langile Zigortuen Batailoi Diziplinatzaileak / Batallón Disciplinario de Soldados Tranbajadores Penados
CPIB: Gipuzkoako Ondasunak Konfiskatzeko Batzorde Probintziala / Comisión Provincial de Incautación de Bienes
EG: Eusko Gudarostea / Ejército Vasco
EJ/GV: Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco
ICC: Kontzentrazio Eremutako Inspekzioa / Inspección de Campos de Concentración
TRRP: Erantzukizun Politikoen Eskualdeko Auzitegia / Tribunal Regional de Responsabilidades Políticas

Alderdi politikoak eta sindikatuak:

CNT: Confederación Nacional de Trabajadores
CEDA: Confederación Española de Derechas Autónomas
C. Trad.: Comunión Tradicionalista
EAB: Emakume Abertzale Batza
EAE/ANV: Eusko Abertzale Ekintza / Acción Nacionalista Vasca
EAJ/PNV: Eusko Alderdi Jeltzalea / Partido Nacionalista Vasco
ELA/STV: Euskadiko Langileen Alkartasuna / Solidaridad de Trabajadores Vascos
F.E.T. y de las J.O.N.S.: Falange Española Tradicionalista y de las Juntas de Ofensiva Nacional-Sindicalista
FP: Fronte Popularra
IR: Izquierda Republicana
JSU: Juventudes Socialistas Unificadas
PC: Alderdi Komunista / Partido Comunista
PRR: Partido Radical Republicano
PSOE: Partido Socialista Obrero Español
Ren. Esp.: Renovación Española
UGT: Unión General de Trabajadores
U.H.P.: Unión de Hermanos Proletarios

Beste laburdura batzuk:

BIA: Bizkaiko Itsasoko Armada (errepublikarra)
Fol.: orria / folio.

Oharrak:

Liburu honetan parentesi artean nondik atera diren ezartzen ez duten argazkiak, internet bidez lortu ditugu.

Getariako Udala

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputatu Nagusia
*Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritza Nagusia*
*Dirección General de Convivencia y Derechos Humanos*

Memoriaren,
Bizikidetzaren eta
Giza Eskubideen
Institutua
gogora
Instituto de la Memoria,
la Convivencia
y los Derechos Humanos

aranzadi
zientzia elkartea
SOCIEDAD DE CIENCIAS
SCIENCE SOCIETY
SOCIÉTÉ DE SCIENCES